

# 64

Urduliz: Euskal udalerri baten historia Bigarren Errepublikaren garaian  
Urduliz: La historia de un municipio vasco durante la Segunda República  
Koldo Somokueto Pérez







Urdulizko udala

Memoriaren,  
Bizikidetzaren eta  
Giza Eskubideen  
Institutua


*Gogora*

Instituto de la Memoria,  
la Convivencia  
y los Derechos Humanos

*Euskadi, auzolana, bien común*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

**Lankidetzan**



## Urduliz: Euskal udalerrri baten historia Bigarren Errepublikaren garaian

Urduliz: La historia de un municipio vasco  
durante la Segunda República



Azalaren argazkia / Fotografía Portada: Torre Barri, eraikinaren fatxadari lotutako mahatsondoarekin. 30. hamarkada. Dolores Bilbao Artetaren senideek lagatakoa / Torre Barri, con su parra adosada a la fachada del edificio. Cedida por familiares de María Dolores Bilbao Arteta

---

Urduliz: Euskal udalerrri baten historia Bigarren Errepublikaren garaian = Urduliz: la historia de un municipio vasco durante la Segunda República / Koldo Somokueto Pérez, (ed lit). – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2018.

608 or./p. : il. ; 24 cm. – (Lankidetzan ; 64)

ISBN: 978-84-8419-285-5

I. Somokueto Pérez, Koldo II. Bilduma III. Tit.

---

Eusko Ikaskuntzak eta Urdulizko Udalek eskertzen diete liburuki honetan parte hartu duten egileei eta, elkartearen tradizioaren arabera, haien irizpide eta uste guztiak errespetatzen dituzte, nahiz horrek ez duen esan nahi bereziki haietako ezein beren gain hart zen dutenik.

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y el ayuntamiento de Urduliz muestran su agradecimiento al autor que ha colaborado en este volumen y de acuerdo con su tradición, respetan todos sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que asuman en particular cualquiera de ellos.

---

ISBN: 978-84-8419-285-5

L.G./D.L.: SS-1392-2018

Inprimaketa eta koadernaketa / Impresión y encuadernación:  
Leitzaran grafikak – Andoain (Gipuzkoa)

## **AURKIBIDEA**

<b>AURKEZPENA</b> .....	<b>15</b>
<b>HITZAURREA</b> .....	<b>16</b>
<b>1. URDULIZ ERRESTAURAZIOAN</b>	
<b>ETA PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURAREN GARAIAN</b> .....	<b>21</b>
1.1 Alderdi sozio-ekonomikoak .....	23
1.2 Politika .....	27
1.3 Primo de Riveraren diktadura .....	47
<b>2. ERREPUBLIKA, GERRA ZIBILA HASI ARTE</b> .....	<b>55</b>
2.1 Bizitza politikoa .....	57
2.2 Ideologiak eta alderdi politikoak .....	107
2.3 Egitura eta gatazka soziala .....	159
2.4 Ekonomia .....	191
2.5 Hezkuntza, kultura eta osasuna .....	227
<b>IRUDIAK</b> .....	<b>283</b>
<b>DOKUMENTUEN GEHIGARRIA</b> .....	<b>577</b>
Artxiboak .....	600
Bibliografia .....	602
Urtekariak .....	604
Prensa historikoa .....	605
Ahozko testigantzak .....	605





## ÍNDICE

SALUDO .....	303
PRESENTACIÓN .....	305
PRÓLOGO .....	306
<b>1. URDULIZ DURANTE LA RESTAURACIÓN Y LA DICTADURA DE PRIMO DE RIVERA .....</b>	<b>311</b>
1.1 Aspectos socio-económicos .....	313
1.2 Política .....	317
1.3 La Dictadura de Primo de Rivera .....	337
<b>2. LA II REPÚBLICA HASTA EL COMIENZO DE LA GUERRA CIVIL .....</b>	<b>345</b>
2.1 Vida política .....	347
2.2 Ideologías y partidos políticos .....	398
2.3 Estructura y conflictividad social .....	451
2.4 Economía .....	484
2.5 Educación, cultura y salud .....	520
<b>IMÁGENES .....</b>	<b>283</b>
<b>APÉNDICE DOCUMENTAL .....</b>	<b>577</b>
Archivos .....	601
Bibliografía .....	602
Anuarios .....	604
Prensa histórica .....	605
Testimonios orales .....	605



Koldo Somokueto Pérez

## Urduliz: Euskal udalerrri baten historia Bigarren Errepublikaren garaian





## AGURRA

Sarri askotan, historiako jazoera handietan pentsatzen dugunean, horien eragina gertakari ezagunenetara murrizteko akatsa egiten dugu. II. Errepublikak bezain garai gorabeheratsuan, interesa eztabaida politikoan, hauteskunde prozesuetan edo Autonomia Estatutuaren nondik norakoetan zentratu ohi da.

Hala ere, urte horietan, Euskal Herriko herrietako eguneroko bizimoduak ere jaso zuen eragina. Administrazio ereduaren aldaketak eta II. Errepublikaren iritsierak eragin zuzena izan zuten pertsonengan, egunero, euren ametsak eta itxaropenak betetzeko helburu bakarrez euren lanei ekiteko altxatzen zirenengan –gaur egun guk egiten dugun bezala–. Urduliz ez zen salbuespena izan.

Horregatik hain zuzen ere, eta garai hori ezagutu zuten pertsonen oroimen bizia itzaltzen ari delako, inoiz baino beharrezkoagoa da garai horren toki mailako ikerketa bultzatzea. Bizirik iraun dezan eta etorkizuneko belaunaldiei uzten diegun ondarearen parte izan dadin.

Lan honek modu berezian irudikatzen du izpiritu hori. Urduliz, euskal udal baten historia bigaren errepublikan zehar –eta Gerra Zibilaren garaiari dagokion jarraipena– zorroztasun osoz egindako gertuko lana da, historiara –gure historiara– zuzenean eta zehaztasunez hurbiltzen gaituena. Gure eskuetan dago orain proposatzen digun erronkari erantzutea: garai hartako urduliztarren bizitzan eta II. Errepublikak ekarri zituen eta itxaropenez eta ezustez beteta egon ziren aldaketarako promesa haietan murgiltzea.

Javier Bilbao  
*Urdulizko alkatea*



## **AURKEZPENA**

Bigarren Errepublikatik Gerra Zibila bitarteko epealdia, 1931ko apirilaren 14tik 1939ko apirilaren 1era, izan da Udalak eskatuta Urdulizko historian ikertu den denboraldia. Egindako lanaren emaitza da esku artean daukazun liburua.

Garai asaldatuak, bi mundu gerren artean, Espainia diktadura batetik ateratzen, gaizki kudeatutako errejimen monarkiko batetik, eskasia ekonomikoa sufritzen duten familiekin, analfabetismo indize ikaragarrieekin, jazarpena ezberdin pentsatzeagatik, gerra zibil odoltsu bat eta buelta berriz beste diktadura batera. Errealitate hau Urdulizko egunerokotasunean nabari da eta bizitako errealitate horren gertaerak biltzen ditu liburu honek, tokiko, nazioko eta estatuko artxibo ezberdinetan aurkitutako dokumentazioak beti bermatutako informazioarekin.

Orriz orri zerrendatzen dira datu ekonomikoak, sozialak eta politikoak, ikertzen den uneko gertaera esanguratsuak eta herriko pertsonen izen propioekin aurkitzen gara, arrazoi batengatik edo besteagatik Urdulizko jazoeretan eragin zutenak.

Guzti honek egiten du interesgarri gure iraganaren irakurketa, gure historiarena.

2013an sinatu zen Urdulizko udala eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmena; helburu nagusietakoa zen udalerriko historiaren ikerketa. Ikerketaren epealdia finkatu zen eta bi helburu ezarri. Lehena, garai horretako Urdulizi buruz egungo jakintza historikoan zegoen hutsunea betetzen laguntzea. Horretarako ikuspegi objektibo bat eman da, ikertutako epealdi historikoko iturrietan oinarrituta, garaia bizi izan zuten urduliztarren aho-testigantzak jaso dira, eta hala, memoria historikoaren mantentze lanean jardun da, aztertutako garaia hobeto ezagutzeko dokumentazio ezezaguna iritsi delarik. Bigarren helburua zen, azkenik, ikerketaren emaitzak argitaratutako monografia batean azalartzea.

Ikerketa Koldo Somokueto Pérezek egin du, Historian lizentziatutako urduliztarra. Begi onez eskatu zion Eusko Ikaskuntzak lana burutzeko, Historian Doktorea eta EHUko katedraduna den Ludger Meesen gidaritzapean. Hainbatetan agertu diot nire esker ona proiektu hau zuzentzea onartzeagatik, eta berriz ere egin nahi nuke. Eskerrik asko, Ludger.



Ludger Meesek ohartarazi du ikerketa motz geldi litekeela ez bada Urdulizko kasua testuinguru zabalago batean kokatzen. Horregatik, funtsezkoa da proposatutako lanaren zati bat II. Errepublikan zehar eta Euskadin eta Estatuan gerra bitarte zegoen errealitate historikoaren azterketari eskaintzea; gainera, ahal den neurrian behintzat, beharrezkoa da beste udalerrri bizkaitar edo euskaldunen adibideekin kontrastatzea, jakin ahal izateko zein neurritan koka dezakegun Urdulizko prozesu historikoa eredu zabalago baten barruan eta zeinetan dauzkan berezko ezaugarriak.

Behin jorratu beharreko bidea zehaztuta, ikerketa lanak hasi ziren.

Agerian jarri nahi nuke Koldo Somokueto Pérez gorputz eta arima aritu dela ikerketa lan hau burutzen. Bere ofizioa maite du eta Urdulizekiko grina berezia dauka. Guzti honen ondorio da daukagun emaitza zoragarria.

Eskertzen diot autoreari ni bere lorpenen eta ilusioaren parte egin izana ikerketak aurrera jo ahala. Ohorea da bere libururako hitz hauek idazteko egin zidan proposamena.

Egundokoa urduliztarren esfortzua; animatzen ditut beren Udaletxea lagundu dezaten beren iragana ikertzen jarraitzeko. Eta ikaragarria ere orain arte eginiko lana, liburu honen irakurketa interesgarri egiten duena. Nire herriaren, Urdulizen, historia hutsa da.

Josemari Gondra Arrizabalaga  
*Urduliz, 2018ko maiatza*

## **HITZAURREA**

2013. urtean, Urdulizko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak beka bat bultzatu zuten, Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean Urdulizek bizi izan zuen historia ikertzeko asmoz. Urte biko epea hitzarturik, lana abian jarri zen Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaikidean katedradun den Ludger Meesen gidaritzapean. Hala eta guztiz ere, topatutako dokumentazio kopurua pentsatu baino handiagoa izan zen, eta luzapen bat behar izan zuen ikerketa amaitzeko denborak. 450 orrialdeko eskuizkribu batera bildu zen azken emaitza. Hasierako proiektuan aurreikusita zegoen testu hori euskaraz eta gaztelaniaz argitaraturiko liburu bakar batean agertuko zela, baina ideia hura bertan behera utzi behar izan zen, emaitza handiegia gertatuko baitzen, irakurlearentzat erabiltzen zaila. Horregatik erabaki zen berezita argitaratzea 1931-1939ko epealdiari buruzko azterlan hau osatzen duten bi zati handiak.

Liburuki honek Urdulizko elizatearen 1931-1936 bitarteko bilakaera historikoa jasotzen du, Bigarren Errepublikari dagokiona, beraz. Ikerketaren lehen pausuetan oso argi izan genuen, orokorrean behintzat, ez geniola lanari eskusiboki tokiko ikuspegi bat eman nahi, horretan erortzea, maiz, erraza izan arren. Aztertutako aldian, estatu, probintzia eta eskualde mailako gertaera garrantzitsuek itxuratu zuten, neurri handi batean, Urdulizen bilakaera; hain zuzen ere, gertaera horietan oinarritu da kontakizunaren eraikuntza. Eredu hurbilenari, eskualde mailakoari, pisu handia eman zaio, hala ere. Horrela izan da Urdulizek eta inguruko elizateek ezaugarri komunak partekatatu zituztelako, hala nola abertzaletasunaren nagusitasuna gainerako joera politikoen aldean, errepublikanismoaren presentzia oso ahula, edo katolizismo indartsuaren itzala. Bestalde, argiak dira herrien eta Plentziako hiribilduaren arteko aldeak, non, nahiz eta abertzaletasuna gehiengoa izan, errepublikano eta kontserbadoreek presentzia handiagoa zuten. Ekonomikoki, aurkitzen ditugun herriak lurrik ematen zientetik bizi ziren ia erabat. Haatik, jada ez ziren XIX. mendeko landa gizarte isolatuak, edo gaizki komunikatuak. Trenbidearen etorrerak, XIX. mendearen amaieran, egoera hori apurto zuen eta, dudarik gabe, bizitasun handiagoa eman zien eskualdeko herrien arteko harremanei, baita Bilborekikoei edo itsasadarreko herriekikoei ere. Garraibide berriaren ezarpenak ondorio argiak ekarri zituen ekonomian: animaliek tiratutako gurdi sistemaren aurrean, trenak baserriko produktuen irteera azkarragoa ekarri zuen, noiz eta hiri merkatuen aldetik produktu hauen eskaria goraka zihoanean eta baserriko ekonomia beratu asetzerantz bideratua zen momentu batean. Era berean ahalbideratu zuen urduliztar batzuek lanpostua aurkitzea Bilboko itsasadarreko industria eremuan. Politikaren alorrean, trenbideak erraztu zuen ideia politikoen zabalkundea, bereziki abertzaletasunarena, esan dugun moduan, nagusi baitzen eskualdean. Zentzu horretan esan genezake trena elkarte abertzale desberdinen arteko kohesio faktore izan zela, eta ondorioz, lagundu zuela abertzaletasunak sustatu zuen “komunitate” ideia horren eraikuntzan.

Eskualde-esparrutik heldu zaie, orobat, Bigarren Errepublikaren garaian piztu ziren auzi desberdinei: erlijioaren edo Estatutuaren inguruko gatazka sozialak, hauteskunde prozesuak, euskararen egoera. Kontakizun hau harilkatzeko, garaiko prentsak berebiziko garrantzia izan du, bereziki *Euzkadi* eta *El Liberal* egunkariak. Duda barik, goraiatu behar ditugu José Brotons *Txiberrik* garai errepublikarrean egunkari *jeltzalean* idatzitako herriko kronikak. Bestalde, *El Liberalen* argitaratutako artikulak dira Urdulizko eta inguruko herrietako errepublikazaletasunaren ibilbidea berreraikitzeo ia iturri bakarra.

Urdulizko Udal Artxiboari dagokionez, dokumentazioa aztertzerantz abiatu ginenean, katalogatu bako 8 kaxak osaturik zegoen “Historikoa” deritzon sekzioa. Dokumentuen jatorriaren aipamena egiterakoan, Artxiboan kaxa hauek zer ordenatan kokatuta zeuden, horrexerri jarraitu diogu. Hala ere, adierazi nahi dugu azken boladan lau kutxak ordezkatu dutela, zuzen asko, 1. Kutxa, dokumentuen kontserbazio egokiaren mesedetan.

Beste alde batetik, abizenen grafia errespetatu da dokumentazioan ageri den bezala, ikertutako denboraldi historikoari dagozkion termino batzuen forma mantendu den modu berean, hala nola, *Euzkadi* edo *euzkera*. Herri eta eskualdeei dagokienez, egungo izen ofizialak erabiltzea erabaki da.

Eskerrak ematen hasterakoan, Urdulizko Udala eta Eusko Ikaskuntza daude lehenik, ikerketa historikorako beka hau sortzeagatik, nire lehenengo lana historialari moduan. Bereziki eskerrak eman nahi nizkioke José Mari Gondra zinegotzi ohiari, ikerketa honen sustatzaile nabarmena izateagatik. Esperientzia honetan pribilegio handia izan da lanaren zuzendaritzan EHUko katedradun Ludger Mees edukitzea; ezin nabarmendu barik utzi haren tratu atsegin eta gertukoa, haren eroapen handia eta proiektuan zehar suertatzen ziren era guztietako zalantzak argitzeko prestutasun osoa.

Bigarrenez, eskerrak eman nahi dizkiet euren denboraren parte bat ahozko testigantza ematen erabili duten guztiei. Gehienak urduliztarrak dira, eta ikerketa aberastu egin dute eta bideratu egin gaituzte dokumentazio desberdina bilatzeko unean. Nahiz eta testigantza gehienak Gerra Zibilari eskainitako liburukian bilduta dauden, hitzaurre hau aprobetxatu nahi dut guztiak aipatzeko: Benita Egusquiagirre, Teresa Bilbao, Luis Trebolazabala (G.B.), José Antonio Bilbao alkate ohia (G.B.), Sabin Unibaso alkate ohia (G.B.), Sabin Brotons, Patxo Ibargaray, Jesús Unibaso (G.B.), Juan Otegi, Miren Sagarna eta Matilde Aresti. Akaitze Kamiruagaren eta nire aitaren laguntza zinez preziatuaz baliatu naiz testigantzen bilaketan eta bilketan. Jose Antonio Pérezi ere eskerrak eman nahi dizkiot elkarrizketa batzuk egiteko ikus-entzunezko materiala uzteagatik.

Lan honetarako ahozko lekukotasunen ekarpena ezinbestekoa izan bada, ezin dezakegu gutxiagorik esan honako lagun hauek argitalpen honetarako eskuzabal utzi dizkiguten argazki zahar eta, gehienak, ezezagunei buruz: Estrade-Arluzea familia, Javier Ozamiz, Ugarte-Zarraga familia, Kamiruaga-Garitaonandia familia, Nere Legarra, Edurne Garaizar (G.B.), Miren Unibaso, Brotons familia, Benita Egusquiagirre eta familia, Sagarna familia, Akaitze Kamiruaga, María Dolores Bilbao Artetaren familia (G.B.), eta Leles Ansoleaga. Guztiei, mila esker. Eta noski ezin aipatu gabe utzi Noelia Gonzalez Urdulizko "Egan Fotografía & Diseño-koa argazkilariaren lan aparta argazkiak digitalizatzen eta zaharberritzen.

Gerra Zibilari eskainitako liburuan sartu ditugun hainbat argazki emateaz gain, aipaturiko Juan Uribek bere arbaso José Domingo de Uribe y Elorduy urduliztarrak 1874an idatziriko testu argitaragabe baten ekarpena egin zuen, XIX. mendeko Urdulizko eguneroko bizitzari buruzko datu interesgarriak ematen dizkiguna.

Ezin dut ahaztu José Brotons *Txiberrik Euzkadi* egunkarian idatzitako euskarazko testu batzuen gaztelaniazko itzulpen lan ordainezina. Zeregin horretan nabarmendu nahi ditut, lehenik, Roberto Uriarte, egiteko horri hainbeste denbora eta hain eskuzabal eskaini ziona, Akaitze eta Mariñe Kamiruaga ahizpak, hainbat zalantza argitzen lagundu baitzidaten; eta, azkenik, Gotzon Batikon. Eskerrik asko guztioi! Bestalde, nire esker ona luzatu nahi nieke EHUko Historia

Garaikideko Departamentuko mikrofilmazio laborategiko Juan Carlos Pérezi, Jon Pencheri eta dokumentazioa bildu den artxibo desberdinetako langileei, beren prestutasun eta arreta paregabeagatik. Profesional hauetarik bakar bat ere gutxietsi nahi gabe, bereziki nabarmendu nahi nituzke Bizkaiko Eliz Artxibo Historikoko Cristina eta Ferrolgo Artxiboko Esther; Urdulizko Erregistro Zibileko langileak ahaztu barik, bertan egin nituen kontsulta kontaezinekin eduki zuten pazientziagatik. Norbait aipatu gabe uzten badut, bihoakio, lerro hauetatik, nire barkamen zintzoena.

Azkenik, eskerrak eman nahi nizkieke nire gurasoei, hain pazientzia handia erakusteagatik lan honi emanda iratzarrik pasa ditudan gau guztiek egun argiz ekarri duten ordutegi anarkikoekin. Bai haiei, eta baita familiari eta lagunei ere, mila esker ikerketaren une korapilatsuetan eman dizkidazuen babes eta animoengatik, ez dira gutxi izan-eta.



# **1. URDULIZ ERRESTAURAZIOAN ETA PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURAREN GARAIAN**





## 1.1 Alderdi sozio-ekonomikoak

*“(...)Urduliz cuenta en la actualidad con 728 habitantes dedicados casi en su totalidad a las faenas agrícolas. Aunque sus viviendas, caseríos en gran parte, se hallan bastante diseminados unos de otros, van concentrándose hasta formar un núcleo de consideración, las casas de labranza y particulares, villas de recreo, etc. etc. constituyendo el pueblo al rededor (sic) de la gran Plaza “La Campa” en cuyo fondo se eleva la Iglesia Parroquial, y en las proximidades de la estación, correspondiente a la línea de Bilbao a Plencia.*

*La importancia principal, más que como pueblo agrícola y pintoresca estación veraniega, la debe al continuo tránsito, por hallarse emplazado en el cruce de las dos carreteras de Plencia a Bilbao una por Asua y otra por Bilbao.*

*Esta última se prolonga hasta Butrón cuyo castillo tan famoso en la historia de Bizcaya (sic), acertadamente restaurado por el Arquitecto Marqués de Cubas, constituye un valioso documento artístico que unido a su delicioso emplazamiento, constituye un atractivo constante para turistas y veraneantes que lo visitan con frecuencia en sus excursiones artísticas y de recreo. (...)”*

*(Memoria del Proyecto de abastecimiento de aguas a la villa (sic) de Santa María de Urduliz. 1907)<sup>1</sup>*

Deskribapen honek adierazten digunez, Urdulizek, XX. mendearen hasieran, nekazaritzari lotutako herria izaten jarraitzen zuen ia-ia erabat. Nahiz eta alderdi gehienetan udalerrriak XIX. mendean jarraitzen zuela baieztatu dezakegun<sup>2</sup>, ikuspegi hori ez da erabat zehatza.

Urdulizko Elizateko landa itxura tradizionala ia aldakuntzarik gabe mantendu zen 1893an garrantzi handiko gertaera bat bizi izan zuen arte: Hareetatik Plentziara heldu zen trenbidea. Garraiobide berriak, duda barik, pizgarri izan zen gurutzatzen zituen herrientzat: adibidez, murriztu egin ziren Bilborainoko eta Abrako herrietarainoko distantziak, eta horrek landa-eremu honen betiko isolamendua apaldu. Ordura arte, Elizateko bide eta errepede sistema zaharkitua

1 URDULIZKO UDAL ARTXIBOA (U.U.A.) “Historikoa”, 5. kaxa.

2 ITURBE MACH, Ander: *Monografías de pueblos de Bizkaia: Gatika, Laukiz, Maruri y Urduliz*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1993: 118-124.



zegoen, nahiz eta hobekuntza batzuk egin; esate baterako, urte batzuk lehentxeago Urduliz eta Plentzia arteko errepidea (1885ean, Manuel Azcaratek dio “*berriki*” egina zela). Hala ere, Azcaratek berak nabarmendu zuen Urduliz eta Butroeko arteko bidea “*estua eta oso txarra*” zela eta horrek zaildu egiten zuela Butroeko gazteluko obretarako harria garraiatzea Urdulizko harrobietatik<sup>3</sup>.

Trenbideak Elizateko nekazari izaera aldatu ez bazuen ere, bai erraztu zuela urduliztar batzuen irteera Bilboko itsasadarreko ertz bietako industriako lanpostuetara. Beste alde batetik, Bilborekiko komunikazioen hobekuntzak on egin zion Urdulizko, Sopolako edo Berangoko nekazaritza jarduerari, herri hauek erantzuten hasi baitziren hiriburu bizkaitarraren edo Hareetaren “*salgai galkorren eskaerari*”<sup>4</sup>. Alde horretatik, azpimarratzekoa da, besteak beste, zelan behi esnea eta baratzeako produktuak irteten hasi ziren, trenaren bidez, merkatu horiek asetzera. Baserrietako ekoizpenean aldaketak abiatuak ziren; garraio bide berriak nabarmen bizkortu zituen aldakuntza horiek. Ekoizpena hiritik eskatzen ziren produktuetara berbideratu zen, errentagarritasun handiagoa eskaintzen zuten-eta. Modu horretan, adibidez, behi-aziendek gora egin zuten, eta, ondorioz, haien bazkalekuen azalera ere bai.

Azkenik, baina ez azken, trenbideak irteera arinagoa eman zien bertako eraikuntza material nagusiei: udalerriko harrobietako harea eta harearria, historikoki maiz aipatu izan direnak XIX. mendean haietatik erauzi zelako Butroeko gaztelua eraikitzeako materiala<sup>5</sup>. Badakigu, bestalde, 1918ko erdialdean handia zela Urduliztik trenez ateratzen zen harea eta harri kopurua; orduko alkateak, Juan Aranbalzak, honela adierazi zuen: “(...) *aspalditik ikusten gabiltza zelan esportatzen diren zernahi hare-bagoikada industrietan erabiltzeko, eta harria eraikuntzetarako, udal mugarte honetako zenbait harrobitatik aterata*”. Horregatik, Udal Batzarrari proposatu zion 1919ko urtariletik aurrera honako hau ezartzeko: “(...) *hirurogei zentimoko zerga behin eta berriz aipatutako material horietatik esportatzen den bagoikada bakoitzeko; bide horretatik, Udalaren diru-kutxak sarrera iturri ohiko bat edukiko du, herritarren auzo-partea jaitziko duena*”. Zerga hau sortzeko ideia aho batez onartua izan zen eta, aurrera eramateko, erabaki zuten “(...) *Diputazio probintzial txit gorenari beharrezko baimena eskatzea eta, noski, ahal bezain lasterren akordio hau tramitatzea*”<sup>6</sup>.

---

3 ITURRIZA Y ZABALA, Juan Ramón y AZCARATE REGIL, Manuel: *Historia General de Vizcaya*, I. ATALA in *Antiguos Recuerdos de Vizcaya*, Bilbo, Editorial Amigos del Pueblo Vasco, 1985, V. liburukia: 404.

4 MACÍAS MUÑOZ, María Olga: “*Ferrocarriles y modelos económicos en el País Vasco: Vizcaya (1864 –1936)*”, VI. Trenbidea Historia Batzarreko ponentzia, 2012ko irailaren 5a - 7a, Gasteiz: 21-22.

5 ITURRIZA y AZCARATE, V. liburukia: 394.

6 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1917-1922ko Akta Liburua, 1918-7-27ko Bilbura Berezia.

1888an trenbidea proiektatu zenean, garrantzi handia eman zitzaizkien, besteak beste, Uribe Kostako eskualdetik eskuratzen ziren lehengaiei, azpiegitura honen eraikuntza eta bere errentagarritasuna justifikatzeko. Urdulizen kasuan, trenbidearen eraikuntzaren Proiektuaren Memorian, igeltsu fabrika bat aipatzen zen<sup>7</sup>. Fabrika honi buruz aurkitu dugun erreferentziarik zaharrena 1886koa da, eta hartatik badakigu “(...) *On Jose Goirigolzarriem eta Konpainiaren fabrika*” igeltsu harrobi batetik “*berrogei eta hamar bat metrotara*” kokatuta zegoela, non ur putzu bat zegoen, dena fabrikaren jabetza<sup>8</sup>. 1910eko deskribapen bati esker badakigu fabrikak bazituela “(...) *lurrun-galdara bat, 35 zalditako makina eta hari zegozkionak*”<sup>10</sup>. Industria-instalazioak “(...) *langile kopuru txiki*”<sup>11</sup> bati ematen zion lan, seiri 1909ko hasieran<sup>12</sup>. 1907ko abuztu aldera, delako Goirigolzarri haren jabetza izaten jarraitzen zuen, Udal Artxibategiko akta liburuetan agertzen den

- 
- 7 V.V.A.A.: Plentzia – Azterlanak – Estudios, II. gehigarria: “*Proyecto de Ferrocarril de Vía Estrecha de Las Arenas a Plencia. Memoria que acompaña al proyecto entregado en el Ministerio de Fomento al solicitar la concesión del expresado ferrocarril. Año 1888*”. (Faksimilea). Bilbo, Plentziako Uri Udala, 1985.
- 8 José Goirigolzarri Zaldouondo, hargina lanbidez, sopoloztarra jaiotzez. 1876ko irailaren 2an ezkondu zen Rosa Arambalza Orbeta urduliztararekin. Zortzi seme-alaba izan zituzten, besteak beste Pedro Goirigolzarri, Urdulizko alkate nazionalista 1931tik 1934ra bitartean. Alabetako bat, Manuela Goirigolzarri Arambalza, Vicente Amezaga Zurbano urduliztararekin ezkondu zen 1913ko abenduaren 14an, *Euzkadi* egunkariak 1913-12-15ean kontatu zuen legez. Egunkari abertzaleak ezkontza horri eskaini zion artikulua irakurrita antz ematen zaio Goirigolzarri Arambalza familiaren gizarte mailari: “(...) *La novia lucía lujoso traje negro de seda, ostentando sobre su pecho la simbólica flor de azahar. Después de la ceremonia se dirigieron los numerosos invitados al domicilio de D. José Goirigolzarri, padre de la novia, donde se sirvió una suculenta comida, en la que se derrochó alegría y buen humor. Los desposados, que recibieron muchas felicitaciones, salieron en el tren de la tarde con el fin de recorrer algunas poblaciones del extranjero*”.
- 9 A.H.F.B. JCR 4182/016, *Causa promovida de oficio por el Juzgado de Instrucción de la Villa de Bilbao sobre el hallazgo de un hombre sin identificar en un pozo de la cantera de yeso próxima a la fábrica de “José Goirigolzarri y Compañía”, jurisdicción de la Anteiglesia de Urduliz 1886-2-6 / 1886-3-13*. 1886ko otsailaren 6an, goiz-goizean, Sopolako bizilagun bik, Andrés de Goirigolzarri eta Francisco de Menchacak, igeltsu-harrobian beharrea zebiltzala, ezustean ikusi zuten “(...) *zer bat ur gainean, gorpu bat, antza, harrobian bertan dagoen putzuan*”. Atoan, Udal Epaitegira jo zuten jazoera salatzen. Handik abiatu ziren Juan León de Basañez udal epailea eta José Luis de Larrañaga udal medikua, eta eurek atera zuten gorpua eta inguruak miatu, zantzu bila. Hilotza 24 orduz ipini zuten jendaurrean, nor ote zen ikastearren eta gertatutakoa argitzeko datuak jasotzearen. Gorpuaren ikuskapena Urdulizko hilerrian egin zuten bertako medikuak eta Sopolakoak, José María Gorroñok, eta horren ondorioa izan zen ez zuela “(...) *kolpe edo zauri arrastorik batere*”. Orobat zehaztu zuten heriotza “(...) *hiru-lau aste lehenago*” jazo zela. Usteltze prozesua hain zegoen aurreratuta ezen, bi sendagileen iritzian, ezinezkoa baitzen autopsia egitea. Otsailaren 8an, udal epaileak agindu zuen hilotza lurperatzeko, haren egoera txarra aintzat hartuta. Bake Epaileko Zenduen Liburuan geratu erregistratuta, “*Cadáver hallado en la Cantera de Yeso de Don José de Goirigolzarri y Compañía*” izenburupea, gertatutakoaren kontakizunarekin eta hildakoaren arropen deskribaketarekin batera. Ez zuten nor zen eta zer jazo zen jakitea lortu.
- 10 *El Noticiero Bilbaíno* 1910-9-7.
- 11 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Libro de Actas de la Junta Local de Reformas Sociales de esta Anteiglesia de Urduliz*, 1910-11-20ko bilera.
- 12 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Libro de Actas de la Junta Local de Reformas Sociales de esta Anteiglesia de Urduliz*, “Bilboko Barruti Judizialeko Industria Epaitegia osatzeko udal mugarte honetan inskribaturik dauden Hautagaien Zerrenda”, 1909-2-22. Zerrenda horretan igeltsu fabrikako sei beharginen izenak agertzen dira: José Antonio Ansoleaga Arrieta, Juan Eugenio Arteta Mardaras, Juan Bautista Echegaray Menchaca, Benigno Lopategui Unibaso, Ángel Zabala Zubiaga eta Antonio Zabala Arrizabalaga.

moduan: “(...) José Goirigolzarri jaunaren konpainiaren igeltsu fabrikako lanaren ikuskapenerako”<sup>13</sup>. 1908an fabrikak José Goirigolzarriarena<sup>14</sup> izaten jarraitzen zuen, urte haren amaieran “(...) herriko igeltsu fabrikako (...) nagusi bakar”<sup>15</sup> moduan agertzen zela. 1909ko maiatzean, ostera, igeltsu-ola urduliztarra *Viuda e Hijos de Luis Castillo* fabrika multzoaren parte bihurtuta topatzen dugu, eraikuntza materialetan ziharduen enpresa, bera<sup>16</sup>; haren bandera-ontzia *Tubería Bilbaína* zen, hodian eraikuntzan jarduten zuena (“*Espanian egiten den onena*” garaiko publizitatearen esanetan<sup>17</sup>). 1910ean, igeltsu-olak ateak itxi zituen eta salgai jarri zen, irailean *El Noticiero Bilbaíno*n agertu zen iragarki batek erakusten duen legez. Proposamenak onartzen ziren “*hura osorik nahiz lotetan bananduta erosteko*”<sup>18</sup>. Ez dakigu nola gauzatu zen salmenta, baina argi dago erosleak edo erosleek ez zutela instalazioa berriro ireki, ezpada eraitsi: 1915aren hasieran, lan-ikuskaritzaren Akta Liburuan jaso zen moduan, fabrika ez zen jada existitzen<sup>19</sup>. Haren desagerpenaren ondorioz, betiko irin-errotak, beste industriarik ez zen Urdulizen geratu harik eta Mecánica de la Peña etorri arte XX. mendearen erdialdean.

- 
- 13 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, *Libro de Actas de la Junta Municipal de Sanidad. Nota del alcalde Juan Manuel de Zarraga certificando el uso del libro para la inspección del trabajo en la fábrica de yeso establecida en Urduliz 1907-8-7*. Liburu horri eman zitzaion lehenengo erabilera izan zen laneko ikuskaritzan ibiltzen zen Gizarte Erreformen Batzarraren aktak biltzea. Hala eta guztiz ere, 1915eko urtarrilaren 1ean, Batzar hori ezta igeltsu fabrika ere existitzen ez zirenez, erabaki zen liburu hori ez zela “(...) *helburu horretarako*” behar, eta, geroxeago, urtarrilaren 15ean, birziklatu Udaleko Osasun Batzarreko Akta Liburua izan zedin.
- 14 *Anuario Riera 2. zk.*, 1908: 1745.
- 15 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Libro de Actas de la Junta Local de Reformas Sociales de esta Anteiglesia de Urduliz, 1908-12-3ko bilera*.
- 16 *Mercurio, Revista Comercial Ibero-americana*, IX. urtea, 90. zk., Bartzelona 1909-5-1: 22. “*Tienen fábrica de cal hidráulica en Zumaya, fábrica de yeso en Urduliz y cuentan con unos vastos almacenes de cemento «Portland», tablas de Francia y toda clase de materiales de construcción*”.
- 17 *El Noticiero bilbaíno 1911-2-9*.
- 18 *El Noticiero Bilbaíno 1910-9-7*.
- 19 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, *Libro de Actas de la Junta Municipal de Sanidad, 1915-1-1ean egindako oharra*: “*Nota: No existe en este pueblo Junta de Reformas Sociales, ni tampoco la fábrica de yeso, por lo que no es necesario el libro para el objeto indicado. Urduliz 1º Enero de 1915*”.

## 1.2 Politika

### 1.2.1 Sistema politikoa eta hauteskundeetako emaitzen azterketa

Hasi aurretik, esan beharra dago atal honen helburua ez dela Errestaurazioaren sistema politikoa buruzko azterketa sakonik egitea, baina bai dela komenigarria bereizgarri izan zituen hainbat elementu azpimarratzea.

Hasteko eta bat, boto eskubidea nabarmen mugatuta zegoen. Alde horretatik, etapa bi bereizi behar dira. Lehenengoan, 1876tik 1890ra bitartean, errolda-sufragioa zegoen indarrean, hau da, botoa eman zezaketen 25 urtetik gorako gizonak soilik, ahalmen profesional eta ekonomikoa edukiz gero. Bigarrean, 1890etik 1923ra bitartean, sufragio unibertsala ezarri zen, mugatua hala ere, gutxienez bi urtez bertan bizitzen zeroaten 25 urtetik gorako gizon guztiek zuten-eta boto eskubidea, kanpoan utzirik biztanleriaren portzentaje handi bat: emakumeak eta gazteak<sup>20</sup>.

Errestaurazioaren sistema politikoa ezaugarriak behinena hauteskundeetako ustelkeria izan zen, alegia, ustelkeria *“amaigabe eta zabaldua”*<sup>21</sup>, barne zituena boto erosketa, *“bolilleo”*<sup>22</sup> delakoa, bortxa edo bortizkeria. Alde horretatik, kazikearen figura funtsezkoa zen ustelkeriaren makineriak funtziona zezan.

Zehazki Urdulizi dagokionez, nabarmentzekoa da hauteskunde guztietan ez zegoela barruti beraren barnean: Diputatuen Kongresurako hauteskundeetarako Barakaldoko Barrutiaren baitan zegoen; Aldundirako hauteskundeetarako, berriz, Bilboko Barrutiaren barruan.

Bilboko Barrutiko hauteskundeetako ustelkeriari buruz Javier Real irakasleak dio 1891ko hauteskunde orokorretan gertatu zela botoen lehenengo erosketa masiboa. Ustelkeria honen erdigunean Bilboko Batzorde Liberala zegoen, burgesia dinastiko tradizionalak 1881ean sortutakoa udal hauteskundeak abiatu zirenez gero, hauteskunde prozesuak kontrolatzeko asmo argiarekin. XIX. mendeko 80ko hamarkadan boto erosketa egon zen, baina ez handia tamainaz, ezta erabilitako diruaren aldetik ere. Esate baterako, Laukizen, 1882an, *“(…) alkateak eta idazkariak (...) Batzorde Liberalari 600 errealeko kontua aurkeztu zioten, Fermin Arnedo hautagaiaren alde 35 boto lortzeagatik probintziako hauteskundeetan”*. Horrez gain, ohitura zegoen landako boto-emaleei bazkari baten oparia egiteko

20 REAL CUESTA, Javier: *Partidos, elecciones y bloques de poder en el País Vasco 1876-1923*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1991: 124-125.

21 *Ibid.* 134. or.

22 *“Bolilleoa”* zen lehenengoz botoa norberaren izenean ematea eta gero bi edo hiru gehiagotan hildakoan, kanpoan zeudenen edo botorik eman behar ez zutenen izenean.

bozketen egunean<sup>23</sup>. Aipaturiko 1881eko udal hauteskunderen ostean, Batzorde Liberala lan betean ibili zen, baita sei udalerrri bizkaitarretan tokiko batzordeak sortu ere, Plentzian besteak beste<sup>24</sup>.

1891ko hauteskunde orokorrek aukera ematen digute Batzorde Liberalak erabiltzen zuen *modus operandi*az xehe-mehe jabetzeko; haren hautagai-zerrendan Eduardo Vitoria de Leceak egiten zuen buru, Bilboko Barrutian. Hasteko eta bat, aipatu beharra dago garaiko hauteskunde kanpainak "*hauteslearen banan banako erakarpenean*" oinarritzen zirela eta ez "*masa ekintzetan*"; horrek bide ematen zion landa-lan arretatsu bati. Herrietan, "*landa-jabeek euren errentadoreak mobilizatzen zituzten*". Alde horretatik, Bilboko Batzorde Liberalak buru bat zuen herri bakoitzean, hautesleengan eragiteko modu desberdinak aztertzen zituen. Bilboko Merkataritza Ganberan gordailatutako Eduardo Victoria de Lecea Funtsak Sopelako, Urdulizko eta Barrikako udalerriei buruzko dokumentu argigarri bat utzi digu: sano datu zehatzak dituen zerrenda bat, Javier Realek 1891n kokatua, baserrietako maizterren izenekin eta boto-emaileengan eragina izan zezaketen pertsonen izenekin<sup>25</sup>.

"(...) Adiskidantza edo mendekotasun loturek" sortutako indarretatik aldentzen ziren hautesleak, berriz, diruaren bidez izaten ziren erosiak. Batzorde Liberalak hauteskunde hauetan 39.256 pezeta gastatu zituen, zeinetatik %39,3 boto erosketara bideratu ziren. Berbarako, Gatican, 14 boto lortu ziren, bakoitza 5 pezetan; aldiz, Berangon boto bakoitza 50 pezetan erosi zen<sup>26</sup>.

Oso interesgarria da aztertzea Eduardo Victoria de Lecea Funtsak ematen dizkigun datuak, Urdulizen Batzorde Liberalak ehundutako sistemak zelan funtzionatzen zuen berreraikitzeke. 1891ko Gorteetarako diputatugaiak Elizaterako proposatu zituen kontu-hartzaileen izendapenak bi izen esanguratsu ematen ditu: Agustín Arambalza y Orbeta alkatea eta José Ángel de Arteta Mardaras udal idazkaria<sup>27</sup>. Beste alde batetik, Urdulizko boto-emaileen zerrendan, alkatea "*Promete dar el voto a nosotros*" esaldiaren ondoan ageri da. Berriz, idazkaria, Torrecillako markesaren errentadore moduan, eta alboan:

---

23 REAL CUESTA: 137.

24 REAL CUESTA, Javier: "*Un ejemplo de caciquismo electoral en el País Vasco: el Comité Liberal de Bilbao (1881-1899)*" in *Espacio, tiempo y forma*, V. saila, Historia Garaikidea, t. V 5, 1992: 335-342 (aipamena: 336-337 or).

25 REAL CUESTA, Javier: *Partidos y bloques de poder...* 141-142.

26 *Ibíd.* 137.

27 BILBOKO MERKATARITZA GANBERA (C.C.B.) Eduardo Victoria de Lecea funtsa, 91. mikrofilma, *Eduardo Victoria de Leceak proposatutako kontu-hartzaileen zerrenda*, 1891.

“*Recaudador votos de García*”<sup>28</sup>. Botoa “lortzeko”, ikertzen zen hauteslea zerk “lotzen” zuen: gehienetan hautesleak errentadoreak izaten zirenez, beharturik egoten ziren lurren jabeak agintzen zienari boto ematera. Zerrendan, Torrecillako markesaren maizterrak dira multzo handiena; gainerakoak zenbait jaeuren artean banatzen dira, Plentziako alkate Salvador de Arruza, Mungiako Basozabaldarrak edo José Domingo de Uribe *indianoa*, besteak beste. Pare bat kasutan adierazten da boto-emaileak “*Sopelako medikuak agintzen diona*” egingo duela. Besteren batean, berriz, familia-loturengana jo zen, hautesle baten kasuan bezala:“(…) *Mungiako Pagola koinatuak zioena*”<sup>29</sup> egingo zuen, nonbait. Ohiturari jarraituz, Urdulizen bazkari eta afarien oparia egin zieten bai mandatariei bai *On Eduardo Victoria de Leceari boto eman zioten hautesleei*; horren kostua, 504 pezeta. Udalbatza urduliztarreko beste kide bat, Francisco Bilbao zinegotzi eta alkate ohia, arduratu zen Batzorde Liberalari faktura kobratzeaz<sup>30</sup>.

---

28 Eusebio García Lejarragaz ari da; politikari bilbotar hori Deustuko barrutiko diputatu hautatu zuten Aldundirako 1880ko iraileko hauteskundeetan. 1881eko abuztuaren 21ean Gorteetako diputatuak aukeratzeko hauteskundeen deialdia egin zen eta Bilboko barrutian aurkeztu zen, Partido Republicano Posibilistaren ordezkari, jesarlekurik lortu ez bazuen ere.

Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan dagoen dokumentazioan ikasita badakigu Pedro Guzmánek, Urdulizko eskoletako maisuak, salatu zuela ezen 1881eko abuztuaren 11ako gauean “(…) *on Eusebio García-ren hauteskunde-agenteeek (...) bost tiro bota zizkiotela, antza, errebolber batekin, bere etxera bueltatzen zenean, herri horretako tabernatik bost kilometrora*”. Gainera, “(…) *arrastaka eroan zuten eta tratu txarra eman, kolpeka erabiliz herio beharrea*” eta *haren emazteari ere jazarri zitzaizkion “(...) zenbait harri botata*”. Erasotzaileak nor izan ziren, “(…) *badirudi tabernariak izan zirela berak aitatzen dituen agenteak, eta herri horretako sakristua izan zen mehatxu egin ziotenetako bat (...)*”, hau da, José Ángel de Arteta, udal idazkaria. (A.H.F.B. AQ 00069/792). Ez dago garbi zergatik jazo zen iskanbila hori, ez maisuaren salaketan, ezta geroago Bilboko Lehen Instrukzioko Epaitegiak ireki zuen auzian, tartean Pedro Guzmánek bi aitorten kontraesankor zeudela, baita akusatuenak eta lekukoena ere. Badirudi, azpian zebilen kontua hauteskundeak zirela: izan ere, sesioa, besteak beste, Udaletxearen kanpoaldean jazo zen, hain zuzen ere, barruan hauteskunde kontu zebiltzanean udal idazkaria, Bilboko notario Miguel de Castaños eta Francisco Bilbao eta Ramón Garay tabernariak. Azkena, Urdulizko Udaleko alkateordea zen. Bai Garayk bai Artetak baieztatu zuten Guzmánek “*traidore*” deitu ziela; maisua, berriz, “*bibaka*” ibili zen, Gobernuaren alde”. (A.H.F.B. JCR 4376/003).

29 C.C.B. Eduardo Victoria de Lecea funtsa, 81. mikrofilma, *Lista de electores con las siguientes especificaciones: caserío, nombre, nombre del dueño y relación por la que se puede conseguir el voto*, s/f (1891)

30 C.C.B. Eduardo Victoria de Lecea funtsa, 96. mikrofilma, *Recibí firmado por Francisco Bilbao 1891-2-13*.

Aipaturiko Javier Realek 1903an *La lucha de clases* egunkari sozialistan argitaraturiko artikulua adierazgarri bat jasotzen du, landaguneko hauteskundeetako ustelkeria deskribatzen duena:

*“(…)En las aldeas, las elecciones presentan un aspecto distinto. Sus habitantes desconocen la política, sabiendo únicamente que el diputado es el dueño o el amigo del dueño de las tierras que ellos labran, así que no hacen más que cumplir lo que el “amo” les manda. Cuando hay un solo cacique dueño del pueblo, las elecciones son un día de fiesta. No hay necesidad de emitir los sufragios pues el secretario se cuida de mandar las papeletas en regla. Donde son dos los caciques se divide el pueblo (...)”<sup>31</sup>.*

XIX. mendeko 90eko hamarkadan, liberal dinastikoez hauteskundeetan zuten nagusitasuna industrialari handien taldearen eskuetara etorri zen. Oligarkia monarkikoak –urte gutxi batzuk beranduago “*La Piña*” deituko zioten– sozialistak eta nazionalistak baino ez zituen aurrean eduki, eta horiek oraindino ez ziren mehatxu erreala, euren ibilbide politikoaren hasieran zeudelako. Abertzaleek, ustelkeria eta kazikismoaren aurkako bandera goratuz, oligarkiak erabilitako metodo ustelekin pozarren ez zegoen biztanleriaren parte baten botoa erakarri zuen, 1898ko probintziako hauteskundeetan sektore tradizionalisten babesa lortuz, esate baterako. Gehitu behar da, hala ere, nazionalistak trebeak izan zirela bozketa sistema aprobetxatzeko unean, gutxiengoa lortzeko hautagai bakarra aurkeztuz<sup>32</sup>, nor eta Sabino Arana Goiri. EAJren sortzailea izan zen boto gehien lortu zituen hautagaia Urdulizen, 107 guztira, Ildefonso Arrola Bilbao<sup>33</sup> hautagai karlistak<sup>34</sup> baino bat gehiago, besterik ez.

Hain zuzen ere, XX. mendearen etorrerarekin, nazionalismoaren eta sozialismoaren garapenak bloke tradizionalak apurtu zituen eta politika egiteko modua aldatu. Mende berrira arte, hauteskunde-politikak sare klientelista baten bidez funtzionatzen zuen. Alderdi berriek erabilitako sistemak “*subjektu aktibo izaera*” itzuli zien herritarrei, mitin, manifestazio eta abarren bidez mugiaraziz<sup>35</sup>. Horrek guztiak ekarri zuen “*ekintza politikoa oinarri desberdinetan artikulatu beharra*”. Horregatik, antzinako “*tradizionalismo-liberalismo*” blokea “*eskumaezkerra*” bloke berriak ordezkatu zuen, erlijio auziaren inguruan jira-biraka<sup>36</sup>.

---

31 REAL CUESTA: 135.

32 *Ibid.* 25. or.

33 BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOA (B.F.A.H.), AJ01907/026.

34 *El Noticiero Bilibaíno* 1898-9-9. Artikulu baten azaldu zen karlistek erabaki zutela “(…) *partidu moduan ez borrokatzea, askatasuna emanez beren kabuz aurkezteko komenigarria iruditzen zaionari. Badakigu, gutxiengoaren postuaren bila Ildefonso Arriola diputatu karlista doala, eta Chávarri jaunaren lagunen sostengua duela*”.

35 PABLO, Santiago de, MEES, Ludger eta RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco. I: 1895-1936*, Bartzelona, Crítica, 1999: 86.

36 REAL CUESTA: 33-36.

Comunión Nacionalista Vascak 1917ko hauteskundeetan izandako arrakasten ondorioz, eskuma-ekzerra blokea nazionalismo-antinazionalismo blokeak ordezkatu zuen 1918tik aurrera Bizkaian<sup>37</sup>.

Urdulizi dagokionez, hauteskundeen gainean eskura daukagun informazioak zenbait datu ematen dizkigu udalerrriak 1923a arte izan zuen bilakaera politikoz. Hasteko eta bat, foru hauteskundeei eta Kongresurakoei dagokienez, aipatu beharra dago hautesle urduliztarren portaerak Bizkaia osoan gertatutakoaren ereduari jarraitu ziola: XX. mendeko 10eko hamarkadatik aurrera, nazionalismoa tradizionalismoa eta monarkikoak ordezkatzeko joan zen, prozesuak gorabeherak eduki zituen arren. Nolanahi ere, Urdulizko Udalak ez zion, antza denez, kontserbadoreen kontrolari ihes egin eta, ikusiko dugun legez, nazionalismoak Bigarren Errepublikari itxaron behar izan zion Urdulizko Udaletxeko atea irekitzeko. Azkenik, ezkerreko indarren presentzia hutsaren hurrengoan izan zen Urdulizen, nahiz eta, sostengu urri horren barruan, distira arinen bat egon hauteskunde batzuetan. Jakina denez, errepublikanoek eta ezkerrek Bilbo hirian, Ezkerraldean eta Meatzaldean metatu zituzten euren indarrak.

Lehenago esan dugun legez, 1907tik aurrera erlijio auziak baldintzatu zuen bizitza politikoa: López Domínguez-en Gobernuak ordena erlijioso katolikoen eragina zedarritzeko lege bat bultzatu zuela eta, legearen aurka batu ziren eskuma katolikoa eta apaizeria. Beste aldean, ezkerreko aliantza bat sortu zen sozialista eta errepublikanoen artean Gobernuaren proiektua defendatzeko; horren ondorioz botere faktiko katolikoek (Bilboko Junta Katolikoa, *La Gaceta del Norte* egunkaria eta baita Gasteizko Gotzaitegia ere) presioa egin zuten hauteskundeetarako aliantza bat gauzatu zedin, alderdi katoliko guztiak baturik probintziako hauteskundeetarako. EAJ, erreparoa bazituen ere, *Católica Vasca* hautagai-zerrendan sartu zen azkenik. Baturaren emaitzak ez ziren gura lain onak izan: Bilboko Barrutian hiru hautagaiak ateratzea lortu zuen, baina tarte txikia izanda ezkerreko koalizioaren aldera, eta barrutiko landaguneetan lortutako botoei esker<sup>38</sup>. Urdulizen, adibidez, 162 boto izan zituzten, eta sozialista eta errepublikanoen batasunak, berriz, 10<sup>39</sup>.

Diputatuen Kongresurako 1907ko hauteskundeetan, nazionalistek lehenengoz aurkeztu zuten euren hautagaia: Pedro de Anitua. Eskumak, berriz, hautagai katoliko bat bilatu zuen, eta horrek lortu zuen boto kopuru handiena: Fernando María Ybarra y de la Revilla. Nazionalisten emaitza hain izan zen txarra, hainbat urtez ez baitziren hauteskunde hauetara aurkeztu<sup>40</sup>. Urdulizen, Zubiriako kondeak irabazi zuen, Barakaldoko barrutiko hautagai kontserbadoreak, 171 boto lortuta<sup>41</sup>. Fernando María Ybarrak, abertzaleek susmatu moduan, alderdi

37 Ibid. 56. Or.

38 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ: 80.

39 B.F.A.H. AJ-01919/039.

40 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ: 81.

41 *Auñamendi Eusko Enziklopedia* en [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org), Hitzaz: Urduliz, elecciones 1900-1923.



Kontserbadore edo Mauristaren Bizkaiko filiala sortu zuen, azkenean, 1909an. Sigla horien pean aurkeztu zen Barakaldoko barrutian 1910., 1914., 1916. eta 1918. urteetan, eta guztietan garaile atera zen Urdulizen, nahiz eta 1918ko otsailaren 24ko deialdian, CNVko hautagai Zaballak (75 boto) distantziak laburtu Ybarrarekin (101 boto)<sup>42</sup>.

1907ko hauteskundeak eta gero, nazionalistak euren barruko borrokekin amaitzen saiatu ziren, baita, konponbidea ematen ere hauteskundeetako aliantzen kontuari. Horretarako, 1909aren amaieran, Batzar Nazionala egin zuten Elgoibarren; bertan onartutako barne-araudi berriaren 92. artikulua ezarri zuen inongo alderdirekin aliantzarik ez egiteko agindua. Hori, hala ere, ez zen aplikatzen erraza, bereziki abertzaletasuna horren zabaldurik ez zegoen lurraldeetan, Gipuzkoan, esate baterako. Aldiz, Bizkaian, bere kabuz joateko erabakiak ez zuen nazionalismoa ahuldu. Monarkikoak, asalaturik, nazionalistek Elizarekiko zuten mendekotasuna erabiltzen hasi ziren presio tresna modura, horrek jeltzaleak itzularaziko zituelakoan eskumekiko batasunera. Pablok, Meesek eta Rodríguez Ranzek dioten moduan, “hierarkia politikoak eta kontserbadurismo monarkikoak hitzarturiko ekimena” izan zen, kanpaina antinazionalista bati bide eman ziona. Jeltzale bizkaitarrek hobeto eroan zuten, haien proiektu politikoa bertan “*sustraituago*” zegoelako, “*gutxienez Bilbon*”<sup>43</sup>.

1915-1918ko epealdiaren ezaugarria nazionalismoaren zabalkunde eta hazkunde izan zen, aurreko urteetan CNVren barruan lortutako baketzearen ondorioz ez ezik, Lehen Mundu Gerrako Europaren testuinguruan nazionalitateen auzia berriz bizkortzeak ekarrita, ahaztu barik espainiar estatuaren krisi sakonaren eragina. Gainera, politikari monarkikoen ospea nahikoa beheraturik zegoen eta horrek mesede egin zion bestelako proiektu politikoen hazkundeari. Azkenik, nabarmentzekoa da Euskal Herriko ekonomiak momentu paregabea bizi zuela. Hazkunde ekonomikoko abagune horretan Ramón de la Sota y Llano nazionalistaren irudia nabarmendu zen, zeinaren arrakasta enpresarialak Comión Nacionalista Vascak ospea irabaztea eragin zuen klase dirudunen artean<sup>44</sup>.

Nazionalismoaren zabalkuntza hori Urdulizen ere ikusi dezakegu 1915eko probintziako hauteskundeetan: nazionalistek 99 boto lortu zituzten eta Koalizio errepublikano-sozialistak 57<sup>45</sup>. Bizkaiko abertzaleek, botoetan, 1917ko martxoko foru hauteskundeetan jo zuten goia, Ramón de la Sota y Aburto buru zutela, Aldundian euren lehenengoko gehiengo lortu zutenean<sup>46</sup>. Urdulizen, non 193 hautesletatik 170ek boto eman zuten, CNV izan zen alderdirik bozkatuena: 85 boto lortu zituen, mauristek jarraian 45, eta Koalizio Errepublikano-sozialistak, 40<sup>47</sup>.

---

42 B.F.A.H., AJ 01986/008 (1910eko hauteskundeak), AJ 01987/022 (1914ko hauteskundeak), AJ 01993/021 (1916ko hauteskundeak) eta AJ 02003/021 (1918ko hauteskundeak).

43 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ: 83-87.

44 *Ibíd.* 109-108.

45 B.F.A.H. AJ 01933/016.

46 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ: 109-110.

47 B.F.A.H. AJ 01937/015.

Gorteetarako 1918ko otsaileko hauteskundeetan, nazionalistek ostera ere hautagai-zerrenda propioak aurkeztu zituzten, eta hauteskunde-barruti guztietan garaile atera ziren<sup>48</sup> Bilbon izan ezik, han Indalecio Prieto sozialistak irabazi zuen-eta. Urdulizen, Ibarra hautagai maurista irabazle gelditu zen 101 boto jasota; Zaballa nazionalista atzean gelditu zitzaion, 75 botorekin<sup>49</sup>. Hala eta guztiz, 1918ko ekainean, Barakaldoko barrutian, berriz ere hauteskundeak egin zirenean, CNVk garaipen eroso eskuratu zuen, Domingo de Epalza buru zuela<sup>50</sup>. Urdulizen ere abertzaleak nagusitu ziren 105 boto lortuta; berriz, monarkikoek 55 eskuratu zituzten eta errepublikanoek 13<sup>51</sup>.

1917ko hauteskundeetan nazionalistek izandako gorakadaren eraginez, Comución jarri zen autonomiaren aldeko hiru euskal diputazioen mugimenduaren buru, foruen berrezartzeari uko egin BARIK. Nahiz eta proposamena epela izan, indarra galtzen joan zen eta ez zuen fruiturik ekarri. 1919ko apirilean Maura estatuko gobernura itzuli zenean amaiera eman zitzaion prozesu hoRRI<sup>52</sup>.

Ordurako, monarkikoak erantzuten hasiak ziren abertzaleek hauteskundeetan lortutako garaipenei. 1919ko urtarrilean sorturiko Liga de Acción Monarquica siglen pean, bloke antinazionalista sortu zuten sozialistekin eta zenbait errepublikanoekin. Abertzaleek, berriz, bloke nazionalista eraiki zuten karlismoaren sektore batzuk, integristak eta katoliko independenteak gehituz. Ligak helburu nagusi bat zuen, alegia, nazionalistek lortutako boterea urritzea kosta ala kosta, epaitegien jarduna barne: 1919ko ekainean, Gorteetako hiru diputatuen aktak deuseztatu zituzten, hauteskundeetako ustezko iruzurraren salaketapean<sup>53</sup>. Deuseztatutako akten jabeetariko bat Domingo de Epalza zen, Barakaldoko barrutian aukeratua, zeinen barnean Urduliz baitzegoen. Bertan, diputatu nazionalistak tarte estu batengatik irabazia zuen: 90 boto eskuratu zituen eta Fernando María de Ybarrak, aldiz, 72<sup>54</sup>.

---

48 PABLO, MEES ETA RODRÍGUEZ RANZ: 118-119.

49 *Euzkadi* 1918-25-2; eta *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, Urduliz, elecciones 1900-1923, elecciones de diputados a Cortes 24-II-1918. 191-II-28ko *Boletín Oficial de Vizcaya*-tik ateratako datuak.

50 *Euzkadi* 1918-7-1.

51 B.F.A.H. AJ-02004/021.

52 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ: 122-125.

53 REAL CUESTA: 56-57; eta PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ: 128-129.

54 B.F.A.H. AJ 02006/029.

1919ko uztailean, probintziako hauteskondeek nazionalisten gehiengoaren galera ekarri zuten Aldundian<sup>55</sup>. CNVk Bilbo-Erdialdeko eta Gernikako barrutietan baino ez zuen gehiengoa lortu;<sup>56</sup> Bilboko Zabalgunean, berriz, gutxiengoa eskuratu zuten. Bilbo-Erdialdeko Barrutiko hautagai *jeltzalea* Antonio de Araluze izan zen; Urdulizen emaitza ona lortu zuen, 117 boto eta bere aurkariak, berriz, 54<sup>57</sup>.

1919tik 1923ra bitartean jarraitu zuen funtzionatzen Ligaren eta sozialisten arteko hauteskunde-hitzarmenak. Epaitegiek ere mota guztietako neurriak hartzen jarraitu zuten nazionalismoaren aurka. Hartara, esan dezakegu, aurrera eroan zela abertzaletasuna jazartzeko eta eraisteko kanpaina, eta kanpaina hori mugimendu politikoak bere lehen urteetan jasan zuen zapalketarekin<sup>58</sup> baino ez dela konparagarria; handiagoa, agian. Horrez gain, Comuniónek zatiketa bat bizi izan zuen 1921ean, alderdi berri baten sorrera ekarri zuena, finean. Hark EAJ siglak berreskuratu zituen, eta EAJ *aberrianoa* esan zitzaion. Guztiaren emaitza alderdi nazionalista bi izan ziren, euren proiektu politikoak ondo desberdindu bari<sup>59</sup>.

Liga Monarkikoak fronte desberdinetan nazionalismoaren kontra bultzaturiko jazarpen dinamikaren emaitzak Urdulizen ikusi ditzakegu, esate baterako, 1920ko abenduko eta 1923ko martxoko Gorteetako diputatuen hauteskundeetan. Alde estuarekin, José Luis Goyoaga hautagai kontserbadoreak irabazi zuen bietan<sup>60</sup>.

1923ko ekainaren 11n, Foru Aldundirako hauteskundeak ere Ligak markaturiko bidearen adierazle argia izan ziren. Hona *Euzkadi* egunkariaren titularra, ekainaren 13an: "*Amaiera lotsagarria*"<sup>61</sup>. Aurreko egunean bere lehen orrian argitaraturiko berria osatzen zuen horrela: "*Nazionalismoa nagusi Bilbo-Erdian, baina Ligak garaipena ostu, bitarteko gobernadorearen konplizitatearekin*"<sup>62</sup>. Ostera ere, Bilbo-Erdialderako hautagai-zerrenda nazionalistak Antonio Araluze izan zuen buru, eta Urdulizen ere gertatu zen garaile<sup>63</sup>.

Udal hauteskondeei dagokienez, lehen-lehenik esan behar da agintaldiak lau urte irauten zuela, baina hauteskundeak bi urtero egiten zirela. Modu honetan, urte bitik behin zinegotzien erdia aukeratzen zen.

Esanda dagoen legez, kontserbadoreek Urdulizko Udalaren kontrolari eutsi zioten Errestaurazioaren garai guztian. Udalean nagusi den ideologiaren

---

55 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ: 129.

56 REAL CUESTA: 56.

57 B.F.A.H. AJ 01941/025.

58 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ: 128-129.

59 *Ibíd.* pág. 137.

60 B.F.A.H. AJ 02011/021 (1920ko hauteskundeak); eta AJ-02022/088 (1923ko hauteskundeak).

61 *Euzkadi* 1923-6-13.

62 *Euzkadi* 1923-6-12.

63 B.F.A.H. AJ 01947/016.

ingurukoak dira 1899ko eta 1917ko Akta Liburuetan jasota dauden zinegotzien kidesan politikoak: “*Adicto*”, “*Conservador*”, “*Adicto al Gobierno*” edo “*Administrativo*”<sup>64</sup>.

1920ko otsaileko udal hauteskundeetan, kontserbadoreak garaile geratu ziren berriro, oraingoan “*cierbista*” (sic) afiliazio politikoaren azpian<sup>65</sup>: Juan Arambalza Amezaga izan zen boto gehien eskuratu zuen hautagaia, 112 guztira; José Olea Bilbao haren atzetik zetorren, 109 jasota, eta Bernardino Bilbao Aguinagak 102 boto eskuratu zituen. Benito Otazua Artazak ere, “*adicto*” nonbait, zinegotzigoa bereganatu zuen 78 boto bildurik. Bozketa hauen berritasuna, ostera, Udalean sartzea lortu ez zuten hautagaien filiazioaren ezagutzatik datorkigu: Martín Zarraga Andicoechea independenteak, alkate izandako Juan Manuel Zarragaren semeak, 68 boto lortu zituen; berriz, Juan José Garitaonandia Ayarzagüena nazionalistak soilik 4 boto, eta Dionisio Arambalza Abarrategui karlistak ez zuen bakar bat ere eskuratu<sup>66</sup>. Azken hau, berriro ere aukeraturako alkatearen iloba, EAJko zinegotzia izango zen gero, Bigarren Errepublikaren denboran.

1920ko hauteskundeetan, beraz, ustez “betiko” zerrendetatik kanpoko hautagaiak aurkeztu ziren. Udalaren bizi politikoa ordura arte gobernatu zuen eskemarekiko hausturaren seinale? Horrela izatekotan, seinale ahula oraindik. Portaera hori, bestalde, bat dator Aldundirako eta Gorteetarako hauteskunde prozesuetan agerian jarri zen aldaketa handiarekin: horietan ere goraka egin zuen nazionalistek hautesle urduliztarrengandik hartutako boto kopuruak, Bizkaiko gainerako landaguneetan legetxe.

Ostera, Urdulizko Udalean zergatik ez zen maila bereko aldaketa gertatu? Azaldu dugun moduan, hauteskundeetako kazikismoak –Errestaurazio garaiko lehen hamarkadet akoprotagonista– boto-emaielen kontrol handia behar zuen. Horrek Udalak kontrolatzeko beharra zekarren, bertan zinegotzien lana ezibestekoa baitzen sistemaren funtzionamendurako. Hortaz, lotura estua ezartzen zen Udalaren jardunbidearen eta kazikismoaren makineriaren artean, tokiko politikan “elite” bat sorraraziz. Alde horretatik, 1899ko eta 1923ko Akta Liburuek erakusten digute Errestaurazioaren garaian abizen batzuk behin eta berriro agertzen direla Udalaren jardunbidean: Arambalza, Zarraga, Hormaza edo Otazua, adibide batzuk ipintze arren. Zelangura ere, familia zehatz batzuen presentzia tokiko agintearen gailurrean ez da zerbait berria: Erregimen Zaharrean Erregidore Fidelaren kargua izan zuten soka familiarren aztarnak aurki ditzakegu Bizkaiko elizateetan.

64 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1899-1908ko Akta Liburua eta 1907-1917ko Akta Liburua.

65 “Ciervista” esaten zitzaion Juan de la Cierva politikoa kontserbadorearen jarraitzailei.

66 B.F.A.H. AR-00318/016. Emaitza ofizialen aurrean (hiru zinegotzi ciervista eta “adicto” bat), prentsaren azterketak datu kontraesankorrak eskaintzen dizkigu. *La Gaceta* 1920-2-10ean eta *El Liberal* 1920-10-2an zioten hiru ciervista eta errepublikano bat irten zirela aukeratuak, (akta ofizialean ez da hautagai errepublikanorik agertzen); *Euzkadi* egunkari nazionalista (1920-2-10) berriz, hautatuak hiru abertzale eta independente bat izan zirela. Egunkari nazionalistak ematen dituen datuek, ordea, bat egiten dute Sopolakoekin. Horrek pentsaerazten digu herri bateko emaitzak besteari egotzi zizkiotela, Sopolako datuak ez direlako agertzen *Euzkadik* argitaratu zituen datuetan.

Kontserbadoreei loturiko “elite” lokal hori indartsu ezarri zen Urdulizen, eta bizirik iraun zuen Errestaurazioaren lehen hamarkaden ezaugarria izan zen kazikismoari lotutako sare klientelarretan oinarritutako udal eredu politikoaren gainbeheraren ondoren ere. Izan ere, Udalak korporazio kontserbadoreen esku jarraitu zuen, 1915etik aurrerako bozketa probintzial eta estataletan Urdulizen nazionalistak hazi eta garaile gertatuta ere. Logikoa litzateke pentsatzea, hauteskunde-haizea alde izanda, Urdulizen bertako hautagai-zerrenda abertzale indartsu bat sortu behar zela, baina, aurrerago ikusiko dugun bezala, ez zen hala izan. Zergatik ez zen Udalean aldaketarik izan? Beharbada, garaiko gizarte urduliztarrak bere egina zuen izaera kontserbadoreko tokiko aginte hori. Litekeena da, bestalde, korporazioak osatu zituzten zinegotziek profil administratiboa izatea eta kontu ideologikoak garrantzia eskasa edo batere ez edukitzea. Hori ere ezin dezakegu alde batera utzi.

Errestaurazioaren garaiko lehen hamarkadetan ohi ziren moduetan zurrundurik zebilen herriko politika. Hala eta guztiz, ez dirudi horixe izan daitekeenik 1920ko udal bozketetan Juan Arambalza Amezagak izandako garaipena argitzeko faktore bakarra.

Juan Arambalza itsas-gizona zen lanbidez. Udalean 1911n hasi zen zinegotzi eta 1915eko urtarrilean alkatetzara heldu zen, José de Arambalza Orbeta alkatearen heriotzaren ondoren. Itxuraz, bazuen senitartekotasun loturaren bat hildakoarekin, Arambalza Orbetatarrak itzal handiagoko familia izan arren. Maila horren lekuko ziren *Villa Flora*<sup>67</sup> (1890an eraikia) eta *Crucejada* jauregitxoak, haien jabetzakoak, biak. Aipaturiko José de Arambalza 1906an sartu zen Udalean, alkateorde moduan<sup>68</sup>, eta 1912an alkate kargua hartu zuen<sup>69</sup> bere heriotza arte, 1915ko urtarrilean<sup>70</sup>. Ez zen, dena dela, Arambalza Orbeta familiako lehen alkatea izan; bere anaia Agustinek<sup>71</sup> kargu hori izan zuen urte askotan, XIX. mendearen bigarren erdialdean. 1894an berriro aukeratua izan ostean, Agustín Arambalza Orbeta alkatea izan zen bere heriotza arte, 1895eko ekainean<sup>72</sup>. Beste alde batetik, Juan de Arambalza alkatea ez zen Arambalza Amezaga familiaren lehen ordezkaria izan Udalean, bere anaia biak udalbatzako kide izan baitziren. 1894ko urtarrilean, Agustín Arambalza Amezagak bere zinegotzi garaiari amaiera eman zion; anaia Antonio, berriz, alkateorde sartu zen udalbatza berrian<sup>73</sup>.

---

67 Uste dugu *Villa Flora* izena José de Arambalzaren emaztea dela-eta ipini ziotela: Flora Balanda.

68 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1899-1908ko Akta Liburua, *Udalaren eratze-akta* 1906-1-1.

69 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1907-1917ko Akta Liburua, *Udalaren eratze-akta* 1912-1-1.

70 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1907-1917ko Akta Liburua, *Sesión Extraordinaria*, 1915-1-29.

71 Agustín Arambalza *Villa Floraren* eraikuntzaren sustatzailea izan zen, jauregitxoko alboko sarbidearen gainean dagoen plakan agertzen den legez. Bertan izenez aparte, eraikuntzaren data ere agertzen da, 1890.

72 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua, *Udalaren eratze-akta* 1895-7-1, eta *El Noticiero Bilbaino* 1895-1-31, *Esquela de Agustín Arambalza y Orbeta*.

73 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua, *Udalaren eratze-akta* 1894-1-1.

Agustín Arambalza Orbeta alkatea hil zenean, Antonio Arambalza Amezaga jarduneko alkate ibili zen, Juan Manuel Zarraga buru zuen udalbatza osatu arte, orduan zinegotzi bihurtu zen-eta<sup>74</sup>. Familia hau udal politikaren elitearen parte garbia zen, azaldutako guztiak adierazten duenez<sup>75</sup>.

Itxura guztien arabera, Juan de Arambalzak ospe handia izan zuen Urdulizen, horra faktore garrantzitsuenetakoa 1920ko bozketan boto gehien jaso zituen hautagaia izateko. Urdulizko herriaren gehiengoak Arambalzaren aldera zuen begikotasuna *Euzkadi* egunkarian jasorik geratu zen alkate ohia hiltzean, 1933an. Haren eskela argitaratzeaz gain tarte bat eskaini zioten, *Notas tristes* atalean. Horri esker dakigu lehen zinegotzi ohia “(...) *guztien begirune eta estimuak inguratuta hil*” zela eta bere heriotzak “*min sakona*” utzi zuela Urdulizen, “guztiek begi onean zeukatelako bere zintzotasunari eta buru-argitasunari esker”<sup>76</sup>.

Ez da harrigarria *Euzkadi*-k lerro hauek eskaini izana haren heriotzaren ostean; izan ere, eskura ditugun datuen arabera, alkatetzeta bere eskutan egon zen garaian, Arambalzak, gutxienez, gertutasun nahikoa eduki zuen nazionalismoarekin, eta CNV buru zuen autonomiaren aldeko kausa babestu zuen. Gertaera hau litzateke 1920ko udal bozketetan boto kopuru handiena eskuratzera eroan zuen bigarren faktorea, agian pisuzkoena, eta hautagai-zerrenda abertzale indartsu baten falta azalduko lukeena. Alde horretatik, Arambalzak gidatutako Udalak sostengua eman zion Bilboko alkate nazionalista Mario Aranari, 1918ko abenduan, eta lehen zinegotziak diputatu *jeltzale* Antonio Araluzeri emandako babes argia erabakigarria izan zen 1919ko abenduan.

Bizkaiko Udalak autonomiaren auzian lotu ziren Bilboko alkatea buru zutela, Mario Arana nazionalista, 1918ko abenduaren 15ean hiriburuko udaletxean egin zen Batzar batera deitu zituenean probintziako udalak. Hartara joateko<sup>77</sup>, Juan Arambalza aukeratu zuen udalbatza urduliztarrak udalerrriaren ordezkari<sup>78</sup>. Batzar hartan, sei ondorioko idatzi bat onartu zen gehiengoz, non euskal probintzien eta Nafarroaren autonomia aldarrikatzen zen osotasun zatiez in moduan. Delako eskaera behin behineko konponbide iragankor moduan planteatua zen; ez zekarren, beraz, inolako ukorik foruen berrezarpenari. Alderantziz, Udalek eskatzen zuten 1839ko urriaren 25eko Legea bertan behera uztea. Esan bezala, bertan ziren gehienek berretsi zuten onartutako testua, baina batzarrean esandako batzuk asaldagarri gertatu zitzaizkion han bildutako askori. Esate baterako, Sopuertako ordezkari Gregorio de Balpardak adierazi zuen ez zuela posible ikusten akordioak guztien adostasunez hartzea, bere iritziz falta baitzen “(...) *bandera espainiarrarekiko maitasuna, batasunaren sinbolo izan beharko lukeena*”. Ramón Bergé, Karrantzako ordezkarietakoa zenak, orobat

74 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua, *Udalaren eratze-akta* 1895-7-1.

75 Ahaidetasunen gaineko informazioa, Urdulizko Erregistro Zibiletik ateratako datuekin egina.

76 *Euzkadi* 1933-4-8.

77 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1917ko martxotik 1922ko uztaile bitarteko Akta Liburua, *Sesión ordinaria* 1918-12-8.

78 Urdulizko ordezkarietza, alkatetik ez ezik, Pedro Goirigolzarrik ere eroan zuen Batzarrera (*La Gaceta del Norte* 1918-12-16).

azpimarratu zuen banderen kontua, “(...) *Bilboko Herriko Etxean zabalik dagoen banderaz*” kexu, hau da, *ikurrinaz*. Batzarra amaituta, udal ordezkariak Foru Aldundira jo zuten onarturiko testua entregatzera eta, bitartean, Udaletxearen aurrean hainbat istilu eta karga polizial gertatu ziren, Gran Vía eta Hareatzan<sup>79</sup>. Hurrengo egunean, Bilboko alkatea kargugabetu egin zuen Gobernuak.

Egun gutxi batzuk geroago, Urdulizko Udalak, beste udalbatza batzuen moduan, bere elkartasuna adierazi zion udalburu bilbotarrari, eta aho batez erabaki “*protesta gartsua egitea eta Udalbatza txit goren horri bere mina adieraztea, On Mario Arana, hiri horretako alkate eredugarri izan dena, inolako arrazoirik gabe kargugabetzeagatik*”<sup>80</sup>. Baina Aranbalza buru zuen udalaren sostengua ez zen horretan geratu: 1919ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuran, udalbatzak adierazpen baten berri izan zuen; bertan Deustuko udalak Bizkaiko udalei jakinarazten zien honako hau erabakia zuela<sup>81</sup>: “(...) *Bilboko alkate on Mario Aranari omenaldi ekitaldia egitea, plaka edo album bat bere eskutan utziz berarekin bat egiten duten udalerrri bizkaitar guztien sinadura duena*”. Urdulizko gobernu taldeak ekimen horrekin bat egin zuen, eta hogeita bost pezetako ekarpena ebatzi “(...) *opari horrek eragiten dituen gastuetarako, eta on Juan Arambalza izendatzea Udalbatza honen ordezkari izan dadin hura entregatzeko ekitaldian*”<sup>82</sup>.

Bilboko alkatearen kargugabetzea baino urte bete beranduago, 1919ko abenduan, Araluze diputatu nazionalistaren kargugabetzea gertatu zen. Egoera honen aurrean, honako hau proposatu zuen Arambalza alkateak udaleko osoko bilkuran: “(...) *aktan jasorik gera dadila gure protesta gartsua, barruti hau Antonio Araluze zaldun eta abertzalea gabe uzteagatik*”<sup>83</sup>. Esan beharra dago “*abertzale*” hitza –“*patriota*”, erdaraz– maiz erabiltzen zuela prentsa nazionalistak erkidego jeltzaleko kideak aipatzeko. Badirudi zentzu horretan erabili zuela alkate urduliztarrak.

---

79 *Euzkadi* 1918-12-16 eta *La Gaceta del Norte* 1918-12-16.

80 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1917ko martxotik 1922ko uztailera bitarteko Akta Liburua, *Sesión ordinaria* 1918-12-22.

81 Urdulizko Udalak legez, Deustukoak 1918-12-22an hartu zuen protesta egiteko erabakia. *Euzkadi* egunkariak azken horren berri eman zuen 1918-12-23an.

82 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1917ko martxotik 1922ko uztailera bitarteko Akta Liburua, *Sesión ordinaria* 1919-1-26.

83 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1917ko martxotik 1922ko uztailera bitarteko Akta Liburua, *Sesión ordinaria* 1919-12-14.

Era berean, ezin ahaztu Aranbalzaren protesta hau jazo zela gobernu eta epaileak, monarkikoek bultzatuta, nazionalismo jazartzen zebiltzan momentu baten. Araluzeren kargugabetzea bat dator arestian aipaturiko Gorteetako hiru diputatu nazionalisten aktak deuseztatzearekin, nahiz eta kasu hau justifikatzeko beste arrazoi desberdin bat erabili zen<sup>84</sup>. Testuinguru hori kontuan harturik, logikoa litzateke pentsatzea alkate urduliztarraren jarrera horrek, monarkikoek bultzaturiko kargugabetzearen aurka, agerian jartzen zuela Aranbalza zenbateraino lerratua zen nazionalismoaren aldera eta zenbat gerturatua zen ideologia horretara. Beste arrazoi bat egon daiteke, hala ere, udalburu urduliztarrak diputatuaren alde egindako defentsan: Araluzek, arkitekto gisa, hurbiltasun handia zuen eskualdeko herriekin, bertan lan egina zen eta oparo lan egingo zuen etorkizunean ere. Urdulizen bertan, onespina emana zien arkitekto baten oniritzia behar zuten proiektuei.

Nazionalismoarekiko gertutasunaren beste adierazle bat litzateke Juan Aranbalzaren partaidetza *mendigoizaleek* 1921eko urrian antolatutako jai batean. Bertan, buru egin zuen euskarazko irakurketa lehiaketan, Serafín Sagarna abade-buruarekin batera. Horrez gain, *Euzkadi* egunkariak adierazi zuenez, bai alkateak eta baita abadeak ere “(...) erraztasunak baino ez zituzten eman jaiia ondo baino hobeto joan zedin”<sup>85</sup>.

Hala eta guztiz ere, ez dirudi Aranbalza buru zuen udalak bere egiten zuenik nazionalismoak “exotiko” eta “atzerritar”tzat zituen ohituren aurkako borroka. Alde horretatik, *Euzkadi* egunkarian artikulua bi aurkitzen ditugu, nahikoa kritikoak 1918ko Igokundeko jaietako giroarekin eta 1923ko Andra Maritakoarekin. Igokundekoei dagokienez, *atxeta* gaitzizeneko kronikalariak ez zuen ez “euzkel-usaṅik” ez “kistar-usaṅik” idoro jai horietan, janzkeran “euzkal-usain apur bat”. Areago, “atzerri-usaṅa” ematen zuten “dantza zikin”ek eta “berbeta nabar”rek. Egoera halakoa izanda, udal buruzagiak non ote ziren galdetzen zuen berriemaileak<sup>86</sup>. 1923ko

---

84 Kargutik kentzeko arrazoiak prentsan agertu ziren, batez ere *Euzkadin* (1919-11-13; 1919-12-12; 1919-12-14 edo 1919-12-16) edo *ABCn* (1919-9-10 edo 1919-12-12). Diputatuari leporatu zitzaion bere sinaduraren ondoan esaldi “*separatista*” bat idaztea (“*Agora Euzkadi euskatuta*” 1919-9-10eko *ABCren* arabera) Butroeko gazteluko bisitarien liburuan, Zientzien Kongresuko parte-hartzaileentzako gotorlekua programatutako txango baten. Azkenik, epaitegiek ebatzi zuten ez zela deliturik izan eta Araluzeri kargua itzuli zitzaion (*Euzkadi* 1920-7-8).

85 *Euzkadi* 1921-10-4.

86 *Euzkadi* 1918-5-13 “*Josu-Kisto’re*n Igokundia emen geure erriko jayetan bat dogu, baṅa egiten dan eran egitekotan asteguna balitz oba. Ez dauko euzkel-usaṅik, eta gitxiago kistar-usaṅik; eta diṅot gitxiago, emen batzen diranak euren jantzijetan euzkal-usain apur bat bai daukiela, baṅa euren dantza zikin, berbeta nabar eta erejisak, danak atzerri-usaṅa edo atsa emoten dabe. Erriko agintariak ¿non dira?”.



Andra Mari jaietan, berriz, korrespontsalari iruditu zitzaion, *aurreskuak* salbu, erronomia “*Madrilgo Bombillan*” ospatzen ari zela<sup>87</sup>. Argudio hori erabiliz, alkateari proposatu zion mota honetako erromeriak kentzeko, itxuraz “*zikinak*” eta Urduliz lako herri katoliko eta euskaldun batentzat desegokiak zirelako<sup>88</sup>. Kritika horiek bat datoz garai hartako nazionalismoak segitzen zuen ildoarekin, biraderadun pianotxoaren eta dantza lotuaren kontra, eta, aldiz, jatorragotzat jotzen ziren musika-tresna eta dantzen alde. Jarrera horri jarraituz, Sopelako alkate nazionalistak, Francisco de Ondizek, 1920ko San Pedroko jaietan debekatu zuen “(...) *biraderadun pianotxo nazkagarria, hainbeste urtetan eta artez diren guztien atsekabe jai horietako lehen ikusgarria izaten ibili dena*”<sup>89</sup>.

Beste alde batetik, *Euzkadi*, nazionalisten organo ofizial moduan, ez zen aspertzen herrietan kazikismoaren praktika salatzeaz, jeltzaleek gehien borrokatutako gaietariko bat izanik. Hala ere, ez dugu egunkari abertzalean inolako berririk aurkitu Aranbalza praktika hauekin lotzen duenik.

1933an alkate ohia hil zenean, “*gure lagun eta abertzale*”<sup>90</sup> suhartzat jo zuen *Txiberrik*, *Euzkadi* egunkarian. Itauntzekoa da zein momentutan heldu zen abertzaletasuna bete-betean besarkatzeraino Aranbalzak 10eko hamarkadaren amaieran eta hurrengo hamarkadaren hasieran nazionalismoaren aldera sentitzen zuen gertutasuna. Dena esan behar bada, inoiz ez zen herriko EAJko kide egin.

Juan de Arambalza izan zen Primo de Riveraren estatu-kolpearen aurreko azken alkatea. Horren ondorioz, udalbatzak desegin ziren, dekretuz, 1923ko urrian, baina horretaz aurrerago egingo dugu berba.

---

87 *Pillepek*, *Euzkadiko* korrespontsalak, antza, La Bombillako parkea zeukan gogoan, *Madrilgo* berbenen ohiko ospalekuetako bat.

88 *Euzkadi* 1923-9-13.

89 *Euzkadi* 1920-6-26.

90 *Euzkadi* 1933-4-29.

<b>URDULIZKO ALKATEAK 1895 - 1923<sup>91</sup></b>	
JUAN MANUEL ZARRAGA ARGALUZA	1895 - 1912
JOSÉ ARAMBALZA ORBETA	1912 - 1915
JUAN ARAMBALZA AMEZAGA	1915 - 1923

<b>URDULIZKO UDALA 1920<sup>92</sup></b>	
<b>Kargua</b>	<b>Izen-Abizenak</b>
Alkatea	Juan Arambalza Amezaga
alkateordea	Julián Llona Bilbao
Sindikoa	José Olea Bilbao
Ordezkoa	Bernardino Bilbao Aguinaga
1. zinegotzia	Benito Otazua Artaza
2. zinegotzia	Juan José Zuazua Larrazabal
3. zinegotzia	Luis Bilbao Larrabe

<b>URDULIZKO UDALA 1922<sup>93</sup></b>	
<b>Kargua</b>	<b>Izen-Abizenak</b>
Alkatea	Juan Arambalza Amezaga
alkateordea	José Olea Bilbao
Sindikoa	Bernardino Bilbao Aguinaga
1. zinegotzia	Benito Otazua Artaza
2. zinegotzia	Agustín Zalbidea Echegaray
3. zinegotzia	José Agustín Menchaca Urquizu
4. zinegotzia	Isidro Barandica Bilbao

91 Udaleko akta liburuetatik abiatuta osatutako informazioa.

92 U.U.A. "Historikoa", 1. kaxa, 1917-1922ko Akta Liburua, Udalaren eratze-akta 1920-4-1.

93 U.U.A. "Historikoa", 1. kaxa, 1917-1922ko Akta Liburua, Udalaren eratze-akta 1922-4-1.

## 1.2.2 Nazionalismoaren ezarpena Urdulizen

Bigarren Errepublikaren garaian, Urdulizen, abertzaletasunak udal ordezkari guztiak lortu zituen 1933an. Indar horrek behartzen gaitu Errestaurazioaren denboran izan zuen ezarpena aztertzeraz.

Hauteskundeetako emaitzak agerian gelditu dira aurreko atalean. Horiei begira, garbi geratzen da abertzaletasunak boto-emaitze asko izan zituela Urdulizen 1915etik 1923ra, alde batera edo bestera jotzen zuten egoera politikoaren arabera eta bozketaren izaeraren arabera, tokikoa, probintziakoa edo estatukoa. Arestian esan bezala, 1915ean eta 1918an nazionalismoak ez zuen lortu Udalean ordezkariak edukitzea, Aldundirako eta Gorteetarako hauteskundeetan alde handiz garaile gertatu arren, eta nagusitasun horri eutsi arren 1923ko probintziako hauteskundeetan. Hala eta guztiz, eskura ditugun datuekin, ezin dugu segurtatu aro horretan Comución Nacionalistak Urdulizen Uri Buru Batzarrik eratu zuen edo ez; aldiz, badakigu, aurrerago ikusiko dugun legez, bazituela bazkideak Urdulizen.

1915ean, Urdulizko abertzaleak Algortako Uri Buru Batzarraren mende zeuden, Berangoko, Sopelako, Barrikako, Plentziako eta Gorlizkoekin batera<sup>94</sup>. Hurrengo urtean, *jeltzaleek* euren estatutu berriak onetsi zituzten, ofizialki Comución Nacionalista Vasca izena hartuta eta hamar bazkideetan finkaturik Uri Buru Batzar bat sortzeko gutxieneko kopurua<sup>95</sup>.

Nazionalisten 1915etik 1918ra bitarteko gorakadaren isla izan zen bozketetan izandako arrakasta, hala nola Aldundirako 1917ko hauteskundeetako. CNVK hauteskunde hauek egindako kanpaina betiko mezua inguruan ardatz zen, jauntxokeriaren eta ustelkeriaren kontra. Horrek gizartearen alderdi handi baten sostengua ekarri zien, egoerarekin zapuztuta, haien alde agertu baitzen hautetsontzietan. Bozketetan izandako garaipen horren ondorioz, nazionalismoak bere buruari erronka ipini zion Uribe Kosta lako aldeetan bere presentzia sendotzea, ez zeuden tokietan antolakundeak sortuz. Algortatik *Euzkadi* egunkarira bidalitako artikulua batean adierazten da zelan hauteskundeetan nazionalistek lortutako garaipenak “(...) *astindu egin zituen orain arte lo antzean zeuden euskaldun askoren barrenak*”. Ildo horretatik, gogora ekarri zuen herritarra batzuetan oraindik ez zegoela “(...) *ezta antolakunde abertzalerik ere ez, eta bertan dauden abertzale apurrek modurik ez dute euskaldun onen borondateak batzeko eta bertako jauntxokeria hurrupatzailearen aurka bideratzeko (...)*”. Kontu honen gainean, artikulua egileak abertzaleei dei egin zien behin eta berriro “(...) *kontserbadurismoaren uztarria gainetik kentzeko eta gure baserriarrak gizon askeak izateko (...)*”. Alde horretatik, adibidez ipini zuen Berangoko udalerrira, “*jauntxokeria kontserbadorearen azotea*”. Izatez, foru hauteskundeak bertan monarkikoek irabazi arren, abertzale berangoztarrek, Algortako Uri Buru Batzarrak aholkatuak, beren Uri Buru Batzarra eratu zuten, eta ahalegin bera

94 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA (A.A.) HAG-0009-40.

95 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 102-103.

egiten zebiltzan “(...) *Sopelan, Urdulizen eta Plentzian*”<sup>96</sup>. Hala ere, albisterik ez dugu Uri Buru Batzar urduliztar baten sorreraren berri ematen digunik, Plentzian eta Sopelan ez bezala. Herri horietan, badakigu uri buru batzarrak izan zirela,<sup>97</sup> baita Laukizen<sup>98</sup> eta Gatican<sup>99</sup> ere.

1920ko otsailaren 1ean batzar orokorra egin zen Sopelan Euzko Gaztedi sopoloztarra sortzeko. Hain zuzen ere, horren gaineko berriari esker badakigu Comuniónek bazkide urduliztarrik bazuela, Batzar horretan parte hartu zutelako bazkide berangoztarrekin batera<sup>100</sup>. Albiste horrek, berriro diogu, bidea ematen digu Urdulizen bazkideak bazirela baieztatzeko, baina ez Uri Buru Batzarrik.

Egia dena da bilera hori egiteko iragarpena Sopelako batzarraren ekimena baino ez zela izan<sup>101</sup>. Baliteke, bestalde, CNVk Urdulizen Uri Buru Batzar bat izatea eta Sopelakoak Euzko Gaztedi bat bertan sortu nahi izatea hiru udalerrriak bereganatuta.

Urte bereko maiatzaren amaieran, Sopelako Uri Buru Batzarraren beste deialdi bat argitaratu zen *Euzkadin* “(...) *Sopelan eta Berangon Euzko Gaztediko kide izateko izena ematen zuten jendeekin* (...)”<sup>102</sup>, Urdulizkorik agertu barik. Itxuraz, Berangok helburu hori bete zuen, hilabete horretan bertan “*Berangoko Euzko Gaztedi jaio berria*”<sup>103</sup> aipatu zen-eta. Orokorrean, albisterik ez dago 1920 inguruan Urdulizen Uri Buru Batzarrik izan ote zen, baina aldi berean hauteskundeetan emaitza onak izan ziren aurreko urteetan. Horrek pentsarazten digu abertzaletasunak zale kopuru zehaztu gabe bat edukiko zuela elizatean, baina horiek bazkide izateko pausoa eman ez. Bazkide izateko kopuru urri horren ondorioa zitekeen batzar propiorik ez izatea eta bazkide urduliztarren mendekotasuna Sopelako Uri Buru Batzarraren aldera. Honek, “*40 edo 42 bazkide*”<sup>104</sup> zeuzkan Primo de Riveraren diktaduraren aurreko urteetan.

---

96 *Euzkadi* 1917-4-1.

97 *Euzkadi* 1920-1-6 Plentziarako; eta *Euzkadi* 1920-1-24, Sopelarako, barbarako.

98 *Euzkadi* 1922-12-24. Artikulu batek Laukizko batzoki berriaren irekiera jasotzen du.

99 *Euzkadi* 1920-5-12. Gatikako Uri Buru Batzarrak iragarki bat argitaratu zuen batzar baten deialdia egiteko.

100 *Euzkadi* 1920-2-5. “*El mismo domingo celebróse la anunciada Junta General para la fundación de esta Juventud Vasca, de los afiliados a la Comución nacionalista en esta localidad y en los pueblos vecinos de Berango y Urduliz*”.

101 *Euzkadi* 1920-1-31. Batzar orokor berezia José Loroñoren etxean egin zen, Sopelako nazionalisten lehenengo egoitza modura funtzionatu zuelako. Astebete lehenagorako ere (domeka, hilak 25) batzar orokor bereziaren deialdia eginda zegoen (*Euzkadi* 1920-1-24). Berriro egin behar izan bazen, horrek esan gura du jende gutxia joan zela lehenengora. Hurrean ez zitzairen deialdiaren albistea afiliatu guztiei helduko.

102 *Euzkadi* 1920-5-29.

103 *Euzkadi* 1920-5-11.

104 *Euzkadi* 1932-9-21.

Sopelako Uri Buru Batzarraren bizitasuna eta indarra agerian geratu zen 1920ko udal hauteskundeen emaitzetan: nazionalistek udalerrri horretako alkatetza lortu zuten, nahiz eta esan beharra dagoen monarkikoak ez zirela, antza denez, aurkeztu. Izatez, *Euzkadik* aditzera eman zuen “(...) *Ligako jendeak ez direla borroka egitera ausartu*”<sup>105</sup>.

Propaganda lan etengabe eta beharrezkoa izan zen nazionalismoaren hedapenaren oinarria. Gure datuen arabera, Urdulizen eta inguruko herrietan, *euskal jai* delakoak eta herri hurbiletako nazionalisten txangoak ziren propaganda horren zutabeak. Oro har, *euskal jaiek* antzeko ezaugarriak dituzte, zimendua ideologia nazionalistatik hartzen dutenak: erlijioa, euskararen eta euskal ohituren indartzea “*kanpokotzat*” hartutako ohituren aurrean eta abar... Modu horretan, osagai derrigorrezkoak dira meza, senidetasun bazkaria, euskal dantzen emankizunak, lehiaketa “*euskerikoak*” edo erromeria txistulariekin. Festa horietara, nazionalistak toki askotatik etortzen ziren, ingurutik ez ezik, Bilbotik, Barakaldotik edo Erandiotik ere. Ekitaldiak non egiten ziren, jendea oinez edo trenez joaten zen udalerrira (tren bereziak antolatzen ziren batzuetan), nahiz eta beste garraibide batzuk ere agertzen diren. Topaketa hauek, noski, bazkideen arteko harremanak sendotzeko eta kide berriak erakartzeko bidea izaten ziren. Jai horiek antolatzaile desberdinak izan zituzten: *mendigoizaleak*, Euzko Gaztedi... Gainera, *Euzkadi* egunkariak ekitaldi horiek iragartzen zituen aurreko egunetan, irakurleak haietara joanarazteko helburua zuten artikuluz luzeak argitaratuz.

1911ko otsailean, Uri Buru Batzarrek eta batzokiek, Hareetako batzokian bildurik, erabaki zuten hainbat euskal jai antolatzea, zenbait herritan propaganda areagotzeko<sup>106</sup>, hala nola Urdulizen, Plentzian edo Gorgorlizen. Xedea zen ekitaldi “*zaratatsuak*” antolatzea eta haietan “*abertzale baliotsuek*”<sup>107</sup> parte hartzea. Erabaki bezala, astebete geroago, otsailaren 12an egin zen Urdulizen ezagutzen den lehenengo *Euskal Jai*a. Eguraldi txarraren erruz hitzordua ofizialki bertan behera geratu bazen ere, jende asko agertu zen, hainbeste non, *Isusik*, Algortako *Batzokiko* kideak, hitzaldi bat inprobisatu baitzuen, abertzaletasunaren printzipioak azaltzeko eta “(...) *dei egin zien entzuten ari ziren guztiei, nazionalismoarekin bat egiteko*”. *Isusiren* hitzen ondotik, Erandioko eta Laukizko bertsolariek jardun zuten<sup>108</sup>.

Lau urte geroago, 1915eko apirilaren amaieran, bilera bat egin zen Barakaldoko Euzko Gaztediren lokaletan, Bilboko *Mendigoizale-Bazkunak* antolatuta. Bertan, zenbait batzokitako *mendigoizaleen* ordezkariak parte hartu zuten, hala nola Algortakoek edo Erandio Bekokoek. Bileraren helburua txangoak antolatzea zen propaganda *jeltzalea* bultzatzeko. Hain zuzen ere, irteera

---

105 *Euzkadi* 1920-2-5, eta *La Gaceta* 1920-2-10.

106 *La Gaceta del Norte* 1911-2-5 eta 1911-2-6.

107 *La Gaceta del Norte* 1911-2-13.

108 *La Gaceta del Norte* 1911-2-13.

horietako lehenengoak Urdulizko Santa Marinako haitzak izan zituen helmuga<sup>109</sup>, maiatzaren 2an. *Mendigoizaleak* zenbait herritatik abiatu ziren oinez eta, Unbe mendian elkaturik, Santa Marinara jo zuten denek, “(...) *makina bat txilibituren eta bestelako haize-tresnen soinupean*”<sup>110</sup>. *Euzkadi* egunkariak zioenez, 150 bat *mendigoizalek* parte hartu zuten txango hartan. Behin ermita bisitatu eta “(...) *haitzetan apur bat deskantsatu eta gero*”, txangozaleak parrokiara jaitsi ziren meza entzutera; bertan, Barakaldoko *mendigoizaleek* kantatu egin zuten. Mezaren ostean, gazteak Eliza inguruko landetan sakabanatu ziren eta dantzari ekin, “*txistuak eta dultzainak lagunduta, denak gar bizian, Urdulizen*”. Ostean, “(...) *Sopelatik eta Berangotik zehar bihurtu ziren, arrasto ederra eta gogo handia utzirik bertakoen artean halako bisitak berriro ikusteko*”. Algortan geldialdia eginda, segizioak Hareetara jo zuen<sup>111</sup>.

Urte bereko maiatzaren 9rako, jai nazionalista antolatu zen Sopelan, programa bete-betea zutela: goizean, ohiko meza, *dantzak* eta *aurrekulari* lehiaketa; arratsaldean, berriz, propagandarako mitina, eta horren ostean bi bertsolari, horietako bat *Eustaki*, Laukizkoa; amaitzeko, “*euskal erromeria itzela*”, ilundu arte<sup>112</sup>. Hala eta guztiz, eguraldi txarra zela-eta, jai bertan behera utzi behar izan zen, 13rako utzirik, eguenean, ekitaldi abertzalea<sup>113</sup>.

Hilabete horren amaieran, irteera horien itxurazko arrakastak beroturik, Bilboko Euzko Gaztediren *Mendigoizale-Bazkunak* erabaki zuen “(...) *atzera ere bere unerik onenetako jardunari eta karrari heltzea*” abertzaletasunaren zabalkuntzan. *Euzkadi* egunkariak talde honetan parte hartzeko deia egin zien gazte nazionalistei, eta propagandarako txango hauen garrantzia nabarmendu; aldi berean gomutarazten zuen *Mendigoizale-Bazkuna* “(...) *kirolerako baino areago, aberrirako*” sortu zela. Artikulu horretan, jarraibide nagusiak zehaztu ziren gazte hauek euren irteeretan egin behar zuten propaganda lanerako. Hartara, “(...) *orain arte egokiro egin den legez, doktrinatzeko esku-orriak*” banatu ez ezik beste lan batzuk ere egin behar zituzten, hala nola “(...) *herritarrekin eztabaida betiere baketsuak*” eduki, “(...) *baserritar guztiei, argi eta erraz, programa nazionalista*” azaldu, are “(...) *umeen artean ipuinak, orriak eta halakoak banatu ere, aldi berean emanik abertzaletasunaren berri arinarina*”. Beste alde batetik, propaganda kolektiborako aholkatzen zuten “(...) *jai xumeak antolatzea, ezpata-dantzari eta aurrekulariekin, palankariekin eta bertsolariekin, euskal kanta batzuk abestuz eta*.”<sup>114</sup>.

---

109 *Euzkadi* 1915-4-26.

110 *Euzkadi* 1915-4-30.

111 *Euzkadi* 1915-5-3.

112 *Euzkadi* 1915-5-6, 1915-5-7; eta 1915-5-8.

113 *Euzkadi* 1915-5-12.

114 *Euzkadi* 1915-5-27.

1918ko udakoa da Urdulizen gainean aurkitu dugun hurrengo berria. *Txiberrik*, Laukiztik, albiste labur bat eman zuen Gatican egindako euskal jai bati buruz, bera bertan zegoela, baita hau gehitu ere: “(...) *Lengun baten entzun neban Urduliz'en be angu abertzaliak euzko-jai politak gertuten dagozala. Ia ba mutillak, ekin ortik*”<sup>115</sup>. Ez dugu, ostera, horri buruz jakingarri gehiagorik topatu.

1920az geroztik, sekulako loratzea izan zuten propaganda ekintza hauek. Esate baterako, apirilaren 18an, Algortako *mendigoizale zarrek “jira”* bat antolatu zuten Urdulizera, ohiko ereduari, mitina kenduta programan ez zuten-eta halakorik sartu<sup>116</sup>. Berangon *euskal jaiak* egin ziren maiatzaren 9an, Algortako eta Berangoko Euzko Gaztedi biek antolatuta<sup>117</sup>, eta ekainaren 20an, berriz, Plentzian, bertako Euzko Gaztedik bultzatuta, jardueraz beteriko programa batekin<sup>118</sup>. Azkenik, uztailaren 8an, Hareetako *Batzokiak* gauza bera egin zuen bere gazte saila abian jarria zuela-eta<sup>119</sup>.

1921ean ez zen moteldu lehengo urteko abiada. Esate baterako, ekainaren 19an, 10.000 bat lagun batu ziren Plentzian, *Euzkadi* egunkariaren arabera, Bilboko Euzko Gaztediak antolatutako jaira. Egunkari abertzaleak propaganda handia egin zion lehenago, jendearen gogoari berotuz nahirik. Hona zer esan zuen, adibidez, haurrentzako euskarazko irakurketa eta idazketa lehiaketaren gainean: “(...) *Gorlizko, Laukizko eta Urdulizko ume askok eman dute izena lehiaketa honetarako, eta hain izan da handia ume plentziarren artean horrek piztu duen ikara (...) buru-belarri ekin baitiote prestatzeari (...) Plentziako oihala bere osparean mailan utzi guran*”. Azkenik, 16 neska-mutiko aurkeztu ziren, urduliztar bi tarteko zirela<sup>120</sup>.

Urriaren 2an, *mendigoizaleek* beste jai bat antolatu zuten Urdulizen. Horren aipamena egin dugu lehenago, alkatearen eta abadearen laguntza azpimarratzerakoan, nahiz eta badirudien elizgizonaren esku-hartzea nabarmenagoa izan zela, izan ere Arrosarioaren prozesioa atera zen, eta haren irudia, Urdulizko parrokiaren dagoena, Ondarretako *ezpata-dantzariak* bizkartu zuten<sup>121</sup>. Jaiari buruzko artikuluan ere ez da aipamenik egiten Urdulizko ezelango Uri Buru Batzarri buruz. Jaiaren ostean, baina, *Ekixuk*<sup>122</sup>, Urdulizen une horietan zegoen korrespontsalak, hiru artikulua idatzi zituen, eta horietan eskutitz trukea gertatu zen haren eta *Kirikiñoren* artean, Robustiana *Tene* Muxika idazle eta artikulugilearen idazlanak argitaratzeko harpidetzei buruz<sup>123</sup>. Urdulizen 51,10

---

115 *Euzkadi* 1918-8-8.

116 *Euzkadi* 1920-4-14, 1920-4-16.

117 *Euzkadi* 1920-5-6; 1920-5-9; eta 1920-5-11.

118 *Euzkadi* 1920-6-15; 1920-6-16; 1920-6-18; 1920-6-19; eta 1920-6-24.

119 *Euzkadi* 1920-7-8.

120 *Euzkadi* 1921-6-17 eta 1921-6-21. Ume urduliztar biak Bingen Garaizar eta Auspo Llona izan ziren.

121 *Euzkadi* 1921-10-1 eta 1921-10-4.

122 Ez dakigu nor ezkututzen zen gaitzizen horren atzean.

123 *Euzkadi* 1921-10-4; 1921-10-9; eta 1921-10-30.

pezeta batu ziren, guztira, “(...) *uzta polit bat, hain herri txikerretik bidalita*”<sup>124</sup> herriko korrespontsalaren iritziz. Halaxe, batutakoa zenbateko ederra zen Urdulizko txikitasunerako, eta horrek bultza gintzake pentsatzera orduko CNVk bazuela halako egituraren bat herrian. Hala eta guztiz ere, *Euzkadiko* orrietan ez dugu horren baieztapenik aurkituko. *Ekixuk* egunkarian idazteari utzi zion apur bat geroago, Sota itsasontzi enpresaren barku baten itsasoratuta<sup>125</sup>. Ezin esan horixe izan zenik arrazoi bakarra, baina handik aurrera, Urdulizi buruzko albisteak, lehenago ere asko-asko ez zirenak, areago urritu ziren egunkari abertzalean. Primo de Riveraren estatu kolpeak eta haren diktadurak errotik ebaki zituen nazionalismoaren jarduera politikoak. Abertzaletasunak euskal kulturaren alderdi desberdinen zabalkundearen bilatu zuen aterpea.

### 1.3 Primo de Riveraren diktadura

1923ko irailaren 13an, Miguel Primo de Riverak Errestaurazioaren sistemarekin amaitu zuen Estatu kolpe baten bidez, Alfontso XIII.a erregearen onespenerekin. Estatu kolpe horrek antzekotasun nabarmenak eduki zituen 1922an Italian Mussolinik emandakoarekin; izan ere, biak 20. hamarkadako Europaren testuinguruan kokatu behar ditugu, “(...) *non demokraziaren krisiak lekua eman baitzuen izaera autoritarioko erantzun desberdinei*”<sup>126</sup> estatuen barne arazoaren konponbide gisa. Primo de Riveraren diktadura, ostera, ez zen autoritarismoaren sistema moderno bat, molde klasikoko diktadura baino; bertan Konstituzioaren ezabaketa ezartzen zen Estatuaren barne arazoak konpontzeko<sup>127</sup>. Espainiaren porrota Marokon, desordena soziala edo nazionalismoaren goraldia ziren arazo horiek<sup>128</sup>.

Euskadin, hierarkia katolikoak harrera ona egin zion Diktadurari eta harengandik hurbilen zeuden talde politikoak estutu zituen errejimene berriari laguntzeko, karlistekin jazo zen bezala. Mauristek ere ez zuten arazo handirik eduki Diktadura onartzeko, aurretik beren lider Antonio Maurak defendatu zuen erregenerazioa Primo de Riverak ere goratzen zuen-eta. Orokorrean, bai Euskadin eta baita Estatuan ere kolpearen onarpen argi bat egon zen<sup>129</sup>.

CNVri eta EAJri, Diktaduraren etorrerak “*beren barne bizitzaren beherakada itzela*” ekarri zien, ez soilik errepresioak baldintzatuta, nazionalismoa beraren estrategiaren ondorioz ere bai. Etsi egin zuen, bere jarduera politikoari eutsi ezinda, eta euskal kulturaren alorrera bildu, kontutan hartuta Primo de

124 *Euzkadi* 1921-10-30.

125 *Euzkadi* 1921-11-22. *Txiberrik* eman zuen horren berri, Laukiztik.

126 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 149.

127 GARCÍA DE CORTAZAR eta MONTERO, 52.

128 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 149.

129 GARCÍA DE CORTAZAR eta MONTERO, 52



Riverarentzat “*separatismoa*” Estatuaren arazo nagusietako bat zela, nahiz eta lehen momentu batean begi onez ikusi “*erregionalismo osasuntsu*” bat. CNVK guztiz besarkatu zuen jarduera bako estrategia, agian errejimen berria “*aldi baterako Diktadura bat izango zela*” pentsatzen zelako, hau da, behin-behineko egoera bat arazo politiko eta sozialak konpontzeko. Ez zen hala izan<sup>130</sup>.

Maila instituzionalean, eta Diktadurak bultzatu nahi zuen erregenerazioarekin bat, lehenengo neurrietako bat izan zen irailaren 30eko Errege Dekretua, zeinaren bidez ordezkatzeko baitziren udalak eta aldundiak, Euskal herrikoak izan ezik, 1923ko urriaren hasieran<sup>131</sup>.

Horregatik, urriaren 2an, Plentziako postuko Guardia Zibilaren kaboa azaldu zen Urdulizko Udaletxean Udalbatza guztia kargugabetzen zuen dekretua irakurtzera. Haren ordezkoa, Udaleko bokal elkartuek osatua zegoen, eta Julián Llona Bilbao ipini zuen alkatetzan<sup>132</sup>. Hura zinegotzia izana zen 1916ko urtarriletik<sup>133</sup> 1922ko martxoaren amaiera arte<sup>134</sup>. Alkateordea ere, Manuel Hormaza, Udaleko zinegotzi izana ere, 1897tik gutxienez ere, harik eta 1906an Udalbatza utzi arte<sup>135</sup>. Bokal elkartuek Udal Batzarra osatzen zuten, eta erakunde administratibo honetako kideak zozketaz hautatzen ziren. Zinegotzi izendaturik, esparru politiko desberdinetako jendeaz osatutako udaletxeak egituratu zituzten<sup>136</sup>.

<b>URDULIZKO UDALA Primo De Riveraren Diktadura - 1923-1930</b>	
<b>Kargua</b>	<b>Izen-Abizenak</b>
<i>Alkatea</i>	Julián Llona Bilbao
<i>Alkateordea</i>	Manuel Hormaza Urrutia
<i>Sindikoa</i>	Ramón Zabala Menchaca
<i>2. sindikoa</i>	Juan Eugenio Arteta
<i>1. errejidorea</i>	Tiburcio Madariaga Juaristi
<i>2. errejidorea</i>	Fernando Arrarte Amezaga
<i>3. errejidorea</i>	Antonio Bilbao Argaluz

130 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 149- 151.

131 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 160

132 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922ko uztailetik 1930eko abendura bitarteko Akta Liburua, Bilkura 1923-10-2

133 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1907-1917ko Akta Liburua, Udalaren eratze-akta 1926-1-1

134 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1917-1922ko Akta Liburua, Udalaren eratze-akta 1922-4-1

135 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1899-1908ko Akta Liburua, *Udal karguen zerrenda* 1899-10-9 eta *Udalaren eratze-akta* 1906-1-1.

136 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 161.

137 U.U.A. “Historikoa” 5. kaxa, 1922-1930ko Akta Liburua, Udalaren eratze-akta 1923-10-2.

1924ko martxoan Udal Estatutua indarrean sartu zen; haren arabera, zinegotzien erdiak izaera korporatibokoak izan behar ziren, hau da, erakunde edo elkarteetatik etorriak, eta beste erdiak “herri-hautapenekoak”, baina hau ez zen inoiz bete, gobernadoreek izendatu zituztelako. Udal Lege berriak Bizkaiko udal ugari kargugabetzea ekarri zuen. Helburua zen udalbatza osotara primorriveristak lortzea eta haien kideak Unión Patriótica sartzea, hau da, Errejimenak bultzatutako alderdi ofizialean<sup>138</sup>.

Urdulizen ez zen halako kargugabetzerik gertatu. Aldiz, Udal Estatutuak ezarritakoari jarraituz, 1924ko apirilaren 7an erabaki zen “(...) *egungo Udalbatzak behin-behinekoz funtzionatzen segitzea harik eta Hauteskunde Errolda berria onetsi arte*”. Horretarako, batzorde iraunkor bat eratu zen indarrean zegoen Udalbatzarekin, eta berrikuntza bakarra bigarren alkateorde bat izendatzea izan zen, ordura arte bakarra egon baitzen<sup>139</sup>. Nahiz eta Udalbatzari behin behineko izaera eman, 1930ean Primo de Rivera jausi arte iraun zuen.

1923ko kolpe militarra jazo zenean, Liga Monarkikoak kontrolatzen zuen Bizkaiko Aldundia; berriz, CNV-k lau diputatu zituen<sup>140</sup>. Aldundiaren gainean Ligak zeukan kontrola argi geratu zen, esate baterako, Udal urduliztarrari gonbidapena egin zitzaionean 1924ko maiatzaren 4an “(...) *Gaztedi Monarkikoak Garellanoko erregimentuari oparitzen dion bandera entregatzeko ekitaldira*” joateko. Udalbatza modura eta udal idazkari Luis Navarrokekin joateko erabakia hartu zuen, “(...) *ordezkari izateko Aberriaren Entseinaren omenaldiaren ohorean (...)*”<sup>141</sup>. Argi dago, beraz, Udalak norainoko atxikimendua zuen Ligaren oinarrien aldera. Aurrerago ikusiko dugun legez, ez zen bakarra izan atxikimendu adierazpen hori.

1926ko otsailean Gobernuak UPko bost diputatu izendatu zituenean, Ligako diputatuak beren karguak utzi zituzten, upetisten gorakadaren aurrean beren desadostasuna agerian utziz. Horren ondorioz euskal aldundiak desegin zirenean, Aldundiak UPk kontrolatuta amaituko du 1927an. Ramón de la Sota y Aburtok 1925eko udan karguari uko egitean eta Ricardo Urrutia diputatuak CNVko baja aditzera ematean, CNVkoek soilik bi diputatu mantendu zituzten. Horri gehitu behar zaio diputatu errepublikazale bakarraren dimisioa. 1927ko udan Aldundia desegin ostean, dagoeneko zeuden UPko diputatu berberak izendatu zituzten, eta, aldiz, kanpoan utzi zituzten gelditzen ziren CNVko biak<sup>142</sup>.

---

138 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 161.

139 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922ko uztailetik 1930eko abendura bitarteko Akta Liburua, *Udalaren eratze-akta Udal Estatutuarekin bat 1924-4-7*.

140 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 162.

141 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922ko uztailetik 1930eko abendura bitarteko Akta Liburua, *Bilkura arrunta 1924-5-3*.

142 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 162-163.

Unión Patrióticari dagokionez, alderdi politiko ofizial gisa 1924an sortu zen, Errejimenari zimendu eman ziezaion. Harekin batera, “Somatena” sortu zen, milizia zibil moduko bat. Erakunde berri horien alderako atxikimenduari buruz, hona zer dioten García de Cortázar y Monterok:

*“(…) no fueron pocos los que en el País Vasco se alistaron en la Unión Patriótica o en el Somatén: unos con entusiasmo, otros con la esperanza de recibir alguna compensación de poder. La misma dinámica de régimen imponía un mecanismo de adhesiones totalitarias, del que no pudieron sustraerse grandes sectores de la sociedad vasca”<sup>143</sup>.*

Alderdien jarrera askotarikoa izan zen Unión Patrióticaren sorreraren aurrean: batzuk “UPn sartzearen alde agertu ziren edo beren kideei askatasuna eman zieten”; aldiz, “CNVk ez zuen iritzirik azaldu”. De Pablok, Meesek eta Rodríguez Ranzek, euskal nazionalismoari buruz egindako lanean, jaso zituzten Bizkaiko herri batzuetako UPko afiliatuen ideologia politikoaren gaineko datuak. Haien iritziz, “(...) upetista gehienak Ligatik zetozen edo monarkiko independenteak ziren”. Ostera, nahiz eta udalerrri batzuetan egon “(...) UPn sartutako nazionalistak”, aztertutako herri gehienetan, ez zegoen nazionalismotik etorritako bakar bat ere alderdi primorrivistari afiliatu zirenen artean<sup>144</sup>.

Urdulizi dagokionez, ez daukagu daturik Unión Patrióticari buruz, baina argi dirudi alkatea eta zinegotziak afiliatuta egon zirela, kargu publikoak horretara behartuta egoten zirelako. Badakigu, gainera, udal Idazkaria, Luis Navarro, Somateneko partaide izan zela, 1937ko abuztuan aditzera eman zuenez<sup>145</sup>. Navarroren kasua arestian aipatutako derrigortasunaren barruan kokatuko genuke. Afiliazioari buruzko datu faltagatik ere, Udaleko Akta Liburuak atxikimendu keinu argiak biltzen ditu Errejimenaren eta monarkiaren aldera. Horra; esaterako, 1928an Portugaleteko alkateak gobernadore zibilarri makila bat oparitzeko proposamenari hamar pezetako laguntza emateko erabakia<sup>146</sup>. Edo Julián Llona alkatearen proposamena, prentsaren bidez Primo de Rivera jeneralaren eta “*andereño aristokratiko baten*” berehalako ezkontzaren berri izatean, Udalaren ahalmenen araberrako oparia egiteko “(...) zelanbait eskertzearren militar eta abertzale zorioneko eta ausart horrek Aberriari egindako zerbitzuak (...)”. Aho batez onartu zen eta gainera “(...)Primo de Rivera jaun txit gorenari” eman zitzaion akordioaren berri<sup>147</sup>. Oparia “*liburu-euskarri sorta bat izan zen*” 75 pezetako balioa izan zuena<sup>148</sup>. Monarkiak ere

---

143 GARCÍA DE CORTAZAR eta MONTERO, 52.

144 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ 166-168.

145 ARCHIVO INTERMEDIO MILITAR NOROESTE (A.I.M.N.) Bilboko funtsa, 694/37 auzia, *Luis Navarro Torronteguiaren ikerketa-deklarazioa* 1937-8-6.

146 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922ko uztailetik 1930eko abendura bitarteko Akta Liburua, *Bilkura arrunta* 1928-2-4.

147 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922ko uztailetik 1930eko abendura bitarteko Akta Liburua, *Bilkura arrunta* 1928-4-21.

148 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922ko uztailetik 1930eko abendura bitarteko Akta Liburua, *Bilkura arrunta* 1928-5-11.

atxikimendu keinuak jaso zituen: Erregina Victoria ohorezko alkate izendatu zen 1927ko martxoan. Horrekin batera, erabakia hartu zen andrearen erretratua erosteko eta Udaletxean ipintzeko<sup>149</sup>.

Arestian esan dugun legez, nazionalistak jarduerarik gabeko egoera batean geratu ziren, kultur ekintzara mugaturik. Horretarako, 1923. urte bitartean sortutako “*erakunde sateliteen sarea*” erabiliko dute, sugar nazionalista pizturik mantentzeko lagungarri, euskal pintura, dantza eta musikaren garapenaren bidez. Horren ondorioa izango da “(...) *euskal kulturaren berpizkundea, abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren arteko muga lausoan kokaturik*”, “*etor zitezkeen errepresioak*” saihestu zituena <sup>150</sup>. Kultur ekintzez gain, kirol ekimenak edo erlijiosoak ere egin ziren. Horren adibide ditugu urteroko Sabino Aranaren alde egiten ziren mezak, “(...) *ehun eta hamar baino gehiago*” 1928ko azaroan, “*jeltzaleak 1923 aurretik non zeuden ezarrita, geografia berean*”<sup>151</sup>. Urdulizen, azaroaren 25ean egin zen meza<sup>152</sup>.

Primo de Riveraren diktadura bitartean, José Brotons Llona *Txiberri* heldu zen Urdulizera. Pertsona hori funtsezkoa gertatuko zen Bigarren Errepublikaren garaian herriko nazionalismoa berpizteko. Bilbotar hau Laukizko Comunion Nacionalista Vascako zuzendaritzako kide zen 1923an, Idazkari kargua zuela<sup>153</sup>, baita herri horretako *Euzkadi* egunkariko korrespontsala ere. Laukizen bere emaztearen osabarekin egin zuen topo, Francisco Bilbo Goirigolzarri abadea, nazionalista berau ere, antza denez. Diktadura primorrivistaren hasieran, nahiz eta jada Laukizko erretorea ez izan, ezpada Meñakako lagunkide, salaketa bat jaso zuen “*separatismoagatik*”. Horrelakoak oso ohikoak izan ziren Diktaturako urteetan, haren ezaugarrietako bat izan baitzen “*aginte zibiko-militarraren esku sartzea apaizen jarduketan*”. Laukizko EAJ sortu izana eta Meñakatik zuzentzea leporatzen zitzaion<sup>154</sup>. Dirudienez, *Txiberrik* Laukiztik alde egiteak arrazoi politikoak ditu atzean<sup>155</sup>. Horrela agertu zuen 1939ko uztailan Getxoko Falangearen delegatu batek idatziriko txostenak. Idatzi hori Brotons aurkako epaiketan erabili zen Gerra Zibilaren ostean eta honela zioen, besteak beste: “*Orain dela urte batzuk Urdulizen kokatu zen, Laukiztik etorrira; han jazarri zitzaion separatismoaren alde lan egiteagatik*”. Gehitzen zuenez, gizona “(...) *Laukizko abade separatista Francisco Bilbao jaunarekin ahaidetuta zegoen, eta haren jarraitzaile handia zen*”<sup>156</sup>.

149 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udalaren Akta Liburua eta Kideen Batzarra (1911ko otsaila - 1931ko martxoa), 1927-3-14.

150 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 184.

151 *Ibíd.* 153.

152 *Euzkadi* 1928-11-24.

153 *Euzkadi* 1923-1-19.

154 PEREA, Joaquín: *El modelo de iglesia subyacente en la pastoral del clero vasco (1918-1936)*, Bilbo, Instituto Diocesano de Teología y Pastoral, Editorial Desclee de Brower, 1991, IV. liburukia, 2110-2113.

155 Sabin Brotons Astobietaren ahozko lekukotasuna, 2013-7-28. *Txiberriren* semearen irtiz, “*erbesteratzea*” izan zen bere aitak Laukiztik irtetea.

156 A.I.M.N. Bilboko funtsa, 11089-39 auzia, *Getxoko F.E.T. y de las J.O.N.Sen txostena José Brotons Llonaren gainean* 1939-7-21.

*Txiberri* Urdulizera heldukeran, berak bidaliko ditu herriari buruzko berriak egunkari nazionalistara. Garai horretan, korrespontsal urduliztarraren idatziek CNVk eta *Euzkadik* markatutako ildoetara jarraitzen zieten argi eta garbi, gai politikoak saihestuz. Hartara, Diktadura garaian idatzitako artikuluek protagonista nagusitzat euskara izan zuten (toponimia, euskarazko izenak), nazionalismoaren aterpe izan zen euskal kulturaren sustapenarekin bat etorri<sup>157</sup>.

CNVk legez, Solidaridad de Obreros Vascos sindikatua ere ibili zen euskal kulturaren aldeko ekimenak sustatzen Diktadura etortzean, ekintza politiko eta sindikala eten behar-eta. 1911n sortu zenetik eta 1923ra arte, SOVek afiliazio hazkunde handia izan zuen, baina hori errotik moztu zen estatu kolpeak orokorrean sindikalismoari ekarritako krisiarekin. 1926ko azaroan indarra hartu zuen *Erakunde Korporatibo Nazionalari* buruzko dekretuak, harreman industrialak sistema korporatibo baten bidez zuzentzeko xedez: horretarako tresna batzorde parekideak ziren, patroiak eta langileak neurri berean zeuden bertan ordezkatura. Dekretuak jarduera sindikalaren susperraldia ekarri zuen, batzorde horietan ordezkapena izateko eskubidea baitzuten langile erakundeek. Horrek beste ondorio bat ekarri zuen, alegia, afiliazioaren hazkundera, ezinbesteko baldintza zen-eta hauteskunde sozialetako erroldan izena emateko eta boto eskubidea edukitzeko<sup>158</sup>.

1929an, bazegoen Urdulizen sail bat sortzeko asmoa<sup>159</sup>, baina helburu hori ez zen irailaren 1a arte lortuko. Bere egoitza "*Etefanía*"ren (sic) etxean ezarri zuten<sup>160</sup>, Zuzendaritza honako pertsona hauek osaturik zegoela:

<b>URDULIZko S.O.V.en SAILA 1929ko iraila</b> <sup>161</sup>	
<i>Lehendakaria</i>	Francisco Zalbidea Barandica
<i>Idazkaria</i>	Juan Aspiazua Ormaza
<i>Diruzain-kontatzailea</i>	Antonio Iñiguez Unibaso
<i>Bokalak</i>	Donato Ormaza Madariaga

157 Berbarako: *Euzkadi* 1927-3-15, Urdulizko "*Umaran*" leku izenari buruz, edo *Euzkadi* 1928-5-18 eta 1929-12-20 euskarazko izenei buruz.

158 ANSEL, Darío: *ELA en la Segunda República. Evolución sindicalista de una organización obrera*, Tafalla, Txalaparta, 2011. 44-46.

159 *Obrero Vasco* 1929-2-28 eta 1929-5-16.

160 Hau da, Elortzako "Udal Alondegian", dokumentazioan agertzen den legez, Estefana Ugartek gobernatzen zuena. Eraikin horrek udaletxe moduan erabili izan zen Francoren diktaduraren hasieratik gaur egungo udaletxea eraiki arte.

161 *Obrero Vasco* 1-9-1929 y 16-9-1929.

1930eko urtarrilean, *Euzkadiko* orrietatik, *Txiberrik* aditzera eman zuen zenbait pertsona SOVera afiliatu zirela, baina beste asko falta zirela eta pausu hori ematera adoretu zuen jendea<sup>162</sup>. Alde horretatik, geroago arrazoituko dugun legez, badirudi Urdulizen nazionalismoa berrantolatzea zela *Solidaridaden* tokiko sail horren sorreraren helburu nagusia.

Politika alde batera utzita, garai honetan Urdulizen hainbat hobekuntza egin ziren azpiegituren alorrean. 1927ko apirilean, Telefonika Konpainia Nazionalak obrei ekin zien Urdulizen bertan zerbitzu telefonikoa ezartzeko; berri horrek piztu zuen “(...) *poz handia bizilagunen artean*”. Apur bat lehenago, martxoaren hasieran, Udalak Tomas Guibelondori esleitu zizkion “(...) *mugape honetan dauden harrobietara sarbide izateko*” errepide berriaren eraikuntza lanak. *El Liberal* egunkariak azpimarratu zuenez, Urdulizko Udaletxearen asmoa zen “(...) *obrei bizkortasun handia ematea (...), harrobiaren ustiapena lehenbailaheh hasi ahal izateko*”. Premia honen arrazoiak ekonomikoak ziren, denbora gutxi barru hasi behar baitziren “(...) *garrantzi handiko obrak Mungian*”, eta uste zen bertan “(...) *harri mordo handiak*” erabiliko zirela harrobietatik aterata<sup>163</sup>.

Era berean, ura ekarri zen herrira Atxarteko iturburutik<sup>164</sup>, eta horrekin hirugarren azpiegitura. 1926ko irailaren 12an inauguratu zen, zerbitzuaren kudeaketa *Urdulizko Uren Elkartearen* esku gelditu zelarik<sup>165</sup>. Antonio Araluze arkitektoa izan zen proiektuaren egilea, eta obra ez gauzatzeko zorian egon zen, haren kostu handia zela eta. “(...) *Juan Uribe, Martín Zarraga, Manuela Amézaga, Gregorio Urrutia eta Pedro Goirigolzarri jaun-andreek osaturiko bizilagun taldeak*”<sup>166</sup> *Urdulizko Uren Elkarte*a sortu zuen, ordea, baita obrek behar zituzten 75.000 pezetako ekarpena egin ere<sup>167</sup>. 1926ko maiatzaren 1ean hasi ziren lanak. Elkarteari “(...) *izaera herritarra emateko*” asmorekin, Urdulizko beste bizilagun batzuei gonbita egin zitzaizen bertan parte hartzeko. Hona haien izenak: “(...) *Pedro Larrea, Dolores Uriarte, Víctor Urrutia jauna-andreak, Echegaray senideak*”. *Uren Elkarteak*, “(...) *Urdulizenganako maitasunak*” bultzaturik, Udalarri gorde zion “(...) *ur hauek erosteko eskubidea, egindako gastuak baino ordaindu behar izan barik*”<sup>168</sup>.

---

162 *Euzkadi* 1930-1-16

163 *El Liberal* 1927-3-19

164 *El Liberal* 1927-2-19

165 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922ko uztailetik 1930eko abendura bitarteko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1926-8-7 eta Bilkura arrunta 1926-9-4

166 *Euzkadi* 1926-9-14.

167 *La Gaceta del Norte* 1926-9-14.

168 *Euzkadi* 1926-9-14.

Instalazioak inauguratzeko hainbat ospakizun erlijioso eta umoretsu egin ziren, obra hauek Urdulizentzat zuten garrantzia azpimarratuz. Instalazioak bedeinkatuz eta parrokian meza esanez eman zitzaion hasiera egunari. Segidan, txirrindu lasterketa bat egin zen eta eguerdian oturuntza elizaren arkupeetan; bertan udalbatzaz eta *Uraren Elkarteko* kideez gain, Araluze arkitektoak eta Santanderko trenbidearen zuzendariorde Areitio jaunak parte hartu zuten. Egunari amaiera bikaina emateko Erandioko Udaleko Musika Bandak erromeria alaitu zuen, arratsaldetik ilunabarra sartu arte luzatu zena<sup>169</sup>.

Espainiako Estatura itzuliz, Miguel Primo de Riveraren diktadurak ezin izan zituen, 1927an, Unión Patrioticaren eta Batzar Nazional Aholku-emailearen porrotak jasan. Batzarra ez zen aurrera atera sozialistek uko egin ziotelako bertan parte hartzeari. Aliantza bila zebiltzan errepublikanoekin eta ez zuten parte hartu gura "*Errejimenari ordezkagarritasun itxura emango dion Konstituzio berri baten ernalketan*". Horrenbestez, Diktadorea eta bere errejimena kale itsu batera heldu ziren eta Primo de Riverak dimititzen amaituko du 1930eko urtarrilean <sup>170</sup>.

---

169 *El Noticiero Bilbaíno* 1926-9-14, *Euzkadi* 1926-9-14, eta *La Gaceta del Norte* 1926-9-14.

170 GARCÍA DE CORTAZAR eta MONTERO, 54.

## 2. ERREPUBLIKA, GERRA ZIBILA HASI ARTE







## 2.1 Bizitza politikoa

### 2.1.1 Primo de Riveraren jausialditik 1931ko apirileko udal hauteskundeak arte

Primo de Rivera jeneralaren dimisioaren ostean, 1930eko urtarrilaren 28an, Berenguer jeneralak eratu zuen Gobernu berria. Espainian “*Dictablanda*” esan ohi zitzaion hasitako aroari. Agintaritza berriak hasiera-hasieratik erakutsi zuen bere gogoia “(...) 1876ko Konstituziora bueltatzeko, ezer jazo ez balitz bezala”<sup>171</sup>. Baina Alfontso XIII.aren monarkiaren eta Diktaduraren arteko lotura estuak hiltzeko zauria eragin zion erregetzari. Luze gabe ikusi zen “(...) *diktadorearen jausialdiak monarkiaren amaiera bizkortuko zuela*”<sup>172</sup>.

Sistema politikoaren gainbeherak eragindako ezinegon orokorraren hazkundeak sendotu zuen oposizio errepublikazalea<sup>173</sup>. Errepublikanoek eta katalanistek beren lehenengo bilera egin zuten Donostian, 1930eko abuztuaren 17an. Hartatik sortutako akordioari *Donostiako Ituna* deitu zitzaion eta oinarriak ezarri zituen Espainian Errepublika ezartzeko eta Kataluniari autonomia emateko sistema errepublikanoaren barnea n. Urrian, PSOEek eta UGTk bat egin zuten akordioarekin. Euskal Herrian egin izanagatik, EAJ ez zen bilerara joan. Nazionalismoaren zutabe funtsezkoetatiko bi –katolikotasuna eta kontserbadurismoa– “(...) ez ziren ondo ezkontzen *Espainiako errepublikanismoaren laikotasunarekin eta aurrerakoitasunarekin*”. Horri gehitu behar zaio abertzaletasunak Monarkia-Errepublikaren auzian hartu zuen jarrera, neutraltasunaren aldekoa<sup>174</sup>.

Berenguerren Gobernuaren lehen erabakietarik izan zen Primo de Riveraren Diktaduraren denboran izendatutako udalbatzak desegitea eta haien ordeztu behin-behineko beste batzuk ezartzea. Gobernuaren araudiaren arabera, 1923 baino lehenagoko hauteskundeetan boto gehien jaso zituzten zinegotziek eta udalerriko zergadun handienek bete zituzten udalbatza berrietako postuak. Otsailaren 24an, EAJk, CNVk, jaimistek eta errepublikanoek (aurrerago, PSOEek ere bai) erabaki zuten “(...) *udalbatza hauetan posturik ez onartzea, herriak beren botoekin hautatzen ez zituen bitartean*”. Guztiz zaila da jakitea erabaki hau osoan bete ote zen. Nazionalisten kasuan, barne diziplina ez zegoen oraindino sendotuta, eta udal berriak izendatzeko erabilitako sistemak haietatiko batzuk bultzatu zituen, beharbada, zinegotzi kargua onartzera<sup>175</sup>.

171 GRANJA SAINZ, José Luis de la: *El Oasis Vasco: el nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madrid, Tecnos, 2007, 85-86.

172 GARCÍA DE CORTAZAR, Fernando eta MONTERO, Manuel: *Historia Contemporánea del País Vasco. De las Cortes de Cádiz a nuestros días*, Donostia, Txertoa, 1995, 54.

173 *Ibid.* 54.

174 GRANJA SAINZ, 86.

175 PABLO, Santiago de, MEES, Ludger eta RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco. I: 1895-1936*, Bartzelona, Crítica, 1999, 195-196.

Urdulizen, Udala 1930eko otsailaren 26an eratu zen. Egun berean uko egin zion karguari Pedro Goirigolzarri Arambalzak. Zinegotzia izendatua izana zen zergadun handiena izateagatik. Udala 8 zinegotzirekin eratu zen, 1000 biztanle baino gutxiago izateagatik. Zortzietatik, erdiak kargu horretan ibiliak ziren Diktadura baino lehenago, eta beste erdiek zergadun handien zerrendatik irten behar zuten, “*goitik beherako ordenan, kuota handienak zituztenetik hasita*”. Hasieran, Goirigolzarri aukeratutako zergadunen zerrendatik kanpora geratu zen, baina hirugarrena, Tiburcio Garaizar<sup>176</sup>, kanpoan zegoen eta, berriz, laugarrena, Juan Arambalza alkate ohia<sup>177</sup>, gaixorik. Goirigolzarri Udalean sartu zen, Cipriano Inchaurtietarekin batera<sup>178</sup>, horren guztiaren ondorioz<sup>179</sup>. Pedro Goirigolzarri uko egin bazion, ez zen izan arrazoi politikoengatik; itsasgizona zenez, lanbideak behartzen zuen aldian behin kanpoan egotera. Hori nabarmen gelditzen da Bigarren Errepublikan egin zuen ibilbide politikoari erreparatuta, aipatutako arrazoiak zenbait aldiz huts eginarazi ziolako Udalera, aldi horretako Akta Liburuko oharren arabera. 1930eko martxoaren 29an gobernadore zibilak Goirigolzarriren uko egitea onartu zuenean, badirudi argi dagoela lan kontuengatik izan zela, izan ere, zehaztu zenez, “*(...) behar bezala justifikaturik dago, interesduna kanpoan dagoelako*”<sup>180</sup>. Tiburcio Bilbao Madariaga izendatu zen haren ordeiz<sup>181</sup>.

Udala, beraz, honela geratu zen behin betiko eraturik:

<b>UDALBATZA 1930eko otsaila – 1931ko apirila</b> <sup>182</sup>		
<b>Izena</b>	<b>Kargua</b>	<b>Izendapenaren kontzeptua</b>
Cipriano Inchaurtieta Abaroa	<i>Alkatea</i>	Zergadun handiena
Juan Abaroa Goirigolzarri	<i>1. alkateordea</i>	Zergadun handiena
José Olea Bilbao	<i>2. alkateordea</i>	1920ko hauteskundeak
Bernandino Bilbao Aguinaga	<i>Sindikoa</i>	1920ko hauteskundeak
Isidro Barandica Bilbao	<i>1. erregidorea</i>	1922ko hauteskundeak
José Agustín Menchaca Urquizu	<i>2. erregidorea</i>	1922ko hauteskundeak
Tomás Guibelondo Alberdi	<i>3. erregidorea</i>	Zergadun handiena
Tiburcio Bilbao Madariaga	<i>4. erregidorea</i>	Zergadun handiena

176 Ezezaguna zaigu haren filiazio politikoa.

177 Badakigu abertzaletasuna begi onez ikusten zuela.

178 1931n Udalean jarraitu zuen, zinegotzi errepublikano moduan.

179 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, Zinegotzien aldarrikatze-akta 1930-2-25

180 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, Gobernadore zibilaren gaztigua Urdulizko alkateari 1930-3-29

181 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, Tiburcio Madariaga zinegotziaren aldarrikatze-akta 1930-4-15. 1931n jarraitu zuen Urdulizko Herriko Etxean, zinegotzi nazionalista moduan.

182 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Akta Liburua eta Kideen Batzarra 1921-1931, Alkatearen izendatze-akta 1930-2-26, Alkateordeen izendatze-akta 1930-2-27, Sindiko eta erregidoreen hautatze-akta 1930-3-6.

1931ko urtarrilean, Berenguerren Gobernuak, sistema konstituzionalera itzuli nahirik, hauteskunde orokorren deialdia egin zuen hurrengo martxorako. Ez zen hauteskunderik izan, ez aurkeztea erabaki zutelako ezkerreko alderdi guztiek eta monarkiko batzuek. EAJK bai erakutsi zuen bozketetan parte hartzeko gogoia. Horrekin monarkia babestu gura ez bazuten ere, nazionalistek, antza, uste zuten irauin egingo zuela<sup>183</sup>.

Hauteskunderen deialdien porrotak Gobernu berri baten etorrera eragin zuen, monarkiko guztiak baturik. Juan Bautista Aznar almirantea zuen buru. Kabinete berriak udal hauteskundeak deitu zituen 1931ko apirilaren 12rako eta, oraingoan bai, alderdi guztiek onartu zituzten. Baina bozketa horiek, zentzu administratiboa barik, bihurtu ziren Monarkia eta Errepublikaren arteko hautua ebazteko bidea<sup>184</sup>.

Urdulizen ez zen hauteskunderik egon 1931ko apirilaren 12an. Zinegotziak apirilaren 5ean aldarrikatu ziren, 1907ko Hauteskunde Legearen 29. artikulua indarrez. Testu horren arabera, hautagai-zerrenda bakarra aurkezten bazen, hura osatzen zutenak zuzenean zinegotzi bihurtzen ziren, bozketak egin behar barik. 6an aldarrikapenaren akta bidali zitzaion Probintziako Batzordeko buruari<sup>185</sup> eta 7an, Bizkaiko Gobernu Zibilak ohar bat utzi zuen kazetariaren eskutan zinegotziak modu horretan aukeratuak zituzten udalen gainean<sup>186</sup>. Udala <sup>187</sup> apirilaren 18an eratu zen, honela osaturik:

<b>UDALBATZA 1931ko apirila –1933ko urtarrila</b> <sup>188</sup>		
<b>Kargua</b>	<b>Izen-abizenak</b>	<b>Filiazio politikoa</b>
<i>Alkatea</i>	Pedro Goirigolzarri Arambalza	Nazionalista
<i>1. alkateordea</i>	Pedro Larrea Arambalza	Nazionalista
<i>2. alkateordea</i>	Cipriano Inchaustieta Abaroa	Errepublikanoa
<i>Sindikoa</i>	José Agustín Menchaca Urquizu	Komunista
<i>1. zinegotzia</i>	Tiburcio Bilbao Madariaga	Nazionalista
<i>2. zinegotzia</i>	José Olea Bilbao	Errepublikanoa
<i>3. zinegotzia</i>	Bernardino Bilbao Aguinaga	Nazionalista
<i>4. zinegotzia</i>	Isidro Barandica Bilbao	Nazionalista
<i>5. zinegotzia</i>	Juan Abaroa Goirigolzarri	Nazionalista

183 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 206.

184 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 206.

185 BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOA (B.F.A.H.), AR 00340/015, Hauteskunde Erroldaren Udal Batzarrak Zinegotzi izateko hautagaiak aldarrikatzeko egindako bilkuraren aktaren kopia 1931-4-6.

186 *El Liberal* 1931-4-8.

187 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Udal berriaren eratze-akta 1931-4-18.

188 U.U.A. "Historikoa", 3. kaxa, Udaleko Estatistika Administratiboa, 1932.

Konparatzen baldin badugu Udalak 1930ean eta 1931n zituen osaerak, konturatuko gara ezen, Tomás Guibelondo kenduta, gainontzeko zinegotziek Udaletxean jarraitu zutela. Hartara, zinegotzi nazionalista moduan bete zituzten beren postuak Juan Abaroak, Bernardino Bilboak, Isidro Barandicak eta Tiburcio Bilboak. Horietatik, bik –Juan Abaroak eta Tiburcio Bilboak– apirilaren 14an eskatu zuten EAJn sartzea, 1. alkateorde Pedro Larrearekin batera; berriz, beste biak ez ziren inoiz afiliatu. Pedro Goirigolzarri, ostera, 1930eko abenduaren 7az geroztik zegoen *jeltzaleen* alderdian kide<sup>189</sup>.

Amaren aldetik, Pedro Goirigolzarri Arambalzaren familia udal agintearen gailurrean egon zen Errestaurazioaren garaian: Arambalzatarak. Bigarren Errepublikako lehenengo alkate urduliztarraren bi osaba ere herriko alkateak izanak ziren, Agustín de Arambalza Orbeta, 1895ean hila<sup>190</sup>, eta José de Arambalza y Orbeta, 1915ean zendu zena<sup>191</sup>. Beste alde batetik, haren aitagarreba Juan Manuel Zarraga ere izana zen Urdulizko alkatea, 1924an hil baino lehen. Azken honek *“Ibarra y Cía.”*<sup>192</sup> ontzi-konpainian ibili zen beharrean, kapitain-ikuskari, hain zuzen ere Goirigolzarriren lanbide bera *“Sota y Aznar”* ontzi-konpainian. Ez ziren itsasoan ibili ziren alkate bakarrak izan, Juan Arambalza alkate ohia ere izan zen itsasgizona. Beraz, laburbilduz, lanbide hau izan zen XX. mendeko lehen hereneko alkate urduliztar gehien ezaugarria<sup>193</sup>.

Cipriano Inchaurtietak eta José Oleak ere kargua berritu zuten, zinegotzi errepublikano moduan, eta José Agustín Menchaca komunista moduan. Olea zinegotzia izana zen Primo de Riveraren diktaduraren aurretik, baina orduan, 1920an kargurako aukeratu zutenean, zinegotzi kontserbadore *“zierbista”* moduan agertzen zen, Bernardino Bilbao legez, 1931ko zinegotzi nazionalista.

José Agustín Menchaca ere zinegotzia izandakoa zen Urdulizko Udalean Errestaurazioaren garaian, hau da, Udaletxea kontserbadurismoari loturik zegoen denboran. Harrigarria da Menchaca 1931-1933 tartean zinegotzi komunista moduan agertzea. Izatez, ez dirudi kideetasun hori sendo-sendoa zenik: 1934an zinegotzi izendatu zuten, Euskadiko udalen gatazkaren ondorioz, Udalerako Batzorde Kudeatzaile eskuindarra eratu zenean, baina azkenean ez zen sartu. Urte hartako irailean, *Euzkadi* egunkariak Menchacaren bilakaera politikoaren laburpena egin zuen, eta bertan gogorarazi 1931n zinegotzi komunista zena Unión Vascongada alderdi eskuindarreko burua zela, Urdulizen, 1934an. Puntu hartaraino heldu aurretik, eta betiere egunkari *jeltzaleak* zioenez, Menchaca *“prietista”* agertu zen eta geroago monarkiko<sup>194</sup>. 1934an eskumaren alde agertutako joera hori ez zen une bateko kontua izan: 1937an bigarren udal frankistako kide izateko proposatu zuten, nahiz eta, azkenik, orduan ere kargua

---

189 CENTRO DOCUMENTAL DE LA MEMORIA HISTÓRICA (C.D.M.H), P.S. Bilbo, 116 *“Solicitudes de Ingreso en el PNV de Urduliz (1930-34)”*.

190 *El Noticiero Bilbaíno* 1895-1-31. *Agustín Arambalza y Orbetaren eskela*.

191 *La Gaceta del Norte* 1915-1-30. *Agustín Arambalza y Orbetaren eskela*.

192 *El Noticiero Bilbaíno* 1924-9-21. *Juan Manuel de Zarraga y Argaluzaren eskela*.

193 Urdulizko Erregistro Zibileko datuak erabiliz egindako informazioa.

194 *Euzkadi* 1934-9-13.

ez bete<sup>195</sup>. Horrez gain, aipatu beharra dago José Agustín Menchaca, Algortan 1893an jaiotakoa<sup>196</sup>, Elorrioko familia aberats batetik zetorrela amaren aldetik, karlismoari lotua bera, Urquizutarrak: Concepción Urquizu Zorrillaren aita José Niceto Urquizu Arriaga zen<sup>197</sup>, Bizkaiko politikoa ezaguna, ondare handi baten jabea<sup>198</sup>. Beste alde batetik, José Agustín Menchacaren aita, Francisco Ciriaco Menchaca Gangoiti laukiztarra<sup>199</sup>, obra-maisua izan zen eta “(...)Getxoko udal arkitekto lanetan ibili zen urte askotan”, izan ere “(...) eraikin publiko eta etxebizitza ugairren arduraduna izan zen 1880ko eta 1890eko hamarkadetan”, batez ere Algorta aldean<sup>200</sup>.

Urdulizko Udaletxean 1931n ikusten ditugun aldaketa ideologikoak ez ziren zerbait isolatua; probintzia osoan berdintsu gertatzen ari zen, monarkiaren gainbehera eta jausialdiak eta Errepublikaren etorrerak eraginda. Dena dela, askotan, aldaketa ideologikoak baino zuzenagoa litzateke pentsatzea batzuk, erregimena aldatuta, egoera berrira egokitzen baino ez zebiltzala. José Agustín Menchaca Urquizuren kasua adibide garbia litzateke, baina ez bakarra. Zalantza barik, Igor Barrenetxeak dioen legez, garbi geratzen da, orokorrean gaitza dela “(...) 30eko hamarkadan landaguneko zinegotziak halako joera ideologiko batekin lotzea”<sup>201</sup>.

Urdulizko Udala zelan eratu zen 1931ko apirilean, horrek ere azterketa merezi du. “Itun” edo “akordio” baten isla izango zen hautagai-zerrenda bakarra aurkeztu zela-eta zinegotziak 29. artikulua arabera aldarrikatzea. Alde horretatik, ez dirudi kasualitatea denik 1930ean eratutako udalbatzako 8 zinegotzietatik 7k Udalean jarraitzea 1931n. Itun horren ondorioz, karguak banatzeko orduan, gutxiengo ez nazionalistak sarbidea eduki zuen udalbatzaren gailurrean. Horrela Cipriano Inchaurtietak, zinegotzi errepublikanoa bigarren alkateorde bihurtu zen, eta Agustín Menchaca zinegotzi komunista, berriz, sindiko.

195 U.U.A. 246. kaxa, 1937-1954ko posta trukea.

196 A.H.E.B. 4157/003-00, Algortako San Nicolás de Bari parrokiako Bataioen Liburua 1892 – 1899, José Agustín Menchaca Urquizuren bataio agiria 1893-5-8.

197 A.H.E.B. 1983/001-00, Elorrioko Sortzez Garbiaren parrokiako Bataioen Liburua 1853 – 1868, Concepción Pía Urquizu Zorrillaren bataio agiria 1862-5-6.

198 AGUIRREAZKUENAGA, Joseba (Zuz.): *Diccionario biográfico de los Diputados Generales, burócratas eta Patricios de Bizkaia (1800 - 1876)*, Bilbo, Bizkaiko Batzar Nagusiak 1995, 444-447. José Niceto Urquizu Arriaga Elorrio bere jaioterriko alkatea izan zen, baita bertako ordezkaría ere Gernikako Batzar Nagusietan, eta hiru bider diputatu nagusia: 1852-1854 biurtekoan, 1856-1858koan eta 1860-1862koan. Gainera, senadore aukeratu zuten 1871n, nahiz eta “izendapena ez zen onartu, ez zitzaizolako aitortu jesarlekua betetzeko legezko gaitasunik. Hori dela-eta, dimisioa eman zuen osasun arazoak argudiatuta”.

199 A.H.E.B. 2455/001-01, Laukizko San Martin Apezpikuaren parrokiako Bataioen Liburua 1823 – 1867, Francisco Ciriaco Menchacaren bataio agiria 1841-4-7.

200 BEASCOECHEA GANGOITI, José María: “La ciudad segregada de principios del siglo XX. Neguri, un suburbio burgués de Bilbao” in *Historia Contemporánea* 24, 2002, 245-280, aipamena: 257.

201 BARRENETXEA MARAÑÓN, Igor: “Plencia y el Estatuto de Estella. La proclamación de la II República y la autonomía en un municipio vizcaíno” in *Sancho el Sabio*, 14, 2001, 127.

Plentziako Udalean ere antzeko jokabidea aurkitu dugu 1931ko maiatzaren 31n udal hauteskundeak errepikatu ostean. Abagune hartan, Martin Amezaga EAeko zinegotzia “(...) zinegotzi kontu-hartzaile aukeratu zuten”, nahiz eta ez zen izan “(...) boto gehien jaso zituen hautagaietatik” ezta “(...) alderdi nagusikoa, EAJkoa, izan ere”. Igor Barrenetxearen iritziz, halako kargu bat haren eskutan uztea “(...) aintzatespen” seinale bat legez interpreta liteke, “(...) Udaleko Batzorde Kudeatzailearen agintaldian erlijio auzia dela-eta” Amezagak agertutako “jarrera toleranteagatik”, Olalde zinegotzi errepublikanoaren jarrera antiklerikaletik urrun. Horretaz berba egiteko aukera edukiko dugu Bigarren Errepublikaren garaiko gatazkei eskainitako kapituluan. Barrenetxeak iradokitzen du beste zergati bat egon litekeela Amezagaren izendapenean: “(...) EAE alderdi nazionalista zen, zenbait kontutan EAJ ez bezalako izan arren”<sup>202</sup>. Hala eta guztiz, aurrerago ikusiko dugun bezala, Martin Amezagak, 1934an, irauli bat eman zion bere ibilbide politikoari, EAeren oinarrietatik urrun.

1931ko apirileko hauteskundeek Euskadin ekarri zituzten emaitza orokorrek erakusten dutenez, monarkikoez garaipena lortu zuten herri txiki askotan nagusi geratu zirelako. Bilbon eta Donostian, ostera, hautagai-zerrenda errepublikano-sozialistak irabazi zuen. EAJK, azkenik, emaitza halan-holangoak eduki zituen, lurraldean zehar modu desberdinetan bananduak; guztira, 500 bat zinegotzi. Emaitza horiek aldatuko ziren Errepublika ezarrita, hauteskundeak udalerrri batzuetan errepikatu zirelako maiatzaren 31n. Bozketa berri haietan gora egin zuen zinegotzi errepublikano eta abertzaleen kopuruak. Honetara helduta, esan beharra dago 1931ko apirilean aukeratutako hainbat zinegotzi monarkiko eta independente errepublikanismoa edo abertzaletasunera aldatu zirela<sup>203</sup>. Horra, esate baterako, Plentzian jazotakoa. Apirileko hauteskundeetan aukeratutako Udalak hiru nazionalista, hiru monarkiko, independente bi, EAeko bat eta errepublikano bat zituen osakide; maiatzean, berriz, “(...) Euskadi ia-ia osoan jazo zen legez”, desagertu ziren zinegotzi monarkikoak “(...) erregimen aldaketak birrinduta”, eta zapi eskuratu zituen EAJK, bi errepublikanoek eta bat EAek<sup>204</sup>.

---

202 Ibid., 136-137.

203 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 207.

204 BARRENETXEA MARAÑÓN, 126, 128 eta 136.

## 2.1.2 Bigarren Errepublikaren aldarrikatetik Gorteetarako 1933ko azaroko hauteskundeetara

Apirilaren 12ko udal hauteskunderen emaitzak, Espainia guztian, monarkikoei eman zien garaipena, boto kopuruan behintzat. Estatuko hiriburu gehienetan, ostera, monarkiaren kontrako indarrak nagusitu ziren.

Horiek horrela, Bigarren Errepublika aldarrikatu zen 1931ko apirilaren 14an, Eibarren inon baino lehenago Estatu osoan. Egun berean, *“Errepublika katalana”* aldarrikatu zuen Bartzelonan Francesc Maciàk, *“Iberiar Federazioko Estatu osakide moduan”*, eta Getxoko alkate Jose Antonio Agirrek, berriz, Euskal Errepublika. Alcalá-Zamoraren behin-behineko Gobernuak erantzun desberdinak eman zizkien egitate berdintsuei. Katalunian, Maciàrekin akordioa egin zuen eta Kataluniako Generalitat ezarri zuen, autonomia aurreko erakunde gisa. Euskal Herrian, alkate nazionalistek gernikan elkartu nahi izan zuten Bizkaiko Batzar Nagusiak berpizteko eta, Errepublikaren barnean, euskal gobernu baten sorrera eskatzeko, baina segurtasun indarrek galarazi zuten<sup>205</sup>.

Gernikan huts egindako ekitaldia irteteko seinalea izan zen *“euskal alkateen mugimendua”* antolatzeko, Hego Euskal Herrirako Estatutuaren sorrera bultzatzea eta kudeatzea helburu. Maiatzaren 8an, Estatutua prestatzeko manatu zioten Eusko Ikaskuntzari; haren idazketa hilabete bereko 31n zegoen amaituta<sup>206</sup>. Estatuaren aurreproiektuaren erredaktore nagusien artean Ramón Madariaga errepublikanoa nabarmendu zen, artikuluen atal handi bat idazteko ardura hartu zuena. Gero, buru-belarri ahalegindu zen *“(…) ezkerreko udalen eta euskal Diputazioetako Batzorde Kudeatzaileen sostengua lortzen Estatutuarentzat”*<sup>207</sup>.

Estatutuaren testua onartzeko, alkateen mugimenduak deialdia egin zuen lau probintzietako udalek batzar handia egin zezaten, Iruñean, ekainaren 14an. Bilkura baino lehen, ekainaren 7an, EAJren batzarrak onetsi zuen Estatutuan aldaketa bi sartzea. Batetik, gogortu egiten zen euskal lurraldean jaio bakoek herritartasuna lortzeko baldintza, *“(…) bitik hamarrera igoz eskualdean bizi beharreko urteak (...)”*. Beste alde batetik, klausula erlijioso bat sartu zuten, zeinaren bidez Euskal Herriak beretzat hartzen zuen Vaticanoarekiko harremanak edukitzeko eskumena. Gobernuak *“(…)Errepublikarekiko desafioa”* iritzi zion horri, zuzen-zuzen egiten zuelako talka bere politika laizista eta antiklerikalarekin. Gipuzkoako udalek berretsi zituzten EAJren zuzenketak, ekainaren 11n Azpeitian egindako batzarrean<sup>208</sup>.

205 GRANJA SAINZ, 87.

206 FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: *El País Vasco 1931 – 1937: autonomía, revolución, guerra civil*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002, 70.

207 <http://www.euskomedia.org/aunamendi/77990> Hitza: Ramón Madariaga Azcuenaga.

208 FUSI AIZPURUA, 79.



Eusko Ikaskuntzak Estatutuaren erredakzioa amaitu baino lehen hasita zeuden Udal guztien batzarra Iruñean egin ahal izateko lanak. Maiatzaren 30ean, Urdulizko alkate Pedro Goirigolzarrik ekainaren 14ko bilkura horren berri eman zien Udalbatzako gainontzeko kideei. Nahiz eta “(...) berez etorri eta beharrezkoa izan (...) udal honen ordezkartza handia” joatea, “(...) Udalak ez daukanez dirua soberan”, erabaki zen ordezkari bakarra joatea bilkurara. Pedro Larrea alkateordea aukeratu zuten “*aho batez*”, eta honek, berriz:

*“(...) en vista de los escasos fondos con que cuenta este Ayuntamiento, propuso que él sufragaría todos los gastos de su persona y los del Secretario de la Corporación, siendo por este rasgo de esplendidez unánimemente (sic) aplaudido”*<sup>209</sup>.

Plentzian, apirilaren 12an aukeratutako udala eskumakoa zen gehiengoz (hiru nazionalista, hiru monarkiko eta independente bi), aurrean zituztela ezkerreko zinegotzi bi. Udalerrri horretan bai egon zen, maiatzaren 4an, alde aurreko eztabaida, gaia izanda “*udalerrriaren atxikimendua mugimendu nazionalistari*”. Nicolás Landa alkate nazionalistaren eta EAEko zinegotzi Martín Amezagaren arteko sesioak ondo islatu zituen indar abertzaleen arteko desadostasunak “*(...) Estatutua zelan egin behar zen erabakitzeko orduan*”. Igor Barrenetxearen kontakizunari jarraituz, EAEko zinegotziak kontra egin zion alkateak proposatutako atxikimenduari, ez zegoelako ados “*(...) udalen ordezkariak Euskal Estatutua egitearekin*”<sup>210</sup>. Ibarrondo errepublikanoarekin bat, Amezagak azaldu zuen Plentziako Udalak zer egin behar zuen, bere ustez:

*“(...) cursar, en todo caso, al Gobierno de la República el deseo del municipio de Plentzia de establecer en el País Vasco (especificando su composición por las provincias de Vizcaya, Álava, Guipúzcoa, así como también Navarra) un organismo de gobierno provisional de Euskadi, determinado por sufragio universal (como había sucedido en Cataluña), y dentro de la República Federal Española”*<sup>211</sup>.

Alkateak erantzun zien gutxiengo ezkertiarreko zinegotzi biei, “*(...) bere asmoa ez zela “bere Estatutua” inposatzea (...)*”. Landak defendatzen zuen udalek, Eusko Ikaskuntzak eta alderdi politikoek parte-hartze berdina edukitzea Estatutuaren proiektua gauzatzeko. Amezagak bereari eutsi zion, eta horretarako arrazoitu zuen “*(...) Estatutuaren erredakzioa Aldundiko Batzorde Kudeatzaileari baino ez zegokiola (...)*”. Garbi dagoenez, nazionalisten eta monarkikoen gehiengoak onartu zuen Udalaren atxikimendua “*(...) Getxoko, Mundakako, Bermeoko eta Elorrioko alkateak Euskal Estatutua egituratzeko eta prestatzeko egiten dabiltzan akordio eta kudeaketei (...)*”<sup>212</sup>.

---

209 U.U.A. “Historikoa”, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-5-30.

210 BARRENETXEA MARAÑÓN, 131-132.

211 *Ibid.*, 132.

212 BARRENETXEA MARAÑÓN, 131-132.

Beste herri batzuetan bezala, Plentzian ere, atzerago esan dugun legez, Udala desegin eta Batzorde Kudeatzaile batek hartu zuen haren lekua, harik eta maiatzaren 31n ostera ere udal hauteskundeak egin arte. Gobernadore zibilak izendatutako Batzorde Kudeatzaileak ez zuen udalerriko errealitate politikoa ordezkatzeko, bi errepublikanoak eta EAeko zinegotzi Martin Amezagak osaturik zegoelako. Batzorde hori ideia errepublikanoen ispilu garbia izan zen alderdi guztietan. Hartara, aurreko Udalak alkateen batzarrari atxikitzea erabaki bazuen ere, Batzordeak, aho batez ebatzi zuen “(...) *kontuan ez hartzea*” maiatzaren 30eko zirkularra, udalei gonbit egiten ziena ordezkaritza bat bidaltzera Iruñean ekainaren 14an egin beharreko udalen batzarrerera<sup>213</sup>.

Dena dela, batzar hori ez zen azkenean Iruñean egin, Lizarran baino, nafar hiriburuan mitina egin behar zuen Bloke Katoliko-Fueristak eta EAJK ez zuen oraindino harekin bat egin.

Udal hauteskunde partzialen ostean, Plentziako udal berria ekainaren 13an eratu zen, udalen batzarra baino egun bat lehenago. Nicolás Landa alkate berraukeratu berriak egun horretan bertan proposatu zuen Udaleko ordezkaritza bat izendatzea, Lizarrara joateko. Olalde, zinegotzi errepublikano aukeratu berria, ez zen bat etorri, ez zitzaiolako segitzen “(...) *Aldundiko Batzorde Kudeatzaileak erabakitakoari, eta Euskal Herriko alderdi politiko handi batzuk ez zirenez hara (Lizarrara) joan behar, ez zuelako ordezkatzeko euskal errealitate politikoa*”. EAeko zinegotzi Amezagak, nahiz eta ez egon erabat ados Estatutuarekin, “(...) *haren alde agertu zen, “autonomia benetan gauzatzeko behar den batasuna izan dadin” (...)*”. Horrela, eta bere alderdiaren iritzia kontra, Lizarrako testuaren aurkakoa baitzen eta, aldiz, Eusko Ikaskuntzaren Estatutuaren aldekoa, Amezaga “(...) *agertu zen Plentziak bilkura horretan parte hartzearen alde, zeren, “ulertu duenez”, Estatutuaren proiektua “Madariaga jaunaren aurreproiektuan” oinarriturik bazegoen, ados zegoen ordezkaritza ofizial bat bidaltzeko, haren onespenerako*”. Udaleko gehiengo nazionalistak, gehi EAeko zinegotziak, onetsi zuen Lizarrara udal ordezkaritza bat bidaltzea<sup>214</sup>.

---

213 Ibid. 133-134.

214 Ibid. 137.

Uribe Kostan, EAJren eskutan zeuden udal guztietako alkatetzak; guztietakoak, bat bakarra izan ezik: Gorlizko Udala, udal hauteskondeak maiatzaren 31n errepikatzearen ondorioz. EAJk zinegotzi bat baino ez zeukan; Udalbatzaren gainontzekoa EAeko seik, errepublikano batek eta sozialista batek osaturik zegoen<sup>215</sup>. Hala ere, Udalak ordezkari bat bidali zuen Lizarrara “(...) Udalaren erabakia betez, batzar horri eskatzeko Eusko Ikaskuntzaren Estatutua osorik onesteko(...)”<sup>216</sup>, eta “(...) protesta egiteko, Eusko Ikaskuntzaren Estatutuan sartutako aldaketengatik (...)”<sup>217</sup>. Hori hala izanik ere, “(...) batzarrean onetsitako ondorioetan kontu hori isildu egin zuten, erabaki guztiak aho batez hartuak zirela adierazita”. Azken hori ikusita, Bachik, *El Liberal*-go kronikariak, adierazi zuen logikoa zela

*“(...) por tanto, que la representación de Gorliz acudiera a la Asamblea de las Comisiones Gestoras de las Diputaciones (Foru Aldundian ekainaren 19an egin zena), donde por cierto prosperó, salvo en cuestiones de forma, el criterio de este Ayuntamiento”*<sup>218</sup>.

Estatutua Lizarrako Batzarrean onetsi zen, bertan zeudela 427 alkate 548tik. Hala eta guztiz, Juan Pablo Fusiren iritziz “engainagarria” da zenbaki hori, falta zirelako lau hiriburuetakoko alkateak, horiek izanik biztanleria osoaren % 30, baita beste udalerrri garrantzitsu batzuetakoak ere, hala nola Barakaldokoa, Sestaokoa, Eibarkoa edo Arrasatekoa. Dena dela, Fusiren ikuspegian, horiek ez egoteak “(...) ez zuen ukatzen Lizarrako Batzarraren gehiengo kutsua, agerian utzita ere haren kontrako oposizio garrantzitsu bat (...)”<sup>219</sup>.

Gobernuaren hurbilekoak ziren Aldundietako Batzorde Kudeatzaileak; horiek eta ezkerreko alderdiek hasiera-hasieratik interesa erakutsi zuten, ñabardurak ñabardura, Eusko Ikaskuntzaren jatorrizko testuaren aldera. Zenbait udalek erabaki zuten 14ko batzarrera ez joatea, besteak beste Bilbokoak, edo arestian aipatu diren Barakaldokoa eta Eibarkoa. Alkateen multzoak, ausentzia horien larritasunaz jabeturik, egoera salbatzen saiatu zen Batzorde Kudeatzaileei eskainiz udalen bilkuraren lehendakari. Batzordeek, orduan, aurreikusitako batzorra geroratzeko eskatu zuten “(...) beren lanak amaitu arte eta bakoitzak

---

215 *El Liberal* 1931-6-4.

216 *El Liberal* 1931-7-8.

217 *El Liberal* 1931-7-14.

218 *El Liberal* 1931-7-8.

219 FUSI AIZPURUA, 78 eta 81.

*bere udalak batu ahal izan arte*". Ez zen, ostera, elkar aditzerik izan. Juan Pablo Fusiren hitzetan, jarrera horien atzean "(...) *lehia gogor bat zegoen eskualdeko lidergo politikoagatik, hauteskunde orokorren gertutasunak areagotuta*"<sup>220</sup>. Alde horretatik, hona zer dioten Fusik:

*"(...)la campaña de los alcaldes fue una inteligente maniobra del nacionalismo para recuperar el liderazgo político que las históricas elecciones del 12 de abril de 1931 habían dejado en manos de la izquierda"*<sup>221</sup>.

Ekainaren 14an, Lizarrako Batzarraren egun berean, Gipuzkoako Batzorde Kudeatzaileak beste bilera baterako deialdia egin zuen Donostian. Hartara "(...) *probintziako herri nagusiak agertu ziren*": Donostia, Irun, Eibar, Beasain, Pasaia, Arrasate edo Errenteria. Bizkaiko Batzordeak, berriz, bilera baterako deialdia egin zuen, ekainaren 19rako. Hartara 32 udal agertu ziren probintziako 116tik, baina horiek "(...) *Bizkaiko hautesleen % 60a ordezkatzan zuten*"<sup>222</sup>.

Alkate titularra kanpoan zegoela-eta, Pedro Larrea zen Urdulizko jarduneko alkatea. Hilaren 18an, harek jakinarazi zien bere udalkideei, Aldundiko Batzorde Kudeatzaileko buruaren gaztigu bat jaso zuela, ezkerrek prestatutako "(...) *Euskal Estatutuaren proiektuarekin batera*", eta horrez gain, deialdi bat Udalari, batzar baterako:

*"(...) en el Palacio de la Diputación el día diez y nueve (sic) de este mes a las diez de la mañana, con objeto de discutir el proyecto de Estatuto Vasco que se ha de presentar a las Cortes Constituyentes (...)"*<sup>223</sup>.

Udalak erabaki zuen "*aho batez (...) Batzarreko ordezkarietarako (...) Getxoko alkate Jose Antonio Agirre eskuordetzea*"<sup>224</sup>.

Esan bezala, aho batez hartu zen erabaki hau, abertzaleak ez ziren hiru zinegotzietako inork desadostasunik agertzen ez zuela; Plentzian, berriz, alderantzizkoa jazo zen. Aldundiko Batzorde Kudeatzaileko buruaren deialdia ikusirik, Plentziako Udalak, Urdulizkoak egin bezala, Getxoko alkate Jose Antonio Agirreren eskutan utzi zuen bere ordezkarietza, baina erabakiak sei zinegotzi nazionalisten botoa baino ez zuen jaso, bi zinegotzi errepublikanoak eta EAeko ordezkaria kontra agertu ziren-eta. Hona zer argudiatu zuen Plentziako alkateak: "(...) *Lizarrako ekitaldiaren ostean, "Euskal Herriko udal gehien-gehienekin batera", eta bertan Estatutua onetsita, ez zitzaion komenigarria iruditzen hartara agertzea (...)*", nahiz eta oniritzi Aguirre eskuordetzeari, Udalen

220 *Ibíd.*, 77-78.

221 *Ibíd.*, 71.

222 *Ibíd.*, 81.

223 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura berezia 1931-6-18.

224 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura berezia 1931-6-18.

Batzorde Iraunkorreko kidea zelako. Arrazoi horiei, Casimiro Olalde zinegotzi errepublikanoak erantzun zien Udalak Lizarrara ordezkaritza bat bidalia zuenez, beste horrenbeste egin behar zuela Aldundiko bilerara joanda<sup>225</sup>.

Errepublikako behin-behineko Gobernuak ekainaren 28rako egin zuen Gorteetarako hauteskunderen deia. Xedea, Konstituzioa onartzea, erregimen errepublikanoaren euskarri. Euskadin, ostera, hauteskunde lehia korapilatu zen garai hartako euskal politikan nagusi ziren gai bien inguruan: erlijio auzia eta autonomiaren auzia. Biak lotu-lotuak geldituak ziren Lizarrako Estatutuan. Beraz, bloke bi sortu ziren, bakoitza mutur baten eta elkarren aurkakoak<sup>226</sup>.

Batetik, eskumen blokea, nazionalistek, karlistek eta katoliko independenteek osatua. Lizarrako Estatutuaren klausula klerikalak "(...) *zimendu eman zion indar hauen hauteskundeetako aliantzari*"<sup>227</sup>, legeria errepublikanoak Euskadin aplikatu nahi zuen antiklerikalismoaren kontra baitzeuden. Eliza katolikoaren eta ordena sozialaren defentsak batzen zituen, alde horretatik. Nazionalistek eta tradizionalistek Foruen berrezarpena gura zuten eta beren nahia lortzeko hasiera egokia iruditzen zitzairen Lizarrako Estatutua. Hala eta guztiz, EAJk eta Comución Tradicionalistak ikuspegi desberdinak zituzten Estatutuaren helburuaz. Nazionalistentzat, lehenengo pausua zen Euskadiren subiranotasunaren eraikuntzan; karlistentzat, berriz, erregimen errepublikanoa leherrarazteko tresna<sup>228</sup>.

Beste aldean, ezkerrek Estatutua gaitzesten zuten haren klerikalismoagatik, eta Eusko Ikaskuntzak prestatuturiko Estatutu proiektua kontrajartzen zioten. Gauza guztien gainetik nahi zuten Euskadi "(...) *gotorleku klerikal eta antierrepublikanoa*" bihurtzea galarazi eta Errepublika defendatu<sup>229</sup>.

Horregatik guztiagatik, politika erlijioso eta autonomikoari buruzko bozketa bihurtu ziren hauteskundeak Euskal Herrian. Eskumen blokea gertatu zen garaile, 15 diputatu eskuratuta (5 Bizkaian 5 Nafarroan, 4 Gipuzkoan eta 1 Araban). Ezkerrek 9 jesarleku eskuratu zituen (4 Bizkaian, 2 Nafarroan, 2 Gipuzkoan eta 1 Araban). Nabarmentzekoa da errepublikanoek eta sozialistek osaturiko multzoak lau hiriburuetan irabazi zuela, baita Bizkaiko eta Gipuzkoako industria eremuetan, Arabako Errioxan eta Nafarroako Erriberan ere. Estatuaren gainerakoan, bloke errepublikano-sozialistak garaipen handia lortu zuen eskuma gaizki antolatuaurrean<sup>230</sup>.

---

225 BARRENETXEA MARAÑÓN, 138.

226 GRANJA SAINZ, 176.

227 FUSI AIZPURUA, 81.

228 GRANJA SAINZ, 176.

229 *Ibid.* 176.

230 *Ibid.* 175-176.

Urdulizen, 244 hauteslek –23 urtetik gorako gizonezkoak– osatzen zuten hauteskunde-errolda; haietatik, 207k eman zuten botoa. Alde handiz irabazi zuen eskumako koalizioak (nazionalistak, karlistak eta katolikoak); Bilboko Barrutian 4 nazionalistak osatzen zuten haien zerrrenda. Sozialista bik eta beste horrenbeste errepublikanok osaturik zegoen koalizio errepublikano-sozialista, eta hutsaren hurrengo sostengua eskuratu zuen. EAE, berriz, bakarrik aurkeztu zen Bizkaian eta boto bi baino ez zituen lortu. Hona hemen hauteskundeetako emaitza:

<b>GORTEETAKO DIPUTATUEN HAUTESKUNDEETAKO EMAITZA</b>	
<b>URDULIZ 1931-6-28</b> <sup>231</sup>	
<b>Hautesle kopurua: 244</b>	<b>Boto-paper irakurriak: 207</b>
<b>Hautagaiak</b>	<b>Botoak</b>
José Horn Areilza (EAJ)	187
Manuel de Eguileor Orueta (EAJ)	187
Cosme Elguezabal Urrengoechea (EAJ)	187
Manuel Robles Aranguiz (EAJ)	184
Indalecio Prieto Tuero (PSOE)	19
Luis Araquistain Quevedo (PSOE)	18
Vicente Fatrás Neira (Republicano)	18
Ramón M <sup>a</sup> Aldasoro Galarza (Republicano)	18
José Ignacio Arana Erezuma (ANV)	2

Euskadi eta Nafarroa baturik, “(...) Lizarrako Estatutuaren aldekoek botoen % 56 eskuratu zuten; Blokeak eta EAEk, hau da, Eusko Ikaskuntzarenaren aldekoak zirenek, % 42, eta PCEk, bi autonomia proiektuen kontrako, % 2 baino ez”. Horregatik, Eskumen Blokeak beren Estatutua onetsitzat jo zuen eta prestakuntzetan hasi zen 1931ko irailean Gorteetan aurkezteko<sup>232</sup>.

Irailaren 22an, Madrileraino joan zen “(...) herrialdeko alkateen enbaxada ikusgarria, 427 gutzira (...)”, behin-behineko Gobernuko lehendakari Niceto Alcalá-Zamoraren eskutan uzteko onetsitako Estatutuaren testua. Hura bazter geratu zen hiru egun geroago<sup>233</sup>.

231 B.F.A.H. AJ 02064/011 Hauteskunde akta 1931-6-28.

232 GRANJA SAINZ, 176-177.

233 FUSI AIZPURUA, 82.

Urdulizi dagokionez, harritzekoa da, partez behintzat, José Agustín Menchaca Urquizu<sup>234</sup> komunista<sup>235</sup> izatea irailaren 12an ordezkari izateko aukeratutako zinegotzia, “(...) *Lizarran onetsitako Euskal Estatutua Ministro Kontseiluko lehendakari txit gorenaren eskutan uzteko ekitaldian (...)*” parte hartzeko. Estatutu horren kontrakoa zen Euskadiko Alderdi Komunistaren jarrera, baina, atzerago esan dugunez, Menchacaren kideetasuna alderdi horren aldera guztiz dudazkoa da, kontuan hartzen badugu Primo de Riveraren diktaduraren aurretik egin zuen ibilbidea, eta bereziki 1932ko abenduaren ostekoa. Agustín Menchacak ekitaldi horretara Udalaren ordezkariroa eramatea sendotzen du zinegotziaren funsgabetasun ideologikoaren ideia, eta bere izate administratiboarena indartzen. Hori esanda, ez da ahaztekoa Menchacak sindiko kargua betetzen zuela udalbatzan; horrek baztertzen du Herriko Etxean oposizio bat izatea gehiengo nazionalistaren aurrean. Izatez, Udalaren lehenengo legealdi osoan, 1931ko apiriletik 1932ko abendura, Menchacak eta zinegotzi errepublikano biek ez zuten ezelango desadostasunik agertu ezein gairen gainean, ezta eurek ordezkatzeko zuten ideologiak bat ez zetozen gairen gainean ere, hala nola Estatutuaren auziaren gainean.

Udalak bere gain hartu zituen Menchacak Madrilerako egindako bidaiaren gastuak<sup>236</sup>, bere bizkar hartuta zinegotziak aurkeztu zuen faktura, guztira 89'50 pezeta<sup>237</sup>. Harritzekoa da Udalak Lizarrarako bidaia ez ordaintzea, ez zuelako “*dirua soberan*”, eta bai Madrilerako hau, inondik ere askoz ere garestiagoa. Eta guztia inor gastu horren kontra agertu barik. Lemoizen ez zen berdin gertatu; bertan, Alderdi Errepublikano Erradikal Sozialistak, Madrilerako ordezkariroa bidaltzeko Udalak hartutako erabakiaren jakitun, batzorde bat eratu zuen alkatearekin elkarriketatzeko eta Udalak hartutako erabakiarekiko desadostasuna adierazteko. Bidaiaren kostu handia zen, itxuraz, jarrera horren oinarria, izan ere “(...) *herriak ordainduz gero, (...) zergadun bakoitzari 15 pezeta inguru kostatuko litzaioke*”. Gainera, bilera hartan, errepublikanoek iradoki zioten udalburu lemoiztarrari ezen “(...) *bat egin nahi izanez gero, eskutitz baten bitartez egin zezaketela, hogeita hamar zentimo baino gehiago pagatu barik, edo, bestela, bidaia egiten zutenak eurak ahalegindu zitezela ordaintzen*”. Justo Hyete *El Liberal* egunkariako korrespondentsalako kontatu zuenez, Lemoizko alkateak, “(...) *hain arrazoi sendoak entzunda*”, bidaiaren auzia eroan zuen atzera ere Udalaren osoko bilkurara, “(...) *eta herria zenbat maite duen eta zenbat begiratzen duen frogatuta, erabaki zuen bere erabakian atzera egitea*”. Hyete kronikariak modu adierazgarrian ospatu zuen erabakia: “*Hori da hori, ondo administratzea!* (...)”<sup>238</sup>.

---

234 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-9-12.

235 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Udaleko Estatistika Administratiboa* 1932.

236 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-9-12.

237 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-10-10.

238 *El Liberal* 1931-9-4.

Esanda geratu den legez, testua entregatu eta hiru egun geroago, Estatutuak hondoa jo zuen, Alcalá Zamorak sartutako zuzenketa batek konstituzioaren aurkakoa bihurtu zuen-eta: Vatikanorekiko harremanek Estatuaren eskuetan behar zuten. Dena dela, Juan Pablo Fusik nabarmentzen du erlijio auzia ez zela izan Lizarrako Estatutuak porrot egiteko arrazoi bakarra. Afera lehenagotik zetorren, testuak ez zuelako “(...) *euskal indar politikoen aho bateko sostengua* (...)”, eta prozeduraren aldetik akats nabarmenak zeudelako horretarako “araudi zehatzik” ez egotearen ondorioz. Esate baterako, Nafarroako Diputazioko lehendakariak, 4 probintzietarako Estatutu bakarraren alde-aldekoa izanda ere, gaitzetsi zuen alkateen Madrilerako bidaiak Estatuak entregatu baino zenbait egun arinago, egin barik zegoelako udalek adostutako bozketa Estatuaren testuari behin betiko onspena emateko. Katalunian, berriz, erreferenduma egin zuten beren Estatuaren gainean, Parlamentura eroan aurretik<sup>239</sup>.

Beste alde batetik, beste errakuntza bat egin zen, Juan Pablo Fusiren iritziz “*funtssezkoa*”. Alcalá Zamorak euskal alkateei azaldu zenez, Gobernuaren ikuspegian bi kontuk baldintzapetuko zuten autonomien auzia, Donostiako Itunean hartutako konpromisoa izatea edo, bestela, Konstituzioak emango zion tratamendua. EAJ ez zen, ordea, Donostiako Itunean izan, eta Konstituzioa onetsi barik zegoen oraindino. Dena dela, Fusiren ustez, “*porrotaren azken arrazoiak politikoa izan zen*”; haren esanetan, Gorteen osaera eta ezkerrek Euskadin zuten indarra<sup>240</sup>.

1931ko abenduaren 8an argitara irten zen Indalecio Prietok erredaktaturiko dekretu bat, euskal estatutua mamitzeko eta onesteko prozeduraren araudia ezartzen zuena. Modu horretan, konponbidea ematen zitzaion horren gaineko arautegirik ezak zekarren arazoari. Dekretuaren arabera, Euskal Diputazioen Batzorde Kudeatzaileei zegokien testua egitea; horren ondorioa zen “(...) *EAJri kentzea kudeaketa autonomikoaren kontrola, (...) nazionalismoak uko egin baitzion erakunde horietan parte hartzeari*”. Beste alde batetik, dekretuak moldatzen zituen Estatutua onesteko eman beharreko pausuak: hasteko eta bat, probintzia bakoitzeko udalen batzarrek erabaki behar zuten Estatutu bakarra nahi zuten edo ez. Eredua Estatutu bakarra izanez gero, Euskadiko eta Nafarroako udalek, batera oraingoan, batzar bat egin behar zuten, eta horren ostean erreferenduma egin lau probintzien lurraldean. Azkenik, Parlamentuak onetsi behar zuen testua<sup>241</sup>.

EAJk, ekimen estatutarioaren kontrola galdu arren, dekretua onartu zuen eta abenduaren 9an erregimen errepublikanoaren onarpena erakutsi zuen Alcalá-Zamorari botoa emanda Errepublikako lehen lehendakaria izan zedin. Egun batzuk geroago, alkateen batzarrak ere onartu zuen Prietoren dekretua, eta gainera lankidetzak eskaini zien Batzorde Kudeatzaileei<sup>242</sup>.

239 FUSI AIZPURUA, 83.

240 *Ibid.*, 83-84. Arazo horren ikuspegia osatzeko: MEES, Ludger: “*Tras el fracaso de Estella: las pautas y claves del Estatuto de 1936*” in *Iura Vasconiae*, 10, 2013, 461-490.

241 *Ibid.*, 89-90.

242 *Ibid.*, 90.



1932ko urtarrilaren 31n eman zen 1931ko abenduaren 8ko Dekretuak ezarritako lehenengo pausua, egun horretan lau probintzietako udalak batzar bereizietan bildurik, bakoitza bere hiriburuan. Egun batzuk lehenago, urtarrilaren 23an, batzarraren gai nagusia azaldu zen Urdulizko Udalaren osoko bilkuran: “(...) *Gobernuari Estatutu bakarra proposatu behar ote zaion, Lau Probintzientzakoa, edo Probintzia bakoitzak berea eduki behar ote duen*”. Udaltzako lehenengo aukeraren alde egin zuen: “(...) *Estatutu bakarra izan zedila* (...)”. Estatutuaren formula erabakita, Pedro Larrea Arambalza jarduneko alkatea hautatu zen 31ko Batzarrean Udala ordezkatzeko<sup>243</sup>.

Urtarrilaren 31ko probintzietako batzarren emaitza izan zen “(...) *ikaragarria Estatutu bakarraren aldekoa*”, eta egun berean dei egin zitzaion Estatutu berria idazteko batzordeari. Hura martxoaren 21ean entregatu zen. Lizarrako testuaren aldean, bazeukan berritasunik; kendua zen Euskal Herriaren eta Vatikanoren arteko harremanen puntu gatazkatsua. Estatutuaren testu berriak apirilean jaso zuen alkateen eta batzorde Kudeatzaileen onspena<sup>244</sup>.

Maiatzaren 22rako egin zen deialdia Euskadiko eta Nafarroako udalen baterako batzarra Iruñean egiteko. Maiatzaren 7an, Urdulizko Udalak Pedro Goirigolzarri alkatea aukeratu zuen batzar hartarako ordezkari<sup>245</sup>. Hala eta guztiz, maiatzaren 22an, Nafarroako Diputazioko Batzorde Kudeatzaileak bertan behera utzi zuen deialdia. Azalpena ohar baten bidez eman zuen batzorde nafarrak, erabakia zer eta honi egotziz:

*“(...) la desorientación existente en lo que afecta al Estatuto vasconabarro en los distintos sectores políticos, desorientación que ya se había manifestado en los días anteriores y que se ha evidenciado anoche en la asamblea celebrada por los grupos de izquierda en la Escuela de Artes y Oficios (...)”*<sup>246</sup>.

Hori dela eta, Nafarroako Diputazioko Batzorde Kudeatzaileak ekainaren 19ra atzeratu zuen batzarra<sup>247</sup>. Data aldatetak era berean bestelakotu zuen Urdulizko Udalak bidali beharreko ordezkariak. Maiatzaren 28an, alkateak zinegotziei jakinarazi zien bazuela “(...) *herritik kanpora joateko premia, presako kontuek behartuta* (...)”, eta horretarako baimena eskatu zion Udaltzari, baita honek eman ere, Goirigolzarri kanpoan egon zedin “(...) *komeni adina denboran* (...)”<sup>248</sup>. Udaltzari falta, “(...) *beharrezkoa zenez gero beste norbait izendatzea haren ordezkari, baita ordezkaria ere, aho batez izendatu ziren José Agustín Menchaca jauna ordezkari eta Cipriano Inchaurtieta jauna ordezkari*”. Ekainaren 4an egin zen hori<sup>249</sup>.

---

243 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1932-1-23.

244 FUSI AIZPURUA, 90-92.

245 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1932-5-7.

246 *Euzkadi* 1932-5-20.

247 *Ibid.*

248 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1932-5-28.

249 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1932-6-4.

Kontua da, Nafarroan, Estatutuaren proiektua gero eta ihes nabarmenagoak jasotzen ari zela udalen batzarraren aurreko bi hilabeteetan; horra, Nafarroako Diputazioko Batzorde Kudeatzailearen oharrak aipatzen zuen “*desorientazioa*”. Batetik, karlistak Estatutuaren etsai agertu ziren guztiz, eta haren aurkako propaganda kanpaina abiatu. Bestetik, Nafarroako ezkerrek ere kontra egin zioten, gogor, herrialdea Estatutu proiektuan sartzeari<sup>250</sup>. Azkenik, Iruñeko Udalak Estatutuaren kontrako botoa eman zuen ekainaren 17an<sup>251</sup>.

Horrek guztiak iragarri zuen nafar udalek zein aldetara eginen zuten ekainaren 19ko ekitaldian. Gehienek –123k 247tik– aurkako boza eman zioten Estatutuari. Nafarroako udalen botoa susmopean egon zen, itxuraz honelakoak gertatu baitziren:

*“(...) irregularidades y maniobras, porque varios alcaldes votaron contra el mandato – favorable al Estatuto – de sus Ayuntamientos; pero de la asamblea de Pamplona se salió con el convencimiento (...) de que Navarra había votado no al Estatuto (...)”*<sup>252</sup>.

Kontu bitan bilatu behar dira Nafarroak Estatutuari eman zion ezezkoaren arrazoiak: nazionalismoak Nafarroan zuen indar txikia eta, beraz, euskaltzaletasunaren ahulezia gaurko Foru Komunitatean; eta, aldiz, karlismoaren indar ikaragarria, harenak baitziren botoen % 60. Horregatik, karlismoaren sostengua ezinbestekoa zen edozein xede politiko mamitu nahi izanez gero. Juan Pablo Fusiren iritzizi, “*hain zuzen ere besteak beste horrexegatik egin zen karlismoaren eta nazionalismoaren arteko aliantza, Lizarrako Estatutua bultzatu zuena eta, lau probintzietan, 1931ko hauteskunde orokorrak irabazi zituena*”. Itun hori, ostera, hauskorregia zen, bi jarrera ideologikoen bakarriz partekatzen zutelako erlijio auzia eta zelanbaiteko “*(...) kontzientzia, euskal-nafar kidesun etniko eta historikoaren gainean (...)*”. Karlismoaren xede politikoa, baina, erregimen errepublikanoa suntsitzea zen; eta, berriz, EAJ “*(...) legitimotasuna onartzeko prest zegoen*” euskal autonomia lortzeko. 1931ko udazkenerako lehen desadostasunak sortu ziren indar bien artean, eta horiek biziagotuz joan ziren Estatutuaren aurkako kanpaina ekarri arte, aipatu berri dugun legez<sup>253</sup>.

Euskadiko udalek babes berebizikoa eman zioten Batzorde Kudeatzaileen Estatutuari, baina Nafarroakoen arbuioaren ondorioz ez zen erreferendumik egin eta, gainera, birrindu egin zuen nazionalisten eta karlisten arteko aliantza<sup>254</sup>.

---

250 GRANJA SAINZ, 111.

251 FUSI AIZPURUA, 92-93.

252 *Ibíd.*, 93.

253 *Ibíd.*, 95-99.

254 GRANJA SAINZ, 111.

Proiektu estatutarioa geldirik geratu zen hiru hilabetez, harik eta, 1932ko irailean, Indalecio Prietok bere gain hartu zuen berriro. Prietok proposatuta, Gobernuak Donostia aukeratu zuen Kataluniako Estatutuaren sinaduraren agertoki izateko. Hiriak bazuen kutsu sinbolikoa, bertan gauzatu zen-eta, 1930ean, indar errepublikazaleen ituna; dena dela, harago zihoan Gipuzkoako hiriburuaren hautua. Errepublikako lehendakariari, Estatutu katalanaren sinaduran egon zela aprobetxaturik, itzuli bat antolatu zioten euskal lurraldeetan zehar, xede politikoz betea. Ibilaldiak Donostian jo zuen gailurra, Gobernuak Euskadiri autonomia emateko gertu azaldu zenean, nola eta Kataluniarako onetsitako testuaren ildo nagusiei jarraitu behar zien Estatutuaren bitartez, hau da, xehea eta zehatza. Gobernuak iragarpena egin eta zenbait egun geroago, Aldundiek atzera ere ekin zieten Estatutua hauspotzeko tramiteei. Hala eta guztiz, urtebete igaro zen ia Batzorde Kudeatzaileek udalen batzarren deialdia egin arte, testuari onespena eman ziezaioten<sup>255</sup>.

Bortizkeria giroa izan zen geldialdi horren arrazoietako bat. Bizkaian batez ere, liskar latzak izan ziren, 1932ko urritik 1933ko udara arte, nazionalisten eta errepublikano-sozialisten artean<sup>256</sup>. Borroka horien sustraia politikoa zen, Fusik azaltzen duenez: *“ezkerrak ez zuen autonomia bat nahi nazionalismoak hegemonizatua”*. Horregatik, 1932ko urritik aurrera, abertzaletasunaren aurkako kanpaina abiatu zen, xede garbi batekin:

*“(...) “republicanizar” las provincias vascas antes la inevitabilidad – y necesidad – de la autonomía, esto es, contener el crecimiento del PNV, limitar su poder en los pueblos del interior y de la costa y favorecer la consolidación de los partidos republicanos locales”*<sup>257</sup>.

*“(...) EAJ bako autonomia”* bilatzen zuen, beraz, “errepublikanizazio” estrategia hori, eta horrek gobernadore zibil berrien izendapena ere zekarren berekin. Errepublikako Gobernuaren sostenguz, gobernadoreak buru jarri ziren nazionalismoaren jazarpenean. Ildo horretatik zihoazen Bizkaiko gobernadore zibil José María Amilibiak hartu zituen lehen neurriak: esate baterako, urriaren 13an agindu zuen hiru koloreko bandera zabaltzeko udal guztietan, desafio eginik horrela EAJk kontrolatzen zituen udalei. Berehala hartutako beste erabaki bat izan zen bertan behera uztea Bermeoko eta Mundakako udal nazionalistak<sup>258</sup>.

1932ko urrian, Errepublikako Gobernuak lanean zebilen lehenago aipatu dugun 1907ko Hauteskunde Legearen 29. artikulua bitartez aldarrikatutako udalak kargugabetzeko eta hauteskunde deialdia egiteko, demokratikoki aukeratutako udalbatzak eratzearen.

---

255 FUSI AIZPURUA, 100-101.

256 GRANJA SAINZ, 112.

257 FUSI AIZPURUA, 101-102.

258 *Ibid.*, 102-103.

Horren aurrean, urriaren 9an, *Bizkai Buru Batzarrak* bilkura baten batu zituen lege proiektuak ukitu behar zituen herrietako uri buru batzarrak; 40, guztira. Haien artean zeuden Urdulizkoa, Sopelakoa, Barrikakoa, Berangokoa, Gatikakoa, Marurikoa edo Lemoizkoa. Bilkurak larri-larritzat jo zuen udalak batzorde kudeatzaileekin ordezkatzeko proiektua, eta “*bidegabea*” iritzi zitzaion. Hona hemen zergatik:

*“(...) estos Ayuntamientos constituidos de acuerdo con el repetido artículo representan indudablemente la voluntad popular, puesto que al constituirse ningún otro sector de la opinión de los municipios respectivos se manifestó, con lo que el artículo 29 no hubiese sido aplicado (...)”*<sup>259</sup>.

Gobernua prestatzen zebilen legeak estatu mailako aplikazioa izan behar bazuen ere, abertzaleek beren udal boterearen aurkako erasotzat hartu zuten. Alde horretatik, *Euzkadi* egunkarian argitaratutako artikulua batek zioenez, EAJ beldur zen ea benetakoa izango ote zen udal batzorde kudeatzaileen behin-behinekotasuna, eta Foru Aldundietan lege ez ote zen jazoko, batzorde kudeatzaileen eskutan baitzeuden Bigarren Errepublikara etorri zenetik. Horra egunkari nazionalistaren orrietatik egiten zen itauna: “(…) *Aldundietako Batzorde Kudeatzaileak ere ez ote ziren behin-behineko izendatu 1931ko apirilaren 17ko Kontseiluan?*”<sup>260</sup>.

Uri buru batzarren bilkurak, berriz, “*erakunde antieuskaldun eta antidemokratikoak*” iritzi zien batzorde kudeatzaileei, eta Gobernuaren lege proiektuak aurrera egingo zuela aurreikusirik, hona zer erabaki zuen bilkurak:

*“(...) el Partido Nacionalista, en cada uno de los pueblos de Bizcaya afectados por la medida, llevaría a la práctica los acuerdos adoptados, y es seguro que los demás Ayuntamientos de Bizcaya no afectados por la medida solidarizarán con los otros y causarán su protesta, llevando a la práctica también los acuerdos convenidos”*<sup>261</sup>.

Lege proiektuak jarraitu zuenez aurrerapausoak egiten, Urdulizko Udalak, gehiengo abertzalea baitzuen, bere desadostasuna agertu zuen egoerarekin, uri buru batzar jeltzaleen bileran ezarritako jarraibideekin bat. Azaroaren 6an, Urdulizko Udaletxeak “*aho batez*” erabaki zuen protesta egitea udalen kargugabetzeagatik, “(…) *haien ordezkari Batzorde Kudeatzaileak ezartzeko,*

---

259 *Euzkadi* 1932-10-11.

260 *Ibíd.*

261 *Euzkadi* 1932-10-11. Artikuluan ez da zehazten zein izan ziren erabaki horiek, baina, ondorioztatzen denez, EAJren kontrolpeko udalek protestak aurkeztea, horixe erabaki zen, antza.

*ordezkatzeko horrek mintzen dituelako herritartasun apur bat daukaten gizon guztiak*". Hori baino lehen, Udalak gomutarazi zuen bere baitan zituela, osakide, "(...) zinegotzi errepublikanoak, komunista eta abertzaleak, guztiak 29. artikulua bitartez aukeratuak inor kontra azaldu barik" eta horrek esan gura zuela eurak zirela "herriaren ordezkari bidezkoa". Horregatik, "zinegotzi guztiak (...) errepublikazale eta askatasunaren maitale zintzoak diren aldetik (...)" eskatu zuten ez ordezkatzeko "(...) inongo udalerririk edo zinegotzirik, delituren bat tarteko izan ezean" eta ezer egitekotan egin zitezela "(...) hauteskundeak, bestela jokatzeko agerian utziko lukeelako herriaren borondate subiranoari zaion mespretxua". Udalbatzako kideen artean bertan zeuden guztiak sinatu zuten delako erabakia: alkatea, hiru zinegotzi nazionalista, José Olea zinegotzia errepublikanoa eta Agustín Menchaca komunista<sup>262</sup>. Gero, "Madrilgo Gobernari" eta gobernadore zibilarari bidali zitzaion.

Urdulizko Acción Republicanako Batzarrak, bere zinegotziaren jarreraren aurrean, aho batez erabaki zuen, azaroaren 13an, "protesta egitea" Udalak hartutako erabakiagatik eta orobat bere jarreraren berri ematea Ministro Kontseiluko lehendakariari<sup>263</sup>.

Gobernuak 1933ko urtarrilaren 6an onetsi zuen legea. Hilaren 28an, kargugabetutako Udala "Kudeaketa Batzordeko kide izateko izendaturik zeuden jaunekin" bildu zen: Teodoro Primo López Casado maisua, batzordeburu izendatua, Enrique Legarra Bengoechea eta José Olea Hormaza<sup>264</sup>. Batzorde Kudeatzaile guztiak gobernadore zibilak hautatu zituen eta funtzionario batek, zergadun edo jabe batek eta behargin batek osaturik egon behar zuten. Urdulizen, funtzionarioa zen aldetik izendatu zuten batzordekide López Casado, Legarra jabe gisa eta Olea behargin moduan<sup>265</sup>. Egia esanda, izendapena oso orekatua izan zen ikuspegi politikotik begiratuta, Olea errepublikanoa zelako eta Legarra, gero zinegotzi eta alkate izango zena, nazionalista. Batzordeak arlo administratiboan baino ez zuen jardun eta maiatzean desegin zen, herriak hauteskundeetan aukeratutako udalbatza berriak karguaren jabetza hartuta.

---

262 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura berezia 1932-11-6. Erabakia *Euzkadin* ere argitaratu zen, 1932-11-8.

263 *El Liberal* 1932-11-6.

264 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, *Udal honen Batzorde Kudeatzailearen eratze-akta* 1933-1-28.

265 *Euzkadi* 27-1-1933.

Udal hauteskunde partzialak apirilaren 23an egin ziren, liskar giro ikaragarrian EAJren eta ezkerren artean. Emakumeen parte-hartzea izan zen bozketa horien berritasunetako bat. Bizkaian eta Gipuzkoan garaipen itzela eduki zuen abertzaletasunak<sup>266</sup>. Bizkaian lortutako nagusitasun horren isla izan zen Urdulizko emaitza, nazionalistek erabat beretu baitzuten udal ordezkariak. Udal berriaren jabetza hartzea maiatzaren 10ean egin zen, honela eraturik:

<b>UDALBATZA Maiatza – 1934ko iraila</b> <sup>267</sup>			
<b>Kargua</b>	<b>Izen-abizenak</b>	<b>Kidetasun politikoa</b>	<b>Boto kp.</b>
<i>Alkatea</i>	Pedro Goirigolzarri Arambalza	Nazionalista	240
<i>1. alkateordea</i>	Manuel Menchaca Gorordo	Nazionalista	211
<i>2. alkateordea</i>	Enrique Legarra Bengoechea	Nazionalista	240
<i>1. sindikoa</i>	Benito Otazua Artaza	Nazionalista	240
<i>2. sindikoa</i>	Juan José Camiruaga Gorodo	Nazionalista	210
<i>1. zinegotzia</i>	Cipriano Iturregui Uriarte	Nazionalista	239
<i>2. zinegotzia</i>	Dionisio Arambalza Abarrategui	Nazionalista	244
<i>3. zinegotzia</i>	Juan Abaroa Goirigolzarri	Nazionalista	210
<i>4. zinegotzia</i>	Tiburcio Llona Egusquiza	Nazionalista	236

Hautagaiak aldarrikatzeko aktak erakusten digu abertzaleak arraso egiteko asmotan aurkeztu zirela, aukeratu beharreko zinegotziak adina hautagai aurkeztu zituztelako, hau da, bederati. Errepublikanoek, berriz, sei hautagai aurkeztu zituzten, “gehiengoa”<sup>268</sup> lortu nahirik. Hautagai-zerrenda errepublikanoa ordezkari barik geratu zen, boto hauek lortuta:

<b>HAUTAGAI-ZERRENDA ERREPUBLIKANOA</b> <b>UDAL HAUTESKUNDEEN EMAITZA (1933-4-23)</b> <sup>269</sup>	
<b>Hautagaiak</b>	<b>Botoak</b>
Cipriano Inchaustieta Abaroa	59
Eduardo Betolaza Ocariz	54
Romualdo Olea Otazua	54
José Hormaza Unibaso	51
José Olea Bilbao	49
José Olea Hormaza	47

266 FUSI AIZPURUA, 105-106.

267 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Udal berriaren eratze-akta 1933-5-10, eta B.F.A.H., AR 00347/011 Zinegotzien hautapena 1933, Hautagaien aldarrikatze-akta 1933-4-16

268 B.F.A.H., AR 00347/011 Zinegotzien hautapena 1933, Hautagaien aldarrikatze-akta 1933-4-16.

269 Ibíd., Zinegotzien hautapena 1933, Boto-kontakteta orokorraren akta 1933-4-17.

Udalbatza berria, beraz, nazionalista izan zen osotara. Maiatzaren 20an hartutako erabaki sortan *jeltzaleen* errebindikazioak biltzen ziren. Hasteko eta bat, protesta egin zuten 1839ko urriaren 25eko legearen aurka, “(...) *Espainiako Monarkiak inposatu baitzion Bizkaiari eta Penintsulako euskal herrialde senideei* (...)” eta eskatu “(...) *Errepublikako botereei*” lege hori bidegabe deklaratzeko eta “(...) *Bizkaian ez aplikatzeko*(...)”. Beste alde batetik eskatzen zuten Foru Aldundiko Batzorde Kudeatzailea desagitea, Bizkaiko udalerrien batzar batek izendaturiko alkateen batzorde batek ordezkaturata, harik eta “(...) *Aldundirako herri-bozketak egin arte*”. Azkeneko eskakizuna, atxiloketa “*gubernatiboen*” amaiera eta atxilotuen “*berehalako askatasuna*”<sup>270</sup>.

Bitartean, 1933ko apirilean, Batzorde Kudeatzaileek aginduta Estatutua prestatzeko ardura zuen batzordeak konponbidea aurkitu zion Nafarroako udalek 1932ko ekainean Estatututik aparte gelditzeko hartutako erabakiak sortutako egoerari. Batzordearen proposamenak bide bat asmatu zuen Nafarroak euskal autonomiarekin bat egin ahal izateko etorkizunean horrela erabakiz gero. 1931ko abenduaren 8ko dekretua aldatzea ekarri zuen horrek<sup>271</sup>.

Ezarritako urratsei jarraituz, deialdia egin zen Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako udalen batzarrerako. Urdulizen, uztailaren 21ean, Goirigolzarri alkateak zinegotziei aditzera eman zien Aldundiko Batzorde Kudeatzailearen jakinarazpen bat jasoa zela, hiru probintzietako udalei dei egiteko Gasteizen abuztuaren 6an egingo zen batzarrera, “(...) *hiru probintzietarako Estatutuaren proiektu berria eztabaidatu eta bozkatzearen*”. Udalbatzak aho batez erabaki zuen alkatea bera izendatzea, Pedro Goirigolzarri, Udalaren ordezkari batzar horretan<sup>272</sup>.

Estatutuak udalen aho bateko sostengua lortu zuen Arabako hiriburuan egindako bileran, baina salbuespen batekin: udal arabarrek estatutuaren testua onetsi bazuten ere, udaletxeen herenek eman zuten kontrako botoa.

---

270 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1933-5-20.

271 FUSI AIZPURUA, 109-110.

272 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1933-7-21.

1933ko irailean, Azañaren Gobernuak kargua utzi zuen, eta “(...) *Madridgo egoera politikoaren aldaketak errotik bestelakotu zuen Euskal Herriko indar oreka*”. Gobernuaren dimisioaren ondorioz, sozialista eta errepublikanoek beren karguak utzi zituzten Euskal Herriko batzorde kudeatzaileetan. Batzorde berrietan, Alderdi Erradikalak osatu zuen gehiengo berria, ordura arte bazter egon ostean. Autonomia prozesuari dagokionez, haren jarrera guztiz positiboa izan zen: batzorde berriak “(...) *berehala eta ziztu eta su bizian abiatu ziren erreferenduma prestatzen (...)*”. Azaroaren 5erako egin zen haren deialdia<sup>273</sup>.

Beste alde batetik, Lerrouxen eta Martínez Barriosen gobernuak bazter utzi zuten abertzaletasunarekiko liskar politika. Adiskidetasun boladak 1934ko ekaina arte iraun zuen eta nazionalismoarekiko elkarlana ekarri zuen autonomiaren auzian. José Luis de la Granjaren hitzetan, “(...) *elkar hartze bitxi bat gertatu zen EAJren eta Alderdi Erradikalaren artean, 1933ko urrian eta azaroan*”. Hartara, “*nazionalismoaren guraria onartuz (...)*”, Martínez Barriosen Gobernuak azaroaren 5a hautatu zuen erreferendumerako eguna izan zedin, Gorteetarako hauteskundeak baino bi aste lehenago<sup>274</sup>. Bozketarako finkaturiko egunari zegokionez, Gobernuaren jarrera irmoa izan zen, eta aukeratutako data geroratzeari uko egin zion, “(...) *ezkerraren sektoreren batek horixe nahi izan arren (...)*”<sup>275</sup>.

Erreferendumean, emakumeek lehen aldiz erabili zuten botoa emateko eskubidea hiru euskal probintzien osotasunean, eta hautesleen %84ak aldeko botoa eman zuen<sup>276</sup>. Bizkaian eta Gipuzkoan:

*“(...) votó más del 90 por 100 del censo electoral y el 98 por 100 de los votantes lo hizo afirmativamente, cifras imposibles de alcanzar sin ayuda de procedimientos fraudulentos (...)”*<sup>277</sup>.

Aldiz, Araban, aldeko botoa –% 46’5– gainditu zuen abstentzioen –% 41’5– eta kontrako botoen –% 12– baturak. Probintziako lehenengo indarra karlistak ziren; haien kanpaina biziak eragin zuen abstentzio kopuru handia<sup>278</sup>.

---

273 FUSI AIZPURUA, 111-112.

274 GRANJA SAINZ, 113.

275 FUSI AIZPURUA, 113.

276 *Ibíd.*, 113.

277 GRANJA SAINZ, 113-114.

278 *Ibíd.*



Hona Urdulizko, Uribe Kostako eta inguruko herrietako emaitzak:

<b>EUSKAL ESTATUTUAREN GAINEKO ERREFERENDUMAREN EMAITZAK 1933-11-5</b> <sup>279</sup>					
<b>Udalerria</b>	<b>Hautesle kop.</b>	<b>Alde</b>	<b>Aurka</b>	<b>Zuri</b>	<b>Balio gabe</b>
<i>Barrika</i>	479	468	2	0	0
<i>Berango</i>	746	723	0	0	0
<i>Gatika</i>	584	576	0	0	0
<i>Gorliz</i>	823	797	10	0	0
<i>Getxo</i>	9318	9173	55	8	6
<i>Laukiz</i>	285	277	0	0	0
<i>Lemoiz</i>	487	476	0	0	0
<i>Maruri</i>	380	376	0	0	0
<i>Plentzia</i>	1438	107	19	9	0
<i>Sopela</i>	700	688	0	0	0
<i>Urduliz</i>	541	528	0	0	0

Alderdi Erradikalak Estatutuaren gaineko erreferendumari eman zion erabateko sostenguak ezkutatzen zituen bere egiazko interesak. Erradikalak ez zeuden batere erroturik Euskadin, eta bazekiten ez zutela diputatu bakar bat ere eskuratuko euskal probintzietan. Beste alde batetik, Alderdi Erradikalak interes handia zuen sozialisten eta errepublikanoen blokearen porrota lortzeko, horiek baitziren bere etsai nagusia, eta EAJren indarra lagungarri zitzaion xede horretarako. Horra, beraz, Martínez Barrioren Gobernuak zergatik arindu zuen euskal autonomia prozesua, erreferendumaren arrakastak EAJri abantaila emango ziolakoan hauteskunderi begira<sup>280</sup>.

Hain zuzen ere, EAJk bere egin zuen estatutuaren gaineko bozketaren arrakasta. “*Estatutuaren hautagai-zerrenda*” gisa aurkeztu zen hauteskunde kanpainara. Gainera, euskal politikaren bipolarizazioa apurtuta zegoen karlistekiko 1932ko hausturaren ondorioz. Hiru multzoren artean partekatu zen, beraz, hauteskundeetako borroka: ezkerra, oso banatua Bizkaia kenduta, bertan eutsi ziotelako bloke errepublikanoa-sozialistari; eskumen koalizioa, eta EAJ, erdigune politikoaren jabe. 1931ko hauteskundeetan bezala, erlijio auzia eta autonomia auzia izan ziren gai nagusi biak. Gobernuak erlijioaren inguruan

279 [http://www.euskadi.eus/web01-a2haukon/eu/contenidos/informacion/w\\_em\\_contexto\\_historico\\_refere/eu\\_def/index.shtml](http://www.euskadi.eus/web01-a2haukon/eu/contenidos/informacion/w_em_contexto_historico_refere/eu_def/index.shtml) Bigarren Errepublikako Emaitzak, 1933ko Autonomia Estatutuaren Erreferenduma, eta B.F.A.H. AJ 02281/010 Plebiscito sobre el Estatuto del País Vasco - Bozketaren aktaren kopia 1933-11-5.

280 GRANJA SAINZ, 142.

hartutako neurriek gaitzespen zorrotzak hartu zituzten monarkiko-tradizionalisten eta EAJren aldetik. Bi indarrak lehia zebiltzan katoliko independenteen botoa nork bereganatuko. Hautesle mota hau erakarri guran, nazionalistak estu-estu lotu zitzaizkion erlijioari, xede horretan *La Gaceta del Norte* egunkari katolikoaren laguntza zutela<sup>281</sup>.

EAJk Bigarren Errepublikaren garaiko garaipenik handiena eskuratu zuen, 12 diputatu, guztira, haietatik sei Bizkaian. Tradizionalisten emaitzak ere onak izan ziren, 10 diputatu, gehienak Nafarroan. Ezkerrak izan zuen porrotik handiena, diputatu bi baino ez zituen lortu, Bilbon: Azaña eta Prieto. Ezkerrak kalteko izan zuen gobernuaren higadura; Estatuaren osotasunean ere orokorra gertatu zen haren derrota. Garaipena Lerroxuen Alderdi Erradikalarena eta Gil Roblesen CEDArena izan zen, zentrokoa bata, eskumakoa bestea<sup>282</sup>.

Urdulizen, hauteskundeen emaitza nazionalismoaren garaipen erabatekoaren erakusgarria da, herri mailan. Estatuaren erreferendumean parte hartu ostean, emakumeek lehen aldiz eman ahal izan zuten botoa hauteskunde batzuetan. 1933ko emaitza 1931koarekin alderatuz, errepublikanoek bikoiztu zuten hartutako boto kopurua. Esate baterako Indalecio Prietok 19 boto jaso zituen 1931ko ekainean, eta 47, berriz, bozketa hauetan.

<b>GORTEETAKO DIPUTATUEN HAUTESKUNDEEN EMAITZA – URDULIZ (1933-11-19)</b>	
<b>Hautesle kopurua: 541                      Boto-paper irakurriak: 441 <sup>283</sup></b>	
<b>Hautagaiak</b>	<b>Botoak</b>
José Horn Areilza (EAJ)	369
Manuel Robles Aranguiz (EAJ)	369
Ramón de Vicuña y Epalza (EAJ)	369
Juan Antonio de Careaga (EAJ)	369
Manuel Azaña Díaz (Errepublikanoa)	49
Marcelino Domingo Sanjuán (Errepublikanoa)	47
Indalecio Prieto Tuero (PSOE)	47
Julian Zugazagoitia Mendieta (PSOE)	46
M° del Pilar Careaga Basabe (Renovación Española)	25
Luis Lezama Leguizamon Zuazola (Tradizionalista)	26
Adolfo Glez. de Careaga y Urquijo (Monarkikoa indep.)	26
Hermogenes Rojo Barona (Tradizionalista)	25

281 Ibid., 114 eta 177-178.

282 Ibid., 178.

283 B.F.A.H. AJ 02077/003 Bozketaren aktaren kopia eta Boto-kontaktaren emaitza 1933-11-19.

### 2.1.3 1934tik 1936ko otsaileko Gorteetarako hauteskundeetara: Ardoaren Estatutuaren gatazka, 1934an, eta haren ondorioak

Estatutua 1933ko azaroaren 5ean onetsi ostean, bozkatutako testua abenduaren 21ean entregatu zitzaien Gorteei. Biharamunean, José Luis de Oriol diputatu tradizionalistak:

*“(...) presentó un escrito de una denominada Comunidad de Ayuntamientos Alaveses, que decía representar a la mayoría de la provincia, solicitando la exclusión de Alava del Estatuto Vasco basándose en su escasa votación en el referéndum”<sup>284</sup>.*

1934ko urtarrilaren 9an eratu zen Estatutuen Batzordea, 21 kidek osaturik, Jose Antonio Agirre idazkari zuela. Diputatu nazionalista sinetsita agertu zen Oriolen jarrera ez zela aurrera aterako. Alabaina, eskumak (CEDA, Renovación Española eta Partido Agrario) bere egin zuen Oriolen proposamena eta, beste aldetik, bai sozialistek bai Alderdi Erradikalak beharrezkotzat jo zuten Arabak atzera ere bere iritzia agertzea beste erreferendum baten<sup>285</sup>.

José Luis de la Granjaren ustez, mahai gainean zebilen eztabaida izanagatik *“(...) Arabak benetan nahi ote zuen euskal erkidego autonomo bateko kide izateko; (...) funtsean, Estatutuaren alde edo kontra egitea zen kontua”*. Modu horretan garbi geratu zen talde politiko guztien jarrera: Euskal Herriko eta Kataluniako abertzaleak, zenbait errepublikanorekin batera, autonomiazaleak ziren argi eta garbi. Haien aurrean, euren antiautonomismoaz harro agertu ziren eskumak, izanik monarkikoak, tradizionalistak edo katolikoak. Azkenik, hirugarren multzo bat izan zen, PSOE eta errepublikano gehienak tarteko, (...) *erdibidean jokatu zutenak, autonomien alde baina epel (...)*<sup>286</sup>.

1934aren lehenengo zati horretan, Gorteetan eztabaida bi egin ziren Arabako arazoaren gainean. Urtarrilaren 27an eta 28an, Salmónek, CEDAko diputatuak, proposamen bat aurkeztu zuen Araba behin betikoz Estatututik kanpora geratu zedin. Proposamen hori atzera bota zuten ozta-ozta: 136 eta 125. Bigarren eztabaida apirilaren 5ean egin zen, egun hartan atzera bota zelako *“(...) EAJk aurkeztutako boto partikular bat, Araban berriro ere bozketa egitearen aurkakoa”*. Beraz, aurrera egin zuena izan zen erradikal eta sozialisten ideia, arabarrei itauntzeko estatutu proiektuan jarraitu gura ote zuten. Juan Pablo Fusiren hitzetan, *“(...) azken erabakiak berekin zekarren denbora mugagabez atzeratzea (...)”* Estatutuaren onespena; hori *“(...) porrot itzela izan zen EAJrentzat”<sup>287</sup>.*

---

284 GRANJA SAINZ, 115.

285 FUSI AIZPURUA, 116-117.

286 GRANJA SAINZ, 115.

287 FUSI AIZPURU, 117.

Arabaren inguruan piztutako auzian, EAJK egiaztatu zuen euskal autonomia ezinezkoa izango zela zentro-eskumako gehiengoa zuen parlamentu batekin, ezta Lerrouxen Alderdi Erradikalaren laguntzaz ere. Bi indarrak euren dibortzioari eman zioten hasiera, 1933ko azken hilabeteetako elkar aditzea amaituta. Behin betiko haustura 1934ko udan etorri zen<sup>288</sup>.

Uda hartan gatazka izan zen nagusi Euskal Herrian. Ogasun Ministerioak zerga neurri batzuk prestatu zituen, horien artean nabarmenena *“ardoaren kontsumoari zerga desgrabazioa aplikatzeko saioa”*. Hartatik izena, Ardoaren Estatutuari. Lege berriaren aurrean eta Kontzertua defendatzeko asmoz sortu zen *“udalen mugimendu bat (...) nazionalistak, ezkerreko errepublikanoak eta sozialistak batu zituena”*<sup>289</sup>.

Ardoaren Estatutuaren bitartez honako hau debekutzen zen:

*“(...) cualquier gravamen al consumo de vinos españoles para dar salida a los stocks acumulados por la caída de las exportaciones provocada por la crisis económica mundial”*<sup>290</sup>.

Kontzertu Ekonomikoari eusten zion oinarria zen *“(...) kontsumoen gaineko zerga, batez ere ardoaren kontsumoaren gainekoa, Udalen diru-sarrera iturri nagusia”*. Hartara, haren aplikazioak *“(...) errekarara bidaltzen zituen Euskal Herriko toki ogasunak”*<sup>291</sup>.

Gatazka hau piztu baino lehen, Urdulizko Udalak bere barne krisi partikularra bizi izan zuen, 1934ko otsailetik ekainera bitarte, hainbat dimisio saiok pitzarazita. Haietako azkenak Enrique Legarra eduki zuen protagonista eta, hurrean, zerikusia izan zuen Madrilgo Gobernuaren eta euskal udalen arteko gatazkarekin, hura, ekainaren bueltan, haziz eta haziz baitzihoan, modu geldiezinean.

Dimisio horietako lehenengoa otsailaren 12an jazo zen. Egun hartan, Juan José Camiruaga Gorordo zinegotziak kargua utzi zuen, *“(...) bere familiak bizirik irauteko jornal bat irabazi behar”* zuelako eta *“(...) horretarako, herritik kanpora irten behar zuelako (...)”*. Inguruabar horiek behartuta, Camiruagak adierazi zuen ezinezkoa zitzaiola *“(...) bilkuretara joatea, baita bere eskutan uzten zuten edozein kargutan ibiltzea ere”*. Udalbatzak haren dimisioa onartu zuen *“(...) azaldutako arrazoiak benetakoak”* zirelako, eta dimisioaren onarpena gobernadore zibilari bidali zitzaion, onespina eman zezan. Udalaren erabakia ez zen, dena dela, aho batekoa izan: Enrique Legarra zinegotziak aurkako botoa eman zuen, baita horretarako argudiatu ere *“(...) Camiruaga jaun hori”* ez zegoela *“(...) bere idazkian agertzen duen hain behartsu”*. Gobernadore zibilak

288 GRANJA SAINZ; 115-116.

289 Ibíd. 251.

290 MEES, Ludger, GRANJA, José Luis de la, PABLO, Santiago de, eta RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio: *La política como pasión. El Lehendakari José Antonio Aguirre (1904-1960)*, Madril, Tecnos, 2014, 204.

291 Ibíd.

ezeztatu zuen zinegotziaren dimisioa, *“indarrean dagoen 1877ko urriaren 2ko Udal Legearen 43. artikulua adierazten dituen kasuetan ez dagoelako (...)*”<sup>292</sup>. Ez dirudi arrazoi politikorik zegoenik dimisio saio horren atzean. Juan José Camiruagaren dimisioari Enrique Legarrak aurkako botoa emateko erabilitako argudioak, gure iritziz, bi zinegotzien arteko arazoren bat uzten du agerian beste edozer baino areago.

Bigarren dimisioa maiatzaren 6an eman zen. Egun hartan, Pedro Goirigolzarri alkatea idazki baten bidez eskatu zuen Udalak onartu zezan bere dimisio *“ezeztazina”*. Goirigolzarri bere lanbidea arrazoitu zuen karguari uko egiteko. Sota y Aznar ontzi-konpainiako kapitain-ikuskaria izanik, behar horrek alkatea behartzen zuen *“egunero, jaiegunak kenduta, herria goiz-goizetik uztera, gauaz nahiko berandu bueltatu arte (...)*”. Gainera, hona zer gehitu zuen Goirigolzarri: *“sarritan, kanporatu beharra izaten dut, baita bolada luzeak pasatu ere Urduliztik kilometro askotara”*. Hain zuzen ere, 1931ko apiriletik 1934ko maiatzera bitarte, sei bider aitatzen da Akta Liburuan alkatea kanpoan dagoela, urrutiko egonaldi bakoitzak, batez beste, hilabeteko iraupena zuela. Baina Pedro Goririgolzarri, bere dimisioa arrazoitzeke, lan kontuak ez ezik, *“(...) gaur egungo egoera politiko eta soziala”*<sup>293</sup> ere argudiatu zuen. Itsasgizon urduliztarrak, hurrean, berbabide zuen, batetik, Arabako arazoa zela-eta Euskal Estatutuak Kongresuan bizi zituen eragozpenak, eta bestetik, 1934aren hasieraz geroztik Euskadin zebilen *“tentsio giroa”*. Izan ere, *“(...) urtarrilean eta otsailean bi greba orokor izanak ziren, unitarioak eta izaera politikokoak, Bilbori eta haren industria inguruneari eragin ziotenak eta (...) langile mugimenduaren erradikalizazio gero eta handiagoa”*<sup>294</sup> agerian jartzen zutenak.

Goirigolzarriren dimisioa aho batez onartu zuten gainontzeko zinegotziek, etaaldi berean eskatu zuten *“(...) aktan jasorik geratu dadin udalbatzaren sentimendua, bere alkate karguan jardutean egindako kudeaketa baliotsu eta zuzena barik geratu delako”*. Horren ostean alkate berria aukeratzeari ekin zitzaion, baita Enrique Legarra Bengoechea izendatu ere *“botoen gehiengoa duela”*; berriz, Pedro Goirigolzarri dimititu berria bigarren alkateorde izendatu zuten<sup>295</sup>.

Ekainaren 30ean, alkatetza bereganatu eta ozta-ozta bi hilabetera, Enrique Legarrak dimisioa aurkeztu zion Udalbatzari, eta onar zezaten eskatu, bere kargua bateraezina zelakoan *“(...) bere behar profesionaletan ibiltzearekin”, (...)* alkate lanak betetzeko *“(...) ahalmena kentzen diotelako guztiz (...)*”. Behin Legarrak bere azalpenak emanda, Benito Otazuak berba egin zuen adierazteko

---

292 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura berezia 1934-2-12 eta Bilkura arrunta 1934-3-31. Ez dugu topatu Juan José Camiruagaren dimisioaren eskutitza, Akta Liburuak aitatzen duena.

293 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, Pedro Goirigolzarri alkatearen dimisioaren eskutitza 1934-5-5.

294 GRANJA SAINZ, 249.

295 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-6-5.

ez zuela “(...) arrazoi zuzenik topatzen bere dimisio idazkian aurkezten dituen motiboetan (...) bere errementari eta ferratzaile lanak ez diolako eragozten bilkuretara joatea, horiek egiten diren orduetan (...)”. Azkenik, Udalbatzak “*aho batez*” erabaki zuen alkatearen dimisioa ez onartzea<sup>296</sup>.

Osoko bilkura berean, Legarrak, dimisioa aurkeztu baino lehen, honen berri eman zien zinegotziei:

*“(...) que había recibido una comunicación del Sr. Alcalde del (...) Ayuntamiento de Bilbao, convocando una Asamblea de todos los Ayuntamientos de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya para el día 5 de (...) junio a las once horas en la Casa Consistorial de la villa de Bilbao (...)”, gaia izanik “(...) la pretendida aplicación del llamado Estatuto del Vino (...)”<sup>297</sup>.*

Beraz, Enrique Legarrak bere dimisio saioa zuritzeko agertutako lan kontu hori aitzakia hutsa izan zitekeen bere beldur bidezkoa estaltzeko, euskal udalen eta gobernu zentralaren arteko talka zela-eta udalburu izateagatik gainera etortzen ahal zitzaizkion ondorioei.

Katalunian, Companysen Generalitatea borrokan loturik zegoen Samparren Gobernuarekin, Kataluniak laborantzen kontratuei buruz Legea onetsia zuelako eta testu berriak aukera ematen zielako *rabasaire* edo mahastizain partzuerrei lantzen zituzten mahastien jabetza eskuratzeko. Gatazka horrek 1934ko udaberrian jo zuen goia<sup>298</sup>. 1934ko ekainean, Konstituzio Bermeen Epaitegiak ezeztatu zuen Kataluniako Parlamentuak onartutako legea, eta EAJk, Esquerra Republicana de Catalunyaarekiko elkartasuna adierazteko, Gorteetatik alde egin zuen ekainaren 12an. Beste alde batetik, Samparren Gobernuak bere nahia agertua zuen Ardoaren Estatutua onesteko. Euskal udalek uste zuten lege horrek Kontzertu Ekonomikoen kontra egiten zuela. Zenbait erakunde batzartu ziren ekainean auziaz berba egiteko. Ekainaren 12an Donostian egin zuten euskal diputazioak gobernatzen zituzten Batzorde Kudeatzaileak. Horiak Alderdi Erradikalaren eskutan zeuden 1933ko urriaz geroztik, Euskal Herrian sano indar gutxiko alderdia izan arren. Batzordeek berek bere egiten zuten udalen diagnostikoa, lege berriak Kontzertuei egiten zien erasoaz den bezainbatean. Beste alde batetik, ekainaren 25ean Hemezortzien Batzordea bildu zen<sup>299</sup>, eta

296 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-6-31 eta 3. kaxa, *Carta dedmisión de Enrique Legarra*, 1934-7-4. Enrique Legarrak dimisioa noizko udal bilkuran eman zuen, egun batzuk geroagoko data du eskutitzak; ez dakigu zergatik.

297 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-6-31.

298 GRANJA SAINZ, 250

299 Hemezortzien Batzordea Gasteizen eratu zen, helburua zuela 1933ko urriaren 15erako aurreikusitako herri-erreferendumaren “(...) deialdia gainbegiratzea eta koordinatzea (...) Estatutua Gorteak bidali aurretik onestearren”. Ezkerrak erabateko gehiengoa zuen Batzordean, honela osaturik zegoen-eta: “(...) Batzorde Kudeatzaileetako bederatzikide, hiru hiriburuetako alkateak eta barruti judizialeko eta landaguneko udalerrietako ordezkariak”. Azañaren Gobernuak dimisioa eman zuen, ordea, 1933ko irailean, eta horrek eragin zuen erreferenduma ez egitea aitatutako egunean. (FUSI, 110-111)

27an gauza bera egin zuen Bilboko Udalak<sup>300</sup>. Honek, lehenago esan dugun legez, Euskal Udalen batzarraren deialdia egin zuen, uztailaren 5erako, bertako Udaletxean. Urdulizko Udalbatzak udal idazkaria<sup>301</sup> bidali zuen ordezkari. Aldundiak gobernatzen zituzten Batzorde Kudeatzaileen dimisioa eskatzea erabaki zen bilera hartan, baita “*Kontzertu Ekonomikoa defendatzeko Udalen barne batzorde bat*” izendatzea ere. Batzorde horren sorrerak ezer gutxi zuen legez kanpokitik, “*izaera ekonomiko-administratiboa zuelako, ez politikoa*”. Batzorde Kudeatzaileen dimisio eskaerari dagokionez, Gobernuko lehendakari Ricardo Samperrek onartu zuen udalek “*moralki arrazoia zutela*”, Errepublikako hiru urtetan ez zelako probintziako hauteskunderik egin, Konstituzioaren 10. artikulua hala ezarri arren. Gehitzeko gauza da 1922az geroztik ez zela Foru Aldundirako hauteskunderik egiten<sup>302</sup>.

Uztailaren 14an, Urdulizko alkate Enrique Legarrak osoko bilkurari jakinarazi zion Bilboko alkatearen komunikazio bat hartua zuela uztailaren 5eko “*batzarrean euskal udalek hartutako erabakiaren berri*” ematen zuena. Horri jarraiturik, Udalbatzak ordezkari bat aukeratu zuen:

*“(…)para que concurra a la Asamblea de Ayuntamientos vascos de menos de 2000 habitantes para la Constitución de la Comisión que interinamente, habrá de representar a todos los Ayuntamientos para llevar después a la Constitución de la Comisión definitiva”*<sup>303</sup>.

Udalak aho batez erabaki zuen batzar horretan alkatea bera izatea bere ordezkaria<sup>304</sup>.

Bitarteko Batzordea uztailaren 29an bildu zen, eta erabaki abuztuaren 12rako zeharkako hauteskundeak egitea, “*Kontzertu Ekonomikoa eta herriaren eskubideak defendatzeko Bizkaiko Udalerrien*” behin betiko Batzordeko kideak izendatzeko<sup>305</sup>.

---

300 FUSI AIZPURUA, 122.

301 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, Akta Liburua 1931.1937, Bilkura arrunta 1934-6-31.

302 FUSI AIZPURUA, 122-123.

303 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-7-4.

304 *Ibíd.*

305 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-8-12.

“*Gobernuak atoan debekatu zituen*” hauteskunde horiek. Abuztuaren 1ean, Bizkaiko gobernadore zibilak debekua ezarri zien udalei hauteskunderik egiteko, ez zuzenekorik ez zeharkakorik, baita mehatxatu ere erantzukizunak eskatuko zituela agindua urratuz gero. Auzi honen gainean, Juan Pablo Fusi uste honetakoa da:

*“(...) (el) error fundamental (Gobernuarena) fue interpretar equivocadamente el alcance de la elecciones convocadas (...) para el 12 de agosto. Actúo como si creyera (...) que se trataba de elecciones ordinarias y no de votaciones de concejales para nombrar una Comisión, derecho amparado por la ley municipal. Desde el momento en el que el Gobierno hizo del asunto una cuestión de competencias de poderes, ya no pudo retroceder”<sup>306</sup>.*

Debekua gorabehera, hauteskundeak egin egin ziren, aurreikusi bezala, abuztuaren 12an. Urdulizko Udaletxean, bozketaren aurretik, Luis Navarro udal idazkariak zinegotziei ohartarazi zien “(...) *egintza legez kanpokoa zela, Herrizaintzako ministro jaunak eta gobernadore zibil jaunak agindutakoari jarraituz* (...)”. Hala eta guztiz ere, “(...) *Udalak jarraipena eman zion bilkurari*”, aho batez erabakirik zinegotzi bakoitzak “*bere hautapenean lortutako boto kopuruarekin*” emango zuela botoa. Bozketa egin ostean, erabaki zen “(...) *kontu horiek aktan jasotzeko eta horien gaineko ziurtagiri baimendua bidaltzeko Bilboko jaun alkateari, Behin-behineko Batzordeko lehendakaria baita behar diren ondorioetarako*”<sup>307</sup>.

Barne Ministerioak segurtatu zuen Bizkaian 41 herritan baino ez zirela hauteskundeak egin probintzian zeuden 115etatik, eta Gipuzkoan 44tan bakarrik 87tik. Hala eta guztiz, “*udalerrietako bozeramaileek*” deklaratu zuten bi probintzietako herri gehien-gehienetan bozkatu zela<sup>308</sup>.

Itxuraz, bozketaren egunean gauzak lasai joan ziren Urdulizko Udaletxean. Ez Akta Liburuan ezta prentsan ere ez dugu topatu kontrakorik adierazten duen albisterik. Udal askotan, ostera, alkateak eta zinegotziak atxilotu zituzten, baita bozketa galarazi ere.

Esate baterako, Barrikako Udaletxean, Udalaren osoko bilkura hasi eta hamar minutu baino igaro ez zirela, zinegotziek “(...) *entzun zuten pertsona batzuk zelan igotzen ziren urrats handietan Udaletxeko eskaileretan, zarata handia atereaz*”. Bilkuren aretoan guardia zibil bikote bat agertu “(...) *eta atetik, fusilak aurpegi parera eroan, sarrailak kendu eta bortizkeria itzelaz agindua eman zuten: “¡Alto! Manos arriba”*”. Euzkadi egunkariak deskribatu zuenez, alkatea, idazkaria eta udala osatzen zuten zazpi zinegotziek “(...) *hormaren ondoan paratu behar izan ziren, eskuak gora*”, guardietariko batek arropa artean miatzen zituela

306 FUSI AIZPURUA, 124-125

307 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-8-12.

308 FUSI AIZPURUA, 128.



“(…) *ezelango armarik topatu barik*”. Zinegotzietariko batek adierazi zuen egoera hori ez zuela ezerk justifikatzen “(…) *eurek asteko bilera arrunta egiten baino ez zirelako batzartu*”. Guardia biek erantzun zuten “(…) *orduan eurek ez zeukatela zer eginik oraingoz eta jarraitzeko eurak bertan geratuta*”. Udalbatzak bilkura arrunta amaitu zuen eta, segidan, alkateak jakinarazi zuen “(…) *bilkura BEREZIAREN txanda zetorrela (…)*” eta idazkariari agindu zion Bilboko Udalaren deialdia irakurtzeko. Guardiiek eraikina hutsarazi zuten orduan. Udaletxea giltzaz itxi zuten eta maisuaren eskutan utzi, erakin berean bizi baitzen, giltza Udalbatzako inori emateko debekuarekin; udalerriko epaileari bakar-bakarrik haren beharrea egonez gero<sup>309</sup>.

Irailaren 2an Zumarragan egin zen Euskal Herriko eta Kataluniako parlamentarien batzarra, Indalecio Prietok buru egiten zuela, euskal udalei elkartasuna adierazteko. Bilerak bere alderdi sinbolikoa izan zuen, mahai berean jesarri zirelako Prieto sozialista eta EAJko diputatuak, Errestaurazioaren denboretatik arerioak izan zirenak<sup>310</sup>. Horretaz aparte, “*ez zuen garrantzi politikorik izan*”, Juan Pablo Fusiren hitzetan, ez zelako inongo erabakirik hartu. Istiluak, berriz, Gernikan piztu ziren, EAJk parlamentari katalanei omenaldia antolatuta. Gobernadore zibilak agindua eman zion poliziaari ekitaldia eteteko, eta horrek “(…) *ika-mika latzak ekarri zituen diputatu eta polizien artean, erasoak eta irainak (…)*”. Gainera, jazotakoaren ondorioz, prentsan “*adierazpen gogor-gogorrak (…)*” gurutzatu ziren “*gobernadorearen eta Aguirre eta Irujo diputatuen artean(…)*”<sup>311</sup>.

Borroka horren hurrengo atalak euskal udalak izan zituen protagonista, irailaren 7tik aurrera guztiak batera dimititzeko erabakia hartuta. Neurri hartaraino, gertakariak bata bestearen atzetik etorriak ziren: abuztuaren 12ko hauteskundearen ostean, alkate eta zinegotzien kargu-gabetzea, auziperatzea eta zehapena, “*behin eta berriro isunak ipinita*”; Gobernu espainolaren jarduna, Batzorde Kudeatzaileak “*matxino eta legez kanpoko*” deklaraturata; Zumarragako eta Gernikako gertakariak; Gasteizko Udalaren kargu-gabetzea eta Gobernuak izendatutako Batzorde batekin ordezkatzeara... Urdulizen, udalbatza nazionalistaren dimisio ezeztazina 7an bertan gertatu zen, Andra Maritako jaien egun nagusiaren bezperan. Uko horren barruan Dionisio Arambalza zinegotziarena ere zegoen, “(…) *Udalaren jardunbidean urtebete lehenagotik parte hartzen ez bazuen ere, gaixotasunak galarazten diolako, ibili ezinik utzita (…)*”. Bilkura berezira ezin etorriarik, bere zinegotzi karguari modu ezeztazinean uko egiteko izkribua aurkeztu zion “(…) *Udalari, baita bere udalkideekin bat egin ere hartzen zituzten erabaki guztietan*”<sup>312</sup>.

---

309 *Euzkadi* 15-8-1934.

310 GRANJA SAINZ, 251-252.

311 FUSI AIZPURUA, 128-129.

312 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-9-7.

Zinegotzien dimisioaren ostean, Urduliz udal barik egon zen 14a arte. *Euzkadi* egunkarian denbora horretan argitaratutako informazioak balio du Urdulizen bizi izan zen giroari usaina hartzeko; itxuraz, mota guztietako zurrumurruak zabaldu ziren herrian Udalaren etorkizunaren gainean. Alde horretatik, ezin ahaztu Udalaren dimisioa herriko jaiekin batera jazo zela; ospatuko zirelakoan gaude, gertatuak gertatu. Duda barik, jazotakoa eta horren ondorioak berbagai nagusia izango ziren, programaren arabera, 8an hasi, 10ean amaitu eta berriro ere 16an errepikatuko ziren festetan. Tartean, ohiko ekitaldiak: erromeriak Plentziako Musika Bandarekin eta txistulariekin, eta *sokatira*<sup>313</sup>.

Gobernadore zibilak, 12ko data zeroan eskutitzaren bidez, bere erabakia jakinarazi zion udal idazkariari: zer eta “(...) *udal berria eratzea, bitarteko moduan udalerrri horretaz ardura dadin*”. Horrekin batera, Batzorde Kudeatzailea osatuko zuten kideen zerrenda zetorren gehituta.<sup>314</sup>

Irailaren 13an, *Euzkadi* egunkariak artikulu bat argitaratu zuen urduliztarrek egoera zelan bizi zuten islatzen zuena. Itxuraz berria zen kronikariak, *Bigarren Urduliztarra*<sup>315</sup> pseudonimoaren azpian, Agustín Menchaca Urquizu zinegotzia, gaitzizenez *Gau Txori*, protagonista egin zuen Herriko Etxera etortzekoak ziren aldaketetan. Egunkari abertzaleko korrespontsalak Errepublika etorri zenetik Menchacak egindako ibilbide politikoari errepasoa egin zion, bere kidesun politikoan egindako joan-etorriak nabarmenduz: “(...) *apirilaren 14an euskal komunista deklaratu “zitzaigun”, geroago prietista, berandugo monarkiko, eta gaur egun Urdulitzen buru egiten du “Unión Vascongadakoetan” (...)*”<sup>316</sup>. Azken alderdi politiko hori, 1934an sortua, Errestaurazioaren garaiko Liga Monárquicaren ondore garbia zen. Alde horretatik, Unión Vascongadak ez zuen zalantzarik izan monarkikoen aitakeria eta kazikekeria zaharrak erabiltzen<sup>317</sup>. Hain zuzen ere, *Bigarren Urduliztarrak* Agustín Menchacari leporatu zion baserrietako errentadore batzuk hertsatu izanaz 1933ko azaroko hauteskundeetan, botoa eman diezaioten hautagai-zerrenda monarkikoari. Modu berean, aditzera ematen zen Urduliz “*Liga Monárquicako kide izandakoen eskutan*” geratuko zela eta “(...) *lehenagoko ” liguistak” orain Gau Txoriren agindupean*”<sup>318</sup> zeudela.

313 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-8-25.

314 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Gobernadore zibilaren gatzigua udal idazkariari* 1934-9-12.

315 Ez dakigu nor ezkututzen zen *Bigarren Urduliztarra* gaitzizenaren atzean, baina hiru bider baino ez zen agertu 1934ko irailean Udalak bizi zuen egoera kontatzeko. Horrek pentsarazten digu José Brotons *Txiberri* ohiko kronikaria *Bigarren Urduliztarra*-ren atzean gerizapetu zela, lasaia go kontatzeko zer zebilen jazotzen.

316 *Euzkadi* 1934-9-13.

317 PLATA PARGA, Gabriel: *La derecha vasca y la crisis de la democracia española (1931-1936)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Diputazioa, 1991, 76-79.

318 *Euzkadi* 1934-9-13.

Aurrerago ikusiko denez, Agustín Menchacak ez zuen azkenean parte hartu Udal Batzorde Kudeatzailean, nahiz eta ez daukagun daturik batere haren partaidetza baztertzeko Batzordeko kideak proposatzeko orduan. Berbarako, kronikari urduliztarrak zioenez, Menchacak “*Acción Republicanakoei eskaini zizkien Batzorderako postuak*”, baina horiek ez zuten onartu gura izan “(...) herriaren borondatearen aurka”<sup>319</sup>ez jotzeagatik.

Agustín Menchacaren kasua ez zen bakana izan. Bigarren Errepublika aldarrikatu zenean legez, agerian geratu zen zinegotzi batzuen indefinizio ideologikoa. Edo hobe esan, inguruabar berrietara egokitzeko gaitasuna. Beharbada, Martin Amezaga Sendagorta plentziarrarena izan zen kasurik harrigarriena. EAEko zinegotzia izan zen marinel-hiriko udalbatzan dimisioa eman ez zuen bakarra. Hala eta guztiz, Plentziako EAEk, komunikatu batean azaldu zuenez, Amezaga 1933ko azaroan bidali zuen alderditik; arrazoiak ez ziren, antza, jendaurrean aditzera ematekoak, baina, zelangura ere, “(...) *arbuigarri bihurtzen zuten elkarte honetan*”. Eusko Abertzale Ekintzakoek bai adierazi zuten, ostera, “*jarduten hasi zen lehenengo momentutik*” konturatu zirela zelan “(...) *erabiltzen zuten hiriko elementu monarkikoe*”<sup>320</sup>. Itxura guztien arabera, zinegotzia, gutxienez 1933ko azaroko hauteskundeak baino lehenagoa hasita zegoen herriko monarkikoen aldera hurreratzen, eta horren gailurra haren izendapena izango zen Plentziako Udal Batzorde Kudeatzaileko buru moduan, kargu hori “(...) *independente bezala hartuta, lehenago hala izan ez bada ere (...)*”, *Euzkadi* egunkariaren informazioaren arabera. Horri, ziria gehitzen zioten: “*Zelako joan-etorri politik eginarazten dizkion bati familiak!*”<sup>321</sup>. Itxuraz, Fidel Sendagorta Unibaso zinegotzi kontserbadorea izandakoaren lehengusua zen Amezaga.

---

319 Ibíd.

320 *Euzkadi* 1934-9-12.

321 *Euzkadi* 1934-9-15.

Barikuan, hilak 14, gobernadore zibilak izendatutako udal kudeatzaileak Urdulizko Udaletxean batu ziren goizeko hamarretan, Agustín Menchaca kenduta, “*kanpoan egoteagatik*”. Egun berean, Akta Liburuaren arabera, Batzordeko lehendakaria aukeratu zen: “(...) *Antonio Larrabeitia, bost boto aterata*”. Larrabeitiaren atzetik geratu ziren Felipe Asla, boto birekin, eta Agustín Menchaca bertan ez zegoena, bakarrekin. Lehendakaria aukeratu berriak bere postua bete zuen eskerrak ematen zizkiela “(...) *beste batzordekideei, berarengan ipinitako konfiantzagatik, eta konfiantza horri herriaren interesei zerbitzu eginez erantzungo ziola gehitu zuen*”<sup>322</sup>. Akta Liburuaren kontakizunari jarraituz, biharamunean<sup>323</sup> osatu zen Batzordea, honela geratuta:

<b>URDULIZKO UDAL BATZORDE KUDEATZAILEA</b> <b>1934ko irailaren 15ean izendatua</b> <sup>324</sup>	
<b>Kargua</b>	<b>Izen-abizenak</b>
<i>Alkate udalburua</i>	Antonio Larrabeitia Uribarri
<i>1. alkateordea</i>	José María Bilbao Albóniga <sup>325</sup>
<i>2. alkateordea</i>	José María Ansoleaga Sistiaga
<i>1. sindikoa</i>	Isidro Sistiaga Arriaga
<i>2. sindikoa</i>	Felipe Asla Echevarrioste
<i>1. zinegotzia</i>	Bernardo Egusquiza Echegaray
<i>2. zinegotzia</i>	José Urrutia Madariaga
<i>Gordailuzaina</i>	Tiburcio Madariaga Arana

Akta Liburuaren kontakizunaren osagarria da *Euzkadi* egunkariak irailaren 16an argitaratutako informazioa, eta jazotakoan sakontzeko aukera ematen digu, “(...) *Batzorde honen eraketaren gaineko iruzkin harrigarri eta denetakoak eskainita*”<sup>326</sup>.

Esate baterako, *BigarrUrdulizentarrari* batzordeko kide biren analfabetismoak ematen dio hizpidea, diolarik “(...) *zazpi horietako batek, sinatzen, eguenetik barikurako gauean ikasi*” zuela, eta “(...) *beste bati, berriz, Udaletxean, barikuan bertan “irakatsi”*” ziotela. Iruzkin horiei beste bat gehitu zien gaiztakeria apur

322 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Kudeatzaileen aurkezpena eta Batzorde Kudeatzaileko buruaren hautapena 1934-8-14.

323 Hala ere, 1934-9-16ko *Euzkadin* argitaratutako kronikan udal karguen banaketa osoa egun bakarrean eginda balego legez agertzen da: irailaren 14an, barikua. Beste alde batetik, 1934-10- *Euzkadin* kontatu zen hilaren 15ean bilkura arrunta egiten saiatu zirela, baina bertan behera utzi zela alkatea eta hiru zinegotzi baino ez zirelako agertu.

324 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Batzorde Kudeatzaileko postuen izendapena 1934-8-15.

325 Como veremos mas adelante, José María Bilbao presentó su dimisión el 22 de septiembre.

326 *Euzkadi* 1934-9-16.

batez: “(...) datorren hilean hasiko da helduentzako gaueko eskoletan”<sup>327</sup>. Egia dena da aktetan trazadura dardaratiko sinadura bi agertzen direla aktetan, horietako bat ulertezina. Horrek baieztatzen digu, egiazki, zinegotzi bik nekez ipini zutela beren sinadura<sup>328</sup>.

Kronikariak ez ditu aitatu barik uzten Atzekoaren gainean egiten ziren iruzkinak, halako gaitzizena zuen-eta Felipe Asla Echevarriostek<sup>329</sup>, Errestaurazioaren garaian zinegotzia izan zenak. Esaten zenez, Asla ez zegoen “(...) konforme banaketan egokitu zaion partearekin” eta “gehiago gura zuen”. Antza, horregatik, “(...) guztiz haserre” zegoen “(...) bere lagun Gau-Txorik (Agustín Menchaca) egin dion txakurkeriagatik”. Menchaca ez zegoen Urdulizen. Itxuraz, Elorriora<sup>330</sup> joana zen 15 egun pasatzera, ustez eta, korrespontsalak kontatu zuenez “(...) denbora horretan “epelduko” dela kontua”<sup>331</sup>.

*Euzkadi* egunkariko korrespontsalak ironia erabili zuen izendapenen izaera ez demokratikoaren gainean zirika ibiltzeko, komatxoaren artean “*garaipen*” hitza erabiliz. Kontakizunaren arabera, kudeatzaile izendatu berriek euren “garaipena” ospatu zuten “*Cagijasen tabernan*”, hau da, Geltokiko Alondegian<sup>332</sup>. Bertan, “(...) *hiruna errealean arindu zieten patrika*”. Ardandegia utzita, euren etxeetara bueltatu ziren “*Zubiarteko bidetik*”<sup>333</sup>. Bide horren aukera ez zen halabeharrezkoa, *Bigarren urduliztarraren* iruzkinari kasu egitera, “(...) *zerbaitengatik izango zen*”<sup>334</sup>. Hala, hitz erdika, badirudi kronikariak iradoki gura duela udal kudeatzaileak mozkor zeudela. Egia dena da Zubiarteko hori ez zela bide nagusia. Hortik ateratzen dugu kudeatzaileen nahia zela ahalik eta Urdulizko bizilagun gutxienekin topatzea bidean, inork gutxi ikusi ez zitzaizkion.

Kudeatzaileen izendapenaren ostean egoera asko nahastu zen, Akta Liburuan eta *Euzkadi* egunkarian islatzen denez. Hasteko eta bat, Akta Liburuak ez ohiko kontu batzuk jartzen ditu osoko bilkurak egiteko daten gainean: ez dute ordena kronologikorik gordetzen, atzerako pausoak egiten baitira urritik irailera<sup>335</sup>. Beste alde batetik, *Euzkadi* egunkariak urriaren 4an argitaratutako artikulua nahikoa argigarria da gertakarien joan-etorria ulertzeko eta berreraikitzeko.

---

327 *Ibíd.*

328 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Kudeatzaileen aurkezpena eta Batzorde Kudeatzaileko buruaren hautapena 1934-9-14. Akta honetan erraz antzemate zaio sinaduren arazoari.

329 Felipe Asla Urdulizko Atze baserrian bizi zen.

330 Elorrio zen haren ama Concepción Urquizuren jaioterria.

331 *Euzkadi* 1934-9-16.

332 Gaur egun *Bar La Estación*.

333 Arteta baserritik San Fermín auzunera doan bidea da, hau da, Antsonekoa kalea.

334 *Euzkadi* 1934-9-16.

335 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua. Hona hemen akten daten hurrenkera: 1934-9-15 / 1934-9-22 / 1934-9-29 / 1934-10-6 / 1934-9-9 (urriaren 9koari dagokio) / 1934-9-29 / 1934-10-6 / 1934-10-13 / 1934-10-15.

Irailaren 15ean, 22an eta 30ean, Udalean bilkura arrunta egiteko hiru saioren berri ematen da artikulua horretan. 15ekoosoko bilkuraren gainean ez dira bat etortzen bi iturriek ekarritako datuak. Akta Liburuaren arabera, karguak banatu egin ziren Batzorde Kudeatzailean. Berriz, egunkari nazionalistak kontatu zuen egun hartan osoko bilkura bertan behera geratu zela “*jende nahikoa ez zegoelako, Larrabeitia, Bilbao, Urrutia eta Eguskitza jaun kudeatzaileak baino ez agertuta*”. Kronikari urduliztarrak kontatu zuenez, “(...) *bilkura-aretoan makina bat jende (...)*” batu zen “(...) *udal jesarlekuak herriaren borondatearen kontra berotzen dituzten jaun horiek zelan moldatzen diren ikustera etorritakoa*”. Korrespontsalak adierazi nahi izan zuenez, jende emari hori ez zen “(...) *lau kudeatzaileen gustukoa izan (...)*”. Udaletxetik irtekeran, “(...) *ika-mika batzuk egon ziren jendearen eta kudeatzaileen artean, baina hortik gora egin barik*”<sup>336</sup>.

Irailaren 22an jazotakoaz ez dira ados jartzen kontakizunak. Bilkura arruntaren aktan agertzen da zinegotzi bi baino ez zirela Udaletxera agertu (Antonio Larrabeitia eta Felipe Asla) eta horregatik jo zela bilkura amaitutzat<sup>337</sup>; *Euzkadiko* kronikan, ostera, tentsio handiko egoeraz berba egiten zen. Osoko bilkura hasteko ordua arratsaldeko zazpiak ziren. Minutu batzuk lehenago, “(...) *jende asko zegoen Udaletxearen aurrean (...) kudeatzaileen egoeragatik ekinean*”. Komunikabide abertzalearen kontakizunaren arabera Batzorde Kudeatzaileko hiru kide baino ez ziren azaldu: Antonio Larrabeitia batzordeburua, Isidro Sistiaga eta José María Bilbao. Unerik larriena jazo zen “*bilkura-aretoan Larrabeitia jauna Bilbao jaunarekin sartu denean, eta segidan, jendeak bereganatu duenean beretzako tokia*”. Sistiagak uko egin zion sartzeari, “(...) *kudeatzaile nagusiak erregutu arren. Bere arrazoiak izango ditu. Aretoan, guztiak isilik. Kudeatzaile nagusiak, ondo pentsatu ostean, “amaitutzat jo du” bilkura (...)*”. Une hartan, José María Bilbaok dimisioa eman zuen<sup>338</sup>.

Dimisio hori irailaren 29an egindako bilkuraren aktan jaso zen. Udalbatzak kargu-uztea onartu zuen, “(...) *guztien jakinekoak direlako berak hilaren 22an Alkatetzan aurkeztutako izkribuan azaldu dituen arrazoiak (...)*”<sup>339</sup>. Dimisioaren eskutitzean, José María Bilbaok adierazi zuen “(...) *bere borondatez kanpoko arrazoiak direla-eta behartuta dago(ela) uko egitera bitarteko zinegotzi karguari (...)*”. Argudiatu zuenez, bera zen “(...) *familia guztian, errentan daukadan etxeko lanak egiteko gauza den bakarra (...)*”. Aldiz, bere egoera ekonomikoak ez zion “(...) *jornalariak erabiltzeko aukerarik ematen (...)*”, eta gehitu zuen kalte handia egiten ziola “(...) *nire zinegotzi karguan jarduteagatik baserriak behar*

---

336 *Euzkadi* 1934-10-4.

337 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-9-22.

338 *Euzkadi* 1934-10-4.

339 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-9-29 (Bigarren akta data horrekin)

*dituen lanak uztea*<sup>340</sup>. José María Bilbaok erabilitako arrazoiek sinesgarriak badirudite ere, ezin dugu ahaztu dimisio hori zer testuingurutan gertatu zen, Urdulizen tentsio handia bizi zen momentu baten, eta bizilagun guztiek elkarren berri zutenean. Ezin baztertu, beraz, zinegotziak agertutako arrazoiak aitzakia hutsa izatea.

*Bigarren Urduliztarra* korrespontsalak Udalak irailaren 30ean egindako bilkura jaso zuen. Itxura guztien arabera, data nahastu zuen eta irailaren 29az ziharduen, bai Akta Liburuan bai *Euzkadi* egunkarian berdintsu agertu zelako iruzkindurik Antonio Larrabeitia kudeatzailearen ateraldia, udal bilkuran hainbeste ikusle ikusita. Egunkari jeltzaleak kontatu zuen alkateak bilkura amaitutzat jo zuen protesta egin ostean *“hainbeste jende zegoelako”*<sup>341</sup>; Akta Liburuan ere honela jaso zen gertaera:

*“(…)“(…) el Señor Presidente requirió al Señor Secretario la causa de que acudiese tanto público a sesión, a lo que respondió el Secretario que la causa lo ignoraba, pero que las sesiones ordinarias eran públicas, a pesar de dichas manifestaciones dicho Señor Presidente levantó la sesión (…)”*<sup>342</sup>.

Kazetariaren kronikaren arabera, bilkuraren deialdiaren orduan, jende asko zegoen

*“(…) frente al Ayuntamiento (...), dividido en grupos, (que) habla de la situación de nuestros ex concejales, que están procesados. En una esquina, otro grupo compuesto por los gestores Larrabeitia, Urrutia, Ansoleaga Eguskitza, Asla y Madariaga, se limita a escuchar las conversaciones”*<sup>343</sup>.

Kontakizunari jarraituz, bilkura behar baino ordu erdi beranduago hasi zen. Minutu batzuk lehenago Antonio Larrabeitia sartu zen aretoan, eta segidan irten Batzorde Kudeatzaileko gainerako kideei abisatzera. Metatutako jendearekin batera sartu ziren horiek. Egun hartan, zurrumurrua zebilen Agustín Menchacak *“(…) dagokion karguaren”* jabetza hartu behar zuela, baina ez zen inondik agertu. Egunkari jeltzaleak jaso zuenez, egun hartand isioa eman zuen Tiburcio Madariagak<sup>344</sup>, baina uko-egite hori ez da Akta Liburuan azaltzen. Beharbada ez zela dimisiorik eman pentsatzeko bidea ematen digu horrek. Bestela, dimisioa emanda ere, zinegotziak atzera egingo zuen, bere postuan jarraitu zuelako, Akta Liburuak erakusten digunez.

---

340 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, José María Bilbao Albóniga zinegotziaren dimisioaren eskutitza 1934-9-22.

341 *Euzkadi* 1934-10-4.

342 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-9-29 (Lehenengo akta data horrekin).

343 *Euzkadi* 1934-10-4.

344 *Ibíd.*

Udal bilkuraren irtekeran, tentsioa zen nagusi eta “(...)kudeatzaileen eta jendearen arteko ika-mika gogorrak” egon ziren<sup>345</sup>.

Urdulizko giro mikatzak ez zuen eztabaidetatik harago egin. Hala ere, badaezpada, Guardia Zibilak zainketa lanak egin zituen herriko kaleetan, Bigarren Urduliztarrak irailaren 22koaz emandako informazioei kasu egitera: “*etxeratzerakoan, Guardia Zibil parearekin topatu ginin, Gau-txoriren etxearen jagole, antza; hura eguerdian heldu zen*”<sup>346</sup>.

Ez dirudi kasualitatea denik Guardia Zibila Urdulizen ibiltzea, hilaren 22an, Agustín Menchacaren etxea zaintzen. Egun berean, goizaldean, Gatikan, alboko herrian, ezezagun batzuk saiatu ziren Pedro Elorduy Udal Batzorde Kudeatzaileko buruaren etxea erretzen. Zorionez, sutea garaiz amata zen “(...) *trapuak eta mantak*” erabilita. Kortan gordetako oteei baino ez zien eragin, kalte gehiagorik ez. *La Gaceta del Norte* aditzera eman zuenez, “(...) *lurra gasolinaz zikinduta nabari zen eta ontzi bat topatu zuten etxearen inguruan*”<sup>347</sup>. Sutearen egileei buruz, *Euzkadi* egunkariak esan zuen “(...) *errua nazionalistoi bota nahi digutela*”. Aldiz, “(...) *xeheetasun pila bat daude susmoa pizten dutenak sutea benetan inork eragindakoa dela; ez, oster, nazionalistek, ezpada...*”. Etenpuntu horiekin, artikulua egile anonimoak (X.X. delako bat) saihesten zuen sutearen egile edo dena delakoa salatzea. Alabaina, Elorduyri berari buruzko zalantza piztu zuen, Gernikako epaileari eskatuta argitu zezan “(...) *baserriko jabeak kontu honetan erakutsitako portaera bitxia*”. Gatikako Udalak hilaren 22an bertan zeukan deituta osoko bilkura. Atea itxita egin zen, “(...) *indar publikoak galarazten ziolako jendeari Udaletxean sartzea*”<sup>348</sup>.

Garbi dagoenez, Gatikan egoera Urdulizen baino askoz gaitzagoa izan zen, han 20 lagun atxilotu zituztelako, besteak beste 16 eta 15 urteko adingabe bi<sup>349</sup>. 20 atxiloketa horietatik 15 domekan egin ziren, hilaren 16ko goizaldean, aurreko egunean jazotako istiluen ostean, bizilagun batzuk Udaletxearen aurrean zeudela, saiatu zirenean Batzorde Kudeatzaileko kideei beren kargua hartzea galarazten. *Euzkadi* egunkariaren kontakizunaren arabera, kudeatzaileetako batek, Roberto Bilbaok, “(...) *makila punta-zorrotza eskuan zerabilela eta “don Juan Tenorio” beraren plantan, esan zuen sartzan ausartzen zenari gorputzean landatuko ziola makila, alderen alde*”. Mehatxuak kontrakoa eragin izan zuen, protestan zebiltzan bizilagunak “(...) *Herriko Etxean sartu zirelako*”<sup>350</sup>. Batzorde

345 *Euzkadi* 1934-10-4.

346 *Ibíd.* Aitatzen duen etxea Olibetxe jauregitxo desagertua da.

347 *La Gaceta del Norte* 1934-9-23.

348 *Euzkadi* 1934-9-7.

349 *Ibíd.*

350 *Euzkadi* 1934-9-16, 1934-9-18, 1934-9-9 eta 1934-9-20. *El Pueblo Vascon* (1934-9-7) jasotako bertsioa urrundu egiten da, zati batzuetan, *Euzkadi* egunkariak eskainitako kontakizunetik. Hedabide kontserbadoreak kontatu zuen hogeita hamar bat bizilagun sartu zirela osoko bilkuren aretoan, Batzorde Kudeatzailea batzartuta zegoenean, “(...) *eraikinaz jabetu eta zinegotzi berriak kanporatu guran*”. *El PuebloVascoc* zioenez, indar publikoak “(...) *asaltua egin zuten zalapartariak Udaletxetik aterarazi zituen eta normaltasuna bueltatu zen atzera*”. Geroago, atxiloketa batzuk egin ziren.



Kudeatzaileko kideetako batek “(...) telefonoz deitu zuen, indar publikoa eskatzeko”, eta hura “(...) goizaldeko lehenengo orduetan” heldu zen Gatikara. Berehala ekin zion “(...) nazionalistak atxilotzeari, monarkikoek haiei botatzen zietelako ez dakit zenbat konturen errua. Batzuk euren logeletan zeudela atxilotu zituzten”<sup>351</sup>.

Gertakari bortitzak ez ziren bakanak izan. Berbarako, Gamiz-Fikan, irailaren 30eko gauean, “(...) hainbat bizilagunek txistu jo zieten kudeatzaileei (...), elkarren aurka hasi ziren eta Gobernuaren ordezkari batzuk kolpaturik gertatu ziren”<sup>352</sup>.

Udalen egoeraz *Euzkadin* argitaratutako artikuluen multzoak agerrarazten duen ikuspegi globalak bidea ematen digu jabetzeko zenbat monarkiko eta Primo de Riveraren diktadurako Unión Patriótica-ri lotutako zenbat jende bueltatu zela udal agintera, Batzorde Kudeatzaileen bidez. Esate baterako, Berangon, “*U.P.ko kide suharra*”<sup>353</sup> izandakoa zen Robustiano Iturregi, Batzorde Kudeatzaileko burua. Modu berean, Plentzian, Olano jauna, Diktadura bitartean Udaleko alkatea izandakoa, Udal Batzorde Kudeatzaileko kide bihurtu zen<sup>354</sup>.

Barrikan, kudeatzaile nagusiaren kargua Felipe Uriarteren eskutara etorri zen, nahiz eta herrian zebiltzan zurrumurruei kasu egitera Bernabé Hormaza izan behar zen aukeratutakoa, alkatea izan zelako Primo de Riveraren diktaduraren garaian. Une haietan, gainera, bake-epailea zen, Postako administratzailea eta Zahar Etxeko lehendakaria<sup>355</sup>. Primo de Riveraren garaian ez ezik, 1931ko apirilean ere alkate aldarrikatu zuten, Berengueren *dictablandaren* parentesi laburraren ostean, Hauteskundeei buruz indarrean zegoen Legearen 29. artikuluaen poderioz<sup>356</sup>. Orri batzuk lehenago azaldu dugunez, artikulua horren aplikazioa jasan zuten udal guztiak desegin eta hautetsontzien irizpen demokratikoaren bahetik pasatu ziren 1933ko apirilean. Barrikan, EAJren eskutan geratu ziren udal postu guztiak; berriz, Bernabé Hormaza, independente moduan aurkeztu ondoren, Herriko Etxetik kanpora geratu zen bakarrik hiru boto eskuratuta<sup>357</sup>. Alkate ohiaren eta herriko abertzaleen arteko tirabirak *in crescendo* joan ziren, antza, eta 1934ko irailean jo zuten goia. Hori nabarmen geratzen da salaketaz beteriko artikulua gurutzatuak irakurrita, batzuk *Euzkadi* egunkarian *Aulesti* bere korrespontsal barrikoztarrak argitaratutakoak, eta besteak, Hormazak berak idatzitakoak *El Pueblo Vasco* egunkari monarkikorako<sup>358</sup>. Geroago, 1937an, Barrikako Udal Ikerketa Batzordeak (J.M.I.)<sup>359</sup>, bertako alkate

---

351 *Euzkadi* 1934-9-20.

352 *Euzkadi* 1934-10-5.

353 *Euzkadi* 1934-9-7.

354 *Euzkadi* 1934-9-15.

355 *Euzkadi* 1934-9-14.

356 C.D.M.H. P.S. Bartzelona, 140, *Expediente sobre declaración de desafecto al Régimen por la J.M.I. de Barrica de Bernabé Hormaza Olaguibel*, 10. espedientea, 1937.

357 *Euzkadi* 1933-4-28.

358 *Euzkadi* 1934-9-15, 1934-9-20 eta 1934-9-28. *El Pueblo Vasco* 1934-9-7 eta 1934-9-25.

359 Udal Ikerketa Batzordeak toki mailako erakundeak izan ziren Euzko Jaurlaritzak Gerra Zibil betean sortu zituenak, udalerrri bakoitzean baserri eta lurren jabeak ikertzeko, eta erregimen errepublikanoaren kontrakoak ote ziren zehazteko.

nazionalista buru zuela, txosten bat prestatu zuen Felipe Uriarteren gainean: *“sano morroi erabilerraza”* eta *“ideia bakoa”*, itxuraz, Bernabé Hormazaren eskutik joaten zena. J.M.I. barrikoztarraren iritziz, Uriarte txotxongilo bat baino ez zen izan, eta bere jarduketa guztia Hormazak maneiatuta. Horren froga: *“(…) ia-ia egunero On Bernabéren etxera joaten zen, bere izendapenaren aurretik ez bezala”*<sup>360</sup>.

Urriaren 5eko goizaldean, *Urriko Iraultza* piztu zen, jazoera bat gehiago gehiturik probintziak bizi zuen artegatasunari. Greba orokorra Estatuko lurralde desberdinetara zabaldu zen, Asturias izanik mugimendu iraultzailearen indarguneetariko bat. Bizkaian, grebak astebete iraun zuen, eta batez ere Bilbon, Itsasertzeko industria eremuan eta Meatzaldean izan zuen oihartzuna. Hala eta guztiz, iraultzaren arrastoak Urdulizen eta inguruko eskualdean sumatu ziren piztu zen egunetik. Egun horretan bertan, esate baterako, *“Hareetako lineako”* tren zerbitzua *“(…) lehen orduetatik etenka”* ibili eta gero, bertan behera utzi zen azkenean. Biharamunean ere *“(…) bakar bat ere ez zen ibili herrietarako trenetan”*. Hilaren 7an funtzionatu barik segitzen zuten. Beste alde batetik, *La Gaceta del Norte* jakinarazi zuenez, hilaren 5ean itxirik zeuden *“(…) hiriburuko eta probintziako herrietako saltoki guztiak”* eta *“(…) etenik jardun guztia, bankuetan eta komunikazio telefoniko eta telegrafikoetan izan ezik”*. Horiek, itxuraz, *“(…) al bait normal”* jardun zuten. Azkenik, egun horretan bertan, *“(…) zentro nazionalista guztien itxiera”* agindu zuen *“(…) agintaritzza zibilak”*<sup>361</sup>. Alberto Gorospek bildutako lekukotasun baten agertzen da zelan bizi izan zen gertaera hori Urdulizko Batzokian. Kontakizun horren arabera, *“(…) Guardia Zibilak behartu zituen egoitza nazionalistako ikurrinaren haga ebakitzera eta Sabino Aranaren koadro bat kentzera”*<sup>362</sup>.

Egoera nahasiak eragina izan zuen Udal Batzorde Kudeatzaile hasi berriaren jardunean ere. Udalaren Akta Liburuan islaturik geratu zen hori. Liburu horretako bitxikeria kronologikoetako bi iraultza prozesuaren astean topatu ditugu, hain zuzen ere. Urriaren 6an, Udaletxean Antonio Larrabeitia alkatea eta zinegotzi bi baino ez ziren azaldu, Felipe Asla eta Bernardo Egusquiza<sup>363</sup>. Hurrengoan, hilaren 9an, Tiburcio Madariaga zinegotzia bakarrik, *“(…) deialdia zinegotzi guztiei eginda ere (...)”*. Madariaga, *“(…) idazkari jaunarekin bat etorrita, ordubete itxaron zuen, eta inor gehiago etorri ez zenez ez zen bilkura egin ahal izan (...)”*<sup>364</sup>. Iraultza prozesu batek probintzia astintzen ziharduen, batez ere Bilbo aldean eta Itsasadarreko industria eremuan; horren ondorioztat har ditzakegu Batzorde Kudeatzaileko zinegotzien huts-egiteak ere. Gainera, ezin ahaztu dugu kudeatzaile berrien egoera berez gaitza zela, modu antidemokratikoan aukeratu izanak, ulertzekoa denez, bizilagunen arbuioa ekarri zielako buru gainera.

360 C.D.M.H. P.S. Bartzelona, 140, *Barriakoa U.I.B.ak Bernabé Hormaza Olaguibel erregimenaren aurkakoa deklaratzeko espediente*, 10. espediente, 1937.

361 *La Gaceta del Norte* 1934-10-9

362 GOROSPE, Alberto: *Batzokis de Bizkaia. Txori Herri-Urribe Kosta*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 2002, 261.

363 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-10-6.

364 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-10-9.

Itauntzeko modukoa da ea grebak istilurik piztu ote zuen Uribe Kostan. Eskura dauzkagun geroagoko informazioetatik ateratzen dugu udalerrri batzuetan, antza, iraultza prozesuaren aldeko talde txiki batzuk egon zirela, baina erraz kontrolatu zituztela. Plentzian halaxe jazo ei zen, greba astea baino apur bat geroago Udal Batzorde Kudeatzaileak erabaki zuelako Eugenio Calvete Hernández karabineroen kapitainari omenaldia egitea, “(...) hilaren 5ean aldarrikatutako greba iraultzailea zela-eta hiribilduari egindako meritu handiko zerbitzuen esker onez”<sup>365</sup>. Horren sari, “plaka artistiko bat, hiribilduko armarria agertzen duena”, eta bertan, eskerrak emateko esakuna. Sopelan, berriz, elizate horretan Gerra Zibila bitartean jardun zuen Udal Ikerketa Batzarrak irekitako espediente biren datuak aintzat harturik, atxiloketak eta etxeetako miaketak egon ziren, ustez Antonio Arechabaletak agindutakoak “(...) bere suhi Isidoro Zamaconaren eta bere alaba Josefina Arechabaletaren laguntzaz”. J.M.I. sopoloztarraren arabera, agindu horiek zuzenean eman zizkieten Guardia Zibilari, bai Arechabaletak bai suhiak, “(...) Guardia Zibilaren kuartela ere ezarrita” zegoelako biak bizi ziren etxean. Hona zer esaten zen Antonio Arechabaletaren gaineko espedientearen:

*“Este individuo en Octubre del año 1934 (...) daba orden de detener a los que el creyo conbeniente (sic), llegando a ser detenidos tres nacionalistas por orden expresa de este señor, y un sin número de cacheos domiciliarios a otros significados como socialistas llegando asta (sic) el atropello personal, no pudiendo circular de noche por la calle por correr el peligro de ser fusilado”<sup>366</sup>.*

Zamaconari buruzko txostenean, berriz, hauxe:

*“Este individuo fue el que en Octubre de 34 dio aviso a la Guardia Civil para que fueran encarcelados barrios (sic) individuos de esta localidad llebando (sic) a efecto un sin numero de cacheos a domicilio de los nacionalistas y componentes de los partidos del Frente Popular”<sup>367</sup>.*

---

365 C.D.M.H. P.S. Bartzelona 93, 1, *Eugenio Calvete Hernándezen espedientea, Plentziako (Bizkaia) Udal Ikerketa Batzordeak bidalia*, 1937. Espedientearen barruan dago 1934ko urriaren 20an egindako bilkura arruntaren aktaren kopiaren ziurtagiria, Plentziako Udaleko idazkari Bartolomé Olaizola Iriondok 1937-1-27an luzatua.

366 C.D.M.H. P.S. Bartzelona, 93,1, Sopolako UIBk Antonio Arechabaletari irekitako espedientearen 1936ko abendua.

367 C.D.M.H. P.S. Bartzelona, 93, 1, Sopolako UIBk Isidoro Zamaconari irekitako espedientearen 1937ko apirila.

Irailaren hasieran batera dimitituriko udalbatza demokratikoak hilaren amaieran hasi ziren judizialki epaitzen. Eginkizunak abandonatzeagatik irekitako sumarioaren barruan, lehenengoko prozesatuen taldean zeuden Urdulizko 8 zinegotziak. Sestaoko 6 eta Markinako 3 zeuden haiekin batera<sup>368</sup>. Urriaren 25ean kondenatu zituzten hiru urte, lau hilabete eta egun bateko etendurara eta kostuak ordaintzera. Urdulizko 8 zinegotziek errekurtsioa aurkeztu zuten, kondenaren kontra, Auzitegi Gorenean, baina atzera bota zieten 1934ko abenduan, eta kostuak ordaintzera kondenatu zituzten atzera. Horrez gain, “(...) *ehun eta hogeita bost pezetako isuna, gordailua ez eratzeagatik*”. Errekurtsioaren epaia karguen guratako abandonuaren gainean oinarritu zen berriro, eta ezertarako ez zuen balio izan argudiatzeak, besteak beste, ez zela:

*“(...) tenido en cuenta como prueba documental una certificación (...) expedido (sic) por el Secretario de la Corporación con el visto bueno del Alcalde interino nombrado gubernativamente según la cual no se interrumpió la vida municipal, ni se entorpeció la administración del pueblo (...)”*<sup>369</sup>.

Udal gatazkak eta Urriko Iraultzak ondo sakonak utzi zituen Euskal Herriko politikan. Lehenengoz gertatu zen “(...) *unean uneko bat etortze bat ezkerren eta EAJren artean (...)*” Ardoaren Estatutua zela-eta, haien interesak desberdinak izan arren. Bi indar horien arteko aliantzarik izan ez bazen ere, Bilboko *La Gaceta del Norte* egunkari katolikoak, 1933ko azaroko hauteskundeetan EAJri sostengu erakutsi eta gero, “(...) *etortzeko puntuan dagoen iraultzaren konplize*” egin zituen jeltzaleak. Modu horretara, “*haustura bortitza*” gertatu zen eguneroko katolikoaren eta EAJren artean. “(...) *1931tik 1933ra Euskal Herrian nagusi*” izandako bloke katolikoaren erabat desagertzea izan zen horren emaitza<sup>370</sup>.

Urriko Iraultzak utzi zuen beste hondar bat batzokien itxiera izan zen, besteak beste, Urdulizkoa. Horrek bete-betean jo zuen abertzaletasuna. EAJri batez ere Bizkaian leporatu zioten gertaera iraultzaileetan parte hartu izana. Ángel Velarde gobernadore zibilak segurtatu zuen froga garbiak zeuzkala horren gainean, eta “(...) *probintzia osoan batzoki mordo bat, eta EAJren zein SOVen bulego eta lokalak (...)*” ixteari ekin zion<sup>371</sup>.

José Luis de la Granjaren hitzak erabiliz, EAJ “*erabateko isolamenduan*” geratu zen 1934ko urritik 1936ko otsailera bitartean, eta eskumen erasoan jomuga bihurtu zen alderdiaren katolikotasuna auzitan ipintzen zutela<sup>372</sup>.

368 *La Gaceta del Norte* 1934-9-25.

369 C.D.M.H. P.S. Bilbo 151.

370 GRANJA SAINZ, 252

371 FUSI, 194.

372 *Ibid.*, 259.

Udal Batzorde Kudeatzaileari dagokionez, haren lana administratibo hutsa izan zen. Badira, dena dela, salbuespen bi, gutxienez. Lehenengoa 1934ko abenduaren 16an izan zen, Bilbon parte hartu zuenean “(...) Aldundiaren eraikinaren aurrean, Armada Loriotsuaren eta indar armatuen ohorezko ekitaldian, iragandako gertaera iraultzaileetan izan duten jarduna eskertzearren (...)”. Udalak 25 pezetako ekarpena egin zion harpidetzari eta ordezkarri bat bidali zuen ekitaldietara<sup>373</sup>. Bigarrenak ere antzeko oinarria izan zuen, 1935eko azaroan, “(...) Bizkaiko Udallerrien Batasunak” erabaki zuelako “(...) bere gain hartzea on Ángel Velarde García gure gobernadore zibila izandakoari Errepublikako Gobernuak eman dion dominak (Meritu Militarraren Ordenaren 3. Klaseko gurutzeta, ezaugarri zuriduna) dakartzan gastuak (...)”. Urdulizko Udalak erabaki zuen lehenengo ikustea zer diru kopuru ipini behar zuten “(...) udalerrri honen inguruko herrietan, eta gero, hala badagokio, bere ahalen arabera zenbatekoaren ekarpena egitea”<sup>374</sup>.

Urdulizko Batzordeak hasieratik hartu zuen beretzat auzune-eskola bi eraikitzeko udal nazionalistak bultzatutako proiektua<sup>375</sup>. Horrek ekarri zuen 36.000 pezetako mailegua eskatzea orduko *Caja de Ahorros Vizcaínari*. Udalaren ahalegina are handiagoa izan zen, kontuan harturik 30eko hamarkadan nagusi izan zen krisi ekonomikoa kontuan harturik. 1935ean zehar, Udala ahalegindu zen gastua kontrolatzen eta aparteko diru-sarrerak bilatzen, zenbait adibide lekuko. Esate baterako, 1935eko abuztuaren 28an erabaki zen Geltokiko Udal Alondegia saltzea, “*garestia*” zelako eta haren “*premiarik ez*” zegoelako, Elortza auzunean beste bat egonda. Hala ere, salmentaren egiazko helburua zen dirua lortzea eskolen maileguaren karga arintzearen<sup>376</sup>. Hori baino lehenago, martxoaren 23an, Udalbatzak ezetz esan behar izan zion Tuberkulosiaren kontrako Probintziako Batzarrari, Udalaren laguntza eskatu zuenean “(...) Batzarraren sostengurako”. Ezezkoa “*sentimendu handiz*” eman zion, argudiatuz eta “(...) aurtengo aurrekontua moldatuta eta onartuta” zegoela eta “(...) egoera ekonomiko urrian (...)” zeudela. Horregatik, ezinezkoa zuten “(...) aurtan behintzat ezelango diruren ekarpenik egitea (...)”<sup>377</sup>. Udalak zorrotz aztertzen zituen faktura guztiak. Esate baterako, 1935eko urriaren 5ean, Udalbatzak erabaki zuen ez ordaintzea Valentín Cagijasek, Geltokiko Alondegia eramaten zuenak, aurkeztutako faktura, ezta Felipe Villabeitiak, Elortzako Alondegikoak,

---

373 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-12-15.

374 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-11-19.

375 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-9-29.

376 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-8-28.

377 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-3-23.

aurkeztutakoa ere. Zenbatekoari “(...) *gehiegizkoa* (...)” iritzirik, fakturak legezkoak zirela erakusteko eskatu zieten<sup>378</sup>. Urriaren 12an, legezkoatasuna frogatuta, 126 pezeta ordaindu zitzaizkion Villabeitiari eta 155'65 pezeta, berriz, Cagijasi. Azken hauetatik, Udalak uko egin zion 6 pezeta bere gain hartzeari, honako honi zegozkiolako:

*“(...) una comida suministrada por dicho Señor Cagijas a los Señores Concejales D. Tiburcio Madariaga, D. Bernardo Eguisquiza eta D. José M<sup>a</sup> Ansoleaga, el día de la medición de las escuelas de barriada, (...) por no estar autorizados dichos señores para comer a cuenta de este Ayuntamiento”<sup>379</sup>.*

Gobernuak kudeatzaileak izendatu osteko tirabira ulergarrien ostean, Udalaren eta herriko EAJren arteko harremana normalizatuz joan zen apurka-apurka. Hainbestearino, ze Udalak “*galaiki*” laga zuen Urdulizko landa, “*abertzale getxotarrek*” antolatutako Lanaren Jaia ospatzeko 1935eko maiatzaren 1ean<sup>380</sup>.

#### 2.1.4 1936ko otsailetik uztailera: Fronte Popularraren garaipena eta herriak hautatutako Udalaren berrezarpena

Fronte Popularrak 1936ko otsaileko Gorteetarako hauteskundeak irabazi zituenean, demokratikoki hautatutako euskal udalbatzak ezarri ziren berriro, Errepublikako Gobernu aukeratu berriak hala aginduta.

Otsailaren 23an, “*goizeko 9etan (...) sartu ziren Udaletxeko bilkura-aretoan (...) herriak hautatutako*” zinegotziak, 1934an kargugabetu zirenak, eta adierazi zuten “(...) *Errepublikako Gobernuak emandako amnistiaren indarrez (...) karguaz berriro ere jabetzera zetozela* (...)”. Ez kudeatzaile nagusia, Antonio Larrabeitia, ez Batzorde Kudeatzaileko gainontzeko kideak azaldu ez zirenez, idazkariak gobernadore zibilar deitu zion zinegotzi ohiek ziotena egia zen edo ez egiaztatzeko. Hala zela frogatu ostean, zinegotziak berriro ere beren karguez jabetu ziren eta, EAJk markatutako premisei jarraikiz, zenbait akordio onartu zituzten. Lehenengo eta bat, beren poza adierazi zuten zinegotzien berrezartzea “*justizia ekintza*” bat zelako ustez. Aldi berean berretsi zuten Kontzertu Ekonomikoaren defentsa, “*joan den gatazkaren jatorria*” izanda.

378 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-10-5.

379 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-10-12.

380 *Euzkadi* 1935-4-27.

Beste alde batetik, udal hauteskundeetarako deialdia eskatu zuten, amaituta zegoelakoan “(...) herriak hautatutako oraingo udalen agintaldia (...)”, eta orobat eskatu Foru Aldundirako hauteskundeak ere egiteko, hamahiru urte halakorik egon barik egon ostean. Beste eskakizun bat: Euskal Estatutua onestea, “Euskal Herriko udalek Gasteizko Batzarrean onartutakoa” eta 1933ko azaroan bozketara eroandakoa. Ez zuten aukera galdu Errepublikako Gobernuari honako hau gomutarazteko: “(...) 1839ko urriaren 25eko Legea indargabetzea, beste irrika politikorik ez du Euskal Herriak, gure jatorrizko askatasuna suntsitu zuelako (...)”. Osoko bilkuran, azken gaia izan zen botereen eskualdaketa Batzorde Kudeatzailetik herriak hautatutako Udaltzara. Zinegotziek, aktan, euren atsekabea jasoarazi zuten

*“(...) por la conducta observada por la Comisión Gestora, en particular del Señor Presidente de la misma, al no aparecer a dar posesión a este Ayuntamiento, así como la entrega de las insinias (sic) correspondientes”<sup>381</sup>.*

Gainera, Udaltzak erabaki zuen kargugabetutako Batzorde Kudeatzailearen kudeaketa administratiboa zehatz-mehatz aztertzea, “(...) legez kanpoko erabakiren baten ondoriozko erantzukizunetatik begiratzeko”. Kontuak berrikusten hastearren eta diruak entregatzearen, idazkariari baimena eman zitzaion “kudeatzaile jaunak” gonbidatzeko. Hauek, gainera, euren sinaduraren bidez legeztatu behar zituzten “sinatu barik zeuden aktak”<sup>382</sup>. Otsailaren 29an, 1935eko kontuak aztertu zituzten berrezarritako zinegotziek eta kargua uzten zuten kudeatzaileek, “(...) zehaztasun guztiarekin eta giro onean” aztertu ere. Dena artez zegoela egiaztatu zuten. Horren ostean, “(...) kudeatzaile jaunek euren insigniak eta makilak entregatu zituzten eta horren ostean sala utzi zuten”<sup>383</sup>.

Batzorde kudeatzailea osatu zuten zinegotzi guztien izenak sartu ziren Udalak Gerra Zibila bitartean (1937ko apirilaren amaieran) Urdulizko bizilagunen artean Errepublikaren “aurkakotzat” jotzen zituztenekin osatutako zerrendan.<sup>384</sup> Gatazka amaitu zenean, kudeatzaile ohietako batzuek Diktadurako karguak eskuratu zituzten, hala nola Antonio Larrabeitia alkate ohiak, Urdulizko Falangean, edo José María Ansoleagak, berriro Urdulizko Udaleko zinegotzi moduan.

---

381 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, *Herri-bozketaren bidez hautatutako udalen eratze-akta 1936-2-23*.

382 *Ibíd.*

383 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, *Bilkura arrunta 1936-2-29*.

384 C.D.M.H. P.S. Madril, 876.

Plentzian solemnitare handiagoa eman zitzaion Udalaren berrezarpenari. *El Liberal* eta *Euzkadi* egunkariak kontatu zuten zelan igaro zen, marinela-hirian, otsailaren 23ko eguna. Bezperako gauean, “(...) ozen zapartatu ziren suziriak eta bonbak, Italiako hegazkin zibilizatzaileek Abisinian baino kalte gehiago eraginez kazikeen bularretan...”. Igande eguerdian hiribilduko Geltokiko auzotik segizio bat irten zen Udaletxerantz, Musika Bandarekin, txistulariekin eta 1934ko irailean dimisioa eman zuten Udalbatzako zinegotziekin, “(...) Euzkadiko eta Espainiako Errepublikako banderen artean (...)”. Haien atzetik, “(...) jendea, benetako jendetza (...)”. Zinegotziak, Udaletxerako bidean txalotuak izan ziren aurrera egin ahala<sup>385</sup>. Karguaz jabetu ostean, “(...) alkate berria, Uchupi jauna, Udaletxeko balkoi nagusira irten zen eta bertatik jendeari berba soil eta zirraragarriak eskaini zizkion, baita horiengatik txalo beroak jaso ere”. *El Liberaleko* kronistak zioenez, “(...) Errepublikaren eta Fronte Popularraren aldeko oihuak (izan ziren), izan ere horri zor zaizkio herri-festa hauek, nahiz eta askok ez duten onartu nahi, ez dakiten edo ez zaizen onartzea komeni”<sup>386</sup>. Euzkadi egunkariak, berriz, argitu zuen “(...) jendea gora Euzkadika ibili zela, baita viva-ka ere justizia errepublikarraren alde, eta gogotsu egin zitzaizela oihartzun”<sup>387</sup>.

Urdulizen, Euzkadiko gainerako lekuetan legez, boto nazionalistak behera egin zuen 1933ko azaroko hauteskundeetan aldean. Hala eta guztiz, aukera bozkatuena izan zen udalerrian, eta jarraian eskumak, nazionalistek galdutako botoen onuradun. Errepublikanoek, berriz, euren emaitzei eutsi zieten.

<b>GORTEETARAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK – URDULIZ 1936-2-16</b> <sup>388</sup>		
<b>Hautagai</b>	<b>Filiazioa</b>	<b>Botoak</b>
José Horn Areilza	Nazionalista	309
Manuel Robles Aranguiz	Nazionalista	309
Francisco Arregui Fernández	Nazionalista	308
José María de Izaurieta Echevarria	Nazionalista	309
José Adán Satue	Eskuma	67
José M <sup>a</sup> Juaristi Landaia	Eskuma	67
José M <sup>a</sup> de Areilza Martínez Rodas	Eskuma	67
Miguel Galdaracena Goya	Eskuma	67
Indalecio Prieto Tuero	Fronte Popularra	47
Mariano Ruiz Funes	Fronte Popularra	49
Julian Zugazagoitia Mendieta	Fronte Popularra	49
Leandro Carro Hernáez	Fronte Popularra	48

385 *Euzkadi* 1936-2-28.

386 *El Liberal* 1936-2-28.

387 *Euzkadi* 1936-2-28.

388 B.F.A.H. AJ 02092/002 “Boto-kontaktaren emaitza – Gorteetarako diputatuen hauteskundeak” 1936-2-16.



<b>GORTEETARAKO HAUTESKUNDEEN ALDERAKETA – URDULIZ 1933 eta 1936</b> <span style="float: right;">389</span>			
<b>1933</b> Hautesle kopurua: 541 Irakurritako boto-txartel kopurua: 441	<b>1936</b> Hautesle kopurua: 522 Irakurritako boto-txartel kopurua: 425		
<b>Hautagai bozkatuena 1933 eta 1936</b>	<b>Filiazioa</b>	<b>Botoak 1933</b>	<b>Botoak 1936</b>
José Horn Areilza	Nazionalista	369	309
Indalecio Prieto Tuero	Sozialista	47	47
Luis Lezama Leguizamon Zuazola (1933) José María de Areilza Martínez Rodas (1936)	Eskuma Eskuma	26 -	- 67

Martxoaren 13an, Gobernuak udal hauteskundeak deitzea erabaki zuen apirilaren 12rako<sup>390</sup>. Urdulizen, martxoaren 27an, Elizateko 50 hauteslek, gizon eta emakume, guztiak alderdikide eta zale nazionalista, beren sinadura zeraman idatzia aurkeztu zioten Enrique Legarra udalburuari, alkatea aukeratzeko aurretiazko bozketa eskatzeko. Legarra bera izan zen eskakizunaren sinatzaileetako bat beste zinegotzi batzuekin eta Udaleko idazkariarekin berarekin batera. Hona zer eskatzen zuten bizilagun sinatzaileek, 1935eko urriaren 31ko Udal Legearen 76. artikulua ematen zien eskubidearen babespean:

*“(...) que se celebre la elección de Alcalde para el Ayuntamiento de Urduliz y consecuente y previamente, la ante votación que el jueves próximo, por mandato legal, ha de tener lugar a tenor de lo que dispone el invocado artículo (...)”<sup>391</sup>.*

Idatzi hori sinatu zuten bizilagunek José Vicente Garaizar Larrazabal nazionalista proposatu zuten alkatetzarako, eta horrez gain eskatu, aipatutako artikulua zioenari jarraituz, Legarra alkateak eman ziezaion *“(...) berehala eskaera honen berri Erroldako Udal Batzordeko lehendakariari, datorren egunean aurretiazko bozketa egin dadin (...)”<sup>392</sup>.*

389 B.F.A.H. AJ 02077/003 “Boto-kontaktetaren emaitza – Gorteetarako diputatuen hauteskundeak” 1933-11-19 eta AJ 02092/002 “Boto-kontaktetaren emaitza – Gorteetarako diputatuen hauteskundeak” 1936-2-16.

390 *Euzkadi*14-3-1936.

391 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Urdulizko 50 hautesleren idazkia, bertako alkatearen hautapena eskatzeko* 1936-3-27.

392 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Urdulizko 50 hautesleren idazkia, bertako alkatearen hautapena eskatzeko* 1936-3-27.

Urdulizko EAJ bera zen idazkiaren bultzatzailea. Alkatearen eskutan eskaera eskutitza utzi eta egun bi geroago, “EAJko herri honetako alderdikide gehienak batu ziren”, eta eztabaidatu “(...) ea herri-bozketa bidezko alkaterik aukeratu behar ote zen; batzarra horren alde agertu zen (...) eta José Vicente Garaizar y Larrazabal jauna aukeratu zen herri-bozketaren bidezko alkatetzarako hautagai (...)”. Gainera, udal batzarrari itaundu zitzaion “ea zinegotzien aukeraketarako abstenituko ziren, edo gutxiengoa hartzera, gehiengoa hartzera edo arraso egitera aurkeztuko ziren”. Erabakia “(...)gehiengoa hartzera joatea” izan zen<sup>393</sup>. Hartara, batzarrak honako hautagai hauek aukeratu zituen zinegotzi moduan joateko:

<b>EAJren HAUTAGAI ZERRENDA - UDAL HAUTESKUNDEAK 1936ko APIRILA</b> <sup>394</sup>	
Jesús Ardeo Zabala	Francisco Echegaray Sistiaga (Suplente)
Juan Bautista Unibaso Echegarai	Juan José Gurruchaga Garaizar (Suplente)
Juan Hilarión Gutiérrez	Isidro Bilbao Ansoleaga (Suplente)
Romualdo Fullaondo Lopategui	Tiburcio Llona (Suplente)
Juan Inchaurtietia Arambalza (Suplente)	

Herrialdeko Hauteskunde Batzordeak apirilaren 2a, eguna, aukeratu zuen “(...) herriak alkatea aukeratzeko aurretiazko bozketa egiteko, hala eskatu duten herrietan”<sup>395</sup>. Hilaren 3an, *Euzkadi* egunkariak aurretiazko bozketen emaitzak jaso zituen. Informazio horietan ez zen Urduliz agertzen, baina badakigu bertan ere egin zela; izan ere EAJren Uri Buru Batzarreko Diruzainak, idatzohar batean, jaso zuen sei pezeta ordaindu zirela “(...) bazkari batengatik, alkatearen aurretiazko bozketaren egunean”.<sup>396</sup> Ez dirudi errepublikanoek hautagairik aurkeztu zutenik, euren indar txikia dela-eta. Plentzian, esate baterako, EAJK baino ez zuen alkatetzarako hautagaia aurkeztu: Juan Gardoki Mandaluniz; hautatua izateko beharrezkoak ziren 180 botoak gainditu zituen, 800 eskuratuz. *Euzkadi* egunkariak honako hau gehitu zuen emandako albistean:

*“(...) no hubo más candidatos. Realmente las abstenciones de los demás partidos estaban justificadas, porque ninguno de ellos hubiera podido obtener más que un número reducido de votos”*<sup>397</sup>.

Plentzian legez, Urdulizen ere udalbatza osoki nazionalista ekarri zuten 1933ko apirileko udal hauteskundearen emaitzek. Oraingoan ere, beraz, kontua ez zen desberdin-desberdina izango.

393 C.D.M.H., P.S. Bilbo 217/2, *Urdulizko EAJko afiliatuen zerrenda*. Kontuak eta aktak dauzka.

394 *Ibíd.*

395 *Euzkadi* 1936-4-2.

396 C.D.M.H. P.S. Bilbo 217/2. Ordainketa persona bakar batentzako bazkari bati dagokio.

397 *Euzkadi* 1936-4-3.

Apirilaren 3an, Gobernuak hauteskundeak bertan behera uztea erabaki zuen, epe berririk ezarri gabe. Horren arrazoia, Gorteetan hasitako eztabaida parlamentarioa Konstituzioaren 81. artikuluari buruz, hau da, Errepublikako lehendakariaren eskumenei buruz, besteak beste, Gorteak desegiteko. Gaiaren garrantzia zela eta, Gobernuari egokia iruditu zitzaion bozketak geroratzea, diputatuek Parlamentuko saioetara huts egin ez zezaten hauteskunde kanpainan parte hartu behar izateagatik<sup>398</sup>.

Hauteskundeak bertan behera utzita, Udalak bere kudeaketa lanekin jarraitu zuen, bereziki finkatuta auzuneetako eskolen gaineko kontuak ixten eta Eskola Nazional berria eraikitzeko gestioak abiatzen. 1936ko ekainaren 20an egin zen Gerra Zibilaren aurreko azken osoko bilkura.

Autonomiaren auziari dagokionez, Fronte Popularrak 1936ko otsaileko hauteskundeetan lortutako garaipenak aldi berri bat ekarri zuen ezkerren eta nazionalismoaren arteko harremanean, Euskal Estatutua atakatik atera zuena. EAJ konturatuta zegoen Estatutua ez zela sekula onartuko eskumako gobernu batekin, eta ezkerrengana hurbiltzen hasi zen, Manuel Azaña buru zuen Gobernuaren izendapenaren aldeko bozka emanez. José Luis de la Granjak nabarmentzen duen legez, “(...) estatutua bilakatu zen izendatzaile komun txikiena Fronte Popularraren eta EAJren artean; haien arteko entente cordiale-a apirilaren 14an sinatu zen, Maciàri Bilbon egindako omenaldian Prietok eta Agirrek eman zituzten hitzaldiekin”. Egun bi beranduago, Estatutuen Batzordea osatu zen Gorteetan, Prieto buru eta Agirre idazkari zituela. Denbora gutxi behar izan zuen Arabako arazoa konpontzeko, ontzat hartuz 1933ko azaroko erreferenduma. Prietok eta ezkerrek Estatutuari eman zioten bultzada argia izan zen, onespén azkar baterako baldintza ipinita “(...) *laburra, eta katalanaren ahalik eta antzekoena*” izan zedila. Bi puntu horiek onartuak izan ziren batzorde parlamentarioan. Euskal Estatutua onespénaren azken fasean zegoen uztailaren 18ko Estatu kolpea jo zutenean<sup>399</sup>.

---

398 *Euzkadi* 1936-4-4 eta *La Gaceta del Norte* 1936-4-4.

399 GRANJA SAINZ, 119.

## 2.2 Ideologiak eta alderdi politikoak

### 2.2.1 Euskal abertzaletasuna Urdulizen

Bigarren Errepublika garaian, nazionalismoa izan zen Urdulizko indar politiko nagusia eta gehiengoa zuena besteen aurretik, errepublikanismoaren eta alor estataleko eskumaren babesa urri-urria baitzen. Horregatik, ideologia eta alderdi politikoei buruzko atal honi 1930etik aurrera nazionalismoak Urdulizen izan zuen bilakaeraren azterketarekin ematen diogu hasiera.

#### 2.2.1.1 Lehen pausuak: *Primo de Riveraren jausialditik Bigarren Errepublikara: 1930-1931*

Primo de Riveraren diktaduraren etorrerak geldialdi bat suposatu zuen XX. mendearen 10eko hamarkadan amaieraz geroztik nazionalismoa bizitzen ari zen gorakadan. Era berean, CNV eta EAJren jarduera politikoa eten zen eta bi alderdiek euskal kultur jardueren sustapenean hartu zuten aterpe. 1930eko urtarrilean, Primo de Riveraren jausi eta Berenguer jenerala etorri zen haren orde; horrek trantsizio epe bat ekarri zuen, Bigarren Errepublikarekin amaituko zena.

1930ean, abertzaletasunak kezka bakarra eduki zuen: bi alderdiena batasuna. Alde horretatik, Diktaturak eragotziak zituenez “(...) *ia erabat eztabaida doktrinalak eta bi adarren arteko liskarrak (...)*”, baldintza egokiak sortu ziren abertzale guztiek desio zuten batasunerako. Hala eta guztiz, batasuna lortzeko formula ez zen guztientzat berdina. “(...) *Aberrianoek doktrina aranista bere osotasunean mantendu nahi zuten; Comunionen barruan, berriz, jarrera kontrajarriak zeuden: batzuek ideologia aranista berrikusi gura zuten, eta besteek batasunera jo, nahiz eta programa aberrianoa onartu behar izan (...)*”, gero, behin alderdia batuta, “(...) *irizpide moderatuagoak aplikatuz*” joango zirelakoan<sup>400</sup>.

Apirilean, CNVk eta EAJk izendatutako batzordeek prozesu negoziatzaileari ekin zioten, eta hilabete horren amaieran bertan heldu ziren oinarritzko akordio batera. Horren arabera, “(...) *doktrina aranista, alderdi berrirako EAJ izena eta 1914ko antolakuntza*” mantenduko ziren. Hala eta guztiz, negoziazioak ez ziren hemen amaitu eta uda arte jarraitu zuten beste kontu batzuk baitzeuden mahai gainean, besteak beste prentsa abertzalearen kontrola. Ez zen edozelango kontua, prentsa zelako “(...) *EAJren euskarri ideologiko nagusia*”. Alde horretatik, aberrianoek nahi zuten prentsa eskualdeko kontseiluen mende egotea, eta comunionistek, ostera, mendekotasun hori alderdiaren organo gorenarekikoa izatea, hau da, *Euzkadi Buru Batzarre*arekikoa. Aberrianoak Bizkaian nagusi zirenez, beren proposamena aurrera ateratzen bazen eta *Bizkai Buru Batzar*ak lortzen bazuen alderdiaren prentsaren gaineko kontrol doktrinala, “(...) *alderdia*

400 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 195-197.

*bera mantenduko zen estu-estu ortodoxia aranistaren barruan, aberrianoek ulertzen zuten moduan (...)* . Aldiz, EBBk prentsaren kontrola eskuratuz gero, “(...) *comunionistek eskuratuko zuten boterea alderdiaren barruan, nagusi zirelako Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan*”<sup>401</sup>.

Horrez gain, Comuniónen barruan “(...) *talde erreformista bat banandu zen prozesu ofizialetik (...)*”. Sektore horrek, batasunetik harago, doktrina aranistaren berrikuspina proposatzen zuen. Bazuten zelan asmoak lortu, “(...) *Bilboko prentsa abertzalearen zati handi bat (...)*” kontrolatzen zutelako. Horregatik, ekainaren erdialdean, *Euzkadi* egunkarian argitaratutako inkesta batean proposatzen zen “(...) *hogei pertsonak –bost euskal lurralde bakoitzeko– osatutako batzorde baten izendapena (...)*”, helburu honekin: “(...) *Batzar orokorraren aurretik, nazionalismoaren programa eta antolakuntza berrikustea (...)*”. Hogeien Batzordea deitu zitzaion. Urriaren amaieran ponentzia bat onartu zuten abertzaletasuna berritzea helburu, berritasunak hauek zirela: “(...) *liberalismoa, akonfesionalitatea eta Espainia ez hain zentralista eta demokratikoago baten aldeko alderdietara hurbiltzeko politika pragmatikoa*” errepublikanoen aipamena eginez<sup>402</sup>.

Tesi berritzaile horiek garaituak izan ziren CNVn urriaren 26an Bizkaian eta Gipuzkoan gauzatutako herrialdeetako batzarretan. Azaroaren 1ean CNVren batzar orokorrerako deialdia egin zen, aurretik bileraren funtzionamendua zuzenduko zuen araudi bat prestatuta. Arautze horrek ponentzia berritzailea aurkeztea galarazten zuen. *Euzkadi* egunkariko kontseiluko lehendakariaren dimisioa ekarri zuen horrek, José Ignacio Arana comunionista berritzaileen aitzindarietako bat baitzen. Egunkari nazionalistaren kontrolaren galera izan zen dimisioaren ondorioa<sup>403</sup>.

Nazionalista urduliztarrek, bitartean, bi ordezkari izan zituzten urriaren 26eko Bizkaiko batzarrean: Antonio Iñiguez eta José Brotons<sup>404</sup>. Azken hau Urdulizko ordezkari moduan joan zen CNVren Batzar Orokorrera<sup>405</sup>.

Comunión Nacionalistak azaroaren 1eko bileran erabaki zuen “(...) *sabindar doktrina aldatu gabe, aberrianoekin*” batzea<sup>406</sup>. Egun horretan bertan agertu zen *Euzkadi* egunkarian José Brotons Txiberriren aldizkako kronika JEL -“*Jaungoikoa eta Lagi Zarra*”- sabindar leloaren pean nazionalisten batasunari dei eginez. Garbi dago Urdulizko ordezkariak bat egiten zuela aberrianoekin, sabindar doktrinari bere osoan eusterakoan<sup>407</sup>.

---

401 *Ibíd.*, 197.

402 *Ibíd.*, 197-198.

403 *Ibíd.*, 199.

404 *Euzkadi* 1930-10-26 “*JELTZALIAREN ORDEZKOAK. Erri onetako abertzalien ordezkari autu dabez Batzar nagusietan euren gogapena erakusteko Iñiguez'tar Andoni ta B. Llona'tar Joseba*”.

405 *Euzkadi* 1930-11-2.

406 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 199.

407 *Euzkadi* 1930-11-1. “*ALKARTASUNA ALAN EDO OLAN. Erri onetako abertzaliak aspaldian zain gagoz zetan geratuko ete dan Jeltzalien arteko arazo astun au, baña guzti guztiak batasuna nai dabeSabin'en ikurritz ederra dan Jaun Goikoa eta Laga Zarragaz alkartu Jeltzaliak alan edo olan, baña alkartu Jaun Goikoarren*”.

1930eko azaroaren 16an egin zen Bergarako Batzarra eta bertan bi alderdi nazionalisten batasuna gauzatu zen EAJ izenpean. Egunkari jeltzalean Urdulizen zeukan berriemaileak gertaera hau ospatu zuen “*Gora Batasuna*” izenburuko artikuluekin<sup>408</sup>. Egun gutxi batzuk geroago, azaroaren 30ean, galtzaile irtendako sektore erreformista banandu egin zen eta Acción Nacionalista Vasca sortu (Eusko Abertzale Ekintza-EAE). Alderdi horren printzipioak *San Andresko Manifestuan* jaso ziren. Dokumentu honek Hogeien Batzordeak onartutako ponentzia jasotzen zuen bere osotasunean<sup>409</sup>.

Alderdiaren berrantolaketa izan zen batasunaren osteko lehenengo pausua. Bi alderdietako kargudunek karguak utzita, herrialdeetako bitarteko batzordeak izendatu ziren. Haien egiteko nagusia, “(...) herrialde bakoitzean alderdi berriaren afiliazioa sustatzea, 1923a baino lehenagoko uri buru batzarrei dei eginez (...)”, “(...) batzokietako eta gaztedietako zuzendaritzekin batera, bitarteko udal batzordeak aukeratzeko, herri bakoitzeko nazionalisten artean afiliazio orriak jasotzeaz arduratuko zirenak”<sup>410</sup>. Azaroaren 30ean, egunkari abertzaleak “(...) ordura arte izendatutako bitarteko Udal Batzordeen” osaeraren zerrenda bat argitaratu zuen; bertan Urduliz, Sopela, Plentzia, Laukiz eta Gatika ageri ziren. Gainera, Plentzian “(...) Batzokiaren irekierarekin zerikusia zuen oro ahal bezain lasterren (...)” amaitzen ari ziren. Urdulizen, bitarteko Udal Batzordea arestian aipatutako Antonio Iñiguezek eta José Brotonsek osatu zuten<sup>411</sup>.

Batzorde horrek hartu zuen afiliazio orriak helarazteko ardurak; Txiberrik abenduaren 4an argitaratutako artikulua batek jasotzen zuenez, interesa zuen orok berari edo Antonio Iñigezi eska ziezaiekeen<sup>412</sup>. Egun gutxi batzuk lehenago, abenduaren 1erako, 9 lagunek Urdulizko EAJn afiliatzeko eskaera egina zuten dagoeneko, besteak beste Brotons eta Iñiguez berek. Azken hori, Primo de Riveraren diktadurari buruzko kapituluan kontatu dugun legez, diruzain ibili zen Solidaridad de Obreros Vascoseko udal zuzendaritzan, 1929ko irailean sortu zenean. Gainera, Urdulizko SOVeko lehendakaria, Francisco Zalbidea Barandica, EAJko 9 alderdikideen taldean zegoen ere 1930eko abendu hartan<sup>413</sup>.

---

408 *Euzkadi* 1930-11-20. “*GORA BATASUNA. Jaunari eskerrak egin dogu ainbat aldi onetan begira egongo garan batasuna. Lotsagarria edo obeto esateko negargarria izan da eusko abertzalienen egokera kazkarra. Guztiok maite dogula ta asko maite ta ezin ulertu baña aurrerantzian geure aberria pozik eukiko dogu ikusirik euzkotarrak bere goratutea ta alkartuta, au poza geuria, ezin siñesturik gagoz, oraiñ Jel aldez Aurrera*”.

409 PABLO, MEES ETA RODRÍGUEZ RANZ, 199-200.

410 *Ibíd.*, 200-201.

411 *Euzkadi* 1930-11-30.

412 *Euzkadi* 1930-12-4. “*ABERTZALE ARAZOAK. Alderdikide edo afiliadu sartu nai dabenak Euzko Alderdi Jeltzalian alderdikidetutako orriak eskatu Iñigetz'tar Andoni ta neuri*”.

413 C.D.M.H., P.S. Bilbo 116 “*Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak (1930-1934)*”; eta *Obrero Vasco* 1929-9-1 eta 1929-9-16.

Gure ustez, Urdulizko SOVen sorrera ezinbestekoa izan zen Elizateko abertzaletasuna berrantolatzeke Urdulizen. Izan ere, herriko nazionalismoa berrantolatzen hasi zen unetik ez dugu udalerrian SOVen batzorde baten berririk<sup>414</sup>. Era berean, atzerago aipatu dugun legez, ezinbesteko jotzen dugu herriko nazionalismoarentzat José Brotons Llona *Txiberriren* etorrera Urdulizera, Diktadura primorriveristaren urteetan. Aurretik, Brotonsek Laukizko CNVko zuzendaritzan parte hartu zuen idazkari moduan 1923an<sup>415</sup> eta, gainera, *Euzkadiko* kronista moduan jardun zuen herri horretan. Urdulizen ere tokiko kronikez arduratu zen, Elizatean nazionalismoa sustatzeko asmotan.

Sei afiliazio gehiago onartuta itxi zen 1930. urtea: bat abenduaren 4an, bi abenduaren 5ean (haietariko bat Pedro Goirigolzarriena, gero alkate izango zenarena); eta hiru abenduaren 6an<sup>416</sup>.

Abenduaren 7an Bizkaiko udal batzarrak ospatu ziren (...) *behin betiko uri buru batzarrak eta Erki Batzarreko kideak*<sup>417</sup> aukeratzeko. Urdulizko batzarraren zuzendaritza modu honetan osatu zen:

<b>EAJko URI BURU BATZARRAREN ZUZENDARITZA- 1930ko abendua</b> <sup>418</sup>	
<i>Lehendakaria</i>	José Brotons Llona
<i>Diruzaina</i>	Antonio Iñiguez Unibaso
<i>Idazkaria</i>	Francisco Asla Goirigolzarri

Urdulizko EAJren buruzagitza aukeratzeaz gain, abenduaren 7 hartan batzorde urduliztarrak Bizkaiko Batzarrera joango zen ordezkaria aukeratu zuen; abenduaren 21erako deituta zegoen, behin betiko BBB hautatzeko asmoz<sup>419</sup>. Aukeratua Antonio Iñiguez izan zen, eta ordezko, José Brotons<sup>420</sup>. Gainera, batzar urduliztarrak ordura arte egindako sarrera eskaerak onartu zituen, hau da, lehenengo 16 alderdikideenak; hauei gehitu behar zaizkie abenduaren erdialdera onartu ziren beste eskaera bi. Nagusiki, batzar gaztea izan zen; lehendakariak hogeita hamar urte inguru zeuzkan, diruzainak 26 eta idazkariak 18 besterik ez. Lehenengo alderdikide talde horretan, 30 urte baino gazteagoak ziren nagusi: hamazazpi kideetatik sei hogeitaka urteetan zeuden, beste bik 18 urte zituzten eta beste batek 19. Hiru alderdikide baino ez zeuden hogeitamaikakako urteetan, eta beste hiruk 40 urte baino gehiago zituzten<sup>421</sup>.

414 *Euzkadi* 1930-1-16 Txiberririk Urdulizko beharginak animatu zituen S.O.V.en afiliatzera.

415 *Euzkadi* 1923-1-19.

416 C.D.M.H., P.S. Bilbo 116 "Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak (1930-1934)"

417 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 201.

418 *Euzkadi* 1930-12-10.

419 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 201.

420 *Euzkadi* 1930-12-10.

421 C.D.M.H., P.S. Bilbao 116 "Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak (1930-1934)"

Batzarreko zuzendaritza aukeratu ostean, *Txiberrik* egunkari abertzalean zeukan berbatokitik Urdulizko bizilagunei oroitarazi zien Batzarreko buruengana jo zezaketela afiliatu ahal izateko<sup>422</sup>. 1931ko urtarrilaren hasieran beste deialdi bat egin zuen, eta gehitu: “*Apurke apurke baña Jel alderdiyan sartzen diñardube erri onetako abertzaliak*”<sup>423</sup>. Egiaz, ostera, 1931ko urtea pobrea izan zen afiliazioari dagokionez: bost besterik ez, eta haietatik hiru Bigarren Errepublika aldarrikatu zen egunean bertan, apirilaren 14an, hain zuzen ere Udaleko sei zinegotzi nazionalistetako hiru: Pedro Larrea Arambalza, Juan Abaroa Goirigolzarri eta Tiburcio Bilbao Madariaga<sup>424</sup>. Maiatzaren hasieran, *Txiberrik* berriro berretsi zuen afiliazioa, nahiz eta astiro, goraka zihoala<sup>425</sup>, zalantza barik aurreko hilabeteko afiliazioei aipu eginez. 1931ko ekaineko Gorteetarako hauteskundeetan nazionalismoak botoen gehiengoa lortu zuen Urdulizen, baina horrek ez zuen alderdikide berrien afiliazioa sustatu: apirileko afiliazioen ostean, soilik beste bat aurki dezakegu irailen<sup>426</sup>. Hala ere, urriaren hasieran, kronista urduliztarrak kide kopuru urriaren afera ezitu zuen, honakoa baieztatuz: “(...) *apurka-apurka Alderdi Jeltzalean sartzen doaz euskaldun izateaz harro dauden bizilagunak* (...)”. Hala eta guztiz, gehitu zuen oraindik kidetu barik zeudela “(...) *abertzale zoragarri ugari, besoak zabalik itxaroten ditugunak*”<sup>427</sup>, bereziki kontuan hartuta ekaineko hautetsontziek ekarritako emaitzak.

Kidetze kopuru urria lortu ez ezik, nazionalismoak bizitasun gutxi erakutsi zuen 1931n Urdulizen, afiliazio motelaren ondorioz zalantzarik gabe. Azaroaren 22an, Sabino Aranaren urteurrena dela-eta egindako mezaz gain<sup>428</sup>, beste elizkizun bat topatzen dugu: San Ignazio egunaren ospakizuna. Eguneko bigarren mezan burutu zen “*abertzaleen jaunartze orokorra*”. Horrez gain Elizateko nazionalistek dei egin zitzaion “(...) *egun horretan euren etxeak oihal zintzilikari abertzalez*”<sup>429</sup> apaintzeko.

---

422 *Euzkadi* 1930-12-13.

423 *Euzkadi* 1931-1-2. “*ABERTZALIEK. Apurke apurke baña Jel alderdiyan sartzen diñardube erri onetako abertzaliak* (...)”.

424 C.D.M.H., P.S. Bilbao 116 “*Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak (1930-1934)*”

425 *Euzkadi* 1-5-1931. “*ALDERDIKIDETU. Beste erriazkotan lez Jel-alderdien bazkide egin dira erri onetan bere euzkotar batzuk apurke apurke gorantza goaz erri onetan be* (...)”.

426 C.D.M.H. P.S. Bilbao 116 “*Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak (1930-1934)*”.

427 *Euzkadi* 1931-10-9.

428 *Euzkadi* 1931-11-21.

429 *Euzkadi* 1931-7-30.



Hala eta guztiz, Errepublikaren lehen urtean Urdulizen egin zen ekitaldi nagusia, maiatzaren 1eko Langilearen eguna, ez zuten urduliztarrek antolatu, baizik eta Leioako Agrupación de Obreros Vascos-ek, Algortakoek laguntzaz. Egun hartako programak ohiko mitin nazionalisten eskemari jarraitzen zion, erlijioa, politika eta olgeta-jarduerak nahastuz:

<b>LANAREN EGUNEKO EKITALDIEN PROGRAMA Urduliz 1931-5-1</b> <sup>430</sup>	
<b>10:30</b>	Meza kantatua hildako kideen oroigarri. Jarraian, ezpata dantza Algortako eta Leioako taldeen eskutik.
<b>13:00</b>	Txangozaleen sukaldeek zerbitzatutako bazkaria.
<b>16:00</b>	Hizlari ospetsuen mitina. Gero, euskal erromeria ilundu arte, bi txistulari talderen eskutik .

Urdulizko maiatzaren 1eko ospakizuna tokiko batzar sendo multzo baten eta Solidaridad bezalako beste erakunde batzuen bizitasunaren adibide argia dugu; Errepublikaren lehen bi urteetan, udalerrri askotan ekintza ugari antolatzeaz arduratu ziren nazionalismoak bertan egituraketarik ez zuenean edo ahul zebilenean. Argi eta garbi bilatzen zen, udalerrri horietan nazionalismoa zabaltzea eta indartzea. Jokatzeko modu hori ez zen berria, 1923aren aurreko ereduari jarraitzen zitzaion. Eta orduan legez, Errepublika garaian, inguruko herrietako nazionalistek ekintzetan parte hartuz erantzun zuten. Esate baterako, 1931ko azaroan, Plentziako abertzaleek Armintzan ekitaldi bat antolatu zutenean, oso jendetsua izatea espero zuten, kontuan hartuta “(...) *abertzale talde handi baten artean sumatzen den gogoia, ez bakarrik Gaminitzen, baita beste herri batzuetan ere, barbarako Gorlitzan, (...) Barrikan, Urdulizen (...)*”<sup>431</sup>.

1931n ekintza maila handiagoa erakusten hasi ziren Batzarrak izan ziren, hain zuzen ere, Primo de Riveraren diktaduraren aurretik antolakuntza nazionalista bat finkatuta zeukatenak; hala nola, Plentzia, Algorta, Mungia edo Sopelakoak.

Plentzian, Batzokiaren irekiera ofiziala 1931ko abuztuaren 9an gauzatu zen, oso programa betearekin, horrelako ekitaldietan ohi ziren usadioei jarraituz. Hasteko, alderdi erlijiosoa, Batzokiko koroak berak kantatutako meza batekin, “(...) *Udalbatza*” bertan zegoela<sup>432</sup> eta aurretik ezpata dantzarien bandera bedeinkatuta. Gero, alderdi ludikoena, erakustaldi bat Plentziako eta beste herri batzuetako ezpatandantzarien eskutik, eta beste bat “(...) *70 haurrek osatutako Mundakako dantzari eta txistulari txiki txalotuen*” ardurapean. Eguerdian, musika bandaren eta *txistularien* kontzertua edo pilota partida. Ekitaldi nagusia,

430 *Euzkadi 1931-4-30, 1931-5-1 eta 1931-5-3.*

431 *Euzkadi 1931-11-8.*

432 Kontu hori ez da batere egia, kontuan harturik Udalak bi zinegotzi errepublikano zituela eta beste bat EAEkoa.

falta barik, arratsaldeko mitina, hiru hizlariren eskutik, horietako bat gazteleraz. Ospakizunak erroneria batekin amaitu ziren, mitinaren ostean<sup>433</sup>.

Nahiz eta irekiera ofiziala, esan bezala, abuztu hasieran izan, benetan *Batzoki* hura apirila amaieratik zegoen irekita. Egoitzaren bizitasunaren adibide gisa, aipatu beharra dago ezpata dantzari talde baten osaketa apirilaren 29a bezalako data goiztiar batean<sup>434</sup>. Ekimen gaitasun hori Plentziako hiribildutik kanpora aurrera eroandako propaganda ekintzen antolaketan ere nabari da; ohikoak izan ziren 1932az gerostik. 1931ko azaroaren 8an, ekitaldi sorta bat bultzatu zuten Armintzan, “*abertzaletasuna aldarrikatzeko*”. Mitin bat izan zuten ekintza nagusia. Haren osagarri, ezpata dantza saio bat Plentziako Batzokiko txiki eta handien kontura, eta erroneria txistulariekin<sup>435</sup>.

*Sopelana’ko Euzko Gastedijak*, bestaldea, “*laurogeitik gora bazkide*” zeuzkan 1931ko uztailaren erdialdean. Plentzian legez, sopoloztar abertzaleen antolakundeak ezpata dantzari talde bat zeukan. Nahiz eta Sopelako antolakunde abertzaleak bazkide kopuru handia eduki, haietatik hiru baino ez ziren joan uztailaren 12an Gernikara<sup>436</sup> nazionalistek eta karlistek osatutako koalizioko diputatuei omenaldia egitera, horiek Gorteetan Estatutu proiektua defendatzera joateko zeudela<sup>437</sup>. Sopelako korrespontsala, *Zabal-oyar*, lotsarazi zuen herriko nazionalismoaren ordezkari urri horrek, “(...) *Urduliz, Leioa, Getxo, Hareeta, Plentzia, eta abarretako abertzaleek*” itaundu ziotenean Gernikara egun hartan azaldu ziren kideei buruz. Hiri foralean abertzale sopoloztarren hain ordezkari murrizta ikusirik, *Euzkadi* egunkariko orrialdeetako kronista *mendigoixale* talde bat sortzearen alde agertu zen, “*talde hori osatzeko behar adina gazte*” zeuzkatela argudiatuz. *Zabal-oyar*ren ustez unea egokia zen: “*Sopela itzartzen hasi da, eta orain kosta ala kosta gazteak erakartzea ezinbestekoa da, hortxe dago eta etorkizunerako helduleku sendoa*”. Gainera, Sopelan *Emakume Abertzale Batza* sortzeko berotu gura izan zituen bazterrak, zeren eta “(...) *kideen artean badaude neska-laguna, arreba eta dauzkatena, eta nork esaten digu interes horrekin ezin garelako Emakume Abertzale Batza osatzera heldu?*”<sup>438</sup>.

Butroe erreka haranean ere abiatu zen nazionalismoa. Mungian, abuztuaren 30ean bertoko *Eusko Gastedija* sortu zen<sup>439</sup>. Gatikako nazionalistek, berriz, euren *Batzoki* berria inauguratu zuten azaroaren 8an, “(...) *ekitaldi xume eta familiarterkoa eginez, Esteban de Urkiaga eta Benito Zubiaur jaunen hitzaldi abertzale laburrekin*”<sup>440</sup>.

---

433 *Euzkadi* 1931-8-9.

434 *Euzkadi* 1931-5-1.

435 *Euzkadi* 1931-11-8

436 *Euzkadi* 1931-7-8.

437 *Euzkadi* 1931-7-14.

438 *Euzkadi* 1931-7-8.

439 *Euzkadi* 1931-8-21.

440 *Euzkadi* 1931-11-8.

Uribe Kostan, tren nahitaezkoa izan zen abertzaletasuna zabaltzeko. Garraibide horrek, pertsonen edo Bilboko edo Hareetako merkatuetarako elikagaien joan-etorria ez ezik, “*ideia nazionalisten joan-etorria*” ere erraztu zuen, garraibide eraginkor eta azkarra eskainita alderdikide eta zaleei trenbidea pasatzen zen herrietako edo inguruko ekitaldi jeltzaleetara joateko momentuan. *Euzkadi* egunkariak etengabe egiten zion erreferentzia trenbideari EAJren ekitaldietara joateko bitarteko gisa. Esate baterako, 1931ko abuztuan, trenbide konpainiak tren zerbitzu bereziak antolatu zituen Plentziako Batzokia irekitzeko ekitaldirako<sup>441</sup>.

### **2.2.1.2 Hazkundera eta goraldia: 1932-1933. Emakume Abertzale Batzaren (E.A.B) sorrera Urdulizen.**

1932aren hasieran, Urdulizko abertzaleen batzarrak aurreko kargudunak aukeratu zituen atzera<sup>442</sup>. Herrian nazionalismoa bultzatzea eta sustatzea helburu, otsailaren hasieran beren lehen mitina antolatzen hasi ziren jeltzale urdulizarrak. Apirilaren 3an gauzatu zen, Sopelako eta Plentziako kideen laguntzaz. Mitina zen ekitaldi nagusia, baina horretaz gain ez zen falta izan goizeko meza, “(...) *abertzale talde batek abestua, eta, mitinaren ostean, euskal erromeria ilundu arte*”. Hitzaldiaren gaia izan zen “*Abertzaletasuna egungo arazoan aurrean*”, horren gainean hiru hizlari berbetan ipinita: Vicente de Biteri, Esteban de Arantzadi eta *Arriko Arritxu*<sup>443</sup>.

Egun gutxi batzuk lehenago, 1932ko martxoaren 26an, 27an eta 28an, EAJK lehenengo *Aberri Eguna* ospatu zuen. Pazko Domekan izan zen ekitaldi nagusia, 27an. 65.000 nazionalista inguruk “(...) *desfilatu zuten isilpean Bilboko Gran Viatik Sabin Etxera iritsi arte (...)*”. Bertan Sabino Aranaren hitzak jasotzen zituen plaka inauguratu zen, Espainiaren aurretik Bizkaia bere aberritzat hartu zuen unearen aipamena egiten zutenak. Hiru egun haietan antolatutako ekimenak era askotakoak izan ziren: “*politikoak, erlijiosoak, kulturalak, folklorikoak, kirol arlokoak eta gastronomikoak*”. 26ko gauean, Pazko Zapatuan, “(...) *mendigoizale taldeek Bilbo inguratzen duten mendietan eta Euskadiko beste hainbatetan suak piztu zituzten, foruen garaiko tradizioa berrituz (...)*”<sup>444</sup>. Sopelako mendigoizaleek ere, “*Astidunak*” izenaren inguruan bilduta, su bat piztu zuten Santa Marinako haizetan; ekimen hori izan zen “(...) *euren lehenengo irteera (...)*”<sup>445</sup>.

---

441 *Euzkadi* 1931-8-9.

442 *Euzkadi* 1932-1-17.

443 *Euzkadi*, 1932-3-31 eta 1932-4-1.

444 GRANJA SAINZ, 203-204.

445 *Euzkadi* 1932-3-31.

1932ko maiatzaren 1eko Lanaren Egunaren ospakizunak eszenatokia Butroera aldatu zuen<sup>446</sup>. 1933an eta 1934an erreplikatu zen kokaleku hori, eta 1935ean, ostera, Urdulizera itzuli<sup>447</sup>.

Abertzaletasun urduliztarraren barruan, 1932ko protagonismoa emakumeei egokitu zitzairen, herriko EAJko gizonen sekzioak baino bizitasun handiagoa erakutsi zuen-eta, kideetan nabarmenki gaudituz, aurrerago ikusiko dugun legez.

Emakume antolakunde nazionalistaren jatorria aurkitzeko 1907 arte jo behar dugu atzera. Garai hartan sortu ziren lehen taldeak, nahiz eta indar txikia eduki. 1921an, aberrianoak izan ziren banantzearen ostean EAB bultzatu zutenak, baina Primo de Riveraren diktaduraren etorrerak errotik moztu zuen haien jarduera, gainerako sare politiko nazionalistarenaren antzera. Bigarren Errepublikaren urteetan zabalkunde bizkorra izan zuen EAJaren emakume sailak<sup>448</sup>.

1932ko apirilaren 24an egin zuten lehen ekitaldia emakume urduliztarrek. Txiberriren berbetan,：“(...) *abiatze pozgarria izan du emakumeen sarrerek gure antolakunde jelkidean*”. Egun hartan, Miren de Mendizabalek hitzaldia eman zuen, “*Euskal emakumea eta nazionalismoa*”. Ekimen horrez gain, EABren araudia irakurri zen, “(...) *zuzendaritza-batzordearen izendapena eta beste gai batzuk beste bilera baterako*” utzi<sup>449</sup>.

Txiberrik Urdulizko EABren lehen ekimenaren berri eman zuen egun berean, hitzaldi baten antolaketa aipatu zuen, “(...) *nazionalistek antolatuta (...) behar den garaian iragarriko duten lokalen batean*”. Harrigarria da Txiberriren berba modua, Uri Buru Batzarretik kanpo zegoen norbait balitz bezala, eta ez Lehendakaria, honako hau azpimarratzen zuenean: “(...) *berriak iritsi dira nigana hemendik gutxira (...) beste hitzaldi abertzale bat izango dugula*”. Beste alde batetik, berriari herriko nazionalismoaren nolabaiteko irekitasuna nabaritzen da, eransten baitu hitzaldira sar zitekeela “(...) *gura zuen edonor, gure erakunde euskaldun ez direnenganako maitasuna ere da-ta (...)*”<sup>450</sup>.

Emakumeak izan ziren ostera ere ekainaren 5ean beste hitzaldi bat antolatu zutenak, Natividad de Uriberen eskutik. Garai hartan, emakume urduliztarrek beren antolakundeak prestatzen jarraitzen zuten, ekain erdian 120 kide zeuzkatela<sup>451</sup>. Hilak 26 egun zituela, beste hitzaldi bat eman zuten Miren Gerrickoitiak eta Andoni Ruiz de Asua “*Ogoñope*”k<sup>452</sup>.

446 *Euzkadi* 1932-5-13.

447 *Euzkadi* 1933-5-5, 1934-5-5 eta 1935-4-26.

448 TAPIZ, José María: *El PNV durante la II República (organización interna, implantación territorial y bases sociales)*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 2001, 363-364.

449 *Euzkadi* 1932-4-24 eta 1932-5-3.

450 *Euzkadi* 1932-5-3.

451 *Euzkadi* 5-6-1932 eta 12-6-1932. Ez dakigu zein izan zen hitzaldiaren gaia.

452 *Euzkadi* 1932-6-26. Honetan ere ez dakigu zein izan zen hitzaldiaren gaia.

1932ko uztailaren 24an, Urdulizko EABren inaugurazio ofiziala etorri zen. Hona hemen eguneko programa:

<b>URDULIZKO EABren INAUGURAZIOA 1932-7-24</b> <sup>453</sup>	
<b>7:30</b>	Jaunartze orokorreko meza
<b>10:00</b>	Banderaren bedeinkapena eta Bilboko kantariak abestutako meza Mezaren ostean, <i>ezpata dantzariak</i>
<b>13:00</b>	Oturuntza ofiziala, Elixaldeko landan
<b>16:00</b>	<p><b>Mitina, honako hauekin:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Libe de Altuna</li> <li>· Domingo de Gurutzeta</li> <li>· Pedro de Basaldua</li> </ul> <p><b>Jarraian:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Algortako gorularien emanaldia</li> <li>· Euskal erromeria, txistulariekin eta Musika Bandarekin</li> </ul>

*Txiberrik* idatzitako artikulua arabera, ekitaldira 3000 lagun baino gehiago joan ziren. Une haietarako, tokiko emakumeen antolakundeak 140 kide baino gehiago zeuzkan<sup>454</sup>, eta EAJren Urdulizko Uri Buru Batzarrak, berriz, 31<sup>455</sup>.

Baina, esanda dagoen legez, nazionalismoaren bilakaeraren azterketa bat egiteko unean ezin gara Urdulizera mugatu. Begiradak zabalagoa behar du eta eskualdea kontuan hartu bere osotasunean. Eskualde mailako erakunde nazionalistarik ez bazegoen ere, nabarmena zen hurbileko batzarren arteko harremana. Alde horretatik, adibide esanguratsua da Batzar sendoek zelako laguntza ematen zieten makalagoei. Testuinguru horretan ulertu behar dugu arestian aipatu duguna, alegia, Sopolako eta Plentziako jeltzaleek Urdulizkoei emandako laguntza, azken horiek 1932ko apirilean ekimen bat antolatu zutenean.

Gorlizen ere beste adibide garbi bat dugu, ikusteko zelakoa zen auzo herrietako batzarren lankidetzajeltzaleak ahulagoan ziren udalerriekin. EAJk sano presentzia urria zeukan bertan; Udaletxean, zinegotzi bakar bat, EAEk 6 zituela. Argi zeuden finkatzeko zeuzkan arazoak. Nazionalista batek eman zuen abisua *Euzkadi* egunkarian 1931ko abendu amaieran, Gorlizko antolaketa jeltzalearen ahuleziaz. Asmo pizgarria zegoen, jeltzale gorliztarren batasunari abiada emango zion batzokia sortu guran. Horretarako, mezuaren egileak adierazten zuen lagun izango zutela "(...) *Barrikako gure anaien babes, (batzokiaren) fundaziorako azaldu daitezkeen arazo guztiak konpontzeko prest agertu dira-eta*". Barrikaren

453 *Euzkadi* 1932-7-23.

454 *Euzkadi* 1932-7-31.

455 C.D.M.H., P.S., Bilbao 116 "Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak (1930-1934)". 1932ko ekainaren 10a arte 30 eskaera daude. Lehenengoa falta da, José Brotons Llonarena, baina kontatu egin dugu eta horrekin 31 horiek ateratzen zaizkigu.

aipamena ez zen kasualitatea izan, Elizatea hura eredutzako ipini zuelako jeltzale gorlizarrak berotu guran; izan ere “(...) Barrrikakoek (...) euren Batzokia ireki zuten lehen egunean 15 kide baino ez zeuzkatela eta gaur, sorreratik hilabete eta erdi pasa ere egin gabe, hirurogei baino gehiago dauzka”<sup>456</sup>. Apirilaren amaieran, jeltzaleen egunkarian segurtatu zen “laster” geratuko zela osatuta EAJren uri buru batzar gorlizarra. Artikuluak azpimarratzen zuen zein premiazkoa zen sortzea “erakunde derrigorrezko hori eta haren falta hain negargarria (...) abertzaletasuna aurrera eroteke, batez ere hauteskondeetako lehietan”<sup>457</sup>. Ekainerako, herriko batzar batek funtzionamenduan behar zuen, izan ere egunkari berean adierazten zen Gorlizan indarrez zetorrela “berpizkunde euzkadianoa” eta “haziak fruituak” emango zituela<sup>458</sup>. Uztailaren 3rako, Plentziako abertzaleek mitin bat antolatu zuten, non eta Gorlizan, ezpata dantza erakustaldi batek lagunduta<sup>459</sup>. Zalantza barik, propaganda ekimen honen helburua kostako Elizatean EAJren presentzia sendotzea zen, itsas hiribilduko jeltzaleen laguntzarekin. Hala eta guztiz ez zen gauzatu; bertan behera geratu zen “(...) aire zabalean ekimenak antolatzeke baimenik ez zuelako eman gobernadore zibilak (...)”<sup>460</sup>.

Ukaezina da Plentziako abertzaleek erakutsi zuten bizitasuna. 1932ko abuztuaren 14an, “txango” bat antolatu zuten Lemoizera, “(...) propaganda bizkortzeko helburu txalogarriarekin jarraitzeko, Plentzian ez ezik, auzo herrietan ere (...)”. Beti legez, mitina izan zen ekitaldi nagusia, jendearentzako beste erakargarri batzuekin batera: bertsolariak, ezpata dantzariak eta erromeria txistulariekin. Lemoizera joateko dei egin zitzaizen “mendigoxaleei, emakumeei, Gaminitz eta inguruko herrietako abertzale guztiei (...)” “(...) beste behin ere doktrinaz eta giro abertzaleaz asetzeko”<sup>461</sup>. Urriaren 16an, jeltzale plentziatarrek beste propaganda ekimen bat antolatu zuten Lemoizen, Armintzako portuan oraingoan, Gaminitztar bat-ek Euzkadi egunkarian idatzi zuen legez, “(...) gure neba arrantzaleak errakuntzaren erpeetatik erauzteko”<sup>462</sup>. Olgeta izaerako ekitaldiei (bertsolariak eta ezpata dantzari eta gorularien erakustaldia), egunkari jeltzaleak tokiko paisaiaren erakargarritasuna gehitu zien. Hau gehitu zuen eguraldiak lagunduko ez zuen beldur: “(...) ekimen guztiak eskabetxe fabrikaren lokaletan izango dira”<sup>463</sup>.

---

456 *Euzkadi* 1931-12-20. Artikuluaren izenburuan Urduliz ipintzen du, baina testuingurua aztertuta eta bertan Gorlizi eta gorlizaterrei egiten zaizkien aipamenak, esan dezakegu artikuluaren gaia ez dela Urduliz eta, beraz, akats bat dela.

457 *Euzkadi* 1932-4-28.

458 *Euzkadi* 1932-6-25.

459 *Euzkadi* 1932-7-2.

460 *Euzkadi* 1932-7-3.

461 *Euzkadi* 1932-8-10.

462 *Euzkadi* 1932-10-8.

463 *Euzkadi* 1932-10-14 eta 1932-10-16.

Udazkenaren hasieran ere, Maruriko EABren inaugurazioa etorri zen, eta Barrikako Batzokiarena eta EABrena. Maruriko emakumeak, ofizialki, irailaren 25ean hasi ziren ibiltzen<sup>464</sup>; berriz, Barrikakoek beren egoitza urriaren 2an inauguratu zuten<sup>465</sup>. Bi ekimenek ohiko eskemari jarraitu zioten, erlijioa, mitina eta osagarri ludikoak nahasturik.

Urdulizen, jarraipena eman zitzaizen hitzaldiei, hiru, guztira<sup>466</sup>, hilabetean bat, 1932ko amaiera arte: lehenengoa, urriaren 30ean, Sorne de Unzueta de Erraztiren eta Alejandro Gallastegiren eskutik<sup>467</sup>, bigarrena, azaroaren 13an, Esteban de Urkiaga *Lauaxeta* berbetan<sup>468</sup>, eta azkena, abenduaren 4an, emakumeek antolatuta, urriaren 30eko hizlariak atzera ere ekarrita<sup>469</sup>. Herriko emakumeek 1932an agertu zuten bizitasuna nabarmen geratu zen *Txiberriren* abenduaren 1eko kronikan. Haren iritziz, emakume nazionalistak gizonezkoen aurretik zihoazen abertzaletasuna zabaltzeko orduan, herriko jeltzaleentzako pozgarri, korrespontsalak zioenez<sup>470</sup>.

*Lauaxetak* arazoaren 13an Urdulizen eman zuen hitzaldiaren kronika mintzaldi jeltzaleek zeukaten ezaugarri eta helburuen isla da. Normalean, mitinetakoa baino publiko txikiago bati zuzenduta. Horiek aire zabalean gauzatzen ziren, eta hitzaldiak, berriz, gehienetan areto itxietan<sup>471</sup>. Urdulizen, hitzaldia "*Urdulizko Batzokia*" delakoan egin zen, hau da, gure ustez eta aurrerago adieraziko dugunez, Geltokiko Alondegian, orduan herriko uri buru batzarreko lehendakari José Brotonsek gobernatzen baitzuen toki hori. Nahiz eta ez den baztertzekoa egoitzak izaera ibiltaria izatea Elortzako Alondegiarekin partekatuta, haren arduraduna Estefana Ugarte *emakumea* zen-eta.

---

464 *Euzkadi* 1932-9-25.

465 *Euzkadi* 1932-10-8.

466 Hiruetatik, bakar batean ere ez dakigu zer gai erabili zuten.

467 *Euzkadi* 1932-10-29.

468 *Euzkadi* 1932-11-17.

469 *Euzkadi* 1932-12-1 eta 1932-12-4.

470 *Euzkadi* 1932-12-1. "(...)eztago zetan esan emakume abertzaliak gixonak baño aurrerago ikustiagaz aberri-aldez, zelango poza artuten dogu".

471 TAPIZ, 301.

Modu guztietan ere, lokala “(...) erabat beteta zegoen hizlaria agertu zenean”, “(...)hainbeste jenderentzat nahikoa ez zela”. Urkiagak “mahaitxo batean igota, gastetxuz inguratuta” eman zuen ordubeteko hitzaldia. Miku korrespontsalak esan zuen hitzaldia “laburra eta arin (...), itaun-erantzunaren oratoriakoa” izan zela. Formatua egokiena, itxuraz, hau gehitu baitzuen:

*“Hoy en día no se puede ir a sembrar el nacionalismo con grandes periodos y discursos de latiguillo. La verdad clarísima de nuestro patriotismo exige una oratoria clara y contundente, que la entiendan fácilmente los aldeanos”<sup>472</sup>.*

José María Tapizek Bigarren Errepublikako nazionalismoari buruzko ikerketa zabalean jasotzen duen legez, hitzaldia, propaganda ekintza gisa, “arrazoiari zuzenduta” zegoen<sup>473</sup>. Eta bereziki horren ardura izan zuen Lauaxetak, “(...) nazionalismoaren oinarri arrazionalak (...)” eta “(...) erakundearen zentzu euskaldun eta kristaua” argitzea. Horrez gain, “ez zion nazionalismoak baserritarrari ekartzen dizkion onurak aipatzeari utzi”. Hitzaldia zinez eraginkorra izan zela ematen du, “(...) baserritarrak liluratuta irten ziren” eta<sup>474</sup>.

Mikuren artikuluak Urdulizko herriko batzarrari egiten zion ohartarazpen bat zuen amaieran, “(...) abertzale berri eta saiatuen eraikuntzan geratu barik lan egitera (...)”, dei eginez. Izan ere Urdulizen, “(...) nazionalismoak badauka indarra, baina ez oraindino nahiko litzatekeen gorentasuna lortu”. Horretarako animatzen zituen “(...) gure agintariak, kontzientzia abertzalea eraikitzen joan daitezene negu honetan gure Batzokira etorri litezkeen hizlarien bidez”<sup>475</sup>.

Abisuak, zalantza barik, herriko gizonezkoen saila zuen helmuga; 32 alderdikide zeuzkala itxi zuen 1932a, eta azkena abuztuan lortuta<sup>476</sup>. Haien aldean, emakumeak gailen agertzen ziren, inondik ere, esan den moduan, 140 bat kide baitzituzten 1932ko uztailan. Gastetxu urduliztarrak ere indartsu zebiltzan; 128 neska eta mutil bereganatuta zituzten 1932ko azaroan<sup>477</sup>. Nahiz eta ez dugun Urdulizko EAJko ume sailaren jardueraren berri handirik, argazki bati esker badakigu, gutxienez, neskatxen dantza talde bat egon zela. Beste alde batetik, herriko gastetxuek meza bat “antolatu zuten” 1933ko maiatzean, “(...) Usan-solon asasinatutako Iñaki San Miguel Oyarzabal gastetxuaren arimaren alde”<sup>478</sup>.

---

472 Euzkadi 1932-11-17.

473 TAPIZ, 300.

474 Euzkadi 1932-11-17.

475 Ibíd.

476 C.D.M.H., P.S. Bilbao 116. “Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak (1930-1934)”.

477 TAPIZ, 347.

478 Euzkadi 1933-5-28.



1933aren hasieran, Urdulizko EAJko batzarrak alderdiko goi-karguak berritu zituen; lehendakaritzaren aldaketa izan zen berrikuntza bakarra:


<b>Urdulizko Herriko EAJren BATZORDEA 1933</b> <sup>479</sup>	
<i>Lehendakaria</i>	Lorenzo Unibaso Etxegaray
<i>Secretario</i>	Francisco Asla Goirigolzarri
<i>Diruzaina</i>	Antonio Iñiguez Unibaso

479

Herriko nazionalismoak hasiera eman zion urteari 22 kide berri hartuta, *Txiberrik* jaso bezala<sup>480</sup>, guztiak urtarrilean. Inondik ere, aurreko urteko azken aldiari emandako hitzaldiek beren fruituak jaso zituzten. 22 bazkide hauen otsaileko beste 5 gehitu behar zaizkie. 1933ko apirilaren 23ko udal hauteskundeetan, Udaleko jesarleku guztiak berenganatu zituzten abertzaleek. Hartara, maiatzean onartu zen zinegotzi berrietako bosten bazkidezea. Uztailetik abendura beste sei bazkide izan ziren<sup>481</sup>. Baina hazkunde egoera honetan kontuan hartu beharrekoak dira 1932an, eta bereziki, 1933an izan ziren bajak.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago emakumeen kasuan afiliazio liburuak ez zuela jasotzen kide berrien sarrera egunik. Horregatik ez dakigu zein izan zen bilakaera eta ezin dugu urtetik urterako datuak erakutsiko dizkigun taula osatu.

#### **ALTA ETA BAJA KOPURUA URDULIZKO EAJn (1930-1933)**<sup>482</sup>



479 Euzkadi 1933-2-4.

480 Ibid. "URTIA ONDO ASTEN DOGU. – Urtarrillan ta erri onetan ogeta bi Jel-Alderdikide barri egin dira ta beste asko sartu gurean dagoz, aurrera guaz urduliztarrok ta jarrai olan geure aberrija azke ikusi arte".

481 C.D.M.H. P.S. Bilbo 116, "EAJn sartzeko eskaerak 1930-34".

482 C.D.M.H. P.S. Bilbo 116, "EAJn sartzeko eskaerak 1930-34", eta C.D.M.H. P.S. Bilbo 217/2 "Urdulizko EAJko afiliatu zerranda".

José María Tapizek, Bigarren Errepublikako nazionalismoari buruzko bere liburuan, bajeen arrazoen kontua aztertu zuen, Bizkaiko hogeita hamahiru herri batzarretako datuak erabiliz. Hona hemen baja emateko arrazoi nagusiak: norberaren erabakiz, bizilekua aldatzeagatik eta berankortasunagatik. Beste arrazoi urriago batzuk izan ziren kidearen heriotza, kanporaketa eta soldaduska<sup>483</sup>. Urdulizen, 1933an izan ziren bost bajetatik, biren arrazoiak ezagutzen ditugu: batek soldaduskara joan behar izan zuen eta bestea Urduliztik Algortara bidizera aldatu zen; horrek Algortan bere bazkidetza eskatu zuen Urdulizen baja eman aurretik<sup>484</sup>.

1933an, eskura ditugun datuen arabera, Urdulizen koka dezakegu espata dantzari eta gorulari taldeen sorrerak. Nazionalismoak euskal dantzak bereziki sustatu zituen, halako moduz non batzoki gehienek gutxienez dantza talde bat zeukaten. Eskualdeko espata dantza federazioei zegokien talde guzti hauek koordinatzea eta erakustaldi handiak, dantza lehiaketak-eta antolatzea. Federazio nagusia Bizkaikoa izan zen, 1932an sortutakoa<sup>485</sup>.

Urdulizen horren gainean aurkitzen dugun lehenengoko albistea 1933eko ekaina amaierako artikulua da. Momentu hartan, Txiberriren esanetan, “*herriko gazte gehienak*” dantzak ikasten ari ziren Tobías Elgoibarrek gidatuta, eta “*laster*” bi talderen sorrera aurreikusita zegoen. Kronikari urduliztarrek bere itxaropena azaldu zuen bi talde horiek San Inazio egunerako funtzionamenduan egon zitzaten: “*la mutilak lñaki Deun’aren egunerako*”<sup>486</sup>. Txiberri Bilbon 1933ko uztailaren 31n San Mameseko zelaian (Ibaiondo) burutu zen jaialdiari buruz ari zen; bertan 275 taldek parte hartu zuten, 2200 gizo-emakumek osaturik<sup>487</sup>. Ez da baztertzekoa dantzari urduliztarrek jaialdian parte hartu izana, baina horren gaineko argibiderik ez dugu<sup>488</sup>.

Uztailaren 15etik eta abuztuaren 31 artean, “*Libro de Caja de la Asociación de la mujer Patriota de Urduliz*” delakoan zenbait gastu aurkitzen ditugu, gorulari taldearen jantzi eta “ekipoa” egiteko erabili ziren materialei zegokiena: aipatutako 15ean, 5’60 pezeta ordaindu ziren 56 metro zintagatik, gorularien makiletarako. Abuztuaren 31n, Cecilia Abasolori 94’50 pezeta ordaindu zitzaizkion 14 abarka paregatik; eta María de Garateri, Bengoaren alarguna bera,

483 TAPIZ, 222.

484 C.D.M.H. P.S. Bilbo 217/2 “Urdulizko EAJko afiliatuen zerrenda”

485 TAPIZ, 376-377.

486 Euzkadi 1933-6-25. “EZPATADANTZA. – Gure adizkideta abertzale ona da Elgoibar’tar Tobi zuzendari dala erriko gaste geyenak geure dantza ederr-au ikasten diñardube, ta aldra bi laster dirala gertu. la mutilak lñaki Deun’aren egunerako”.

487 TAPIZ, 377, eta Euzkadi 1933-8-1. Tapizek 2200 dantzari aitatzen ditu. Egunkari abertzaleak dakarren gutxi gorabeherako kopurua, berriz, 3500 da.

488 GOROSPE, Alberto: *Batzokis de Bizkaia. Txori Herri-Urbe Kosta*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 2002. Gorospek jasotako lekukotasun baten arabera, espata dantzarien agerpean ikusgarriena San Mamesen izan zen 1931n edo 1932an, baina hori guztiz ezinezkoa da, eskura daukagun informazioak 1933an kokatzen duelako dantza taldearen hasiera. Ez dirudi astakeria pentsatzeak Urdulizko dantzariak parte hartu ahal izan zutela San Mamesen 1933ko uztailan izan ziren ekitaldian.

hainbat tela metrogatik (mantar berdea, mantar gorria, perkal zuria eta satin beltza) guztira 182'60 pezeta, eta 8'50 gehiago *“gorularien jantziak josteko haria, botoiak, lokarri eta zintengatik”*<sup>489</sup>.

Iraila hasieran, Txiberriren informazioengatik badakigu hiru ezpata dantzari talde eta gorulari talde bat zeudela osatuta, Aurelio Astobieta txistulariak zuzenduta; eta Andra Maritan dantzatu behar zutela *“lehenengoz”*<sup>490</sup>. Urriaren 4an emakumeek 25 pezeta ordaindu zioten *“(…) danbolin-joleari, bidaiengatik eta ezpata dantzari eta gorulariekin egindako entseguengatik”*<sup>491</sup>.

Gorde diren argazkietan ikusita badakigu dantza talde urduliztarrek hainbat irteera egin zituztela beste herri batzuetara. 1936ko maiatzean funtzionatzen jarraitzen zuten, *Aberri Eguna* zela-eta Urdulizen antolatu ziren ekitaldietan jardun baitzuten<sup>492</sup>.

### **2.2.1.3 Batzoki berria. Urriko Iraultzaren ondorioak: nazionalismoa perlesiak jota: 1934-1936.**

1934an Batzokia eraiki arte, itxura guztien arabera, Geltokiko Alondegia izan zen nazionalista urduliztarren bilera-gunea, uri buru batzar jeltzaleko lehen Lehendakaria, José Brotons *Txiberri*, baitzen horren arduraduna. Modu honetan, esate baterako, Lizarran 1931ko ekainaren 14an Estatutua onartzeko egin zen Euskal Udalen Batzarraren aitzakiarekin, Sopolako nazionalistek, *“Urdulizko abertzaleekin batera”*, autobus-bidai bat antolatu zuten; egun gutxi batzuk lehenago 45 plazak oraindik ez zeuden beteta. Horregatik, *Euzkadi* egunkaritik deialdia egin zuten inguruko herrietako nazionalistek izena eman zezaten, honako hau zehatzuz: *“Izen-emateak Txiberriren etxean onartzen dira, Urdulizen, eta Sopolako Euzko Gaztedian (...)”*<sup>493</sup>. Baina, arestian esan dugun legez, litekeena da herriko EAJk bere egoitza bi espazioren artean banatu izana: Geltokiko Alondegia eta Elortzako Alondegia, azken honen arduraduna emakumeen kide Estefana Ugarte zelarik. Esate baterako, 1932ko uztailan, *“(…) ‘Txiberri’ eta Estefana Ugarteren etxeetan”* eman zitekeen *“Pro-Nabarra y Araba”* harpidetzarako dirua, probintzia bietan nazionalismoa sustatzeko xede zuena<sup>494</sup>. Soplan, 1931ko urria aldera, *jeltzaleek* beren *Batzokia Bar Santi*-ren lokalean zeukaten<sup>495</sup>. Tabernak egoitza sozial moduan erabiltzea oso ohikoa izan zen EAJren kasuan ez ezik,

---

489 C.D.M.H., P.S. Bilbo 171, *“Urdulizko Emakume Abertzale Batzaren Kutxa”*.

490 *Euzkadi* 1933-9-3. *“GURE-DANTZAK.- Erri onetan bere geure dantzak ikasten zintzo ibili dira aspaldi onetan ta Astobieta'tar Aureli zuzendari dala iru aldra ezpatdantzari ta gorulari aldra bat gertu dabez ta erri jayetan lenengo aldiz dantzatuko dabez geure jantza ederrak”*, eta *Euzkadi* 1933-9-15. *“ERRIKO-JAYAK.- Jayak oso alai ta umore onagaz igaro doguz naiz da eguraldi on-onak egin eztaberan, geure gorulari ta ezpata dantzarijak gustiz ederto egon ziran garetiko jayaz lez”*.

491 C.D.M.H., P.S. Bilbo 171, *“Urdulizko Emakume Abertzale Batzaren Kutxa”*.

492 *Euzkadi* 1936-5-31.

493 *Euzkadi* 1931-6-6.

494 *Euzkadi* 1932-7-3. *“ARPIDIA.- Araba ta Nabarra'n Jel-azija zabalduetako egin dan arpidia uri onetan zabaldua daukogu ‘Txiberri’ eta Ugarte'ta rEstepan'en etxietan artzen da txindija”*.

495 *Euzkadi* 1931-10-31.

beste alderdian ere, esate baterako, errepublikano urduliztarrek egin zuten moduan, aurrerago ikusiko dugun bezala.

*Euzkadi* egunkariak argitaratu zuen berriaren arabera, 1933ko martxoaren erdialdera arte, Antonio de Araluze “arkitekto jeltzaleak” egindako proiektuaren planoak ikusgai jarri zen “(...) herriko hiru establezimendu publikoetan (...), eta ikusi dutenek asko goraipatu dute”<sup>496</sup>. Oraindik hilabete batzuk pasa ziren José Brotonsek formalki Urdulizko Udalari eraikitzeko baimena eskatu zion arte. 1933ko urriaren 5aren data daroan eskaeran Brotonsek adierazi zuen bere nahia zela “(...) Batzokia izateko eraikin bat egitea nire jabetzapeko lurretan, Elortza auzoan, Hareetatik Plentziarako errepidearen alboan (...)”<sup>497</sup>. Hala eta guztiz, Udalak zenbait egun lehenago eman zuen baimena, irailaren 24ko osoko bilkuraren aktan jasota gelditu den legez<sup>498</sup>.

1934ko urtarrilean, eraikina amaituta zegoen, eta adierazten zen “(...) bere ateak laster irekiko dizkiela Euzkadiko abertzale guztiei”<sup>499</sup>. Otsailaren 4an, José Brotons lehendakari gisa aukeratu eta hilabete beranduago, EAJren uri buru batzarrak berri bat aukeratu behar izan zuen, lehendakari karguak bateraezintasuna zuelako<sup>500</sup>. Batzoki izango zenaren errentadorearen tituluarekin. 1934ko apirilaren 8an, Uri Buru Batzarrak aho batez onetsi zuen “(...) kontratu-erregelamendua, etxezain-errentadorearen eta Batzoki de Urduliz sozietatearen artean (...)”, hau da, aipatutako Brotons eta Urdulizko EAJren artean<sup>501</sup>.

Apirilaren amaieran, oraindik ez zegoen eginda inaugurazioa, atoa izango zela baieztatzen zen arren. Hala eta guztiz, gutxienez *Txiberrik* bere kargu zuen taberna irekita zegoen dagoeneko, *Euzkadi* egunkariak zioen moduan; lokala bisitatzera animatzen zen eta “(aketta) kafea eta beste gauza batzuk” hartzera<sup>502</sup>. Hortik ateratzen dugu, José María Tapizek sumatzen duenez, lokala dagoeneko erabiltzen hasiak zirela haren inaugurazioak pot egin zuenerako, ikusiko dugun bezala, 1934ko udan<sup>503</sup>.

---

496 *Euzkadi* 1933-3-15.

497 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Solicitud de permiso de construcción de edificiodestinado a Batzokia izateko eraikina zutitzeko baimenaren eskaera, José Lonak aurkeztua* 1933-10-5.

498 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1933-9-24.

499 *Euzkadi* 1934-1-19. “BATZOKI BARRIJA. – la amaituta dago Batzoki barrija ebe eder-ederra da ta laster irigiko dauz bere atiak Euzkadiko abertzale gustijentzat. Onetaz izpar geyago urrengokuan”

500 C.D.M.H., P.S. Bilbo 217/2 “Urdulizko EAJko afiliatuen zerrenda”, Batzarraren akta 1934-4-4.

501 C.D.M.H., P.S. Bilbo 217/2 “Urdulizko EAJko afiliatuen zerrenda”, Batzarraren akta 1934-4-8.

502 *Euzkadi* 1934-4-25. “BATZOKI BARRIJA.- Amatuta dago ta Jel-Batzokija imiñi dautse ixena. Zabaltze edo ininaugurazañoa laster egiteko ustia dabe baña artian be ikertu ta aketta ta abar artuten etorri zateke”

503 TAPIZ FERNÁNDEZ, José María: “Los batzokis jeltzales durante la II República, Centros de Sociabilidad y reclamos de afiliación” in Vasconia. 33, 2003, 286.

Inauguraziorako eguna abuztuaren 19an finkatu zen azkenik,<sup>504</sup> nahiz eta ospakizunen programa aurreko egunean hasi, txistulari bandaren *biribilketa* batekin arratsaldeko zapietan eta *Kurloyaren* hitzaldi batekin, gaueko bederatzietan. Igandeko ospakizun programa, jakina, era askotakoa zen:

<b>EKITALDI PROGRAMA URDULIZKO BATZOKIAREN INAUGURAZIOA 1934-8-19</b> <sup>505</sup>	
<b>7:00</b>	<i>Biribilketa</i> , txistulari bandarekin.
<b>8:30</b>	Meza eta jaunartze orokorra, Urdulizko <i>Emakume Abertzale Batzak</i> antolatuta.
<b>9:30</b>	Ongi etorri beste herri batzuetako ordezkarietzi.
<b>10:00</b>	Lokalen bedeinkapena eta Jesusen Bihotz Santuaren tronuratzea.
<b>11:00</b>	Meza nagusia, kanpotarrek kantatua.
<b>12:00</b>	<i>Aurreskulari</i> txapelketa eta Txistulari bandaren kontzertua.
<b>13:30</b>	Herri-bazkaria Batzokian, 5 pezetan.
<b>16:00</b>	Ezpata dantza eta gorularien agerraldia
<b>17:00</b>	Mitina: · José María de Bengoetxea " <i>Arriko-Arritxu</i> " · Julia de Gabilondo " <i>Maite</i> " · José Luis de Irisarri " <i>Zidorra</i> " · José Antonio de Agirre <sup>506</sup> Jarraian, euskal erromeria itzela, ilundu arte.

Batzokiaren inaugurazioaren egunean, egunkari abertzalean *Ogoño* operen artikulua zabala argitaratu zen Batzokiaren eraikina deskribatzen zuena<sup>507</sup>, baina baita igande hartarako programatutako ekimenen galarazpenari buruzko berria ere, "*(...) gobernua debekua zela eta*". Urdulizko nazionalistak:

*"(...) se dolían de esta determinación adoptada, en virtud de la cual se les niega una autorización que antes se les concediera, con lo que se han efectuado unos gastos que, en caso contrario, no se hubieran hecho"*<sup>508</sup>.

504 *Euzkadi* 1934-8-1.

505 *Euzkadi* 17-8-1934 y 18-8-1934.

506 Hilaren 18an jakinarazi zen Aguirre ez zela ekitaldira etorriko.

507 Ikusi Dokumentuen Gehigarria.

508 *Euzkadi* 1934-8-19.

Azkenik honako hau adierazten zuen: “(...) bere garaian adieraziko da ekimenak aurrera eramango diren eguna”<sup>509</sup>.

Batzokiaren inauguraziorako ekitaldien debekua, zalantza barik, loturik zegoen abuztu hartan Euskadin bizi zen egoerarekin, Ardoaren Estatutuaren inguruan Gobernu zentralaren eta euskal udalen artean piztutako gatazka zela eta. Tentsioak goia jo zuen, bereziki, Hitzarmen Ekonomikoa defendatzeko, Bizkaiko udalerrietako Batzordeko kideak aukeratzearen abuztuaren 12an izan ziren bozketen ostean. Hauteskunde haien ondorioz zinegotziak atxilotuak izan ziren hainbat udaletan. Irailaren hasieran udalek dimisioa eman zuten denek batera. Horrek eta, berehala, Urriko Iraultzak eragotzi zuten azkenik Batzokia ofizialki inauguratzea. Tapizek dioen legez, Urriko Iraultzaren ostean, “(...) Gobernu erradikal-cedistak gerra egoera dekretatu zuen eta ondoren alarma egoera Bizkaian(...)”. Ondorioz, Bizkaiko probintziako egoitza nazionalista guztiak itxi ziren 1935eko apirila arte. Horrek etena ekarri zien nazionalista urduliztarrek abian jarritako jardueri. Horien martxa “(...) ez zen kolpe horretatik berriz suspertuko”<sup>510</sup>.

Aldi horretan abertzale urduliztarrek ez zuten bizi seinalerik emango ezpada Sabino Aranaren aldeko ohiko mezan, 1934ko azaroaren 25ean<sup>511</sup>, edo “gure anai presoentzako” diru bilketan, Uri Buru Batzarrak 1935eko martxoaren hasieran irekitako harpidetzaren bidez. Diru-laguntza horiek “(...) Batzokiaren beheko saltokian” jasotzen ziren, hau da, Txiberriren ardurapeko tabernan. Garai horretan frontoia ere inauguratu zen, zehazki martxoaren 3an, “(...) Batzokiaren etxeko atzealdean eraikia”<sup>512</sup>.

1935eko maiatzaren hasieran, gobernadore zibilak agindu zuen 50 batzoki berriro irekitzeko, besteak beste Urdulizkoa, Plentziakoa edo Marurikoa<sup>513</sup>. Maiatzaren 30ean Txiberrik argitaratutako kronikak jasotzen zuen Urdulizko batzokia berriro ere zabaldu zela, baita itaundu ere zergatik egon zen zazpi hilabetez itxita<sup>514</sup>.

Maiatzaren 26an, Bizkai Buru Batzarrak agindu legez, udal batzarrak bildu ziren beren ahaldunak izendatzeko Bizkaiko EAJren eskualdeko batzarrerako<sup>515</sup>. Bilkura hura Bilbon egin zen, ekainaren 2an, aurreko urteko abenduan ezin izan baitzuten egin “(...) pasa ditugun ez ohiko egoerak direla eta”. Urdulizko EAJk uri buru batzarreko idazkaria bidali zuen, Francisco Asla<sup>516</sup>.

509 Ibíd.

510 TAPIZ FERNÁNDEZ, 286.

511 *Euzkadi* 1934-11-24.

512 *Euzkadi* 1935-3-1

513 *Euzkadi* 1935-5-8.

514 *Euzkadi* 1935-5-30. “BATZOKIA-IRIGITA. – Egun batzuk da geure Batzokia zabaldu dauzkuela, baña ondiño ostakigu zegaitik euki dauzkuen itxita zazpi ilabetian, baita, eztakigu nora eroan ebezan geure ikurriñak be, au dok aundie”.

515 *Euzkadi* 1935-5-26.

516 *Euzkadi* 1935-6-4.

Korrespontsal urduliztarrak kontatu zuenez, uztailaren 1ean zen egitekoa uri buru batzar berria aukeratuko zuen bilkura<sup>517</sup>, baina azkenik 14ean gauzatu zen. Batzarra modu honetan geratu zen osatuta:

<b>EAJren URDULIZKO URI BURU BATZARRA – 1935eko uztaila</b> <sup>518</sup>	
<b>Kargua</b>	<b>Izen-abizenak</b>
<i>Lehendakaria</i>	Agustín Arteta Zabala
<i>Idazkaria</i>	Francisco Asla Goirigolzarri
<i>Diruzaina</i>	Felipe Billabeitia Ugarte
<i>Bokalak</i>	Juan B <sup>a</sup> Unibaso Etxegarai Lorenzo Unibaso Etxegarai Juan José Kamiruaga Gorordo Benigno Fullaondo

Batzokia osterazabalduraz Gerra Zibilak eztanda egin arteko epealdiaren ezaugarria moteltasuna izan zen herriko nazionalismoan. Distira soil bat ikus liteke urte amaieran, abenduaren 9an, Manuel de Arregi *Kurloyak* eman zuen hitzaldiarekin<sup>519</sup>, eta 1936ko maiatzaren amaieran Aberri Eguna ospatu zenean.

Udalerrian aurrera eroandako jarduera nagusiak, 1936ko *Aberri Eguna* salbu, herrikoak ez ziren erakunde nazionalistek antolatutako izan ziren: 1935eko eta 1936ko maiatzaren 1eko Lanaren Eguneko ekitaldiak.

1935eko maiatzaren 1eko Urdulizeko ospakizuna Algortako eta Getxoko *mendigoixaleek* antolatu zuten. Ezinezkoa izan zen Butroen egitea “*eragozpen eta oztopo gaindiezinak*”<sup>520</sup> zirela eta, aipamena eginez horrela Urriko Iraultzaren ostean bizi zen egoerari, *Batzokien* itxierarekin, eta horren ondorioz nazionalismoa jotako bizitasun faltari. Berriz, Urdulizen, Udala 1934ko irailean gobernadore zibilak izendatutako Batzorde Kudeatzaile baten eskutan zegoen eta ekimena erraztu zuen Urdulizko landa “*adeitsuki*” lagaz<sup>521</sup>.

517 *Euzkadi* 1935-5-30. “BATZARRAK (...)bagila'ren lenengo domeka'n Uri-Buru-Batzar barrie aututeko, uste dogu alderdikide gustiak etorriko dirala”.

518 C.D.M.H., P.S. Bilbo, “ Urdulizko EAJko afiliatuen zerrenda”, Batzarraren akta 1935-7-14.

519 *Euzkadi* 1935-12-6.

520 *Euzkadi* 1933-4-27 eta 1933-4-28.

521 *Euzkadi* 1935-4-26.

*Euzkadi* egunkaria ederto arduratu zen ekitaldiaren zabalkuntzaz, behartutako geldialdiaren ondoko lehenengo ekimen handia izanda. Alde horretatik, *P. de Daño*beitiak azpimarratu zuen “(...) *zein gogotsu gauden euskaldun guztiok era honetako ospakizun batean berriro elkartzeko, pasa den udatik ez delako halakorik egin (...)*”. Ez zegoen dudarik jendetza hurbilduko zela Urdulizera, eta Elizatea “(...) *inoiz ikusi ez bezala bete-beteta ikusiko dela*”<sup>522</sup>. Dañobeitiaren ustez, nazionalistek Urdulizera joan beharra zuten:

*“(...) a dar muestras, una vez más de que en todos los actos que nosotros celebramos imperan la hermandad, la disciplina, el buen humor y, sobre todo, nuestra religiosidad, como lo demuestra el hecho de que el primer acto a celebrar allí es el de la santa misa a las diez de la mañana*”<sup>523</sup>.

Argi dago testu honen egilearen asmoa zela nazionalismoaren inguruan zebiltzan salaketei aurre egitea, bereziki alderdikide eta zaleen aurrean, ezkerrearekiko ustezko aliantza bat zela-eta, horrek alderdi zuzen eta erlijiosoaren irudia kolokan ipini zezakeelakoan. Hainbat hilabete jarduera barik igaro ostean, alderdiaren printzipioen inguruko edozein zalantza uxatzea zen helburua. Egunkariak berak hartu zuen bere gain ikusmina pizteko lana, etorri zitezkeen gaineko albisteez baliatuta:

*“(...) las noticias que recibimos de otras anteiglesias ribereñas, y por lo que se dice en los centros nacionalistas de la villa que se han reintegrado a la vida ordinaria, nos permite suponer que la jira a Urdulitz (sic) congregará (...) a un crecidísimo número de abertzales con sus familias*”<sup>524</sup>.

Urdulizko edertasun naturala nabarmentzeaz gain, azpimarratu zen zelako abantaila zekarren “(...) *trenbidearen geltokitik hain hurre egoteak, bost minutu besterik ez*”. Komunikazio erraz hori erabili zen Bilboko nazionalisten etorrera sustatzeko, honako hau azpimarratuz:

*“(...) el trasladarse a Urduliz supone una gran facilidad, porque la gira a la pintoresca anteiglesia de los jilgueros<sup>525</sup> les permite regresar a casa a la misma hora que de costumbre, como si no hubiesen salido de la villa*”<sup>526</sup>.

---

522 *Euzkadi* 1935-4-28.

523 *Ibíd.*

524 *Ibíd.*

525 Harrigarria da *P. de Daño*beitiak zer verba erabiltzen dituen Urdulizez jarduteko: “*kardantxorien elizatea*”; pentsatzekoa da txori mota hau ugari zebilelako udalerrian.

526 *Euzkadi* 1935-5-1.



Programatutako ekintzak alderdi ludikoetan finkatu ziren: dantzak, kirola eta erronomia. Harrigarria da programan ez zela mitinik aurreikusi. Uste izatekoa da 1934ko urritik EAJk bizi zuen egoerak gomendagarriagoa egiten zuela ekitaldi politikorik ez gauzatzea.

<b>LANAREN EGUNEKO EGITARUA – 1935ko maiatzaren 1a</b> <sup>527</sup>	
<b>10:00</b>	Meza hildako abertzaleen arimen alde
<b>11:00</b>	Sokatiraren lehen partea
<b>12:00</b>	<i>Ezpata dantza erakustaldia</i>
<b>12:30</b>	Aureskua eta jarraian pilota partida Batzokiko frontoian, honako hauen artean: · Pérez Aramendi eta Urkizu, Erandiokoak · Arregi eta Barasorda, Ondarretakoak
<b>13:00</b>	Otordua landan
<b>16:00</b>	Sokatira finala
<b>16.30</b>	Jota lehiaketa Azkenik euskal erronomia

*Euzkadi* egunkariak jaso zuenez, Urdulizko “*jira*” arrakastatsua gertatu zen oso, bildutako jendetzaren aldetik; zalantza barik, lagundu egin zuen “(...) *giro atseginak, eguzkiak jo baitzuen baina gehiegizko beroarekin estutu gabe (...)*”. Eskura dagoen informazioagatik jakin badakigu hainbat herrietako ordezkariak nazionalista bertaratu zela: meza Leioako *Batzokiko* kideek kantatu zuten; Algortako *ezpata dantzari txikiak* dantzatu ziren; *sokatiran* Laukiz, Galdames, Getxo eta Asuako taldeak ibili ziren norgehiagokan, eta Portugaleteko “*Adizkidiak*” eta “*Danok bat*” otxoteek abestu zuten<sup>528</sup>. Era berean badakigu Txorierritik oinezko ibilaldi bat antolatu zela Urdulizeraino, Martiartutik (Erandio) sartuta, zeinetan Erandio Beko eta Goiko eta Deustuko nazionalistek parte hartu zuten<sup>529</sup>. Beste alde batetik, ekitaldiaren helburu ekonomikoa bete ei zen; izan ere, antolaketa gastuetarako eta presoan mantenerako bildutakoa “*zenbateko handia*”<sup>530</sup> izan zen.

527 *Euzkadi* 1935-5-1.

528 *Euzkadi* 1935-5-3.

529 *Euzkadi* 1935-4-30.

530 *Euzkadi* 1935-5-3.

Batzokiko frontoia, partidaren kronikaren arabera, agertu zen “(...) *gure kirolaren zalez beteta (...)*” agertu zen “(...) *horien artean hainbat andereño abertzale agurgarri nabarmentzen zirelarik (...)*”<sup>531</sup>. Nahiz eta bildutakoen kopuru zehatza ez den inon aipatzen, jatorduko irudiaren deskribapenak ez du zalantzarik uzten ekitaldira batutako jendetza:

*“(...) los congregados en la campa procedieron a despachar las provisiones que habían traído al efecto. Y tanto los terrenos citados como los de las cercanías y el monte vecino- las famosas peñas de Urdulitz (sic) en la cumbre de una de las cuales se halla una ermita- ofrecieron, durante dos o tres horas, un aspecto pintoresco”*<sup>532</sup>.

Geroxeago, ekainaren 30ean, Iruñean burutu zen 1935eko *Aberri Eguna*. Jatorrizko data aldatu behar izan zen egoera politikoak bultzatuta, eta gainera, arrazoi beragatik, *Euzkadi-Eguna*<sup>533</sup> moduan izendatu zuten. Plentziako abertzaleak, maiatza amaieran, hiriburu nafarrera joateko autobus baten antolaketa kudeatzen ari ziren, baita “(...) *Gorliztik, Lemoiztik, Barriatik eta Urduliztik joan gura duten abertzaleak (...)*” gonbidatu ere. Horretarako, izenak eman behar zituzten Plentziako Batzokian<sup>534</sup>. Badakigu Urdulizko zenbait alderdikide joan zirela Iruñera, *Euzkadi* egunkarian *Txiberrik* bidaiari buruz argitaratu zuen kronikari esker<sup>535</sup>.

1936ko otsailean, Gorteetarako hauteskundeak egin ziren; EAJk kanpaina handia egin zuen, Bizkaia osoa hartu zuena. Urdulizen mitin bat antolatu zuen otsailaren 9an, Batzokiko frontoian, arratsaldeko zazpitan; bertan Lino de Argintzonak, José María de Izaurietak eta Jose Antonio Agirrek parte hartu zuten eta , kronikak dionez, “*jendetza*” bildu zen ekitaldian<sup>536</sup>. 1936ko otsailean Frente Popularrak irabazi ostean, lehengo udalbatza ipini zen berriro, eta horrekin nazionalistak Udalera bueltatu ziren. Hala ere ez dirudi horrek bertako abertzaletasunari bizitasunik txertatu zionik. Beste alde batetik, nahiz eta EAJ izan Urdulizen hauteskunde haietako irabazle garbia, botoak galdu zituen 1933ko estatu mailako hauteskundeen aldean, eskumako hautagai-zerrendaren mesedetan, Euskadin orokorrean jazo zen legez. Horrek erakusten digu hautesleen zati batek bereganatu zuela eskumak eta bere komunikabideek zabaldutako mezua, nazionalismoa ezkerrekin uztartzen zuena eta, ondorioz, zalantzan ipintzen zuena *jeltzaileen* katolizismoa.

---

531 *Euzkadi* 1935-5-4.

532 *Euzkadi* 1935-5-3.

533 GRANJA SAINZ, 210.

534 *Euzkadi* 1935-5-22.


535 *Euzkadi* 1935-7-26. “*IRUÑA'RA. – Erri onetatik be, abertzale mordotxu bat ixan gintzazan Iruña'ko Euzkadi – Egunera. (...)*”.

536 *Euzkadi* 1936-1-28 eta 1936-2-11.

Egia dena da EAJren afiliazioa, Batzokiaren itxieraren ondorioz zazpi hilabetez etenda, ez zela berraktibatu 1935eko maiatzean berriro zabaldu ondoren. Baja gehienak 1934-1936 tartean metatu ziren.

1934an erregistratutako 22 kide berriak urtarrietik apirila bitarte jaso ziren, hain zuzen ere 1933ko azaroko erreferendumean Estatutua onartzeak EAJri ekarri zion arrakastaren ostean. 1934ko bajei dagokienez, gehienek urte hartako abenduaren 31ko data dute, nahiz eta uste izatekoa den 1935ean eguneratuko zituela Uri Buru Batzar berriak. 1934ko 9 bajak eta 1935eko 4ak zergatik eman ziren zehazki ez badakigu ere, ondorioztatu dezakegu 1934ko urrian jazotako gatazken ondorioa izan zirela: Ardoaren Estatutua dela-eta euskal udalen eta Estatuaren artean piztutakoa eta Urriko Iraultza. Lehen kasuan, atzerago azaldu dugun legez, nazionalismoak bat egin zuen aldi baterako ezkerrekin, baina urriko gertaerei dagokienez, EAJri leporatu zitzaion ezkerrekin elkar hartuta ibiltzea. Salaketa horrek zelanbait erroak egin zituen oinarri nazionalisten eta hautesleen zati batean; horren froga, ikusi dugun moduan, 1936ko otsaileko hauteskundeetan bizitako boto galera. Hain zuzen ere, aipatu beharra dago 1936an izandako baja bakarra Cipriano Iturregui Urrutia zinegotziarena izan zela. 1937ko abuztuan epaitua izan zenean adierazi zuenez, "(...) *Eusko Alderdi Jeltzalearen kide izan zen otsaileko hauteskundeak arte; momentu hartan alderditik kanporatua izan zen eskumei botoa emateagatik*"<sup>537</sup>.

#### **URDULIZKO EAJ-REN ALTA ETA BAJA KOPURUA, (1934-1936)<sup>538</sup>**



537 A.I.M.N. Bilboko Funtsa, 639/37 kausa.

538 C.D.M.H. P.S. Bilbo 116, "Urdulizko EAJn sartzeko eskaerak (1930-1934)", eta P.S. Bilbo 217/2, "Urdulizko EAJko afiliatuen zerrenda".

1936an, osterara ere, Algortako eta Getxoko nazionalisten maiatzaren 1eko ospakizuna Urdulizen antolatu zuten. 1935ean bezala, egitarauak ez zuen mitinik eduki, eta alderdi folklorikoetan oinarritu zen: ezpata dantza eta gorularien erakustaldia, *otxote* portugaletarren kontzertua, *santzolari (irrintzilari)* lehiaketa eta erromeria, goizeko derrigorrezko mezaz gainera. Berritasun legea, 1935ekoaren aldean, oraingoan Algortako *Euzko-Etxetik* antolatutako irteera, goizeko zortzietan, txistulariekin<sup>539</sup>.

1936ko *Aberri Eguna* maiatzaren 31n egin zen, beste jai erlijioso baten egun berean, Maiatz Pazkoa. Aurreko *Aberri Eguna* ez bezala, ospakizuna ez zen leku zehatz batean egin, deszentralizatu egin zen. Modu horretan, Uri Buru Batzar bakoitzari egokitu zitzaion bere herrian egun hartako ospakizuna antolatzea<sup>540</sup>. Hala eta guztiz, bezperan, ekimen sinboliko bat egin zen amankomunean: uri buru batzarrek zegokien herrietako mendi batean edo bitan suak piztu zituzten. Urdulizen, sua Santa Marinako haitzetan piztu zen; Barrikan, berriz, Sandelizen eta Ganekomendin; Berangon, Munarrikolandan; Plentzian, Gane eta Ermua mendietan; Gatican, Deun-donen; Marurin, Jata mendira igo ziren...<sup>541</sup>. Plentziatik argitaratutako berriaren arabera, nahiz eta “*eguraldi txarra*” eduki, suak piztu ziren “*Ganesko eta Goiko-mendiko tontorretan*”. Handik “(...) *antzeko hamalau su baino gehiago igartzen ziren gauean*”<sup>542</sup>.

Urdulizen 30eko ekitaldiak *biribilketa* batekin hasi ziren, *txistulariekin*, eta gero:

“(...) *gazte talde handi bat Santa Marinako haitzetara igo zen; bertan sua piztu zen, kolore nazionalak zituzten suziri eta bengala ugari jaurtikitzen ziren bitartean*”<sup>543</sup>.

Eta Santa Marinako ospakizunaren ostean:

“(...) *Batzokiko lokaletan, “Txiberri” aberkideak orri batzuk irakurri zituen, “Itxarkundia” eta “Euzko-abendearen-Ereserkija” abestu ziren eta jaia amaitutzat eman zen hurrengo eguna arte*”<sup>544</sup>.

---

539 *Euzkadi* 1936-4-2 eta 1936-5-1.

540 GRANJA SAINZ, 210-211.

541 *Euzkadi* 1931-5-30.

542 *Euzkadi* 1936-6-4.

543 *Euzkadi* 1936-6-4.

544 *Ibid.*

31ko egitaraua behin berriz erlijioa, folklorea era kirola nahasturik etorri zen:

<b>ABERRI EGUNEKO EGITARAUA – Urduliz, 1936-5-31</b> <sup>545</sup>	
<b>7:00</b>	Biribilketa txistulariekin
<b>10:00</b>	Uri Buru Batzarra, EAB y Jel-Batzokijako lehendakaritzen irteera Batzokitik elizarantz, txistulariek, ezpata dantzariak, gorulariek eta herri nazionalistak lagunduta
<b>10:30</b>	Meza nagusia Berangoko Batzokiko koroak kantatuta
<b>11:30</b>	Herriko ezpata dantzari taldeen erakustaldi handia Elexalden. Jarraian erromeria
<b>13:30</b>	Oturuntza Batzokian
<b>16:00</b>	Hiru pilota partida bikote handien kontura
<b>17:30</b>	Jota eta auresku lehiaketa 16 urtetik beherakoentzat, diru-sari handiekin garaileentzat. Jarraian, erromeria ilundu arte

Programatutako ekimenez gain, inprobisaziorako uneak ere izan ziren. *Zubi-Artek* kontatu zuenez, oso txalotuak izan ziren “(...) emanaldi bat inprobisatu zuten hainbat gaztek eta Batzokiko frontoian bildutako jendetzak barre handiak egin zituen”<sup>546</sup>.

Hura izan zen bertako nazionalisten azken ekimena Gerra Zibilaren hasieraren aurretik.

## 2.2.2 Errepublikanoak Urdulizen

Ez da erraza Urdulizko errepublikanismoaren historia berreraikitzea. Nagusiki, informazioaren zatirik mardulena *El Liberal* egunkariko orrietatik atera dugu. Ez da ezelango iturri zuzenik gorde, hau da, akta libururik, edo kide zerrendarik, ez Partido Republicano Radicaleko elkartearena ez hura ordezkatu zuen Acción Republicanakoarena. Ikusi den moduan, nazionalistek 1930aren amaieran eratu zuten euren Uri Buru Batzarra; errepublikano urduliztarrek, berriz, 1931ko ekaineko hauteskunde orokorren ostean abiarazi zuten euren udal elkatea. Bertako batzar nazionalisten eraketan legez, prozesu hori ez zen bakarrik

545 Euzkadi 1936-5-28 eta 1936-5-31

546 Euzkadi 1936-6-4.

Urdulizen jazo, batera gertatu zen Bizkaiko zenbait udalerritan, aurrerago ikusiko dugunez. Horregatik, beharrezkoa gertatzen da errepublikanismoa eskualde osoan aztertzea, tokiko eremura mugatu barik.

Badirudi eskualdeko elkarte errepublikanoek jatorri desberdinetako ezkertiarak hartzen dituztela, alde honetan ezkerreko alderdiek agertzen duten ahulezia kontuan hartuta. Dinamika hori herri batzuetan apurto zen 1933az geroztik: esate baterako, Berangon, urte hartako uda orduko bazeuden, batera, talde sozialista bat, beste bat erradikal sozialista eta hirugarren bat Acción Republicanakoa<sup>547</sup>. Sopelan ere, urte bereko urtarrilaz geroztik, udalerriko Zentro Demokratikoa partekatu zuten Acción Republicanak eta sozialisten elkarte sortu berriak<sup>548</sup>.

Ezaugarri orokor moduan, azpimarratu beharra dago errepublikanismoa zela sektore politiko zatikatuena, zenbait partiduk eta talde txikik osaturik zegoelako. Hauteskundeetan beharrezkoa zuten elkarrekin joatea edo PSOErekin koalizioa osatuz, arrakasta lortzeko. Sozialistekiko koalizio hori 1931ko eta 1936ko hauteskundeetan gauzatu zen Euskadin; 1933an, berriz, Bizkaian baino ez zen egin. Beste alde batetik, Estatuako gainerako tokietan legez, errepublikanismoak fase bi ditu: 1931tik 1933ra bitarte, haren sakabanaketa handiagoa izan zen. 1933ko azaroko hauteskundeetan nozitutako porrotak inflexio-puntu bat ekarri zuen, errepublikanoak behartuz indarrak metatzera Izquierda Republicanaren inguruan. Horren ondorioz, gutxitu egin zen haien zatiketa. Gainera, sozialistekiko aliantza berreskuratu zuten. Bigarren fase hori 1934tik 1936ra bitartekoa da<sup>549</sup>.

1931ko apirilako udal hauteskundeak baino lehen, haien inguruko albisteak urriak dira. Plentzian eta Gorlizan baino ez da haien azterna ageri. Beste alde batetik, bai Plentzian bai Mungian, hiribilduak zirenez, errepublikazaletasuna indarrez eta ekimenez agertu zen. Indar hori, apirilako udal bozketetatik ekaineko hauteskunde orokorretara bitartean ez ezik, 1931-1933 epealdi osoan jarri zen agerian.

1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeen deialdiaren ondorioz, Plentzian “zenbait nazionalista (EAE) eta errepublikanok” gogoia agertu zuten “hautetsontzietarako elkartzeko”, eroan guran “Plentziako Udalera herriaren egiazko ordezkaritza”. Horretarako, “bloke antidinastiko” horrek deialdia egin zuen martxoaren 26rako, “ezkertiar guztiak” “Palas” tabernara gonbidatuz hautagaiak izendatzearren<sup>550</sup>. “Gorlizko ezkertiarrek” ere, nabarmen erakutsiz “dinastiaren kontrako iritzia, batez ere nazionalista (ostera ere EAE)”, Plentziako urratsei jarraitu zieten eta martxoaren 31rako bilera deialdia egin “Antonio Uriarteren taberna jatorrean”, hautagaiak izendatzeko xedez<sup>551</sup>. Udalerrri bietan,

547 *El Liberal* 1933-8-17.

548 *El Liberal* 1933-1-20 eta 1933-2-8.

549 GRANJA SAINZ, 161-162.

550 *El Liberal* 1931-3-25

551 *El Liberal* 1931-3-31

hauteskundeen emaitza nahikoa apala izan zen errepublikanoentzat: Plentzian zinegotzi errepublikano bat eta Eusko Abertzale Ekintzako beste bat aukeratuak izan ziren, aurrean zituztela hiru nazionalista, hiru monarkiko eta independente bi<sup>552</sup>; eta Gorkizen zazpi independentek, errepublikano batek eta nazionalista batek osatu zuten Udala<sup>553</sup>. Bai Plentzian bai Gorkizen, maiatzaren 31n errepikatu ziren udal hauteskundeak, eta emaitzak guztiz bestelakoak izan ziren apirilekoen aldean. Plentzian, errepublikanoek zinegotzi bi eta EAEk bat lortu zituzten; EAJk, berriz, zazpi<sup>554</sup>. Gorkizen, ostera, Udala multzo errepublikano sozialistaren eskutan geratu zen: sei zinegotzi EAEkoak, errepublikano bat eta sozialista bat, aurrean EAJren zinegotzi bakarra zutela<sup>555</sup>.

Lehenago esan bezala, 12an Urdulizen ez zen hauteskunderik egon; egun batzuk lehenago, zinegotziak aldarrikatu ziren Hauteskunderi buruzko 1907ko Legearen 29. artikulua indarrez. Berdin jazo zen inguruko zenbait herritan, hala nola Berangon, Barrikan eta Sopelan<sup>556</sup>. Beraz, aukeraturako zinegotziak ez ziren herri-bozketaren baten hautatuak izan. Urdulizko zinegotzi errepublikano biek ibilbide bat eginda zeukaten Udalean: Cipriano Inchaurtieta Abaroa alkatea izana zen urte bat baino apur bat gehiago, 1930eko urtarriletik 1931ko apirila bitartean, eta José Olea Bilbao are denbora gehiago emanda zegoen Udalean, zinegotzi "*ciervista*" izan zelako (kontserbadorea) Primo de Riveraren diktadura baino lehen. Aurretik egindako bide horrek bultzatuko zituen, beharbada, kutsu administratiboagoa eroterako ideologikoa baino; Udalean modu diskretuan jardun zuten, Errepublikaren garaiko Udalaren akta-liburuak erakusten duenez. Beste alde batetik, ez dakigu Urdulizko errepublikanoek bilerarik egin ote zuten hautagaiak izendatzeko 1931ko apirilko "ez-hauteskundeetarako". Ez dugu, behintzat, horren berrikerik idoro.

Berrikitan esan dugunez, ukaezina izan zen Plentziako errepublikanoen bizitasuna. Hartara, maiatzaren 21ean bilera baten deialdia egin zen Kasino Errepublikano Zuzendaritza Batzordea izendatzeko. Hura, herriko "*Palas*" tabernako lehenengo solairuan ezarri zuten. Ekainaren 3rako, Batzordea eratuta zegoen, eta emakume bat zeukan batzordekide, Raquel Sáenz. Ekainaren 21ean egin zen Kasino Errepublikanoaren inaugurazio ofiziala. Beste alde batetik, maiatzerako EAE ere antolatuta zegoen Plentzian; argi eta garbi utzi zuten "(...) *beti errepublikanoekin estu loturik joango zirela*"<sup>557</sup>. Hilabete beraren amaieran,

---

552 BARRENETXEA MARAÑÓN, 128

553 *El Liberal* 1931-4-14

554 BARRENETXEA MARAÑÓN, 136

555 *El Liberal* 1931-6-4

556 *El Liberal* 1931-4-8

557 *El Liberal* 1931-5-8, 1931-5-1, 1931-6-3 eta 1931-6-19

hona zer eman zuen aditzera *El Liberalek*: “(...) eskuma liberal errepublikanoa antolatu guran dabiltza herri honetan, eta badirudi zale asko dituela (...)”. Plentziako errepublikanoek beren laguntza eskaini zieten eta aldi berean aholkatu komeni zitzaieela “(...) Kasinoko gogaideekin elkartzea”, izan ere, Kasinoan bazeuden, nonbait, “(...) ezkerrera jotzen duten batzuk, baina eskumakoak ere bai”. Azken finean, Plentziako Kasinoko erregelamenduaren lehenengo artikulua zioenez, lokalaren xedea zen “familia errepublikarrari aisialdirako eta biltzeko toki bat eskaintzea (...)”<sup>558</sup>. Laburbilduz, esan dezakegu aterki beraren azpian mota askotariko jendea aterpetu zela errepublikanismoaren barruan, eta ezaugarri hori, hurrean, askoz ere nabarmenagoa izan zen landa giroko herrietan; Urdulizen, kasurako.

Gorteetarako hauteskunde deialdia egin zen ekainaren 28rako. Aurretiaz, gutxienez ere mitin bi egon ziren hauteskunde kanpainan: Plentzian, 21ean, Santiago Aznarren, Feliciano Fariñasen eta Luis López Múgicaren kontura<sup>559</sup>; eta Berangon, 26an, Luis Aldecoa eta Juan Gracia hizlari zirela<sup>560</sup>. Bozketaren emaitzak agerian jarri zuen nazionalisten garaipena Urdulizen, Laukizen, Barrikan, Berangon edo Plentzian. Urdulizen, Indalecio Prietok 19 boto eduki zituen; José Horn nazionalistak, berriz, 187. Hala eta guztiz, Gorkizen, errepublikanoen eta EAren botoen baturak elkartze horren erabateko gehiengoa ekarri zuen; ostera, Plentzian, Indalecio Prietok 109 boto atera zituen eta José Hornek 250. Sopelan, errepublikanoen botoak (99) eta EArenak (2) baturik nazionalistenak adina (113) izan ziren ia. Azkenik, Berangon, errepublikanoek 93 boto lortu zituzten, eta nazionalistek, berriz, 168<sup>561</sup>. Hala bada, Gorkizen, Sopelan, Plentzian eta Berangon agertu ziren indartsuen errepublikanoak.

Zenbait egun geroago, *El Liberalek* aztertu zituen emaitza horiek, eta azpimarratu Barrikan, Laukizek eta Urdulizek erakutsi zutela “lehenengoz euren demokratizazioa”. Herri horietan lortutako sari apala zela eta, “C”<sup>562</sup>, artikulua egileak animoak eman nahi izan zizkien “herri txiki-txiki zale sutsu hauei”:

“(...) que no se apuren por sus pocos votos de hoy, que tengan valor para luchar, pues los que han abierto camino de la libertad en sus pueblos, llegarán con su ejemplo a levantar los ánimos de los demás (...)”<sup>563</sup>.

---

558 *El Liberal* 1931-5-8

559 *El Liberal* 1931-6-20.

560 *El Liberal* 1931-6-6.

561 *El Liberal* 1931-6-30 eta *Euzkadi* 1931-6-30.

562 “C” sinatuta zegoenez, eskualdeko ohiko kronikaria zela ondorioztatu dugu, hau da, bere artikulua “Cantaclaro” gaitzizena erabiliz idazten zuena.

563 *El Liberal* 1931-7-5.



Beste alde batetik, proposamena egin zien herri hauetako errepublikanoei:

*“Yo os invito a todos los entusiastas de estos pueblos a agruparos, constituyendo Agrupaciones republicanas, Comités o Subcomités socialistas en todos ellos, y si no tenéis fuerzas suficientes en cada pueblo, uniros en dos o en tres, o en último caso todos los pueblos unidos formar una verdadera Agrupación que radique en Plencia, donde existe ya constituido el Casino Republicano (...)”*<sup>564</sup>.

Gorteetarako hauteskondeak, beraz, neurgailu zuzena izan ziren errepublikanismoak eskualdean zuen indarrari tamaina hartzeko. Egunkari errepublikazaleko kronikariak horrela adierazi zuen: *“Azken hauteskondeek frogatu digute uste genuen baino askoz gehiago garelara (...)”*<sup>565</sup>.

*El Liberalen* eskatzen ziren elkarteak 1931ko uda bere amaiera jotzeko zegoela hasi ziren sortzen, den-denak Partido Republicano Radicalari lotuak, Lemoizkoa kenduta. Hori baino lehen, maiatzean, hasi zen alderdi hori Bilbon berrantolatzen. Adierazi zuten, zabalik zeuden *“errepublikazaletasunaren aldera etortzen ari ziren lagun berriei”*, baina ez zuten onartuko *“kazikerik edo abaguneko errepublikanorik”*. Egia dena da alderdi honetara, Espainia guztian, *“jende franko heldua zela alderdi monarkikoetatik etorrira”*. Horregatik, berrantolaketa orokorrari ekin zioten Gorteetarako ekaineko hauteskundeetan. Erradikalek, guztira, 94 diputatu lortu zituzten Estatuan, eta oposizioko lehen alderdia bihurtu ziren. Ez ziren Azañaren Gobernuan sartu, *“erradikalek eta sozialistek elkarri zioten gorrotoak ezinezkoa egin zuelako bi alderdiak gobernu beraren parte izatea (...)”*<sup>566</sup>.

Hori hala izanik ere, Bilbon, maiatzaren 31ko batzar eratzailleak aukeratua izan eta gero, PRRko Zuzendaritza Batzordeak erabaki zuen Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetara aurkeztea errepublikano autonomoekin, erradikal sozialistekin eta sozialistekin batera. Dena dela, ez zuten hautagai bakar bat ere sartzea lortu, gainerako indarrek hautagai-zerrenden osaera hitzartu zutelako PRR bazter utzita. Hauteskondeak pasata, propagandarako mitinak ugaritu ziren Bizkaia osoan eta elkarteak eratu ziren *“lehenago ez ziren herrietan”*. Alderdiko Batzorde Nazionalak jaulkitako zirkular batek pitzarazi zuen mugimendu hori. Delako zirkularrak alderdiaren antolakuntzaren oinarriak biltzen zituen; haietan, epemuga bat jartzen zen, irailaren 20a, *“tokiko batzordeak eratzeko”*, eta beste bat, urriaren 4a, Probintzietako Batzordeak osatzeko. Bizkaian, Partido Radicaleko Probintziako Batzordea urriaren 25ean eratu zen, zirkularrak agindu baino 20 egun beranduago<sup>567</sup>.

---

564 Ibíd.

565 Ibíd.

566 PENCHE GONZÁLEZ, Jon: *Republicanos en Bilbao (1868-1937)*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2010, 174-175

567 Ibíd. 174-176

Urdulizko eskualdeko tokiko batzordeei dagokienez, badakigu irailaren 1ean Laukizko errepublikanoak PRRn afiliatu zirela eta euren Zuzendaritza Batzordea eratu zutela; ondoren, horren berri eman zioten “(...) *Alderdiko Bizkaiko Idazkaritza Orokorrari, behar den tramitea emateko*”. Gorlizkoek irailaren 4a baino lehenago eratu zuten PRRko Batzordea<sup>568</sup>. Marurin irailaren 13an, eta Barrikan eta Plentzian irailaren 19a baino lehen<sup>569</sup>. Lemoizen, errepublikanoak Partido Radical Socialistari loturik zeuden; horiek ere irailaren 13an eratu zuten euren Batzordea<sup>570</sup>. Azkenik, ikuspegi hau osatzearren, aipatu beharra dago Mungian irailaren 20an ireki zela Alianza Republicanaren zentroa<sup>571</sup>.

Urdulizen errepublikanoek irailaren 14an egin zuten euren batzar orokorra, eta bertan erabaki Partido Republicano Radicalaren herriko elkarteak eratzea. Zuzendaritza Batzordea honela geratu zen eratuta:

<b>PARTIDO REPUBLICANO RADICALAREN ELKARTEA 1931ko iraila</b> <sup>572</sup>	
<i>Lehendakaria</i>	Ángel Redin Solana
<i>Lehendakariordea</i>	Eduardo Betolaza Ocariz
<i>Idazkaria</i>	José Olea Hormaza
<i>Diruzaina</i>	Cipriano Inchaurtieta Abaroa
<i>Kontatzailea</i>	José Olea Bilbao
<i>Bokalak</i>	José Hormaza Unibaso Ramón Olea Otazua Pedro López Santín

Ez dakigu gauza handirik batzorde horretako kideen gainean. Ángel Redín Solana Basauri-San Migelgoa zen eta emaztea zuen Eusebia Felisa Ascobereeta, Eskola Nazionaletako nesken maistra<sup>573</sup>; Urdulizen 1931z geroztik bizi zen, hau da, bere andreak postu hori bete zuenetik. Eduardo Betolaza Ocariz gasteiztarra zen; 1930 inguruan 64 urte zituen eta Urdulizen bizi zen nekazaritzari emana<sup>574</sup>.

568 *El Liberal* 1931-9-4

569 *El Liberal* 1931-9-19.

570 *El Liberal* 1931-9-12 eta 1931-9-20.

571 *El Liberal* 1931-9-22.

572 *El Liberal* 1931-9-19.

573 B.F.A.H. URDULIZ 0027/029 *Biztanleen Errolda* 1936-9-15, eta A.H.E.B. 3300/002-00 *Parrokiako matrikula 1929-1941*.

574 B.F.A.H. AJ 01873/008 *Urdulizko hauteskunde errolda* 1930.

Haren biografiaz badakigu 42 atxilotuetako bat izan zela euskal sozialismoaren mugarrietako batean: 1891ko maiatzaren 31ko okinen greba. Egun hartako ekitaldirik aipagarrienetako bat izan zen Bilboko Romea antzokiko mitina; bertan atxilotu zituzten, hutsarazia izan ostean, Facundo Perezagua eta Cenón Ruiz. Horrek sekulako istiluak pitzarazi zituen Bizkaiko hiriburuan, azkenean 42 atxiloteta horiek ekarri zituztenak<sup>575</sup>. José Olea Bilbaoren eta Cipriano Inchaurtietaren iragan politikoaz berba egin dugu lehenago. 1930eko Hauteskundeetako Erroldaren arabera, Oleak 58 urte zituen eta Inchaurtietak 63, eta biak nekazari moduan agertzen dira, Pedro López Santín bezala. Azken honek 70 urte zituen. José Olea Hormaza idazkaria zurgina zen, eta 26 urte zituen, 1930eko errolda horretan agertzen denez<sup>576</sup>.

Partido Republicano Radicalari dagokionez, ezaguna da noraino zabaldu zen Bizkaian, 1932ko otsailaren 8an Probintziako Batzarra egin zuelako bere batzorde eragile berria aukeratzeko. Horri buruzko albisteari esker badakigu, bilera horretara Urdulizko, Laukizko, Maruriko, Plentziako, Gorlizko edo Lemoizko elkarteetako ordezkarietz gain, toki honetakoak ere etorri zirela: Bilbo, Santurtzi, Barakaldo, Sestao, Erandio, Turtzioz, Miraballes, La Cuadra, Bedia, Arrieta, Gamiz-Fika eta Fruiz<sup>577</sup>. Barakaldo zen PRRko elkarterik indartsuena, fabrikaherri horretako alkatetza baitzuen. Horregatik ez da harrigarria udalerrri horren inguruan zenbat herri zeuden bertako elkarte Erradikala zutenak<sup>578</sup>.

Gainerako herriek erakunde errepublikanoak sortzeko orduan erakutsi zuten bizitasunaren beste aldean, errepublikanismoaren ezarpena motelagoa izan zen Sopelan eta Berango, n 1931ko ekaineko hauteskundeetako emaitzak hobeak izan arren Urdulizen edo Barrikan baino.

Sopelari dagokionez, badugu elkarte baten berri 1932ko apiril inguruan. Urte bereko ekaina arte itxaron behar, hala ere, datu esanguratsuagoak lortzeko: egun horietan abiatu zen Sopelan Zirkulu Demokratikoa, lokalak José Quintana merkatariairen etxean ezarrita. *El Liberal*ek jaso zuenez, elkartearen sortu zuten Batzordeak arazoak eduki zituen "(...) gure Zirkulua paratzearen lokal bat topatzeko, herriko kazikeek ipini dituzten oztopoengatik (...) "<sup>579</sup>. Geroago, *Euzkadi* egunkariak azaldu zuen Sopelako errepublikano eta sozialistek Quintanaren "(...) *saloi*" aukeratu zutela "(...) euren bileretarako beste tokirik *topa ezinda*", Quintanaren iraganagatik ere. Gizona, bi urtez, herriko alkatea izana zen Primo de Riveraren diktaduraren garaian, eta egunkari nazionalistari sinestera, Bigarren Errepublika helduta "pasatu zen" erregimen berrira<sup>580</sup>. Sopelako Zirkulu Demokratikoko lehen ekitaldia mintzaldi bat izan zen, ekainaren 18an, Alderdi Sozialistako hiru kideen kontura: José Calvo, Cesar Moja eta Felipe

---

575 *El Nervión* 1-6-1891, eta B.F.A.H. JCR 4158/004 *Causa promovida en el Regimiento de Infantería de Garelano sobre los hechos del 31 de mayo de 1891*.

576 B.F.A.H. AJ 01873/008 *Urdulizko hauteskunde errolda* 1930.

577 *El Liberal* 1932-2-9.

578 PENCHE GONZÁLEZ, 179.

579 *El Liberal* eta 1932-4-10 eta 1932-6-15.

580 *Euzkadi* 1931-7-30, 1933-5-18 eta 1934-9-23.

Bizcarrondo. Asmoa zen jarduera errepublikanoari jarraipena ematea, zenbait egintza antolatuz 1932ko uda osoan. Batzordearen ustez, "(...) *haiek (kazikeek) ipini diguten setioan urratu bat*" egitearen pareko izan zen lehenengo hitzaldi hori<sup>581</sup>.

1931ko abenduaren hasieran, Berangoko errepublikanoak ez zeuden oraindino antolatuta. Horrek eragin zuen artikulua baten agerpena *El Liberal* egunkarian, "*demokrata berangoztarrei*" oharartazpena egitearren. Mezua argia zen: "*horrela ezin dugu jarraitu*". Horregatik, "*bizi seinaleak emateko*" gonbidapena egin zitzairen, elkarte errepublikazale bat sortzeko, eta honela "*jende askori erakusteko (nazionalistei, hain zuzen; artikuluan haien aipamena egiten zen-eta) badela errepublikanorik Berangon*". Hilaren amaieran eratuta zegoen "*Elkartasun Demokratikoaren aldeko Batzordea*", eta 26an hitzaldi bat antolatu zuen "*Juan Socialista*"<sup>582</sup> hizlari, "*estankoaren terrazan*", Berangon antolakunde errepublikanoari abiada emateko<sup>583</sup>. Sopelan moduan, 1932ko apirilaren bueltan badugu Berangoko elkarte errepublikano baten berri. 1932ko uztail inguruan, Elkarte Demokratikoa izeneko bere lokala abuzturako ireki guran zebilen, bertan lekua ematearren "*ezker asmoko guztiei*". 1932ko irailaren 11 arte atzeratu zen inaugurazioa<sup>584</sup>.

1932ko otsailaren 11n, Lehenengo Errepublikaren aldarrikapenaren urteurrena modu sotilean ospatu zuten Bizkaiko errepublikano erradikalen elkarteetan, "*familia-teak*" deitu zituztenak antolatuz. Horrela egin zen Urdulizen, Barrikan, Plentzian, Gorlizen, Lemoizen, Marurin edo Laukizen, beste udalerrri batzuetan bezala. Bilbon, Santurtzin eta Barakaldon, berriz, "*familia-dantzaldiak*"<sup>585</sup> antolatuz gauzatu zen ospakizuna.

Bigarren Errepublikaren bigarren urteurrenerako, "*Urdulizko Aliantza Errepublikanoaren Zentroak*" ekitaldi sorta bat antolatu zuen. Programa *El Liberalen* argitaratu zen. Ekitaldietariko bat deigarria da: manifestazio bat, goizeko hamarretan, Zentro Errepublikanotik abiatuta, "*Santa Marinako haitzeraino, dantza-soinuak joz heldukeran*". Saihestezina da manifestazio errepublikano hau kontrajartzea urtero, uztailaren 20an, udal agintariekin batera ermitaraino egiten zen igoera erlijiosoarekin. Inondik ere, ez da kasualitatea errepublikazale urduliztarrek aukeratu zuten ibilbidea. Eguerdiko ordu batean, otordu bat egin zen "*Estefanarenean*", hau da, Elortzako udal alondegian. Artikuluan hau adierazi zen: "*baten batek bat egin gura badu, domekan esan dezake*" taberna horretan.

---

581 *El Liberal* 1932-6-18.

582 Gaitzizen hori Alderdi Sozialistako Felipe Bizcarrondok erabiltzen zuen.

583 *El Liberal* 1931-12-2 eta 1931-12-26

584 *El Liberal* 1932-4-10, 1932-7-15 eta 1932-9-10

585 *El Liberal* 1932-2-10. Gure ustez, "*familia-teetan*" elkarte bateko kideak beren lokalean biltzen ziren tea hartzeko. "*Familia-dantzaldiak*" ere berdintsuak izango ziren: dantzaldiak, elkartearen lokalean.

Datu horietatik ateratzen dugu Zentroak Estéfana Ugartek gobernatzen zuen ostatuan zuela biltokia. Lokal propiorik ezean, ez zen hain bakana erakunde politiko edo sindikal baten egoitza taberna baten ezartzea: ikusi dugu zelan, Urdulizko *Solidaridad de Trabajadores Vascosek* ere, establezimendu berean paratu zuen bere egoitza 1929an. Azkenik, jaia arratsaldean amaitu zen, soinulari baten dantzagarrien soinupera “*ilundu arte, doazen guztientzat*”<sup>586</sup>.

Plentziako Kasino Errepublikanoak ere Errepublikaren urtemuga ospatu zuen zenbait ekitaldi antolatuta: Udal Bandaren kalejira, kontzertua eguerdian, dantzatzekoak arratsaldean eta gauaz, su-festak eta “*danbatekoak*”, eta gainera, “*afari goxo bat*”. *El Liberalen* orrietatik, aditzera eman zitzaizen “*Armintza, Gorliz, Barrika, Urduliz, Laukiz, Sopela eta Berangoko elkarte errepublikano eta sozialistei*” erabakia zutela Bilbon apirilaren 14an goizeko hamar eta erdietan egin zen manifestaziora joatea. Horretarako berotu guran, “*oso interesgarritzat*” jotzen zuen “*elkarte guztiek beren banderak eroatea eta denak batzea (...)*” Plentziatik goizeko bederatzietan irteten zuen trenean<sup>587</sup>. Ez dakigu zer oihartzun izan zuen Bilboko manifestaziora joateko dei horrek, baina ez dirudi errepublikazale urduliztarrek antolatutakoa bateragarria zenik Bizkaiko hiriburukoarekin.

1932an zehar, zenbait mitin egin ziren. Horien artean nabarmentzekoa da Bizkaiko Abeltzainen Ermandadeen Federazioak “*nekazaritza kooperatibistaren aldeko propaganda*” egiteko antolatu zuena, *El Liberal* egunkariak iragarrita. Berangon mitin bat egin zen martxoaren 13an, Federazio horretako ordezkarien kontura: Tomás Aldama eta Antonio Otegui gaztelaniaz eta Luis Llona euskaraz. Urdulizen ezaugarri bereko beste mitin bat egin zen apirilaren 17an, protagonistak hizlari berak zirela, hizkuntza banaketa berdinarekin. *El Liberalen* orrietatik ekitaldirako gonbidapena egin zitzaizen “*Urdulizko eta inguruko herrietako anaidi guztiei*”<sup>588</sup>. Sopelan ere, urriaren 16an, mitin berdintsua egin zen “*Antonio Arechavaleta plazan*”, hizlarietako Ángel Salvidea gehiturik. Hark euskara erabili zuen bere hitzaldian<sup>589</sup>. Azkenik, ostera ere Berangon, hilabete lehenago, irailaren 17an, Federazioko lehendakari Tomás Aldamak bakarrik eskaini zuen mintzaldia “*Berangoko herriko ostatuan (...), abeltzain eta nekazarien Federazioko saila eratzeke helburuz*”<sup>590</sup>. Hizlari horietako batzuek errepublikanismoarekin zuten lotura argi eta garbi geratu zen, ekitaldi horiek guztiak *El Liberal* egunkariak jasota agerturik. Hala ere, aipatu beharra dago ezen, aurrerago ikusiko dugun bezala, Bizkaiko Abeltzainen Ermandadeen Federazioa, besterik ez bada, entitate neutrala zela, politikari bagagozkio, bere kideen %80 nazionalista bazen ere. 1932 inguruan, Federazioan “*(...) elementu sozialisten infiltrazio jarraitua*” ematen ari zela salatu zen. Aitatu dugun hizlarietako batek, Luis Llona *jeltzaleak*

---

586 *El Liberal* 1932-4-8.

587 *El Liberal* 1932-4-10.

588 *El Liberal* 1932-4-10.

589 *El Liberal* 1932-10-15.

590 *El Liberal* 1932-9-16.

hala ohartarazi zion EAJri<sup>591</sup>. Egoera hori dela eta, ez da harritzekoa *Euzkadi* egunkariak, Urdulizen baserritarrentzako mitin hori egin behar zela argitaratu ostean, gero “*paperen arteko nahaste-borraste bati*” egotzi izana albiste hori. “Lapsus” hori dela eta, hona zer adierazi zuen argitalpen horrek: “(...) “*Federazio*” horretan agertzen diren pertsonak ez digute ezelango konfiantzarik ematen, ez ikuspuntu abertzale batetik ezta herriaren interesen aldetik ere (...)”. Horregatik, “*gure baserritarrei*” aholkatu zien “*inori ez uzteko ustekabe txarrik ematen*”<sup>592</sup>.

Nekazaritza auzia zen, ikusi dugun legez, funtsezko gaia landa giroko herrietan. Beraz, aipatu Anaidiko kideak ez ziren beren mitinetan horretaz berba egiten zuten bakarrak. Esate baterako, 1932ko abenduan, Sopolako Zentro Demokratikoan hitzaldi bat eman zuen “*Arturo España propagandista kultuak*”, Partido Republicano Radical Socialistako Probintziako Batzordeko lehendakariak. Ekitaldi horretarako, gonbidapen berezia egin zitzaion “*gure nekazari zuzen eta sufrituei*”, hain zuzen ere nekazaritza izan zelako erabili beharreko gaietako bat<sup>593</sup>.

Errepublikanoek baserritarren bizi baldintzen aldera zeukaten kezka ederto erakutsi zuen “*Eguski*” korrespontsal berantotarrak 1933ko abuztuan *El Liberalen* argitaratutako artikulua. Idazlanaren egileak, “*herrixka horiek (...), hain bizi motel eta txiroa dutenak*” deskribatu ostean, zenbait proposamen egin zituen haien egoera hobetzeko; barbarako, “(...) nekazariaren etxebizitza ziztrinak aldatu eta haien orde z oinarritzko garbitasun eta osasun baldintzak dituzten bizitegiak ipintzea, behin betiko bananduz etxebizitza kortetatik”, edo nekazaritzako kooperatibismoa bultzatzea, “*herrian orientazio onena duen lekuan landetxeak eraikiz, bertan modu kolektiboan jagoteko bizilagun guztien etxeko animaliak*”. Landetxe horiek zuzentzeko, “*ikastetxeetan ikasitako eta hezitako baserritarren artean irtendako teknikariak (...)*” proposatzen zituen etekin handiagoa ateratzeko asmotan, “*teknika falta erabatekoak*”<sup>594</sup> eragiten zuen egoera txarrari aurre egitearren.

1932aren hasieran, RPRkoak ziren Urdulizko errepublikanoak. Urte horretako momenturen baten ostera, Acción Republicanan sartzeko erabakia hartu zuten, izan ere, azaroan, “*Acción Republicanako Urdulizko Elkarte*”<sup>595</sup> zuten agertzeko modua. Haien zuzendaritza batzordea ere 1932an berri zuten, itxuraz, *El Liberalen* orrietan Zentro Errepublikanoko beste kide bat aurkitzen dugu-eta, Tomás Hernando Lacruz. 1932ko urrian Zentroko lehendakari moduan agertzen zen<sup>596</sup>, eta 1933ko maiatzean, idazkari<sup>597</sup>. Sestaon jaioa zen eta ez zen

591 ANSEL, Darío: “*Los Nekazaris vascos durante la II República*” en *XIII Congreso de Historia Agraria. Congreso Internacional de la SEHA, Sesión III: Politización, democracia y mundo real*, 2011, Lleida, págs. 14, 21 y 22.

592 *Euzkadi* 1932-4-16.

593 *El Liberal* 1932-12-1

594 *El Liberal* 1933-8-17

595 *El Liberal* 1932-11-6

596 *El Liberal* 1932-10-15

597 *El Liberal* 1933-5-31

Urdulizko bizilaguna, ezpada Plentziakoa, lehenago Trapagarangoa izana zen arren. Hernando “*Casimirone*” baserrian bizi zen, “*Hegoaldeko auzoa*” izeneko Plentziako aldean<sup>598</sup>. Hala eta guztiz, baserria, elizaz, Urdulizko parrokiari zegoen atxikia, gaur egungo San Fermin auzoarekin muga egiten duen aldean zegoelako. Guadalupe Fano urduliztarrarekin ezkondata etorri zen Hernando inguru honetara; ezkontza, Urdulizko parrokian egin zen, 1926an<sup>599</sup>. *El Liberal*ek hainbatetan eman zuen haren jarduera politikoaren berri: esate baterako, gobernadore zibilar eskatu zionean Urdulizko alkateak domeketan bandera errepublikanoa zabal zezan, edo bere semea, bataiatu barik, Erregistro Zibilean<sup>600</sup> baino ez zuenean inskribatu. Alderdi horien gainean geroago sakonduko dugu, garaiko gatazka sozialak aztertzen ditugunean.

Errepublikanoen artean pil-pilean ibili zen 29. artikulua onduz 1931ko apirilean aukeratutako udalen kargugabetzearen auzia. Barrikako Elkarte Errepublikanoak, kasurako, “29. artikulua bidez izendatutako” Udala kargugabetzeko eskatu zuen 1932ko urtarrilean, zinegotzi batzuk herriko abadeek deitutako bilera batera joan zirelako, Udalaren bilkura arruntera agertu beharrean<sup>601</sup>. Otsailean, kargugabetze-teman hasi ziren ostera ere. Haien esanetan, Barrika Errepublikaren alde zegoen, “(...) eta ederto erakutsiko du hurrengo hauteskunde lehian, 29. artikuluko (zinegotzi)ak ordeztzen direnean”<sup>602</sup>.

Urdulizen, Udalaren kargugabetzeak eztabaida ekarri zuen Elkarte Errepublikanoaren barruan. Esan dugun legez, 1932ko azaroaren 6an, Udalbatzan zeuden zinegotziek erabaki zuten idazki bana bidaltzea Madrilgo Gobernuari eta Bizkaiko gobernadore zibilar, Udalaren kargugabetzeagatik eta batzorde kudeatzaile batekin ordezkatzegatik protestatzeko. José Olea zinegotzi errepublikanoak sinatu zuen udal bilkuran agertutako protesta jasotzen zuen akta. Beste zinegotzi errepublikanoa, Cipriano Inchaurtieta, ez zegoen nonbait bertan, haren sinadura agertzen ez delako, ezta Bernardino Bilbao eta Juan Abaroa zinegotzi nazionalistenak ere<sup>603</sup>. 13an, “*Acción Republicanako Urdulizko Elkarteak, batzar berezian (...) eta aho batez*” erabaki zuen “*protesta egitea Udalak hilaren 6an hartutako erabakien kontra (...)*”. Erabaki hori Ministro Kontseiluko lehendakariari bidali zion, aurretiaz Urdulizko Udalak hari berari igorri baitzion bere protestaren idazkia<sup>604</sup>.

---

598 B.F.A.H. AX 00376/02 “Dn. Tomás Hernando, solicita subvención por roturación de terrenos incultos”. Bada marka, 1932-7-21eko *El Liberal*en, “Plentziako bizilagun batek” herriko alkateari idatzia bidali zion Tomás Hernando eta bere familia bizi ziren baserriaren egoeraz, baita hau eskatu ere: “(...) haga el favor de ordenar a la Junta de Sanidad se dé un paseito por la carretera de Plencia a Urdúliz eta pase por el caserío “Casimosene”, propiedad de Francisco Menchaca, edificio que está recién reparado, pero donde no se ha realizado obra de saneamiento, eta si solamente “lavarle un poco la cara” para poder cobrar doble renta”

599 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, - 1926-2-25

600 *El Liberal* 1932-7-3 eta 1932-10-15

601 *El Liberal* 1932-1-22

602 *El Liberal* 1932-2-8

603 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura berezia 1932-11-6

604 *El Liberal* 1932-11-6

Zerk bultzatu zuen José Olea Urdulizko Udalaren protesta sinatzera, errepublikanoen jarrera baldin bazen udalen kargugabetzearen aldekoa? Lehenago aipatu dugun kontua errepikatu beharko genuke, hurrean: kutsu administratiboagoa ideologikoa baino areagoa, zinegotzi urduliztarraren ibilbidearekin bat etortzen zena. Modu guztietan ere, geroago, Udala 1933ko urtarriletik maiatzera gobernatu zuen Batzorde Kudeatzaileko kide izan zen Olea.

1933ko apirilaren 23an udal hauteskunde partzialak egin ziren udalerrri txikietan. Haien deialdia eginda, zehaztasun handiz prestatu zituen Acción Republicanak, Alderdi Sozialistak eta Alderdi Radical Socialistak osaturiko multzo errepublikanoak. Hiruren artean eraturako Hauteskundeetako Batzorde “*errepublikano-sozialistak*” hitzordua jarri zuen Bilboko Kasino Errepublikanoan, “*hauteskunde kanpainarekin zerikusia duten jarraibideak emateko*” elkarte bakoitzeko ordezkari. Urdulizkoa haien artean zegoen. Biharamunean, Hauteskunde Erroldako udal batzar bakoitzak hautagaiak aldarrikatu zituen eta, egun hartan berean, mitinak egin ziren Berangon, Sopelan, Urdulizen eta Armintzan. *El Liberal*ek argitaratu zuenez, ekitaldi horietara “*jendetza etorri zen, su handiz txalotu zituena*” aipaturako alderdien ordezkariak. Urdulizko mitina arratsaldeko lauretan hasi zen, honako hauek hizlari zirela: Luis Aldecoa, Acción Republicanakoa, Rafael Gamo, PRRSkoa, eta Aurora Arnaiz, PSOEkoa<sup>605</sup>. Txundigarria zen, nonbait, emakume bat etortzea berba egitera.

Urdulizen, hauteskunderen emaitza ezin txarragoa izan errepublikanismoarentzat: ordezkari barik geratu ziren udalean, eta EAJk bereganatu zituen postu guztiak. Nazionalistek Barrikako eta Gatikako udaletan ere egin zuten arraso; berriz, Sopelan eta Berangon, ezkerak hiru zinegotzi lortu zituen hurrenez hurren, eta EAJk, oster, sei<sup>606</sup>. Zalantza barik, Urdulizko emaitza makilakada itzela izan zen herriko errepublikazaleentzat. Haien jarduera politikoa galgatuko zuten arrazoietako bat izango zen hura.

Moteltze politikoaren kontu honetan ezin gara, hala ere, 1933ko udaberrian bizi izan zen bortizkeria politikoaz ahaztu. Egoera horren lekuko dira, esate baterako, nazionalisten protesta Errepublikako lehendakari Niceto Alcalá Zamorak Bilbora egindako bisitagatik<sup>607</sup>, edo Usansoloko gertakariak, maiatzaren 14an, zeinetan errepublikanoen eta nazionalisten arteko buruz buruko bortitz batek hainbat zauritu ekarri baitzituen alde bietatik, eta hildako bi, tiro trukeen ondorioz: Esperanza Zapata, Begoñako Batzorde Erradikal Sozialistako lehendakariaren emaztea, eta Iñaki San Miguel *gaztetxua*.

---

605 *El Liberal* 1933-4-15, 1933-4-16 eta 1933-4-18

606 *El Liberal* 1933-4-25

607 GRANJA SAINZ, 25.



Bortizkeria egoera horren eraginez, deialdia egin zen batzar baterako, Berangon, maiatzaren 21ean. Hartan bildu ziren Nerbioiko itsasadarreko eta Uribe Kostako errepublikazale guztiak, besteak beste Urdulizko Acción Republicanakoak. Bileran, batzorde bat sortu zen sostengua bilatzeko alderdien arteko batzordean, UGTn eta “ezkerreko gainerako alderdietan”, zertarako eta “neurri bizkorrek hartzeko herrietako demokraziaren alde”, izan ere beldur ziren zurrunbilo bortitzak Zentro Demokratikoen desagertzea ekarriko ote zuen. Alde horretatik, hona zer adierazi zuten:

*“(...) ante la postura de absoluta indefensión tenemos el temor de que los componentes de los mismos se vayan dando de baja, causando la desaparición de las Sociedades dichas, por consunción”<sup>608</sup>.*

Erljioaren eta autonomiaren auziak izan ziren bortizkeriaren eragileak. Haietaz, sakonago jardungo dugu aurrerago. Beste alde batetik, 1933ko azaroko Gorteetarako hauteskondeek “ezkerren hondamendia” ekarri zuten Espainian, eta “are hondamendi handiagoa Euskadin eta Nafarroan”. Zalantza barik, neurri antiklerikalek zerikusi handia izan zuten horretan, Gobernuko lehendakari Manuel Azañak berak onartu zuen legez: “boterearen galerak euren antiklerikalismoa ezitizera bultzatu zituen ezkerrek”<sup>609</sup>. Urdulizen nabarmen geratu zen EAJren gorakada; jeltzaleek Bigarren Errepublikako emaitzarik onenak lortu zituzten hauteskunde haietan. Errepublikanoek, berriz, apur bat handitu zuten euren botoa, Gorteetarako 1931ko hauteskundeetan: orduan Indalecio Prietok 19 boto eskuratu zituen, eta 47 boto, berriz, 1933koetan.

Dena dela, bortizkeria ez zen faktore bakarra izan errepublikanismoaren itomena azaltzeko Uribe Kostako herrietan. Eskualdean inoiz ez zuen hazteko adina indarrik hartu. Elizate hauetan katolikotasuna indartsua zen eta hori bateraezina gertatzen zen errepublikanismoaren nortasun zeinu bereizgarrietako batekin: laikotasuna, askotan modu antiklerikalean adierazten zena. Kontu horrek, zalantza barik, modu argian galgatu zuen haren hazkundera. Gatazka sozialei eskaintzen diegun kapituluan garatuko dugu laikotasunaren eta katolizismoaren arteko dema ori.

Beste alde batetik, eta kontuan harturik ideia ezkertiarak, Uribe Kostan, alderdi errepublikanoen bitartez bideratzen zirela, interesgarria gertatzen da horiek Bizkaiaren osotasunean zuten indarra eta bilakaera aztertzea. PSOEek edo EAJK, kasurako, antolakuntza egitura sendoak eta militantzia finkatua zeukaten euren gotorleketan. Ostera, ezin dezakegu berdin esan alderdi errepublikanoen gainean. Eta Urduliz zer eskualdetan dagoen aintzat hartuta, erraza da ahuleziaren sintoma guztiak aurkitzea

---

608 *El Liberal* 1933-4-25.

609 GRANJA SAINZ, 23.

Gomuta dagigun PRRk 1931ko bigarren zatian lortu zuela eskualdean ezartzea. Hala eta guztiz, nagusitasun hori kolokan hasten da 1932an; urte hartan, esate baterako, Urdulizko errepublikanoak ez dira dagoeneko PRR moduan agertzen, ezpada Acción Republicana moduan. Jon Penche historialariaren ustez, 1933ko hauteskondeek PRRri ekarri zioten porrotarekin hasi zen maldan behera. Bozketak baino apur bat geroago, zenbait alderdikidek alde egin eta Partido Republicano Radical Autónomo sortu zuten, ezkertiarra eta *“erradikalismoa eskuma aldera hartzen ari zen ezbiderearen kontrakoa”*. Banantze horren ostean, PRRk ez zuen ia jardunik izan. Horri gehituta 1933az geroztik *“gobernu ardurak hartu izana”*, alderdia erabat jota geratu zen, *“kasik desagertzeraino”*<sup>610</sup>.

Garbi dago, orokorrean, eskualdeko errepublikanoak birkokatzen zebiltzala. Alde horretatik, argigarria da Plentziako Kasino Errepublikanoko batzar orokorrak 1933ko abuztuaren 2an hartutako erabakia. Hartan eztabaidatu zen *“programa errepublikanoen artean zein zen, funtsean, probetxugarriena Errepublikaren etorkizunerako”*. Plentziako errepublikanoak batzen zituen *“adiskidetasun eta senidetasun lokarriak apurtu ez zitezen”*, bozketak modu nominalean egin zen. Azkenik, *“botoetan nagusi-nagusi zela”* onetsi zen *“Kasinoari eman beharreko izena (...)Kasino Errepublikano Erradikal Sozialista izatea”*. Erabaki horrek ez zekarren berekin *“gutxiengoaren eskubideak alde batera uztea”*. Alderantziz, horiek errespetatu egingo ziren eta *“behar adina jende izanez gero, beren Batzordeak antolatu ahal izango zituzten Kasinoaren barruan, lokalari eusteko euren kotizazioak ordainduz”*<sup>611</sup>. Hau da, Kasinoak edozein errepublikanoentzako biltoki izaten jarraitzen zuen, zein zen ere haren alderdia. Sopelako Zentro Demokratikoak eginkizun bera betetzen zuen, zalantza barik, aterpea emanez bai Acción Republicanari bai Elkarte Sozialistari, 1933ko urtarrilaren 22an eratu zenetik<sup>612</sup>. 1933ko abuztuaren, Berangoko Elkarte Demokratikoak batzar orokor berezia egin zuen, *“bere burua definitzeko izaera politiko zehatz batekin”*. Emaitzak elkarte berangotarraren osaera anitza jarri zuen agerian. Hona zer erabaki zuten, *“kideek alderdi desberdinen aldera duten isuria ikusirik”*:

*“(...) formar tres Comités que organicen las tres Agrupaciones en que en adelante se dividirá la Agrupación actual: Agrupación Socialista, Agrupación Radical Socialista y Agrupación de Acción Republicana, siendo los socialistas los que con mayor contingente cuentan”*<sup>613</sup>.

1933ko maiatzetik aurrera, Urdulizko Acción Republicana desagertu zen ia *El Liberal*en orrietatik. Badakigu 1934an “existitzen” jarraitzen zuela, haien gainean *Euzkadi* egunkariak albiste bat atera zuelako 1934ko irailean, Udalaren kargugabetzearen eta Batzorde Kudeatzaile batek ordeztzearen haritik. Hurrean, *“Acción Republicanakoei Batzorde Kudeatzailearentzako postuak”* eskaini zitzaizkien, baina haiek uko, *“herriaren borondatearen aurka”* jo nahi ez

610 PENCHE GONZÁLEZ, 176-179

611 *El Liberal* 1933-8-6

612 *El Liberal* 1933-1-20 eta 1933-2-8

613 *El Liberal* 1933-8-17

zutelako<sup>614</sup>. Kontua da “*Acción Republicana*” izendapena zaharkiturik zegoela. Madrilen, 1934ko apirilaren 1ean eta 2an, bai alderdi horrek bai Partido Radical Socialistak desegitea erabaki zuten alderdi berri bat sortzeko: Izquierda Republicana. Errepublikaren defentsa zen alderdi jaio berriaren xedea, “(...) *Errepublika bere etsaiek goberna ez dezaten (eta) Errepublikaz inor balia ez dadin bera barrutik suntsitzeko*”. Beste alde batetik, prest agertu zen “*ezkerreko indar politiko guztiekin aliantzak eratzeko*”<sup>615</sup>.

1934ko apirilaren 8an, Acción Republicanakoek eta erradikal sozialistek bilera bat egin zuten Bilbon bi alderdiak desegiteko urratsak ezartzearen. Ordura arteko zuzendaritzak deuseztatu ziren eta behin-behineko erakundeak ipini ziren haien orde, toki eta probintzia mailako batzarrak beren erregelamenduak onesten zihoazen bitartean<sup>616</sup>. Hartara, *El Liberal* egunkariak apirilaren 11n atera zuen Partido Republicano Radical Sozialistako Plentziako elkarteak desegiteko erabakia hartua zuela “*Izquierda Republicana alderdiari lotzeko*”<sup>617</sup>. Egun bi geroago, Errepublikaren hirugarren urteurrenaren bezperan, erakunde plentziar berriak telegrama bat bidali zion Errepublikako lehendakariari bere “*pena samina*” adierazteko eta “(...) Errepublikari zauri eta mehatxu gaizto bat bezala ezarritako *norabide berriak*” deitoratzeko<sup>618</sup>. Zalantza barik, Plentziako Izquierda Republicana bere desadostasuna erakusten ari zen Estatuko Gobernu hartzen ari zen neurri politikoan aldera, suntsitzera etotzen ziren-eta lehenengo Biurteko Errepublikanoan abiatutako erreformak.

Bilbon, apirilaren amaieran sortu zuen Izquierda Republicanak bertako elkarte. Antolakunde probintziala, berriz, uztailaren 9an eratu zen, bertan zirela Izquierda Republicanako Bizkaiko toki batzorde guztietako ordezkariak<sup>619</sup>.

Inondik ere, nazionalismoari jazo zitzaion legez, errepublikanismoaren eta ezkerren jarduera galgatuta utzi zuten euskal udalen gatazkaren amaierak eta 1934ko Urriko Iraultzak.

1935eko uztailan topatzen dugu errepublikano urdulzarrei buruz prentsak egindako azken aipamena. 14an “*ezkerren elkarretaratzea*” egin zen Barakaldoko Lasesarre zelaian. Ekitaldi nagusia Manuel Azañaren mitin bat izan zen, *El Liberalek* esan zuenez 70.000 entzule baino gehiago bildu zituen. 13an, egunkari horren orrietatik, Plentziako elkarteak dei egin zien “(...) *Lemoizko, Gorlizko eta Barrikako alderdikide eta irizkideei* ” Lasesarreko mitinera joateko Plentziatik eguerdiko ordu batean irteten zuen trenean. Gainera, erregu egin zitzairen “(...) *Urdulizko, Sopelako eta Berangoko elkarteei, tren horrekin bat egin dezaten, antolakuntzari erraztasun handiagoak ematearren eta gure tokiak*

---

614 *Euzkadi* 1934-9-13

615 PENCHE GONZÁLEZ, 188-189

616 PENCHE GONZÁLEZ, 190-191

617 *El Liberal* 1934-4-11

618 *El Liberal* 1934-4-4

619 PENCHE GONZÁLEZ, 190-191

*garaiz okupatzeko moduan heltzearren*<sup>620</sup>. *Euzkadi* egunkariko korrespontsalak, *Txiberrik*, ekitaldi hori jaso zuen, ironiaz azalduz Urduliztik “(...) *lau*” lagun baino ez zirela joan Azañaren mitina entzutera<sup>621</sup>. Ziriak ziri, iruzkinak islatzen du errepublikanismoak udalerrian zuen indar txikia.

Gorteetarako 1936ko otsaileko hauteskundeen deialdiarekin badirudi zelanbaiteko berpizte bat bizi izan zuela errepublikanismoak eta Fronte Popularrean batutako ezkerak.

Esate baterako, *El Liberal* egunkariak artikulu bat argitaratu zuen otsailaren 8an, Armintzako errepublikanoen egoeraren gainean. “(...) *Arrantzale-portu herrikoi honetan (...) 16an egin beharreko hauteskundeak baino lehen*” errepublikanoek gorde zuten isiltasunak beharbada pentsarazi zien halako batzuei “(...) *ez garela existitzen, denbora honetan guztian bizi seinalerik eman ez dugulako*”. Horren zergatia azaldu zuten: “(...) *ez dugu bizi seinalerik eman nahi izan*”, baita honako hau azpimarratu ere:

*“(...) en Arminza aún existe, y existirá, nuestra querida Agrupazio de Izquierda Republicana, y hoy vamos a demostrar a la genticilla derechista que aunque, como dicen ellos, somos “cuatro gatitos”, tenemos las uñas bien afiladas para defender la República; pero no ésta, sino la otra, la del 14 de abril (...)”*<sup>622</sup>.

Ezelango zalantza barik, delako isiltasuna 1934ko gertakarien osteko desaktibazio politikoaren ondorioa dugu, inondik ere handiagoa izan baitzen herri txikietan, hau da, elkarteetako kide kopurua urriagoa zen tokietan.

Fronte Popularrak ekitaldi batzuk antolatu zituen eskualdean: otsailaren 9an Mungian, Plentzian eta Sopolako frontoian<sup>623</sup>.

Hauteskundeen bigarren itzulirako, martxoaren 1ean, ekitaldiak egin ziren Fruizen eta Gatikan, biak hizlari berekin, horietatik bi euskaraz<sup>624</sup>. Gatikako ekitaldiaren kronikari esker badakigu herri horretan Izquierda Republicanak elkarte bat zuela eta Juan Bautista Zugazagak egiten zuela bertan buru. *Cantaclaro* korrespontsalaren kontakizunaren arabera, ekitaldiko entzuleak “(...) *sexu bietako nekazariak ziren guztiak (...)*”. Kronikariak bere poza agertzen zuen ikusirik-eta “(...) *baserritarrak itzartzen dabiltzala eta borroka politikoan parte hartzen dutela, orain arte herri hauetan inor ez zelako etortzen modu honetako ekitaldietara, batez ere emakumeak (...)*”<sup>625</sup>.

620 *El Liberal* 1935-7-13, 1935-7-14 eta 1935-7-16.

621 *Euzkadi* 1935-7-26. “AZAÑA'RI ENTZUTERA. – Erri onetatik lau juañ ei-zirian España'tar izlari oneri entzuten, bategaz berba egin dogu ta joakezan baño buru ilunago ekarri ei dau, ulertu ez gizona ulertu ez ta alan ta guzti be goratu egiten eben. Amakatxu kokolo bayagok”.

622 *El Liberal* 1936-2-8.

623 *El Liberal* 1936-2-9.

624 *El Liberal* 1936-2-26.

625 *El Liberal* 1936-2-29.

Itxura guztien arabera, bozketen ostean, Plentzia agertu zen Uribe Kostako errepublikanismoaren eta ezkerren erdigune. Hartara, 1936ko martxoaren 14an, dei egin zitzaien “*Fronte Popularrak Plentzian, Gorlizen eta Barrikan dituen zaleei, “El Bodegón”era (...)”* etor zitezen<sup>626</sup>. Apirilaren 10ean, berriz, “(...) *Izquierda Republicanako Plentziako elkarteko alderdikideak*” bildu ziren “(...) *ohiko lekuan (...)”* eta biharamunean gauza bera egin zuten “(...) *Plentziako, Gorlizko eta Barrikako Elkarte Sozialistakoek (...) toki berean (...)”*<sup>627</sup>.

Hain zuzen ere, Plentziako Elkarte Sozialistak antolatu zuen Langileen Eguneko ospakizuna, 1936ko maiatzaren 1ean. Programaren arabera, kalejira bat izan zen goizean, “*kafe bat egoitzan, arratsaldeko ordu bietan*” eta ostean ibilaldi bat Barrika-Basoraino, non proba atletikoak egon baitziren. Horren segidan etorri zen musika – “*soinu hautak, Langileen Egunerako aproposak*” – eta “*senide arteko merienda bat*”. Ekitaldiei amaiera eman zitzaien Plentziarara itzuliz eta musika joz “*Juan Abrisqueta plazan*”<sup>628</sup>. Handik labur, Nazioarteko Sorospen Gorriak txango bat antolatu zuen Plentziara, ekainaren 14an. *El Liberalen* arabera, hiribildu itsastarreko bizilagun gehienek ongi etorri beroa egin zioten, are bertako alkate Luis Uchupi nazionalistak ere<sup>629</sup>.

Laburbilduz, Urdulizi bagagozkio, 1934ko iraileko eta 1935eko uztailera bi aipamenak kenduta, ezer gutxi dakigu, 1933ko maiatzetik aurrera, bertako errepublikanoen gainean. Antolakundeak ukituta geratu zen 1933an Udalean zeukan ordezkaritza galdu eta gero, eta are joagoa agertu zen 1934ko udako eta urriko gertakarien ondoren. Gorteetarako 1936ko otsaileko hauteskundeetan, Fronte Popularreko hautagaien emaitza ez zen nabarmentzekoa izan, 49 boto batz besterik; aurreko deialdien ildotik, beraz, eskumen hautagai-zerrendak aurreratatu bazuen ere, 67 boto bildurik<sup>630</sup>.

Zeharkakoa bada ere, 1936an daukagun bertako datu bakarra Urdulizko mutikoen eskolako zuzendari Andrés Martínek ekarri zuen, gerraren ostean haren kontra ireki zen auzian. Hain zuzen ere, adierazi zuen 1936ko abuztuaren 21ean afiliatu zela Plentziako Izquierda Republicanan “(...) *1933ko hauteskundeetan, Madrilan, C.E.D.A.ko artekaria izan izanak ekarri ahal zizkion arazoak saihestearren (...)”*<sup>631</sup>. Datu horrek pentsarazten digu Urdulizko antolakunde errepublikanoa indargabeturik zegoela, aipatu maisua Plentzian afiliatu behar bazuen. Badakigu, ostera, Urdulizko orduko alkate Benito Otazuak egiaztaturik, 1937ko apirilean EAJ beste alderdirik ez zegoela udalerrian ezarria<sup>632</sup>.

---

626 *El Liberal* 1936-3-13.

627 *El Liberal* 1936-4-10.

628 *El Liberal* 1936-4-28.

629 *El Liberal* 1936-6-17.

630 *El Liberal* 1936-2-18.

631 ARCHIVO GENERAL E HISTÓRICO DE DEFENSA (A.G.H.D.), Madrilgo funtsa, 31035 sumarioa, 3185 paper-sorta.

632 C.D.M.H. P.S. Madril, 876, *Oraingo erregimenaren kontrakotzat hartzen ditugun banakakoen zerrenda* 1937-4-29.

### 2.2.3 Eskumak Urdulizen

“Eskumak Urdulizen” epigrafearen azpian erabaki dugu Estatu mailako sektore kontserbadore guztiak elkartzea, hala nola monarkikoak. Horrela egin dugu Bigarren Errepublikan alderdi hauek ahulezia handia agertu baitzuten, udalerrian ez ezik, eskualde osoan ere, non nazionalistak nagusi baitziren.

Errestaurazioaren garaian, indar monarkikoez izan zuten nagusitasun politikoa Bizkaia landatarrean. 1917az geroztik, ostera, abertzaletasuna hasi zen hauteskundeetan lehen garaipenak edukitzean. Hori ikusirik, 1919an, monarkikoak Liga Monárquicaren inguruan antolatu ziren. Hala ere, Javier Realek dioen moduan, Liga:

*“(...) nacía como un partido de notables, no de masas, vinculado a los grandes industriales y decidido a utilizar toda su influencia y dinero para derrotar al nacionalismo separatista. El éxito acompañaría sus esfuerzos consiguiendo restablecer su hegemonía política en la provincia”<sup>633</sup>.*

Primo de Riveraren diktaduraren etorrerak “(...) ordena sozial eta politikoa babestu zuen” arren, suntsitu zituen Bizkaiko kontrol politikoari eusteko monarkikoentzat baliagarriak izan ziren oinarriak. Alde horretatik, udalak ordezteak eta administrazio publikoari dagokionez hartutako bestelako neurriek birrindu zituzten dinastikoez ehundutako sare “kazikil eta klientelarrak”. Bestetik, alderdi monarkikoak ez ziren desegin, baina jardun barik egon ziren Diktadurak inposatutako partidua zegoelako, Unión Patriótica. “(...) Diktaduraren tresna horretako kide izan behar zuten Administrazioarekin zerikusia zuten kargudun guztiek”<sup>634</sup>.

Primo de Riveraren diktadura lurrera etorri zenean, dinastiaren aldekoak “(...) bananduta, desantolatuta, kikilduta eta boterearen makineria erabiltzeko aukera barik” zeuden. Antolaketa falta hori bere horretan zegoen 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeetan deialdia egin zenean. Bozketa horien bezperetan, dinastiaren aldeko zenbait indarrek, Liga Monárquica edo Tradizionalistak tarteko zirela, koalizio bat eratu zuten: *Candidatura de Concentración Monárquica y de Derechas*, “(...) sektore katoliko eta eskumako guztiak atzera ere elkartu” guran. Hala eta guztiz, helburu hori ezin izan zen bete nazionalistek eta tradizionalista jaimistek euren hautagai-zerrendak aurkeztu zituztelako. Horregatik, katolikoak “(...) beharturik egon ziren botoa guztien artean sakabanatzera”. Hautagai-zerrenda monarkikoak bere nagusitasunari eutsi zion Bizkaiko 6.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan, probintziako landa eremuan “(...) monarkikoen kontrolpeko kazikismoaren sare tradizionalak” bizirik zirauten seinale. Bilboko emaitzak oso kaskarrak izan ziren haien artean, 46 zinegotziren artean 3 baino ez zituzten lortu-eta<sup>635</sup>.

633 REAL CUESTA, Javier: “Los partidos monárquicos en Vizcaya durante la Segunda República” in *Estudios de Deusto*, lib. 57/1, Bilbo, 2009ko urtarrila – ekaina, 209-235, aipamena 214.

634 *Ibid.*, 214-215.

635 REAL CUESTA, 215-218

Lehenago esan dugun legez, Urdulizen udalbatza 29. artikulua aplikatuz eratu zen, sei nazionalista, errepublikano bi eta komunista bat zeuzkala barruan. Sopelan, zinegotzi monarkiko bik zazpi nazionalista zituzten aurrean. Laukizen, zazpi zinegotzitik bi monarkikoak ziren, bi independenteak eta hiru nazionalistak. Getxon, EAJren garaipena itzela izan zen, hamabost zinegotzi lorturik<sup>636</sup>, eta monarkikoek hiru, herri horretan bizi arren “(...) *korronte monarkikoko buruzagi eta pertsona esanguratsuenetiko asko*”<sup>637</sup>. Plentzian, *El Liberal*ek jaso zuenez, monarkikoek bost zinegotzi eskuratu zituzten, EAJk hiru eta “*antimonarkikoek*” bi<sup>638</sup>. Esan bezala, maiatzaren 31n udal hauteskundeak errepikatu ziren zenbait herritan, besteak beste Plentzian, eta emaitza orokorrak agerian jartzen du zelan desagertu ziren zinegotzi monarkikoak: haietako asko, 1931ko apirilko hauteskundeetan ataripe dinastikoaren azpian edo independente moduan aurkeztu ostean, nazionalismoa edo errepublikanismoa loditzera pasatu ziren. Plentzian bertan, esate baterako, EAJk bere eskutan hartu zuen Udala.

Hori nahikoa ez izan eta, beste kolpe batek jarri zuen kolokan monarkikoen biziraupena. 1931ko apirilaren 21ean, Probintzietako Aldundiak kargugabetu eta Batzorde Kudeatzaileen esku geratu ziren. Behin-behineko ezarri ziren arren, Errepublikak iraun zuen denbora guztian eutsi zitzairen. Modu horretan, dinastikoek guztiz erakunde indartsuaren kontrola galdu zuten<sup>639</sup>.

1931 guztian, Bizkaiko monarkikoek “(...) *desantolatuz, uzkuruz eta txunditurik jarraitu zuten*”. Gorteetarako 1931ko ekaineko hauteskunderi begira, Juventud Monárquicak sostengua agertu zion “*Estatutuaren aldeko hautagai-zerrendari*”. Ostera ere antolatzeke saioetan, euskal eskumak ez zuen geldotasunetik irten harik eta, 1933aren hasieran, Renovación Española eratu zen arte. Alderdi berriak “(...) *doktrina tradizionalista, antiliberal, katoliko eta iraultzaren kontrakoari segitzen zion kontu funtsezkoenetan*”. EAJrekin katolizismoa partekatzen zuenez, Renovación Españolak oraindino uste zuen posible zela nazionalistekin akordioetara heltzea<sup>640</sup>.

Renovación Española Acción Popularreko zatiketa baten kumea zen, hasieran Acción Nacional deitu zena. Alderdi hau 1931ko apirilean sortu zuen katoliko talde batek, sistema errepublikanoaren barruan erlijioa babesteko asmotan. Sanjurjoren estatu-kolpe saiakeraren ostean (*sanjurjada*), 1932ko abuztuan, Acción Popularrek beharrezkoa ikusita, areagotu zuen indarrean zegoen legeriari men egiteko jarrera. Horrekin ados ez zeudela monarkiko batzuek Acción Popular utzi eta Renovación Española sortu zuten, esan bezala, 1933aren hasieran.

---

636 *Euzkadi* 1931-4-14.

637 REAL CUESTA, 218.

638 *El Liberal* 1931-4-14.

639 REAL CUESTA, 218-219.

640 *Ibíd.*, 219-225.

1933ko martxoan, CEDA sortu zen Estatu mailan (Confederación Española de Derechas Autónomas), erregio eremuko alderdi eskuindar multzo bat elkartuta. CEDA Estatuko indar eskumati garrantzitsuena bihurtu zen, *masa-alderdi* bat izateraino. 1933ko azaroko hauteskundeetarako, CEDAk koalizioa osatu zuen zenbait alderdirekin, besteak beste Renovación Españolaekin.

Bizkaian, porrot egin zuten Renovación Españolaren ahaleginek EAJ bloke kontrairaultzailean sartzeko; berriz, tradizionalistenganako hurbilketak hautagai-zerrenda bateratua ekarri zuen Gorteetarako 1933ko azaroaren 19ko hauteskundeetarako, hautesbarruti bietan: *Bizkaia-Hiriburua eta Bizkaia-Probintzia*. EAJrekiko negoziazio guztien hausturak bere arrastoa utzi zuen Renovación Españolan: handik aurrera antiseparatismoa sartu zuten euren programan<sup>641</sup>.

Uribe-Kosta Bilboko Barrutian zegoen (*Bizkaia-Hiriburua*); bertan, lau hautagaik osatzen zuten aliantza eskuindarra: batetik, Pilar Careaga, Renovación Españolakoa, eta Adolfo González de Careaga, monarkiko independentea, eta bestetik, Luis Lezama Leguizamon eta Hermogenes Rojo tradizionalistak. Urduliz aldean honako hauek izan ziren hauteskundeetan lortutako emaitzak:

<b>GORTEETARAKO 1933-11-19KO HAUTESKUNDEEN EMAITZA. Eskumen zerrenda</b> <sup>642</sup>				
	<b>Pilar Careaga</b>	<b>Luis Lezama</b>	<b>Adolfo G. Careaga</b>	<b>Hermogenes Rojo</b>
<i>Barrika</i>	7	7	7	7
<i>Berango</i>	125	125	125	125
<i>Gorliz</i>	18	18	18	18
<i>Getxo</i>	1506	1501	1483	1456
<i>Laukiz</i>	-	-	-	-
<i>Plentzia</i>	230	228	230	232
<i>Sopela</i>	45	45	45	45
<i>Urduliz</i>	25	26	26	25

641 REAL CUESTA, 225-226.

642 *Euzkadi* 1933-11-21.



Estatu mailan, eskumako koalizioa beste indarrak baino gehiago izan zen bototan, eta 115 diputatu lortu zituen. Zenbaki horrek, ostera, ez zien bakarkako gobernu osatzeko aukerarik ematen. Azkenik, CEDAk sostengua eman zion Lerrouxek, Partido Radicaleko buruak, osatutako Gobernuari. Horren ondorioz, eskumek eskatzen zituzten neurriak aplikatu behar izan zituen erradikalen gobernuak, hau da, ezkerreko gobernuak abiarazitako erreformen geldiketa. Modu horretan, aurrera egin barik geratu ziren nekazaritzaren, armadaren eta hezkuntzaren erreformak.

Hauteskundeen ostean, Renovación Española bakarrik geratu zen “(...) CEDAren esparrutik kanpora”, konfederazio eskuindarraren estrategia politikoak “(...) legeria errepublikanoaren onarpenean oinarrituta egonda, beharrezkoa egiten zuelako eskuma monarkiko gero eta erradikalizatuagotik bereiztea, eta zer esanik ez karlismotik”. Modu horretan, 1934ko maiatzean apurtu zen hauteskunde-koalizioa. Urriko Iraultzaren ostean, CEDA Gobernuan sartu zen. Renovación Españolako monarkikoen isolamendu politiko erabatekoa ekarri zuen horrek, “(...) Errepublikari oposizio ia-ia testimoniala egiten zion eskuin muturreko alderdi minoritario baten itxura harturik”<sup>643</sup>.

Hasiera baten, Renovación Española “(...) Bizkaiko inguru oligarkiko dinastikoetan” baino ez zen zabaldu, ez zen-eta ondo egokitzen “(...) monarkismoaren ikusmolde epelagoekin edo hain jarrera erradikala agertzen ez zutenekin”. Halako sektore moderatuagoetara gerturatu guran sortu zen *Unión Vascongada*<sup>644</sup>. Lehenengo zirkulua Karrantzan sortu zuen, 1934ko maiatzean<sup>645</sup>.

1934ko udan, euskal udalen gatazkak aukera ematen digu *Unión Vascongadari* buruzko datu batzuk jakiteko, prentsaren bitartez. Herriko etxeen eskakizunen aurkakoa izan zen indar eskuindarraren jarrera. Hartara, 1934ko abuztuaren 6an, *El Nervión* egunkariak alderdi horren ohar ofizial bat argitaratu zuen, non eskatzen baitzien “(...) Bizkaiko probintziako hurbileko alkate eta zinegotzi guztiei (...) inondik ere ez parte hartzeko Udallerrien Batzorde delakoarekin zerikusia duen ezelango jardueratan”, legez kanpokotzat jotzen zituen-eta batzorde horrek deitutako zeharkako hauteskundeak<sup>646</sup>. Irailaren 6an, alkate eta zinegotzien dimisio kolektiborako hautatutako dataren bezperan, *Unión Vascongadak* ostera ere jo zuen bere alkate eta zinegotziengana, honako hau eskatzeko:

*“(...) que continuarán en sus respectivos puestos, para garantizar la continuidad de la vida administrativa de los Ayuntamientos, sirviendo con ello a un tiempo a los intereses municipales que las fueron confiados y a los intereses (...) de la nación española (...)”*<sup>647</sup>.

---

643 REAL CUESTA, 227.

644 *Ibíd.* 229.

645 PLATA PARGA, Gabriel: *La derecha vasca y la crisis de la democracia española (1931-1936)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Diputazioa, 1991, 76.

646 *El Nervión* 1934-8-6.

647 *El Nervión* 1934-9-6.

Udalbatzen dimisioak eta haien ordez gobernadore zibilak ezarritako Batzorde Kudeatzaileak piztu zuten prentsaren erantzuna. Batez ere *Euzkadi* egunkaria argitara ematen hasi zen udal kudeatzaile berrien joera ideologikoak.

Urdulizen, noizbait esan dugunez, egunkari jeltzaleak Agustín Menchaca Urquizu zinegotzi ohiaren aldera luzatu zuen atzamarra, baita *Gau-txori* gaitzizena ezarri ere. Egunkari abertzaleak zioenez, Menchaca zen udalerrian “(...) *Unión Vascongada*”koen burua (...)”, eta, nonbait, alderdi kontserbadorearen “(...) *mandatuak ederto*” betetzen zituen. Liga Monárquicaren gaineko aipamenak ere ez dira falta, aditzera ematen duelarik Udala geratuko zela “(...) *lehenago Liga Monárquicakoak zirenen eskutan*”, baina oraingoan, zehazten zutenez “(...) *horiek Gau-txoriren agindupera egonda*”<sup>648</sup>.

Adierazi berri dugun guztiak islatzen du zabaltzeko zer urrats segitu zuten Unión Vascongadako buruzagiek. 1933az geroztik, ekin zieten “(...) *lehenagoko sare monarkikoetatik geratzen ziren hondarrak*” erabiltzeari. Hartara, herriz herri eta auzoz auzo abiatu ziren Bizkaian zehar:

*“(...) reuniendo a los antiguos caciques de la Liga (alguno de los cuales se había hecho republicano). Aquí una familia influyente, allá un exalcalde, el cura, la superiora de un convento, un médico influyente, un rico, un aldeano listo...”*<sup>649</sup>.

Agustín Menchacaren figura ondo egokitzen da soslai horretara. *Euzkadi* egunkariak jaso zuen, lehenago esan bezala, Urdulizko zinegotzi ohiak Bigarren Errepublika aldarrikatu zenetik egindako ibilbidea. Haren hasieran, Menchaca “(...) *euskal komunista agertu zitzaigun*”<sup>650</sup>. Aurrerago, “*prietistatzat*” jo zuen bere burua, eta “*geroago, monarkikotzat*”. Hori guztia, egunkari abertzaleari kasu egitera, Unión Vascongadan amaitzeko<sup>650</sup>. Dena dela, atzerago azaldu dugunez, *Euzkadik* esandakoagatik ere, Menchacak, azkenean, ez zuen ezelango posturik bete 1934ko irailean izendatutako Udal Batzorde Kudeatzailean.

Beste alde batetik, Unión Vascongada jardun desberdinetan ibili zen herrietan sostenguak eskuratzearen. Bazeukaten Idazkaritza Sozial bat, eta bertan, jardunean, “(...) *lan-poltsa bi, lanpostuak emateko, bata lehorrean eta bestea itsasoan*”. Gabonetan arropa eta jatekoak banatzen ere ibili ziren<sup>651</sup>.

---

648 *Euzkadi* 1934-9-13.

649 PLATA PARGA, 77.

650 *Euzkadi* 1934-9-13.

651 PLATA PARGA, 78.

Gatazka sozialei eskainiko diegun atalean kontatuko dugun legez, *El Liberal* egunkariak salatu zuen Plentzian, 1935eko Gabonetan, bakailao gazitua eta tomate poteak banatu zituztela herriko familia behartsuen artean. Banaketa, ostera, “(...) klase dirudunen ale jator baten” etxean egiten zen, itxuraz.<sup>652</sup> *Euzkadira* ere heldu zen partiketa horien oihartzuna; egunkariak, 1936ko otsaileko hauteskundeen hitzordu hurbilarekin lotzen zituen, baita, kasualitatez, “(...) mademoiselle Kareaga”, hau da, Pilar Careaga, Plentziara etortzearekin<sup>653</sup>.

Unión Vascongada ez zen eskuma moderno baten isla izan. Behin berriz baliatu zituen “(...) bitarteko kazikil eta paternalistak, jendeak hogeita hamarreko hamarkadaren bueltan iritsitako heldutasun politikoari ez zegozkionak”<sup>654</sup>. Hain zuzen ere, *Euzkadi* egunkariak, 1934ko irailean, Agustín Menchaca salatu zuen, Unión Vascongadaren Urdulizko itxurazko buruzagia, modu horretako portaerengatik. Egunkari nazionalistak Elizateko emakume batzuk mehatxatzea egotzi zion Menchacari, Gortetarako 1933ko azaroko hauteskundeak baino egun batzuk lehenago, baita honako hau gehitu ere:

“(...) iba por los caseríos de sus amos, aprovechando la ausencia de los etxeko-jaunak, amenazando a las etxeko-andrak con la expulsión de los mismos si no votaban la candidatura monárquica”<sup>655</sup>.

Plentzian jazotakoa ere aztertzeko modukoa da. Berrito ere *Euzkadi* egunkarian jaso ziren 1934ko iraileko Udalerako izendaturiko kudeatzaileak eta haien kidesun politikoak. Horri begira ostera ere ateratzen da eskumek ere Plentzian zuten bizitasun handiagoa. Esate baterako, Fidel Sendagorta monarkikoa<sup>656</sup> aipatzen zen<sup>657</sup>, egunkariaren arabera “(...) *Renovación Españolako burua Plentzian*”, baita Aramburu delako bat ere, itxuraz, CEDAk marinel-herri honetan zuten buruzagi nagusia eta, era berean, Acción Popularko tokiko batzordean buru egiten zuena<sup>658</sup>.

---

652 *El Liberal* 1936-2-9.

653 *Euzkadi* 1936-1-22.

654 [www.euskomedia.org/aunamendi/138002](http://www.euskomedia.org/aunamendi/138002) Hitza: Unión Vascongada.

655 *Euzkadi* 1934-9-13.

656 Fidel Sendagorta zinegotzi monarkiko moduan aukeratu zuten 1931ko apirilaren 12ko hauteskundeetan, nahiz eta, esanda daukagun legez, udalbatza horren bizitza sano laburra izan zen, Plentzian berrito ere udal hauteskunde deialdia izan zelako. Aitatzekoa da atzera ere zinegotzi ibili zela Ardoaren Estatutuaren gatazka zela-eta marinel-hiriari inposatu zitzaion Batzorde Kudeatzailean.

657 Sendagorta familiak aipamen bat dauka José María Areilzaren eta Lorenzo Vilallongaren lekukotasunean (PLATA PARGAN, 77 jasotakoa) Unión Vascongadaren hedapenean parte hartu zuten familiez eta pertsonalitatez berba egiterakoan, eta horien artean, euren feudoetan “kazike modu bizkorak” erabiltzen zituztenez, hala nola “(...) *Sendagortatarrek Plentzian*”.

658 *Euzkadi* 1934-9-15.

1935eko uztaillean, Unión Vascongadak probintziako batzarra egin zuen Bilboko Carlton hotelean. Garai hartan, alderdiak Luis de Urresti zuen buru, Getxoko Udalean 1934ko irailean ezarritako Batzorde Kudeatzaileko alkatea. *El Nervión* egunkariaren arabera, partaidetza itzela izan zuen bilera horrek:

*“(...) asistiendo delegados de casi todos los pueblos de Vizcaya, lo quedemuestra la extensión y pujanza que esta organización va adquiriendo, pues aunque estuvieron representados ochenta y siete pueblos hay organizaciones en algunos más”<sup>659</sup>.*

Une haietan, Karrantzan aipatu dugunaz gain, Unión Vascongadak egoitzak zituen Erandion, Santurtzin eta Larrabetzun, eta, gainera antolatze bidean zeuden Zalla, Amorebieta, Gernika eta Durangokoak<sup>660</sup>.

Bizkaian, CEDAren ezarpena “(...) *urria edo hutsaren hurrengoa*” izan zen, Javier Realen hitzetan,; beraz, eskuma umezurtz zegoen hemen, jarrera moderatuko alderdiei dagokienez. Hutsune hori bete guran sortu zen Derecha Vasca Autónoma, 1935eko urrian. Haren diskurtsoa autonomista zen, eta inondik ere ez muturrekoa. Hala eta guztiz, alderdi berriak “(...) *ez zituen bete jaiotzean piztutako itxaropenak*”. Polarizazioa zen estatuko bizitza politikoaren ezaugarri nagusia eta horrek ezinezko egiten zuen jarrera moderatuen arrakasta. 1936ko otsailerako hauteskunde deialdiak “(...) *muturreraino etsaitutako blokeak eratzera bultzatu zituen korrante guztiak, eskumakoak nahiz ezkerrekoak*”. Bizkaian, eskuma espainolistako indar guztiak fronte batean bateratu ziren hauteskundeetarako. Erradikaltasuna izan zen haien kanpainaren bereizgarria. Haien aldarriek marxismoa, laikotasuna edo EAJ zituzten jomuga; azken horri leporatzen zioten iraultzarekin eta ezkerrearekin elkar hartua ibiltzea, eta zalantzetan jartzen zuten jeltzaleen katolizismoa<sup>661</sup>. Horren adibidea dugu eskumako blokeak 1936ko otsailaren 13an Plentzian emandako mitina, hitzaldi guztiak EAJn korapilaturik. *Euzkadi* egunkaritik, erantzuna eman zien Plentziako *katoliko nazionalista batek*, arrantzale-herriko katolikoei gonbit eginez beren botoaren norabideaz hausnarketa egitera<sup>662</sup>. Mezu anti-nazionalistak bere eragina izan zuen Euskadiko hautesleen alderdi baten: EAJk nabarmen egin zuen behera, eta neurri berean egin zuen gora eskumen blokeak, eserleku gehiago lortu barik, baina<sup>663</sup>.

659 *El Nervión* 1935-7-15.

660 *Ibíd.*

661 REAL CUESTA, 230-234.

662 *Euzkadi* 1936-2-15.

663 REAL CUESTA, 230-234.

Kontserbadoreek, botoa lortzeko erabilitako kazikekerietan, familia xumeen artean janaria banatu ez ezik (kasurako, bakailaoaren eta tomate laten banaketa Plentziako familia behartsuen artean), boto erosketari ere ekin zioten, *Euzkadik* salatu zuenez. Egunkari nazionalistak, baserriarrei, gomendioa egin zien eskaintzen zieten dirua jasotzeko eta gero aurkako botoa emateko; orobat ohartarazi zien ez zutela euren botoa hitzartu behar dirua eskuratu barik: “*Kasurik ez egin agintzen badizute hauteskundeen ostean ordainduko dizutela*”<sup>664</sup>. Ez Urdulizen ezta inguruko herrietan ere ez dugu mota honetako kasu bakar bat ere jaso. Bai, ordea, baserri eta lurretako maizterrekin ideologia kontserbadorea zuten ugazabek erabilitako bortxa. Horren berri ematen digute, behintzat, Gerra Zibila bete-betean zegoela Errepublikaren kontraktatzat jotzen ziren jabeei irekitako espedienteetan agertzen diren salaketek. Geroago ikusiko dugunez gatazka sozialez berba egiterakoan, Urduliz, Sopela eta Barrika batera hartuta, zortzi kasu aurkitu ditugu gutxienez ere. Lehenago esaten genuen legez, modu horretako jokabideak ohikoagoak ziren Errestaurazioaren garaiaren hasieran, baina errentadoreak etxe barik geratzeari zion beldurak bortxarako tresna eraginkorra izaten jarraitzen zuten. Urdulizen, esate baterako, bizilagun bik salaketa aurkeztu zuten 1936ko abenduan, otsaileko hauteskundeetan behartuak izan zirelako “(...) eskumako hautagai-zerrendaren aldeko botoa ematera”, bestela *Dobaran Goicitik* botako zituztelako mehatxupean. Delako baserrian errentapean bizi ziren, Salabert Arteaga jaunena zelako<sup>665</sup>.

Espediente horietan agertzen diren datuei begira berreraiki dezakegu, halaber, zelan antolatu zuten eskumen blokeak 1936ko otsaileko hauteskunde kanpaina, Barrikako udalerrian. Kostaldeko herriko ugazabetako batek, Miguel Larrazabal Motak, deklaratu zuen mahaiko ikuskatzailea izan zela “*eskumaren alderdiaren aldetik (...), bozketarako lan egin ostean, alderdi bererako, Udal honetako orduko alkate Felipe Uriarte jaunak eskatuta*”. Batzorde Kudeatzaileko alkateak berak kontatu zuen zelan Miguel Larrazabalek hartu zuen bere gain hautagai-zerrenda kontserbadorearen aldeko propaganda Barrikan: hauteskundeak baino lehen, gizon bi agertu ziren Uriarteren etxean, “(...) *haietako bat, diputatua bera, eskumen alderditik aurkezten zirenetakoa*”, José M<sup>a</sup> Areilza, eta bestea, Martínez Rodas, eta “(...) *itaundu zioten bozketan nor egin zezakeen lan herri honetan*”. Orduko alkateak ez zuenez jakin izenik ematen behar horretarako, Areilzak eta bere lagunak “(...) *esan zioten ea abisatu nahi ote zien “Gambe” baserrian bizi ziren mutil batzuei (...): Juan eta Eustaquio Ordorica. Alkate ohia harremanetan jarri zen ordoricatarrekin eta, horren ondorioz, “haietako bat prest agertu zen” propaganda lanerako; berriz, “(...) besteak ezetz esan zuen, Sopelarako izendatua zegoelako; bi anaiek proposatu zuten Miguel Larrazabali esatea*”, nor eta Juan eta Eustaquio Ordorica bizi ziren baserriaren ugazaba.

---

664 *Euzkadi* 1936-2-15.

665 C.D.M.H., P.S. Bartzelona, 93 “Urdulizko Elizateko Udal Ikerketa Batzordeak “Salabert eta Arteaga” jaun-andreei irekitako espedienteak”.

José Alcorta Uriartek, baserriko errentadoreetako beste batek, lekukotasuna eman zuen adieraziz Larrazabalek inoiz ez ziola “(...) *batere ohartarazpenik eman hauteskunderi buruz*”. Jabeak, itxuraz, ez zen bere nagusitasunaz baliatu bere maizterrak behartzeko botoa emateko orduan<sup>666</sup>.

Arestian ohartarazi dugun legez, errentadorea, bere egoera zela medio, ugazabaren bortxa eta mehatxuen mendean zegoen. Mahaiko ikuskatzaile izendatua izatera behartzen ahal zuen, gainera, eskumen hautagai-zerrendak, ideologia horretakoa ez izanagatik ere. Barrikako *Olaguibena* baserriko maizter biri horrela jazo zitzairen Arroteguiren ondorengo jabetza izanda: baserriko administratzaileak José Olarra hertsatu zuen eskumaren aldeko botoa eman zezan, eta gainera, hautagai-zerrenda horren mahaiko ikuskatzaile izendatu zuten. Olarrak izendapenari uko egin zion, “(...) *bere ideien kontrakoa zelako, izan ere, langile den aldetik Solidaridad de Obreros Vascosen kidetua dago*”. Julián Bilbao Escondrillas beste errentadoreak deklaratu zuen ez zuela bortxarik jasan bere botoari buruz, baina hura ere mahaiko ikuskatzaile izendatu zuten “*eskumen hautagai-zerrendaren ordezkari*”. Hargatik ere, karguari uko egin zion, “(...) *bere ideien kontrakoa zelako eta Solidaridad de Obreros Vascosen kidetua zegoelako*”. Kasu honetan errentadoreak zehaztu zuen izendapena Plentziako José Olano<sup>667</sup> monarkikoak egin zuela. Olano hiribilduko bake epailea zen orduan, baita 1934ko irailean izendaturiko udal batzorde kudeatzaileko kidea ere, alkate kargua betetzeaz gain Primo de Riveraren diktaduraren garaian<sup>668</sup>.

Lehenagoko hauteskundeetan ere jazo ziren modu horretako jardunak. Hala deklaratu zuen Santiago Landa Iturrek, Barrikako *Erdicoeche* baserriko maizterrak. 1933an, urte hartako apirilko udal hauteskundeetan edo Gorteetako diputatuak aukeratzeko azarokoetan izan zen zehaztu barik, eskutitz bat jaso zuen “(...) *zeinaren bitartez mahaiko ikuskatzaile izendatzen baitzuten eskumen partetik*”. Ezin zehaztu gutun hura administratzaileak sinaturik zetorren edo ez, baserria arroteguitarrena zelako. 1936ko otsaileko hauteskundeetan, berriro ere hautagai-zerrenda kontserbadoreko mahaiko ikuskatzailea izan zen, oraingoan “*Felipe Uriartek aginduta*”, hau da, Barrikako Batzorde Kudeatzaileko alkateak<sup>669</sup>.

---

666 C.D.M.H. P.S.artzelona, 1451, 3. espedientea, Barrikako U.I.B.ak Miguel Larrazabal Motari irekia, 1937.

667 C.D.M.H. P.S.artzelona, 1451, 5. espedientea, Barrikako U.I.B.ak Arroteguiren jaraunslerei irekia, 1937.

668 *Euzkadi* 1934-9-15.

669 C.D.M.H. P.S.artzelona, 1451, . espedientea, Barrikako U.I.B.ak Arroteguiren jaraunslerei irekia, 1937.

Hona hemen nortzuek osatu zuten Eskumen Blokeko hautagai-zerrenda *Bizkaia-Hiriburua* barrutian, 1936ko otsaileko hauteskundeetan: Joaquín Adán, monarkiko independentea, José María Areilza, Renovación Españolakoa (Bilboko lehenengo alkate frankista izango zena), José María Juaristi, Comunción Tradicionalistakoa eta Miguel Goldacerena, CEDAKoa. Uribe-Kostan emaitza hauek lortu zituzten:

<b>GORTEETARAKO 1936KO OTSAILAREN 16KO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK</b>				
<i>Eskumen zerrenda</i> <sup>670</sup>				
	<b>Joaquín Adán</b>	<b>José M<sup>a</sup> Areilza</b>	<b>José M<sup>a</sup> Juaristi</b>	<b>Miguel Goldacerena</b>
<i>Barrika</i>	50	50	50	50
<i>Berango</i>	177	177	177	177
<i>Gorliz</i>	113	110	109	113
<i>Getxo</i>	2099	2091	2089	2098
<i>Laukiz</i>	78	78	78	78
<i>Plentzia</i>	341	341	340	341
<i>Sopela</i>	76	77	77	76
<i>Urduliz</i>	67	67	67	67

1936ko otsaileko emaitzak eta 1933ko azarokoak alderatuta, ikusten dugu eskuma espainolistak Euskal Herri osoan eduki zuen gorakadaren antzekoa gertatu zela Uribe-Kostako udalerrri guztietan ere bai. Horrek adierazten digu EAJren katolizismoaren inguruko zalantzak zabaldu nahi izan zituztenen mezua barruratu zuela hautesleen zati batek. Horretaz aparte, ezin ahaztu kazikekeriek ere pisu handia izango zutela herrietan, kontserbadoreak baliatuko zirelako *baserritar* errentadorearen edo familia behartsuen ahuleziaz, hauteskunderiei begira azpikoetan ibiltzeko.

---


670 [http://www.euskadi.eus/emaitzak/republica/result\\_1936](http://www.euskadi.eus/emaitzak/republica/result_1936)

## 2.3 Egitura eta gatazka soziala

### 2.3.1 Gizarte urduliztarraren ezaugarri orokorrak

Urdulizko gizartearen osaerak erakusten digu udalerrriak landatar izaerari eusten ziola Bigarren Errepublikaren urteetan. 1930eko Hauteskunde Erroldak errealitate horren erradiografia egiten laguntzen digu, nahiz eta hura osatu bakoa izan. Hauteskundeei buruz indarrean zegoen Legeak kanpoan uzten zituen emakumeak eta 25 urte baino gutxiagoko gizasemeak. Beraz, Urdulizkoan 25 urte baino gehiagoko 213 gizonezko baino ez ziren agertzen. Bertako Erregistro Zibileko liburuak behin eta berriro definitzen dute zein zen emakumeen zeregina: *“etxeoandre”*, *“bere sexuari dagozkionak”*-eta. Joera horren oso noizbehinkako salbuespena zen maistra lana.


#### LANBIDEAK, 1930EKO HAUTESKUNDE ERROLDAREN ARABERA (pertsona kopurua) <sup>671</sup>



Errolda horretako 213 gizonezkoen erdiak baino bat edo bat gehiago ziren nekazariak, gehiagorik ez, talde horri jornalariena ere gehitu ahal badiegu ere. Biztanlerian, beste sektore garrantzitsu bat marinelen zen, harritzekorik ez, kontuan hartuta elizateak Plentziako portua eta, beraz, itsasoa zein gertu duen. Interesgarria da azterketa borobiltzea, 1917ko Hauteskunde Erroldak eskaintzen duen ikuspegia bistaratuz. 203 gizonezko osaturik zegoen, eta 1930eko jende bera uzten zuen bazterrean.

671 A.H.F.B. AJ 01873/008



**1917KO HAUTESKUNDE ERROLDAKO LANBIDEAK (pertsona kopurua)** <sup>672</sup>

Errolda biak alderatuz gero, ondorioa ateratzen dugu nekazarien gizarte atalean pilaturiko gizonezkoen multzoa argaldu zela, baina beharbada ez da halako beherakadarik 1930eko nekazariak eta jornalarien batura kontuan harturik. Itsasoko beharrak, kopuruz, bere horretan segitzen du 1930ean, 1917aren aldean. Badirudi, beraz, lanbide aukera hori sendoturik zegoela irteera gisa, nekazaritzaren aldean.

Alde handiagoak idoro ditugu gremio desberdinetako lanbideen multzoan, gora egiten baitute 1917tik 1930era. Esate baterako, 1917an beharginen taldea peoi batek eta hargin batek baino ez zuten osatzen; 1930ean, berriz, ugariago ez ezik, askotarikoagoa ere agertzen zaigu multzo hau: 2 behargin, 3 igeltsero, 5 arotz, 2 mekanikari eta 2 hargin. 1932ko abenduko udal estatistikak 20 langile zenbatu zituen, guztira, *“lan finkoa duten behargin”* moduan, *“trenbidean eta Bilboko fabriketan dihardutenen artean”*, eta 6 behargin, *“harrobi batzuetan aldi baterako dabiltzanak”*. Beste alde batetik, estatistikaren arabera, Urdulizen bazeuden *“17 behargin, erabat langabezian”*<sup>673</sup>. Beharginen gaineko 1930eko eta 1932ko datuek ondorio batera garamatzate: gora zihoan lanaren bilaketa baserritik kanpora, nekazaritzari lotutako bizitzaren diru mugetatik irten guran.

672 A.H.F.B. URDULIZ 0026/006.

673 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *“Udaleko Estatistika Administrazioa”* 1932-12-22.

Merkataritzan zebiltzanen kopuruak ere gora egin zuen. 1917an merkataria bakarria ageri zaigu; 1930ean, berriz, 8 lagun dabilta lanbidean. Salbuespen gisa, ingeniari bat, bulegari bat, gidari bat eta bizargin bat agertzen dira 1930eko erroldan.

Zelangura ere, 1930ean erregistraturik dauden lanbideen gorakadak ez digu ahaztuarazi behar horietako askok, beren beharrekin batera, baserrian ere ibiliko zirela, edo hartara bueltatuko zirela lan barik geratuz gero. Laburbilduz, Urdulizek jarraitzen zuen lurrari lotutako gizartea izaten.

Urduliztarren jatorriari dagokionez, gehien-gehienak udalerrian bertan jaiotakoak ziren edo inguruko herrietatik zetozen. Hori erraz ikusten da 1931tik 1937ra bitarteko parrokiako matrikuletan. Ugariak dira, beraz, Urdulizko jendearen ezkontzak Gatikako, Laukizko, Barrikako edo Sopelako ezkontideekin. Bizkaiko beste herri batzuetako jendea ere topatu dugu, Uribe Kostatik kanpokoak, esate baterako Bilbo, Zaldibar, Santurtzi, Ziortza, Gernika, Busturia, Amorebieta edo Mundakakoak. Badira, era berean, jatorri gipuzkoarra duten bizilagunak, Azkoititik, Zaldibiatik, Astigarragatik, Idiazabaldik edo Donostiatik etorritakoak. Arabar jatorrikoa, Eduardo Betolaza errepublikanoa baino ez dugu aurkitu, gasteiztarra bera. Gutxi zeuden Euskal Herritik kanpokoak, eta ia guztiak gaur egungo Gaztela eta Leongoak. Mutikoen eskolako maisua, Teodoro Primo López, eta haren emaztea, Urueñakoak ziren (Valladolid). Geltokiko burua, Sisinio Malanda, Bárcena de Camposen (Palentzia) jaiotakoa zen; haren emaztea, berriz, bermeotarra. Sedanoko (Burgos) gizonezko bat ere idoro dugu, emakume urduliztar batekin ezkondua. Horrez gain, Agredako (Soria) senar-emazte batzuk; Vega de Valcarceko (Leon) gizon alargun bat; andrazko alargun zahar bat, Villamoroskoa (Leon); Lugoko senar-emazte batzuk, eta are Habanan jaiotako itsasgizon bat<sup>674</sup>. Immigrazioaren neurri txikia, duda barik, industria eremutik aparte zegoen udalerrriaren izaera landatarraren ondorioa da, nahiz eta trenbideak urruntasun hori zelanbait apaldu. Joan den mendearen erdian Mecánica de la Peña heldu arte ez da etorkin kopuru handirik etorriko Urdulizera.

Gizarte hartako ezaugarri nabarmenetako bat da bere katolizismo irmoa. 1931tik 1937ra bitarteko parrokiako matrikulen azterketa termometro ona da erlijiozaletasuna neurtzeko. Matrikula horietan Pazko agindua betetzen ote zen idazten zen; hura betebeharrekoa zenez, ez dute zalantzarako zirriturik uzten. Agindua betetzen ez den gehienetan, arrazoi “justifikatuak” dira tarteko: heriotza, itsasoan ibiltzea, edo “*kanpoan*”, edo soldaduskan, edo “*otsein*”, edo atzerrian, edo beste herri batera aldatu izana ezkonduetakoan.

---

674 A.H.E.B. 3300/002-00 “Parrokiako matrikula 1929-1941”.

Salbuespenetako batzuk kontu ideologikoekin lotu ahal ditugu, kasurako, Acción Republicanako kide batena eta haren emaztearena, zeinek ez baitzuten inoiz agindua bete 1931tik 1936ra. Beste errepublikano bat idoro dugu, bere emazte maistrarekin batera, 1935etik 1937ra bete ez zutena, nahiz eta emakumearen kasuan abadeak 1937an oharra ipini zuen parentesi artean: “*ez (parrokia honetan)*”, Bizkaitik kanpora zebilelako. Erretoreak jasotako beste kasu bat Urdulizko bizilagun batena da, Lugokoa sortzez; hark ere ez zuen agindua bete 1931tik 1934ra bitartean, eta abadeak “*inoiz ez du Pazkoz egiten*” idatzi zuen hartaz, gero esaldia zuzendu bazuen ere 1932an eta 1933an, “*kanpora joan zen*” idatziz. Horiez gain, Urdulizen jaiotako gizonezko bi agertzen dira: 34 urteko errementaria eta 22 urteko nekazaria, 1932an eta 1933an agindua bete ez zutenak. 1935etik 1937ra bitarte pixka bat igotzen dira Pazko agindua konplitzen ez dutenak. 1935ean, Andra Mari parrokiako 1167 eliztarretatik 25ek ez zuten bete, eta 1936an, 26k, berriz ere guztiak 1167 izanda. 1937ko datuen azterketak kasu gehiago jartzen ditu agerian, duda barik, gerraren egoerak eraginda: guztira, 45 eliztarrek uko egin zioten aginduari. Azkenik, matrikula horietan topatu dugu Serafin Sagarna abadeak idatzitako oharra Bilbon jaiotako nekazari urduliztar baten egoera zibilaz: “*emaztearengandik bananduta*” dagoela adierazten du, zerbait benetan apartekoa erregistro mota hauetan<sup>675</sup>.

Laburbilduz, esan bezala, kasu batzuk aparte utzita, gizarte urduliztarrak, ia-ia bere osoan, katolizismoari sendo eutsi zion Errepublikaren garaian. Katolizismo horrek, gainera, talka egin zuen Gobernuak Errepublikaren lehen biurtekoan defendatzen zuen laiktasunarekin, berehala ikusiko dugun legez.

### 2.3.2 - Gatazkak: erlijioaren eta autonomiaren auziak. Hauteskunde borroka

Bigarren Errepublikan, erlijio auziaren eta autonomiaren errebindikazioaren inguruan korapilatu zen euskal politika; horiexek izan ziren hauteskunde kanpainen gai nagusiak, eta horiexek ere piztu gatazka gehien. 1931ko apirilean Errepublika aldarrikatzen denetik 1934ko Urriko Iraultzara bitarteko denboraren ezaugarria da gatazken eta bortizkeria politikoaren gogortasuna, batez ere hiru une latzetan:

- *1931ko udan, estu-estu loturik ageri ziren arazo erlijiosoa eta autonomiaren errebindikazioa. Gogoan eduki zelan, Lizarran, nazionalismoak eta euskal eskumek aldatu zuten Eusko Ikaskuntzak erredaktaturiko Estatutua, Euskal Herriarentzat utzi guran Vatikanorekiko harremanak. Horren ondorioa liskar bortitza izan zen Euskal Herriko ezkerrekin eta Errepublikaren behin-behineko Gobernuarekin.*

---

675 Ibíd.

- 1932ko udazkenetik 1933ko udara bitarteko denboran, nazionalistak eta errepublikano-sozialistak izan ziren istiluen protagonista, eta erlijio arazoak eta autonomiaren auzia, ostera ere, su-emaileak. Bizkaian, indarkeriak 1933ko maiatzean izan zuen puntu gorena, noiz eta Errepublikako lehendakari Alcalá Zamora Bilbo bisitatzen ari zenean.
- Hirugarren une latza 1934ko udan jazo zen, udal abertzale eta ezkerrekoen eta Sampedren Gobernuaren artean, *Ardoaren Estatutua* delakoaz geroztik. Horretaz berba eginda gaude udal politikaren gainean jardutean. 1934ko Urriko Iraultzak gatazken luzapena ekarri zuen; bereziki industria eremuan eta Meatzaldean jo zuen Bizkaian<sup>676</sup>.

Bigarren Errepublikaren aldarrikapenari ongi etorri egin zitzaion euskal hiriburuetan. “(...) *Poza agertzeko momentuan*”, espazio bera partekatu zuten “(...) *errepublikanoek, sozialistek eta nazionalistek, (...) eta aldi berean, hiru koloreko bandera errepublikanoa eta ikurrina elkarren ondoan zabaldu ziren Udaletxeetan*”. Adiskidetasunak gutxi iraun zuen, ostera. Laster sortu ziren gatazkak eta trabak, eta horien ondorioz, ezin sendoturik ibili zen erregimen berria. Errealitate ukaezin bat zegoen: “(...) *Euskadi ez zen errepublikanoa 1931n, Errepublika Eibarren inon baino lehenago aldarrikatu bazen ere (...)*”. Erlijio auzia izan zen, duda barik, gatazka iturri nagusia Errepublikaren Lehen Biurtekoan. Euskal gizartea, nagusiki, katolikoa zen errotik, eta horrekin talka egin zuten Gobernuak eta Gorte Konstituziogileek hartutako neurriek, bereziki Gasteizko apezpiku Mateo Múgicaren kanporatzeak eta haren bikarioaren atxilotetak, 1931n, edo Konstituzioaren 26. artikulua, Kleroaren Aurrekontua deuseztatzen zuenak. Neurri laizista eta antiklerikal horiek eraginda, gehiengo sozialak gaitzetsi zuten Errepublika<sup>677</sup>.

1931ko apirilaren 14an, Urdulizko egoerak ere islatu zuen desberdinen arteko lehen adiskidetasun une hori. Nazionalistek, errepublikanoek eta komunista batek osaturiko lehenengo udalbatzari ongi etorri beroa egin zion *Txiberrik*. *Euskadi* egunkari nazionalistak Urdulizen zeukan korrespontsalak idatzi zuen Udalbatzako zinegotzi ez abertzaleak “*gixon on-onak*” zirela guztiak eta “*erriari maitasun aundie*” ziotela<sup>678</sup>. *Txiberriren* hasierako berotasun horrek gutxi-gutxi iraun zuen, ostera; haren azterketa ironikoa lekuko, 1931ko ekainean, Gorteetarako hauteskondeek Urdulizen eta Sopelan utzi zuten emaitzaren gainean.

676 GRANJA SAINZ, José Luis de la: *El Oasis Vasco: el nacimiento de Euskadi z Civil*, Madril, Tecnos, 2007, 46-47.

677 GRANJA SAINZ, 48.

678 *Euskadi 1931-4-14 “Articulo 29 deritxon zatitik autu dira ziñegotiak erri onetan jeltzale batzuk be badira baña ez tiranak be guztiak gixon on-onak, erriari maitasun aundie dautzienak (...)*”.

Erljio auziak erre egiten zuen; agerian geratu zen delako artikuluan, non zalantzetan ipini baitzuen Prietoren hautagai-zerrendak Urdulizen lortutako boto-emaileen errepublikazaletasuna, zergatik eta mezatara joaten zirelako:

*“En las elecciones para las Cortes había 147 nacionalistas y 18 de Prieto. Buenas intenciones, pero que no piense Prieto que estos 18 estaban totalmente a favor de él, porque el siguiente domingo fueron todos a escuchar misa, así que...”*<sup>679</sup>.

Sopelari dagokionez, korrespontsal urduliztarrak ildo beretik jo zuen: haren hitzetan, errepublikanoek bertan lortutako 98 boto-emaileetatik, *“bi edo iru izan ezik danak juaten dira domeketan meza entzuten (...)*<sup>680</sup>.

Eskualdeko nazionalistak laster konturatu ziren errepublikanoek, agintzeko aukera zuten tokietan, garbi uzten zituztela beren printzipio politikoak, bereziki alderdi erlijiosoan, hau da, ideologia biek talka egiten zuten arloan. Esate baterako, Plentzian, apirilaren 12ko hauteskunderen emaitza bertan behera utzi ostean, berriro ere hauteskunde deialdia egin zen maiatzaren amaierarako. Bitartean, Udal Batzorde Kudeatzaile bat izendatu zen, Casimiro Olalde errepublikanoa buru zuena, beste errepublikano batekin eta EAeko kide batekin batera. Marinelherrian errepublikazaletasunaren itzala *“aukeran urria”* izanagatik ere, Olalderen jardunak helburutzat hartu zuen *“toki mailara ekartzea erregimen errepublikanoak Espainian lortutako garaipena (...)*”. Batzorde Kudeatzailea bizi laburrekoa izatekoa zen eta izaera administratiboa zuen batez ere. Hala ere, zenbait neurri harturik agerian jarri nahi izan zuen errepublikanismoaren akonfesionaltasuna, kasurako, *“organo-jotzailea eta sakristaua mantentzeko diruak kenduz parrokiari (...)* eta *“Udal Artxibotik Bihotz Sakratuaren irudia kenduz”*. Bide beretik zihoan Batzorde Kudeatzaileko errepublikano bien erabakia, Musika Bandak jo ez zezan Corpus egunean. Apirilaren 12an aukeratutako Udalak *“Plaza de Euzkadi”* izena ipintzea erabaki zuen; hura aldatzea eta haren ordeztzea, *“Plaza de la República”* paratzea proposatu zuen Olaldek. Horren bila, *“bizilagunak gero eta errepublikazaleagoak zirela”* argudiatu zuen Batzorde Kudeatzaileko buruak. Ebazpen horiek guztiak ezeztatu zituen maiatzaren amaierako bozketetatik irten zen Udalak<sup>681</sup>: *El Liberal* egunkariak bere orrialdeetan jaso zuen albistea: bueltan zen *“organo-jotzailearentzako, sakristauarentzako eta prediku katolikoetarako”* dirua. Azkenari dagokionez, egunkariak salatu zuen hauteskunde bezperako predikuan eraso eta irain egin zitzaizela *“bloke antimonarkikoaren aldeko”*<sup>682</sup>.

---

679 *“Euneta larogeta zazpi euzkotar ta amazortzi Prieto'tar egon ziran kortetara'ko auteskundietan. Gurenda polita, baña Prieto'k ezteilla uste izan bete-betian dagozala onek amazortzirok beragaz ba urrengo igandian meza entzutera joan ziran guztiak orregaitik ba...”*.

680 *Euzkadi 1931-7-17 “(...) Prieto'tarrak be bi edo iru izan ezik danak juaten dira domeketan meza entzuten (...)*.

681 BARRENETXEA MARAÑÓN, Igor: *“Plencia y el Estatuto de Estella. La proclamación del II República y la autonomía en un municipio vizcaíno”* in *Sancho el Sabio*, 14, 2001, 133-134.

682 *El Liberal* 1931-6-19.

Gorlizen ere, noizbait esan dugunez, erreplikatu ziren 1931ko maiatzeko hauteskundeak. Aliantza errepublikanoa geratu zen garaile, EAEko sei zinegotzik, errepublikano batek eta sozialista batek osatua; oposizioan, berriz, EAJko zinegotzi bakarra. Gorteetarako hauteskundeetan, errepublikano-sozialistak ostera ere nagusi ziren udalerrian. Azken garaipen horrek gutun bidezko sesioa piztu zuen *El Liberal* eta *Euzkadi* egunkarietako orrietan. Eskutitz truke horretan nahastuta agertzen dira erlijio auzia eta auzi politikoa. Hartara, A. Manenek, *Euzkadi* egunkariko korrespontsal gorlizarrak, EAEkoak mespretxuz hartu zituen ahoan, “*Jainko bakoak*” deituz, 1930eko azaroan sortutako alderdiaren izaera akonfesionalaren kontura. Beste alde batetik, 1931tik 1933ra bitartean, elkarri txakurrarenak esaka ibili ziren nazionalistak eta errepublikanoak: Errepublika etorri baino lehen monarkikoak zirela, Primo de Riveraren diktadurarekin harremana izan zutela edo orduko kazikismoan parte hartu zutela. Alde horretatik, A. Manenek idatzi zuen: “(...) apirileko hauteskundeetan monarkikoek eratu zuten gehiengoa udalean, eta gutxiengoa, berriz, nazionalistek”, baina:

*“(...) en las segundas elecciones (...) esos mismos señores concejales se convirtieron en concejales socialistas, republicanos y nacionalistas (sin Dios), resultando alcalde y teniente de alcalde quienes ocuparon dichos cargos durante las pasadas dictaduras”*<sup>683</sup>.

Horrez gain, artikulua autonomia auzia jaso zuen, Lizarrako Estatutuaren gainean berba eginda. Gorlizko Udala Lizarrako bilerara joan zen, baina baita Aldundietako batzorde kudeatzaileek Bilbon egin zuten batzarrera ere. *Euzkadiko* kronikari gorlizarrak ez zuen ahoan bilorik izan Bilboko Foru Aldundian egindako bileraren xedea modu nahikoa arrazistan belzteko: “(...) “*Euskal*” Estatutu bat prestatzea, “*Zamorako eta Leongo jendearekin*” (...)”<sup>684</sup>.

Ez zen luzatu *Bachi*, *El Liberal*go korrespontsalaren erantzuna, eta egin zuen “(...) multzo nazionalista-monarkiko-jaimistari” leporatuz “(...) betiko kazike ezagunen agindupean egotea”. Beste alde batetik, azaldu zuen zergatik joan zen Gorlizko Udala Lizarrako eta Bilboko batzarretara: lehenengora, bakar-bakarrik “*protesta egitera Eusko Ikaskuntzaren Estatutuari sartu dizkioten aldaketengatik*”. Kronikariaren esanetan, “*Azpeitian, Loiolaren gerizapean*” egindakoak ziren lehenengo Estatutu proiektuko aldaketak, haien erlijio kutsua hipzide. Lizarrako Estatutuaren aurka agertu arren, Gorlizko Udala ez zuten kendu testu horri onespina eman zioten 485 udalen zerrendatik. Horregatik, artikulua horretan gezurtatu egin zen herriko etxe gorlizarrak delako Estatutua onetsia zuenik, “*bere sentipen liberalen hain kontrakoa izanda*”.

---

683 *Euzkadi* 1931-7-4.

684 *Euzkadi* 1931-7-4.

Azkenik, *Euzkadiko* korrespontsalak EAEz berba egiteko erabilitako izendapenari –“*Jainko bakoak*”– aurre eginez, hona zer argudiatu zuen *El Liberal*go kronikariak: “(...) *hemen denak gara euskaldunak, oso euskaldunak, gero, baina ez klerikalak eta horrexek ematen die min halako batzuei, ez dutelako euskaltzaletasuna onartzen eskapulario batekin batera ez badator*”<sup>685</sup>.

Zenbait neurri Errepublikako Gobernuak bultzatutako laikotasunaren erakusgarri garbiak izan ziren, hala nola eskola eta udaletxeetatik irudi eta gurutzeak ateratzea eta jai erlijiosoen ofizialtasuna kentzea. Legeari, dena dela, ez zitzaion toki guztietan men egin. Berbarako, *El Liberalek* salatu zuenez, Sorkunde Egunean Plentziako Udalak ez zuen kendu Udal Musika Bandaren “*dantza egiteko kontzertua*”, dagoeneko jaieguna ez izan arren. Justo Hieyte korrespontsal plentziarrari, aldiz, ez zitzaion txarto iruditu prozesioa egitea, “(...) *inor ez zutelako behartu bertara joatera, eta sinestunek ederto egiten dutelako maite duten guztiarenganako debozioari eutsita (...)*”<sup>686</sup>.

Urdulizen, tradizioz, udalbatza elizkizun batera joaten zen, hain zuzen ere, Santa Marina ermitako mezara, uztailaren 20an. 1931n, Pedro Goirigolzarri alkateak zinegotzietan agertu zion “*ohitura izan dela udalbatza moduan joatea elizkizunera*”. Hartara, “*aho batez*” erabaki zuten “(...) *elizkizun horretara Udalbatza moduan joatea eta gero bazkari xume bat egitea*”<sup>687</sup>. Hala eta guztiz, 1932an, berriro ere zirt edo zart egin beharra izanda, “*Udalak erabaki zuen udalbatza moduan ez joatea delako elizkizunera*”, baina bai buru egitea “*elizkizunaren osteko ohiko aurrekuan*” eta “*gero (...)* bazkari xume batera (...)” joatea<sup>688</sup>. Zantzu guztien arabera, Urdulizko Udalak, erabaki horrekin, men egin nahi zion erlijioaren eta aginte politikoren artean Gobernu errepublikanoak aldarrikatzen zuen banaketari. 1933an, zinegotzi guztiak nazionalistak izan arren, udal berria ere ez zen udalbatza moduan joan Santa Marinako mezara<sup>689</sup>, eta berdin egin zuen 1934an<sup>690</sup>. Beste alde batetik, Bihotz Sakratuaren irudia Udaletik kendu zuten, egunaren data topatu ez badugu ere Akta Liburuan<sup>691</sup>. Lehenengo udal frankistak, 1937ko uztailaren 8an, erabaki zuen Bihotz Sakratuaren irudia ostera ere tronuratzea, “(...) *Errepublikako Gobernuaren aginduz kendua izan eta Idazkari jaunak leku seguruan jagon ostean*”<sup>692</sup>.

Lehenago esan dugun legez, eskolako sinbolo erlijiosoak ere kendu beharrekoak ziren. Justo Hieytek, *El Liberalen* orrietatik, salatu zuen ezen “(...) *Irakaskuntza Publikoko ministroak eskoletatik ikur erlijioso guztiak desagertzeko*

---

685 *El Liberal* 1931-7-8 eta 1931-7-14.

686 *El Liberal* 1931-12-2.

687 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-7-11.

688 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1932-7-2.

689 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1933-7-1.

690 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-7-4.

691 El párroco Serafín Sagarna regaló al Ayuntamiento la imagen del Sagrado Corazón que fue entronizada en las dependencias municipales el 20 de febrero de 1921 (U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, Akta Liburua 1917-1922, Bilkura arrunta 16-1-1921 eta 20-2-1921).

692 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1937-7-8.

*emandako jarraibideengatik ere (...)* Plentziako eskolan oraindino zegoela *(...) gurutze bat, batere artistikoa ez dena, baita eskolan sartzean eta irtetean hainbestetan kantarazi dizkidaten otoitz biak ere (...)*. Gurutzeak kentzeaz gain, jarraibideek jasotzen zuten dotrinaren irakaskuntza eskolatik urrundu beharra. Auzi horrek ere, eta bere aplikazioak, eztabaida piztu zuten Plentzian. Hieyteren hitzetatik ateratzen dugu maisuak jarraitu zuela erlijioa erakusten. *El Liberal*go korrespontsalak horrela iritzi zion:

*(...) si el maestro se dedica a esta enseñanza tiene que dejar abandonados a los niños que no la quieran, y (...) al suspenderla oficialmente, lo mejor que podían hacer los padres que la quieran es mandar a sus hijos después de las horas de clase, a la iglesia, y allá, en la sacristía, la podrían enseñar los señores curas (...)*<sup>693</sup>.

Laikotasunaren beste marka bat izan zen hilerrien sekularizazioa. 1932ko urtarrilaren 30eko Dekretuaren bitartez kanposantu guztiak udalen jabetza bihurtu ziren eta, beraz, katoliko hutsak izateari utzita, edozein sinesmenetako ehorzketak hartzen hasi ziren. Horrez gain, Dekretuak bateratu zituen lurperatze zibilak eta erlijiosoak. Neurri horrek kanposantu zibila eta erlijioso banantzen zituen horma eraistera behartu zuen hilerri askotan. Sopolan, kasurako, 1932ko urriaren bueltan, *“apur bat berandu eta nahiko gogo txarrez (...)”*, ekin zitzaion hilerri erlijioso sopoloztarra *“beste garai baten ehorzketa zibiletarako erabiltzen zen lur zatitik”* banantzen zuen horma botatzeari. Antza, orube hori hondakindegia moduan erabilitakoa zen, *El Liberal*en salatu zenez<sup>694</sup>. 1932ko urtarrileko Dekretuak indarra hartu baino lehenago, Berangok pasarte ilun bat bizi izan zuen, gure ustez salbuespenekoa, Teodora Vidaurragaren lurperatzearen gainean, *El Liberal* egunkariak jasotakoa. Hileta-elizkizuna elizan egin zen, baina agerkariak salatu zuenez ehorzketan irregulartasunak izan ziren. Itxuraz, hobi bi ireki ziren: bat hilerri zibilean eta bestea hilerri katolikoan. Lehenengoan gorpua lurperatu zuten, familia bertan egon barik, *“esan zietelako ez zekitela zer ordutan ehortziko zuten”*. Bigarrena, berriz, estali egin zuten eta gainean lore sorta bat ipini. Horren harira, hona zer itaundu zuen korrespontsalak:

*“Si hubo orden eclesiástica para que se hiciese la inhumación en el Cementerio Civil mientras se realizase el expediente, ¿por qué no se notificó a sus familiares, cumpliendo así el mandamiento de Dios: “No levantar falsos testimonios ni mentir”? Descansa en paz, joven Teodora, que los berangueses demócratas (...) sabrán vengar la ofensa cometida a tus restos, derribando muy pronto las paredes que te separan del Cementerio católico, para así cumplir con la Constitución de la República española”*<sup>695</sup>.

---

693 *El Liberal* 1931-7-9.

694 *El Liberal* 1932-10-27.

695 *El Liberal* 1931-12-18.



Urdulizen, Udal Hilerrria 1913ko ekainaren 13an ireki zen<sup>696</sup>. Udalaren ekimenez eraikia izan zen, kanposantu zaharra ordezkatzeko. Lehengoa parrokiarena zen eta, izatez, elizari atxikia zegoen. Hartaz hona zer esan zuen, 1933an, Serafín Sagarna abade nagusiak: “(...) *gaur egun hilerrria itxita dago; orain dela hamabost urte baino gehiago dagoela kanposantu berria, Udalarena*”<sup>697</sup>.

1932ko ekainaren amaieran, badakigu Udal Hilerrrian egiten ziren lurperatze guztiak erlijiosoak zirela, eta ez zela egon “(...) *orain arte batere ehorzketa zibilik; beraz, ez dago ezelango beharizanik ehorzketa zibiletarako lokal berezirik eraikitzeko*”. Horrela jakinarazi zion Udalak gobernadore zibilari, eta, gainera, “*erabaki zuen hilerrrian plaka bat ipintzea, Udal Hilerrria esakuna duena*”<sup>698</sup>. Uztailaren 13an, udal erabakia baino egun batzuk geroago, Tomás Hernando errepublikanoak horrela salatu zuen *El Liberal*en argitaratutako artikulu batean: “*Urdulizko alkate jaunak ez dio jaramonik egin gobernadore jaunak kanposantuen sekularizazioari buruz atera duen zirkularrari*”. Hari horretatik tiraka, legea betearazteko eskatzen zion gobernadore zibilari<sup>699</sup>. Pentsatzekoa da aipatu berri dugun plakaren ezarpenaz ziharduela.

Zaratatsuagoa izan zen Urdulizko hilobiratzeen inguruan 1932ko martxotik apirilera bitartean *El Liberal*en orrietan hauspotu zen ika-mika, nahiz eta, oraingoan, beste kontu batzuk ere tarteko izan. *Cantaciarok*, Uribe Kostako eta Mungialdeko ohiko kronikarietako batek, salatu zuen Urdulizko abade nagusi Serafín Sagarnak hau esan zuela:

*“(...) en un sermón que todos los vecinos están obligados a firmar unas hojas en que declaren que su voluntad expresa es que, a su muerte, sean enterrados en el Cementerio católico y que sobre su tumba se ponga una cruz bendecida por el señor cura”*<sup>700</sup>.

Kronikariaren arabera, Sagarnak hau ere gehitu zuen: “(...) *orri horiek etxez etxe banatuko dira (baita horrela egin ere) eta sinatzen ez dituen elizak kanpo lurperatua izango da*”. Horrez gain, abadea errudun jo zuen behargin bat kaleratzeaz<sup>701</sup>.

Ez zen luzatu apaizaren erantzuna, egun gutxi batzuk geroago hedabide berean argitaratua, *Cantaciarok* emandako albistea gezurtatuz eta bere bertsioa emanez gertakariei buruz. Erretoreak adierazi zuen ohitura zela mezetan Udalarri dagozkion kontuen berri ematea, “(...) *gai garrantzitsuak eta bizilagun guztiei eragiten dietenak daudenean, baserri batzuk guztiz urrun daudelako*”. Itxuraz, erabaki zen ahoz irakurtzea “(...) *Konstituzioan ehorzketek ari den*

---

696 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1907-1917ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1913-6-2.

697 A.H.E.B. 1330/058-00 “*Sobre cementerios parroquiales*” 1933, 1932-1-1ko datuak ekarrita

698 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1932-6-26.

699 *El Liberal* 1932-7-3.

700 *El Liberal* 1932-3-20.

701 *El Liberal* 1932-3-20.

*artikulua, kontuan hartuta nire eliztarren %90ek ez dutela inolako prentsarik irakurtzen(...)*”, baina hori baino lehen Sagarnak aholku eskatu zien “(...) herrian nor zirenei”, eta horiek oniritzia eman zioten albistea eguneko hiru mezetan ezagutzera emateari. Hori dela eta, elizan irakurri zuen Konstituzioaren artikulua eta honako hau gehitu: “(...) sinatzen ez dutenekin edo espresuki adierazten ez dutenekin zelan gura duten lurperatuak izan besterik ez dago Konstituzioaren artikulua hori betetzea baino”. Gainera, argitu nahi izan zuen inori ez zitzaiola mehatxurik egin eta orriak ez zirela etxez etxe banatu: “(...) premia duenak eskatzen dizkit eta nik doan ematen dizkiot (...)”. Horren lekuko egiten zituen “sinatu ez duten eta, antza, sinatzeko asmorik ez duten bakanak”. Eskutitzaren amaieran abade nagusiak gezurtatu zuen bere erruz inork beharginik bota izana. Hori argitzeko, aurrez aurreko bat eskatu zuen *Cantaclarok*ekin eta kaleratutako beharginarekin, eta honako hau gogora ekarri:

*“(...) durante los años que llevo al frente de esta parroquia he procurado poner mis pequeñas influencias en favor de mis feligreses, sin excluir a nadie; testigos de mi aserto son los que han sido colocados en fábricas, empresas, barcos, etc. (...)”<sup>702</sup>.*

Ez zen halako aurrez aurrekorik egin, baina hilabete bat geroago *Cantaclarok* erantzun zion Urdulizko abadeari, haren aurka egindako salaketei eutsiz eta gaineratuz pulpituia “berbaleku politiko” moduan erabiltzen zuela, “baserritarrak infernuarekin beldurtzen” zituela eta abar, nonbait “herrixketako gainerako sotanadunek” ere egiten zituzten gauzak, bestalde. Korrespontsalak zioenez, egunkariari ez zitzaion iruditu “komenigarria polemiketan hastea”, zergatik eta “(...) herrietan ez dagoelako modurik sotanadunek egindako ezer probatzeko, arrazoi ximple bat dela-eta: bizilagunak kikilduta dauzkate” eta “(...) beldurra diote jendearen gain erabiltzen duten jazarpenari”. Egunkariak gaiari jarraipenik ez emateko erabakia hartuagatik ere, *Cantaclarok* berriro ekin zion, zeren “(...) azkenotan jendaurrean esaten dabilta abadeak arrazoi osoa zuela eta ez duela inor behartzen”. Hori dela eta, honen berri eman zuen korrespontsalak:

*“(...) ha llegado a mi poder una libretita, con letra de su puño, en la que hay estampadas algunas firmas a ruego de quienes no lo saben hacer, en su mayoría mujeres, que creo demuestra suficientemente que dicho curita ha estado personalmente en algunos caseríos trabajando por la salvación de las almas con ejemplar solicitud”<sup>703</sup>.*

Egunkariko korrespontsalaren idazkiek agerian jartzen dute laikotasunaren defentsa bat, toki mailakoa, nahiko muturrekoa. Kronikariaren ikuspegian oso argi dago: abade nagusiak, mezatan, ehorzketen gaineko artikulua irakurtzen duenean, edo lurperatze mota zehazteko orriak banatzen dituenean, egiazki, herritarraren erabaki pertsonalean eragiten saiatzen ari da, eta hori, duda barik, esku-sartze bat da, abadearen aldetik, Estatuari –Udalari, haren ordezkaria den

---

702 *El Liberal* 1932-3-24.

703 *El Liberal* 1932-4-8.

aldetik– dagokion kontu batean. Apaizaren esanetan, berriz, meزاز baliatzea herriari dagozkion gauzen berri emateko, sustraitutako ohitura zen, beharrezkoa, gainera, baserri batzuk urrun zeudelako eta herriak prentsarako biderik ez zuelako. Ohikotzat hartuta ere, agirietan antzeko kasu bakarra baino ez dugu idoro, 1923ko urrian:

*“(...) se le ordenó al Señor Cura Párroco (...) que anuncie al vecindario en todas las misas que se celebren el domingo, la obligación que tienen de vacunar contra la viruela, y que asistan a vacunar donde el Señor Médico les ordene”<sup>704</sup>.*

Pulpituaren erabilera politikoa izan zen *El Liberalgo* kronikariak aipatu zituen beste kontuetako bat. Ez zen gai berria. Elizak eragin izugarria eduki zuen betidanik sinestunen botoa norabidetzeko momentuan, eta hala izaten jarraitzen zuen. Are gehiago une haietan, Errepublikak indarrean jarritako legeriak eta antiklerikalismo erradikalak mehatxaturik sentitzen zenean. Madrilen eta beste hiri batzuetan erretzen ikusiak zituen eraikin erlijiosoak.

Esan dugun legez, Urduliz aldeko gizarteagutziz katolikoa zen. Gehiengo horren parean, errepublikanismoa indar minoritarioa zen, eta horregatik egitateen bidez jarri behar izaten zuen agerian bere burua eta bere printzipioak. Horrekin lotura du jaio berriak Erregistro Zibilean inskribatzeak eta ez bataiatzeak. Uribe Kostan, halako ekintzak bakanak izan ziren. Guk, prentsan, kasu bi baino ez ditugu topatu eskualde osoan, biak ala biak 1932an. Horietako baten protagonista Urdulizko Zentro Errepublikanoko lehendakaria izan zen, Tomás Hernando, eta bere emaztea. Haien semea Plentziako Erregistro Zibilean inskribatu zuten Libertario izena emanda eta *“bustialditik”* libratuta, albisteak ekarri zuenez. Bestea Lemoizen jazo zen; bertan, Aldundiko arielen kobratzaileak eta bere emazteak ere Libertario ipini zioten semeari Erregistro Zibilean inskribatzerakoan. *“Egintza zibil”* deitu zitzairen halakoei. Funtsean, errepublikanismoa ikusgai egiteko eta ezarritakoarekin eteteko modu didaktiko bat. Hartara, artikulugilearen iritziz, *“dagoeneko ezelako mamuri, ez kazike ez abade, beldurrik ez diotelako froga”* zen Hernandoren kasua. Lemoizkoan, ekintza laizista horren protagonistei *“ausartak”* deitu zieten *“kobaren barru-barruan adorea izan dutelako lehen mugarría ezartzeko”* ohitura hori alboratzearen. Beraz, guztiz jarduketa ausartak ziren, hain gizarte katolikoan eskandalutzat eta probokaziotzat hartzen zirelako. Jazo ere, horrela jazo zen, *El Liberalen* argitaratutakoei sinestera. Lemoizko egintzaren xedea, artikulugilearen esanetan, *“klerikalismo ankerra”* biluztea bazen, *“(...) horren kontura herrian entzuten direnak zitalagoak eta doilorragoak ezin (...)”* zirela izan gehitu behar izan zuen. Nonbait, esamesak ez ziren berehala isildu eta, itxuraz, izan zen umearen amarengana jo zuenik, itaunka: *“Zelan bizi daiteke hola, sein bat bataiatu barik?”, edo “Ez dizu lotsarik ematen umea hola edukitzeak?”*. Urdulizen gauzak ez ziren, antza, oso desberdinak izan; Tomás Hernandok eta bere emazteak burututako *“egintza zibilak”* ere zeresana eman zuen udalerrian: *Cantaclarok* kontatu zuen zelan abadeak –*“domine”* deitu zion–

---

704 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922-1930ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1923-10-20.

(...) *“Estropajosa”ko damekin* batera, *“(...) ez ei dituen bere marmarak isiltzen (...)”*. Horregatik, gomendio bat egin zien, alegia, autua *“(...) ondo eroateko, aurrerantzean mordoa izango dira-eta euren zerbitzu “karitatetsuei” uko egingo dietenak”*<sup>705</sup>, bataioa aiputan hartuta. *El Liberal*go korrespontsalaren iragarpen hori sano okerra izan zen; esan dugun legez, bakan-bakanak izan ziren halako jokabideak.

1932ko ekainaren erdialdera, zerbait deigarria jazo zen Berangon, probokaziotik nahikoa zeukana. Hilaren 15ean, esku ezezagun batzuek bandera komunista ipini zuten Berangoko elizako dorrean. Horretan zebiltzala, tximistorratzaren kable bat irten zen. Txapeloker pareak ezin izan zuen bandera kendu, ariskutsua izan-eta hartara gerturatzea. Hori dela-eta, *El Liberal* egunkariak burla antzean amaitu zuen gertatutakoaren gaineko albistea: *“dorre-eskalatzailearen bila dabilta”*<sup>706</sup>. Kontuak ondorioak izan zituen, egunkari berak kontatu zuenez, esku-orriak agertu baitziren herrian, *“Juan Fernández kamaradari eta haren anaietako bati”* bandera ipintzea egotzen ziotenak, herriko errepublikanoak, biak. Artikuluaren egilearen kontakizunari kasu egitera, delako kartelak agertu baino egun batzuk lehenago, domekako mezan, abade nagusiak bere segurtasun osoa agertu zuen ezen

*“(...) la bandera había sido colocada por gentes de Berango, y que al iniciarse una colecta para recoger fondos para la reparación del campanario no se pasaría por las casas de las familias malditas a que pertenecen esos demonios”*<sup>707</sup>.

Aldian behin, Errepublikaren lehen egunez geroztik, eskualdean desadostasunak eta mota guztietako gorabeherak jazo ziren nazionalisten eta errepublikanoen artean. *El Liberalek* salatu zuenez, Plentzian, 1931ko udal hauteskundeak errepikatu ziren egunean, Nicolás Landa, alkate nazionalista izatekoa zena, botoa ematera etorri zen, baina agerkariaren arabera herri bitan zegoen batera erroldatuta, Plentzian eta Bilbon. Antza denez, apirilaren 12ko hauteskundeetan Aldundiko hirugarren sekzioan eman zuen botoa, Bilbon. Horrela zegoen jasota *“Bilboko Erroldako Udal Batzarraren ziurtagiri baten, Manzanedo jaun hautagaiak aurkeztuta (...)”*. Hautagai jeltzaleak lortu zuen bere botoa *“kontaketa-ondoko eztabaidarako”* geratzea. Botoen kontaketa amaitu ostean, atzera ere aurkeztu zen Nicolás Landa. Ziurtagiria erakutsi bazitzaion ere, boto ematea lortu zuen azkenik, *“mahaiko laguntzaile bien gainean zeukan itzalean bermatuta”*. Mahaiburuak, berriz, protesta. Istoria biribiltzeko, Landak irainka erabili zuen Justo Hieyte, *“hautagai antimonarkikoetako baten”* ahalduna eta *El Liberal*go korrespontsala, bera. Hauteslekua, *“ulertzekoa denez, hustu egin zen, halako moldez non hautagaiak, kontu-hartzaileak eta mahaikoak baino ez baitziren barruan geratu, behar zen akta jasotzeko”*. Lan hori, baina, etenda geratu zen hauteslekuan agertu zirelarik, *“bortxa handiz”*, Nicolás Landa *“eta*

705 *El Liberalek* 1932-10-15ean Urdulizko ekitaldia jaso zuen eta 1932-9-4an eta 1932-9-13an, berriz, Lemoizkoa.

706 *Euzkadi* 1932-6-16 eta *El Liberal* 1932-6-16.

707 *El Liberal* 1932-6-26.

*hogeita hamabost-berrogei bat lagun, beren makilekin (...) Landa jaunaren botoaren inguruko protestaren aurkezpena galarazi*” guran. Ez zuten lortu, baina pasadizoak ez zuten soka luzeagorik ekarri<sup>708</sup>.

1931ko abuztuan, Plentziako Batzokiaren irekierak El Liberal egunkariaren kritikak jazo zituen, *“Udala, euskal nazionalistak bertan nagusi direnez, bigarren batzokia bihurtu zelako”*. Ezkerreko egunerokoak kontatu zuenez, izan zen Errepublikaren kontrako deiadarrak egin zituenik, besteak beste *“hil bedi Prieto!-ren bat eta fuera Errepublika!-ren bat, ia-ia inoren onespelik lortu ez bazuten ere”*<sup>709</sup>. Egunkari berak jaso zuen Plentziako emakumeen banderaren bedeinkazioa. 1932ko urtarrilaren 1ean egin zen eta bertan istilua izan zen *“bandera nazionalista”* Udaletxean ipini zelako Errepublikarenarekin eta Plentziakoarekin batera. Herriko errepublikanoek *“zer gertatzen ari zen jakitera eman zioten gobernadoreari (...)”*, eta horrek ekarri zuen *“Guardia Zibilaren postuko komandantea Udaletxean agertzea, Espainia ordezkatzeko ez zuten bandera bietako bat eraisteko”*. Antza, Plentziakoa kentzea eta ikurrina uztea erabaki zuen Nicolás Landa alkate abertzaleak; hara non, *“ofentsa bat herriari”*, Justo Hieyte korrespontsalaren ustetan<sup>710</sup>.

1931ko abuztuaren amaieran inauguratu zen Mungiako Batzokia, eta osterara ere *El Liberalek* salatu zuenez, nazionalistek istilua ipini. *Cantaclaro* korrespontsalak deskribatu zuen herri bat *“indarrez hartuta irudi, non (...) Zululandian egongo bagina legez, ez ziren alarau basatiak baino entzuten bazter guztietan (...)”*. Kronikariaren esanetan, *“Gobernuaren aurkako berba gaiztoak egin ziren, batez ere Ogasun ministroaren aurka (...)”* eta *“gora-oihuak ibili ziren euskal armadarentzat, euskal Errepublikarentzat, eta baziren ere jakin bako beste gauza mordo batentzat”*. Aipagarriena, osterara, *“Zentro Errepublikanoaren lokala azpiratzeko”* saioa izan zen, irainka erabiliz.

*“(...) a las personas que se hallaban en el balcón. Con su característico salvajismo, arrojaron a la bandera nacional manzanas y salivazos, además de los más soeces insultos, llamándole trapo y otras lindezas”*<sup>711</sup>.

Errepublikanoek behin eta berriro salatu zituzten Errepublikaren bandera altxatzen ez zuten udalak edo egoera txarrean zeukatenak, bereziki 1932an. Sopelako Udaletxean, jaiegunetan, bandera bi ipintzen ziren balkoian: errepublikanoa eta *“jelista”* (nazionalista). Urte hartako urrian, *El Liberalek* salatu zuen bandera errepublikanoa *“kolorea galduta”* zegoela eta ikurrina, berriz, *“distiratsu”*. Gainera, Udalak Errepublikako lehendakariaren koadro bat erosia zuen, baina ipini ez eta *“baztertuta zegoen zoru gorrian”*<sup>712</sup>. J.B.

---

708 *El Liberal* 1931-6-3.

709 *El Liberal* 1931-8-12.

710 *El Liberal* 1932-1-7.

711 *El Liberal* 1931-9-2.

712 *El Liberal* 1932-10-27.

korrespontsal errepublikanoak, urte bereko otsailean salatu zuen Marurin “*hiru koloreko bandera behin baino ez d(ela) egon Udaletxeko balkoian: San Lorentzo herriko zaindariaren egunean*”. Alkatea, hala ere, errepublikazale agertzen zenez, J.B. kronikariak zioen ea ez ote zen “*separatista mozorrotu, askatasun handiagoz jokatzeko (...)*”<sup>713</sup>. Lemoizen ere ez zen hiru kolorekoa dantzatzen, 1932ko irailean salatu zenez<sup>714</sup>.

*El Liberal*ek hiru bider salatu zuen 1932. urte guztian Urdulizko Udaletxean ere ez zutela bandera errepublikanoa zabaldu. Martxoan, *Cantaclaro* korrespontsalak erregu egin zion udalbatza urduliztarrari bandera ipintzeko, “*(...) jaiegunetan hala behar baitu*”, baita ohartarazpen hau egin ere: “*(...) bestela, Konstituzioaren aginteari desobeditzeko egintzat hartuko dugu eta dagokionari salatuko*”. Hilabete bat geroago, “*Urdulizko bizilagun batek*” eskutitz bat bidali zion *El Liberal*ri, gobernadore zibilar zuzendua; “*Errepublikaren legeak bete daitezzen*” eskatzen zuen, “*alkateak (...) ez duelako gogorik batere erakusten bandera nazionala ipintzeko legeak agintzen duen egunetan (...)*”. Azkenik, uztailan, Tomás Hernando Acción Republicanakoak eskatu zuen bandera domeketan zabaltzeko, “*bestela pipiak jango du-eta*”<sup>715</sup>.

Batzuetan, oso gertakari funts bakoak salatzen ziren prentsan. Halakoxea da, 1932ko otsailean, pintada baten agerpena Lemoizko elizako atarian, duda barik, herri guztiak ikusteko moduko tokia. Klarionez marraztutako karikatura bat zen, orduko Herrilan ministro Indalecio Prietorena, eta alboan “*(...) idazkun hau: “Prieto, alderdi errepublikanokoa eta gose direnena*”. Partido Republicano Radical Socialistako herriko idazkariak ohar bat idatzi zion alkateari, karikatura ezabatu zedin, ohartaraziz gobernadore zibila jakitun egingo zuela bestela <sup>716</sup>. Hilabete batzuk lehenago, 1931ko udan, “*San Inazioaren eta jesuiten gaineko karikatura*” bat *El Liberal*en argitaraturik, Plentziako *Aurrera* Kasino Elkarteko batzordeak, lehendakaria kanpoan zegoela (Bartzelonan, hain zuzen), erabaki zuen egunkari horren harpidetza kentzea eta “*akta-liburuan delako karikatura eranstea*”. “*Bidegabekeria*” bat, egunkariko korrespontsalaren ustez, *Aurrera* elkarteak “*ezelango kutsu politikorik*” ez zeukalako. Horregatik, zioen, bertan “*egunkari guztiak irakurri behar dira, alderdi guztietako bazkideak daudelako*”. Gainera, aurrekari txarra irizten zion, “*elkarte apolitiko bat bigarren Batzokia bihurtzeko (...)*” arriskua agerian jartzen zuena<sup>717</sup>.

Plentzia bezalako hiribildu baten, handia izango zen, inondik ere, prentsaren itzala, eta elizateetan baino irakurle gehiago eduki. Urdulizen, Serafin Sagarna abade nagusiak 1932an egindako kalkuluaren arabera, herritarren %10ek baino ez zuten prentsa irakurtzen. Gainerako elizateetan ez zen oso desberdina izango. Hala ere, herrietan sekulako garrantzia ematen zitzaion idatzizko

713 *El Liberal* 1932-2-7.

714 *El Liberal* 1932-9-4.

715 *El Liberal* 1932-3-20, 1932-4-29 eta 1932-7-3.

716 *El Liberal* 1932-2-12.

717 *El Liberal* 1932-8-4 eta 1931-8-30.

komunikabideari borroka politikorako tresna moduan. Esate baterako, Sopelan, *Euzkadi* egunkariak 1931ko ekainean jaso zuenez: “*Sopela bezalako herri abertzalean, gure egunkari handia baino ez da hemen irakurri behar*”. Horregatik, gomendioa egiten zitzaion “*abertzaletasun sopoloztarraren buruzagiei*”, egin zitzaten “*(...) guztiak EUZKADiko harpidedun, behin hori eginda gainontzekoa berez etorriko delako*”<sup>718</sup>. Urdulizen ere kasu bat aurkitu dugu, prentsaren erabilera politikoa erakusgarri. 1932ko uztailaren 24an Emakume Abertzale Batza ireki zen, zenbait jarduera tarteko, batez ere euskal dantzak. *El Liberal* egunkariak ez zuen, bistan denez, albiste hori jaso; bai, ostera, 18 urteko gazte batek makilaz egindako eraso, “*amodio kontuak direla-eta (...) herriko plazan dantzan zebilenean*”<sup>719</sup>. Egun gutxi batzuk geroago, Txiberrik, *Euzkadi* egunkariko korrespontsal urduliztarrak, berria ekarri zuen, baina *El Liberalek* argitaratutakoa gezurtatzeko. Haren ikuspegian “*istripua ustekabekoa izan zen*” eta “*(...) domekako ekitaldi guztietan ez zen batera bakea urratu*”. Urdulizko kronikariak kontatu zuenez, “*ezpata dantza bitartean, makilekin ibiltzerakoan, ezpata dantzari batek beste bat jo zuen ezustean, eta mediku batek sendatu ostean Bilboko ospitale santura eroan zuten (...)*”<sup>720</sup>.

1932ko udaren bueltan, tirabira sozialak gora egin zuen. Esate baterako, Fruizen, 1932ko uztailan, “*elkarri makilaka ekin zioten gazte errepublikano eta nazionalista batzuek*”<sup>721</sup>. Hilabete bat lehenago, Manuel Azarola berangoztarrak *El Liberalen* orrietan idazten zuenez, “*herri guztietan borroka da nagusi eta horrek ez digu gauza onik ekarriko*”<sup>722</sup>. Urrian, Bizkaiko gobernadore berriak, Amilibiak, herrietako egoera bere gain hartzeko asmoa agertu zuen, “*(...) erregimenaren aldeko jendeak irainik jasan ez dezan*”. Gobernadorearen hitzen haritik, artikulu bat agertu zen *Euzkadi* egunkarian, “*Herrietako kazikeak eta Errepublika*” izenburukoa. Hona haren baieztapenetako bat: “*(...) topiko handi samarra da gure herrietan errepublikanoek eta demokratek sufritzen ei duten jazarpen delakoa*”. Argudioa maiz erabiltzen zen Errepublikaren hasieratik:

*“Más de diez y más de veinte casos conocemos en los que los presuntos demócratas pueblerinos perseguidos no son sino antiguos monárquicos y upetistas, caciques en todas las circunstancias, que se han encaramado prestamente en el carro del triunfo de la República para seguir así imponiendo su espíritu caciquil”*<sup>723</sup>.

---

718 *Euzkadi* 1931-6-4.

719 *El Liberal* 1932-7-26. Artikulu horretan jaso zen erasotuaren izena: Manuel Corbera, 18 urtekoa. Erasotzailea Epaitegiaren eskuetan ipini zela ere adierazi zen idazki berean.

720 *Euzkadi* 1932-7-31. Antza, Manuel Corbera hasieran uste baino larriago zegoen. *Euzkadin* 1933-4-12an argitaratu zenez, el golpe que recibió el joven *ezpatadantzari* del Batzoki de Berangoko Batzokiko *ezpata dantzaria* lanerako ezinean geratu zen kolpearen ondorioz. Hori dela-eta, “*(...) haren familia, gazteak ekartzen zuen diruaz gabeturik geratu ez ezik, gaitz luze horrek ekarritako gastuei ere egin behar izan dienez aurre, egoera txar-txarrean dago orain*”. Bizkai'ko *Ezpatadantzari-Batzak* erabaki zuen laguntza eman behar ziola gazteari eta bere familiari, eta diru-bilketa bat antolatu zuen egoera hori arintzeko.

721 *Euzkadi* 1932-7-29.

722 *El Liberal* 1932-6-2.

723 *Euzkadi* 1932-10-9.

Egunkari abertzaleak berak argitaratuak zituen baieztapen horrekin bat zetozen kasu zehatzak. Esate baterako, 1932ko uztaillean artikulua bat eskaini zitzaion Mungiako Alianza Republicanako lehendakari Antonio Elorduri. Itxuraz, Diktadura baino lehenago “*Círculo Tradicionalistako lehendakaria*” izanda, Primo de Rivera etorri zenean “*U.P.n afiliatu zen*”, eta gainera “*somaten karguan*” ibili zen, baita “*baserriz baserri sinadurak biltzen*” ibili ere diktadorearen aldeko plebisituari begira. Ildo beretik, artikulua arabera, Mungiako Alianza Republicanan “*(...) egiazko errepublikano bat dago, hainbatetan egurra hartutakoa diktadorearen garaian “biba Errepublika!” garrasi egiteagatik. Besteak, berriz, dozena pare bat txaketero (...)*”<sup>724</sup>.

Atzerago azaldu dugunez, 1933ko udaberrian jo zuten goia bortizkeriak eta gatazkak. Ordukoak dira, berbarako, Usansoloko gertakariak, maiatzaren 14an, errepublikanoen eta nazionalisten artean herriko *Batzokiaren* parean jazo ziren borroken ondorioz. Horien emaitza, Iñaki San Miguel *gaztetxuaren* eta Esperanza Zapata errepublikanoaren heriotza. Ordukoak ere, abertzaleek piztutako istiluak Errepublikako lehendakariaren bisita zela-eta.

Udaberri gatazkatsu hartan udal hauteskundeak izan ziren Uribe Kostako herri gehienetan. 1933ko apirilaren 23rako bozketen deialdiak kanpaina bizi bat ekarri zuen, bai errepublikanoek bai nazionalistek ahalegin handia egin zutelako propagandan, bozketak toki mailakoak izan arren. Indar politikoen arteko egoera labainak horretan ere eragiten zuen.

Berangon, jasota dauzkagu hauteskundeen aurretik izandako tirabirak. Esate baterako, martxo hasieran, bertako Elkarte Demokratikoak bazkide eta zaleei eskatu zien prestatzen has zitezen:

*“(...) para dar la batalla a los elementos reaccionarios y repetir el hecho glorioso de las últimas elecciones generales, que solos contra el conglomerado jelquide-monárquico-clerical obtuvimos aquella magnífica votación que dejó boquiabiertos a más de cuatro paniaguas”*<sup>725</sup>.

1931ko apirileko emaitzen arabera hiru errepublikanoak, hiru nazionalistak eta hiru monarkikok osaturik zegoen Berangoko Udala. *El Liberalen* orrietatik berangoztar izengabe batek, “*Demokrata bat*” sinaduraren atzean ostenduta, eskatu zien “*(...) euren burua herriaren maitaleztat hartzen duten guztiei*” sostengu eman ziezaioten hautagai-zerrenda errepublikano-sozialistari. Argudio moduan adierazi zuen zinegotzi errepublikano eta abertzaleak, legealdi osoan, ez zirela gai izanak akordio bat egiteko “*(...) bakarrik alor administratiboan*”. Bistan denez, errua herriko jeltzaleei leporatu zien. Haren ustez, elkar ulertze hori lortu izan balitz, mendean edukiko zituzten

---

724 *Euzkadi* 1932-7-17.

725 *El Liberal* 1933-3-3.



*“(...) a los que hasta entonces habían hecho y deshecho en el pueblo a su antojo (monarkikoak, argi dagoenez), pero la puerilidad nuestra de pretender entendernos con los nacionalistas en nada que sea lógico y razonable (que si esto sería posible se acabaría el nacionalismo) nos llevó al fracaso más rotundo”<sup>726</sup>.*

Berangoko alkatearen erantzuna ez zen luzatu eta egunkari berean argitaratu zen. Bere hitzetan, ez zen ulertzekoa testuaren egilearen helburua, non ez zeuden *“(...) arerio maskaratuak, gure lerroak inbaditu nahi dituztenak pikutara bidali guraz sano aurreratuak dauden joan-etorriak”* Berangorako proiektu handi bat lortzeko bidean. Hona zer gehitu zuen:

*“Esta alcaldía quiere dejar sentado con claridad meridiana que sin hacer dejación en lo más mínimo de su ideología política, y sin hipotecar ni un ápice la libertad de movimientos de la Corporación, aceptará toda clase de cooperaciones administrativas, procedan del campo político que procedan, porque entiende que así defiende los intereses que le están confiados”<sup>727</sup>.*

Hauteskunde kanpainan, errepublikanoek mitinak antolatu zituzten, apirilaren 16rako, Berangon, Sopelan, Urdulizen eta Armintzan. *El Liberalek “demokratak”* berotu nahi izan zituen, guztiak Urdulizko *“(...) mitinera joateko, gure arerioei erakustearren Errepublika Bizkaian hartzen ari den indarra”<sup>728</sup>.*

Abertzaleei dagokienez, ez dago inon jasorik EAJren mitinik Urdulizen. Badakigu herriko *emakumeek* zeregin handia eduki zutela kanpainan, *“(...) JELen alde hamabost egun atsedean barik lan eginez”<sup>729</sup>.* Sopelan, berriz, mitin nazionalista bat izan zen apirilaren 9an, Antonio de Aretxabaleta plazan, María Teresa Zabala, *“Ogoñope”* eta Jose Antonio Agirre hizlari. Egun berean, beste mitin bat egin zen Lemoizen, aitatu berri ditugun lehenengo hizlari biek<sup>730</sup>. Apirilaren 17an mitin *jeltzale* bat egon zen Berangon; herriko kronikari *Manuk* kontatu zuenez *“(...) bertan, abertzale mordo itzela ikusi zen gure hizlari kementsuak entzutera, Algortatik, Getxotik, Sopelatik, Urduliztik eta Gaminiztik etorritakoak”*. Horiez gain, korrespontsalaren esanetan *“(...) Berango guztia zegoen bertan”<sup>731</sup>.*

---

726 *El Liberal* 1933-3-30.

727 *El Liberal* 1933-4-5.

728 *El Liberal* 1933-3-15 eta 1933-3-16.

729 *Euzkadi* 1933-4-29.

730 *Euzkadi* 1933-4-7 eta 1933-4-11.

731 *Euzkadi* 1933-4-20.

Eskuma tradizionalistak ere agertu ziren eskualdean. Gatikan, apirilaren 16an, meza nagusiaren ostean “(...) *agertu ziran Bilbao-aldetik karlatar edo tradizionalista batzuk*”, eta mitin bat eman zuten entzule gutxi eduki zuena, *Euzkadi* egunkariari kasu egitera<sup>732</sup>. Monarkikoeak, Acción Católicaren aterpean, mitin bat antolatu zuten Berangon, errepublikanoen egun berean. Hartan ere, jendea urri, *Manuk*, Euzkadi egunkariko korrespontsalak, idatzi zuenez. Kronikari berangoztarraren iritziz, Acción Católicakoak, “*hau da, monarkikoak, (...) beti gura izan dutena egiten ibili diren kazikeak*” baino ez ziren<sup>733</sup>. *El Liberal*en ere izan zuten zer esana hauteskundeetako ekitaldi horren gainean: “(...) *karabana barregarri bat agertu zen herrira; haren osatzaile, dama katekista zenbait eta jaun bat, Jesusen Lagundia desegineko kide baten itxura guztia zuena (...)*”. Egunkari ezkertiarreko korrespontsalaren arabera, “(...) *dama elizazaleek, (...) pentsatzekoa denez, jendearen txistu luzeak jaso zituzten eta herritik irten zuten, guztiek burla egiten zietela*”<sup>734</sup>.

*Euzkadi* egunkariko kronikari berangoztarrak monarkiko eta errepublikanoen artean banatu zuen egurra. Modu horretan, kontrajarri zuen mitin nazionalistara etorri zen jendetza, kontrario politikoen ekitaldiek lortutako erantzun eskasagoarekin. Haren hitzetan, “(...) *eguna eta gaur izan ziren abertzaleen mitina (...) eta beste bi horiena*”, izan ere, monarkiko eta errepublikanoen mitinak “(...) *hain umezurtz gelditu ziren entzulez, “kontua” laburtu beharrean egon baitziren (...)*”. *Manuren* iritziz, Acción Católica monarkikoen mozorro bat zen beren betiko kazikismoa ezkutatzeke. Errepublikanoentzat ere izan zuen zer esana: “(...) *ederto dakigu ez doazela gora (...)*”<sup>735</sup>.

Hauteskundeen egun berean, *Manuk* artikulua bat zuzendu zien berangoztarrei, botoa eman baino lehen ondo hausnartu zezatela erreguka. Artikulugileak gogoa ipini zuen bere bizilagunei ohartarazten Acción Católicako hautagai-zerrendaren gainean, errepublikanoen aipamenik batere egin barik. Korrespontsalaren ustez, eskumako alderdia kazikeen “*mozorro berria*” zen, lehengo “(...) *azpikerietara itzultzeko*”. Beraz –gehitu zuen– “(...) *gure eginbeharra da aurpegia tapatzeko ipini duten maskara hori kentzea, jakin dezagun zelako trikimailua eraiki duten (...)*” Acción Católicako siglen atzean. Argi eta garbi, haren ustetan, herriko hautagai-zerrenda nazionalista baino ez zen monarkikoei aurre egiteko gauza<sup>736</sup>.

---

732 *Euzkadi* 1933-4-22. “ITZALDIA EDO ZEOZER. – Igazi dan igandian, jaupa-nagusi-ostean agertu ziran Bilbao-aldetik karlatar edo tradizionalista batzuk eta mitiña edo itzaldija euki eben (...)”.

733 *Euzkadi* 1933-4-20.

734 *El Liberal* 1933-4-18.

735 *El Liberal* 1933-4-20.

736 *El Liberal* 1933-4-23.

Une hartan gizarteak bizi zuen larritasunaren erakusgarria da Bizkaiko gobernadore zibilararen apirilaren 17ko zirkularra. Idatziak hauteskundeen egunean liskarrak galaraztea zuen helburu, eta bertan honako hau gogorarazten zen: “(...) hauteslekuetan, Sekzioko hautesleek, hautagaiek eta haien ahaldunek, eta notarioek baino ez dute libre sartzea”. Beste alde batetik, hona zer ghitzen zuen:

*“(...) está prohibida la entrada a dichos colegios con armas, palo, bastón o paraguas, a excepción de aquellos electores que por impedimento físico tuvieren necesidad absoluta de apoyo para acercarse a la Mesa”<sup>737</sup>.*

Hauteskunde egunean, ez zen giro izango Uribe-Butroe aldean, prentsak jaso zuenez. Esate baterako, *El Liberal*ek salatu zuen Gatican nazionalistek abian jarri zutela

*“un (...) incesante movimiento de “autos” para transportar correligionarios y...obligados, incluso a personas ancianas e imposibilitados, que hace años no han podido cumplir con el tercer mandamiento de la Ley de Dios, valiéndose de toda clase de coacciones (...)”<sup>738</sup>.*

Egunkariak horri egozten zion nazionalistek Gatikako Udalean egin zuten arrasoa, beste aldagai bat ahaztu barik: “(...) indar errepublikanoek sano ahul eta etorkorregi jardun zuten, protestarik den txikiena egin barik (...)”<sup>739</sup>.

Berangon ere, *El Liberal*ek jaso zuenez, abertzaletasunak “(...) bere mendekoak” mobilizatu zituen. Horrez gainera, “istilu batzuk piztu ziren (...) garrantzi bakoak”<sup>740</sup>. Euzkadi egunkariak zabalago landu zuen liskarren kontua: “(...) hauteslekuak ireki baino lehen, kanpotar tropa handi batek beretua zuen Berangoko landa (...), haien egitekoa, bozketa kosta ala kosta oztopatzea (...)”. Egunkari abertzalearen iritziz, jendetza horrek “(...) ondo erreklutatuta eta hobeto diziplinatuta zegoen, aginte-oihuari “gizon bakarra” balira bezala erantzuten baitzioten(...)”. Era berean, aditzera ematen zen, halako momentu batzuetan, “(...) saiatu zirela hauteslekuak asaltatzen eta boto nazionalistez beteriko hautetsontziak ostutzen, baina (...) masa abertzaleak (...) behartu zituen U.G.T.ko legionario ausartak hanka egitera”<sup>741</sup>. Eguneroko jeltzaleak, gainera, salatu zuen Berangotik, “estremista aldrak” joan zirela “zereginik batere eduki barik, halako herri batzuetara”, besteak beste Sopelara, eta bertan ez zutela izan “(...) lotsarik pistolak jendaurrean erakusteko”<sup>742</sup>.

---

737 *El Liberal* 1933-4-18.

738 *El Liberal* 1933-5-11.

739 *El Liberal* 1933-5-11.

740 *El Liberal* 1933-4-25.

741 *Euzkadi* 1933-4-25.

742 *Euzkadi* 1933-4-27.

Beste egunkari batzuek zehaztu zuten zer istilu mota jazo ziren Berangon. Esate baterako, *El Nervión*ek kontatu zuen zelan, hautetsontzi bat apurtzeko saio baten ondorioz, “(...) zaplaztekoak izan ziren errepublikanoen eta nazionalisten artean (...). Horren emaitza, hiru gazte arin zauriturik”<sup>743</sup>. Madrilgo *La Nación* egunkariak, ildo beretik, “(...) eskumako eta ezkerreko gazteei” egotzi zizkien liskarrak, eta haien arteko “makilakadak eta zaplaztekoak”<sup>744</sup>.

Sopelan, herriko EAEko hautagai José María de Barrenetxeak salatu zituen “nazionalistek” Larrabasterrako hauteslekuetan “egindako hertsapenak”, *Euzkadi* egunkariak jaso zuenez. Salaketa horren aurrean, egunkari jeltzaleak Sopelan gauzatutako ustezko hertsapenen zerrenda atera zuen: esate baterako, Isidoro de Zamakonari<sup>745</sup> leporatu zion bere autoa utzi izana, “koitaduak” jasotzeko “eta hauteslekura eroateko”, eta, aholkatu izana “(...) hauteskundeen bezperan (...) bere aitaginarrearen errentadoreei hautagai-zerrenda “demokratikoari” botoa emateko(...)”. Aldi berean, aipamena izan zuten José Quintana merkatariak Udalerako hautagai-zerrenda errepublikanoko hautesleei emandako opariek: “ogi biribila, bakailaoa eta gauzatzoren bat gehiago (...)”. Quintanaren etxean zegoen ezarrita Sopelako Zentro Demokratikoa. Hain zuzen ere, bertako lehendakari Ciriaco Etxaizek eman zion zeresana delako egunkariari, “(...) bere alabak mehatxatu ei zituelako, etxetik botako zituela, botoa bere zerrendari ematen ez bazioten”. Antza, horietako batek “(...) Vicente de Arbeloa gure aberkide maitearen etxean lan egiten zuen, baina hark askatasun osoa eman zion gura zuenari botoa emateko”<sup>746</sup>.

Lehentxeago esan dugunez, Urdulizen EAJK arraso egin zuen Udalean, errepublikanoak kanpoan utzirik. *Euzkadi* egunkariak artikulu baten jaso zuen albistea, eta bertan adierazi jeltzaleen garaipenak ordezkartzita barik utzia zuela “(...) gutxiengo urri bat, gehien-gehiengoz aberriaren arerioek osatutakoa”<sup>747</sup>. Hauteskundeetako aktak ez zuen inongo istilurik jaso bozketa bitartean, eta bai, aldiz, gaineratu hautagaiek ez zutela ezelango “erreklamaziorik ez protestarik agertu bozketa horien legezkotasunaz”<sup>748</sup>.

Hala eta guztiz ere, ez dirudi Urdulizen giroa desberdin-desberdina zenik probintziaren gainerakoan bizi zuten bortizkeriaren aldean. Maiatzaren amaieran, Urdulizko Acción Republicanako idazkariak salaketa bat argitaratu zuen *El Liberal* egunkarian. Antza, maiatzaren 5ean, bizikletaz etxera zihola, “mozorrotutako lau morroik” gerarazi zuten Urduliz eta Sopela artean. Gizon horiek aholku eman zioten Acción Republicanako Zentroa uzteko eta *Batzokian* izena emateko, “modu horretan –esaten zuten– herrian hobeto begiratuko didatelako eta ez zaidalako lanik faltako”. Azkenik, 15 eguneko epea eman zioten bere semea bataiatzeko.

743 *El Nervión* 1933-4-24.

744 *La Nación* (Madril) 1933-4-24

745 Zamakonak buru egin zuen Sopelako Udal Batzorde Kudeatzailean, 1934ko irailetik 1936ko otsailera bitarte, *Euzkadin* 1935-3-12an argitaratutako artikulu batetik ateratzen denez.

746 *Euzkadi* 1933-5-18.

747 *Euzkadi* 1933-4-26.

748 B.F.A.H. AR 00347/011.

Egun batzuk geroago, maiatzaren 18an, gaueko hamaiketan, “*mozorrotutakoek*” heldu zioten berriro ere Tomás Hernandori, lanetik bueltan zetozela, Urdulizko hilerriaren parean. Oraingoan, Acción Republicanako idazkariaren kontakizunaren arabera, heriotz mehatxua ere egin zioten, aurreko egunetan jasandako bortxari zegokionez “*zer pentsaturik ez zuela*” esan ostean<sup>749</sup>.

*Euzkadi* egunkariak, berriz, salatu zuen zelan, Sopelako gazte *abertzale* batzuek, Sopelatik erromeria batetik bueltan zetozela, talka egin zuten Berangoko Zentro Demokratikoko kide batzuekin, maiatzaren 7an. Egunkari *abertzaleak* kontatu zuenez, egun hartako arratsaldean, Sopelara bueltatu aurretik, “(...) *freskagarri bat hartzera sartu ziren Zentro Demokratikoaren eraikinean dagoen lokalean*”. Pertsona batek “*hortik atoan hanka egiteko*” esan zien gazteei, baita haiek horixe egin ere. Kalera irtetean, “(...) *haietako batek irrintzi egin zuen, herria agurtzeko, eta erantzun talde bereko beste batek (...) José Urrutxuak, 17 urtekoak*”. Egunkariaren esanetan, José Urangak, Berangoko gutxiengo errepublikanoko zinegotziak burlatzen hartu zuen delako *irrintzia*. Hori ikusita, Urrutxuak itaundu zion zinegotziari “*irrintzi egitea iraina ote zen (...)*”. Urangak, orduan, pistola bat atera zuen eta “*Zentro Demokratikoko lokalera igotzeko*” agindu, baina gazte *abertzaleak* ezetz. Ukoa onartu barik, zinegotzi errepublikanoak “(...) *arma kargatu eta gaztearen bularrera zuzenduta, igotzera behartu zuen, baita, beste morroi batzuk bertan zeudela, Biba Espainiako Errepublikak! garrasi egitera ere*”<sup>750</sup>.

Adibide horiek probintzia mailan, batez ere Bilbon eta industria eremuan, bizi zen egoera nahaspilatsuen erakusgarri dira. Hain handia zen gatazka maila, ezen, maiatzaren 21ean, Berangon batu baitziren Uribe Kostako eta Itsasadarreko herrietako zentro errepublikanoetako ordezkariak. Batzar hartan, errepublikazaleek zenbait erabaki hartu zituzten. Batetik, Ministro Kontseiluko lehendakariari eta Gobernazioko ministroari beren protesta adieraztea Usansoloko gertakariengatik. Bestetik, Gobernuari eskatzea egin zezan “(...) *Erregimenaren kontrakoen eta batez ere EAJren mehatxu, hertsapen eta pistolarikeriaren aurka*” eta har zitzan “*neurri bizkorrak*”, herrietatik Zentro Demokratikoak desagertzeko arriskua zegoelako, izan ere “(...) *orain gauden bezala, defentsa barik, beldur gara gure kideak baja hartzen joango ez ote diren apurka-apurka*”<sup>751</sup>.

Urdulizko udalbatza nazionalista aukeratu berriak bestelako erabakiak hartu zituen maiatzaren 20an, besteak beste bertan behera uzteko “(...) *Gobernuak egiten dituen atxiloteta iraingarri eta neurritz kanpokoak, eta askatzeko Bizkaian gaur egun horien mendean dauden herritar guztiak*”<sup>752</sup>.

Gorteetarako 1933ko azaroko hauteskondeek, Estatuan, zentro-eskumari eman zioten garaipena. Porrotak eta, berarekin batera, Estatuko Gobernuaren

---

749 *El Liberal* 1933-5-31.

750 *Euzkadi* 1933-5-18.

751 *El Liberal* 1933-5-24. Hona non dagoen bileran hartutako erabakiak jasotzen dituen agiri mekanografiatua: C.D.M.H. P.S. Bilbo, 164. kaxa, 13. zk.

752 U.U.A. “Historikoa”, 1931-1937ko Akta Liburua, 2. kaxa, Bilkura arrunta 1933-5-20.

galerak antiklerikalismo maila apaltzera behartu zuen ezkerra. Hori dela eta, Euskal Herrian neurri berean apaldu zen auzi honekin zerikusia zuen gatazka. Handik aurrera, prentsan ere bakanagoak dira arazo erlijiosoei buruzko berriak. Esate baterako, 1934ko otsailean, *El Liberalen* argitaratutako albiste baten arabera, Armintzan bestelako ohitura batzuk nagusitzen ari ziren hileta-elizkizunetan mezatarako entregatzen zen diruaren inguruan. Dirua abadearen eskuetan utzi ordez, hildakoaren familiari hasi zitzaizkion ematen. Horrek, *Cantaclaro* kronikariaren iritziz, zekarren abadeen “(...) *diru-iturri garrantzikoenetako baten galera*”<sup>753</sup>. 1935eko martxoan salatu zen Marurin, Garizuma bitartean, dotrina edo kristau ikasbidea eskola orduetan eman zutela “*Misioak ematera*” etorritako fraide batzuek. Korrespontsalak honela kontatu zuen pasadizoa:

*“(...) ha bastado una orden del cura dictada desde el púlpito el domingo mandando a todos los niños y jóvenes que acudan al pórtico a las diez de la mañana, para que sin una sola excepción hayan dejado de acudir a las escuelas públicas mañana y tarde”*<sup>754</sup>.

Ohitura sustrai-sustraitua zen hura, zelanbaiteko bilakaera izanda ere, lehenago abadeak joaten ziren-eta eskoletara. Urdulizko abade nagusi Pedro Martín de Andicoecheak horren lekukotasuna eman zuen 1918 aldera: “(...) *Garizuman, mutikoen eskolara joaten gara eta han dotrina ematen*”<sup>755</sup>.

Azkenik, 1936ko apirilaren hasieran beste salaketa bat topatu dugu, erlijio auzia eta eskola uztartzen dituen. Oraingoan salatzailea ez zen prentsa izan: Larrabasterrako eskolako neska eta mutikoen 21 aita-amak idatzia igorri zioten Sopelako alkateari ezinegona adierazteko euren seme-alabek ikasketetan atzera egin zutelako. Concordia Moral maistrak bere lanean egindako zenbait irregulartasunen berri ematen zuten, aldi berean. Gurasoen adierazpenen arabera, irakasleak ez zituen ordutegiak betetzen eta “(...) *irakurtzen erakutsi ordez, umeez beren adinean jakin behar ez dituzten gauzak irakasten ibiltzen da*”. Itxuraz, “(...) *abortuez eta erditzeez*” berba egiten zien. Amaitzeko hau ere salatu zuten:

*“(...) tratándose de un régimen totalmente laico, se exhibe en dicha escuela una imagen delante de la cual obliga a arrodillarse a todos los niños y orar ante ella durante las horas de clase y no estando conformes con el proceder de dicha Sra. pedimos la expulsión inmediata y fulminante porque es imposible transigir dichos procedimientos (...)”*<sup>756</sup>.

753 *El Liberal* 1934-2-9.

754 *El Liberal* 1935-3-17.

755 A.H.E.B. 6725/002-00 “*Parrokiako Estatistika*”, 1918 inguruko data du.

756 B.F.A.H. Sopela 0072/020, *Copia de carta de padres de niños que asisten a la escuela del barrio de Larrabasterra al Sr. Alcalde-Presidente del Noble Ayuntamiento de Sopelana* 1936-4-9. Eskutitz hori sinatzen zuten gurasoen artean Ciriaco Echaiz zegoen, zinegotzia eta Sopelako centro demokratikoko lehendakaria 1933aren erdialdean, *Euzkadin* 1933-5-18an agertzen denez.

Idatzia ez zen udalerriko sektore errepublikano-ezkertiarren eraginez bakarrik sortu. Sopolako Elkarte Sozialistak segurtatzen zuenez, “(...) *herriko kontu bat da, alderdi guztietako sinatzaileak daudelako*”. Hain zuzen ere, sozialista sopoloztarrek eskutitza bidali zioten Bizkaiko Federazio Sozialistari, Concordia Morali irekitako espedientearen instrukzioaren atzerapenaz kexatzeko eta haren bitartekaritza eskatzeko Madrilgo Hezkuntza Ministerioaren aurrean. Baina eskari horrek bazuen beste arrazoi bat gehiago: elkarte sopoloztarra behin eta berriz jasaten ari zen “(...) *mehatxuak eta bortxak (...) herriko kazike aberatsaren eta haren morroien aldetik*”.<sup>757</sup> Geroko dokumentazioari esker badakigu Antonio Arechabaletaz eta haren suhi Isidoro Zamaconaz zihardutela. Gerra Zibilaren garaian Sopolako Udal Batzar Ikertzaileak bien aurka irekitako espedienteetan, Larrabasterrako maistraren auziari heldu zitzaion, leporatu zitzaielako Concordia Moral kargugabetzeko eskaeraren sinatzaileen kontrako mugimenduak sustatu izana. Arechabaletaren gainean esan zen “(...) *espedientea abiatu zutenak jarri zituela bere agindupeko kazikeen aurka*”<sup>758</sup>. Zamaconari dagokionez, “(...) *herriko maistra baten aurka espedientea ireki zen baten*” egotzi zitzaion “(...) *herriaren erdia beste erdiaren aurka ipintzea, hainbestearino, elkar joka hasi zenik ere egon baitzen morroi horren erruz*”<sup>759</sup>. Maistraren kargugabetzea Gerra Zibila hasita etorri zen, azkenik, 1936ko abuztuaren hasieran<sup>760</sup>.

Euskal udalen eta Samperren Gobernuaren arteko borroka eta Urriko Iraultzak berotu zuten, batez ere, 1934an bizi izandako gatazka giroa. Horretaz, berba eginda gaude Udalaren jardunbideari eskainitako kapituluan, eta hura nahikoa. Ardoaren Estatutuaren inguruko liskarra izan zen, duda barik, Bigarren Errepublikako une larrietako bat, zuzenean udalerrri bakoitzari eragin ziolako. Ezkerraren eta nazionalismoaren arteko abaguneko topagunea ere izan zen, bestalde.

757 C.D.M.H. P.S. Bilbo, 215. kaxa, 22. zk, *Carta dirigida a la Federación Socialista Vizcaína por la Agrupación Socialista de Sopolana*, 1936.

758 C.D.M.H. P.S. Bartzelona 93,1,111, 111, 2. espedientea, Sopolako U.I.B.k Antonio Arechabaletari irekia, 1936.

759 C.D.M.H. P.S. Bartzelona 93,1,112, 10. espedientea, Sopolako U.I.B.k Isidoro Zamaconari irekia, 1937.

760 ARCHIVO GENERAL DE LA ADMINISTRACIÓN (A.G.A.), 32/13300 signatura, Concordia Moral maistraren depurazio espedientea. Interesgarria da maistraren depurazio espedientearen jasotako lekukotasunak. Hasteko eta bat, karguan berriro ere ipintzea proposatu zen 1938ko martxoaren amaieran “*bere gaitasun profesionalari dagokiona argitzeko behar diren neurriak hartu badaitezke ere*”. Badirudi, beraz, 1937ko abuztuaren agintariekin jasotako lekukotasunek berretsi zutela irakaslearen jokabide profesionala ez zela ona, ikastetxeko ikasleen gurasoek 1936ko apirilean salatu zuten legez. Berbarako, Oleagak, Sopolako orduko alkateak, adierazi zuen zenbait aita-amaren txostenaren arabera ikusten zela “(...) *irakaskuntza hala-holakoa izan dela maistra honek gobernatutako eskolan, umeek gutxi aurreratzen zutelako euren ikastetxetan (...)*” (Oleagak, Sopolako alkateak, betetako informazio orria 1937-8-21). Gregorio Gómez García Guardia Zibileko kaboa gogorrago agertu zen, esanda Concordia Moralen lana ez zela “(...) *oso fin ibili, eta horregatik bizilagunek haren kontrako salaketak aurkeztu zituzten, ikasleek irakaskuntzan zer gutxi aurreratzen zuten ikusita. Horregatik enplegua eta soldata eten zitzaizkion 1936ko abuztuaren 1937ko maiatz arte (...)*”. Gómezek harago jo zuen eta irakaslea “*erdipurdikoa*” iruditzen zitzaiola gehitu zuen, “(...) *egitateak egiazkoak zirela egiaztatzeko*” erabili zituen iturri gutziek iritzi bera eman ziotelako (Guardia Zibilaren txostena 1937-8-17).

Laburbilduz, Uribe Kostako eskualdeak behar adina elementu uzten ditu gure eskuetan 1931-1934ko gatazka sozialen so egile bihurtzeko momentuan, nahiz eta gatazka horren bizitasuna askoz ere apalagoa izan Bilboko itsasadarrean baino, errepublikazaletasunak hemen agertzen zuen ahultasuna dela-eta. Gertakari gehienak (esate baterako, “*egintza zibilak*”) nahiko bakanak izanagatik ere, 1931tik 1933ra bitarteko aldi gatazkek Euskadin bizi izan zituen goragune nagusien arrastoa erraz topatzen da eskualdean. Eskura ditugun datuen arabera, Urdulizen gatazka maila oso apala izan zen, salbuesten badugu Acción Republicanako idazkariari heriotza mehatxuak egin zizkioten mozorroen pasarte, berak salatu zuenez.

Testuinguru desberdina erakusten digute Gorteetarako 1936ko otsaileko hauteskundeek. Bigarren Errepublikaren hasieran euskal politika arazo klasiko bietan ardaztuta egon zen: erlijioa eta autonomia. Orain, bi horiek beren horretan iraun bazuten ere, bloke politikoak ez ziren 30eko hamarkadako lehen urteetako berak. Eskuma-ekzerra bloke tradizional biak barik, triangelu bat dabil dagoeneko: ekzerra, Fronte Popularraren inguruan bildua; EAJ, zentro politikoan kokatua, eta eskuma.

Eskumako blokeak, antza, kazikeen metodoak erabili zituen botoa eskuratzeko, prentsak salatu zuenez. Esate baterako, *El Liberal* egunkariaren kontakizunari jarraituz, Plentzian, Gabonetan, “(...) *klase dirudunen ale jator baten etxera agertzeko mandatua hartu zuten zenbait familia behartsutako amek*”. Deialdiaren xedea, bakailao sortak eta tomate poteak haien eskutan uztea. Banaketa horrekin saritutako emakumeetako batzuek itaundu zuten zelan eskertu ahal izango zuten oparia:

*“(...) entonces surgió una señora, la que dijo “No; ustedes han recibido; ahora tienen que escuchar. Ya saben que las “votaciones” se acercan y a ver por quién van a votar ustedes aquel día. A ver si a la hora de votar no se van a acordar de quien les favorece”. Y otras cosas por el estilo”*<sup>761</sup>.

Horrezgain, “(...) *tokiko politikaren buruzagiek*” –Udal Batzorde Kudeatzaileari aipu argia eginez– zera gehitu zioten “(...) *zorioneko bakailaoari, porlanezko eta galipotezko ziztrinkeria batzuk, bakailaoa bera baino are merkeagoak*”. Hau da, bide konponketa batzuk<sup>762</sup>.

*Euzkadik* ere jaso zuen Plentziari buruzko berri hori, “*Hauteskunde aurreko banaketak eta bideak*” izenburuko artikulua baten. Egunkari nazionalistaren hitzetan, banaketak –*El Liberalek* deskribaturiko bakailao sorten aipamen argia– “(...) *monarkiaren aitzingidariak*” eginak zituzten “(...) *hainbeste maite dituzten langile horietako batzuen artean...*”. Egunkari jeltzaleko korrespontsalak “(...) *harridura herabe eta begirunetsua*” agertu zuen “(...) *banaketa horiek beti-*

761 *El Liberal* 1936-2-9.

762 *El Liberal* 1936-2-9



*beti gertatzen direlako noiz eta onuradunen botoak interesgarriak direnean, mademoiselle Kareagaren etorrerarekin bezala*". Ildo beretik, hauteskundeei begira egindako bide konponketa ere salatu zuen egunkari nazionalistak. Hain zuzen ere, bere orrietara ekarri zuen 1934ko irailean Udalean inposatutako kudeatzaileetarikoa batek Plentziako Arenal auzoko bizilagunen aurrean azaldutako kexa, "(...) kalea eurek konpondu eta gero, bertan bizi zirenetako askok botoa nazionalistei emango zietelako (...)". Aldi berean, Txipios auzoko bizilagun bati jazotakoa aipatu zen, konpontzen ari zitzaizkion bidea amaitu barik geratu zelako "*harri faltan*". Kronikariak, ironiaz, Udalari jakinarazi zion zer egin behar zuen: "*Ederto dakite kudeatzaileek: harria, hor ere botoak daude-eta!*"<sup>763</sup>.

Egunkari berak Barrikan egindako salaketa jaso zuen, Udal Batzorde Kudeatzaileko lehendakariak, "(...) *on*" Felipek", egindako ustezko zemaian gainean. Antza, kudeatzaile nagusiak mehatxu egin zion "(...) *emakume alargun gaixo bati, zer eta haren semeak beren zerbitzu zintzoak hartzen dituzten enpresetatik botako zituztela, botorik ematen ez bazion berak babesten zuen hautagai-zerrendari*", hau da, "*eskumakoari*"<sup>764</sup>.

Lemoizen salatu zen "(...) *berriro ere abiatuta zeudela betirako uxaturik ziruditen kazikeen amarruak*", eta zehaztu "(...) *halakok (...) behartu dituela zenbait jornalari hautagai-zerrenda monarkikoari botoa ematera, bestela lan barik geratuko direlako*"<sup>765</sup>. Hauteskundeen ostean, albiste hori xehe-mehe handitu zen:

*"(...) ¿Es cierto (...) que el finado Marqués de la Torreçilla ha amenazado a sus inquilinos si no votan a la candidatura monárquica? ¿Es cierto que el jardinero del señor Soltura, que dirige en ésta (Lemoiz) una plantación de pinos ha coaccionado a sus obreros? ¿No es cierto que otros propietarios de poca monta y administradores han ejercido las mismas amenazas para con sus inquilinos, y se ha ofrecido dinero por el voto y recurrido a toda clase de indignas maniobras para que nuestra fragata (EAJz ari da) zozobre?"*<sup>766</sup>.

Artikulu berean, hatza luzatu zitzaion Lemoizko abade Benito Apraizi, "*on Benitori*". Artikulugileak idatzi zuenez, apaizak esan zuen hautagai-zerrenda abertzalea "(...) *ezkerreko bera zela, eta garaile irteten bagenuen, komunismoa atoan ezarriko zela*". Abade nagusiaren jarrera-hartze politiko horrek egunkari nazionalistako korrespontsala bultzatu zuen elizgizonari aholku ematera:

---

763 *Euzkadi* 1936-1-22

764 *Euzkadi* 1936-2-15

765 *Euzkadi* 1936-2-11

766 *Euzkadi* 1936-3-6

*“(...) el párroco ha de ocuparse de la dirección de las almas y no de dividir a los creyentes en bandos de guerra. Y la casa del párroco debe ser la mansión sagrada donde todos los vecinos cristianos deben llamar a sus puertas con la confianza que allí mora (...) el representante de Cristo en la anteiglesia y no el político que ha convertido un lugar sagrado en eso, en el semáforo desde el cual se lanzan falsas señales para encontrar el naufragio de una fragata (la nacionalista) (...)”<sup>767</sup>.*

Eskumako hautagai-zerrendari botoa eman ziezaioten, baserri eta lurretako maizterrei egindako mehatxu eta bortxen auzian, sano interesgarria da Udal Batzar Ikertzaileek Gerra Zibilean osatutako espedienteen azterketa. Aurreko orrietan esan bezala, Euzkadiko Gobernuak sortutako toki erakunde horien egitekoa zen argitzea jabe guztiak erregimen errepublikanoaren aurkakoak ziren edo ez. Ikerketa honetarako, Urdulizko batzarrak bideratutako espedienteak ez ezik, Barrikakoak eta Sopolakoak ere kontsultatu dira. Modu horretan, hiru elizateen artean gutxienez zortzi bortxa eta mehatxu kasu topatu dira, gehienetan, 1936ko otsaileko hauteskundeetan.

Urdulizko Batzarrak irekita gure egunetara heldu diren hiru espedienteetan, salaketak agertzen dira kontu horien gainean. 1936ko abenduaren 20an, José Urrutia Madariagak eta Agustín Bilbao Bilbaok salatu zuten *“(...) elizate horretan egin diren hauteskundeetan eskumako hautagai-zerrendaren aldeko botoa ematera behartu dituztela, bestela etxetik botako zituztela mehatxatuta”<sup>768</sup>*. Urduliztar bi horiek *Dobaran Goici* baserrian bizi ziren, Salabert Arteaga jaun-andreen jabeago. Egun hartan bertan, Antonio Olea Bilbao eta Pascasia Ugarte Echevarriak, *Iraolaga* baserriko errentadoreek, salatu zuten euren etxearen jabeak, Adolfo G. de Careagak, behartu zituela *“(...) eskumen hautagai-zerrendari botoa ematera (...) elizate honetan egindako hauteskundeetan”<sup>769</sup>*. Azkenik, 1937ko urtarrilaren hasieran, Urdulizko sei bizilagunek<sup>770</sup>, María del Carmen Ibarren lur eta ortuak errentan zeuzkatenetakoek, salatu zuten ezen Sevillako bizilagun horrek, *“monarkikoa bera”*, *“(...) bere administratzaile edo ordezkariaren bitartez”*, hertsatu egin zituela *“(...) eskumako hautagai-zerrendari botoa ematera egin diren hauteskunde guztietan”<sup>771</sup>*.

---

767 *Euzkadi* 1936-3-6.

768 C.D.M.H., P.S. Bartzelona, 93 *“Urdulizko Elizateko Udal Ikerketa Batzordeak “Salabert eta Arteaga jaun-andreei” irekitako espedientea”*, 1. espedientea, 1936/1937.

769 C.D.M.H. P.S. Bartzelona, 1417 *“Urdulizko Elizateko Udal Ikerketa Batzordeak Adolfo G. de Careaga jaunari irekitako espedientea, 2. espedientea, 1936/1937.*

770 Pedro Erdaide Odrioso, Martín Ugarte Ansoleaga, Pedro López Santín, Juana Videá Bilbao, Juan Inchaurtieta Arambalza eta José Bilbao Urrechaga.

771 C.D.M.H. P.S. Bartzelona, 1417 *“Urdulizko Elizateko Udal Ikerketa Batzordeak María del Carmen Ibarra andreaki irekitako espedientea”*, 4. espedientea, 1937.

Sopelan, Udal Batzar Ikertzaileak espedientea ireki zion La Torrecillako markesari ere, hauteskundeetan “(...) maizterrak beti eduki zituelako bere apeten mendean, bestela kanporatuko zituela mehatxaturik”<sup>772</sup>. Enrique Balparda, bestalde, udalerriko hiru baserriren jabe zen eta “monarkikoa betitik”; hartaz esan zen agindu ziela “(...) bere maizterrei eskumen hautagai-zerrendari botoa ematera”<sup>773</sup>. Azkenik, Larrabasterrako bizilagun Antonio Arechabaletari bortxak modu anonimoan egin izana leporatu zitzaion. Honako hau adierazi zuten haren gainean:

*“(...) este sugeto (sic) en las elecciones se dedica a pasar sobres recomendado a sus inquilinos a que voten la candidatura monárquica siempre sin comprometer su personalidad no firmando dicha inbitación (sic), y sin embargo amenazándoles que pueden ser despedidos si no votan dicha candidatura”<sup>774</sup>.*

Bernabé Hormaza Barrikako alkatea izan zen Primo de Riveraren diktaduraren garaian. 1934ko Ardoaren Estatutuari buruzko atalean berba eginda gaude hartaz. Haren aurka irekitako espedientearen azterketa korapilatsuagoa da, badirudielako aspaldi handitik bertako nazionalistekin zuen borrokaren atal bat gehiago dela. Interesatzen zaigun auzira joanda, Barrikako Udal Batzar Ikertzaileak “*Bloque Nacionalaren hautagai-zerrendaren boto-emaitzat*” hartu ez ezik, leporatu zion beste batzuk bultzatzea berdin egitera, “(...) baita bortxaz bultzatu ere, jabea eta Zahar Etxeko Administrazio Batzordeko lehendakaria zela *aprobetxaturik*”. Azken salaketa hori honako honetan oinarritzen zen:

*“(...) la manifestación hecha a las puertas de Colegio Electoral por una de las criadas del citado Asilo, que conducía a un anciano asilado del brazo, para que los agentes y apoderados del Frente Popular y del Partido Nacionalista Vasco, no le cambiaran la candidatura del Bloque Nacional que llevaba”<sup>775</sup>.*

---

772 C.D.M.H. P.S.artzelona, 93, 1, 107, “*Salabert Arteaga, E., Torrecillako markesa erregimenaren kontrakoa deklaratzeko espedientea, Sopelako (Bizkaia) Udal Ikerketa Batzordeak irekia*”, 1936.

773 C.D.M.H. P.S.artzelona, 93, 1, 108, 3. espedientea, Sopelako U.I.B.k Enrique Balpardari irekia, 1937. Balpardaren hiru baserriak, dokumentazioan agertzen diren legetxe honako hauek ziren: *Larrondo-Beco, Larrabasterra eta Aravetas-Vieja*.

774 C.D.M.H. P.S.artzelona, 93, 1, 111, 2 espedientea, Sopelako U.I.B.k Antonio Arechabaletari irekia, 1936. Arechabaleta bost baserriren jabe zen: *Loyola, Iberre, Iber Goico, Arrietara Goico eta Urco*.

775 C.D.M.H. P.S.artzelona, 1450, *Barrikako Udal Ikerketa Batzordeak Bernabé Hormaza Olaguibel erregimenaren kontrakoa deklaratzeko espedientea, 1937, BARRIKAKO JABE BERNABÉ HORMAZA y OLAGUIBEEN JARDUKETA POLITIKOAREN GAIKEKO TXOSTENA*, Barrikako U.I.B.k prestatua.

Hormaza bera defendatu zen errentadoreak behartu zituelako salaketatik, zelan eta adieraziz ezen “(...) nire maizterretan gehienek 25 urte baino gehiagoko errentak dituzte, eta guztiek (...) baieztatu dezakete inoiz ez dutela nire agindurik jaso hauteskundeetarako”<sup>776</sup>. Hala eta guztiz, gisa horretako salaketek Hormazaren oso gertuko pertsona zipriztindu zuten: Felipe Uriarte, Barrikako Batzorde Kudeatzaileko alkatea. Ustez, haren semeak Luis Maneneren alargun eta Arriaga baserriaren jabearen idatzi bat utzi zuen Gregoria Elorriaga Hormaache errentadorearen senarraren eskutan, eta hartan “(...) *mandatua egiten zion eskumari botoa emateko*” 1936ko otsaileko hauteskundeetan. Elorriagaren senarrak “(...) *ez zion mezuari kasurik egin, (...) ezkerrekoa zelako*”. Baserri bereko beste errentadore batek, Pablo Guilisasti Uribemandak, salatu zuen aipatu berri diren hauteskundeetako bozketa egunean “(...) *goizean gutun bat jaso zuela, hau da, jabearen txartel bat, eta harekin batera, eskumako hautagai-zerrendak, alderdi horri botoa emateko mandatuarekin (...) Ez zion errekerimenduari kasurik egin eta Fronte Popularrari eman zion botoa*”<sup>777</sup>. Azkenik, aipatu beharra dago Barrikako jabe guztiak ez zituztela beren errentadoreak derrigortzen: esate baterako, José Alcorta Uriartek, Gambe baserriko maizterrak deklaratu zuen Miguel Larrazabal Mota jabeak “(...) *ez diola inoiz agindurik batere eman hauteskunderi dagokienez, eta poz-pezik dagoela gizon horren portaeraz*”. Larrazabal eskumako hautagai-zerrendaren mahaiko ikuskatzailea izana zen 1936ko otsailean eta haren propaganda egilea hauteskunde kanpainan.<sup>778</sup>.

Kanpaina bizi-bizia izan zen, mitin kopurua lekuko. Abertzaleek eskualdeko herri guztietan egin zituzten ekitaldiak; Fronte Popularrak, berriz, mitinak egin zituen Sopelan, Gatican eta Plentzian. Azken herri horretan eskumako hautagai-zerrendak ere egin zuen propaganda ekitaldi bat.

Urdulizen, EAJren hauteskundeetako mitinaren berri baino ez daukagu. “(...) *Elizate honetako frontoian*” egin zen, otsailaren 9an, arratsaldeko zazpitan. *Euzkadi* egunkariak argitaratu zuenez, ekitaldia “*izugarri arrakastatsua*” izan zen, eta bertara “*jendetza*” agertu zen. Berbaginen aldean, *Ogoñopek* “(...) *arrakasta itzela lortu zuen “bertso-barrijak” kantari*”. Hartaz gain, Estepan de Arantzadi, Lino de Argintxona eta José Antonio de Aguirre. Guztiek “(...) *hitzaldi handiak eman zituzten, sekulako sua eta txalo ikaragarriak piztu zituztenak*”<sup>779</sup>.

776 Ibíd. Bernabé Hormazaren eskutitza Behin-behineko Euzko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuari, 1937-1-13.

777 C.D.M.H. P.S. Bartzelona 1451, 8. espediente, Barrikako U.I.B.k Luis Maneneren alargunari irekia, 1937ko martxoa.

778 C.D.M.H. P.S. Bartzelona 1451, 3. espediente, Barrikako U.I.B.k Miguel Larrazabal Motari irekia, 1937.

779 *Euzkadi* 1936-2-9 eta 1936-2-11.

Plentzian, Cinema aukeratu zuten hautetsontzietan elkarren aurka zebiltzan hiru indar politikoek mitinak egiteko. Hiruretan islatu zen, eskala txikiagoan bazen ere, Euskadin eta Estatu osoan bizi zen tentsio egoera. Otsailaren 9an, goizean Fronte Popularraren ekitaldia egin zen, eta arratsaldean EAJrena. 13an, berriz, eskumako hautagai-zerrendaren txanda izan zen<sup>780</sup>. EAJk eta Fronte Popularrak antzeko gaiak erabili zituzten, Estatutuaren kontzesioa edo etxe-gabetzeak<sup>781</sup>. Deigarriagoa izan zen Plentziako mitinean eskumako hizlariek erabili zuten borroka-hizkera. Haietako batek, Juaristik, *kafetegiko putzontziak* deitu zien abertzaleei, beren buruari katoliko esateko eskubiderik ez zutela gehitu baino lehen. Areilzak, berriz, hitza eman zuen “(...) *nazionalistak lege barrura*” behartuko zituela, “(...) *eta beharrezkoa bada, gizonez gizon*”. Hirugarren hizlariak, Goldacerenak, iragarpen gertatuko zen esaldia botatu zuen: “(...) *bitarteko guztiak bidezkoak eta onak dira nahi duzun fruitua lortzeko*”<sup>782</sup>.

*El Liberales* jaso zuenez, lasaitasuna izan zen hauteskunde egunaren ezaugarria, erabatekoa “(...) *hiriburuan eta Bilboko hautesbarrutian (...)*”, eta “(...) *beste zer esanik gabe, herrietan (...)*”<sup>783</sup>. 1936ko otsailetik uztailera bitarte ez zen halakorik esan ahal izan. Fronte Popularraren garaipenaren ostean, Bizkaian gora egin zuen “(...) *eskumaren kontrako jazarpenak, Gobernuaren aldetik*”: Zentro tradizionalistetan miaketak egin ziren; Falangerenak, berriz, itxi, eta bateko eta besteko alderdikideak atxilotu zituzten. Bizkaiko eskumak ez zuen “(...) *bere arerio politikoekin aurrez aurre egiteko ordezkartza politiko indartsurik*”. Sostengu bakarra “(...) *alderdi monarkiko eta tradizionalista gutxi batzuetan eta “El Nervión” eta Bilboko “El Pueblo Vasco” egunkarietan (...)*” zeukan. Ezkerrak haien aurka abiatu zituen ekintza bortitzek ez zuten etenik izan, ez Bilbon, ezta probintziako herri askotan. Algortan, esate baterako, hona zer egin zuten ezkerreko batzuek:

*“(...) obligaron a la Guardia Civil para que cacheara a los asistentes de un evento tradicionalista; cuando se convencieron de que los asistentes no llevaban armas, los agredieron a tiros de pistola”*<sup>784</sup>.

---

780 *Euzkadi* 1936-1-28, 1936-2-11, 1936-2-12 eta 1936-2-15.

781 *Euzkadi* 1936-2-12.

782 *Euzkadi* 1936-2-15.

783 *El Liberal* 1936-2-8.

784 AZCONA PASTOR, José Manuel eta LEZAMIZ LUGAREZARESTI, Julen: “*Bilbao, 18 de julio de 1936*” in *Sancho el Sabio*, 36, 2013, 95-116 (aipamena, 98-99).

Otsailaren amaieran, Plentziatik, *El Liberalgo* korrespontsal batek, *Uno del Frente* gaitzizena zerabilenak, aditzera eman zuen segurtatu ziotela otsailaren 16az geroztik:

*“(...) se había encargado a un guardia nocturno de vigilar la iglesia y no sabemos si algún edificio contiguo. Sepan quienes esto hayan dispuesto que en el programa del Frente Popular no figura el de incendiar las iglesias, y si, por extensión del orden que pretende establecer, su defensa de alguien que quisiera hacerlo para hacer propaganda en su provecho”*<sup>785</sup>.

Urdulizen eta inguruetan ez dugu gertaera bortitzen albisterik. Horrek pentsarazten digu giroa lasaia izan zela beste toki batzuetako desegonkortasunaren aldean. Horren froga, Plentziara uda pasa joaten ziren familia asko ohi baino lehenago jarri ziren marinel herrian. Maiatzaren erdialdean honela kontatu zuen *Euzkadi* egunkariak: *“(...) eguraldi txarragatik ere (...) hainbat familiak aurreratu dituzte euren oporrak. Guri ohore egiteaz gain, beste bazter batzuetan ez daukaten bakea bilatzen dute inondik ere”*. *Isi* korrespontsala udatiarren agerpen goiztiarraz baliatu zen horren gaineko kronikari izenburu hau ipintzeko: *“Ez gara hain gaiztoak”*. Kronikariak nazionalismoa defendatu gura zuen Plentziako Cinemako mitin eskuindarrean Juaristik egindako erasoetatik. Horregatik, *Isik* bere buruari itaundu zion ea udatiarrek:

*“¿no se habrán enterado de nuestra condición de “chulos de cabaret”, inherente, según el señor Juaristi, a nuestras ideas nacionalistas, y proclamada a gritos en el célebre “motín” derechista del Cinema Plencia?”*<sup>786</sup>.

Geroxeago, Plentziako *Aberri Egunaren* kronikak bidea eman zion egunkari jeltzaleak kostaldeko hiribilduan zuen korrespontsalari berriro ere abertzaletasunaren defentsan agertzeko, haren katolizismoa eta jarrera moderatua nabarmenduz, beste aukera politiko batzuen aldean:

*“Digamos finalmente, si es necesario, que las fiestas de Aberri-Eguna se han celebrado sin incidentes. Nosotros no somos de los que alzan el brazo, ni para saludar a la manera romana —pagana— ni para crispar el puño en ademanes de odio. Nuestro gesto consiste en abrir los brazos, último gesto de amor del Redentor del mundo, y perdonar con la confianza puesta en su divina Justicia”*<sup>787</sup>.

---

785 *El Liberal* 1936-2-28.

786 *Euzkadi* 1936-5-14.

787 *Euzkadi* 1936-6-4.

Ekainaren 14an, Gerra Zibila piztu baino hilabete bat lehenago, Plentziarako txangoa antolatu zuen Nazioarteko Laguntza Gorriak, *El Liberal* egunkariak jaso zuenez. Artikulu hori irakurrita konturatzen gara noraino aldatuak ziren Plentziako errepublikanismoaren eta nazionalismoaren arteko harremanak Errepublikaren lehen egunetatik. Alde horretatik, *El Liberal*, “*Plentziako herriak (...) Euzkadiko proletarioek antolatutako txangoari egin zion harrera miresgarri eta eredugarria (...)*” goraipatu ez ezik, artikuluz baliatu zen “*anaitasunezko eta esker oneko besarkada bat (...)*” bidaltzeko “*(...) On Luis de Uchupi herrikoi eta on puskari (...)*”, hau da, hiribilduko alkate nazionalistari, “*(...) denbora guztian gogo onez erantzun zuelako bisitariak agintari prestu horri eskatu zioten guztian*”. Egoera hori, inondik ere, guztiz pentsaezina izango zen 1931tik 1933ra bitartean. Kronikariaren esanetan, herri guztia trumilka etorri zen txangozaleei harrera egitera, “*(...) txorigaldu*” gutxi batzuk kenduta, nor eta “*(...) 34ko urri gomuta gaiztokoan (...) Plentzian doilorkeria higuingarriak (...)*”<sup>788</sup> egin zituztenak; aipamen garbi bat Udalak dimisioa eman ostean bertan ezarritako kudeatzaileentzat eta, hedaduraz, herriko eskumatientzat. Haietaz berba egiteko erabilitako hizkerak ederto erakusten du zelako tentsioa zegoen eta zer zegoen etortzeko:

*“Los auspicios y deseos de algunos desgraciados (pocos, afortunadamente) derrotistas y explotadores de la gente humilde, (...) desde hacía semanas pregonaban próximos acontecimientos de sangre y fuego en el pueblo derivados de la visita proletaria a Plencia, viéronse frustrados ante sus temores y convencionalmente ante sus deseos. ¡Cuántas y cuan inmensas canalladas cometieron tales desdichados en Plencia en octubre del 34, de triste recordación, y, sobre todo cuantas más habilidades tenían dispuestas si el triunfo les hubiere favorecido! (...) a los indeseables, de número ínfimo, que no asistieron y se ausentaron, no les agradecemos. Bastante sufren con pensar en lo que se les prepara”*<sup>789</sup>.

---

788 *El Liberal* 1936-6-17.

789 *El Liberal* 1936-6-17.

## 2.4 Ekonomia

### 2.4.1 Testuinguru orokor ekonomikoa: 30eko hamarkadako krisia

XX. mendeko 30eko hamarkadak krisi ekonomikoaren marka du Estatu osoan. Abagune oker hori zerk ekarri zuen azaltzeko, Ricardo Mirallosek zenbait faktore aipatzen ditu, elkarri eragin ziotenak: New Yorkeko Burtsako 1929ko kraxari gehitu behar zaio Bigarren Errepublikaren etorreraknegozioen eta finantzen sektoreaneragindako ezinegona, batetik, eta Espainian, garapen ekonomikorako ordura arte segitutako eredu<sup>790</sup>.

29ko kraxak nazioartean sorrarazitako krisiak beranduago eragin zion Espainiari mendebaldeko gainerako ekonomiei baino, eta, are garrantzitsuagoa, ez hain modu larrian. Mirallosek aipatzen du zein den delako eragin txikiagoaren arrazoa, alegia, “(...)XIX. mendearen amaieratiketaXX.aren hasieratik Espainian indarrean jartzen den egitura ekonomikoa, maila handiko protekzionismoan oinarritua muga-zergei dagokienez”.Primo de Riveraren diktaduraren denboran bultzatutako eredu ekonomiko ia autarkikoak estatuko ekonomikoaren isolamendua ekarri zuen nazioarteko abagunetik. Gainera, beste aldagai batzuk ere aipatu beharra dago, barbarako, “(...) atzerriko kapitalen inbertsioen garrantzi murrizta krisia piztu aurreko urteetan”, kanpoko merkataritzaren pisu urria Estatuko errentaren osotasunean, nekazaritza sektorearen autosufizientzia edo pezetaren balio-galera Diktadura primorriberistaren azken urteetan. Faktore horiek guztiek agerian uzten dute Espainiako ekonomiaaren atzerapenaXX. mendearen lehen herenean, baina, bestalde, “(...)Espainianazioarteko krisitik isolatzeko balio izan zuten”<sup>791</sup>.

Krisiak Estatuan latzen jo zituen aldeetariko bat izan zen Una de las zonas del Estado más afectadas por esta crisis fue Bizkaiko industria eremua. Industria horren ezaugarri berei zor zaie krisiaren eragina handiagoa izatea. Alde horretatik, José Javier Díaz Freirek dio Bilboko itsasadarraren ertzetan metaturiko industria bizkaitarren sorrera eta hedapena ez zela egin:

*“(...) por una vía clásica, dependiente de la mecanización de la agricultura, sino a través de la demanda interindustrial y con una activa participación del Estado, que aseguraba la protección frente a la competencia exterior y el crecimiento de la demanda por medio de obras de capital fijo (...). Era por tanto, un tejido industrial estrechamente dependiente de la política económica del Estado, y sujeto, por ellos a los vaivenes de la misma”<sup>792</sup>.*

790 MIRALLES, Ricardo: “La crisis económica de los años treinta en el País Vasco” in *Ekonomiaz*, 9-10 zk., IV/1987, I/1988: 277-300, (aipamena: 277).

791 Ibíd.

792 DÍAZ FREIRE, José Javier: *La República y el porvenir. Culturas políticas en Vizcaya durante la Segunda República*, Donostia, Kriselu, 1993: 81.



Primo de Riveraren diktadura bitartean, “(...) inbertsio programa zabala asmatu zen kapital sozial finkoan (errepideak, trenbideak eta lanhidraulikoak), euskal industriarako mesedegarria”. Bigarren Errepublikaren etorreraketen egin zuen “(...) Diktadurak abiarazitako politika”, eta Euskal Herrirako ondorioa izan zen “(...) inbertsio proiektu guztiak hankaz goratzea eta eskarera publikoaren pizgarria amaitzea”. Euskal industria astunak “(...) latzak ikusi zituen” horren ondorioz<sup>793</sup>.

Errepublikako erregimen berriak “(...) *aurrekontuak diru-sarrerekin orekatu nahian*” abiatu zuen bere politika, eta, beraz, gastuak murrizteari ekin zion. Horrek ondorio okerrak ekarri zituen: Estatuko ekonomiaren beheraldia eta, zehatz-mehatz, Euskal Herriko metalgintzarena<sup>794</sup>. Hartara, Errepublikaren Gobernuak ezarritako politika ekonomikoaren hasieratik, uzkudura bat gertatu zen “(...) *Bizkaiko enpresa nagusien jardueran, probintziako jarduera ekonomiko guztian bere ondorioak utziko zituena*”<sup>795</sup>.

Egoera hori dela eta, Errepublikaren lehen bi urteetan langabeen kopuruak gora egin zuen, baita “*aste murriztua*” zutenen kopuruak ere. Lan barik geratutako gehienak Bilbon zeuden eta itsasadarreko herrietan, bereziki Barakaldon eta Sestaon<sup>796</sup>.

Estatuko nekazaritza sektoreari dagokionez, Mirallesen ustez “(...) *nahiko autosufiziente zen, eta, gainera, hoberanzko garapena eduki zuen Errepublikaren garaian*”<sup>797</sup>. Geroago ikusiko dugunez, Urdulizen behintzat bai bete ziren premisa horiek.

## 2.4.2 Baserri mundu bat hiri eremuaren periferian

Errestaurazioaren garaiak ari ginenean, adierazi genuen zelan, trenbidearen etorrera XIX. mendearen amaieran, gertaera funtsezkoa izan zen, ezelango zalantza barik, Urduliz, Sopela edo Berango bezalako herrientzat, herri horiek hiri edo industria eremuarekin lotu zuen garraiobidea ezarri zelako. Herri hauen betidaniko isolamendua apurtzeak ondorio ekonomiko garbiak ekarri zuen berekin. Udalerrri hauetako bizilagun batzuk lanean hasi ahal izan ziren Itsasadarreko industrietan. Bertako produkzioko lehengaiaren garraioa arindu zen, Urdulizko harrobietatik ateratzen zen hareharriarekin eta igeltsurekin egiten zen legez.

---

793 MIRALLES: 278.

794 Ibíd.

795 DÍAZ FREIRE: 82.

796 Ibíd. 84.

797 MIRALLES: 277.

Gainera, baserriko ekoizpenaren irteera erraztu zuen, hiri aldea hornitzearren. Areago, baserria merkatutik gertuago egoteak aukera eman zuen “(...) *produktu freskoen eskariari zuzenean erantzuteko*”. Pertsonaia berri bat sortu zen modu horretan, “*vendejera*”, emakume baserritarra, bere etxeko ortuko produktuensalmentan ibiltzen dena<sup>798</sup>.

Oro har, industrializazioak hainbataldaketa eragin zuen Euskal Herriko nekazaritza eta abeltzaintza sektorean. Esate baterako, zenbaki orokorretan, Euskadiren osotasunean, industriari xurgatu zuen lehenago laborantzan zebilen eskulanaren zati handi bat. Modu horretan, 1900dik 1930era bitartean “(...) *nekazaritzako langile aktiboek (gizonezkoak) %31 egin zuten behera (...)*”, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan. Beste alde batetik, hirian handitu egin zen nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen eskaera. Horren eraginez, nekeazaritzako ekoizpena %8 handitu zen, eta abeltzaintzako, berriz, %56. Nekazaritza, Bizkaian eta Araban hazi zen, baina Gipuzkoan apaldu. Abeltzaintzaren hazkundera, berriz, bai Bizkaian bai bereziki Gipuzkoan gertatu zen, abelburuen kopuruari begiratuz<sup>799</sup>.

Azaldu berri ditugun datuek, honako hau erakusten dute, Jesús María Valdalisoren iritziz:

*“(...) el proceso de adecuación del sector agropecuario a las nuevas condiciones económicas, que pasó por una especialización productiva y un aumento de la superficie agrícola y la cabaña ganadera por activo empleado y un cierto crecimiento de la productividad”<sup>800</sup>.*

Bizkaian eta Gipuzkoanekoizpenaren espezializazio hori behi azientzaren abeltzaintzan finkatu zen, okela eta esnea hirietako merkatuetara erosten zelako, produktu horien eskaera hainbeste handitu zen-eta. Espezializazio horren ondorioa izan zen behi-buru kopuruaren hazkundera, eta, berarekin, bazkalandareen laborantza zabaltzea eta bazkaleku naturalen ongarritze bizkorra, produktibitatea handitzeko, abereak bazkatzearen<sup>801</sup>.

Urdulizen, Errepublika garaian, eskura dauzkagun estatistikek agerian jartzen dute behi-azientzaren hazkunde hori 1931ko maiatzetik 1934ko maiatzera, 475 behitik 579ra pasatuta<sup>802</sup>. Handik aurrera, hazkundera erabat gelditu zen, behiakadarik izan ez bazen ere, 1935eko maiatzeko datuek erakusten dutenez,

798 AINZ IBARRONDO, María José: *El caserío vasco en el país de las industrias*, Madril, Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, Secretaría General Técnica, Centro de Publicaciones, 2001: 126

799 GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI eta MIKELARENA PEÑA, Fernando: “*Evolución de la población eta cambios demográficos*” in *Historia del País Vasco y Navarra en el siglo XX*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002: 182-183.

800 *Ibíd.* 183.

801 GRANJA SAINZ: 183.

802 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Nekazaritzako Estatistika 1931-5-15, eta Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3.

578 behiren berri ematen baitute, guztira<sup>803</sup>. Kriariaren ondorioa da, nonbait, ganadu kopuruaren hazkundera gertatutako geldialdia.

Orokorrean, lehenengo urteetan Urdulizkoekonomiak gehienbat izkin egin zion krisiari, honek batez ere Bizkaiko industria eremua jotzen zuen bitartean. Geldialdi zantzu horiek argi uzten dute, ostera, krisiak bertako sistema ekonomikoari ere eragin ziola azkenik. Alde horretatik, ikuspegi orokorragoa izateko, beharrezkoa litzateke industria eremuarekin muga egiten duten landa giroko udalerrien artean alderatzeko azterketa. Nolanahi ere, gure susmoa da nahiko antzekoak izango zirela herri horietako portaerak eta Urdulizkoa.

Esanda geratu den legez, udalerria industria eremutik gertu egoteak erraztu egiten zuen Urdulizko bizilagun batzuk fabriketara joatea. Behargin urduliztarrek sektore txiki bat osatu zuten biztanlerian, eta hasieratik jasan zituzten krisiaren ondorioak. Esate baterako, 1932ko abenduaren bueltan, Udalaren kontaketan agertzen ziren “(...) 17 behargin, erabat langabezia” eta 26 gehiago, jardunean<sup>804</sup>. Geroago ikusiko dugunez, langileen langabeziaren arazoa kezka bidea zen Urdulizko Udalarentzat. Hala erakusten du 1934ko ekainean probintziako Aldundiko lehendakariari egindako eskariak, herriko behargin lanbakoak enplega zitzan Bilbo-Plentzia errepublikako obretan, behintzat, udalerraren eskumenean zegoen partean<sup>805</sup>.

### 2.4.3 Natura-baliabideen aprobetxamendua: mendia

Mendiak eskaintzen zituen baliabideen aprobetxamenduaoinarri funtsezkoenetako bat zen landa eremuan baserriaren inguruan eraikitako ekonomiatradizionalak zuri irauteko. Besteak beste, mendia ganaduaeren bazkaz eta egurraz hornitzeko tokia zen. Urdulizen, kontu hori arazo iturri etenezina zen Behe Erdi Aroaz geroztik, hiribilduaren eta elizatearen arteko betiko gatazkaren itzalpean. Hartara, Plentziako hiribilduari emandako eskubideen aurrean kokatuko litzateke nekazari urduliztarrek mendietan egiten zuten ohiko erabilera.

Isuzkiza, Kukutze, Ganbelarre eta Zuanka mendien jabegoa eta gozamina nori zegokion, auzitan lotu ziren Plentzia eta Urduliz 1524an. Plentziako hiribilduari aitortu zitzaion mendien jabetza, nahiz eta Urdulizko baserri batzuei onartu zitzaizen beren ganadu guztia, zer motatakoa zen ere, bazkatzeko eskubidea. Elizateko gainerako bizilagunei “txerri-azienda” larreratzeko eskubidea baino ez zitzaizen onartu, eta halako muga batzuk ezarrita ezkerrei zegokienez, ezin zirelako ez bildu ezta arboletatik jausiarazi ere. Beste alde batetik, bizilagun horiek eskubidea zeukaten leporatu ahal zuten egur guztia eramateko, debeku izanik gurdia edo animaliak erabiltzea egurra garraiatzeko. 1654an eta 1759an berretsi ziren akordio horiek, baina baserri horiek jasotako eskubideei eutsi

---

803 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Nekazaritzako Estatistika 1935-5-3.

804 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, Udaleko Estatistika Administrazioa – Ayuntamiento de Urduliz 1932-12-22.

805 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-6-2.

zieten bitartean, gainerako bizilagunek, Ander Iturbek dioenez, “(...) *etenak eduki zituzten euren eskubideen gozamenean, segurutik krisi egoera orokorren ondorioz, halakoetan ez zelako zuhurra izaten baliabide horiek eskuzabalegi erabiltzea*”<sup>806</sup>. Plentziako hiribilduarentzat, mendi hauetako zura funtsezkoa izan zen barkuak egin ahal izateko, bere untziolak ekin eta ekin ibili baitziren XIX. mendearen erdialdean. Lehenengo Karlistadaren ostean Bizkaiko untzigintzak hazkunde ikaragarria izan zuen Estatuaren politika protekzionistaren gerizpean. Aldiz, 1850 inguruan, Plentziako untziola bakarra ere ez zebilen jardunean,<sup>807</sup>.

1911aren bueltan, Urdulizko Udala hiru mendiren jabe zen, hirurak udalerriko bizilagunek beren ganaduak larratzera eramateko otatzak: “*Ysusquiza*”, “*Cucuza Aspi*” eta “*Mendicoeche*”<sup>808</sup>. Aurrerago azalduko dugun legez, XIX. mendearen amaieran, eskola nazional berrien eraikuntzarako baliabideam lortzeko premiak behartuta, loteetan banandu ziren herri-mendi hauek beti errentan emateko. Ordura arte, errentamendua urtekoa zen, eta Udalak kalkulatu zuen horrekin eskuratzen zena ez zela nahikoa eskoletako lokalen alokairua ordaintzeko. Betiko alokatze berriak ez ziren kalterik egiten “(...) *herriko bizilagunen interesei*”, haientzat gordetzen zelako “(...) *beren ganaduentzako bazka libre eta doakoa*”. Horregatik, errentadoreek eta haien ondorengoek ezin izango zuten mendirik itxi “(...) *ezerगतik era eta inoiz ere*”. Aldiz gozatu ahal izango ziren “(...) *produktu guztiez, dela otea, dela orbela, dela ira, dela belarra, dela arbola, dela egurra eta gainontzekoa, baita edozein motatako arbolak landatu ere (...)*”. Ondasun horiek, berriz, Urdulizko herritarren eta Udalen eskutik kanpora geratu ziren handik aurrera<sup>809</sup>.

Beste alde batetik, Urdulizko Udaleko gobernu talde guztiek beti defendatu zuten herriko artzainek herri-mendiaren gainean zuten esklusibitatea, kanpoko artzainen kaltetan. Esate baterako, 1877aren hasieran, Udaltzako, Agustín Arambalza buru zuela, urteko lehen osoko bilkuran esku artean erabili zituen “(...) *egunero*” hartzen zituzten kexak, “(...) *herriaren eta inoren mendietan partikularretan beren artaldeak bazkatzen dabiltzan artzain probintzianoei buruz*”. Horregatik, aguazilari agindu zioten herritik kanpoko artzaineei jakinarazteko “(...) *utzi behar diotela euren artaldeak bazkatzeari herriaren eta inoren mendietan, herritarrei kalte egiten dielako*”. Hala ere, jarraitu gura bazuten “(...) *euren artaldeak larreratzen, orain arte legez, eskatuko zaie erreal bi buruko*”<sup>810</sup>.

806 TURBE MACH, Ander: *Monografías de pueblos de Bizkaia: Gatika, Laukiz, Maruri y Urduliz*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1993: 26.

807 ODRIOZOLA OYARBIDE, Lourdes: *Los años “dorados” de la construcción naval en Plentzia: 1790-1830* in “*Colección Lankidetzta: Historia de Plentzia: dinámicas sociales s. XVI-XIX*”, 57 zk., Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2011: 64 eta 77.

808 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, Urdulizko Udalaren Erabakien Liburua, 1907-1917ko aktak, *Urdulizko Udaleko inbentarioa*, 1911-6-2.

809 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua, 1897-10-5eko Txostena eta 1898-1-9ko Enkantearen akta.

810 U.U.A. “Historikoa”, 4. kaxa, 1869-1877ko Erabaki eta Dekretuen Liburua, Bilbura Berezia 1877-1-2.

1933ko ekainaren hasieran, arazoa berpiztu zen berriro, baina oraingoan Plentziako bizilagunekin. Egun haietan, Pedro Goirigolzarri alkateakzinegotziei jakinarazi zien herritarren kexak jasoak zituela, “(...) *Isuskizako herri mendietan Plentziakobizilagun batzuen ardiak larratzen zebiltzalako(...)*”, debekaturik zegoen gauza, berau, “(...) *Udaletxe honetako Artxiboan dauden eskrituren arabera (...)*”. Horregatik, erabaki zen herriko aguazila bidaltzea, “*azkeneko abisua*” emateko, utz ziezaioten mendi horietan beren artaldeekin sartzeari, bestela zigorra hartuko zuela-eta<sup>811</sup>.

Ezer gutxitarako balio izan zuten abisuek. Urte horretako abenduaren amaieran berdin jarraitzen zuen kontuak, Juan José Camiruaga zinegotziak Udalaren osoko bilkuran salatu zuen legez. Nahiz eta “(...) *hainbat bider ohartarazi zitzairen Isuskizako baserrietako maizterrei kontuz ibiltzeko euren artaldeekin, herri honetako herri mendietan bazkatu ez zitezen (...)*”, horiek ez zuten “(...) *batere jaramonik egin (...)*”. Camiruagak, zehazki, Manuel de Ugarte seinalatu zuen, izan ere “(...) *Ugarte delakoaren zenbait ardi topatu zituen herri-mendietan, bazkan (...)*”, baina, jo zuenean “(...) *ardi horiek jagoten zebiltzanengana, menditik irten zezaten, ez zioten jaramonik egin eta sano modu txarrean erantzun zioten*”. Hori ikusita, Udalak erabaki zuen handik aurrera jabeak zigortuko zirela, “(...) *kasu bakoitzean bidezkoa zen zigorrarekin edo behar den espedientea irekita*”, haien ardiak berriro ere sartzin baziren herri-mendietan<sup>812</sup>.

Egun gutxi batzuk geroago, 1934ko urtarrilean 2an, Pedro Goirigolzarri alkateakadierazi zuen “(...) *mila bider abisatu ziela (...)*” Isuskizako Plentzia aldean zeuden baserrietako bizilagunei, beren artaldeek bazkatu ez zitzaten Urdulizko herri-mendietan. Goirigolzarrik ere Manuel de Ugarte delakoa aipatu zuen, eta azpimarratu “(...) *zenbat bider abisatu zitzaion (...)*”. “*Azkenekoz*” ohartarazteko, Udalak abenduaren 24an hartutako erabakiaren berri emateko eta “(...) *ez zekiela (...)*” argudiatu ez zezan, alkatea Martín Ugarterekin berba egitera joan zen, Manuelen anaia eta Urdulizko bizilaguna baitzen. Haren erantzuna ere “(...) *oso modu txarrean*” emandakoa izan zen<sup>813</sup>.

---

811 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1933-6-10.

812 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1933-12-24

813 U.U.A. “Histórico,” 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-1-2.

Egoera larriagoa zen Camiruaga zinegotziak egun batzuk lehenago mahai gainean ipinitakoa baino: Urdulizko herri-mendietan, artaldeak ez ezik, “(...) *motá guztietako ganadua larreratzen da behin eta berriro, herritarren kalterako (...)*”. Horretan oinarrituta, Udalak erabaki zuen “(...) *debekua ipintzea herri honetako bizilagunak ez direnei klase guztietako azienda larratzekoi, ardia dela edo behorra dela, behia dela edo astoa dela (...)*”. Aldiz, zehazten zuen Urdulizkoherriarrek mendiak erabiltzen jarraitu ahal izango zutela artzantzan libre ibiltzeko “(...) *orain arte bezala, eta mendi horien salerosketarako baldintzekin bat (...)*”<sup>814</sup>.

Auzia, aurrerago ikusiko dugun bezala, ez zen garbitu. 1937an horren berri izan genuen, ostera ere, lehenengo udal frankistarekin. Zalantza barik, guztiz ezinezkoa zen mendi horien erabilera egunero kontrolatzea, udalerriko ekonomiarako funtsezkoak izanda ere.

Hala eta guztiz, erabilera hori, mendiari ordura arte emandako baserrialdeko ekonomiari lotua, aldatzen hasi zen XX. mendearen lehenengo herenean. Une horretantxe hasi zen Bizkaian basoberritzea bultzatzen, zehatz-mehatz, pinuen landaketak, nahiz eta horren gorenaldia mendearen erdialdean etorriko zen. Jabeek ahalik eta etekinik handiena atera nahi zieten beren mendiei; horra zabalkuntzaren arrazoia. Alde horretatik, María José Ainzek azaldu zuen ezen “(...) *soroaren irabazi gordinaren marjina pinadiarena baino handiagoa izanda ere, eta baserria soroak zabaltzen tematua bazegoen ere bazka ekoizpena handitzearren*”, baserriarrek baserri eta lurren jabeen interesekin egin zuten topo. Errentan emandako baserri batek bere jabeari ematen zion batz besteko errentagarritasuna %2-3koa zen. Berriz, basogintzari emanda ekartzen zion interesa %8-10ekoa zen. Horregatik, jabeak mendiak basoberritzearen aldera makurtu ziren, eta ustiapena beraiek egitera. Horren ondorioz, nekazariak atzeraka egin zuten, gero eta gehiago, mendiaren aprobetxamenduan. Izan zen berritasunaren aurka ibili zenik; berbarako, *Bizkai´ko Euzko Nekazari Alkartasuna* sindikatuak pinu landaketen kontra borrokatzera bideratu zuen bere ahaleginen atal bat, 1935ean sortu zenetik<sup>815</sup>.

---

814 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-1-2.

815 AINZ IBARRONDO: 127

Urdulizen, 1934koak dira mendiei buruz eskura ditugun datu bakarrak. Nolanahi ere, estatistika horrek erakusten digu pinua dagoeneko nahiko zabaldua zegoela udalerrian, eta haritzek eta arteek osatutako multzoaren gainetik zebilela, larre eta soroetarako lurren batura askoz ere zabalagoa izan arren.

<b>URDULIZKO NEKAZARITZAREN ESTADISTIKA</b> <b>Larreak, mendiak eta azalera ez-emankorra 1934-9-3</b> <sup>816</sup>	
<b>Lur mota</b>	<b>Azalera</b> <i>(72 estatuko gizalanetan = 2'94 area)</i>
<i>AZALERA LARREDUNAK</i> <i>ARBOLA BAKOAK</i>	
Zelai naturalak arrisku barik segatu daitezkeenak	2.120
Zelai naturalak segatu ezin daitezkeenak	1.150
Bazkalekuak	1.120
Alfer-lurrak	1.870
<i>BASOBERA DUTENAK</i>	
Basobera	3.480
<i>ARBOLAK DITUZTENAK</i>	
Artadiko larreak	1.400
Pinudiko larreak	1.000
Aritziko larreak	2.740
<i>LARRE BAKO AZALERAK</i> <i>BASOBERA DUTENAK</i>	
Otadiak	2.130
Iratzeak	1.890
<i>ARBOLAK DITUZTENAK</i>	
Pinadia	2.300
<i>AZALERA EZ-EMANKORRAK</i>	
Harrobiak	957

Esanda dagoen legez, XX. mendearen lehenengo hamarkadetan abiatutako basoberritze prozesuak frankismo betean eduki zuen bere gorena. Gerra Zibilaren aurretik, abeltzaintzak landa eremuko ekonomian hartu zuen garrantziarekin bat, “*alfer-lur*” delakoei irabazitako belar-sail berrien sorrera sustatu zuen Bizkaiko Aldundiak diru-laguntzen bidez.

816 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Nekazaritzako Estadistika – Larreak, Mendiak eta Azalera ez Emankorra 1934-9-3*.

1918az geroztik, probintziako Aldundiak, “(...) Bizkaian modu arrazionalen ustiatu ahal diren lur-sail landu bako handiak daudela sinistuta”, erabaki zuen diruz laguntzen hastea “(...) azalera horiek laborantza bihurtzea, batez ere, belar-sailak ipinita”<sup>817</sup>.

1932ko urtarrilaren 25ean onetsi zen luberriak egiteko laguntzen eskaerak arautzen zituen Erregelamendua, eta diru-laguntzak, belar-sailak ipintzeko ez ezik, “(...) larreetara eta fruta-arboletara ere zabaldu ziren”. Erregelamendu hori plazaratu arte, 150 pezeta ematen ziren luberritutako hektarea bakoitzeko. Aldiz, une horretatik aurrera, dirua “(...) lehen uzta ereindakoan” entregatu behar zen. Bestalde, pezeta bateko diru-laguntza ezarri zen landatutako fruta-arbola bakoitzerako<sup>818</sup>.

Aldundiak laguntza hauek eskatzeko epe bat ireki zuen, 1932ko apirilaren 15ean amaitu zena. Horren ondorioz, “(...) 74 herri desberdinetako 635 laborarik” aurkeztu zituzten beren eskaerak. Nekazaritza Zerbitzuak ezarri zuenez, eskaera horiei erantzuteko 150.000 pezeta behar zen bi urtean, nahiz eta, azkenean, ekarritako gastuak 130.081'90 pezeta egin<sup>819</sup>.

Deialdi horretan, eskatzaile urduliztar bakarra topatu dugu, Ciriaco Ansoleaga Sistiaga, Ansoleaga baserriko jabea, 6784 metro kuadroko lur landubakoa luberritu zuena “(...) ohiko laborantzarako”. Bertan, gainera, “(...) 52 sagarrondo, 12 aranondo, 14 gereziondo eta 5 intxaurrondo” landatu zituen<sup>820</sup>. Ansoleagak apirilaren 12an aurkeztu zuen eskaera, horretarako epea amaitu baino egun bi lehenago<sup>821</sup>. 1933ko abenduaren 6an eman zioten diru-laguntza.<sup>822</sup> Harritzekoa da Urdulizen eskaera bat bakarra izatea, kontuan harturik Aldundiak luze eta zabal publikizatu zituela laguntzak: “(...) erregelamenduaren 10.000 kopia egin ziren, 2000 gehiago lehiaketari hasiera ematen zion zirkularrenak, banatzeko eta udaletara bidaltzeko”<sup>823</sup>.

1936ko urtarrilaren 11n, berriro ere deialdia egin zen, bertan ezarrita diru-laguntzak banatzerakoan, “(...) lehenetsuna premia handiena zuten laborariei emango zitzaizela”. Laguntza horietarako aurrekontua 30.000 pezetakoa zen, baina landatutako fruta-arbola bakoitzeko dirua, pezeta bat barik, berrogeita hamarzentimora ekarri zuten. Aritz Ipiñak dioen legez, “(...) Gerra Zibilaren hasierak gerarazi zuen prozesu hori”, nahiz eta “(...) laguntzak 1936 arte ordaindu

---

817 IPIÑA BIDAURRAZAGA, Aritz: “Depuración franquista de los solicitantes de ayudas para la roturación de tierras en Bizkaia. 1937-1938” in *No es país para jóvenes*, Instituto Valentín Foronda, Vitoria-Gasteiz 2012: 3.

818 *Ibid.* 7.

819 IPIÑA BIDAURRAZAGA: 7-8.

820 B.F.A.H. AX-00371/10, Luberritze Bulegoa, “Ciriaco Ansoleagak diru-laguntza eskatu du lur landu bakoak luberritzeagatik eta fruta-arbolak landatzeagatik”. 1933, Erabaki proiektua 1933-12-6.

821 *Ibid.* Ciriaco Ansoleaga Sistiagak luberritzeagatik aurkeztutako diru-laguntza eskaera 1932-4-12.

822 *Ibid.* Erabaki proiektua 1933-12-6.


823 IPIÑA BIDAURRAZAGA: 7.



*eta ez zen laboraririk baztertu bere ideologiagatik edo jarrera politikoagatik*<sup>824</sup>. Esate baterako, 1936ko irailean, Nekazaritza Zerbitzuak proposatu zuen laguntza emateko Antonio Larrabeitia eskuindarrari, Urdulizko bizilaguna bera. Nekazaritza Batzordeak proposamena berretsi eta diru-laguntza onartu zuen 1937ko apirilaren 7an<sup>825</sup>.

Deialdi horrek arrakasta handiagoa izan zuen nekazari urduliztarren artean, 28 laguntza eskaera aurkeztu ziren-eta. Haietatik, sei onartuta zeuden frankistek Bilbo hartu baino lehen, 1937ko ekainaren 18an<sup>826</sup>.

### LUBERRIAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAK 1936 Gizalan kopurua <sup>827</sup>



824 Ibid.: 8-9.

825 B.F.A.H. AX-00408/08, *Luberritze Bulegoa –269. espedientea - LARRABEITIAk (Antonio) diru-laguntza eskatu du lur landu bakoak luberritzeagatik eta fruta-arbolak landatzeagatik* 1936, *Nekazaritza Zerbitzuaren Hasierako Erabakia* 1936-9-23; eta *Nekazaritza Zerbitzuaren Erabakia* 1937-4-7.

826 B.F.A.H. AX-00409/04, 1936ko otsailean egindako 11 eskaera dauzka, AX-00409/05, 1936ko otsailean egindako 11 eskaera dauzka; AX-00408/05, 265. espedientea, “*OTEGUIk (José) diru-laguntza eskatu du lur landu bakoak luberritzeagatik*” 1936; AX-00408/07, 268. espedientea, “*EHEVARRIAk (Jesús) diru-laguntza eskatu du lur landu bakoak luberritzeagatik eta fruta-arbolak landatzeagatik*” 1936, 267. espedientea, “*ABAROAK (Juan) diru-laguntza eskatu du lur landu bakoak luberritzeagatik eta belar-sailak eratzegatik*” 1936, eta 266. espedientea, “*ANSOLEAGAk (Francisco) diru-laguntza eskatu du lur landu bakoak luberritzeagatik eta belar-sailak eratzegatik*” 1936; eta AX-00408/08, 269. espedientea, “*LARRABEITIAk (Antonio) diru-laguntza eskatu du lur landu bakoak luberritzeagatik eta fruta-arbolak landatzeagatik*” 1936 eta 270. espedientea, “*HORMAZA (Donato) diru-laguntza eskatu du lur landu bakoak luberritzeagatik*” 1937.

827 Ibid.

## 2.4.4 Jabetzaren egitura

Bigarren Errepublikaren garaian, jabetzaren egiturak Urdulizen izan zuen bilakaera ikusteko aukera ematen digute Udal Artxiboan gordetzen diren estatistikek. Esanda geratu den legez, nekazariak ziren gizarte multzo handiena, eta haietako gehien-gehienek ez zuten jabetzarik. Nekazari jabeen kopuruak gora egin zuen, ez oso azkar, 1930etik 1936ra bitartean, 25etik 41era. Jabetzari gabeko nekazarien kopuruak, berriz, apur bat behera egin zuen Errepublikaren urteetan. Gutxitu egin ziren, aldi berean, nekazaritzako finken jabeak, elizateko herritarren artean. Bertako jabeetan, abizen sail bat nabarmentzen da, barbarako, Amezaga, Arambalza, Zarraga edo Guibelondo. Esate baterako, Manuela Amezaga, Agustín de Arambalza y Orbetaren alarguna, *Zugasti goikoa*, *Mauraza goikoa*, *Amezaga barria* baserrien eta *Iturralde* izeneko lur baten jabea zen. Tomas Guibelondo merkatariak, berriz, hiru baserri zeuzkan: *Inchincha*, *Zumoa* eta *Landetachu*.<sup>828</sup>

Azkenik, kanpoko jabeen kopurua ez zen ia aldatu 1930-1936 aldian. Haien artean, lehenengoa dugu Torrecillako markesa, historikoki Butroe familiari lotutako 13 finken jabe, 1933an: *Bachillereche*, *Dobaran Goikoa*, *Errotazabala*, *Menchaca Zuria*, *Izardi*, *Torre Echevarria*, *Dobaran Echevarria*, *Chosna*, *Errota Barria* eta *Tarigua* baserriak, *Errotazabal* errota, *Olazaguren Alde* izeneko lursaila, *Olazaguren mendia* “*eta beste bat*”. Villariasko markesak jabetzari bakarria zuen, *Bengoliza* baserria; eta Juan Uribe, Bilboko bizilaguna eta jatorri urduliztarreko familia zuena, *Goikoeche* eta *Nuestra Señora de Begoña* baserrien jabe zen.<sup>829</sup>

<b>NEKAZARITZAKO FINKEN JANETZAREN TITULARTASUNA 1930-1936</b> <sup>830</sup> (kopurutan)				
	<b>1930</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1936</b>
<i>Nekazarijabeak</i>	25	37	37	41
<i>Nekazari jabetza bakoak</i>	135	108	108	111
<i>Jabebizilagunak</i>	59	35	35	39
<i>Jabe kanpotarrak</i>	30	30	30	28

828 B.F.A.H. URDULIZ 0022/001 *Landa aberastasuna 1933-3-28*.

829 B.F.A.H. URDULIZ 0022/002 *Urdulizko Udalaren landa-finken eta hiri-finken gaineko lurralde-kontribuzioa eta industria-kontribuzioa kobratzeko 1933ko lehen sei hileko zerrrendak, 1933-9-3*.

830 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Ziriborua, Nekazaritzako Gizarte Alorreko Datuekin 1930-6-28, Nekazaritzako Estatistika 1933-5-10, Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3, eta Nekazaritzako Estatistika 1936-5-22*.

Tamainari dagokionez, lehorreko jabegoak, nagusiki, 20 hektarea eta hektarea 1 baino gutxiagokoak ziren. Gutxi-gutxi ziren finka handiagoak. María José Ainezek jasota daukanez, 20ko hamarkadaren hasieran Laffiteek kalkulua egin zuen baserri gehien azalera 4tik 20ra bitarteko hektareakoa zela. Ainezek, orobat, dio badagoela “(...) *gutxieneko muga bat baserria etxeko ekonomiaren oinarri nagusia gertatu ahal izateko: lau hektarea*”, betiere baldin eta “(...) *bostetik lautan, gutxienez, laborantza intentsiboan egin ahal bazen, eta bakar-bakarrik bostetik batean belar-sailak ipinita*”. Hala eta guztiz, “(...) *Euskal Herrian jabetza banandu-bananduta dagoenez*”, baserri askok hektarea bat edo bat eta erdi baino ez zeukaten, gehi “(...) *mendi apur bat gehiago*”<sup>831</sup>. Hektarea 1 baino txikiagoko baserriekbeste batzuen mendietako edo herri-lurreta aprobetxamenduabeharko zuten zutik irauteko.

<b>JABEGOEN TAMAINA: LEHORREKO FINKAK 1930-1936</b> <sup>832</sup> (kopurutan)				
	<b>1930</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1936</b>
<i>Hektarea1 baino gutxiagoko finak</i>	49	49	49	49
<i>20 Hektarea baino gutxiagoko finak</i>	70	68	68	68
<i>100 Hektarea baino gutxiagoko finak</i>	1	2	2	2

## 2.4.5 Baserri munduko gizarte eta lan antolaketa Urdulizen

*Euzko Nekazari Alkartasuna*(ENA) nekazarien sindikatu abertzaleak ez zuen arrasto handirik utzi Urdulizen, nahiz eta, orokorrean, geroago aipatuko dugunez, bai jardueran bai afiliazioan gora egin zuen 1935az geroztik, Landerrentamenduei buruzko Legeak indarra hartu zuenean. Urdulizen, ENAko toki mailako agrupazio baten existentziatz albiste bakarra dago, eta hura Gerra Zibila Bizkaian amaitzen ari zenean, *Euzkadi* egunkariaren orrietan. 1937ko ekainaren 4anegun horretarako bertarako bilera deialdia argitaratu zen, hitzordua emanez Federazioaren lokaletan zenbait agrupaziotako buruei, besteak beste “(..) *Urduliz, Butroe eta Barrikakoei*”. Hortik ateratzen dugu udalerrri biak eta Gatikako auzoa agrupazio berean sarturik zeudela<sup>833</sup>.

Bigarren Errepublikaren garaian, aipatu beharra 1932aren bueltan, ez zen udalerrian hain garrantzitsua zen esnegintzari lotutako *Esnetegiko sindikatuen* artekorik<sup>834</sup>. Urdulizen, agiritan aurkitu dugun nekazaritzari lotutako erakunde

831 AINZ IBARRONDO: 144-145.

832 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, Zirriborua, Nekazaritzako Gizarte Alorreko Datuekin 1930-6-28, Nekazaritzako Estatistika 1933-5-10, Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3, eta Nekazaritzako Estatistika 1936-5-22.

833 *Euzkadi* 1937-6-4. Bilerarako deialdia egin zitzaizen “(...) *jarraian aitatzen diren elkarte guztietako lehendakariak: Laukinitz, Laukinitz Unbe, Urduliz, Butroe eta Barrika, Erandio Goikoa, Erandio Fano, Erandio Goyerri eta Erandio Bekoa*”.

834 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Urdulizko esne ekoizpenari buruzko estatistika* 1932-10-20.

bakarra Ganaduen Ermandadeak izenekoak dira. 1930ean 4 zeuden<sup>835</sup>; berriz, Bigarren Errepublikan “*sei ermandade txiki*” zeuden, 1933an eta 1934anguztira 224 kide elkartzen zituztenak. Kopuru hori igo zen gero, 1936ko maiatzean 232 egin arte<sup>836</sup>. Ermandadeak “(...) *toki mailako aseguru sozietateak ziren, ganaduen –gehienetan behi aziendaren– gaixotasun, heriotza eta abarren kontra*”.<sup>837</sup>

Bizkaian bazegoen *Bizkaiko Abeltzain eta Nekazarien Federazioa*; haren kideak, Darío Anselek azaltzen duenez, nagusiki abertzaleak ziren 1932aren bueltan (%80 inguru). Horregatik, EAJk ez zuen beharrezkotzat jotzen “(...) *bere nekazari elkarteak sortzea*”. Hala eta guztiz, urte horretan berean “(...) *lehenengo kezak agertu ziren elementu sozialisten infiltrazio gero eta handiagoa zela-eta*” nekazarien federazio horretan<sup>838</sup>. Esate baterako, *El Liberal* egunkariak, Bizkaiko errepublikazaletasunaren bozeramale nagusiak, haize eman zien “*nekazaritzako kooperatibismoaren aldeko propaganda*” zabaltzeko Uribe-Kostan burutu ziren mitinei. Mitinak *Bizkaiko Abeltzainen Ermandadeen Federazioko* kideek eman zituzten, besteak beste Tomás Aldamak edo Luis Llona jeltzaleak. Urdulizen, 1932ko apirilaren 17an egin zen mitina, Urdulizko eta inguruko herrietako ermandade guztiei aurretiaz deialdia eginda<sup>839</sup>. Deialdi hori zela-eta, *Euzkadi* egunkariaren bitartez ohartarazi zitzaizen baserriar urduliztarrei “(...) *“Federazio” horretan agertzen diren pertsonak ez digute inolako konfiantzarik ematen, ez ikuspuntu abertzale batetik ezta herriaren interesen aldetik ere* (...)”<sup>840</sup>.

Deskribatu dugun egoera hori “*elementu sozialisten infiltrazio gero eta handiago*” horren ondorioa zen, ordura arte irudi neutrala eduki zuen federazio batean. Luis Llona EAJri desbideraketa horretaz ohartarazten ibilia zen zenbait txostenen bidez. Horregatik, esku artean erabili zuten “(...) *Euskal Nekazaritzaren Federazio sortzeko aukera, Bizkaiko Abeltzain eta Nekazarien Federazioordezkatzeko edo, hala gertatuz gero, hari kontra egiteko*”. *Solidaridad de Obreros Vascosek* aukera hori erabili bazuen ere, ideiak ez zuen aurrera egin. Sindikatu abertzalea finkatuagoa zegoen krisi ekonomikoan eta langabezian, baita bere hedapenean ere. Gainera, *STVrentzat* “(...) *Bizkaiko nekazaritzaren egoera ez zen premia larriko arazo bat, ez alderdi ekonomikoan*”, ezta politikokoan ere, baserriarrek argi eta garbi gogor egiten ziotelako “(...) *propaganda marxistari, eta nazionalismoak landa eremuan indarra erakusten zuelako*”<sup>841</sup>. Alde horretatik, Urdulizkoa eredu garbia da, errepublikanismoaren itzala hutsaren hurrengoa izanda.

835 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Nekazaritzako Gizarte Alorreko Datuak 1930-6-28*.

836 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika 1933-5-10, Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3, Nekazaritzako Estatistika 1936-5-22*.

837 ANSEL, Darío: “*Los Nekazaris vascos durante la II República*” in *XIII Congreso de Historia Agraria. Congreso Internacional de la SEHA, Sesión III: Politización, democracia y mundo real*, 2011, Lleida:1-29. (Aipamena: 14).

838 *Ibíd.*: 21.

839 *El Liberal* 1932-4-10.

840 *Euzkadi* 1932-4-16.

841 ANSEL: 21-22.

1935eko uztaila arte itxaron beharko da Bizkaianofizialki *Euzko Nekazari Alkartasuna edo Bizkai'ko Euzko Nekazari Alkartasuna* nekazarien sindikatu abertzalea sortzeko. Nahiz eta, Darío Anselen iritziz, 1934ko urtarrilean, *Euzkadi* egunkariak argitaratu “(...) *haren lehenengo manifiestu edo sorrera-akta*”, jendaurreko lehenengo ekitalditik beretik, “(...) *hizkera erradikala*” erabiliz. Anselek dioenez, 1935eko martxora arte, zarata handirik atera barik jardun sindikatu honek. Hilabete horretan, ostera, “(...) *Gobernu radikal-cedistak Landa-errentamenduei buruzko Lege eztabaidatua jarri zuen indarrean*”. Lege berriaren ondorioz “(...) *utzarazpen uholde bat izan zen, maiz helburu politiko anti-nazionalistek bultzatuta*”. Egoera horrek “(...) *nabarmen igoarazi zuen ENAko afiliazioa*”<sup>842</sup>.

Errentamenduei buruzko Legeak sorrarazitako egoera bidebakoa izateaz gain, utzarazpengehienak legez kanpokoak ziren. 1936ko urtarrilean, El Liberalen orrietan adierazten zen noraino “(...) *landa-finken utzarazpenek*” kordokatua zuen “(...) *Bizkaiko landa guztia, nekazari familia zintzo batzuentzat tragedia hutsa zen-eta*”, Legeak “*biktima*” bihurturik. Ezinegona zabaldua zen honako hauen artean:

*“(...) cientos de arrendatarios cuyos desahucios se hallan en tramitación sin más causa para ello que el egoísmo de algunos propietarios y el deseo de mantener el predominio caciquil que se les va de las manos, y bajo el pretexto de que necesitan las fincas para cultivarlas directamente*”<sup>843</sup>.

Alde horretatik, Darío Anselek dioen legez, legeak utzarazpena baimentzen zuen “(...) *bakarrik jabeak finka zuzenean lantzekoa asmoa zuenean*”. Hala eta guztiz, agintariak ez zuten sistema eraginkorrik ezarri egoera horiek kontrolatzeko<sup>844</sup>.

*Bizkaiko Abeltzainen Federazioko* zuzendaritzak, Gayarre aretoan 1936ko urtarrilaren 26an egin zuen batzar nagusian, honako hauen berri eman zuen:

*“(...) los diversos incidentes a que han dado lugar algunos de aquellos desahucios en Ermua, Cenarruza, Mallavia, Euba, Urdúliz, Yurre, etc., por la unánime oposición de los vecinos de estos pueblos, dando lugar a la intervención de la Guardia Civil y al ingreso en las cárceles de Durango y Marquina de hombres, mujeres y niños (...)”*<sup>845</sup>.

---

842 Ibíd. 21-24.

843 *El Liberal* 1936-1-30.

844 ANSEL: 26.

845 *El Liberal* 1936-1-30.

Horixe, beste aipamenik ez dugu aurkitu Errentamenduei buruzko Legearen ondoriozko utzarapenen gainean Urdulizi dagokionez. Garaiko prentsan egin ditugun bilaketek ez digute argirik ekarrik auzi honi buruz.

Nekazaritza lanaren antolaketari dagokionez, ohar labor batzuk, besterik ez. Alde batetik, laboreen landaketa "(...) *jabe bakoitzak bere etxeokokin*" egiten zuen<sup>846</sup>, Nekazaritzari buruzko 1932ko maiatzeko Estatistikak azaltzen duenez. Aldez aurreko laborantza lanei dagokienez, Antonio Larrabeitia alkateak 1935eko abenduan azaldu zuenez, "(...) *nekazari batek ezin baditu berak bakarrik bere lurra landu, auzokoek laguntzen diote zereginetan*". Elkartasun modu hori, *auzolana*, "(...) *antzina-antzinako denboretatik*" ezarritako ohitura zen. Azkenik, aipatu beharra dago sega garaian "(...) *nekazari batzuk hamar bat egunetz jornalari ibiltzen ziren soldatapean*"<sup>847</sup>.

Estatistikek ez dakarte daturik 930etik 1936ra bitartean nekazaritzan erabilitako makineriaren gainean. Betiko goldeak erabiltzen jarraitzen zuten, eta horiek behi edo idi-uztarriak behar izaten, soroak goldatu ahal izateko.

Esan beharra dagomekanizazioa berandu sartuko zela Euskadiko nekazaritzan, nahiz eta lurraldearen hegoaldean, lursailak zabalagoak izanik, posible izan zen makineria modernoak erabiltzea, laborantzen errentagarritasunaren mesedetan. Berriz, Bizkaian eta Gipuzkoan, lurzatiei txikitasunak eta orografiak izugarri oztopatu zuten makineria mekanikoaren sarrera nekazaritza lanetan<sup>848</sup>. Urdulizen, gure ustez, orografiaez zen hain garrantzitsua gertatu, arrazoi astunagoaren aldean: lurzatiei txikitasuna. Horrez gainera, ezin beste kontu bat aipatu barik utzi, lurriari lotutako ekonomia gehienak iraupen hutsekoak ziren eta irabaziek ez zuten biderik ematen makineria garestietarako.

Hala eta guztiz, azpimarratu beharra dago XX. mendearen hasieran aldaketa gertatua zela laborantzan erabilitako makinerian: gordeak lekua hartu zien ohiko laiei. Eta aldakuntza hori ez zuen eragin laien eraginkortasun ezak lurra lantzerakoan, ezpada, lanabes horren erabilerak "(...) *behar zuen eskulan handiak*". María José Ainzek ohartarazten duenez, laiaren erabilera bazterturik geratu zen "(...) *aldatsaren pikoaren erruz goldea erabili ezina gertatzen zenerako (...)*" bakarrik. 20ko hamarkadan, "(...) *bertako "goldeari" tokia kentzen hasi zitzaion "brabant" modernoa, gari-jotzeko lehenengo makinak sartzen ziren aldi berean*"<sup>849</sup>.

846 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika – Obra Soldaten Prezioak 1932-5-24*.

847 B.F.A.H. URDULIZ 0024/027, *Nekazari errolda 1935-12-6*.

848 GARCÍA DE CORTAZAR, Fernando eta MONTERO, Manuel: *Diccionario de Historia del País Vasco A-Z*, Donostia, Txertoa, 1999: 60-61.

849 AINZ IBARRONDO: 154.


<b>NEKAZARITZARAKO MAKINERIA URDULIZEN 1930-1936 (kopurutan)</b> <sup>850</sup>				
	<b>1930</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1936</b>
<b>Laborantzarako makinak</b>				
· Golde erromatarrak	85	97	89	91
· Golde belarridunak	50			
- <i>Finkoa</i>		54	60	60
- <i>Birakaria</i>		43		
- <i>Belarri bikoa</i>			52	51
· Areak	75			
- <i>Hortz-area</i>			103	105
· Are-makinak			51	49
<b>Uzta-biltzeko makinak</b>				
· <i>Gari-garbitzeko makinak</i>	84			
- <i>Eskuzkoa</i>		5	5	5
<b>Izurriak suntsitzeko aparatuak</b>			3	

Abagune hartan, arestian esan bezala, animalien trakzio indarranahitaezkoa zen nekazaritza lanerako. 1935eko abenduko nekazarien erroldak Urdulizenguztira, 146 *baserritar* kontatu zituen familia-buru; haietatik, jabeak 26 baino ez iren, eta 120 errentadore. Haietako gehien-gehienek inmensa (101), behi-uztarri bat zuen, eta 9 baserritarrek idi-uztarria. Haien aldean, 20 nekazarik behi bakarra zuten nekazaritza lanetarako, eta 16k animaliarik bat ere ez zeukaten zeregin horietarako. Azken horiek, hurrean, euren auzokoen laguntza jasotzen zuten, lehenago adierazi dugun legez<sup>851</sup>.


850 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, Zirriborrea, Nekazaritzako Makineriari buruzko datuekin 1930-6-28, Nekazaritzako Estatistika – Nekazaritzako Makineria 1933-5-10, Nekazaritzako Estatistika – Nekazaritzako Makineria 1934-5-3, eta Nekazaritzako Estatistika – Nekazaritzako Makineria 1936-5-22

851 B.F.A.H. URDULIZ 0024/027, *Nekazari jabeen zerrenda izenduna* 1935-12-6.

**UZTARRI KOPURUA - NEKAZARI JABEAK URDULIZ  
(1935ko abendua)** <sup>852</sup>



**UZTARRI KOPURUA- NEKAZARI MAIZTERRA URDULIZ  
(1935ko abendua)** <sup>853</sup>



852 B.F.A.H. URDULIZ 0024/027, *Nekazari jabeen zerrenda izenduna 1935-12-6.*

853 B.F.A.H. URDULIZ 0024/027, *Nekazari errentadoreen zerrenda izenduna 1935-12-6.*



Azkenik, 1932ko maiatzeko udal estatistiketanuztarrien soldatak agertzen dira, idiei baino eragiten ez zietenak. Animaliak, laborantzaz ez ezik, garraio lanetan ere erabiltzen ziren.

UZTARRIEN SOLDATEN PREZIOAK (pezetatan) Maiatza 1932 <sup>854</sup>							
Uztarriak	Uztarri kop.	Laborantza lan orokorretan (goldatzea eta aratzea)			Garraio lanetan		
		Handiena	Ertaina	Txikiena	Handiena	Ertaina	Txikiena
<i>Behienak</i>	230						
<i>Zezen edo idienak</i>	12	22	20	29	26	25	22'50

## 2.4.6 Nekazaritzako ekoizpena

30eko hamarkadako maiatz eta irailtan nekazaritzari buruz egiten ziren estatistika horiek balio digute jakiteko Urdulizen labore mota bakoitzak zenbateko azalera hartzen zuen. Azalera neurtzeko 72 estatuko gizalana erabili zuten, 2'94 area edo 274'60 metro kuadren pareko. Urte bakoitzeko datuekin bi taula prestatu ditugu, nahiz eta transkribatutako azalera apur bat nahasgarriak izan, bereziki irailtako estatistikei dagokienez, 1934tik aurrera azalera-unitatea aldatu baitzuten, 100 estatuko gizalantetik 72 estatuko gizalanera pasatuta. Hala eta guztiz, zenbait ondorio ateratzeko moduan gaude udalerriko laboreen egoeraren gainean.

Gariak eusten zion Urdulizen eta, beraz, Bizkaian, klima kontuak zirela eta hain gaitza izanik ere landare hau aurrera ateratzea<sup>855</sup>. Labore hau zergatik mantentzen zen, ohiko arrazoi batzuk eman izan dira: “(...) *autokontsumo premia eta errentak garitan ordaintzeko ohitura*”. Dena dela, María José Ainek ohartarazten duenez, “autokontsumo premia” horrek balioa galdua zuen, gero eta ogi gutxiago erretzen zelako baserrietako labeetan, ogi prestatua eskura izanda. Hala eta guztiz, ez zitzaion utzi garia landatzeari, errentagarri gertatzen zelako uza okinei saltzea “(...) *gero produktu prestatua beraiei erosiho bazitzairen ere*”<sup>856</sup>.

854 B.F.A.H. URDULIZ 0024/027, *Nekazari errentadoreen zerrenda izenduna 1935-12-6*.

855 Gariaren laborantzaren nekezaren erakusgarri 1880ko irailean, Dobarango auzuneko zenbait bizilagunek adierazi zuten gari “(...) *gutxi, gutziz gutxi*” ereiten zutela “(...) *lurrak ematen ez duelako*”. Aitorpen hori egin zuten Probintziako Aldundiari egin zioten laguntza eskaera batean, izan ere “(...) *gutxienez zortzi minutu iraun zuen ur, txingor eta harri ekaitz baten ondorioz*”, abuztuaren 21eko arratsaldeko ordu batean, eskaera sinatzen zuten 24 baserritarrek galdu zituzten “(...) *arto eta indaba guztiak, mahatsa eta fruta ere bai*”, dena, azken batez, “(...) *gari apurra kenduta*”. Bizilagun horiek negargarri geratu ziren, “(...) *ez euren familiek jatekorik ez zeukatela, eta nekazari eta errentadore diren aldetik, hori beste bizibiderik ez daukatela*” (B.F.A.H. Ongunde Orokorra, 1724. kaxa, 20. esp. *Dobarango zenbait bizilagunek Bizkaiko Aldundi Txit Prestuari egindako idazkia 27-9-1880*).

856 AINZ IBARRONDO: 113.

Urdulizen, badakigu 1934an 11.225 kilo gari garau saldu zitzaizkiola Bilboko Harino Panaderari. Urdulizko kintal metrikoaren prezioa 48 pezetatik finkatu zen, “(...) *tasaren prezioan finkatutako gutxienezko behera kotizatuta, gari eskasak izateagatik, gai arrotzek %3 egiten dutela*”. Simón Ansoleaga zen udalerriko uzta-biltzaileen ordezkaria, “(...) *kopuru txikia zeukatelako saltzeko*”<sup>857</sup>.

Bizkaian, 1930-1935 aldian 16'75 kintal metrikoizan zen, hektarea bakoitzeko, batz besteko gari ekoizpena. Etekin horiek “(...) *Estatuko batez bestekoa baino askoz ere handiagoa zen aldi berean, 10 kintal/ha baitzen*”, nahiz eta Bizkaiko produkzioa “(...) *ikaragarri laborantza neketsuaren emaitza*” izan, eta horrek produktuaren errentagarritasuna gutxitzen<sup>858</sup>.

Artoaren ekoizpena, Bizkaian, paretsu zebilen gariarenarekin. Batz besteko ekoizpena 16'7 kintal metrikoizan zen, hektarea bakoitzeko, 1930etik 1935era<sup>859</sup>. Ohikoa zen artoaren laborantza indabenaekin uztartzea. Atal hau hornitzen duten laukietan ikusten dugunez, Urdulizenartoa eta indabak elkarturik ikusten ditugu 1932-1935 aldian. Esan beharra dago, orokorrean, artoaren eta landare lekadunen arteko lotura ez zela hain ohikoa. Urdulizen, 1934tik 1936ra bitarte, indabena laborantzari lotuta ikusten dugu.

Laboreen zati handi bat abereak elikatzeke erabiltzen zen: bazka laboreak. Horien artean, garrantzitsuenak arbiak eta artoa ziren. Laukietan, helburu bera duten beste labore batzuk ere agertzen zaizkigu: bazka-oloa, 1930ean bakarrik, eta bazka-erremolatxa eta alpapa. Ganadua bazkatzeko labore horiei belar-sail artifizialak gehitu behar zaizkie.

Era berean nabarmentzekoa da pataten ekoizpena, labore hori garrantzia hartzen joan baitzen XX. mendearen lehenengo erdiak aurrera egin ahala<sup>860</sup>. Beste alde batetik, aipatu beharra dago txakolirako mahastien desagerpena: 1930ean baino ez da agertzen labore honetarako azalera txiki bat, hurrengo urteetan ez da eta ezelango daturik. Hala eta guztiz, antza, maila txikiko ekoizpenak jarraipena eduki zuen baserri batzuetan, etxeari dautson mahats-parra baten bitartez, Torre Barrian 1930 urte inguruan hartutako argazki baten ikusten dugun legez. Urdulizko mahastien desagerpenak ederto islatzen du Bizkaian eta Gipuzkoa osoan XIX. mendeaz geroztik gertatzen ari zen atzerakada: mende horren erdian, probintzia bien artean, 3000 hektarea txakoli zeuden; 1909an, berriz, 800 baino ez ziren geratzen. Beherakada, besteak beste, filoxeraren erasoak ekarri zuen: zorriaren antzeko zomorro bat. Txakolia baztertuz joan zen halako eskualde batzuetara, “(...) *klima baldintza bereziak*” zituztenez, haren laborantzarako aukera hobea ematen zutelako, Getarian, Bermeon, Mungialdean edo Bilbo inguruetan bezala<sup>861</sup>. Azkenik, ezin ahaztu ilar eta berakutzen laboreen

857 B.F.A.H. URDULIZ 0032/018, *Gariaren salerosketarako gida* 1934-9-12.

858 AINZ IBARRONDO: 114.

859 *Ibid.* 114.

860 *Ibid.* 148.

861 *Ibid.* 111.

apurka-apurkako desagerpena 1930-1936 aldian. Gaitza da horretarako arrazoa aurkitzea, non ez den haien errentagarritasun urria, merkatuetan ezin lehiaturik-eta kanpoko ilar eta berakatzekin. Urdulizen adierazgarria da bi laboreei emandako azalerak 1934an izan zuen beherakada, noiz eta krisi ekonomikoak gogorren jo zuen urtean. 1935ean, bai ilarren bai berakatzan arrastoa galdua zen estatistiketatik.

Hirugarren laukiak erakusten du zein izan izen ortuarien ekoizpena 1934an. Ortuariak, bazka-landareekin batera izan ziren urte hauetan gehien hazi ziren laboreak, nahiz eta bazka-landareen garrantzia nabarmen handiagoa izan ortuarien aldean. Urdulizko ortuetan 1934ko maiatzean izan zen ekoizpena itzuliz, produktu mordo bat topatzen ditugu, hirietako merkatuak helmuga zutenak, inondik ere. Gogora dezagun ostera ere “*vendejera*” delakoa, ortuetako produktuak merkaturatzeaz arduratzen zen emakume baserritarra. Amaitzeko, lauki bat aurkezten dugu fruta-erbola desberdinek hartzen zuten azaleraren gainean. 1933koa baino informazio gehiagorik ez daukagu. Kopurutan, sagarrondoak (1200) eta madariondoak (1000) gailentzen dira, nabarmentzekoa bada ere sagarrondoa zela landaketa erregularreko fruta-erbola bakarra, eta haien fruituak zuzeneko kontsumorako zirela. Beste fruta-erbola multzo bateko aleak ere asko ziren, baina sakabanatuagoak. Hala jazotzen zitzairen pikondoei (420), gindondo eta gereziondoak (325), aranondoak (220) eta muxikondoak (200). Luberritzeko diru-laguntza eskaerek ematen diguten informazioari esker, badakigu 30eko hamarkadan gutxienez azalerako 93 gizalan landatu zirela fruta-erbolekin, kopuru txiki bat larre eta belar-sailletarako (361) eta laborantzetarako (336) erabili ziren azalerako gizalanan aldean.

Orokorrean, 1930etik 1936ra bitartean behera egin zuen garirako azalerak, 1936ko maiatzean atzera gora egin bazuen ere apur bat. Artoari antzera jazo zitzaion, haren azalera murriztu egin zen 1930etik 1935era bitartean, nahiz eta, itxuraz behintzat, ez garia bezain nabarmen. Behi-aziendak gora egin ahalean egin zuten behera, behi buru kopuruak gora eta gora egin baitzuen 1934ra arte. Hazkunde horrekin batera, noizbait esan dugunez, belar-sailletarako eta bazka-landaretarako azalera handitu zen, azienden elikagai. Hori beste labore batzuetan ere islatu zen, 1933az geroztik beheraka hasi ziren-eta, gehienetan 1934an areagotuta, hain zuzen ere krisiaren ondorioek udalerriko ekonomia jo zuten urtea: Urdulizen behi-aziendaren hazkundera gelditu egin zen, laboreen azalerek behera jarraitu zuten; berriz, murriztu egin zen belar-sail artifizialeterako lurra. 1935eko datuek geldialdi orokorraren zantzuak agertzen dituzte. Azalera gora egiten duten laboreek hutsaren hurrengo egiten dute (patatak, kipulak, tomateak, piperrak edo belar-sail artifizialak). Gerra Zibilaren etorrerak, noski, amaiera eman zion zikloari.

<b>NEKAZARITZARAKO AZALERA - 1930-1936 (Maiatza)</b> <sup>862</sup>							
Azalera unitatea: 72 estatuko gizalanak (2'94 area edo 274'60 metro koadro)							
<b>Laborea</b>	<b>1930</b>	<b>1931</b>	<b>1932</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>	<b>1936</b>
<i>Garia</i>	1830	1500	1400	1350	1100	1000	1112
<i>Garia, Baba Lerroekin</i>	-	-	-	-	120	140	120
<i>Bazkarako Oloa</i>	400	-	-	-	-	-	-
<i>Babak</i>	540	450	400	250	311	-	-
<i>Ilarrak</i>	300	300	320	340	2	-	-
<i>Patatak</i>	1300	1350	1475	1800	1015	1500	1006
<i>Kipulak</i>	150	150	170	180	92	100	97
<i>Arbiak, Ganadurako</i>	1100	1000	1025	1000	990	1000	903
<i>Berakatzak</i>	100	10	11	15	4	-	-
<i>Mahastia, Ekoizpenerako</i>	50	-	-	-	-	-	-

<b>NEKAZARITZARAKO AZALERA 1930-1935 (iraila)</b> <sup>864</sup>						
Azalera unitatea: 1931-1933: 100 estatuko gizalana = 3,90 area. 1934-1935: 72 estatukogizalana = 2,94 area						
<b>Laborea</b>	<b>1930</b>	<b>1931</b>	<b>1932</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>
<i>Artoa, garaurako</i> <sup>865</sup>	115,00	110,00	30,00	32,00	29,00	29,00
<i>Indabak</i>	39,50	40,50	50,00	50,00	48,00	50,00
<i>Artoa - indabak</i>	-	-	70,00	62,00	61,00	60,00
<i>Bazka-erremolatxa</i>	34,00	30,00	30,00	26,00	23,00	25,00
<i>Bazka-arbia</i>	-	-	1020	912	900	800
<i>Kipulak</i>	0,90	1	1	1,50	1,49	1,80
<i>Patatak</i>	-	25,50	30,00	34,00	31,00	38
<i>Alpapa</i>	22,00	21,00	22,00	18,00	19,00	18,00
<i>Belar-sail artifizialak</i>	1100	1010	1000	1420	1420	1490
<i>Tomateak</i>	80	80	90	72	68,00	71,00
<i>Piperrak</i>	0,80	0,90	1,00	0,91	0,89	0,90
<i>Ortua</i>	-	5'50	6	8	8	8

862 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika 1930-6-14*, *Nekazaritzako Estatistika 1931-5-15*, *Nekazaritzako Estatistika 1932-5-10*, *Nekazaritzako Estatistika 1933-5-12*, *Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3*, *Nekazaritzako Estatistika 1935-5-3*, eta *Nekazaritzako Estatistika 1936-5-22*.

863 1934tik aurrera garia bananduta agertzen da: Gari hutsa eta garia baba lerroekin. (1935: Garia baba lerroekin: 140 gizalan)

864 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, Zirriborroa, *Nekazaritzako Estatistikako datuekin 1930-6-28*, *Nekazaritzako Estatistika 1931-5-15*, *Nekazaritzako Estatistika 1932-9-7*, *Nekazaritzako Estatistika 1933-9-4*, *Nekazaritzako Estatistika 1934-9-3*, eta *Nekazaritzako Estatistika 1935-9-3*.

865 1930ean "ogirako artoa" esaten zitzaion. 1932tik aurrera, estatistikak bitan banantzen du artoa: garaurako edo indaben laborantzari lotuta. Laborantzen ordenari eutsi diogu, estatistikan agertzen den legetxe.

**ORTUARIAK. 1934ko maiatza**

(Azalerako unitatea: 72 estatuko gizalana = 273'60 metro koadro)  
Ortuetakoz azalera osoa: 2005 gizalan.

<i>Azak</i>	107	<i>Babab</i>	311
<i>Azalorea</i>	62	<i>Orburuak</i>	39
<i>Zerbak</i>	13	<i>Indabak</i>	97
<i>Urazak</i>	10	<i>Jateko erremolatxa</i>	3
<i>Perrexila</i>	1	<i>Jateko azenarioa</i>	62
<i>Marrubia eta baratze-marrubia</i>	7	<i>Kipulak</i>	92
<i>Luzokerra</i>	3	<i>Patatak</i>	1015
<i>Kuia</i>	33	<i>Berakatzak</i>	4
<i>Tomatea</i>	50	<i>Porruak</i>	5
<i>Piperra</i>	89	<i>Ilarrak</i>	2

**SAKABANATUTAKO FRUTA-ARBOLA KOPURUA 1933ko iraila <sup>867</sup>**

<i>Laranjondoak</i>	56
<i>Limoiondoak</i>	30
<i>Mertxikondoak</i>	200
<i>Arbeletxeoaks</i>	46
<i>Gingondo eta gereziondoak</i>	325
<i>Aranondoak</i>	220
<i>Sagarrondoak, jateko</i>	1200 (Landaketa erregularreko azalera: 100 estatuko 380 gizalan)
<i>Sagarrondoak, sagardorako</i>	0
<i>Udareondoak</i>	1000
<i>Irasagarrondoak</i>	120
<i>Pikondoak</i>	420
<i>Intxaurreondoak</i>	94
<i>Almendrondoak</i>	0
<i>Hurritzak</i>	0
<i>Gaztainondoak</i>	0
<i>Masustondoak</i>	0
<i>Mizpirondoak</i>	56

866 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika - Ortuarien laborantza 1934-5-3.*

867 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika - Fruta-arbolak 1933-9-4.*

## 2.4.7 Abeltzaintza eta bere ekoizpena

Lehenago esanda geratu den legez, behi-azienda gailentzen zen Urdulizko abeltzaintza bere osotasunean hartuta, Kantauri itsasoko ertzean izan ohi zenez. Hurrengo hiru laukietan ikusten den bezala, behi-buruen kopuruak etengabe gora egin zuen 1931etik 1935era bitartean. Alde horretatik, ondorioa atera genezake, krisiagatik ere, ez zuela behera egin okela eta esne eskaerak. Hala eta guztiz, 1935eko datuek erakusten dute geldialdia egon zela aurreko lau urtean behiganaduek eduki zuten hazkuntzan. Beharbada, Bizkaiko industria eremuan nagusitzen ari zen krisiaren ondorioa zen, inguru horretako behi okelaren eta esnearen kontsumoa motelarazi zuelako. Beste alde batetik, 1931tik 1936ra bitarteko behi-azienten kopuru osoen gaineko laukian ikusten denez, hurrengo urtean Gerra Zibila pizteak beherakada nabarmena ekarri zion behi-buru kopuruari, gerra bitartean Bizkaiak izan zuen autohornikuntza premia logikoaren ondorioz.

<b>BEHI AZIENDA 1931-1932</b> (Buru kopurua) <sup>868</sup>		
	<b>1931</b>	<b>1932</b>
<i>Hazitarako zezen haragitarakoak</i>	3	3
<i>Haragitarako behiak</i>	50	60
<i>Esnetarako eta lanerako behiak</i>	425	460
<i>Haragitarakozekorrak</i>	90	105
<i>Haragitarako bigantxak</i>	45	50
<i>Uztarrirako idiak</i>	25	24

868 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika 1931-5-15*, eta *Nekazaritzako Estatistika 1932-5-10*.

<b>BEHI AZIENDA 1933-1935</b> (Buru kopurua) <sup>869</sup>			
	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>
<b>Hazitarako zezenak (guztira):</b>	3	6	6
- Holandarrak	-	3	3
- Suitzarrak	3	3	3
<b>Behiak (guztira):</b>	<b>550</b>	<b>579</b>	<b>578</b>
- Holandarrak	160	170	175
- Suitzarrak	100	106	100
- Piriniotarrak	70	72	68
- Beste arraza batzuk	20	20	20
- Nahastuak	200	211	215
<b>Zekorrak (guztira):</b>	<b>115</b>	<b>132</b>	<b>132</b>
- Holandarrak	50	57	60
- Suitzarrak	30	40	38
- Piriniotarrak	10	9	6
- Beste arraza batzuk	5	7	7
- Nahastuak	20	19	21
<b>Ternerak (guztira):</b>	<b>62</b>	<b>73</b>	<b>82</b>
- Holandarrak	25	28	34
- Suitzarrak	10	14	17
- Piriniotarrak	5	7	8
- Beste arraza batzuk	2	3	4
- Nahastuak	20	21	19
<b>Idiak (guztira):</b>	<b>30</b>	<b>32</b>	<b>35</b>
- Nahastuak	30	32	35

869 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika 1933-6-7*, *Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3*, eta *Nekazaritzako Estatistika 1935-5-3*.

<b>BEHI AZIENDA: KOPURUAK, GUZTIRA 1931-1936</b> <sup>870</sup>						
	<b>1931</b>	<b>1932</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>	<b>1936 (Urria)</b>
<i>Hazitarako zezenak</i>	3	3	3	6	6	1
<i>Behiak</i>	475	520	550	579	578	508
<i>Zekorrak</i>	90	105	115	132	132	139 guztira
<i>Bigantxak</i>	45	50	62	73	82	
<i>Idiak</i>	25	24	30	32	35	26
<b>Guztira</b>	<b>638</b>	<b>702</b>	<b>760</b>	<b>822</b>	<b>833</b>	<b>697</b>

Ardi eta ahuntz aziendei dagokienez, haien hazkundera ere goraka joan zen Bigarren Errepublikako urteetan, nahiz eta, ardiak kenduta, haien kopurua txikiagoa zen. Behiei jazo zitzaien legez, Gerra Zibilak gogor jo zituen batzuk nahiz besteak, beharakada nabarmena ekarriz haien kopuruari.

<b>ARDI AZIENDA (Buru kopurua)</b> <sup>871</sup>						
	<b>1931</b>	<b>1932</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>	<b>1936 (Urria)</b>
<i>Hazitarako ahariak</i>	6	4	8	7	6	-
<i>Ardiak</i>	125	140	200	226	238	-
<i>Bildotsak</i>	30	40	50	58	63	-
<b>Guztira</b>	<b>161</b>	<b>184</b>	<b>258</b>	<b>291</b>	<b>307</b>	<b>162</b>

<b>AHUNTZ AZIENDA (Buru kopurua)</b> <sup>872</sup>						
	<b>1931</b>	<b>1932</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>	<b>1936 (Urria)</b>
<i>Akerrak</i>	1	1	1	2	2	-
<i>Ahuntzak</i>	20	15	32	38	36	-
<i>Antxumeak</i>	8	6	15	19	10	-
<b>Guztira</b>	<b>29</b>	<b>22</b>	<b>48</b>	<b>59</b>	<b>48</b>	<b>42</b>

870 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika 1931-5-15, Nekazaritzako Estatistika 1932-5-10, Nekazaritzako Estatistika 1933-6-7, Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3, Nekazaritzako Estatistika 1935-5-3*, eta *Zirriborroa, udalerriko ganadu aberastasunarekin, Euzko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak 1936-10-15ean eskatuta.*

871 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika 1931-5-15, Nekazaritzako Estatistika 1932-5-10, Nekazaritzako Estatistika 1933-6-7, Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3, Nekazaritzako Estatistika 1935-5-3*, eta *Zirriborroa, udalerriko ganadu aberastasunarekin, Euzko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak 1936-10-15ean eskatuta.*

872 *Ibid.*



Behiak, ardiak eta ahuntzak eraisten ziren, baina behi-esnea gailentzen zen. Urdulizko esne ekoizpenaz ez dugu datu osorik, beheko laukian ikusten den legez. 1932tik 1935era bitartean urtero batutako behi-esne litroen kopuru osoa baino ezin dugu nabarmendu. 1932ko urrian egindako estatistika bati esker, badakigu behi-esnearen parte bat Urduliztik kanpora bidaltzen zela saltzeko, zehatz-mehatz Bilbora eta Hareetara, trenbidearen bitartez<sup>873</sup>.

<b>URDULIZKO ESNE EKOIZPENA (1931-1935)</b> <sup>876</sup>					
	<b>1931</b>	<b>1932</b> <sup>875</sup>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>
<b>Eraisten den abere kopurua</b>					
<i>Behiak</i>	-	-	-	579	589
<i>Ardiak</i>	-	-	-	190	200
<i>Ahuntzak</i>	-	-	-	29	25
<b>Behi-esne litroak, guztira</b>	-	<b>520.030</b>	<b>580.000</b>	<b>590.000</b>	<b>600.000</b>
<i>Urdulizen kontsumituriko litroak</i>	400.050	400.030	-	-	-
<i>Kanpora eroaten ziren litroak</i>	-	120.000	-	-	-
<b>Esne litroaren prezioa (pta.)</b>	-	<b>0'45</b>	<b>0'40</b>	<b>0'40</b>	<b>0'40</b>

Behor eta asto azienda, berriz, urria zen. Horrek erakusten du abere mota horiek gutxitan erabiltzen zirela baserrian.

<b>BEHOR AZIENDA (Buru kopurua)</b> <sup>876</sup>						
	<b>1931</b>	<b>1932</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>	<b>1936 (Urrian)</b>
<i>Zaldia</i>	3	2	1	1	1	-
<i>Behorak</i>	13	11	12	12	13	-
<i>Zaldikumeak</i>	2	-	-	-	-	-
<i>Behorkumeak</i>	1	-	1	2	3	
<b>Guztira</b>	<b>19</b>	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>17</b>	<b>22</b>

873 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Datos sobre producción de leche 1932-10-20*.

874 A.M.U. "Histórico", Caja 8, *Estadística Agrícola 15-5-1931, Estadística Agrícola 7-6-1933, Estadística Agrícola 3-5-1934, y Estadística Agrícola 3-5-1935*.

875 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Urdulizko esne eskoizpenari buruzko estatistika 1932-10-20*.

876 U.U.A. "Historikoa", 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika 1931-5-15, Nekazaritzako Estatistika 1932-5-10, Nekazaritzako Estatistika 1933-6-7, Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3, Nekazaritzako Estatistika 1935-5-3, eta Zirriborroa, udalerriko ganadu aberastasunarekin, Euzko Jauriaritzako Nekazaritza Sailak 1936-10-15ean eskatuta*.

<b>ASTO AZIENDA (Buru kopurua)</b> <sup>877</sup>						
	<b>1931</b>	<b>1932</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>	<b>1936 (Urrian)</b>
<i>Astoak</i>	10	6	5	7	6	-
<i>Astemeak</i>	-	6	11	12	19	-
<b>Guztira</b>	<b>10</b>	<b>12</b>	<b>16</b>	<b>19</b>	<b>25</b>	<b>16</b>

Txerriei dagokionez, María José Ainzek kalkulatu zituen bi txerri batz besterri bakoitzean, “*autokontsumorako*”<sup>878</sup>.

<b>TXERRI AZIENDA (Buru kopurua)</b> <sup>879</sup>						
	<b>1931</b>	<b>1932</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>	<b>1936 (Urrian)</b>
<i>Apoak</i>	-	-	-	-	1	-
<i>Txerramak</i>	2	-	3	5	5	-
<i>Txerrikumeak</i>	11	-	8	13	17	-
<i>Gizentzeko arrak</i>	25	35	20	27	30	-
<i>Gizentzeko urrixak</i>	32	45	35	42	43	-
<b>Guztira</b>	<b>70</b>	<b>80</b>	<b>66</b>	<b>87</b>	<b>96</b>	<b>90</b>

Hegaztien berriz, edo zehatzago esanda, oiloek, garrantzi handia hartu zuten, bai kopuruz bai arrautzeen ekoizpenari dagokionez, Bigarren Errepublikaren garaian. Lauki hau da horren lekuko: <sup>880</sup>

<b>HEGAZTI AZIENDA (Buru kopurua)</b> <sup>880</sup>						
	<b>1931</b>	<b>1932</b>	<b>1933</b>	<b>1934</b>	<b>1935</b>	<b>1936 (Urrian)</b>
<i>Oilarrak</i>	185	204	265	289	300	140
<i>Oiloak</i>	1550	2050	3700	4200	4350	3110
<i>Oilaskoak</i>	505	700	800	1100	1200	950
<i>Oilo arrautzak</i>	135.000 urtean	250.000 urtean	384.000 urtean	390.000 urtean	396.000 urtean	-

877 Ibid.

878 AINZ IBARRONDO: 152.

879 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika 1931-5-15*, *Nekazaritzako Estatistika 1932-5-10*, *Nekazaritzako Estatistika 1933-6-7*, *Nekazaritzako Estatistika 1934-5-3*, *Nekazaritzako Estatistika 1935-5-3*, eta *Zirriborroa, udalerriko ganadu aberastasunarekin*, *Euzko Jaurlearitzako Nekazaritza Sailak 1936-10-15*ean eskatuta.

880 Ibid.

1932-1935 aldian, oilategiko hegaztien eta arrautza ekoizpenaren hazkunde ikaragarriak zerikusi argia du José María Uribe Echevarriaren hegaztitegiaren eraikuntzarekin, 1931n. Urte horretako ekainean, haren aita Juan Uribe eskabide bide aurkeztu zituen Udaletxean, baimena eskatzerren “(...) *etxe bat eta oilategi bat eraikitzeko Kanpa auzoan dauzkan lurretan*”. Udalak, ekainaren 27an, erabaki zuen “(...) *eskabidea eta harekin batera etorritako planoak Osasun ikuskatzaile jaunaren eskutan uztea, txostena egin dezan*”<sup>881</sup>. Hala eta guztiz, obrak, antza, lehenago hasi ziren, Udalak 1933ko maiatzean luzatutako ziurtagiriari kasu eginez gero; horren arabera, “(...) *mila bederatziehun eta hogeita hamaikako otsailean hasi ziren*”<sup>882</sup>.

1931ko azarorako, ustiategia eraikita zegoen, 10ean José María de Uribe diru-laguntza eskatu zion-eta Bizkaiko Aldundiari, hegaztitegia eraikitzeagatik, “(...) *Aldundi txit gorenak Probintziako nekazaritzaren alde egiten diren hobekuntzarako diru-laguntzak edo sariak*” ematen zituela ikasita. Uribe, bere eskaeran, azaldu zuen “(...) *bere finka batean obra handiak egin zituela, 15.000 pezetako baliokoak, planoen eta aurrekontuaren arabera (...), bertan hegaztitegia ezartzeko*”, eta obra horiek “(...) *saria merezi dutenen artean*” zeudela<sup>883</sup>.

1933ko maiatza arte ez dugu atzera ere diru-laguntza eskaeraren egoeraren berri izango. José María Uribe berak zuen ez atzera-ez aurrera horren ardura, maiatzaren 15ean adierazi zitzaizkiola diru-laguntza eskatzeko dokumentuak “*hitzez*” eskatu zitzaizkiola. Hona zein ziren dokumentu horiek: “(...) *mendiko lurren zerrenda, bertan laborantzak, mahastiak eta gainontzekoak sartuta, dagozkien azalera eta izenak barruan daudela*”, egindako obren krokisa, obren aurrekontu xehakaturia, alkatetzaren ziurtagiria, obren hasierako data zehazten zuena, suteen kontrako aseguruaren ziurtagiria eta, azkenik, baserriaren kokapena, erreperiderik gertuena zein zen adierazita<sup>884</sup>.

Dokumentazio horri guztiari esker, badakigu hegaztitegia zegoela “(...) *“ECHASPIEC” izeneko lurretan (...), gutxi gorabehera luze-zabal berdinak dituzten bi lursailetan banatuta*”. Lursail horietako batean zegoen hegaztitegia, eta 1933ko maiatza baino lehenago “(...) *ehun eta hogeita hamar bat fruta-arbola*” landatuta zeuden. Egun haietanaurreikusten zen 1934an beharrezkoa izango zela finkaren beste zatia erabiltzea “(...) *hegazi kopuruaren gorakadagatik*”, eta bertan fruta-arbolak landatzen jarraituko zutela. Guztia, berriz, “(...) *hegaztientzako bazka-landareak eraitzeko*” erabiliko zen, “*gaur egun lur osoaren laurdenarekin asetzen den premia, berau*”<sup>885</sup>.

---

881 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-6-27.

882 B.F.A.H. AX-00339/03, *Landaguneko Birpopulaketa Bulegoa*, “José María Uribe Echevarriak diru-laguntza eskatu du hegaztitegi bat eraikitzeagatik” 1934, *Urdulizko Udalaren ziurtagiria* 1933-5-8.

883 *Ibíd.* José María Uriberen diru-laguntza eskaera 1931-11-10.

884 *Ibíd.* José María Uriberri bidalitako komunikazioa 1933-5-15.

885 *Ibíd.* Okupatutako lurren zerrenda 1933-5-17.

Lurrak kokaturik zeuden “(...) Bilbotik Plentziara Hareetan zehar joateko errepideko 23. eta 24. kilometroen artean (...)”<sup>886</sup>.

Instalazioen multzoa honela zegoen osaturik:

*“(...) varios pabellones (...) cubiertos de teja, dotados al interior de cielo raso y seis tabiques de separación y de amplios ventanales encristalados al frente, con una longitud de 62 metros y una anchura de 4,40 metros, y (...) dos pabellones departamentos destinados a gallera y enfermería. Existe Gainera un pabellón central, en cuya planta está el almacén, sala de incubaciones, otra de crianza, oficinas, etc. Su primer piso consta de un elegante vestíbulo, cocina, dos dormitorios y retrete. Tanto este pabellón como los demás están dotados de agua potable, procedente de la Sociedad de Aguas de Urduliz”<sup>887</sup>.*

Gainera, 1933ko maiatza inguruan, haztegi bat eraikitzen zebiltzan “(...) txitentzako berokuntzaz hornitua, berokuntza zentraleko sistemaren bidez”. Kalkulatu zenez, obra honen kostua 6.400 pezeta inguru izatekoa zen<sup>888</sup>.

Orduko eraikita zegoenaren kostua 15.000 pezetabaino handiagokoa zen, 1931ko kalkuluen arabera, eraikitakoaren aurrekontuak 33.720'60 pezeta egiten zuelako, guztira. Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuaren ustez, diru-laguntza emateko orduan, zenbateko horietatik kendu beharra zegoen “(...) *erdiko pabilioiko solairu nagusiaren balioa, jabeentzako erreserbatuta egoteagatik*”<sup>889</sup>. 1934ko otsailaren 2an, proposatu zen José María de Uriberi ematea Aldundiko “(...) *Arkitektura Atalak aurkezten duen behin betiko likidazioaren zenbatekoaren (...) %15eko diru-laguntza (...)*”<sup>890</sup>. Aipatutu solairu nagusiaren balioa deskontatuta, 30.755,20 pezetako aurrekontua kalkulatuta zitzaien eraikitakoari; beraz, 4613,28 pezetan finkatu zen diru-laguntzaren zenbatekoa<sup>891</sup>. Azkenik, urriaren 24an, Aldundiko Batzorde Kudeatzaileak erabaki zuen zenbateko hori ordaintzea, diru-laguntza moduan, José María Uriberi<sup>892</sup>.

886 Ibid. Bizkaiko Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuaren txostena eta erabaki proiektua 1934-2-2.

887 B.F.A.H. AX-00339/03, Landaguneko Birpopulaketa Bulegoa, “José María Uribe Echevarriak diru-laguntza eskatu du hegaztitegi bat eraikitzeagatik” 1934, Bizkaiko Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuaren txostena eta erabaki proiektua 1934-2-2.

888 Ibid. Egindako obren aurrekontua 1933-5-17.

889 Diputazioko Nekazaritza Zerbitzuko buruak 1934ko urrian egindako txostena dela bide dakigu solairu nagusia “(...) *jabeentzako gortzen*” zela, eta horiek erabiliko zutela “(...) *halako batean bertan boladaren bat ematen dutenean*”. (B.F.A.H. AX-00339/03 Landaguneko Birpopulaketa Bulegoa, “José María Uribe Echevarriak diru-laguntza eskatu du hegaztitegi bat eraikitzeagatik” 1934, Bizkaiko Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuaren txostena eta erabaki proiektua 1934-10-6).

890 B.F.A.H. AX-00339/03, Landaguneko Birpopulaketa Bulegoa, “José María Uribe Echevarriak diru-laguntza eskatu du hegaztitegi bat eraikitzeagatik” 1934, Bizkaiko Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuaren txostena eta erabaki proiektua 1934-2-2.

891 Ibid. Bizkaiko Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuaren erabaki proiektua 1934-10-6.

892 Ibid. Batzorde Kudeatzaileko buruaren komunikazioa José María Uribe Echevarriari 1934-10-6.

Ikusi dugun legez, azkeneko berrikuntzez hornituriko hegaztitegia zen, arrautzen ekoizpen “sistematizatu” eta eskala handian bilatzen zuena, eredu tradizionalen eta baserrietakoekoizpenean ez bezala. Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuko buruak 1934ko otsailean egindako txostenean segurtatzen bazen ere “(...) *hegazti populazioa, gehienez ere, 1.200 aleta helduko*” zela, udal estatistikek agerian jartzen dute azienda honen hazkunde ikaragarria eta, beraz, arrautzen ekoizpena ere (1550 oilo 1931n, eta 4350 1935ean). 1200 oiloen gehienezko kopuru hura, beraz, zabal gaititu zen delako hegaztitegian.

Azkenez, aitzatekoa da erlauntz kopurua eta haietatik ateratzen zen eztiaren ekoizpena:

ERLEZAINNTZA <sup>893</sup>					
	1931	1932	1933	1934	1935
<i>Erlauntz kopurua</i>	185	204	265	289	300
<i>Eztia, kg.Tan</i>	1550	2050	3700	4200	4350

## 2.4.8 Bigarren sektorea eta langileriaren krisiaren ondorioak Urdulizen

Bigarren Errepublikaren bueltan, bigarren sektorerik ez zen ia Urdulizen. Irin errotak, industria moduko beste ola tradizionalik ez zegoen. Eskura ditugun datuen arabera, XX. mendearen lehenengo laurdenean, mota horretako lau errotak funtzionatu zuten Urdulizen. Beste alde batetik, hareharrirako harrobiakustiatzen ziren beti, XIX. mendearen bigarren erdialdean harri mota horren erazketa indartu ondoren. Igeltsu fabrika batek etena ekarri zion, Urdulizen, industriaren urritasunari 1886tik 1910era bitartean. Lehenago esan bezala, trenbidearen etorrera, 1893an, funtsezkoa gertatu zen urduliztarren irteera errazteko Itsasadarreko fabriketako lanpostuetara. 1929an *Solidaridad de Obreros Vascos*<sup>894</sup> sindikatuaren herriko agrupazioa sortu zen, baina susmoa dugu haren sorrerak xede politikoagoa izan zuela sindikala baino, bertako nazionalistak elkartzeko Primo de Riveraren diktadura iraungiten hasita zegoenean. Izan ere, Bigarren Errepublikaren etorrerarekin batera desagertu ziren sindikatu nazionalistaren agrupazio urduliztarren aipamenak. Are gehiago, badakigu 1932ko abenduaren bueltan udalerrian ez zegoela inolako erakunde sindikalik ezarririk<sup>895</sup>.

893 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika 1931, Nekazaritzako Estatistika 1932, Nekazaritzako Estatistika 1933, Nekazaritzako Estatistika 1934, eta Nekazaritzako Estatistika 1935.*

894 *Obrero Vasco 1929-9-1, eta 1929-9-16.*

895 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Udalaren Nekazaritzako Estatistika 1932-12-22.*

30eko hamarkadaren hasieratik bereziki Bizkaiko industria-ehuna kolpatu zuen krisi bortitzak langabetuak zein “*aste laburtuan*” lan egiten zutenak ugaritu zituen probintzia osoan, Errepublikako lehenengo bi urteetan. Kalkuluen arabera, 1931aren amaieran, 11.444 lagun zeuden lan barik Bizkaian; berriz, lanaldi partzialak zituztenak 12.262 ziren. Lehen biurtekoaren amaieran, 13.981 langabetu zeuden eta 12.925 lagunek zituzten lanaldi partzialak<sup>896</sup>.

Urdulizen zenbat behargin zeuden jakiteko, 1932ko estatistika biak dauzkagun. Udalak 1932ko maiatzean egindakoan 11 behargin kontatzen ziren “*harrobietako industriari*”, gehienez ere 8 pezeta eta gutxienez ere 6 pezetako jorna eskuratzen zutenak, eta 8 behargin “*eraikuntzakoak (igeltseroak, arotzak eta abar)*”, gehienez ere 11'50 pezeta eta gutxienez ere 8 pezetako jorna eskuratzen zutenak<sup>897</sup>. Urte bereko abenduan egindako Udaleko Estatistika Administrazioan, ostera, bestelakoak dira zenbakiak: “*badira 6 behargin harrobi batzuetan aldi batera lanean, eta 20 gehiago trenbidean eta Bilboko fabriketan*”. Era berean, kontuan agertzen ziren “*(...) jarduera guztietan lan barik geratutako beharginak*”, 17 lagun, guztira<sup>898</sup>.

1934ko egoerari buruz aurkitu ditugun jakingarriek ez digute datu zehatzik eman langabetu kopuruari dagokionez. Aldiz, argigarri ugari utzi dizkigute beharginek Urdulizen bizi zuten abagunea. Apirilaren 7an, Udalak “*(...) erabaki zuen Beharginen Enplegu Erregistroa sortzea, eta, horretarako, lokal bat uztea Udal honen egoitzan, bertako idazkari jaunaren ardurapean*”. Erregistro horren sorrerak ekarritako gastuak berdintzeko, erabaki zen gastu horiek “*(...) Ustebakoen Kapituluari sartzeari, kontsignaziorik ez zegoelako izendapen hori zegokion kapituluari*”. Gainera, deliberratu zen “*(...) Bilboko Udaleko Beharginen Enplegu Sailaren bulegoetara bidaltzea udalerrri honetako Tokiko Lan Batzordea osatzen zuten pertsonen izen eta abizenak*”, Urdulizen zeuden ugazaben zerrenda batekin batera<sup>899</sup>. Zerrenda horiek, baita bertako Beharginen Enplegu Bulegoaren sorreraren ziurtagiria ere, apirilaren 21ean prestatu ziren Bilboko Udaleko Beharginen Enplegu Sailera bidaltzeko<sup>900</sup>.

Bilboko Barruti-buruko Beharginen Enplegua Ikuskatzeko Batzordearen jarduketaren barruan kokatua zegoen Urdulizko Udalaren ekintza hori, 21 herrirekin batean Urduliz barruti horretan zegoelako. Gogorarazi beharra dago Beharginen Enpleguari buruzko 1931ko azaroaren 27ko Legeak sortu zuela Beharginen Enplegu Zerbitzua, Lan eta Aurreikuspen Ministerioaren mende. Lege hori abiarazteko Erregelamendua, berriz, 1932ko abuztuaren 6ko Dekretuak garatu zuen. Horren ondorioz, sare bat sortu zen Estatu osoan, udal edo probintzia

896 DÍAZ FREIRE: 84.

897 U.U.A. “Historikoa”, 8. kaxa, *Nekazaritzako Estatistika –1932ko obra soldaten prezioa - Urduliz 1932-5-24*.

898 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Udaleko Estatistika Administrazioa –Urdulizko Udala 1932-12-22*.

899 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-4-7.

900 B.F.A.H. BILBAO DUODÉCIMA 0034/011, *Urdulizko Erregistroa eratzeko espedientea 1934-4-21*.

mailako erakundeek edo udalerrien edo eskualde mailako mankomunitateek zuzendutako bulegoekin. Beharginen Enplegu Zerbitzuaren organigramak Bulego Zentral zuen erpinean; sarehori guztia zuzentzea, koordinatzea eta ikuskatzea zuen lana.

Apirilaren amaieran, aipatu Batzordea Bilboko Udaletxean batzartu zen beharginen langabeziari berba egiteko bildutako informaziotik abiatuta: guztira, 15.479 lagun zeuden lan barik, haietatik 5364 “*aste laburtuko*” langabeak izan arren. Langabeziari buruzko bildutako datu guztiak Probintziako Ikuskaritzara eta Lan Ministeriora bidali ziren. Datuen bilketa guztiz xehakaturia izan zen, “*(...) herri bakoitzeko egoerari buruzko orri zehatzak bildu zirelako*”. Gainera, probintziako eta estatuko agintariak jabetu zitezten “*(...) zein gogorra den krisia Bilboko barrutian*”, nabarmendu zen langabeziak zein sektoretan jotzen zuen bortitzen: “*(...) erauzte-industriak, metalurgia, eraikuntza, bankuak, aseguruak eta bulegoak*”<sup>901</sup>.

Maiatzaren 8an, Bilboko Barruti-buruko Beharginen Enplegua Ikuskatzeko Batzordea batzartu zen berriro. Haren erabakietako bat izan zen eskutitzak bidaltzea “*(...) probintziako zenbait kateari, Udalak aurretik erabakia hartuta, legea betetzen joan dadin udalerrira guztietan Langabetuen Erregistroak sortzeari dagokionez*”<sup>902</sup>. Ez zen Urdulizko kasua, esanda dagoen legez, Udalak apirilaren 7an erabakita zeukalako Langabetuen Erregistroa sortzea.

Lan eskasia hain zen larria Bilboko Barrutian ezen Ikuskatzeko Batzordeak erabaki baitzuen telegrama bat bidaltzea Ministro Kontseiluko lehendakariari, Herri-lan ministroari eta Lan eta Gizarte Aurreikuspen ministroari, eta erregutu balia zitezten “*(...) beren itzal baliotsu eta eraginkorraz*”, zertarako eta, ikusirik apirilean igorritako datu estatistikoak, “*(...) ahalik eta lasterren*” aztertu eta ebatzi zitezten ministerio horietan “*Bizkaiari dagozkion gai eta espedienteak*”, bereziki alor hauetakoak: metalgintzako industriak, Cantalajasko lubanaren zabalkuntza, adarra Cantalajastik Olabeagara handitzea “*(...) eta herri-lanekin eta tren bidezko loturekin zerikusia duten guztiak*”<sup>903</sup>.

Urdulizko Udalak ere erabaki zuen gorago jotzea. Modu horretan, maiatzaren 6an “*(...) erabaki zuen Batzorde bat izendatzea Aldundi Txir Goreneko Lehendakari jaunarekin elkarrizketatzeko*”. Helburua zen probintziako erakundeak herri honetako beharginak enplegatzea “*(...) Elizate honetako barrutiko errepideak konpontzeko lanetan*”<sup>904</sup>. Aurretiaz, Enrique Legarra alkatea, Manuel Menchaca alkateordearekin eta Urdulizko bizilagun Martín Bilbaorekin batera, errepide horretako 17. kilometroan ibili ziren, eta bertatik bertara egiaztatu “*kilometro hori eta askoz ere gehiago Elizate honetako mugen barruan*” zegoela. Bilbo-Plentzia errepideko zati hori Urdulizko jurisdikzioan zegoela baieztatuta,

---

901 *La Gaceta del Norte* 1934-4-25, eta *El Liberal* 1934-4-25.

902 *La Gaceta del Norte* 1934-5-9, eta *El Liberal* 1934-5-9.

903 *Ibid.*

904 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-6-5.

Aldundiko lehendakariarekin batu beharreko batzordea izendatu zen azkenik, erregutzeko asmotan “(...) *herriko beharginbatzuk enplega zitzan*” errepidea hori konpontzeko lanetan. Udaleko idazkari Luis Navarroren eskutan utzi zen lanbide hori<sup>905</sup>.

Ekainaren 23an, bilerak ekarritakoaren berri eman zion Navarrok udal batzarrari. Nonbait, Probintziako Aldundiko lehendakariarek erantzun zion “(...) *ezin zituela oraingo beharginak bota, baina aurrerantzean oso kontuan izango zuela Udalaren eskaria*”<sup>906</sup>.

1934ko irailean Euskal Herriko udalekiko gatzakaren ondorioz ezarritako Batzorde Kudeatzaileak ere bere kezka agertu zuen udalerriko beharginen egoeraz. Esate baterako, 1935eko abuztuan, Kanpako Eskolako obren barruan zegoen lur iraulia erauzi eta eskola alboko lursaila bete behar zela eta, erabaki zen “(...) *herri honetan premia handiena duten behargin eta bizilagunei abisatzea, lur horiek atera ditzaten, bakoitzarentzako zazpi pezetako jornalaren truke*”<sup>907</sup>. Hala eta guztiz, Udalaren baliabideak murriztuta geratu ziren auzuneko eskolak eraikitzeko lanen ondorioz, eta, aldi hartan, Udalaren egoera ekonomikoa nabarmen argala zen. Berbarako, urte hartako martxoan, udalbatza urduliztarrak adierazi zuen ezin zuela lagundu Bizkaiko Tuberkulosiaren kontrako Batzordearen sostenguan “(...) *diruz estu*” zegoelako<sup>908</sup>. Likidezia premiak “*Geltokiko Alondegia*” salgai jartzera bultzatu zuen Udala, urte hartako abuztuan<sup>909</sup>. 1935eko abuztuaren 29an dekretu batek udalak behartu zituen “*hamarren bateko errekarua ezartzera Kontribuzioaren gainean, borondatez kanpoko langabezia borrokatzeko*”. 1935eko azaroan, Urdulizko Udalak ezarri gabe zeukan delako errekarua hori, Probintziako Lan Ordezkaritzak horren berri “*ahalik eta bizkorrena*” emateko eskatu zionean<sup>910</sup>. Ulertzekoa, noski.

## 2.4.9 Hirugarren sektorea

Sei urteko datuak bildu ditugu Urdulizko merkataritzari buruzko atal hau lantzeko: 1909, 1911, 1923, 1930, 1936 eta 1944. Zerbait faktore hartu ditugu kontuan hirugarren sektorearen egoera aztertzerakoan. Horietako lehenengoa da udalerriko biztanleriaren bilakaera, handitu egin zelako 1900dik 1940ra bitartean, 728 bizilagunetik 1091ra. Hazkunde hori dela-eta, José María Tapizen iritzia da Bigarren Errepublikaren garaian Urdulizko “(...) *merkataritzasarea (...) tamainaz zegokiona (...) baino txikiagoa zela*”<sup>911</sup>. Eskura ditugun datuek lagunduta, konturatzen gara merkataritza sareak hazkunde apal bat izan zuela,

905 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-6-2.

906 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-6-23.

907 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-8-20.

908 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-3-23.

909 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-8-28.

910 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-11-19.

911 TAPIZ FERNÁNDEZ, José María: “*Los batzokis jeltkides durante la II República, Centros de Sociabilidad y reclamos a la afiliación*” in *Vasconia*, 33, 2003: 283 – 302.



1909ko eta 1911ko informazioa 1923koarekin alderatuz gero. Geroko datuek, 1930an eta 1936an bildutakoek, 1923ko egoera berdintsua uzten digute agerian; berriz, 1944koetan merkataritza ehunaren ahultzea nabari dugu, gerra osteko lehenengo egoera ekonomikoarenordain.

Merkataritza sareak erantzuten ote zion eskariari eta biztanle kopuruari? Itauna erantzuteko beharrezkoa gertatzen da bigarren faktore bat ebaluatzea: Elizateko morfología eta haren sare ekonomikoa. Urdulizko biztanleriaren ezaugarria sakabanaketa da; izan ere, jendegune bi osatzera baino ez zen heltzen, ez sano handiak, bata parrokia elizaren inguruan eta bestea Elortzan. Hori, zalantza barik, erabakigarria izan zen bertako merkataritza egituratzeko. Beste alde batetik, baserriko ekonomiak biziraupenera jotzen zuen, eta horrek gastu txikietarako, behar-beharrezkoetarako, tokia baino ez zuen uzten bertakomerkataritzan. 1930ean eta 1936an agertzen diren bi errementeriak lotu-loturik zeuden nekazaritza eta abeltzaintzarekin, haren lana nahitaezkoa zelako ganadua perratzen eta gurdiak konpontzen. Beste alde batetik, 1930eko agirietan agertzen diren 5 janari dendak -6, 1936an- uste dugu nahiko-nahikoak zirela baserriak ekoizten ez zituen elikagai eta produktuen eskaria berdintzeko. Gainera, esan behar da denda horietako asko tabernak ere bazirela. Esate baterako, 1930ean Estefana Ugarte agertzen da janari denda bat gobernatzan, egiazki Elortzako udal alondegia zena<sup>912</sup>.

Azken kontu horren harritik, hirugarren faktore bat hartu behar dugu aintzat: merkataritzak dokumentazioan aniztasuna agertu arren, ez zen benetan halakorik: itxura guztien arabera, lokal berean mota bat baino gehiagoko sal-erosketa gauzatzen zen. Esate baterako, 1936an, Juan Abaroa agertzen da tabako denda, zapata denda eta udalerriko janari dendetariko bat gobernatzan. Hori negozioak, ordea, saltoki berean batzen ziren, inondik ere. Gauza bera esan daiteke Julián Mayorrek gobernatzan zituen kinkila dendaz eta janari dendaz<sup>913</sup>. Azkenik, aipatu beharra dago 1909an hiru ostatu zeudela eta bi benta 1911n; geroago, berriz, ez da ostatatzeko ezelango etxerik ageri. 1916ko Udal Ordenantzak arautzen zuten arrotzegi horien funtzionamendua. Besteak beste, arau horiek debekua ezarri zioten "(...) ostatuetan eta ostatatzeko gainerako etxeetan (...) ostatu emateari arrote ezagunei, desertoreei eta bizimodu dongeko jendeari"<sup>914</sup>.

---

912 Vizcaya en la mano – Guía Reparaz – 1930 - Anuario General de toda la Provincia: 402.

913 Vizcaya en la mano – Guía Reparaz – 1936 - Anuario Comercial Industrial profesional y corporativo de toda la provincia: 120.

914 U.U.A. "Historikoa", 1. kaxa, Urdulizko Elizateko udal Ordenantzak 1916-12-26.

<b>URDULIZKO SALTEGIAK 1909-1923</b>		
<b>1909</b> <sup>915</sup>	<b>1911</b> <sup>916</sup>	<b>1923</b> <sup>917</sup>
<p><b>JANARIDENDAK</b><sup>918</sup>: Alejo Abaroa José Larrazabal Alejo Mendizabal</p> <p><b>BIZARTEGIA</b>: Santiago Olivares</p> <p><b>HARATEGIA</b>: José Arana</p> <p><b>ARROZTEGIAK</b>: Domingo Artolozaga Domingo Beascochea</p> <p><b>ESTANKOAK</b>: Alejo Abaroa José Ángel de Arteta</p> <p><b>ERREMENTERIA</b>: Antonio Iturriaga</p> <p><b>OSTATUAK</b>: Alejo Abaroa José Larrazabal Alejo Mendizabal</p> <p><b>ZAPATEGIA</b>: Alejo Abaroa</p>	<p><b>ERREMENTERIA</b>: Antonio Iturriaga</p> <p><b>BENTAK</b>: Alejo Abaroa Luis Bilbao Bilbao</p> <p><b>TABAKOAK</b>: Alejo Abaroa</p> <p><b>ARDOAK</b>: Alejo Abaroa Alejo Mendizabal</p> <p><b>ZAPATEGIA</b>: Alejo Abaroa</p>	<p><b>JANARITEGIAK</b>: Pablo Carcostegui Torrontegui (La Campa) Lorenzo Unibaso Echegaray (Cuatro Caminos)</p> <p><b>JANARI DENDAK</b>: Julián Mayor Royo (La Campa) Estefanía Ugarte Iturriga (La Campa) Paula Zubiaga Ansoleaga (La Campa) Juan Arrieta (La Campa)</p> <p><b>ERREMENTERIAK</b>: Enrique Legarra Bengoechea (Cuatro Caminos) Ciriaco Ansoleaga (La Campa)</p> <p><b>ARROZTEGIAK</b>: Luis Bilbao Larrabe (La Campa) Juan Bautista Unibaso Echegaray (Cuatro Caminos)</p> <p><b>GANADU TRATANTEA</b>: Alejo Abaroa Argaluz (La Campa)</p> <p><b>ZEREALAK</b>: Alejo Abaroa Argaluz (La Campa)</p> <p><b>HARRI MAILUKATUKO HARGINA</b>: Benito Otazua Artaza (La Campa)</p>

915 Anuario Riera, 1908, 2. zk.: 1745.

916 Anuario del comercio, de la industria, de la magistratura y de la administración, 1911, 2.a: 1197.

917 B.F.A.H. URDULIZ 022/020, Industria aberastasuna 1923-11-15.

918 Olioaren, ozpinaren lekari sikuen eta abarren gutxixkako saltegia.

<b>URDULIZKO SALTEGIAK 1930-1944</b>		
<b>1930</b> <sup>919</sup>	<b>1936</b> <sup>920</sup>	<b>1944</b> <sup>921</sup>
<p><b>BIZARTEGIAK:</b> Juan Bilbo José Brotons Llona</p> <p><b>ARROZTEGIAK:</b> Luis Bilbo Juan Bautista Unibaso</p> <p><b>ESTANKOA:</b> Alejo Abaroa</p> <p><b>ERREMENTERIAK:</b> Ciriacó Ansoleaga Enrique Legarra</p> <p><b>KINKILA DENDAK:</b> Julián Mayor Paula Zubiaga</p> <p><b>JANARITEGIAK:</b> Julián Mayor Estéfana Ugarte Juan Abaroa José Brotons Paula Zubiaga</p> <p><b>ZAPATEGIA:</b> Juan Abaroa</p>	<p><b>BIZARTEGIAK:</b> Juan Bilbo José Brotons Llona</p> <p><b>ARROZTEGIAK:</b> Luis Bilbo Juan Bautista Unibaso</p> <p><b>ESTANKOA:</b> Juan Abaroa</p> <p><b>ERREMENTERIA:</b> Enrique Legarra</p> <p><b>KINKILA DENDA:</b> Julián Mayor</p> <p><b>JANARITEGIAK:</b> Julián Mayor Estéfana Ugarte Juan Abaroa José Brotons Paula Zubiaga Tomás Guibelondo</p> <p><b>ZAPATEGIA:</b> Juan Abaroa</p>	<p><b>ARROZTEGIA:</b> Luis Bilbo</p> <p><b>ERREMENTERIA:</b> Enrique Legarra</p> <p><b>TABERNAK:</b> Antonio Larrabeitia Félix Arrarte Juan José Guibelondo Martín Bilbo Tomás Larrauri</p> <p><b>JANARITEGIAK:</b> Antonio Larrabeitia Julián Mayor Martín Bilbo Tomás Guibelondo</p>

919 *Vizcaya en la mano - Guía Reparaz - 1930 - Anuario General de toda la Provincia: 402.*

920 *Vizcaya en la mano - Guía Reparaz - 1936 - Anuario Comercial Industrial profesional y corporativo de toda la provincia: 120.*

921 *Anuario Vascongado - Año 1944 - Guía Oficial, Corporativa, Comercial e Industrial de las Provincias Vascongadas: 166-167.*

## 2.5 Hezkuntza, kultura eta osasuna

### 2.5.1 Hezkuntza: eskolatzea eta azpiegiturak

#### 2.5.1.1 Hezkuntzaren egoera 1930era arte

XIX. mendearen hasieran, oinarrizko irakaskuntzaren helburua lau arlotan finkatzen zen: “(...) irakurtzen, idazten eta zenbatzen jakitea eta *Dotrina buruz ikastea*”. Eskolako maisu-maistrek soldata urria izaten zuten eta, “*gehienetan, (...) ikasketak eskasak*”. Tradizioz, euren lanarekin batera bestelakoetan ere jarduten zuten, hala nola sakristau, organo-jotzaile eta halakoak<sup>922</sup>.

Ezaugarri horiek ederto marraztuta ageri dira José Domingo de Uribe Elorduyk 1874an idatzitako ohar autobiografikoetan. Urdulizen jaio zen 1830ean eta “(...) *gutxi gorabehera 7 urtetan*” hasi zen José Ramón de Ansoleagak gobernatzen zuen herriko eskolara etortzen. Hartan, “(...) *10-11 urte bete arte egon zen, probetxu handia aterata*”. Maisuak aitatu berri den estereotipoa betetzen zuen, sakristau eta organo-jotzailea izanda. Hartzen zuten irakaskuntzaren gainean hona zer idatzi zuen: “(...) *herri txikietako eskola guztietan legez, irakurketa, idazketa eta kontuak, horiek gure irakasgaiak. Dotrina euskaraz ikasi genuen*”, eta gainontzekoa, berriz, gaztelaniaz. Uribek adierazi zuenez, Urdulizen “(...) *euskaraz egiten zenez, gaztelania guztiz ezezaguna zitzaidan, lehen letrak erdaraz ikasi arren, esaten genuena batere ulertu barik*”. Gurasoek erabaki zuten Portugaletera bidaltzea, barnetegiz, José García maisuarekin, “(...) *gaztelaniaz ikasteko*”. Urtebetez egon zen, 1840tik 1841era bitartean. Hasieran, gazte urduliztarrak zailtasun handiekin egin zuen topo “(...) *gelan ikaskideei segitzeko, erdaraz guztiz hankamotz nembilelako*”. Askotan, “(...) *eskolako ikaskideek eta etxeko bizikideek burla egin zioten, ezin-eta haien hizkuntzan berba egin*”<sup>923</sup>.

José Domingo de Uriberen gurasoak, “*aisetasunean bizi ez baziren ere*”, tematu ziren euren seme-alabei “*heziketa erregularra ematen, gazte ziren bitartean*”. Horregatik, Uribek aitatu zuen “*10-11 urte eduki arte ez zuela ezelango ardurarik izan lehen hezkuntzako eskolan ikastea ez bazen*”. Duda barik, hori ez zen ohikoa landa-giroan, bertan familia unitateko kide guztiek parte hartzen baitzuten baserriko lanetan. Horrek, hurrean, Uribe-Elorduytarren posizio sozial hobea salatuko zuen, herriko biztanle gehienaren aldean. Delako egoera hobearen adierazgarri dira, Portugaleten egin zuen bolada ez ezik, Sondikako maisu Pedro Landaren etxean eta Getxoko eskribau Ignacio Ariasenean emandakoak ere bai. Azken horretan, eskuordeko ibili zen 1843tik 1847ra bitartean<sup>924</sup>.

922 ARRIEN BERROJAEHEVARRIA, Gregorio: *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y Autonomía. 1898 - 1936)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Diputazioa, 1987, 27.

923 URIBE eta ELORDUY, José Domingo de: *Apuntes biográficos de D. José Domingo de Uribe y Elorduy*, eskuizkribu argitaratu gabea, 1874 (Jatorrizko testuaren transkribaketa, Alberto Urrutia Llonak Bilbon 1944ko urtarilean egin), 1-2.

924 *Ibid.* 1-2.

Udalek maisu-maistrak aukeratzeko ahalmena izan zuten Foruak indarrean egon ziren bitartean. 1857an, Moyanoren legeak aldarazi zuen hori. Gregorio Arrienek dioenez, Euskal Herriko Aldundiek *“euskal berezitasunen aurkakotzat”* jo zituzten lege horrek zekartzan berritasunak. Horregatik, eskabide bat aurkeztu zioten Koroari hiru probintzietan eten zitezen *“Irakaskuntzari buruzko Legearen ondorioak”*. Eskabide horretan adierazten zen irakaskuntza egoera onean zegoela hiru probintzietan, diputazioei eta udalei esker, eta *“probintzietako eta udalerrietako Administrazioa hezkuntza arloko kudeaketaz gabetzeak”* amaiera emango ziola *“Herrian irakaskuntzagatik dagoen grina eta interesari”*. Hiru aldundien ustez, kontraforua zen *“udalerriei eta herriei maisu-maistrak izendatzeko eskumena kentzea”*. Bestelako ondorioak ere aitatzen zituzten, legea ezarriz gero, besteak beste *“euskararen galeraren gaineko eragina”*. Hartara, *“(…) foru administrazioaren eskumenetik maisu-maistrak izendatzeko eskudantzia, eskolak beretuko dituzte herri honetako hizkuntza eta ohitura bereziak arrotz zaizkien irakasleek”*. Hori dela eta, ezinbestekoa iruditzen zitzairen irakasleek euskaraz jakitea<sup>925</sup>. Madrilgo Gobernuarekin zenbaitetan negoziatu ostean, 1859ko uztaileko Errege Agindu batek eman zion ebazpena auziari. Hura aldundien gustukoa izan ez zenez, kudeaketetan jarraitu zuten atzera bota guran. 1874ko uztaileko Dekretuak behin betiko indargabetu zuen maisu-maistrak izendatzeko ahalmena<sup>926</sup>.

Zenbait hilabete lehenago, 1874ko otsailean, Urdulizko Udalak hutsik deklaratu zituen idazkari eta maisu lanpostuak. *“Behar baino gastu handiagoak”* saihestearren, pertsona bakarrak ibili beharko zuen kargu bietan, soldata ere bakarra edukiko zuela: 2000 erreal urtean. Derrigorrezko baldintza, *“(…) euskaraz jakitea”*. 1875eko urtarrilean idazkari izendatu zen Eskoletako maisu Pedro Pastor Aauri, Udal Idazkaritzan lehengo urteko uztailetik behin-behinean zebilena<sup>927</sup>.

XX. mendearen lehenengo bi hamarkadetan, gaztelaniak jarraitzen zuen, guztiz inguru euskaldunean, irakaskuntzan erabiltzen zen hizkuntza izaten. Horrek analfabetismo tasa handiak eragiten zituen. Baina hizkuntzaren auzia ez zen horren eragile bakarra. Baserriak, familia ustiatagia zenez, etxeko guztien lana nahi zuen. Baserriko lanetan, eskolara joateko adinean zeuden neska eta mutikoen partaidetzak *“(…) gora egiten zuen udaberriko eta udazkeneko hilabeteetan: ganadua jagon behar zuten, fruituak batu, aitei bazkaria eroan, iratzea ebaki eta abar...”*. Horren ondorioa zen *“(…) eskoletara sarri huts egitea, irakaskuntzaren kaltetan”*. Kontu horri gehitu behar zaio baserr igehienetatik eskoletara zegoen distantzia, *“(…) milaka ume (...) behartzen zuena egunero zenbait kilometro egitera euren eskoletara agertu ahal izateko”*<sup>928</sup>.

---

925 ARRIEN, 37.

926 *Ibid.* 38-39.

927 U.U.A. “Historikoa”, 4. kaxa, 1869-1877ko Erabaki eta Dekretuen Liburua, 1874-2-20, 1874-7-16 eta 1875-1-14.

928 ARRIEN, 53-54.

Gregorio Arrienek María de Maeztu pedagogoaren testu bat jaso zuen euskal probintzietako lehen hezkuntzaren gainean. 1920an aurkeztu zen, Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresuan, eta bertan ederto laburtuta geratzen da azaldu berri dugun arazoa:

*“(...) los niños tienen que pasar todos los días seis horas en un recinto mal oliente, sin aire, sin luz, atentos a un libro cuya letra y cuyo espíritu les es extraño, oyendo del maestro unas palabras cuyo significado no entienden (...) cuán estéril es el sacrificio de esos niños que recorren una distancia de dos kilómetros desde el caserío más próximo, con un pedacito de pan y tocino por toda y única comida y sin recibir a cambio en la escuela nada que represente el más mínimo valor”<sup>929</sup>.*

Eskola Nazionala gaur egun San Fermin auzunea dagoen tokian zegoen Urdulizen; beraz, auzuneetatik hara, tarte ez zen kilometro bi baino gehiagokoa, Urdulizko alkateak 1920ko erdialdean egiaztatu zuenez. Eskolatik, Dobaran zen auzunerik urrunena<sup>930</sup>, eta kilometro bitara zegoen; Mendiondo, berriz, kilometro eta erdira. Landako umeek kilometro bateko bidea zuten ikastetxeraino. Beste alde batetik, alkate urduliztarrak zioenez, baserriko lanak udaberrian pilatzen ziren batez ere, eta bizpahiru hilabetez lanpetzen zituzten neska-mutikoak. Urdulizko eskola umeek *“(...) bizkor parte hartzen zuten artoaren eta patataren ereintzan eta uztan”*. Behar horri ganadua jagotea gehitu behar zitzaion, eskola adinean zeuden *“(...) ume gehienen gurasoek”* behiak zeuzkatelako<sup>931</sup>. Horiek guztiek, zalantza barik, huts-egite ugari ekarriko zituen eskolan. Horiez gain, arestian esan bezala, ezin ahaztu gaztelania baino ez zela erabiltzen Urduliz bezalako udalerrri euskaldun bateko irakaskuntzan. Arazo horiek guztiek mesede gutxi egiten zioten, inondik ere, alfabetatzeari.

Esandakoagatik ere, analfabetismoaren aurkako borroka fruitua ematen hasita zegoen. Erraz antzematen zaio 1917ko eta 1930eko hauteskunde eroldak alderatuta<sup>932</sup>: behara egiten dute idazten ez irakurtzen ez dakiten boto-emaeleek. Hala eta guztiz, aitatu beharra dago osatu bakoa dela erolda bien azterketak eskaintzen digun ikuspegia, 25 urtetik gorako gizonezkoen gaineko argibideak baino ez dizkigulako ekartzen, horiek izanik 1890etik 1923ra indarrean egon zen Hauteskunde Legearen arabera boto emateko eskubidea zutenak. Emakumeak eta gazteak kanpoan zeuden.

---

929 Ibid. 55.

930 Badakigu auzune honetako umebatzuk Erraskondoko eskolara joaten zirela, Laukizen, Dobarandik gertu-gertu.


931 B.F.A.H. Irakaskuntza Publikoa, 1201. kaxa, 40. Esp., *Urdulizko Udalarri Gallano mozioaren ondorioz dagokion espedientea. Urdulizko alkateak betetako galdetegia*, 1920.

932 B.F.A.H. URDULIZ 0026/006, *Eskola Erroldaren Zuzenketa, 1917* ; eta AJ 01873/008, *Eskola Erroldaren berritze osoa, 1930*. 1917ko erroldatik (203 boto-emaile) 1930ean 100 bat hauteslek errepikatzen dute.

Erroldetatik ateratzen den beste datu bat: analfabetismoa gizarte estamentu bakarrean pilatzen zen ia, nekazariak. Ez da harrizkoa zerbait begi-bistakoa kontuan hartuta: baserriarrak ziren multzo nagusia Urdulizko biztanleetan.

Helduen analfabetismoa borrokatzeko, “*gaueko eskolak*” ematen zitzaizkien Eskoletan. Ordutegi horrekin, baldintzak ez ziren onenak, argindarrik ez zegoelako. Horregatik, 1924ko otsailean, Teodoro Primo López maisuak argindarra paratzeko eskatu zuen, gaueko eskoletako “*ikasleei arreta hobea egin ahal izateko*”. Udalak ezetz esan zion, “*aurten gaueko eskolak amaitzeko denbora gutxi falta dela*” argudiatuta<sup>933</sup>. Horrek erakusten digu eskolak neguan ematen zirela, baserriko lanetarako eguzki ordu gutxiago zeudela aprobetxatuta. Urtebete geroago, 1925eko abuztuan, Udalak aho batez onartu zuen Eskoletan argindarra ipintzea “*(...) helduentzako batez ere benetako premia zelako*”<sup>934</sup>.


### URDULIZKO 1917KO HAUTESKUNDE ERROLDA (gizonezko kopurua)




933 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922-1930ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1924-2-24.

934 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922-1930ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1925-8-15.

### URDULIZKO 1930EKO HAUTESKUNDE ERROLDA (gizonezko kopurua)




### ANALFABETISMOEN ALDERAKETA 1917KO ETA 1930EKO HAUTESKUNDE ERROLDAREN ARABERA (gizonezko kopurua)







**EGOERA GLOBALA 1917KO HAUTESKUNDE ERROLDAREN ARABERA  
(gizonezko kopurua)**




**EGOERA GLOBALA 1930EKO HAUTESKUNDE ERROLDAREN ARABERA  
(gizonezko kopurua)**



### ANALFABETISMOA LANBIDE BAKOITZEAN, 1917KO HAUTESKUNDE ERROLDAREN ARABERA (gizonezko kopurua)




### ANALFABETISMOA LANBIDE BAKOITZEAN, 1930EKO HAUTESKUNDE ERROLDAREN ARABERA (gizonezko kopurua)




**URDULIZKO NEKAZARIEN ALFABETATZEA, 1917KO ERROLDAREN ARABERA  
(gizonezko kopurua)**



**URDULIZKO NEKAZARIEN ALFABETATZEA, 1930EKO ERROLDAREN ARABERA  
(gizonezko kopurua)**



### HELDUEN ALFABETATZEAREN EGOERA URDULIZEN, 1917TIK 1930ERA BITARTEAN (gizonezko kopurua) <sup>935</sup>



Udalen ardura ziren eskoletako eraikinetako mantentze-lanak. Txarra zen, ostera, Bizkaiko landa eremuko udalen egoera ekonomikoa, bai gutxienez 2000 biztanle baino gutxiagoko herrietan: haien baliabideak urriak izaten ziren, kontsumoko produktuei aplikatzen zitzaizkien zergek etekin txikia ematen zutelako. Horren ondorioz, era berean murrizkak izaten ziren aurrekontuak. Horiek “(...) Lehen Hezkuntzaren beharrezkoak berdintzeko eta txarto ordaindutako enplegatuei ordaintzeko erabiltzen ziren ia-ia beren osoan”<sup>936</sup>.

1897ko uztaillean, Urdulizko alkate Juan Manuel de Zarragak Udaltzari jakinarazi zion “*Elizatean premia dagoela maisu-maistren gelak eta eskola publikoak bertan edukitzeko lain izango den eraikina zutitzeko*”. Horregatik, erabaki zen “(...) udaletxe zaharrea eta orainsu arte erabili izan den alondegian behar diren erreformak egitea, horretarako(...)”. Gaineratu zenez, komeni zen berritze lan horiekabenduaren 24rakoamaituta egotea<sup>937</sup>.

Badakigu berri nahi zen eraikina 1860an egindakoa zela, “*Udalaren diruekin*”,aldi berean eskolak eta udaletxea gerizatzeko<sup>938</sup>. Gainera, eraikin zaharrea udal taberna eta alondegia ere egon ziren. Eskola berrietarako obren txostenak 1897ko uztailaren 1eko data du eta bertan azaldu zen lehenagoko

935 1917an alfabetatu eta 1930ean analfabeto moduan agertzen diren 5 hautesleen azalpena akatsak izan daitezke Errolda egiteko orduan.

936 ARRIEN, 52-53.

937 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua. Bilkura arrunta 1897-6-13.

938 B.F.A.H., AR 00053/040. 1863an, Juan Manuel de Ansoleagak, Urdulizko orduko alkateak ziurtagiri bat eskatu zuen, bertan jasotzeko udal titulartasuneko eraikina Udalaren diruarekin eraiki zela 1860an, hala jasorik geratu zedin eraikina desamortizaziotik salbuesteko osaturiko espedientean.

urtean eraiki zela “(...) eraikin berri bat, udal alondegia eta hiltegia izatekoa (...) trenbidearen geltokiaren alboan”. Beste alde batetik, txosten horri esker dakigu “(...) gutxi gorabehera bost urte lehenago” Udaletxea Elizaren ondoan dagoen eraikinera eroan zutela (Inolaren egoitza, gaur egun) “(...) Idazkariaren gela barne”. José Bilbao Lopategui obra maisuak adierazi zuenez, behin Udaletxea eta alondegia tokiz aldatuta, Udaltzako erabaki zuen “(...) sexu bietarako eskolak eta maisu-maistrentzako gelak” eraikin zaharrean egokitzea<sup>939</sup>.

1897ko urriaren hasieran, alkateak “(...) aditzera eman zuen (obrak) gauzatzeko ezintasuna, Udalak horretarako baliabiderik ez edukitzeagatik(...)”. Ez zen arazo berria. Lehenagoko udalbatzek obra horiek egiteko beharra mahai gaineratu zutenean ere asmoak bertan behera geratu ziren diru faltaz, “(...) haien premia erabatekoa onartuagatik ere”. Zarragak adierazi zuen ezinezkoa zela “partiketa orokor bat, eraikinaren gastua berdintzeko”, horretarako argudiatuz nekazaritzaren krisia, Urdulizek bizi zuena, eta lehenago aitatu dugun kontua: “(...) udalerraren diru-sarrerara urriak, aurrekontu arruntean behin eta berriro defizita uzten dutenak”. Hartara, konponbide bakarra ikusi zen, “aparteko baliabideetara jotzea”. Horiek aurkitzeko batzorde berezi bat izendatu zen. Hainbesteko beharrezana ikusten zen ezen “(...) eraikitzen ez bazen, Udalak bere burua ikusiko baitzuen lehen irakaskuntza kentzeko premia triste eta deitoragarrian, hura emateko lekurik ezean”<sup>940</sup>.

Horretarako izendatutako batzordearen txostenak ondorio hau atera zuen: “(...) gaur egun eskola moduan erabiltzen diren lokalak hain egoera higieniko eta pedagogiko txarretan daudenez, oztopo dira irakaskuntzarako eta arrisku etengabea osasun publikorako (...)”. Eskola berriaren proiektuaren kostua finkatu zen, 8.697'95 pezeta, eta hura berdintzeko “(...) herri honetako herri-mendiak betiko besterentze onuragarri eta are beharrezkoari (...)” heldu zitzaion. Ahaleginak egin ziren salerosketa horrek kalterik ekarri ez ziezaien herritarren interesei, haientzako sekulako gorderik “aziendak bertan modu librean eta doan” bazkatzeko eskubidea. Kontu bat egiaztatu ostean hartu zen herri-mendien besterentzea proposatzeko erabakia: guztira, 1.895 pezeta pagatu ziren azken urteetan “eraikinak irakaskuntzarako alokatzeagatik”, hau da, urtean 180,50 pezeta batez beste. Bitarte berean, herri-mendiek 1.202 pezetako etekinak utzi zituzten, urtean 120,20 pezeta batez beste, beraz. Bestela esanda, “(...) herri-mendiek ez dute irakaskuntzako eraikinen alokairuak ordaintzeko adina ematen”. Mendi horiek 24 lotetan batu ziren eta enkante publikoan jarri zen haien errenta, hasierako prezioek, guztira, 9.760 pezeta egiten zutela<sup>941</sup>. Enkantean 14.377 pezeta eskuratu ziren, azkenik<sup>942</sup>. Obra kontratuaren eskritura publikoa Julián de Ansuategui notarioaren aurrean egin zen, 1897ko urriaren 18an<sup>943</sup>.

939 B.F.A.H. AR 00173/001, José Bilbao Lopategui obra maisuak prestaturiko txostena 1897-7-1.

940 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1897-10-3.

941 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua, Informe 1897-10-5.

942 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1898-1-9.

943 U.U.A. “Historikoa” 1. kaxa, Urdulizko Udaleko Erabakien Liburua 1907-1917, Udalerri honetako landa-finken eta hiri-finken zerrenda 1911-6-2.

Laburbilduz, 1897aren aurretik eskolak gerizatzen zituen eraikin zaharrak zenbait erabilera zituen batera: *“lehengo udaletxea”*, udal alondegia eta umeen eskola. Baina aitaturako obra txostenean esaten zen ez bezala, alondegia eginkizuna ez zen iraungi 1896an, Geltokiko alondegia eginda. 1897ko maiatzera arte luzatu zen, gutxienez. Data hartan, Udaltzako erabaki zuen Miguel Madariagaren etxea alokairuan hartzea, Elortzako errepideetako gurutzaren alboan, alondegia izan zedin. Harekin batera, ondoko landa ere alokatu zen, erromeria eta dantzaldietarako<sup>944</sup>.

Ez dakigu zelakoa zen 1897an eraitsitako eraikina, ezta zer leku hartzen zuen bertan eskolak. Hala ere uste dugu Barrikako Udaletxearen antzeko banaketa izan zezakeela: hiru gorputzeko eraikuntza, erdiko partea altuagoa zuena, udaletxe eta alondegitako; eta hegalak, baxuagoak, bat Mutikoen Eskolatako eta bestea Neskatxeren eskolatako. Irakaskuntzarako espazioa arin geratu zen txiki, izan ere ikasle guztiei lekua emateko *“ez-gai”* deklaratu zen. Haien kopurua, itxuraz, goraka zihoan, garai hartako eskola eroldarik ez badugu ere.

Obren likidazioan ikasita badakigu lehenagoko eraikinaren zati handi bat aprobetxatu zela. *“Armazoi zaharra”*, teilatua edo harlanduak aitatzen diren tokian, behintzat, *“jaregin eta berriro ipini”* esaldia agertzen da alboan. Beste alde batetik, eraikin berriak altuera handiagoa hartu zuen *“etxea goratzea”* aitatzen delako<sup>945</sup>. Erreformaren planoei esker ezagutzen dugu zelakoa izan zen obra haien ondoriozko eraikina. Solairu bi eta ganbara zeuzkan. Beheko solairuak ezkaratz bat zeukan erdian, eta saihesten bakoitzean eskolako areto bana, komun eta aldagela banarekin. Ezkaratzetik, eskaierak ziren goiko solairurako bidea. Bertan maisu-maistrentzako bi etxebizitzak zeuden, bizkiak, eta bakoitzaren barruan lau logela, sukaldea eta komuna<sup>946</sup>.

## 2.5.1.2 Hezkuntza Errepublikaren garaian

### 2.5.1.2.1 Landako eta Mendiondoko auzo-eskolen eraikuntza

XX. mendeko lehenengo hiru hamarkadetan, biztanleriak modu argian egin zuen gora Urdulizen: 1900ean 728 biztanle zituen<sup>947</sup> eta 1058, 1932an<sup>948</sup>. Horrek aldi berean ekarri zuen eskola adinean zegoen haur populazioaren gorakada. 1920aren erdialdean, 110 ikaslek osatzen zuten udalerriko eskola errola. Datu horrekin, orduko alkate Juan de Arambalzak, balitekeenez Aldundiak Urdulizen

944 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua, *Hitzarmen Proiektua 1897-5-14 eta Bilkura arrunta 1897-5-16*. Dokumentazioak aitatzen duen eraikina da Udaletxetzako erabilitakoa, gaur egungoa eraikita eraitsi zena.

945 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1890-1899ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1898-3-12

946 B.F.A.H. AR 00173/001 *Urdulizko Elizateko Udaletxean eta tabernan eskola publiko eta maisu-maistren bizileku bihurtzeko egin nahi den erreformaren planoa 1897-7-1*.

947 TURBE MACH, Ander: *Monografías de pueblos de Bizkaia. Gatika, Laukiz, Maruri y Urduliz*, Bilbo, Bizkaiko Foru Diputazioa, 1993, 115.

948 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Udaleko Estatistika Administratiboa*, 1932.

auzo-eskolak eraikitzea, deliberatu zuen Elizateko auzune bakar batek ere ez zuela eskolarik behar “(...) *baserriak banatuta daudelako*”. Era berean, Urdulizen irakasle gehiagorik ez zela behar iritzi zion, “(...) *sexu bietako ofizialekin nahikoa zegoelako*”<sup>949</sup>. Hamabi urte geroago, bestelakoa zen egoera. Eskola eroldaren gorakadaren ondorioz, txiki geratu zen Eskola Nazionalen eraikina, XIX. mendearen amaieran zutitu zena. Horrela jaso zen 1932ko abenduko *Udal Estatistika Administrazioan*. Hartan adierazten zenez, “*umeen eskola ez da hainbeste matrikula jasotzeko gauza*”, eta beharrezkoa ikusten zen eskola berriak egitea<sup>950</sup>.

Egoera gaiztotu zen hurrengo urtean. 180 neska eta mutil zeuden matrikulaturik, gehiegi. Santos Semper ikuskariak, orduan, maisuari agindu zion “(...) *ikasle gehiago ez hartzeko, eta inskribatutakoen kopurua murrizteko, gehienez ere hirurogeita hamarrera*”. Zalantza barik, Semperrek, neurri hori hartuta, galarazi nahi zuen ikasle kopuru handiegiak kalte egitea irakaskuntzaren kalitateari, baina neska pila-pila bat uzten zuen matrikulatu ahal izan barik. Horregatik, Urdulizko Lehen Irakaskuntzako Toki Kontseiluak bi eskola unitario eraikitzeko eskatu zion Udalari, bat neskentzat eta beste bat mutikoentzat<sup>951</sup>, “*dagoeneko guttiz ezinezkoa delako ume guztiak onartzea gaur egun dauden eskoletako lokal bietan (...)*”. Udalak, eskola berriak eraikitzeko dirurik ez bazeukan ere, bere gain hartu zuen Lehen Irakaskuntzako Toki Kontseiluaren eskaera, eta Udalbatzak baimena eman zion alkateari espediente bat irekitzeko<sup>952</sup>. Hartara, urriaren 21ean, Pedro Goirigolzarri udalburuak bi eskola unitario eraikitzeko eskatu zion Madrilgo Gobernuko Lehen Irakaskuntzako zuzendari orokorrari<sup>953</sup>.

Hala eta guztiz, Bizkaiko Foru Aldundiari auzo-eskola bi eraikitzeko eskariak eman zion konponbidea eskola nazionalen gehiago-ezinari. 1934aren hasieran, Goirigolzarri alkateak Udalbatzari jakinarazi zion Aldundiko lehendakariarekin egon zela, “(...) *herri honetan eta Dobaran auzunean auzo-eskola bat eraikitzeko baldintzen gainean berba egiten (...)*”. Auzuneen araberako eskola-erolda aurkeztu behar zenez, Udaleko idazkariaren ardurapean utzi zen, “*ahalik eta lasterren*” egin zezan<sup>954</sup>.

---

949 B.F.A.H. Irakaskuntza Publikoa, 1201. kaxa, 40. Esp., *Urdulizko Udalarari Gallano mozioaren ondorioz dagokion espedienteak. Urdulizko alkateak betetako galdetegia*, 1920.

950 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Udaleko Estatistika Administrazioa*, 1932.

951 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, “1. Hezkuntzako eskola” karpeta, 1. Hezkuntzako Tokiko Kontseiluaren Akta 1933-10-1.


952 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 14-10-1933.

953 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, “1. Hezkuntzako eskola” karpeta, *Alkatearen eskutitza Madrilgo Gobernuko Lehen Irakaskuntzako zuzendari orokorrari 1933-10-1*.

954 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-1-2.

Ekainean, eskola-errola amaituta zegoen. Datu argi eta argigarria zekarren, neska eta mutilen kopuru *“gehiagizkoa”*: zenbat eta 201. Nabarmentzen zenez, haietako asko *“neskatilen eta mutikoen eskolara etorri ezinik daude, ez dagoelako leku nahikoa(...)”*<sup>955</sup>. 60 baino gehiago ziren eskolaratu ahal ezin ziren umeak<sup>956</sup>.

### AUZUNEEN ARABERAKO ESKOLA-ERROLDA 1934 (Neska eta mutilen kopurua)<sup>957</sup>



Udalbatzak batzorde bat eratu zuen, Enrique Legarra alkate berriarekin, Luis Navarro idazkariarekin eta Cipriano Iturregui zinegotziarekin, eta haren eskutan utzi ziren Auzo-eskolen ikuskariarekiko kudeaketak, bi eskola misto eskatzeko<sup>958</sup>. Egun gutxi batzuk geroago, alkateak aditzera eman zuen ikuskariarekin izandako elkarrizketa onuragarria gertatu zela. Urdulizko Udalak *“(...) eskatu ahalko zituen auzo-eskola biak”*<sup>959</sup>.

Nahitaezko hurrengo urratsa izan zen eskola biak eraikitzeko lurra topatzea. Uztailaren amaieran, bi ikuskatzailek begiz aztertu zituzten aukeratutako lurrak, baita Udalari errekerimendu egin ere *“(...) horien jabe bihurtu bezain laster, (...) Aldundi txit gorenari abisua pasa ziezaion, (...) perituak bidaltzeko eskolak eraikitzeko lurra markatzeraz”*<sup>960</sup>. Hona zer lur aukeratu ziren, erosteko asmotan: *“Pedro Goirigolzarriren ondasun bat”*, Landan, eta *“(...) beste lur bat,*

955 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-6-23.

956 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, “1. Hezkuntzako eskola” karpeta, Urdulizko alkatearen eskutitza Bizkaiko Aldundiko lehendakariari 1934-7-13.

957 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, “1. Hezkuntzako eskola” karpeta, Eskola Errola 1934.

958 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 23-6-1934.

959 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 30-6-1934.

960 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-7-21.



*La Torrecillako markesaren ondorengoena, (...) Dobaran eta Mendiondo auzuneetan dagoena (...)*". Esan bezala, abuztuaren amaieran Aldundiari abisatu zitzaion<sup>961</sup>, eta eskola biak eraikitzeke eskaera formalki egin<sup>962</sup>.

Irailean gertatu zen, Gobernuaren aginduz, Udalaren kargugabetzea eta Batzorde Kudeatzaile batek ordezkatzeta, baina horrek ez zuen ezelan ere gerarazi aurreko Udalbatzak abiatutako proiektua. Izatez, irailaren 29an, Batzorde Kudeatzaileak "(...) erabaki zuen aurrera eroatea auzo-eskola bi eraikitzeke aurreko Udalak zeukan proiektua", baita Antonio Araluze arkitektoaren ardurapean utzi ere aurrekontua eta obren baldintzak eta zuzendaritza<sup>963</sup>. Esan beharra dago, auzo-eskola guztien eraikuntzak Aldundiak emandako arauari jarraitu behar zela. Landa giroko paisaian txertaturiko eraikinak ziren, euskal arkitektura erregionalaren printzipioei jarraituz egindakoak. Planoaz gain, "(...) eraikinen baldintzak eta, eraikinak dagoneko zutik egonez gero, bertan egin beharreko berrikuntzak" ziren Probintziako Gobernuaren ekarpena <sup>964</sup>.

Abenduaren hasieran, Udalbatza osoko bilkura berezian batzartu zen, presakoa iritzirik eskolak eraikitzeke proiektua osatzen zuten "planoak, aurrekontuak, baldintza fakultatibo eta ekonomikoak" onesteari. Baita Udalak horretarako erabakia hartu ere, hainbesteko presa zegoenez, eskola zaharren saturazioa zela-eta. Idazkariak ohartarazi zuenez, ostera, "legez kanpoko" zen erabaki hori, lehenago premiazkoa zelako "espedientea prestatzea eta behar adina baliabide edukitzea". Hartara, erabaki behar izan zen espedientea prestatzea eta Udalak falta zituen diruak bilatzea. Aurrekontuak 36.416,86 pezeta egiten zuen<sup>965</sup>.

Arestian esan badugu ere Udalak, Landako eskolarako, Pedro Goirigolzarriren lur bat aukeratua zuela, badirudi ideia hori baztertu egin zela. Torrecillako markesaren ondorengoek bi eskoletarako lurra eman zituzten doan, horra, itxura guztien arabera, aldaketa horren arrazoia<sup>966</sup>. Hala eta guztiz, erabaki horrek ez zuen gehiegi iraun, apur bat geroago, abenduaren erdialdean, aho batez erabaki zelako Landako eskola Goirigolzarriren lurretan eraikitzeke ideiarri berriro heltzea. Bigarren kokapen aldaketak ere izan zuen bere zergatia: lur hori "auzuneko gutxi gorabeherako erdigunean" zegoen eta "umeentzako segurtasun baldintza hobekak" zituen, "hasiera batean pentsatutako lekura joateko (Torrecillako markesaren lurra) derrigorrez igaro behar dutelako trenbiderako pasabidea, jagolerik ez zaintzarik ez duena, eta trenak, berriz, ikuspegi gutxi". Arriskugarria, beraz, neska-mutilentzat.

---

961 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, Akta Liburua 1931- 1937, Bilkura arrunta 1933-8-25.

962 U.U.A. "Historikoa", 1. kaxa, "1. Hezkuntzako eskola" karpeta, *Urdulizko alkatearen eskutitza Bizkaiko Aldundiko lehendakariari* 1934-8-1.

963 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1933-9-29.

964 ARRIEN, 149-151.

965 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura berezia 1934-12-10.

966 U.U.A. "Historikoa", 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura berezia 1934-12-10.

Gainera, kontu horrek kezka handia zekarkien auzuneko bizilagunei. Horregatik, batzorde bat bidali zuten Udaletxera, kontua azaltzearen. Lurren kostua 1100 pezetakoa zen, baina Goirigolzarrik %20 beheratu zuen zenbatekoa, “*herriaren mesede*”. Hartara, 880 pezeta izan zen azkeneko prezioa<sup>967</sup>.

Obrak 1935eko urtarrilaren 1ean adjudikatu zitzaizkion, behin betiko, Marcos Zubieta kontratistari, aurreko abenduaren 24an egindako enkantearen ostean<sup>968</sup>. Hilaren amaieran, Aldundiak baimendu zuen Landako eskolako lurraren aldaketa<sup>969</sup>. Hortaz, esateko moduan gaude lanak 1935eko urtarril-otsailaren bueltan hasi zirela.

Martxoaren amaieran, Udalak aho batez onartu zuen 36.416 pezetako mailegua kontratatzea Bizkaiko Aurrezki Kutxarekin. Baldintza ezarri zen 10 urteko epean bueltatzea, eta bermetzako ipini ziren kontsumoaren gaineko zergako diru-sarrerak. Horiek urteko bakoitza berdintzeko erabiliko ziren oso-osorik<sup>970</sup>.

Landako eskola eraikitzeko lanek arazo sorta bat ekarri zuten berekin. Horien konponbidea zelakoa, halakoa eraikinaren eta inguruaren amaierako itxura. 1935eko apirilean, Felipe Aslak, udal batzorde kudeatzaileko zinegotziak, bere udalkideei jakinarazi zien “(...) *iruditzen zitzaiola (eskola) sano baxu geratuko zela aurrealdetik, eraikuntzan darabiltzaten lurra Landako errepide adarraren azpi-azpitik geratzen delako (...)*”. Horregatik, Aslak proposatu zuen eraikina errepidearen mailara goratzea, betiere aldaketa horren kostua 4.000 pezeta baino gehiago ez bazen. Idazkariak ohartarazi zuen ezinezkoa zela aldaketa hori egitea, obren aurrekontua eginda zegoelako, baina zinegotzia, teman, proposatu zuen “(...) *hobekuntzaren aurrekontua egiteko (...) 1936ko ekitaldiaren kontura (...)*”. Aslaren proposamena bozkatu eta onetsi egin zen “(...) *bost boto alde eta alkate jauna aurka (...)*”<sup>971</sup>. Beste alde batetik, 1935eko uztailean erabaki zen “(...) *Landako auzo-eskolaren aurrean dagoen zuloa betetzea*”<sup>972</sup> Gaur egun, eskolako arkupean parean dagoen plazatxoa dago hor.

1935eko irailaren erdialdean lanak atzeraturik zebiltzan. Aldundiko Irakaskuntza Publikoak aditzera eman zuen ederto gaudituta zegoela eraikin biak eraikitzeko epea. Gainera, “*horiek gobernatu behar dituzten irakasleak izendatuta*” zeudenez, alkateari itaundu zioten noiz egongo ziren eskolak “*guztiz amaituta*” eta entregatzeko gertu<sup>973</sup>.

967 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-12-15.

968 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-1-1.

969 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-2-2.

970 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura berezia 1935-3-30.

971 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-4-12.

972 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-7-13.

973 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, “1. Hezkuntzako eskola” karpeta, *Irakaskuntza Publikoko buruaren komunikazioa 1935-9-13*.

Urrian, *El Liberalgo* korrespontsalak eskolen eraikuntza goraiatu zuen, baita bizilagunek proiektuan parte hartu izana ere. Hala eta guztiz, aldi berean gehitu zuen ezen “(...) berriak izanik, badirudi itxaropen guztiak bete dituztela, baina errealitatea ez da halakoa eta laster igarriko diegu horren ondorioei”. Kronikariaren iritzian, arazo nagusia eskolen kokalekua zen, batez ere Dobaran–Mendiondokoarena, Mendiondoko auzuneko umeak hartu behar zituena. Eskola berrira heltzeko, ikasleek behar zuten “mendiz mendi etorri, Santa Marinako mendi-multzoan zehar” (badirudi Mendiondo aldeko mendien gainean dabilela berbetan, Santa Marinako lerroaren jarraipen); berriz, Dobarango umeak, nagusiki, “(...) ez dira bertara joango, mota bereko beste bat gertuago daukatelako”. Erraskondoko eskola, inondik ere, Laukizen<sup>974</sup>.

*Txiberrik Euzkadiko* orrietan jakinarazi zuen eskola berriak 1935eko azaroaren 11n hasi zirela<sup>975</sup>. Data hori berresten dute Plentziako alkateak 1937ko irailaren hasieran María Luisa Leivar maistrari buruz egindako txostenean aurkitzen ditugun datuek. Hartan adierazten da Landako eskolako irakasleak Plentzian ezarri zuela bere bizitegia “*Mugimendu Nazional loriotsua baino (...) zortzi bat hilabete*” lehenago, hau da, Gerra Zibila hasi baino zortzi hilabete lehenago<sup>976</sup>.

Funtzionatzen hasita ere, badakigu eraikinak ez zeudela guztiz egokiturik. Esate baterako, 1935eko azaroaren 26an, Udalak erabaki zuen ipintzea Aldundiak eskoletarako bidalitako berogailuak<sup>977</sup>. Egun gutxi batzuk geroago, Aldundiko Irakaskuntza Publikotik eskutitza bidali zioten Urdulizko Udalarari “*Landako eskola irekitzean*” igarritako akatsen gainean: egin barik zegoen “(...) eraikinaren eta bere eranskinen garbiketa osoa, baita komunena ere; hauei, gainera, dagozkien giltzak falta zaizkie (...)”. Bestalde, ipini barik zeuden “(...) modu egokian bidalitako berogailua eta bere hodiak (...)”. Irakaskuntza Publikoak aditzera eman zuen halako baldintzetan ezinezkoa zela “(...) Eskolaren funtzionamendua”, eta agindu zuen akats horiek berbertatik zuzentzeko<sup>978</sup>. Abenduaren amaieran, Udalak erazkoa iritzi zion “(...) auzo-eskola biek hartzen zuten lurra ixtea, umeek alboko ortuetan kalterik ez egiteko, izan ere horren kexaz zebiltzan haien jabeak (...)”<sup>979</sup>. Auzo-eskola biak jasotzeko akta 1936ko maiatzaren 22ra arte ez zen izenpetu, Araluze arkitektoak 1935eko irailean eskoletara egindako bisitan aurkitu zituen akatsak zuzendu ostean<sup>980</sup>.

---

974 *El Liberal* 1935-10-1.

975 *Euzkadi* 1935-12-6: IKASTOLA BARIJA. *Igaro dan ilaren amaikan asi dira ikastaria emoten auzo-ikastola barijetan, Tira, ba, pozik egoteko da.*

976 A.G.A. 32/13039, Exp. 45, *María Luisa Leivar Olanoren depurazio espedientea, Plentziako alkatearen txostena* 1937-9-3.

977 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-11-26.

978 B.F.A.H. Hezkuntza eta Kultura. Irakaskuntza Publikoa. Auzo-eskolak, 25. kaxa, *Urduliz, Landan auzo-eskola bat sortzea, Irakaskuntza Publikoko buruaren komunikazioa Urdulizko alkateari* 1935-11-29.

979 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-12-31.

980 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, Carpeta “1. Irakaskuntza Eskolak”: *Eskolen behin-betiko harreraren aktak* 1936-5-22 eta *Obren likidazio orokorra* 1935-9-30.

Udalaren kontuak era txarrean geratu ziren, eskola bien eraikuntzak hain diru ahalegin itzelera behartuta. Berbarako, udal albaitariak soldata egoera eskatu zuenean 1935eko abenduan, Udalak ezezkoa eman zion “(...) *udalbatza krisi ekonomiko latza pasatzen dabilelako*”<sup>981</sup>. Zenbait hilabete lehenago, abuztuan, mailegua ordaintzeak zekarren karga arintzearen, erabaki zen geltokiko etxealondegia salgai jartzea, “*sano garestia*” eta “*premia bakoa*” izateagatik, Elortzan beste bat zegoenez<sup>982</sup>.

Hain zuzen ere, Udalaren egoera ekonomiko gaitzokak Landako eskolako lurrak doan ematera bultzatu zituen Pedro Goirigolzarri zinegotzi berriro ipinitakoa eta bere emazte Juana Zarraga, 1936ko martxoan. Senar-emazteek erabaki hori hartu zuten “(...) *ikusita Udalak zer sakrifizio (...) eta ahalegin itzela egin duen (...) bere baliabideak urriak izan arren*”, kontuan harturik, gainera, “(...) *lehen irakaskuntza zer garrantzitsua den eskolarako adinean dauden umeentzako, goragoko ikasketetan jarraitzeko oinarria izanda(...)*”<sup>983</sup>.

#### 2.5.1.2.2 Eskola Nazional berriak eraikitzekeo proiektua

Auzo-eskolen eraikuntzak eskola adinean zeuden neska eta mutilentzako leku nahikoa ekarri zion udalerrinari, baina Eskola Nazionalaletako eraikin zaharra ez zegoen egoera onenean osasungarritasunari dagokionez. Arazoa ez zen berria: 1928an, Julián Llona alkateak, eskolak bisitatu zituenean, topatu zuen “(...) *mutikoen zein nesken komunak oso baldintza txarretan zeudela eta konponketaren bat behar zutela*”<sup>984</sup>. 1932an, arazoa, konpondu barik, okerragora zihoan. Udal Estatistikak jaso zuenez, Eskolak ez zeukan edateko urik eta horregatik “(...) *ez dira komunak erabiltzen*”<sup>985</sup>. Kontuak aldaketa barik jarraitu zuenez, 1935eko abenduan, Eskola Nazionalaletako ikuskariak errekerimendu egin zion udalari “(...) *eskoletan konponketa lanak egin (...)*” zitzan<sup>986</sup>. Obren helburua zen, noski, eraikina edateko urez “(...) *eta behar bezalako osasungarritasun baldintzez*” behin betiko hornitzea. Lanak Luis Bilbao kontratistaren esku utzi ziren<sup>987</sup>, eta 1936ko urtarriaren amaieran Udalak baimena eskatu zion Aldundiari “(...) *errepidea irekitzeko, Eskola Nazionala urez hornitu beharrez*”<sup>988</sup>.

981 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-12-14

982 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-8-28 Geltokiko Alondegia da gaur egungo “*Bar La estación*”en eraikina.

983 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-3-29.

984 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922-1930ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1928-8-11

985 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Udaleko Estatistika Administratiboa* 1932.

986 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-12-14.

987 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-12-31.

988 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-1-25.

Zenbait orri lehenago azaldu dugunez, 1936ko otsaileko Gorteetarako hauteskundeetan Fronte Popularra garaile irten ondoren, Gobernuak bere karguak itzuli zizkien 1934ko irailean kargugabetutako zinegotziei. Legarraren lehendakaritzapean, lanean atzera ere hasitako Udaltzako berretsi zuen udal batzorde kudeatzaileak obrak egiteko hartutako erabakia<sup>989</sup>.

Martxoaren erdialdean, ostera, obrak bertan behera geratu ziren alkateak jakinarazi ostean “(...) *ikasi berria zuela Estatuak hogeita hamar mila pezetako diru-laguntza ematen zuela Eskola Nazional berrien eraikuntzarako*”. Diru-laguntza horren gainean informazio jaso guran, erabaki zen 1934ko ekainaren 15eko *La Gaceta de Madrid* erostea, eta, gainera, alkateak eta idazkariak batzorde bat eratu zuten Eskola Nazionalaren ikuskariarekin batzartzeko<sup>990</sup>.

Apirilaren 2ko osoko bilkurak zoriarekin diru-laguntza eta paralizatutako obrak baino ez zituen eduki esku artean, “*zenbateko handia*” ordaintzera behartzen baitzuten. Kontu horretaz aparte, “*aldian behin eraikinaren kontserbazioari (...)*” heldu behar zitzaion eta hori ere “*karga handia zen*” Udaltzarentzat. Goirigolzarri alkate ohiaren iritziz, “*lehenbailehen*” ekin behar zitzaion eraikin berria zutitzeari, oraingoa baldintza txarretan zegoelako osasungarritasunari dagokionez, eta harentzako mantentze lanak “*gastu etengabea*” zekarrelako. Beste alderdi txar bat eskolaren kokalekua zen, “*herriaren mutur batean*”. Horregatik, erdiguneagoko leku baten bila abiatu ziren eskola berria eraikitzeko. Benito Otazua zinegotziak proposatu zuen Elortzako auzoa, egokiagoa zelakoan<sup>991</sup>.

Diru-laguntzaren dirua osatzeko, eskola zaharraren eraikinaren salmenta proposatu zuen, behin berria eraikita egonda edo hura altxatze bidean zegoenean. Lurra bilatzea eta Antonio Araluze obra zuzendari izendatzea izan ziren Udaltzaren beste erabakiak.<sup>992</sup>

Laburra izan zen proiektu horren bizitza, apur bat geroago piztu zelako Gerra Zibila. Urdulizen gatazkak utzitako atzean artean Eskola Nazionalaren eraikinaren suntsiketa izan zen, 1937an. Gerra amaituta, arazo handi bat utzi zuen horrek.

### 2.5.1.2.3 *Irakaskuntzaren ezaugarriak*

Foru aldundiek Moyanoren 1857ko legearen aurka sartutako eskabidean iragarri zuten legeaz, udalaren maisu-maistrak izendatzeko zuten eskubidearen ezabaketaren ondorioetako bat izan zen kargu horiek Euskal Herritik kanpoko jende erdaldunek hartzea. Halaxe jazo zen Bigarren Errepublikaren garaian mutikoen eskola Nazionalak eduki zituen bi maisuekin: Teodoro Primo López Casado, Urueñakoa (Valladolid) eta Andrés Martín Pérez, madrildarra.

---

989 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-2-29.

990 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-3-17.

991 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-4-2.

992 *Ibid.*

López Casado 1924aren amaieran heldu zen Urdulizera, mutikoen eskolako maisuaren postuaz jabetzera, Ignacio Sánchezen kargu-uztearen ostean, urte bereko abuztuaren amaieran. *Pilipek*, *Euzkadiko* orduko korrespontsalak ez zion bidai onik opa izan Sánchezi: “*Soria’ra bialdu dabe erri onetan euki dogun irakasle (maixu) españatarra. Asko da, ba, ezta izango obea etortekua*”<sup>993</sup>. Maisu berria izendatu bitartean, Serafín Sagarna abade nagusiak eta Pedro Larreak eman zituzten eskolak<sup>994</sup>. Teodoro Primo López Casado 1934ra arte ibili zen Urdulizen maisu<sup>995</sup>. Urte hartan lekualdatu zuten Barakaldora, delako Andrés Martín bere ordeztu. Ez dakigu López Casadok euskararik batere ikasi zuen, beharrezkoa izan arren kontuan harturik Urduliz udalerrri euskalduna zela<sup>996</sup>. Euskal Herritik kanpoko maistra eta maisuen arteak ez dakigu zenbatek ikasi zuten euskaraz, gutxi edo nahikoa, bertako hizkuntza ez jakiteak zekarren zailtasunaz jabetuta landa-giroko ikasle euskaldun ia-ia erabatekoekin komunikatzeko orduan. Esate baterako, *Euzkadi* egunkariak 1935ean argitaratu zuen Lemoizko maisu berriaren etorreraren berria: Manuel Reverte. Egunkari abertzalea pozik agertu zen, “(...) *Reverte jauna gure jatorrizko hizkuntzaz interesaturik dagoelako, eta maitasun handiz ikasteko asmoa duelako, bere zeregin pedagogiko sakratua errazago egin ahal izateko*”<sup>997</sup>.

Desberdina zen auzo-eskoletako egoera euskaraz den bezainbatean. Eskolak bi kategoriatan banantzen ziren, A eta B. A kategoriako eskoletan, maisuak euskara erabiltzen zuen “(...) *irakasteko bitarteko edo bide baten moduan, erdararik ez zekiten ikasleekin erabiltzekoa*”<sup>998</sup>. A motako eskoletan maistra edo maisu lanpostua lortzeko, izangaiei azterketa bat pasaratzen zitzairen euskaraz zekitelako frogatzeko. Gainditu ezean, B kategoriara igarotzen ziren. Gregorio Arriek dioenez, “(...) *eskoletako postu berriak bizkaitarrentzat gordetzen ziren*”, baina, bat edo bat bete barik geratzen bazen, Gipuzkoa, Arabako eta Nafarroako maistra eta maisuek bete zitzaizkieten. Horren ostean, bete bako posturik geratuz gero, bidea zabalik zeukaten Estatuko beste tokietako hezkuntzako profesionalak. Horiek, gehienetan, B motako eskoletako postuak eskuratzen zituzten, bertako komunikazio-hizkuntza gaztelania zelako. Berriz, A kategoria eskoletan, eremu euskaldunetan baitzeuden, izangaiak bizkaitarrak edo gipuzkoarrak baino ez ziren, jatorriz, “*izangai nafarren batzuk gehituta*”<sup>999</sup>. Pentsatzekoa da Urdulizko auzo-eskolak A kategoriagoak zirela, elizateko hizkuntza egoera kontuan hartuta. Eskola moduan, 1935etik 1937ra bitarte baino ez zuten funtzionatu, harik eta gerraren gorabeherek eskolak bertan behera uztera behartu zuten arte. Ostera ere hasi zirenean, Diktadurak euskara erauzi zuen ikasgeletatik.

993 *Euzkadi* 1923-9-13.

994 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Akta Liburua 1922- 1930, Bilkura arrunta 1923-9-9.

995 *El Liberal* 1934-10-23. Lehen Irakaskuntzako Probintziako Kontseiluak iragarki bat argitaratu zuen eta bertan Urdulizko eskola agertzen zen “Maisu-maistrentzako postu hutsen” zerrendan.

996 Luis Trebolazabalaren lekukotasuna (2013-6-21): “*Eskolak erdaraz ziren maisuek ez zekitelako*”

997 *Euzkadi* 1935-4-9.

998 ARRIEN, 161.

999 *Ibid.* 184-186.

Eskola Nazionalean komunikazio-hizkuntza bakarra gaztelania izateak traba handiak ekarri zizkien nagusiki euskaldunak ziren ikasleei, irakasgaien ikaskuntza oztopatzen zuelako. Eusebia Felisa Ascoberetak, Urdulizko Neskatiilen Eskola Nazionaleko maistrak alde horretara jo zuen, 1937an, Manuel Uribek, Diktadurako lehenengo alkateak, egin zituen salaketetatik defendatzeko orduan, maistra txarra zela esan zuelako emakumearen gainean. Ascoberetak argudiatu zuen ezen, bere irakasle lanean, “(...) *hizkuntzaren zailtasunagatik, horrexegatik ez dira emaitzak guztiz asebetetzekoak izan*”<sup>1000</sup>. Gaitza da jakitea maistra zertaz ziharduen, bakar-bakarrik gaztelania hutsezko ikaskuntzak ikasleei zekarkien trabaz, edo horri gehitu behar ote zaion euskararen ezagutza falta Ascoberetaren aldetik, jatorriz baztandarra izan arren, Berroetakoa (Nafarroa), euskaraz egiten den toki batekoa, beraz. Modu guztietan ere, ikasle urduliztarren kopuru zehaztu bako batek eskolaz kanpoko eskoletara jo behar izaten zuten gaztelaniaz ikasteko, José Antonio Bilbaok kontatu zuen legez: “*Ikastetxean dena erdaraz zen, gehienek euskara baino ez zekiten. Ikastetxean hasi nintzenean zer edo zer banekien, baina txarto berba egiten nuen. Ikastetxera joan ostean, gramatikazko eskola partikularrak neuzkan, gaztelaniaz ikasteko*”<sup>1001</sup>.

Esanda dagoen legez, A kategoriako auzo-eskoletan euskara zen komunikazio-hizkuntza, horixe zen, hortaz, Urduliz lako udalerrri batean. Ikuskaritzak auzo-eskoletara egindako bisitaldiei esker, badakigu zein zen matrikulaturiko eskolaumeen egoera akademikoa eskolak hartzen hasi zirenean, baita zer bilakaera izan zuten ere. Bisita horietako lehenengoa 1935eko abenduaren erdialdean egin zen, eskola biek aste gutxi batzuk baino ez zeroztatela. Txostenetan agertzen den ikuspegia penagarria da. Mendiondoko Eskolan azterketa egin zitzaian “(...) *ikasleen ezagutza neurtzeko*”, eta ondorioa izan zen ezen, “(...) *lehenago Mentxakaetako auzo-eskolara joandako batzuk kenduta*”, gainontzekoak “(...) *sano atzeratuta*” zeudela. Horrez gain, matrikulatuta zeuden hogeita hemezortzi ikaslelik hamazazpi “(...) *eskolara inoiz agertu barik zeuden*”<sup>1002</sup>. Landako eskolan ere ikuskatzaileari iruditu zitzaion “*ikasle guztiak (...) ikaskuntza egoera negargarrian*” zeudela; horrek “*oraingoz, behartzen gaitu eskola programako prestakuntza maila baino ez garatzera*”<sup>1003</sup>. Egoerari tamaina hartu ahal zaio datu hau jakinda: eskolatze adinean zeuden ikasle guztiak –5 urtetik 14ra bitarte, aurrerago azalduko dugun legez– lehen graduan hasita zeuden, Prestakuntza mailan alegia, 5 urtetik 7ra bitarteko ikasleentzako pentsatutako maila baten, beraz.

---

1000 ARCHIVO GENERAL DE LA ADMINISTRACIÓN (A.G.A.) 32/13607, *Eusebia Felisa Ascobereta Astivia maistraren depurazio espedientea*.

1001 José Antonio Bilbaoren ahozko lekukotasuna (2013-9-9)

1002 B.F.A.H. Hezkuntza eta Kultura. Irakaskuntza Publikoa. Auzo-eskolak, 25. kaxa, Urduliz, *Auzo-eskola baten sorrera Mendiondon, 1935eko abenduaren 20an egindako ikustaldiaren txostena* 1936-1-11.

1003 *Ibíd.* *Auzo-eskola baten sorrera Landan, 1935eko abenduaren 20an egindako ikustaldiaren txostena* 1936-1-11.

Hurrengo bisitaldia 1936ko otsailaren amaieran egin zen. Mendiondoko Eskolari buruz horren atzetik etorri zen txostenak asistentzia faltak hartu zituen begipean, geroago jorratuko dugun kontua. Beste alde batetik, ikuskatzaileak “zailtzat” hartu zuen maistrak egin beharreko lana, “(...) umeen ezagutzak sano urriak” zirelako<sup>1004</sup>. Askoz ere baikorragoa zen M<sup>a</sup> Pilar Arana ikuskatzaileak Landako eskola bisitatuta egin zuen txostena. Hartan adierazten zen ezen, eskolak “(...) *apur bat berandu hasi arren, ordura arte eskolara joan bako ume guztiek*” irakurtzen zutela “(...) 1. *Irakurketa Liburua*”, idazten zituztela “(...) *zenbakiak, milakoak bitarte*”, egiten zituztela batuketak eta idazten zituztela “*kopiak*”. Urtarrilean hasitako ikasleak ere “*sano aurreratuta*” zihoazen eta “(...) *Oinarrizko mailakoak, oraingo ikasturtera arte Eskola Nazionalera zihoazenak (...) asko aurreratzen zebiltzan*”. Ikuskariak ondorioztatu zuen “(...) *ume hauek egiten dituzten ariketetan sumatzen den aldaketak erakusten duela zenbat lan egiten dabilen Leivar andereñoa*”<sup>1005</sup>.

Lehenago esan den legez, eskolatzeko adin tartea 5 urtetik 14ra bitartekoa zen, lau gradutan banatuta: Prestakuntza, dagoeneko aitatu dena (5-7 urte), Oinarrizkoa (8-10 urte), Erdikoa (11-12 urte) eta Goikoa (13-14 urte). Eskolen funtzionamenduari dagokionez, egunean 6 orduko klaseak ematen ziren, baina haien banaketa aldakorra zen urtaroen arabera: udazkenean eta neguan, ordutegia jarraitua zen, goizeko zortzi eta erdietatik arratsaldeko lau eta erdiak arte; udaberrian eta udan, berriz, ordutegia zatitua zen, goizeko zortzietatik hamaikak arte eta arratsaldeko ordu bi eta erdietatik bost eta erdiak arte. Oporrei dagokienez, Bigarren Errepublikaren etorrerarekin batera Aste Santukoak desagertu ziren, beste jaiegun batzuez gainera. Udako oporrak uztailaren 16an hasi eta irailaren 15ean amaitzen ziren, eta negukoak, berriz, abenduaren 23an eta urtarrilaren 1ean, hurrenez hurren. Igande guztiak jaiegun ziren, eta berdin beste jai nazional batzuk: otsailaren 11, apirilaren 14a, maiatzaren 1a eta urriaren 12a. Azkenik, eskola bakoitzak bere esku zuen herriko hiru jaiegun noiz hartu<sup>1006</sup>. Eskola Nazionalen ordutegiak eta egutegia ez ziren oso desberdinak izango.

Orain baino lehentxeago nabarmendu dugu zer arazo handia zekarren ikasle askok eskolara egiten zuten agerpen jarraitu bakoak, batez ere, txikiek ere parte hartzen zutelako baserriko zereginetan. Egoera horren aurka, ikasleen asistentzia sustatu guran, Urdulizko Udalak, gutxienez 1934ra arte, eskudirua uzten zuen urtero Eskola Nazionalerako maisu-maistren eskutan, “*euren asistentziagatik nabarmentzen diren umeak saritzeko*”. 1930etik 1932ra, 50 pezeta egiten zuen zenbateko horrek. 1933az geroztik, 100 pezetara igo zen<sup>1007</sup>. 1934an topatu dugu sari horien azken aipamena<sup>1008</sup>. Ez dakigu sari horiek zenbateraino gertatu ziren

1004 *Ibíd. Auzo-eskola baten sorrera Mendiondon, 1936ko otsailaren 26an egindako ikustaldiaren txostena* 1936-3-4.

1005 *Ibíd. Auzo-eskola baten sorrera Landan, 1936ko otsailaren 26an egindako ikustaldiaren txostena* 1936-3-4.

1006 ARRIEN, 160.

1007 B.F.A.H. URDULIZ 0037/004, gastu eta diru-sarreraren liburua 1930-1934.

1008 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1934-7-7.



eraginkor, baina Landako eta Mendiondoko auzo-eskoletako maistrek 1936an deskribatu zuten egoerak pentsarazten du ez zela arrakasta bete-betuekoa izan Udalak Eskola Nazionalari aplikatu zion neurria.

1936ko urtarrilaren erdialdean, Landako eskolako maistra María Luisa Leivarrek, eskolako asistentzian gertatzen ziren “(...) falta sarriak eta arrazoi bakoak” ikusirik, Aldundiko Ikaskuntzako buruari eskatu zion “(...) isun sistema bat” ezarri zezan, “gehienez ere egunean 0’50 pezetakoa”. Gainera, Irakaskuntza Batzordeari erregutu zion Udalari adierazi ziezaion “(...) asistentzia ohiko baten premia, irakaskuntzak arrakasta izateko”<sup>1009</sup>. Geroxeago, Aldundiko Irakaskuntza Publikoko Ponentziak maistrari eman zion segitu beharreko prozeduraren berri “(...) ikasleak eskolara joatea bultzatzeko”, isunak ipintzen hasi baino lehen:

*“(...) requerimiento a los padres para que envíen a sus hijos a la escuela, previa consignación en las hojas de asistencia del nombre de los que cometan faltas abusivas; caso de que este procedimiento no alcance la eficacia apetecida, requerimiento a la Alcaldía para que imponga las multas prescriptas por la ley a los infractores, con conminación de acudir al Excmo. Sr. Gobernador de la Provincia, caso de que no lo hicieran”<sup>1010</sup>.*

Otsailaren amaieran, Mendiondoko Eskolan egindako ikuskapenak egiaztatu zuen “asistentzia txarra” zela. “(...) Zenbait arrazoi” zeuden horretarako, txostenaren ardurua zuen ikuskatzailearen ikusmoldean. Ikasle batzuk “(...) ohiko huts-egileak” zirenez, gomendio egin zuen “(...) kasu horien berri emateko Irakaskuntza Publikoko Zerbitzuari, zuzenbidea eman diezaien”. Hala eta guztiz ere, beste arrazoi batzuk eman ziren ikustaldi horretan bistaratu zen huts-egite maila handia zurrizteko: “(...) ume batzuk gaixorik daude, kukurruku-eztulak jota”, eta beste batzuek “(...) uste izan dute klaserik ez zegoela, Eskola Nazionalean oporretan zeudelako”<sup>1011</sup>.

---

1009 B.F.A.H. Educación eta Cultura. Irakaskuntza Publikoa. Auzo-eskolak, 25. kaxa, Urduliz, Auzo-eskola baten sorrera Landan, María Luisa Leivar maistraren komunikazioa Bizkaiko Aldundiko Irakaskuntza Ikuskaritzako buruari 1936-1-17

1010 Ibíd. Irakaskuntza Publikoaren Ponentziaren Erabakia 1936-1-24, eta Irakaskuntza Publikoaren Ponentziaren komunikazioa landako auzo-eskolako maistrari 1936-2-4.

1011 Ibíd. 1936ko otsailaren 26an egindako ikustaldiaren txostena 1936-3-4.

Geroxeago, martxoaren amaieran, Mendiondoko Eskolako maistra Teresa Gangoitik idatzi bat bidali zion Aldundiko Irakaskuntzako ikuskari buruari, eskolako asistentzia faltaren arazoaz eta haren ondorioez. Honela kexatzen zen horregatik:

*“Tengo el honor de poner en su conocimiento, que a esta Escuela acuden niños, cuyos padres nose (sic) dan cuenta del valor que tiene el mandar a sus hijos todos los días a la Escuela y por lo tanto hay muchas faltas de asistencia, les he advertido varias veces sin conseguir resultado alguno y de seguir de esta manera, nose (sic) puede obtener el fruto que se debe en la enseñanza, como prueba de ello tengo, de los niños que no habían asistido a ninguna Escuela, algunos leyendo claro está, que todavía puede decirse silabeando y en cambio, otros sin conocer las letras”<sup>1012</sup>.*

Gangoitik azaldutako egoerak bultzatuta, hona zer eskatu zion Irakaskuntza Publikoko Zerbitzuak maistrari: zerrenda bat eta bertan “(...) *Eskola honetara behin eta berriro huts egiteagatik bertan egiten duzun lana oztopatzen dizuten ikasleen izenak, eta haien gurasoena ere bai*”<sup>1013</sup>. Ez dakigu neurri horrek eraginik izan ote zuen, baina, egiari egia zor, 1937ko otsailean, gerra gorrian egonda ere, ontzat jo izan zen ikastetxe honetako asistentzia<sup>1014</sup>.

Orokorrean, baserri askotatik ikastetxeetara zegoen distantzia zen asistentzia txarraren eragileetariko bat. Arazo hori konpontzearen, eskola-kantinak sortu ziren auzo-eskoletan, “*Aldundiak sortu zituen antolakuntza berezietako bat, sano emaitza onak eman zituena*”. Haien eginkizun nagusia zen eskolak hornitzea etxeetatik urrun zeuden umeek jateko toki batez, atari zabalean egon barik<sup>1015</sup>. Kantinak beren helburua lortzeko premia guztiaz zeuden horniturik, Urdulizko ikastetxeetan 1937an egindako inbentariotik ondorioztatzen denez. Mendiondoko eskolak zeuzkan mahai-tresnak, zartaginak, katiluak, edalontziak, kazola bat, lapiko bat eta bitsadera bat, eta gainera, mantala, mahai-zapiak, eskuoihalak eta trapuak<sup>1016</sup>. Mendiondoko Eskolan, kantina ipini zen “(...) *hamabi bat umek erabili zezaten*” eta horren premiak Teresa Gangoiti maistra bultzatu zuen behar zen tresneria guztia eskatzera, 1935eko abenduaren hasieran<sup>1017</sup>. Hil horren amaieran, Aldundiko Irakaskuntza Publikoaren Ponentziak baimendu zuen Gangoitik eskatutako materialaren erosketa, “(...) *kantinen ezarpena*

1012 B.F.A.H. Hezkuntza eta Kultura. Irakaskuntza Publikoa. Auzo-eskolak, 25. kaxa, Urduliz, *Auzo-eskola baten sorrera Mendiondon, Teresa Gangoiti maistraren komunikazioa Bizkaiko Aldundiko Irakaskuntza Ikuskaritzako buruari 1936-3-25*.

1013 *Ibid.* Irakaskuntza Publikoko Zerbitzuko buruaren komunikazioa Mendiondoko auzo-eskolako maistrari 1937-3-30.

1014 *Ibid.* Mendiondoko auzo-eskolan 1937ko otsailaren 1ean egindako ikustaldiaren txostena 1937-2-2.

1015 ARRIEN, 179-180.

1016 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, Eskolei buruzko txostena 1937-8-20.

1017 B.F.A.H. Irakaskuntza Publikoa, 1082. kaxa, 17. esp., *Kantina baten sorrera Mendiondoko auzo-eskolan (Urduliz). Teresa Gangoitiren komunikazioa Bizkaiko Aldundiko Irakaskuntza Ikuskaritzako buruari 1935-12-4*.

*derrigorrezkoa delako Eskolak horren premian dauden momentutik(...)*<sup>1018</sup>. Hala eta guztiz, tresnen heldukera 1936ko otsailaren 18a arte berandutu zen<sup>1019</sup>. Azkenik, beste kontu bat aitatu beharra dago: kantinen helburua, ikasleei jateko toki bat eskaini ez ezik, espazio hori erabiltzea ere bazen neska ikasleei etxeko lanetan irakasteko. Ez da, beraz, harritzekoa 1937ko inbentarioan “*plantxa bi, plantxarako erreburdina bat eta plantxarako manta bat*” agertzea<sup>1020</sup>.

Zer ikasliburu erabiltzen ziren, Gregorio Arrienek dio “*titulu eta egile ugari*” zeudela, hainbestearaino bai baitzirudien “*hiriko eskola graduatu batzuetarako hornidura, landa-eskola xume batzuetarakoa baino*”<sup>1021</sup>. Dobarango eskolako inbentarioak aukera ematen digu erabiltzen ziren liburuen izenburuak jakiteko, erabiltzen zen gainontzeko ikasmaterialaz gain. Besteak beste, honelako aleak aurkitzen ditugu: “*Geografía Atlas*”, Bruñorena, Erdiko Gradurako; “*Geografía de Vizcaya*”, Pedro Zubiarena; “*Lecturas de Oro*”, Ezequiel Solanarena, edo “*Joyas Literarias*” eta “*Ideas y ejemplos*”, Martí Alperarena<sup>1022</sup>.

Lehen Ikasketak amaituta, ikasle gutxi heltzen ziren Goiko Ikasketetara. Kontuan hartu behar da, gehienek “*(...) nekazari lanak edo langileen lanbideak zeuzkatela bizi helburu*”<sup>1023</sup>. Esanda dagoen legez, Urdulizen, Bigarren Errepublikaren garaian, baserriko lanetan ibiltzen ziren biztanle gehienak. Hala ere, itsasoaren gertutasunak mundu hori aukeratzera bultzatzen zituen urduliztar batzuk. Plentziako auzo hiriak Nautikako Eskola zeukan, azken Karlistadatik 1894 arte jardun barik egon zena; urte hartan, ostera, berriz ere ireki zen, harik eta 1934an ateak behin betiko itxi zituen arte. XX. mendeko aldiaren finkatuta, Plentziako, Gorkizko, Barrikako, Urdulizko, Lemoizko eta Sopelako udalek “*laguntza jarraitua*” eman zioten “*Eskolaren sostenguari*”. Horren emaitza izan zen zazpi beken sorrera, 1916an, “*erabateko doakotasunerako*”. Bi Plentziari zegozkion, beste bat Gorkizi eta beste bat “*hurrenez hurreneko urtekoetan, Urdulizi, Barrikari, Sopelari eta Lemoizi*”. Elkaturiko herrietako ikasleentzat, irakasgai bat edo biren prezioa 25 pezeta zen, eta 37 pezeta, berriz, bi irakasgai baino gehiagorena. 1924an, Primo de Riverak “*estatuko zenbait ikastetxetara mugatu zuen ikaskuntza hauen ofizialtasuna*”. Horrek Plentziako Eskola bultzatu zuen “*izaera ez-ofizial inkorporatu*” moduan jarraitzera. Horretarako, berriro ere sortu zen “*Nautika Eskolako Patronatua*”, 10 urteko konpromisoa ezarriz aitatu diren udalen aldetik. Patronatu honek diru-sarrerara moduan jasotzen zituen Foru

---

1018 B.F.A.H. Irakaskuntza Publikoa, 1082. kaxa, 17. esp., *Kantina baten sorrera Mendiondoko auzo-eskolan (Urduliz). Irakaskuntza Publikoaren Ponentziaren txostena (1935-12-28)*, Aldundiko Batzorde Kudeatzailearen erabakiaren 1936-1-17ko zigilua duena.

1019 B.F.A.H. Irakaskuntza Publikoa, 1082. kaxa, 17. esp., *Kantina baten sorrera Mendiondoko auzo-eskolan (Urduliz). Irakaskuntzako materialaren eskaria*. Bertan agertzen da eskatutako materiala zer egunetan jaso zuen: 1936-2-8.

1020 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, Eskolei buruzko txostena 1937-8-20.

1021 ARRIEN, 170.

1022 U.U.A. “Historikoa”, 7. kaxa, Eskolei buruzko txostena 1937-8-20.

1023 ARRIEN, 194.

Aldundien eta Ontzi-jabeen Elkartearen diru-laguntzak, ikasleen matrikulen eskubideez eta hileko kuotez gainera. Defizita sei udalek berdintzen zuten, banaketa modu desberdinean egiten bazen ere: Plentziaren ekarpena %50ekoa zen, Gorlizena %25ekoa, eta gainerako %25, beste herrien artean banatzen zen<sup>1024</sup>.

Amaitzeko, aitatzekoa da garai horretan helduentzako eskolak ematen jarraitu zutela Eskola Publikoetan. “*Gaueko Eskola*” deitzen zitzaion eta badakigu, esate baterako, Udalak 1934ko aurrekontuetan 95 pezeta ezarri zuela materialen gastuetarako; Nesken Eskolako eta Mutilen Eskolako umeentzat, berriz, 312,50 pezeta zeuzkan, hainbana, materialerako<sup>1025</sup>.

## 2.5.2 Kultura eta aisia

### 2.5.2.1 Euskararen egoera

XX. mendeko 10eko hamarkadan, Urduliz udalerrri euskalduna zen nagusiki. Berbarako, 1917ko azaroaren amaieran, gobernadore zibilak eta Bizkaiko Aldundiak Urdulizko udal ordenantzei onespina eman zienean, Aldundiak gomendioa egin zuen “(...) ordenantza hauen artikulatuak gaztelaniaz ez ezik (...) euskaraz ere idatzi” zitezen, “(...) herri honetako bizilagun gehienek gaztelaniaz ez dakitelako eta euren harreman guztiak euskaraz egiten dituztelako(...)”<sup>1026</sup>. Kontuan hartu beharra dago ordenantzak jendaurrean ipini zirela, guztiek haien berri izan zezaten, eta, beraz, nahitaezkoa zen euskaraz ere argitaratzea.

Euskarak Urdulizen bizi zuen egoeraz ikuspegi bera eskaini zuen, 1918an, Andra Mari elizako abade diruzainak. Pedro Martín de Andicoechea y Arrartek herri euskaldun bat deskribatu zuen, parrokiari abade euskaldunak behar zituen:

*“La homilía se ha predicado estos diez últimos años en vascuence y conviene que los nombramientos en esta parroquia recaigan en sacerdotes que posean el vascuence por ser el idioma que hablan los feligreses y siempre se han hecho los nombramientos en sacerdotes que poseen el vascuence”*<sup>1027</sup>.

Zalantzarik ez dago euskarak jarraitu zuela hizkuntza nagusia izaten Bigarren Errepublikaren garaian. Hori hala izanik ere, ingurune hurbilak egoera konplexuagoa erakusten digu. Aurreko atalean ikusi dugu hezkuntzan zelan erabiltzen ziren euskara eta gaztelania. Hizkuntzaren egoeraren ikuspegi zabalagoa izateko, beharrezkoa gertatzen dabeste alor batzuei begiratzea. Eliza da datu gehien ematen dizkigun alorretako bat.

1024 DÚO, Gonzalo: *Las escuelas de náutica de Bizkaia, Gipuzkoa y Laburdi. Siglos XV-XIX. Análisis histórico-documental*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001, 133-137.

1025 B.F.A.H. AR 01647/008.

1026 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Gobernadore zibilaren gaztigua Urdulizko alkateari 1917-11-28*.

1027 A.H.E.B. 6725/002-00 *Parrokiako estatistika*, datarik gabe, 1918aren bueltan.

Esku artean daukagun informazioaren arabera, ez dirudi Bigarren Errepublikaren garaian batere aldatu zenik euskararen egoera Urdulizko erlijio esparruan. Esate baterako, *Txiberri* korrespontsalak *Euzkadin* argitaratu zuenaren arabera, 1931ko Aste Santuan euskaraz egin ziren bai predikua bai abestiak<sup>1028</sup>. Urte horren hasieran ere, kronikariak azpimarratu zuen apezpikuak eskutitza bidali ziola Andra Mari elizari eta hura euskaraz zegoela<sup>1029</sup>. Itxuraz, ohikoa zen egunkari nazionalistako korrespontsalek, orokorrean, euskararen erabilera nabarmentzea ekitaldi erlijiosoez jarduterakoan. Izan ere, salatari lana ere egiten zuten gaztelania elizetan agertzen zenean.

Berbarako, 1930ean, *Errik –Euzkadik* Algortan zuen korrespontsalak adierazi zuenean Getxon, Sopelan eta inguruetan “dotrina” erdaraz irakasten zela, *Txiberrik* berehala irten zuen Urduliz kontu horretatik salbuestera:

*“(…) Yaunari eskerrak emen Urduliz'en guzti-guztieri euskeraz irakasten dautsie eta zoriyonez, erderaz irekasten zanean baño onura geyagogaz. Bazenki emengo umine poza liburu deuntxuori euskeraz irekasteko daukiena (...)”*<sup>1030</sup>.

1931n, Sopelan ospatu zenean Jesusen Bihotz Sakratuaren festa, predikua gaztelaniaz egin zen. Hori salatzeke, artikulu bat agertu zen egunkari abertzalean; “*Sopelanatik ¿Non bizi gara?*”, izenburu. Gertatutakoaren berri ematerakoan, horrek herritarren artean sorrarazi zuen harridura azpimarratzen zuen lanaren egileak, izanik euskaldunak populazioaren %98<sup>1031</sup>. Barrikako 1935eko lehen jaunartzeetan, berriz, “*Aiko-zero*” korrespontsalak kontatu zuenez, abesti gehienak euskaraz kantatu baziren ere, erdaraz izan zen bat edo bat. Horrek itauna eragin zion korrespontsal barrikatarrari, alegia, hurrengo jaunartzeetan kanta guztiak euskaraz izango ote ziren<sup>1032</sup>. 1936ko abuztuaren erdialdean, Gerra Zibila hasi eta ia hilabete batera, euskara eta Barrika lotzen zituen beste albiste bat agertu zen *Euzkadi* egunkarian, *Laperrikok* sinatua. Korrespontsalak zioen elizan betidanik erabilia zela euskara, baina une hartan oso gutxi entzuten zela eta otoitz guztiak gaztelaniaz egiten zirela, Barrika herri euskalduna izan arren, “*Jaungoikoa*ren hitza” euskaraz entzuteko gai zena. *Laperrikori* erdarazko otoitzak “*ederrak eta egokiak*” iruditzen zitzaizkion, “*Valladolid edo Burgos'ko eleizetan egiteko*”<sup>1033</sup>.

---

1028 *Euzkadi* 1931-4-14 “*Betiko lez oso aundiro ospatu dogu erri onetan aste Deuna txonitz abesti ta abar gustiak euzkeraz egin dira txonizlara aitakuiril pasionista izan da. (...)*”.

1029 *Euzkadi* 1931-1-16.

1030 *Euzkadi* 1930-4-2.

1031 *Euzkadi* 1931-6-4.

1032 *Euzkadi* 21-7-1935 “*Baita abestik ederak be abestu ziran: batzuk euzkeraz eta beste batzuk erderaz. Nai-ta geyenak euzkeraz izan ziran ez ete-dira urenguan guztiak izango? (...)*”.

1033 *Euzkadi* 14-8-1936. “*IBARRIKA. NEGARRIA BENETAN. – (...) Gure eleizan beti egin daroe euzkeraz, baña gaur egunean gure asaba uskurtzaleak ain maite eben toki deun orretan euzkerarik gitxi-gitxi bañoztogu entzuten. Itzaldi guztiak (ederrak eta egokiak Valladolid edo Burgos'ko eleizetan egiteko) erderaz egiten, nai-ta jakin bear dabenak erria euzkelduna dala ta erri orrek Jaungoikoa'ren itza euzkeraz entzun gura dabela jakin*”.

Urdulizen, berriz, ez dugu daturik batere aurkitu ezelango gatazkaren gainean euskara liturgian eta kristau ikasbidean erabiltzeari dagokionez. Hala eta guztiz, beste herri batzuetan arazoak egon ziren, esate baterako Lemoizen. Liskarrak fase bat baino gehiago izan zituen, baita protagonista desberdinak ere. Primo de Riveraren diktadura bitartean, 1925ean eta 1929an, zenbait emakumek eskatu zuten gaztelania eta euskara txandaka erabiltzeko predikuan, baina ez zuten helburua lortu. Ez batean ez bestean, emakumeak ez ziren talde nagusien ordezkariak: 1925ean 40 bat lagunuen izenean zebiltzan, eta 1929an Lemoizko abadeak bere burua eskaini zuen erlijio katolikoa “(...) *modu pribatuan*” erakusteko “(...) *euskararik ez dakiten nire eliztar guztiei*”. Horrek aditzera ematen du oso gutxi izango zirela euskaraz berbetan ez zekitenak<sup>1034</sup>. Bigarren Errepublikaren urteetan, hizkuntza auzia are gehiago goritu zen. 1932an, *Euzkadi* egunkariak “*kanpaina antieuskalduna*” salatu zuen Lemoizen; haren esanetan, eskoletan “*gastetxuei euzkeraz berbetan debeketzen zaie, bestela zigortuko dituztela-eta*”. Egunkari nazionalistak gaineratzen zuen, “*beharrean hasita daudela*” ikasbidea erdaraz irakasteko<sup>1035</sup>. 1934an, katekesia bi hizkuntzatan ematen zen eta, azkenik, eliztar talde batek lortu zuen predikua eta abestiak ere euskaraz eta gaztelaniaz egitea. Zergatik eta “*eliztar talde horrek*” euskararik ulertzen ez zuelako. Benito Apraiz, Lemoizko orduko abadea, nonbait konturatuta zegoen “*euskaraz otoitz egiten dugunean, gehienek erdaraz erantzuten dutela (...)*”. Elizgizona berbeta biak erabiltzearen alde agertu zen eta ekidiezina irizten zion “(...) *baten batek edo baten batzuek politikari heltzea (...)*” egoera berria onartzeari uko egiteko. Abade nagusiak argudiatu zuen bi hizkuntzak txandakatuta “*probetxu espiritual handiagoa egongo*” zela, eta gainera Lemoizko biztanleen arteko “*talde guztiz garrantzitsu bati atsegín emango*” ziola. Nor ote talde horretako kideak? Nor eta, abadearen iritziz, “(...) *ikasienak, elizkoiak, parrokiaren onginenak*”, besteak beste, “*medikua, maisu-maistrak, kapitainak eta amerikanoak*”. Joaquín Perearen ustez, garai hartan, Lemoiz “(...) *bertako hizkuntza galtzeko bidean zegoen, neurri handi batean (...)*” Plentziarekin eta Gorlizekin zeuzkan “(...) *harreman sozioekonomikoen ondorioz*”. Herri horietan “*gaztelania zen nagusi*” eta euskara eta erdara txandakatzen ziren predikuan<sup>1036</sup>.

Alde horretatik, Jorge Zamora Landazurik Lehenengo Karlistadaren amaieran finkatzen du, Plentziari dagokionez, euskararen galeraren prozesuaren hasiera, karlisten okupazioaren ostean, marinel-hiria hiru urtez setiatu eta gero, 1836tik 1839ra bitartean. Plentzia ordura arte zer izan zen, hori guztia birrinduta geratu zen okupazio horren eraginez. Alde horretatik, Zamora Landazurik uste du “(...) *herria konkistatu eta hankaz goratu zuen “baserritar karlistaren” aurkako arbuioaren ondorioa dela Plentzia erdalduntzea*”. Hamarraldi bi geroago, 1866an, José Antonio Uriarte abadeak, Luis Luciano Bonaparte printzearen laguntzailea bera, datu ezin garrantzitsuagoa jaso zuen: “(...) *Plentzian galduz doa euskara, gazteek, ia guztiek, erdaraz egiten dute-eta*”. Jorge Zamoraren iritziz, Gorlizko biztanleen zati batek imitatu zuen euskararekiko jarrera hori, inork esan ez zezan

1034 PEREA, II. liburukia, 728-730.

1035 *Euzkadi* 1932-10-16.

1036 PEREA, II. liburukia, 730-731.

“(…) baserritarrak zirenik(…)”. Itxuraz, “(…) industrializazioari esker aberasten zebiltzan itsasgizonek, haien familiek eta zenbait lur-jabek” osatzen zuten giza-talde hori. 1898an Gorlizko abade Juan Izurategik utzitako lekukotasuna sano argigarria da kostaldeko elizatean euskarak bizi zuen egoera ulertzeko: “hemengoak erdaldundu egin dira eta erdalduntzen jarraitzen dugu”. Elizgizonaren iritzian, “(…) elizkizunetan gaztelania eta euskara erabiltzera behartuta gaude, euskaraz otoiitzean hasten garenean guztiak edo gehienek erdaraz erantzuten digutelako”. Haren deskribapenaren arabera, Gorlizko erdiguneko gizartea erdalduna zen, bai erlijioaren eremuan –“(…) kristau ikasbidea gutxiak dakite euskaraz (eta) gutxi konfesatzen dira euskaraz (...)”– bai eguneroko bizitzan: “gurasoek etxean erdaraz egiten dute eta umeei berdin eskolan eta olgetan (...)”. Zamora Landazurik, *Gorliz 1900* bere liburuan, zenbait lekukotasun jaso zituen Bigarren Errepublikaren garaiaz, eta guztiak bat datoz salatzeke momentuan “Plentziako eta Gorlizko hiriguneetan” gaztelaniaz berba egiten zela eta ez euskaraz<sup>1037</sup>.

Plentziak hizkuntza kontuan zuen eragina Gorliztik edo Lemoiztik hara zabaldu zen, eta Barrikaraino heldu. Esanda dago gaztelania erabili zela 1935eko uztailaren elizatean egindako lehenengo jaunartzeetako kanta batzuetan, *Euzkadi* egunkariak kontatu zuen legez. Barrika eta euskara lotzen zituzten albisteak ugariak izan ziren uda hartan egunkari *jeltzalean*. Lehenengo jaunartze horiek baino aste batzuk lehenago, ekainaren amaieran, artikulua luze bat agertu zen, “A las “señoritas” de Barrika” izenburupean, “Emakume bat” sinatzaile. Testuak euskararen defentsa egiten du, erabat lotuta nazionalismoaren aberri kontzeptuari. Gainera, irakurlearengan ahalik eta modu bizienean eragitea zuen helburu<sup>1038</sup>, horretarako zenbait baliabide erabiliz. Esate baterako, egileak esanagatik erdaraz nekez berba egiten zuela, ez dirudi hala zenik haren idazkera joriak hain zuzen ere kontrakoa adierazten zuelako. Bere artikulurako erdara aukeratu izana arrazoitu zuen, zergatik eta “(…) uste osoa dudalako (“orri laurden pare hau”) euskaraz idatziz gero ez zenituzketela irakurriko”. Alabaina, interesgarriena da testuak zer ematen duen aditzera, alegia, zelan agerrarazten dituen mundu bi elkarrengandik gertu baina kontrajarriak: herrixka eta hiria, “baserritar konplexu” eta guzti, hirietako biztanleen aurrean.<sup>1039</sup> Alde horretatik, begi-bistakoa da kasu honek osterara ere erakusten duela Plentzian gaztelaniaren erabilera zela-eta zeuzkaten ohiturak imitatzeke joera. Artikulugilearen berbetan, bera neskatxa zenean, “(…) Gaminizko neskek “erris” eta “jebas”<sup>1040</sup> deitzen ziguten, euzkeraz berba egiten genuelako”. Horregatik, “(…) gu, ni ere bai, baina

---

1037 ZAMORA LANDAZURI, Jorge: *Gorliz 1900*, Bilbo, Gorlizko Elizateko Udala, 2001, 128-131

1038 Ez litzateke astakeria pentsatzea “Emakume bat” gaitzizenaren azpian “Aiko Zera” Barrikako korresponstal bera ezkutatzea, edo besteren bat, modu horretan “dramatismo” handiagoa bilatu guran.

1039 “(…) ¿es que no somos nosotras aldeanas? ¿No veis que por doquier donde vamos exhalamos el fragante aroma de la riquísima borona? ¿No os dáis cuenta que las harinas artificiales con la que embadurnáis vuestra cara, no pueden ocultar, por mucho que pretendáis, el sano color que vuestro cutis ha adquirido al ser besado por el polvo de los “mokilles” amasado con el sudor de vuestro rostro eta cocido por los abrasadores rayos de sol? ¿No veis que el euzkera no es solamente idioma de aldeanos? (...)”.

1040 Jebas: baserritarrak.

*batez ere ni baino gazteagoko neskek, erdara ikasten saiatzen ginen Gaminizko 'señoritik' imitatzeko". Hartara, artikuluko emakume sinatzailea penatuta agertzen zen "Barrikako señoirek" ihes egin ziotelako "bertako berbetari". Aldi berean, hausnartzeko gonbita luzatzen zien, argudiatuik "(...) gaur egun Gaminizko señoirek zer ez ote luketen emango euskaraz jakitearren"<sup>1041</sup>.*

Gaitza da jakitea euskararen egoera eta gaztelaniaren zabalpena direla-eta Barrikaren gainean nazionalismoak *Euzkadi* egunkarian egindako deskribapena lerratua ote zegoen edo errealtatearen ikuspegi osoa islatzen ote zuen. Eskura ditugun datuek bigarrenaren aldera makurrarazten gaituzte, uste badugu ere euskararen atzerakada gaztelaniaren aurrean ez zela udalerrri osoan gertatu, ezpada Plentziatik hurbilen dagoen zatian; berriz, beste alde batzuetan, hala nola Goierrin edo Ganen, euskarak bere nagusitasunari eutsiko zion. Hau esanda, badakigu 1935ean umeentzako euskarazko eskolak ematen hasi zirela<sup>1042</sup> Barrikako *Batzokian*. *Jon Andrak Euzkadin* jakinarazi zuenez, hona zer baldintza zegoen klase horietan parte hartzeko: "(...) zortzietatik hamarretara (eskolen ordutegiak) *Batzokian euskaraz baino ez da egingo. Erdaraz ezinbestekoa baino ez da egingo*"<sup>1043</sup>. Beraz, *Batzokian* bertan gaztelaniaz egiteak pentsarazten digu hizkuntza horrek leku handia zuela Elizatean. "*Aiko Zera*" ohiko korrespontsalak idatzi zuen urte hartako amaieran, Barrikan euskara "(...) *hiltzeko bidean abiatu dela, arin-arinka, urte batzuetatik hona (...)*". Salatu zuenez, itsasaldeko udalerriko ama guztiek "(...) *dakite euzkeraz eta, hala eta guztiz, Erretxuelan gutxienez askok erderaz egiten diete euren seme-alabei*". Egoera aldatzeko, korrespontsal barrikatarrak proposatu zuen 1940erako sari sorta bat sortzea umeentzako, epaimahai baten azterketaren ostean, erakusteko "(...) *batez ere (...)* euren etxeetan euskaraz baino ez dietela berba egin". Gauza guztien gaineratik, euskararen erabilera sustatu gura zen, diru pizgarri bati helduz kontu ideologikoei baino areago. Hartara, hau segurtatzen zen:

*"Las madres de Ibarrika (sic) son patriotas, pero desconocen, desgraciadamente, lo que representa el idioma para la conservación de la raza y libertad de patria; en cambio, ¿cuántas son las que no saben apreciar el valor del dinero?"*<sup>1044</sup>.

---

1041 *Euzkadi* 1935-6-25.

1042 Badakigu Mungian ere umeentzako euskarazko klaseak ematen zirela, 1932aren bueltan, herriko batzokian, *Euzkadin* jaso bezala, 1932-6-4.

1043 *Euzkadi* 1935-6-7.

1044 *Euzkadi* 1935-7-25.



Ideiak aurrera egin zuen. Apirilean, Barrikako emakumeek “Euzkera-aldez” izeneko Batzordea eratu zuten, sari horietarako dirua biltzeko<sup>1045</sup>. Gerra hiru hilabete geroago etorri zen eta horrek amaiera ezarri zion proiektuari<sup>1046</sup>.

Plentzian euskarak erakusten zuen ahuleziak behartuta, hiri horretako abertzaleek berbetaren ikaskuntza bultzatu zuten. 1931ko urrian, *Euzkadi* egunkariak dei egin zion “(...) dagokionari, Gaminizen euzkerazko eskola bat zabaltzeko”<sup>1047</sup>. Ideiak emaitza eduki zuen, 1933ko azaroan “(...) Pablo de Landa abertzale gazte finak” euskarazko eskolak ematen zituen, herriko *Batzokiari* lotuak, guk uste. Gainera, egunkari jeltzalearen orrietatik saiatzan ziren epelak berotzen, bat egin zezaten “(...) gure herrian, eremu erdeldunaren konkista gaitz baina ez ezinezkoari ekiten dioten gudarien aldra txikiarekin”<sup>1048</sup>.

Hain zuzen ere Plentzian topatu ditugu, Gerra Zibila hasi baino lehentxeago, euskararen aurkako jarrera batzuk “monarkiko batzuen aldetik”, *Euzkadi* egunkariak argitaratutakoari jarraituz. 1936ko maiatzaren 30ean, Aberri Egunean, arratsaldeko meza egin zen Plentziako parrokia elizan. Elizkizunean, “(...) Mariaren alabek, organoak lagunduta, euzkera ezti-etzian entzunarazi zuten “Agur, Josu’ren ama”-ren ahapaldiak”. Isik, egunkari nazionalistak Plentzian zuen korrespontsalak, hauxe salatu zuen:

*“(...) entre algunos monárquicos este hecho naturalísimo y piadoso provocó los acostumbrados comentarios, absurdos si se tiene en cuenta que se trata, como el nombre lo indica ya, de una canción de religiosidad eminente. Yo no me he asombrado jamás por escuchar canciones inglesas en los templos de la Gran Bretaña ni francesas en la tierra de Jeanne d’Arc. Y además, ¿importa algo a ningún católico que se canten las alabanzas de la Santa Madre de Dios en uno u otro idioma? Por lo visto también aquí debe tener el castellano la exclusiva”*<sup>1049</sup>

Isiren artikuluari kasu egitera jarrera horiek ohikoak ziren nonbait (“acostumbrados comentarios” delakoak). Itauntzeko gauza da modu horretako jokamoldeak, euskararen aurkakoak, sektore monarkikora mugatzen ziren edo zabalik ote zeuden Plentziako hiriguneko beste biztanle batzuen artean, populazioa nagusiki erdalduna zenez. Ezin albo batera utzi, bestalde, gertakari

---

1045 *Euzkadi* 1936-4-3.

1046 *Euzkadi* 1936-8-14. “IBARRIKA. NEGARRIA BENETAN. – (...) Gure eleizan beti egin daroe euzkeraz, baña gaur egunean gure asaba uskurtzaleak ain maite eben toki deun orretan euzkerarik gitxi-gitxi baño eztogu entzuten. Itzaldi guztiak (ederrak eta egokiak Valladolid edo Burgos’ko eleizaetan egiteko) erderaz egiten, nai-ta jakin bear dabenak erria euzkelduna dala ta erri orrek Jaungoikoa’ren itza euzkeraz entzun gura dabela jakin”.

1047 *Euzkadi* 1931-10-9 *Txiberrik* albiste hau jaso zuen Urduliz dagokionez, aurretik agertua bazen ere.

1048 *Euzkadi* 1933-11-24.

1049 *Euzkadi* 1936-6-4.

horiek orduko abagune politiko tirabiratsuaren isla ere bazirela nazionalismoa eta estatu mailako eskuma kontserbadorea aurrez aurre zebiltzan une batean. Izanik euskararen defentsa eta sustapena abertzaletasunaren ikurretako bat, jaurtigai bihurtuta zegoen borroka politikoan.

Lehenago azaldu dugu zelan sartu zen gaztelania Lemoizko mezetan. Horren oinarrian egon liteke gaztelania estatu mailako kontserbadurismoarekin lotzeko prozesu bat, euskara abertzaletasunarekin uztartzeko joeraren parekoa. Hartara, 1925ean eta 1929an ele biko liturgia lortzeko birritan alferrik saiatu ostean, 1934an, herriko abade nagusi Benito Apraizek erabaki zuen erdara mezetan sartzea. Neurri horren bidez, Apraizen aburuz, mesede egin gura zitzaion Elizateko talde "(...) *gutziz garrantzitsu bati*": medikua, maisu-maistrak, kapitainak eta amerikanoak, guztiak erdaldunak. Abadeak ederto zekien erabaki horrek kutsu politikoko istilua ekarriko zuela ados ez zeudenekin. Elizgizonak pastoraltza arloko arazoak argudiatu arren neurri hori hartzeko, ezelako jarrera politikorik erakutsi barik<sup>1050</sup>, 1936ko otsailean *Euzkadi* egunkariak salatu zuen "*On Benito*" politikoki bere burua biluztu zuela hil horretako hauteskundeetan monarkikoei sostengua agertuz<sup>1051</sup>. Nor eta 1934an mezetan elebitasuna sartuta onura gehien hartu zuen sektorea, hurrean.

Atzerago esan dugun legez, Bigarren Errepublikaren garai guztian Urdulizen ez dugu topatu albiste bakar bat ere euskararen eta gaztelaniaren inguruko liskarren berri ematen digunik. Hala eta guztiz, 1936ko uztailaren hasieran, *Euzkadi* egunkariak *Txiberriren* artikulua bat argitaratu zuen, non, besteak beste, udatiarren etorreraren berri ematen zuen Urdulizera. Hori urtero jazotzen zen, baina urte hartan udalerrian egonaldi zoriontsua baino ez zien opa. Berriz, oraingoan korrespontsal urduliztarrak gehitu zuen, udatiarren agerpenaren ondorioz, erdara gehiago entzuten zela udalerrian, zerbait "*tamala baña egija*"<sup>1052</sup>. Ez dirudi kasualitatea denik erdararen kontua aitatzea 1936ko udan, orduko giro politiko tirabiratsua kontuan hartuta.

Abertzaletasunaren eta euskararen arteko loturak, berbetaren irakaskuntza ez ezik, beste alor batzuk ere harrapatzen zituen. Horietako bat, toponimoen aldaketa nazionalistek bultzatutako euskal moduetara egokitzeko. *Euzkadin* sarritan topatzen dugu *Urdulitz* forma. Barrikaren izena *Ibarrika* bihurtzen zen batzuetan, eta Plentziarako *Gaminiz* edo *Gaminitz* erabiltzen zen, marinel-hiria eraiki zen aldearen jatorrizko izena.

---

1050 PEREA, Joaquín: *El modelo de iglesia subyacente en la pastoral del clero vasco (1918-1936)*, Bilbo, Instituto Diocesano de Teología eta Pastoral. Editorial Desclee de Brouwer, 1991, II. liburukia, 730-731.

1051 *Euzkadi* 1936-3-6.

1052 *Euzkadi* 1936-7-5. "UDATZALIAK. – Urtien-urtien etorten diren udatzaliak emen doguz, ori dala ta erdereaa ugaritu da egun onetan. Tamala baña egija".

Norabide berean zihoan euskarazko izenen ezarpena jaioberriei, hura ere abertzaletasunari uztartutako kontua, argi eta garbi. Esate baterako, 1931ko ekainean, *Euzkadi* egunkariaren orrietan, Iñakik, Sopelako korrespontsalak, kontatu zuen hiru ume sopoloztar bataiatu zirela, baina “(...) *gurasoak eta aitabitxi-amabitxiak euskaldunak izan arren, bakar bati ere ez zitzaion euskal izena ipini*”. Baserritarrei zuzendurik, euren seme-alabei euskarazko izenak ipintzera animatu zituen:

*“Queridos baserritarras, vosotros que a vuestros amados umetxus les inculcáis desde un principio la lengua de vuestros padres, nuestro viejo euzkera, ¿no creéis digno para ellos un nombre euzkérico? ¡Cuánto más suave suena en vuestros labios un nombre euzkeldun que el erdeldun!*

*Despertad de ese letargo y tratar por cuantos medios estén a vuestro alcance de honrar vuestra lengua, y éste, el bautizar a vuestros hijos en euzkera, no creo que os sea muy costoso”<sup>1053</sup>.*

1935eko ekainean egunkari jeltzaletik salatu zen 1934an Plentziako parrokian bataiatutako 43 umeen artetik “(...) *bakarrik hamahiru ipini zitzaizkion euzkel izenak*”. Artikulugilearen iritziz, erruduna zen “(...) *guraso abertzale askoren inkontsekuentzia, hurrengoetan zuzendurik ikusi gura genukeena ¿Nun ete dira abertzaliak?*”<sup>1054</sup>.

Urdulizen, behintzat, kasu ia guztietan, guraso alderdikideen edo abertzaletasunetik hurrantzen seme-alabak dira euskal izena hartzen duten neska eta mutilak. Erregistro Zibileko liburuan topatzen ditugun euskal izenak Sabino Aranek 1897an santuen izendegi katolikotik egindako itzulpenaren kume dira: *Lenengo Egutegi Bizkaitarra*. Lan hori Luis de Eleizalde zabaltu zuen 1910ean, *Deun Ixendegi Bizkaitarra* izena ipinita.

1930etik 1937ko maiatzera bitarte guztira 51 neska-mutil urduliztarrek jaso zituzten euskal izenak. Den-denak erregistratuta agertzen dira parentesi artean gaztelaniazko izena ipinita. Erdal izenen aldean sano txikia da euskarazkoen proportzioa. Esate baterako, *Txiberrik* ohartarazi zuen 1934an, “(...) *berrogei jaiotzetik (...) hamalautan baino ez (zela) euzkel izena ipini*”, guztiz gutxi, haren iritziz, “(...) *hain herri abertzalea izanda*”<sup>1055</sup>. 1933an, 1934an eta 1935ean erregistratu ziren euskal izen gehien. Bistan denez, gerraren amaierak eta Diktaduraren etorrerak zuztarretik ebaki zuten euskal izenen erabilpena. Interesgarria da aurreko hamarraldiko egoera. Oso zenbaki urriak erabiltzen baditugu ere, ikustekoa da zelan, Primo de Riveraren diktaduraren etorrerak euskarazko izenen erabilpenaren beherakada ekarri zuen.

---


1053 *Euzkadi* 1931-6-6.

1054 *Euzkadi* 1935-1-21.


1055 *Euzkadi* 1935-1-23. Jaiotzen kopurua osoa eta Erregistro Zibilekoa ez da bera: 35

1930-1937 aldian emakumezko euskal izen hauek topatzen ditugu: Ane, Dorote, Edurne (2), Elizabete, Kistiñe, Maite, Miren (2), Miren Andoni, Miren Begoña (3), Miren Edurne, Miren Garbiñe (2), Miren Gotzone (2), Miren Jule, Miren Karmele (2), Miren Maite (2), Miren Matale, Miren Nekane, Miren Terese, Sorne, Teresi eta Yayone. Gizonezko izenak, berriz, hauek: Ander, Andoni, Iñaki (4), Jon Joseba (4), Jon Miren (2), Joseba Andoni, Josu (2), Koldobika, Pilipa, Tiburtzi, Sabin (3) eta Xabier Joseba<sup>1056</sup>.

**EUSKARAZKO IZEN KOPURUA 1919 - 1929** <sup>1057</sup>



**EUSKARAZKO IZEN KOPURUA 1930 - 1937** <sup>1058</sup>




1056 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILEAN lortutako informazioa, 1. saila (Jaiotzak), 10. liburukia: 1929-1943.


1057 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILEKO datuak erabiliz egindako informazioa.

1058 Ibid.

### COMPARATIVA NOMBRES EN EUSKERA Y CASTELLANO 1930 - 1937 <sup>1059</sup>



### 1930-1937KO JAIOTZEN IZENEN TIPOLOGIA <sup>1060</sup>



1059 Urdulizko Erregistro Zibileko datuak erabiliz egindako informazioa.

1060 Ibíd.

Azkenik, aurrekoabezaingarrantzitsua da euskararen berezko adierazpenetako batez berba egitea, bertsolaritzaz alegia. Alor horretan nabarmendu beharra dago Prudencio Abarrategui Torrontegui bertsolari urduliztarra. Hura Andra Mari parrokian bataiatu zuten 1873ko apirilaren 28an. Hargina zen lanbidez eta *Besamotza* zuen gaitzizena esku biak galdu zituelako dinamita kartutxo bat lehertzean<sup>1061</sup>. Zoritxar horrek bultzatuta, bizimodua ateratzeko, “(...) *Prudencio bertsoak idazten hasi zen, eta haiek abestuta pezeta batzuen truke saltzen. Herriz herri eta feriaz feria joaten zen, bere lanak eskaintzen*”<sup>1062</sup>. Alde horretatik, Abarrategui “(...) *azken bertso-saltzaile handia*” iritzi zitzaion. Haren lanetik nabarmentzekoak dira Paulino Uzkuduni eskainitako *bertso berriak*. Beste alde batetik, aitatzekoa ere da “*Bertsolari Eguna*” izeneko lehiaketan parte hartu zuela, Donostian, 1935eko urtarrilaren 20an<sup>1063</sup>.

Bertsolarien artean Urdulizen egindako desafio baten kontakizuna utzi zuen Luis Trebolazabalak. Hona hemen haren transkribaketa:

*“(...) en unos bertsolaris que hubo en Cuatro Caminos, pues estaba Eusebio de “Goikotxes” que era bastante bueno. Empezaron a hacer bertso, en plan de campeonato, y hubo un republicano que era marido de Felisa, la del Estanco. No sé que bertso le echaría el republicano, que le dijo Eusebio en el bertso, “mira estamos totalmente de acuerdo que hagas tu esto y lo otro, pero déjanos libre Euskadi”, esa fue la despedida del bertso. El otro no tuvo, por lo que sé ve una contestación aparente, y bajo de la mesa, porque se ponían encima de una mesa para competir, y Eusebio quedó, por una vez más, que quedó muchísimas, campeón de los bertsolaris, y eso lo pude ver yo mismo, yo era un criajo”*<sup>1064</sup>.

### 2.5.2.2 Eguneroko bizitza: giza harremanak eta aisia

Baserriko lanen inguruan ardaizten zen Urduliz landatar haren eguneroko bizitza. Berbarako, herri-bideak urtero konpondu behar ziren eta hori auzolanean egiten urriaren erdialdetik azaroaren amaiera bitartean, “(...) *garai horretan nekazariak uzta ia bilduta daukatelako eta ereintzak eginda*”<sup>1065</sup>. Auzolana polito araututa zegoen: 16 urtetik beherakoentzako izan ezik derrigorrezko lan bat zen. Beraz, “*lan horietan beharrik egin ezin zezaketenek*” egunean 5 pezeta ordaindu behar zituzten. Bizilagun horiek zerrenda batean agertzen ziren, eta hura aguazilari ematen zitzaion dirua kobratzeaz ardura zedin.

1061 SARRIUGARTE, Iñaki: “*Bertsolari Txapelketa Nagusiak 75 urte: P. Abarrategi eta E. Uriarte Poxpolin Antzokian*” In *Karmel Aldizkaria* 270. zk., 2010-2, 3-41, 12-14.

1062 EGAÑA, Iñaki: *Quién es quién en la Historia de los vascos*, Txalaparta, Tafalla, 2015, 13.

1063 *Euzkadi* 1935-1-19, 1935-1-20 eta 1935-1-22.

1064 Luis Trebolazabaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21. Aitatzten den bertsolaria Eusebio Ansoleaga zen, antza.

1065 U.U.A. “*Historikoa*”, 5. kaxa, 1922-1930ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1923-9-2.

“Antzinako ohitura zela-eta” langile bakoitzari “pinterdi bat ardo” ematen zitzaion lan egun bakoitzeko. “Euren idi-uztarriarekin harria garraiatzen” ibiltzen zirenek, berriz, litroa hartzen zuten egunero<sup>1066</sup>.

Lagunartean ibiltzeko aukerak baserriko lanek markatzen zuten erritmoaren arabera ziren, baina horrez gain, urtaroak eta garai bakoitzeko giroak ere eragina zuten. Horregatik, giza harremanetarako garaia uda zen nagusi-nagusiki, batez ere herrietako jaietan. José María Tapizek dioenez, udako festen eta uzta bilketaren ondorioz gelditu egiten ziren Urduliz lako herri txiki-txiki batzokiak, eta udan ez zuten ezelango jardunik izaten. Negu bitartean, berriz, halako lehiarik ez zen, eta orduan harremanetan jartzeko aukerak urritu egiten ziren “eguraldi latzaren ondorioz”. Horrek bultzatzen zuen jendea “(...) EAJren egoitzetara gehiagotan agertzeraz, batez ere landa-giroko herrietan dibertitzeko aukera erreala eta lehiakorra eta topaleku erosoak zirelako”. Horri gehitu behar zaio gehienetan libre zela batzokietara sartzea eta “hasi berriak” barruan topatzen zuen giroa atsegina zela, ahaideak eta gertuko lagunekin elkartzeko zelako bertan<sup>1067</sup>. Nazionalismoaren gaineko atalean aitatu ditugu batzokiak aisiarako eskaintzen zituen jarduerak, euskal dantzak adibidez. Abertzaleek batzokietatik kanpora antolatzen zituzten jardueren osagai ludikoa ere ekarri dugu hona. Beste batzoki batzuen irekieretan, *Aberri Egunean* edo maiatzaren 1eko Lanaren Egunean ezinbestekoak ziren dantzak, erromeria txistulariekin edo herri kirola. Jarduera horiek guztiek erakarmen handia zuten harremanak egiteko aukera handia ematen zutelako.

Urdulizen, bigarren Errepublikaren garaian, jai egutegia gaur egun baino zabalagoa zen. Alde batetik, jadanik ospatzen ez diren egunak daude: San Anton, urtarrilean, edo Igokundea, maiatzean. Bestetik, gaur egun arte bizirik iraun dutenak: Santa Marina, uztailaren 20an, eta Andra Mariak irailean, herriko jaiak.

Berritasuna izan zen, 1931n, San Isidro “lehenengoz” maiatzaren 17an ospatzea, nahiz eta Igokundeko jaien barruan izan. Egunari berea emateko goizean meza izan zen eta “erromeria handi bat, txistulari talde biren *soinupera*”, arratsaldez<sup>1068</sup>. Antza, urte hartan baino ez zen ospatu, ez dugulako osteraz ere ospakizun horren berririk ematen duen agiririk topatu.

XX. mendearen hasierara atzera eginez gero, ikusten dugu zenbat jende erakartzen zuten Urdulizko jaiak. Esate baterako, *El Noticiero Bilbaínok* ekarri zuenez, 1902ko Santa Marinetan “erromeriagilez beteta etorri ziren trenak”. Programan, meza goizean eta erromeria arratsaldean Plentziako Musika Bandaren ardurapean<sup>1069</sup>. Ohikoak ziren trenaren zerbitzu bereziak herrietan jaiak egoten zirenean. Urdulizen badauzkagu adibide gehiago: 1898an, trenbidearen

---

1066 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-10-17.

1067 TAPIZ, José María: “Los batzokis jeltkides durante la II República, Centros de Sociabilidad y reclamos a la afiliación” in *Vasconia* 33,2003, 293 – 295.

1068 *Euzkadi* 1931-5-12.

1069 *El Noticiero Bilbaín* 1902-7-22.

konpainiak bere zerbitzua sendotu zuen Santa Marina zela-eta<sup>1070</sup>, eta badakigu 1911ko Andra Maritan ere zerbitzu berezia egon zena. Urte hartako jai egitaraua ohikotzat jotzekoa da: meza, *aurrekua* gero eta “*musika banda batek eta danbolinderoek alaitutako erromeria*”<sup>1071</sup>. Beste alde batetik, harritzekoa da bolanderak topatzea 1905eko eta 1907ko Andra Maritako programetan<sup>1072</sup>, baita 1894ko Santa Marinetakoetan ere<sup>1073</sup>. 1907ko herriko jaietan, “*atzerriko etxe ospetsu baten suak*” erre ziren irailaren 8ko arratseko 8etan. Modu horretako jarduera bat ez zen merkea izango; beraz, pentsatzekoa da ez ote zen herriko ongileren baten poltsikoaren bizkar joango. Jaiak lau egun iraun zuten: 8an eta 9an Landan, 10ean Elortzan eta errepikapena, 15ean, ostera ere Landan. Aitaturako ekitaldiez aparte, aurrekulari txapelketa bat egin zen, “*puxika ederrak bidali ziren zerura*” (ez da aitutzen zer motatakoak) eta ekitaldi bi gehiago egin ziren: “*samaritana lasterketa bat eta bela-joku misterioitsu ederra, sari eta guzti*”. 1905eko Andra Maritan, berriz, bestelako olgetak topatzen ditugu: zaku-lasterketa bat eta oilo-oiloka; gainera, aurrekulari txapelketa.

San Antongo jaiak ere sano sustraiturik zeuden landa-giroan. Animalien bedeinkazioa zen eguneko ekitaldi nagusia. Ez dakigu zehazki noiz hasi zitzaizkion elizkizun horri jai giroko ekitaldiak gehitzen. José Domingo de Uribe bere autobiografian berba egin zuen jai horretaz. Paraguayn negozioak egiten bolada luzea emanda gero, Uribe Urdulizera bueltatu zen 1858ko urrian. Urtebete geroago, San Anton egunean, gura izan zuen “*(...) egun horretarako arratsaldean Landara etortzen zirenak dibertitu zitezen, ganadua eduki edo ez, eta horretarako danbolindero bat kontratatu nuen, Landan jo zezan*”<sup>1074</sup>.

1931tik 1936ra bitarteko jaietako egitaratuen eskema berdintsua izan zen, aldakuntza asko barik eta Elizateko aurrekontuen ahale araberakoa. Berbarako, festetarako aurrekontua 2000 pezetakoa izan zen 1934an<sup>1075</sup>. Jai handienetan, Igokundean eta Andra Maritan legez, elizkizunak ezin utzizkoak ziren eta sermolaria egun horretarakoxe bereziki etorritakotakoa izaten zen. Gainera, jai eskaintza biribiltzeko musika egoten zen, gehienetan Plentziako Musika Bandaren kontura, eta horretaz aparte, txistulariak, idi-probak, sokatira, aurrekulari eta dantzari txapelketak, eta zaldi eta asto lasterketak. Santa Marinako jaiak molde xumeagoa zuten, baina, orokorrean, gaur egun arte iraun duena: meza, aurrekua eta bazkaria gero.

1931ko Andra Maritan Bilboko Musika Bandak alaitu zuen erromeria<sup>1076</sup>. Halako abagune berezietan izan ezik, lan hori, esanda dagoen legez, Plentziako Udal Bandari zegokion. Urdulizera joan zedin, Udalak Trenbidearen Konpainiari

---

1070 *El Noticiero Bilbaíno* 1898-7-15.

1071 *El Noticiero Bilbaíno* 1911-9-6.

1072 *El Noticiero Bilbaíno* 1905-9-7 eta 1907-9-6.

1073 *El Nervión* 1894-7-19.

1074 URIBE eta ELORDUY, 47-48.

1075 B.F.A.H. AR 01647/008.

1076 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-8-23.



eskatzen zion *“doako txartela, joan-etorrikoa, Plentzia eta Urduliz artean”*<sup>1077</sup>. Txistulari bati ere abisatzen zitzaion erromerietarako. 1933 arte, Getxoko bizilagun Mateo Achurra ibili zen erromerietan txistulari. Urte hartako abuztuan, Udalak erabaki zuen Plentzian bizi zen Aurelio Astobieta txistulari izendatzea *“(...) gertuago bizi denez, gehiago komeni zaiolako herriari”*<sup>1078</sup>.

Udalak kontratatutako musikari ofizialez aparte, badakigu *“karroak, esku-soinuekin eta beste musika-tresnekin”* etortzen zirela erromerietara. 1926an, Udalak kendu zuen *“bigarren mailako erromeria batzuetan, hala nola San Antongoan, Santa Marinakoan eta besteren batean”* kobratzen zitzaizen zerga<sup>1079</sup>. Hura 5 pezetakoa zen erromeria bakoitzeko eta kobratzen zitzaizen *“erromerietan jotzera”* etortzen ziren *“soinu-jotzaile eta gainerako musikariei”*. Egoera 1936ko maiatzean aldatu zen, Udalak Juan Bilbaoren eskutan eskusibitatea utzi zuenean soinua jotzeko *“herri honetan egiten diren erromeria guztietan”*, urtean 75 pezeta ordainduta<sup>1080</sup>. Udalak, hurrean, errentagarritasun handiagoa lortzea bilatzen zuen, modu horretan irabazi finkoak lortzen zituelako, lehengo egoeraren aldean, diru-sarrerak txikiagoak eta gorabeheratsuak zirenean.

1926an kendutako zergak jaietan edatekoa eta jatekoa saltzeko *“postu publikoer”* ere eragiten zien. Ez zen derrigorrezkoa Urdulizko bizilaguna izatea postu horiek paratzeko. Esate baterako, 1931ko Igokundeko jaiak errepikatzeke egunean, Sopelako erosle batek ezarri zuen saltokia, Valentín Cagijasek. Eguraldiak ez zuen fundamenturik egin, *“egun osoan euria, atertu barik”*. Horregatik, ez ardo-zahagia hasi ezta garagardo botila bakar bat ere saldu. Hori dela-eta, Udalak ez zizkion kobratu Cagijasi, *“(…) garagardoaren eta ardo-zahagiaren udal zergak”* eta baimena eman zioten generoa atzera ere bere saltokira bueltan eramateko, Sopelara<sup>1081</sup>. Urdulizko tabernariei edatekoen postuek egiten zieten lehiak haien erantzuna ekarri zuen 1935eko maiatzean, Udalarari eskatu zitolarik ez uzteko *“(…) Igokundeko erromerian edateko posturik ipintzen herri honetakoak ez direnei (...) , horrek egiten dien diru kaltea dela-eta(…)”*. Tabernariek konpromisoa hartu zuten postu bakoitzari kobratzen zitzaion 5 pezetako zerga beraiek ordaintzera eta postu horiek beraiek paratzera. Udalak baietza eman zien<sup>1082</sup>.

Beste alde batetik, Bigarren Errepublikaren lehen urteetan, *Euzkadik* alderdi honetan zituen korrespontsalek guztiz oldarkor agertzen segitu zuten erromerietan agertzen zirenean beraiek *“arrotz”* iritzitako dantza eta musika-tresnak, zerbait *“arrazaren purutasunarekin”* lotu-loturik zegoena. Kontrakotasun

---

1077 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-5-3.

1078 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-8-5.

1079 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922-1930ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1932-10.

1080 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1936-5-16.

1081 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1931-5-30.

1082 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1935-5-20.

hori ez zen berria; Primo de Riveraren diktaduraren aurretik egunkari nazionalistak argitaratua zuen kontu horren gaineko salaketarik. Halakoak, esan bezala, itzuli ziren 1931tik aurrera. Berbarako, *Txiberrik*, Urdulizko korrespontsalak honela eman zuen Laukizko 1931ko San Migelen berri: “(...) nazkatuta irten genuen, arratsalde guztian dantza arrotza jotzen baino entzun ez genuelako, eta pieza solte bakar bat ere ez. Gain behera etorritako euskaldunak dira horiek, arraza kontzientziarik batere ez daukatenak”<sup>1083</sup>. Sopelan ere, urte bereko San Pedrotan, ika-mika izan zen arrazoi berdinatik, *Euzkadi* eta *El Liberalgo* Sopelako korrespontsalak gutun trukean lotu ziren elkarrekin horregatik. Antza, jende talde batek –“zalduntxo harro batzuek”, egunkari abertzaleak zioenez– Udalari eskatu zioten “piano biraderadun batekin jende aurrean jotzeko baimena”. “*Lotsagabekeria hutsa*”, *Zabal-anda* korrespontsalaren esanetan. Udalak ezetz eman zion eskaerari<sup>1084</sup>. *Pachik*, egunkari errepublikarreko korrespontsalak, ironiaz zipiztindutako erantzuna eman zuen. Adibidez, piano biraderadunari “*infernuko trepeta*” deitu zion. *Pachik* zioenez, EAJko alderdikide batzuek sinatu zuten eskaera idazkia, “(...) aspalditik lan barik dagoen gizon koittau bat lagundu nahirik”. El Liberalgo korrespontsalak, artikulua amaitzeko, itaun argi-argia egin zion *Zabal-andari*:

“¿Me puede usted ilustrar sobre la diferencia, en orden de trasgresión de preceptos divinos, entre bailar un “schotis” ejecutado por el acordeón de referencia o el pianillo de Manu Antón, pongamos por caso?”<sup>1085</sup>.

1933ko maiatzean, *Beti-gogorrek*, *Euzkadi* egunkarian, jakinarazi zuen ezen Lemoizko alkate Cristóbal Bilbaok “(...) piano biraderadunen eta tresna arrotz guztien funtzionamendua” debekatzeko asmoa zuela Elizateko erromerietan. Korrespontsalak azaldu zuen tresna horiek modan jarri zirela Lemoizen “(...) Diktadura garaiko udalek eta gerokoek bultzatuta”<sup>1086</sup>.

Musikaren kezka agertzeaz gain, abertzaletasunak ahaleginak egin zituen jaien ospakizunari loturiko alderdi tradizional batzuk zaintzeko edo berreskuratzeko, esate baterako aginte-makilen erabilpena udal agintaritzaren sinbolo gisa. “*Antzina-antzinako ohitura euskaldun-euskaldun hori*”, Urdulizen eta Getxon gordetzen zen 1931n, *lñakik Euzkadi* egunkarian aditzera eman zuenez. Korrespontsalaren azalpenen arabera, “(...) antzinako ohitura da erromeria ospatzen den landan aginte-makilak paratzea eta handik agintariek ekitaldiak ikustea(...)”, baina ohitura galtuta zeukaten Sopelan<sup>1087</sup>. Hilabete bat geroago, egun berean *Zabal-Oyarrek* aditzera eman zuen zinegotziei erregutu ziela “(...) “*Eleitz-ondo*”ko landara aginte-makilak eroateko ohitura zaharra berpiztu zitzaten, tamalez Diktaduraren garaietatik galtuta zegoelako”.

1083 *Euzkadi* 1931-10-9.

1084 *Euzkadi* 1931-6-30.

1085 *El Liberal* 1931-7-12

1086 *Euzkadi* 1933-5-31.

1087 *Euzkadi* 1931-6-3.

Zabal-Oyaren proposamena “(...) *polito hartu bazen ere, eta aginte-makilak eroatea erabaki bazen ere(...)*”, ez zen aginte-makilarik atera San Pedrotan, eta bai aldiz horiek “(...) *zokoratuta geratu Udaletxeko aretoan*”<sup>1088</sup>.

Urdulizen, aratusteen ospakizuna, garizumaren atari, 1916ko Udal Ordenantzetan arautua zegoen, eta horiek indarrean jarraitzen zuten Bigarren Errepublikaren garaian<sup>1089</sup>. Aratuste egunetan baimenduta zegoen “(...) *plazetan eta bideetan mozturroturik joatea eta berdin maskara edo katamaloa eroatea*”, baina, aldiz, debekatuta zegoen “(...) *aurpegia estalita eroatea ilun-kanpaiaren ostean, ordu horretan txistularia isilduko da-eta, erromeria egunetan legez*”. Gainera, debekaturik zegoen:

*“(...) usar para los disfraces, trajes que imiten la magistratura, hábitos religiosos, así como cualquier insignia y condecoración de Estado, e igualmente hacer parodias que puedan ofender la Religión del Estado o insultar a las personas con frases que ataquen al honor y reputación de las mismas*”<sup>1090</sup>.

Aratusteen aldean, Garizuma eta Aste Santua barruratze garaia zen. Hala eta guztiz, Errepublikaren etorrerak Urdulizen ikusi bako egoera ekarri zuen berekin, Txiberrik 1933ko martxoan bere herri kronikan jaso zuena. “*Geure Asarrea*” izenburupean, korrespontsalak hau kontatu zuen: “*Lenengo aldiz aurten ikusi dogu garixuman jolasa jai arratsaldetan erri onetan*”. Baita hau gehitu ere: “*Katoliku ta abertzale garean lez geure asarre gogorra erakutsi gura dogu zibilizaziño bari onen aurka*”<sup>1091</sup>.

1932an gutxienez, Bizkaian arazoak egon ziren Aste Santuko prozesioak egiteko, gobernadore zibilak prozesioetarako baimena ukatu zuelako Bilbon, Mundakan, Gernikan, Miraballesen, Galdakaon, Galdamesen eta Gordexolan, eta are ohartarazpen hau egin ere: “(...) *behar den baimena barik eginez gero, alkateak egingo dira erantzule, eta bidezko zigorrak ezarriko zaizkie*”. Itxuraz, halako ekitaldiak gauzatzeko behar ziren tramiteak ez zirelako egin galarazi ziren prozesioak. “(...) *Behar den baimena eskatu bako prozesio guztiak bertan behera geratuko dira*” adierazi zuen, modu horretan. Beste aldean, “(...) *legezko baldintzak bete zituzten*” udalerrriak zeuden, baimena jaso zutenak prozesioetarako. Halaxe izan zen Urdulizen, Sopelan, Berangon, Plentzian edo Mungian<sup>1092</sup>. Urdulizen, prozesioak egiteko ohitura nahiko berria zen; horrela ondorioztatzen da, behintzat, *Euzkadi* egunkarian Plentzian 1935ean idatzitako artikulu bat irakurrita. Hartan aditzera ematen zenez, “(...) *Urdulitz eta Gorlitz auzo herrietatik jende asko etortzen zen lehenago Bariku Gureneko gure prozesioetara, baina orain, badauzkatenez behar diren pausoak, euren prozesioak*

---

1088 *Euzkadi* 1931-7-8.

1089 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Udaleko Estatistika Administrazioa* 1932-12-22.

1090 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, *Urdulizko Elizateko Udal Ordenantzak* 1916-12-26.

1091 *Euzkadi* 1933-3-22.

1092 *El Liberal* 1932-3-17 eta 1932-3-22.

*egiten dituzte (...)*<sup>1093</sup>. Luis Trebolazabalaren lekukotasunaren arabera, prozesioen ibilbidea Andra Mari elizatik “(...) *Krutzejadarainokoa zen, euririk egiten ez bazuen, baina gehienetan euria egiten zuen*”. Beste alde batetik, Aste Santuko ofizio erlijiosoak indartu egiten ziren “(...) *aparteko predikatzaileraren bat edo misiolariaren bat (...)*”<sup>1094</sup> etorrira<sup>1094</sup>. Bariku Gurenean, matrakak eta *pikamailuak* eroaten ziren elizara<sup>1095</sup>. Matrakak erosi egiten ziren; *pikamailuak*, berriz, etxean egiten ziren. Luis Trebolazabalak azaldu zigun zer zen *pikamailua*:

*“(...) una tabla con dos paralelas, y ahí ponías un eje, y a ese eje le ponías un martillo de madera y aquello, según qué madera tuviera, pegaba un ruido más o menos fuerte. Algunos tenían verdaderas preciosidades. Yo recuerdo los carpinteros, los Unibasos, tenían mejores artillugios, bien hechos”*<sup>1096</sup>.

Aisialdirako beste modu batzuei dagokienez, birla jokoa nabarmentzen da, Bizkaiko landaguneetan sano zabaldua. Hala eta guztiz, Urdulizek bere *bolatokia* galdu zuen Bigarren Errepublika etorri baino askoz ere lehenago. Elortzako Alondegiaren alboan zegoen eta 1911ko deskribaketa batetik ulertzen denez, esparru hauen ohiko ereduari jarraitzen zion: “*teilatupe bat, birletan ibiltzeko*”<sup>1097</sup>. 1915aren amaieran, Udalak eraisteko erabakia hartu zuen, bere ustez “*zaramaleku bat baino ez delako eta ez herritarrei onurarik ez udalerriri diru-sarrerarik ekartzen ez dielako, ezpada guztiz kontrakoa (...)*”. Teilak aprobetxatzea erabaki zen, Trenbideko alondegia teila-berritzeko, baita “*behin hormak botata, pretil moduan uztea ere laurogei bat zentimetroko karela*”, aldi berean hesitzako eta jesarlekutzako balioko ziena “*jaiegunetan toki honetan egin ohi den erromeriara etortzen direnentzako*”<sup>1098</sup>.

Frontoiez den bezainbatean, agiritan ez dugu bakar bat ere topatu *Batzokiko* frontoia egin arte. Orri batzuk lehenago esan dugun legez, 1935eko martxoaren 3an inauguratu zen, domeka egunez, *Batzokia* itxiaz zegoela<sup>1099</sup>. Badakigu, halaber, auzuneko bi eskolek frontoi bana zeukatela<sup>1100</sup>, txikiak, ustez.

Azkenik, ezin ahaztu 1934ko abenduan Plentziara heldu zela XX. mendeko olgeta-modu nagusietako bat: zinea. *Euzkadiko* korrespontsal plentziarraren iritiz, *Cinema Plencia* premia bat asetzeraz zetonren, “(...) *gure negu luzeko*

1093 *Euzkadi* 1935-4-24.

1094 Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21.

1095 El *pikamailu* es según *Labayru Hiztegia* un “*martillo eta yunque pequeño que se utilizan para afilar la guadaña*”. [www.hiztegia.labayru.eus](http://www.hiztegia.labayru.eus)

1096 Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21.

1097 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, Urdulizko Udalaren 1907-1917k Erabakien Liburua, Udalerrri honetako landa-finken eta hiri-finken zerrenda 1911-6-2.

1098 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, Urdulizko Udalaren 1907-1917k Erabakien Liburua, Bilkura arrunta, 1915-12-24 Badirudi aitatzen den karel hori dela gaur egun arte Udaletzeko plazan iraun duena eta udaletxe zaharra eraitsi zenean luzatu zena.

1099 *Euzkadi* 1935-3-1.

1100 A.M.U. “Historikoa”, 1. kaxa, “*Lehen Hezkuntzako Eskolak*” karpeta, “Landa” eta “Mendiondo-Dobaran”go eskoletako behin betiko harreraren aktak. Obren Likidazio Orokorra. **1936-5-22**.

*jaiegunetan nabariagoa zena (...)*". Aretoari arrakastaz eman zitzaion irekiera "El signo de la cruz" filma proiektatuz, eta horren osteko bariku eta zapatuan eskaini ziren saioek "makina bat ikusle" erakarri zituzten, besteak beste "inguruko herrietako bizilagun asko: Gorlitz, Urdulitz, Barrika eta abar"<sup>1101</sup>. Antza, zine areto horren irekiera arrakastatsua gertatu zen guztiz: 1935aren hasieran, *Euzkadi* egunkariak aditzera eman zuen "(...) *Cinema Plenciak domeketan betetzen*" jarraitzen zuela. Urtilaren 6an "Madame Butterfly" proiektatu zen eta hil beraren 27an "La hermana San Sulpicio"<sup>1102</sup>. Getxoko Hareeta auzoak ere bere zinea zuen; Urdulizko abadeek irteera egiten zutenean hara eroaten zituzten umeak, Luis Trebolazabala lekuko<sup>1103</sup>.

### 2.5.3 Urdulizen jaiotzea eta hiltzea, osasun eta higie publicoa.

1900etik 1930erainoko tarteko ezaugarria izan zen Euskadiko eta Nafarroako biztanleriaren hazkundera, 911.256 biztanletik 1.237.593era, guztira. Gorakada hori ez zen modu berean banatu, kostaldeko probintziek eurentzako hartu zutelako hazkunde horren zatirik handiena, batez ere immigrazioari esker. Bizkaira etorrita, jaiotzek gora egin zuten 1900dik 1930era; berriz, heriotzek behera egin zuten osasun neurrien ezarpenaren ondorioz. Hala eta guztiz, 1918ko gripeak, "(...) *garai modernoetako azken izurrite handiak*", asko goratu zuen heriotzatas. Ondorioak ondorengo urteetan nabaritu ziren, izurriteak heriotza pila bat eragin zuelako gazteen artean<sup>1104</sup>. Bizkaian, gripe izurritearen atzeak "(...) *batez ere hiri-aglomerazio handietan igarri zen, hau da, Bilbon eta itsasadarreko industria eremuan. Berriz, ondorio eztiagoak izan zituen landaguneetan eta hiribilduetan*"<sup>1105</sup>.

Ustea da gripea 1918ko maiatzean heldu zela Penintsula Iberikora, batez ere "(...) *penintsulako erdialdean, Portugaletik gertuen zeuden probintziei eraginez*". Gaixotasunaren lehen eraso hark "(...) *oso gutxi eragin zion Euskal Herriari*", nahiz eta "(...) *gripearen ondoriozko heriotza batzuk topatzen ditugun ekainean eta uztailaren hasieran*" Gasteizen, Bilbon eta hiri honen metropolian. Antón Erkorekak 1918ko gripear buruz egin zuen ikerketan egiaztatu zuen legez, udak berezko duen klimatologiak "(...) *eten egin zuen izurritearen garapena*". Hartara, abuztuan ez zen kasu bakar bat ere erregistratu. Irailaren hasieran, ostera, eguraldia aldatu zuen eta euria hasi. Horrekin, gripea berriz ere agertu zen, "(...) *garaiko hedabide batzuen arabera, Frantziatik etorrita*", eta modu larrian eragin Irunen eta Hondarribian.

---

1101 *Euzkadi* 1934-12-19.

1102 *Euzkadi* 1935-1-8.

1103 Luis Trebolazabalaren ahozko lekukotasuna 2013-6-21.

1104 PICAVEA SALBIDE, Pedro: "La población en el País Vasco (1900-1930). Evolución, factores de crecimiento y estructura del colectivo social a principios de siglo" in *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía* 16. zk., Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1990, 97-134. (Aipamena: 100-116)

1105 ARBAIZA, Mercedes, GUERRERO, Ana, eta PAREJA, Arantza: "Mundo rural y mundo urbano en la transición de la mortalidad vizcaína (1770-1930) in *Boletín de la Asociación de Demografía Histórica*, XIV, II, 1996, 19-55, aipamena: 52-53.

Bilbon eta Itsasadarreko ertz bietan, bigarren eraso hura “(...) *urrian agertu zen itsumustuan, behera egin zuen azaroan eta erabat desagertu abenduan*”. Bilbon, esate baterako, urrian egon ziren heriotza gehien, 675 hildako, guztira. Azaroan, ostera, 320ra jaitsi zen kopurua<sup>1106</sup>.

Erkoreka doktoreak, bere ikerketan, Plentziako kasua aztertu zuen. Bertan, epidemiak azaroan jo zuen goia, kontuan hartzen baditugu hilabete horretan izandako heriotzak. Gripea, Erkorekak dioenez, Plentziara heldu zen “(...) *Bilboko metropolitik seguruen, harekin oso lotuta eta trenez ondo komunikatuta baitago, orain lehenago bezala*”. Osotara 18 hildako zenbatu ziren gripearen epidemia eta arnas aparatuen gaixotasunak zirela-eta urritik azarora; horrek biztanleriaren %1 esan nahi zuen, 1920aren bueltan 1800 lagun bizi ziren-eta<sup>1107</sup>.

Urdulizen, aztertu ditugu Erregistro Zibilean 1918an kontuan hartutako heriotzak. Plentzian bezala, gailurra azaroan izan zen, batez ere hilabetearen lehen erdialdean. Irailean heriotza bakarra ageri da, 50 urteko gizon batena “*bronkopneumonia grippal*” delakoa zela eta, hilak 5 egun zituela, eta urriaren 11n 23 urteko beste gizonezko bat hil zen “*grippe*”-aren ondorioz<sup>1108</sup>. Urriaren 19an, Batzar probintzialak, Bizkaiko hainbat udalerritara desinfektatzaileak bidali zituen “(...) *sufrea, zotal eta, kreolina, kopuru handitan*”, besteak beste Urduliz, Barrika edo Gatikara<sup>1109</sup>. Bidalketa horrek argi eta garbi erakusten du, zer egoera sufritzen ari ziren herri hauetan. Alde horretatik, sano adierazgarria da Udalean azaroaren 10ean egindako udal bilkuraren aktak jasotzen duen egoera. Bilera hartan, Juan Arambalza alkateak azaldu zuen “(...) *herrian gripeak jota dagoen gaixo kopuruagatik eta egungo epidemia egoera dela eta*” beharrezkoa izana zela Aldundiari desinfekzio materiala eskatzea; udal idazkariari egokitu zitzaion lan hori. Udalak onartu zuen desinfektatzaileak “(...) *ekartzeagatik sortutako gastu guztiak jaun honi ordaintzea*”. Beste alde batetik, lehen zinegotziak honako hau gomutarazi zien bere kideei: “(...) *Aguazil jauna etorri da, etxebizitza askoren desinfekzioari ekin eta gero, eta beti zuen esanetara dago*”. Horregatik, proposatu zion Udal Batzarrari aguazilari ordaintzeko “(...) *oraingo epidemia dela eta egiten dabilen aparteko lan guztiak*”<sup>1110</sup>.

1106 ERKOREKA, Antón: La pandemia de gripe española en el País Vasco (1918-1919), Leioa, Museo Vasco de Historia de la Medicina y de la Ciencia, 2006, 33-51.

1107 Ibíd. 50.

1108 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 3. saila (Heriotzak), 6. liburukia: 1913-1933.


1109 La Gaceta del Norte 1918-10-20.

1110 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, Akta Liburua 1917-1922, Bilkura arrunta 1918-11-10.

Aurreago genioen legez, heriotza gehienak azaroaren 5etik 17ra gertatu ziren; hamar hildako, guztira<sup>1111</sup>. Data horretatik aurrera ez zen Elizatean beste heriotzarik izan, ez gripeak ez beste gaixotasun batek eraginda, abenduaren 22an 70 urteko emakume bat “*bronkioen paralsiak*”<sup>1112</sup> jota hil zen arte. Udalaren akta liburuari esker jakin dezakegu noiz hasi zen jaisten gaixotasunaren eragina, gutxi gorabehera azaroko bigarren hamabostaldian. Izan ere, azaroaren 24an egindako osoko bilkuran aho batez erabaki zen “(...) *aktan jasotzea*” José María Goiri udal medikuari, esker ona agertzea “(...) *azken gripe epidemian laguntzeko egindako zerbitzu ederrengatik*”<sup>1113</sup>.

Jarraian erakusten dugun lehen grafikoan argi eta garbi ikusten da gaixotasunak noiz jo zuen goia; azaroan jazotako heriotza kopuruak islatzen du datu hori. Bigarren grafikoan, aldiz, ikusten da zelan gripeak askoz ere heriotza gehiago ekarri zituen emakumeen artean gizonezkoen artean baino, hain juxtu ere halako bi (8 emakume eta 4 gizonezko). Aldea are handiagoa da azaroko datuei erreparatuta, orduan hildakoen %80 emakumezkoak izan baitziren (8 emakume eta 2 gizonezko).

### 1918KO GRIPEA URDULIZEN <sup>1114</sup>




1111 1918ko azaroan, gripearen eraginez izan ziren heriotzen hurrenkera honelakoa izan zen: hilaren 5ean 42 urteko gizon bat hil zen “*bronkoneumonia grippalak*” jota eta 11 urteko mutiko “*enteritis grippala*” zela eta. Hilaren 7an, 3 urteko neskatxa bat “*grippeak*” jota. Hilaren 9an, 7 urteko beste neskatxa bat, eta hilaren 10ean 14 urteko neska gazte bat “*bronkoneumonia grippalaren*” ondorioz. Hilaren 12an 28 urteko emakume bat, hilaren 13an 31 urteko beste bat, hilaren 15ean urtebeteko neskatxa, hilaren 16an 4 urteko beste neskatxa bat eta hilaren 17an, azken hildakoa, 36 urteko emakume bat.

1112 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 3. saila (Heriotzak), 6. liburukia 1913-1933.

1113 U.U.A. “Historikoa”, 1. kaxa, Akta Liburua 1917-1922, Bilkura arrunta 1918-11-24.

1114 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 3. saila (Heriotzak), 6. liburukia: 1913-1933.

**HERIOTZAK 1918KO GRIPEAGATIK SEXUAREN ARABERA** <sup>1115</sup>

1918ko gripe epidemia itsumustuan agertu zen eta iraupen laburra izan zuen, aste gutxi batzuetara mugatu baitzen. Hala eta guztiz, Anton Erkorekaren estimazioen arabera, Euskadiko biztanleriaren erdia baino gehiago gaixotu zen. Horrek eta heriotza kopuruak ekarri zuten “(...) *alarma sozial handia, zenbait unetan izua zabaltzeraino*”. Beste alde batetik, Estatuan gripe epidemia berriz ere agertu zen 1920ko urtarriletik maiatzera<sup>1116</sup>. Erregistro Zibilean 1920ri dagozkion heriotzak kontsultatu ostean ikusten dugu otsailean 4 izan zirela Urdulizen. Lehenengoa, hilaren 11n, 67 urteko gizonezko batena, “*grippal*”-a izan zen. Beste hiru heriotzek izaera dramatikoagoa izan zuten, bost urtetik beherako hiru ume izan baitziren, denak leinu berekoak: Otazua-Asua familia. Otsailaren 15ean urte beteko Cipriana Otazua hil zen “*bronkopneumonia grippal*” baten ondorioz. 23an bere 4 urteko neba Jose eroan zuen “*bronkopneumonia batek*”, eta egun gutxi batzuk beranduago, otsailaren 28an, anaietako beste bat hil zen, Juan Otazua, arrazoia baita ere “*bronkopneumonia*” bat izan zelarik. Martxora bitarte beste 4 urteko adin txikiko baten heriotza gertatu zen gripear lotuta egon zitekeen bronkopneumoniak jota; eta, beste alde batetik, 11 eta 4 hilabetetako bi haurtxorena kukutxeztulak edo konbultsio-etzulak jota<sup>1117</sup>.

Laburbilduz, 1918an gripeak jo zituen urduliztarren kopuruaren inguruan daturik ez daukagun arren, gaixotasunak bizilagunen talde nabarmen bati erasan zion, azaroaren 10eko aktan jasotako Amezaga alkatearen hitzetatik ondorioztatze dugun legez. Elizatean irailetik azarora bitarte epidemiak ekarritako heriotza kopurua (12) 800 bat biztanleko herri batean (847 1920an), Anton Erkorekak balioetsitako batez bestekoaren barruan koka dezakegu; haren arabera, Euskadin 1000 biztanletatik 12 hil ziren<sup>1118</sup>. 1918ko gripeak eragin zuen *shock*-agatik eta beldurragatik ere, haren afekzio-maila eta hildako kopurua ezin

1115 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 3. saila (Heriotzak), 6. liburukia: 1913-1933.

1116 ERKOREKA, 58-59 eta 61.

1117 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 3. saila (Heriotzak), 6. liburukia: 1913-1933.


1118 ERKOREKA, 61.



daitezke konparatu, esate baterako, 1855ean Uribe Kosta Iarriki jo zuen kolera epidemiaren hondamendiarekin<sup>1119</sup>. Azkenik, esan dezakegu 1918ko gripeak ez ziola galgarik eragin XIX. mendearen amaieratik udalerriko biztanleria ezagutzen ari zen hazkunde etengabeari.

Elizateko biztanleriaren 1900etik 1930era bitarteko bilakaera aztertzen badugu, ikusten da probintziak bere osotasunean segitu zuen hazkunde ereduarekin bat datorrela udalerria, 728etik 989 biztanlera pasatuz. Biztanleriaren hazkunde horrek 1930etik 1940era bitartean jarraitu zuen, eta 1091 biztanlera heldu, beste faktore negatibo batengatik ere: Gerra Zibila.

### BIZTANLERIAREN BILAKAERA URDULIZEN 1900 - 1940 <sup>1120</sup>




1931-1939 epealdiko Urdulizko **jaiotza-tasari** dagokionez, erditze kopurua egonkor mantendu zen 1931etik 1935era; aipatu beharra dago haurgintza kopuru handiena 1933an erregistratu zela eta horren ostean beherakada etorri zela 1936ra arte. Joera horren azalpena krisi ekonomikoaren testuinguruan bilatu behar dugu, udalerriko sare ekonomikoan eragin zuelako, eta ondorioz baita jaiotza-tasan ere. Nahiz eta 1937an haur jaioberrien kopuruak gora egin, gerrak jaiotza-tasan eragin zuen azkenik: 1939an 15 jaioberri baino ez ziren erregistratu. Bistan denez, egoera hau gatazka belikoari lotutako hainbat faktoreren ondorioa da: gosea, estura ekonomikoak, urduliztar talde nabarmen baten espetxeratzea edo gazteen alistamendua armada frankistan.


1119 "(...) Algorta, el barrio mas ventilado y que reúne muy buenas condiciones higiénicas, ve diezmada su población. Allí, y en sus cercanos pueblos de Guecho, Barrica, Sopolana, Urduliz y otros, han perecido los hombres de la ciencia, boticarios, y gentes muy bien acomodadas. Pero, sobre todo, en donde el mal se presenta con mas ira es en la villa de Plencia, la cual ha sido ya diezmada sin piedad, y, según nuestras noticias, será la que mas ha padecido hasta ahora dentro del Señorío. Allí, estacionado el azote, lleva al sepulcro mas de diez víctimas cada día. Las gentes, aterradas con tanta crueldad, huyen despavoridas de sus lares, porque, infestados venenosamente, hallan en ellos una muerte segura é inevitable" (La España 1855-9-18)

1120 ITURBE MACH, 115, eta [www.ine.es](http://www.ine.es) INEbase / Demografía y población / Alteraciones de los municipios en los Censos de Población desde 1842/ Urduliz.

**JAIOTZA KOPURUA URDULIZEN 1931-1939** <sup>1121</sup>




**HERIOTZA KOPURUA URDULIZEN 1931-1939** <sup>1122</sup>




1121 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 1. saila (Jaiotzak), 10. liburukia: 1929-1943; eta A.H.E.B. Libro de Bautizos Parroquia Andra-Mari de Urduliz.

1122 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 3. saila (Heriotzak), 6. liburukia: 1913-1933 eta 7. liburukia: 1934-1951; eta A.H.E.B. 0447/001, 6. liburua: Hildakoak, Urdulizko Andra Mari Eliza 1918-1971.

**HAURREN HERIOTZA-TASA URDULIZEN 1931-1939** <sup>1123</sup>



**Nº DE DEFUNCIONES URDULIZ 1931 - 1939** <sup>1124</sup>



Euskadin, oro har, XVIII. mendearen amaieran kokatzen da heriotza-tasaren jaitsiera. Beherakada hori hainbat faktorek eragin zuten: alde batetik, baztangaren kontrako txertoaren sartze goiztiarra, haurren heriotza-tasaren eragile handienetakoa zelako. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko medikuntza sailak sustatu zuen txertoaren etorrera eta zabalkundea, izpiritu ilustratuaren ereduari jarraituz. Beste alde batetik, XIX. mendean Euskadiko antolaketa politikoaren berregituraketari esker erakunde probintzialak indartu ziren udal eremuko botereen aurrean. Horren ondorioz martxan jarri ziren "(...) *politika*

1123 Ibíd. 1933ko abortua Erregistro Zibileko Jaiotzen Liburuan agertzen da eta ez heriotzenezan.

1124 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 3. saila (Heriotzak), 6. liburukia 1913-1933 eta 7. liburukia: 1934-1951; eta A.H.E.B. 0447/001, 6. liburua: Hildakoak, Urdulizko Andra Mari Eliza 1918-1971.

*sanitario koordinatuak eta orokorrak biztanleria guztiarentzat*". Horren emaitza da "(...) *azpiegiturak hobetzeko obra multzo bat udalerrri gehienetan*", hala nola iturriak, plazak, merkatuak-eta, osasunaren egoera hobetzeko helburuarekin. Azkenik, XIX. mendearen beste operari bat izan zen "(...) *elikagaien horniduraren hobekuntza etengabe bat, edozein biziraupen-krisirekin amaitzea lortu zuena ia*". Alde horretatik, esate baterako, Euskadin garrantzi ikaragarria izan zuen, XIX. mendearen hasieran patataren laborantza sartzeak<sup>1125</sup>. Heriotza-tasak behera jarraitu zuen XX. mendearekin euskal lurraldeetan, Nafarroa barne; horretarako, erabakigarria izan zen neurri mediko higienikoen aplikazioa<sup>1126</sup>.

Hala eta guztiz, **haurren heriotza-tasa** oso altua zen aurreko mendearen hasieran. 1900tik 1940ra, berriz, "(...) *neurritzko beherakada apal bat* (gertatu zen), *gorabeherak gorabehera beherako joera argia zuena*". Salbuespenak izan ziren arestian aipatu dugun 1918ko gripe epidemia, esan bezala, haurrak bereziki kolpatu zituen, eta Gerra Zibila. Haurren heriotza-tasaren jaitsiera lotuta dago aipatu berri den hobekuntza mediku-sanitarioekin, baita "*oro har, nutrizioaren hobekuntzarekin eta, zehatzago, esnearen pasteurizazioarekin*". Alde horretatik, Ainhoa Alustizaren ustetan, arrazoi exogenoak dira haurren heriotzaren jatorri nagusiak, hau da, gaixotasun infekziosoak, desnutrizioa eta istripuak<sup>1127</sup>.

Urdulizko Erregistro Zibileko Heriotzen Liburuaren azterketak aukera ematen digu 1931tik 1939rako 0 eta 11 urte bitarteko adingabeen hilezkortasunaren kausak jakiteko. Ezer baino lehen, aipatu beharra daude hiru abortu; horietatik, gizonezko eta emakumezko umeki bana haurdunaldiko bosgarren hilabetearen. Jaioberriei dagokienez, arnasteko zailtasuna da erregistratutako sei jaioberrietako bosten heriotzaren kausa (hirurena, birikako atelektasia, eta birena asfisia); seigarren umea, berriz, eklampsiak jota hil zen<sup>1128</sup>.

Bizitzako lehen eta hamaikagarren hilabetearen artean, arnas infekzioak izan ziren heriotza kausarik ohikoena: hiru umetxo hil ziren pneumoniagatik, bi bronkitisagatik eta bat pleuresiagatik. Beste alde batetik, enteritisak hiru heriotza eragin zituen; hura heste-lodiko gaixotasuna da, normalean bakteriek –*E Coli* delakoak, bereziki– kutsatutako ur edo elikagai kontsumoak pizten duena. Peritonitisa, eklampsia, hidrozefalia eta meningitis tuberkulosoak izan ziren beste lau heriotzen eragileak <sup>1129</sup>.

Urtebete eta bost urteren artean berriz, lau ume hil ziren arnas aparatuko gaitzek jota (hiru pneumonia kasu eta kukurruku-eztul bat), eta hiru, berriz, meningitis tuberkulosoaren eraginez. Bi gehiago peritonitisak eroan zituen, eta beste bi enteritisak. Gainontzeko hirurei, hurrenez hurren, bihotzaren kolapsoak,

1125 ARBAIZA, GUERRERO eta PAREJA, 39-43.

1126 PICAVEA, 115.

1127 ALUSTIZA GALARZA, Ainhoa: Población, familia y vejez en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Memoria de Investigación, Bellaterra, Universitat Autònoma de Barcelona, 2003, 28.

1128 URDULIZKO ERREGISTRO ZIBILA, 3. saila (Heriotzak), 6. liburukia: 1913-1933, eta 7. liburukia: 1934-1951.

1129 *Ibid.*

hesteetako buxadurak eta burbuin-abszesuak ekarri zien heriotza. 6 eta 11 urte bitarteko adin tartean, hildako bi baino ez ditugu dokumentatu, bat bihotzaren paralisiaren eraginez eta bestea asfixiaz<sup>1130</sup>.

Erregistro Zibilean, 18 eta 59 urteren artekoen heriotzen kausak ugariak dira 1931-1939 epealdian. Arnas gaixotasunak nabarmentzen dira batez ere: bost pneumonia kasu eta biriketako lau tuberkulosi. Heriotzaren gainerako kausak, esan den legez, askotarikoak dira; esate baterako, septizemia bat topatu dugu, sarkomatosis bat eta tabes dorsalis bat; azken hau, normalean, sifiliak eragiten du<sup>1131</sup>.

Azkenetako ditugu 60tik 100 urtera bitarteko hilezkortasun kausa nagusiak. Bihotz-hodietako gaixotasunak daude lehenengo lekuan, hamalau kasu guztira (bihotzeko gutxiegitasuna eta gutxiegitasun mitrala, endokarditisa eta miokarditis kronikoa). Bigarrenean, arnas aparatuen gaixotasunek eragindako heriotzak: zazpi pneumonia kasu dokumentatu dira, bost bronkitis kroniko eta bronkitis akutu bat. Hirugarrenez, aipatzekoak dira burmuineko odoljarioak jota zendutakoak, hamar guztira; hauei beste bi gehitu behar genizkieke, hemorragia mota horren ondoriozko apoplexiak jota. Orobat nabarmendu behar dira giltzurrunetako gaixotasunekin lotutako bost kasu (hiru heriotza uremiagatik eta beste bi Brighten gaitzagatik) eta beste lau minbizi kasu, horietako hiru, urdailekoak<sup>1132</sup>.

Infekzio gaitzei dagokienez, gripearen konplikazioek eragindakoak ziren arnas gaixotasunei lotutako zenbat heriotza. Ez dugu ezagutzen udalerrian izandako gripe kasu kopurua, ezta zenbat urduliztar jo zituen tuberkulosiak, izaera endemikoko gaixotasuna berau. Zortzi heriotza kontatu ditugu Urdulizen gaitz kutsakor honi lotuak. 1931n hiru erregistratu ziren: 17 urteko gazte batena, meningitis tuberkulosoak jota; 23 urteko beste bat, biriketako tuberkulosiaren ondorioz, eta 26 urteko emakume bat, giltzurruneko tuberkulosiak eraginda. 1934an, 4 urteko neskato bat hil zen meningitis tuberkulosoak jota; berriz, 1935ean biriketako tuberkulosia izan zen 33 urteko andrazko baten heriotzaren eragilea. 1936an 46 urteko beste emakume baten heriotza erregistratu zen biriketako tuberkulosia dela-eta. 1939an, berriz, 26 urteko gizonezko batena, eragile berbera izanda. Urte horretan 10 hilabeteko umetxo bat ere hil zen meningitis tuberkulosoaren ondorioz<sup>1133</sup>.

Inguruko herrietako jazotakoarekin alderatze baten faltan, Urdulizko kasurako darabiltzagun datuetatik ez da ondorioztatzen udalerria joera orokorretik desbideratzen zenik. 1900-1940 bitarteko garaia biztanleriaren hazkunde jarraitua adierazten digu, eta 1931-1939 bitarteko jaiotzek eta heriotzek ez dute aldakuntza nabarmenik erakusten. Ikusten dugunez,

---

1130 Ibíd.

1131 Ibíd.

1132 Ibíd.

1133 Ibíd.

txertaketa eta osasun-kontrolak emaitza onak ekarri zituzten. Aipatzekoa da, hala ere, umeen heriotza-tasak halako une batzuetan izandako gorakada, hala nola 1935ean, Urdulizko udalerrriaren krisi ekonomikoaren urte latzenean hain zuzen ere, bederatzi heriotzarekin; edo 1937an, beste bederatzirekin, gatazka belikoak hainbestearaino okertu zituen-eta elikadura- eta osasun-baldintzak.

Arestian aitatu ditugun neurri mediku-sanitarioen barruan azpimarratzekoa da **Udaletako Osasun Batzarren** sorrera, tokiko osasun egoeraren zainketaren eta kontrolaren arduradun. Urdulizen, 1915eko urtarrilaren 12an sortu zen batzar hau. Orduko alkatea, José Arambalza, izan zuen lehendakari; berriz, José María Goiri, udal mediku eta osasunaren udal ikuskaria, idazkari ibili zen. Batzarrak bi bokal zituen: Eusebio Gallaga udal albaitaria eta Luis Navarro udal idazkaria. Azkenik, bokal moduan zeuden beste bi bizilagunek borobiltzen zuten lehen batzar horren egitura<sup>1134</sup>. Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburuan jasotako jarduera gehiena XX. mendeko 20ko hamarkadan kokatzen da eta infekzio gaitzetan finkatzen da bereziki. Gainera, denboraren joan-etorrian Batzarrak izandako berritzea jasotzen ditu. Interesgarria da bilera hauetako aktek ematen diguten informazioa, gaitz kutsakorren aurrean hartutako neurrien berri ematen baitigu.

Esan beharra dago liburu horretan ez dela inongo bilerarik agertzen 1918eko **gripe** epidemiak bultzatuta. Gaixotasun horren lehen aipamena 1924ko otsailekoa da. Garai honetan, Urdulizen “*zenbait gripe kasu*” izan ziren, eta haien zabalkundea ekiditeko asmoz, Batzarrak establezimendu publikoak desinfektatzeko agindu zuen, “(*...*) *baita komunak, ukuiluak, etab. ere, gatz kloruroa erabiliz soluzioan*”. Gainera, gobernadore zibilaria “(*...*) *aitatutako gripe kasuei*” buruzko informazioa eman zitzaion<sup>1135</sup>. 1927ko urtarrilean, “(*...*) *larritasunik gabeko hiru kasu*”<sup>1136</sup> erregistratu ziren, baina oraingoan, gaitza ez zabaltzeko erabilitako protokoloa zorrotzagoa izan zen. Medikuek, bere kabuz, agindu zuen “(*...*) *gaixoen etxeen desinfekzioa, horretarako erabiliz kobre sublimatuko sulfatoaren disoluzioa edo kare kloruroa*”(…), Batzarrak desinfekzioa “(*...*) *Elizateko etxe guztietara*” zabaltzeko agindua noiz emango. Batzarra noizbait jabetu zen egoeraz, eta desinfektatzeko ordenatu zien bizilagunei, etxeak ez ezik “(*...*) *ahoa ere, azido boriko, erresorzina eta halakoen disoluzioen behin eta berriro garbituz, eta sudur-zuloak ere bai, olio gomenolatu mentoldunaz baliaturik*”. Agindua establezimendu publiko guztietara zabaldu zen, egunero desinfektatu behar baitziren, kobre sublimatuko sulfatoaren disoluzioa edo kare kloruroa erabiliz, komunitan batez ere. “(*...*) *Jendea biltzen diren lokalak aireztatzeko*” agindu zen aldi berean; abade nagusiari eliza, elizkizunen ostean, eta maisu-maistrei eskolak, modu honetan: “(*...*) *klaseko orduen ostean lokalak erabat aireztatu behar dira eta desinfektatu, baita komunak ere, aipatutako disoluzioekin*”. Beste

1134 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua, *Udaleko Osasun Batzarraren Eratze-akta 1915-1-12*.

1135 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1924-2-19.

1136 Ohar moduan, aitatzekoa da 1928ko apirilean, medikuek zenbat gripe kasuren berri eman zion Osasun Batzarrari, eta ohi legez ekin zitzaion gaixotasunariel médico comunicó a la Junta de Sanidad la existencia de varios casos de gripe, procediéndose a actuar ante la enfermedad de la forma habitual (U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, *Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1928-4-28*).

betebehar bat: “(...) *gaixorik egon den ume bat eskolan onartu aurretik, aztertu duen medikuaren alta eskatzea*”<sup>1137</sup>.

(HEMEN)Dena dela, azken kontu hori ez zen beti erraza. Oinarrizkoa dirudi gaixorik dagoen umea bakartzeak eta medikuarengana eroateak, baina gurasoek, sarritan, ez zuten horrela jokatzeko eta horrek bere ondorioak ekartzen zituen. Esate baterako, 1927ko uztailan, hamar **elgorri** kasu erregistratu ziren herriko eskolan. Udaleko Osasun Batzarrak jakin zuenez, gaixotu zen lehen haurrak “(...) *ez zuen laguntza medikurik eskatu*”, “(...) *eskolan azaldu zen hiru egunetara eta ikaskideak kutsatu*”. Egoera honen aurrean, medikuak gaixotutako haurrak bakartzeko agindu zuen, baita “(...) *eskola ixteko gomendatu ere (...), bereziki ikasturtearen amaieran egonda*”<sup>1138</sup>.

**Sukar tifoidea** da Udaleko Osasun Batzarraren bileretako aktetan maizen agertzen den gaitza. Berbarako, 1917ko otsailan, Urdulizko zenbait bizilagun gaixotasunak jota zeudela-eta, zenbait neurri hartu ziren haren hedapena ekiditeko. Alde batetik agindu zen “(...) *gaixotutako bakartzeko eta euren arropak desinfektatzeko*”. Arropak, dena dela, ezin ziren garbitu “(...) *errekastoetan, aurretik karbonato edo kloruro sodikoaren (gatz arrunta) soluzio batean irakiten ipini barik*”. Beste alde batetik, konturatuta zeudenez urte batzuk bazirela gaixotasuna “(...) *modu endemikoan*” agertzen zela Landan eta Elortzan, proposatu zen “(...) *albeit arinen (...)* auzune horietako iturri nagusietako *laginak*” biltzea eta Bilboko Udal Laborategi Kimikora bidaltzea, horien azterketa bakteriologikoa egin zezaten. Analisisietan “(...) *Cole edo Eberth-en baziloak*” aurkituz gero, ukitutako iturriak ixteko prest zeuden<sup>1139</sup>.

1923ko urrian aurkitzen ditugu ostera ere sukar tifoideak. “(...) *Hareetatik Plentziarako trenbidearen geltokian bi kasu*” agertu zirenean, Batzarrak gaixoen bakartzea agindu zuen eta “(...) *euren arropen desinfekzioa, baita aipatutako geltokiko lokalena ere*”, gaixoen arroparen garbiketa inongo errekastotan debekatzeaz gain “(...) *lehenago irakiten ipini aurretik*”<sup>1140</sup>. Horrenbestez, ondorioztatu dezakegu eraginkortasun handiagoz jokatzeko zela gaixotasun honen agerpenaren aurrean. Alde horretatik, aipagarria da Juan De Dios Zubicaray medikuak erakutsitako azkartasuna Urdulizko Juan Abaroa bizilagunari sukar tifoidea diagnostikatu zionean. Zubicarayk berehala agindu zuen kutsatua bakartzeko eta, horrez gain, Abaroa bizi zen *Elortza Aurrekoa* baserriko biztanle guztientzako txertoa, desinfekzioa “(...) *bai logelena bai etxeko gainerako gelena, gatz-kloruroaz*”, baita irakiten jartzea ere “(...) *gaixoak erabilitako arropa guztiak (...)* garbitu aurretik”<sup>1141</sup>. Hurrengo urtean beste kasu bat detektatu zen “(...) *Arechaga deituriko etxean*”, eta antzeko neurriak hartu ziren ekiditeko gaitza “(...) *herrian zehar zabaltzea*”. Eriaren arropak irakiten

---

1137 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1927-1-14.

1138 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1927-7-10.

1139 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua, 1917-2-4.

1140 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua, 1923-10-13.

1141 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1926-1-11.

ipintzeko orduan, etxeko gainerako kideen arropetatik bereizita jartzeko agindu zen, horra aldaketa bakarra<sup>1142</sup>.

1929an beste bi kasu agertu ziren. Ohiko neurriez gain, xedapen berriek agerian jartzen dituzte sukar tifoidearen kontrako borrokan egindako aurrerapenak, esate baterako txertoen aplikazioa ez soilik gaixoaren hurbilekoei baizik eta inguruko bizilagunei ere. Hartara, ekainean, Elortzako Alondegiko biztanleetako bati eritasuna diagnostikatu zitzaionean, medikuak, ohiko bakartze aginduaz aparte, eta “(...) arropen, gorozkien, komunaren eta etxeko gainerako gelen desinfekzioa” agintzeaz aparte, (...) kasuari susmo txarra hartu zion momentuan” Probintziako Higiene Institutuari eskatu zion “(...) tifusaren aurkako beharrezko txertoa aipatutako auzuneko (Elortza) bizilagunentzat”. Behin horren guztiaren berri izanda, Udaleko Osasun Batzarrak agindu zuen “(...) egunero etxe honetako lokalen desinfekzioa gauzatzeko”<sup>1143</sup>. Ez du ematen inongo momentutan alondegia itxiera agindu zenik, nahiz eta saltegi publikoa izan; nahikoa zirudien lokalaren eguneroko desinfekzioak eta auzuneko bizilagunak aipatu bezala txertatzeak. Urrian, Iturriaga baserrian bigarren kasu bat atzeman zenean, ohiko protokoloa aplikatu zen. Aurreko kasuan legez, aurrera eraman zen “(...) etxe berean eta inguruetan bizi diren pertsonen txertaketa” eta orobat agindu zen baserriaren eta arropen eguneroko desinfekzioa<sup>1144</sup>.

**Batzangari** dagokionez, gaixotasun honen kontrako txertoa aldizka jartzen zen nahitaez. Esate baterako, 1923ko urrian, Udalak agindu zion abade nagusiari domekako mezetan (hurrian urriaren 21ekoetan) aditzera emateko batzangaren aurkako txertoa derrigorrezkoa zela eta horretarako bizilagun guztiek medikuarengana jo behar zutela<sup>1145</sup>. Agintarien ahaleginagatik ere, gaixotasuna 1928ko udan azaldu zen. Medikuak, eduki zuenean “(...) kasu sumagarri baten berri, familiari agindu zion bakartzeko” eta etxea, gaixoaren arropak eta ontziak desinfektatzeko. Beste alde batetik, Zubicarayk azaldu zuen eria zaintzen ari ziren pertsonak eskuak desinfektatu behar zituztela “(...) soluzio antiseltikoekin, hala nola burdina azido sublimatua (edo) kobre sulfatua”. Beste alde batetik, etxebizitzaren gaineko solairuan bizi ziren lagunen kutsadura ekiditeko, “(...) gaixoaren etxebizitzarekin partekatzen zuten portaletik pasatu behar ziren eta”, agindu zuen “(...) portale honetik etxebizitzaren komunikazio oro ixteko, etxeko albo bateko atea geratuko zelarik derrigorrez horretarako”<sup>1146</sup>.

1142 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1927-8-22.

1143 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1929-5-28.

1144 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1929-10-18.

1145 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, 1922-1930ko Akta Liburua, Bilkura arrunta 1923-10-20.

1146 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1928-7-28.



Behin, gutxienez, Udaleko Osasun Batzarra animalia-infekzio batez arduratu zen, **sukar aftosoa**. 1925eko udaberrian, udal albaitari Eusebio Gallagak alkateari esan zion “(...) herri honetako trenbidearen geltokian zortzi bildots aurkitu zituela” gaixotasun honek jota. Batzarrak erabaki zuen zortzi animaliak sendatu arte isolatzeko eta geroago bakartuta egon ziren lokala desinfektatzeko<sup>1147</sup>.

Bigarren Errepublika indarrean egon zen bitartean, Batzarrak ez zuen ia jarduerarik eduki, 1936ko urtarrilaren 1eko berritzea salbu. Batzarra honela geratu zen osatuta:

<b>UDALEKO OSASUN BATZARRA 1936-1-1</b> <sup>1148</sup>	
<b>Lehendakaria</b>	Antonio Larrabeitia (Alkatea)
<b>Idazkaria</b>	Juan de Dios Zubicaray (Medikua eta Udaleko Osasun Ikuskaria)
<b>Bokalak</b>	Eusebio Gallaga (Ikuskari Albaitaria) Andrés Martín (Maisu Nazionala) Juan Bautista Unibaso Echegaray (Bizilaguna) Lorenzo Unibaso Echegaray (Bizilaguna)

1932ko abenduko Udal Estatistika Administratiboari esker ezagutzen dugu Urdulizko egun horietako osasun-egoera. Estatistika horren arabera, urte hartan, bizilagun bi hil ziren tuberkulosiak jota<sup>1150</sup>, eta beste hamabi<sup>1151</sup> zehaztu gabeko beste gaixotasunengatik. Ehun pertsoneri jarri zitzaizkien baztergaren aurkako txertoa eta bakar bati ere ez sukarraren tifoidearen aurkakoa, nahiz eta adierazi zen gaixotasun honen kontra “(...) bizilagunen gehiengoak txertoa jarri daukala”<sup>1152</sup>.

1147 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1925-5-4.

1148 U.U.A. “Historikoa”, 5. kaxa, Udaleko Osasun Batzarraren Akta Liburua 1936-1-1.

1149 Ulertzekoa denez, Batzarraren lehendakaritza Enrique Legarraren eskutara etorriko zen, herriak hautatutako Udala berrezartzean, Fronte Popularrak urte bereko otsailean hauteskundeak irabazi ostean.

1150 Hala eta guztiz, Erregistro Zibilean ez dugu inongo hildakorik topatu gaixotasun horren ondorioz. Ezta Andra-Mari parrokiako Hildakoen Liburuan ere, bertan udalerritik kanpora hildako urduliztarren heriotzak apuntatzen ziren arren.

1151 Urte hartan zendutakoen batura 12 da hain zuzen, Erregistro Zibileko datuak eta Andra-Mari parrokiako Hildakoen Liburukoak alderatuta.

1152 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, *Udaleko Estatistika Administratiboa 1932-12-22*.

Udal ordenantzetan jasotako etxebizitzaren higie-ne neurriak, hau da “(...) *haien barne saneamendua, hustubideak eta izaera higieniko-sanitarioko beste neurriak*” eraikuntza berriko etxebizitzetan baino ez ziren betetzen. Establezimendu publikoetan “(...) *indarrean zeuden osasun aginduak*” konplitzen ziren, baina lokal horietako batzuek ez zuten edateko ur zerbitzurik<sup>1153</sup>. Eraikin berriei Udaleko osasun ikuskatzailearen bisitaren tramitea pasatzen zitzairen; kargu hau, arestian esan bezala, medikuak zuen. Esate baterako, 1932ko abenduan, Juan Abaroak, José Uribek, Antonio Arambalzak eta Francisco Madariagak eraikitako etxebizitzak bisitatu ziren. Ikuskatzailearen txostenak zionez, den-denek betetzen zituzten “(...) *Osasun-Erregelamenduak exijitzen dituen baldintzak*”, Juan Abaroaren etxea salbuespen. Ez “(...) *taberna moduan erabiltzen zen lokalak*” ez “(...) *etxearen gainerakoak ez du ur zerbitzurik, ez mostrandoreak ezta komunak ere ez*”. Pentsatzekoa da Abaroak eraikuntzak zituen hutsuneak zuzenduko zituela. Modu guztietan ere, Udalak “(...) *bizigarritasun baimena*” eman zien aipatutako jaunei<sup>1154</sup>.

1932ko estatistikarekin jarraituz, eskola publikoek osasun arazo larri bat zuten, ur falta komunetan, eta horregatik ez ziren erabiltzen. Komunak, gehienetan, etxebizitzetatik kanpo egoten ziren. Ez zegoen estolderiarik eta ur beltzak putzuetan biltzen ziren, aurretik kanpo lubaki batetik igaro ostean. Edateko uraren hornidura sarerako hargunea biztanleriaren zati bati baino ez zitzaion etortzen, ez baitzegoen “(...) *kantitaterik ez presiorik herri osoarentzako*”<sup>1155</sup>.

Azkenik, abereen osasun eta higie-neari dagokionez, Urdulizek ez zeukan hiltegiarik. Estatistikaren arabera, baserrietan txerriak beste animaliarik ez zituzten hiltzen. Ateratako haragia erabili zitekeen albaitariarekin ikuskatzearen ondoren<sup>1156</sup>.

---

1153 Urte hartan zendutakoen batura 12 da hain zuzen, Erregistro Zibileko datuak eta Andra-Mari parrokiako Hildakoen Liburuak alderatuta.

1154 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, *Bilkura arrunta* 1932-12-1.

1155 U.U.A. “Historikoa”, 3. kaxa, Udaleko Estatistika Administrazioa 1932-12-22.

1156 *Ibid.*

Atal hau ixteko, aitatzekoa da Urdulizko mediku titularra, aipatutako Juan de Dios Zubicaray, 1933ko martxoaren 17an harrapatu zuela “(...) *Cerámica de Berangoko auto-kamioiak (...) eta larriki zauritu*”. Istripua arratsaldeko ordu bietan izan zen “(...) *Bilbotik Plentziarako errepidearen 20. kilometroan, Lorza (sic) deituriko puntuan*”, eta Zubicaray atenditu zuten “(...) *hasiera batean Sopela*<sup>1157</sup> *eta Plentziako (mediku) titularrek*”; hauek medikuaren egoera ikusi zutenean Bilboko San Sebastian doktoarearen klinikara eroatea erabaki zuten<sup>1158</sup>. Jazoera hau zela eta, Urduliz sendagile baten zainketa barik geratu zen. Zubicarayk berak proposatu zuen bizkortzen zen bitartean Manuel Aldamiz doktoorea izatea bere ordezko. Udalak aholkuari jarraitu zion eta martxoaren 26an mediku titular izendatu zuen, Zubicaray “(...) *bere lanbidearen jardunean bizilagunk atenditzeko moduan*” aurkitu “(...) *arte*”<sup>1159</sup>. Bai *Euzkadi* egunkariak bai *El Liberal*-ek ere jaso zuten harrapaketaren berria. *Txiberrik*, egunkari nazionalistaren korrespontsalak, gogorazi zuen bere gertakariaren narrazioan zein estimatua zen Zubicaray Urdulizen<sup>1160</sup>; *El Liberal*-en adierazpena, berriz: “(...) *ezbeharrak atsekabetuta utzi zuen herria*”<sup>1161</sup>. Medikua klinika bilbotarrean egon zen maiatzaren hasiera arte; momentu hartan “(...) *etxera eroan zuten (...) bere minetatik nahiko osatuta*”<sup>1162</sup>.

---

1157 Landa doktoorea, *Euzkadin* 1933-3-22an jaso zen bezala.

1158 B.F.A.H. AQ 00494/424 Plentziako Minoien postuaren txostena 1933-3-18.

1159 U.U.A. “Historikoa”, 2. kaxa, 1931-1937ko Akta Liburua, *Bilkura arrunta* 1933-3-26.

1160 *Euzkadi* 1933-3-22. “(...) *Badaki Jon jaunak ta bere sendi gustijak zenbat matte dogun errijan ta Jaunari ezkatuten dautso gula gustiz osatuta errijan barriro ikustia bijotz-bijotzez opa-dogula*”.

1161 *El Liberal* 1933-3-18.

1162 *Euzkadi* 1933-5-14.